

Egunean Eguneko
Ebanjelioa

2023 Urtea

Egutegi liturgikoa
Egunean Eguneko Ebanjelioa
Igande eta Jai-egunetan irakurgai guztiak
Otoitzak eta Debozioak

Egunean eguneko iruzkin laburrak gaztelaniaz:
Margarita Saldaña andreak

Testu liturgikoak:
Liturgiarako liburuetatik;
batzuk EABtik;
itzultzailearen ukitu batzuekin.

Mezulari

Debekatua dago, legeak jasotako salbuespenetan izan ezik, lan honen kopiarik egitea, banaketa burutzea, jendaurrean zabaltzea eta aldatetak egitea jabetza intelektualaren titularren baimenik gabe. Aipatu eskubideen urratzea jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke (Zigor Kodea, 270 eta hurrengo artikulua). Erreproduktzio Eskubideen Espainiar Elkarte (www.cedro.org) da eskubide horien babesaz arduratzen dena.

**Liburua eratu eta euskaratu: Dionisio Amundarain OSB, Andoni
Sarriegi eta Anizeto Ajuriagogeaskoa
Argitalpen honen erantzulea: Koldo Katxo, SJ.**

Azaleko argazkia: Sinodoa 2021-2023 (logotipo ofiziala).

© Mezulari, 2022
Grupo de Comunicación Loyola
Aita Lojendio kalea, 2
48008 Bilbo
Tel: 94 447 03 58
info@gcloyola.com
www.gcloyola.com

ISBN: 978-84-271-4643-3
Lege gordailua: BI-802-2022
Maketazioa: Marín Creación, S. C. / www.marincreacion.com
Inprimategia: Grafo, S. A. – Basauri (Bizkaia) / www.grafo.es

Aurkibidea

Egutegia 2023	4
Sarrera	5
Festaburuak eta jai mugikorak 2023an Ospatzeko jai nagusiak 2023an	8
Eguneko ebanjelioa eta irakurgaiak:	
Urtarrila	9
Otsaila / Zezeila	55
Martxo / Epaila	103
Apirila / Jorraila	163
Maiatza / Orrila	241
Ekaina / Bagila	289
Uztaila / Garagarrila	337
Abuztua / Dagonila	387
Iraila	437
Urria / Urrila	489
Azaroa / Zemendia	535
Abendua / Gabonila	585
Otoitzak eta debozioak	641

URTE LITURGIKOA 2023 A-B URTEKOA

Asteak	Ig	Al	As	Az	Ot	Or	Lr
URTARRILA							
Maria A	1	2	3	4	5	6	7
Bataio A	8	9	10	11	12	13	14
2. Urt A	15	16	17	18	19	20	21
3. Urt A	22	23	24	25	26	27	28
4. Urt A	29	30	31				
OTSAILA							
4. Urt A			1	2	3	4	
5. Urt A	5	6	7	8	9	10	11
6. Urt A	12	13	14	15	16	17	18
7. Urt A	19	20	21	HE	23	24	25
1. Gar A	26	27	28				
MARTXOA							
1. Gar A			1	2	3	4	
2. Gar A	5	6	7	8	9	10	11
3. Gar A	12	13	14	15	16	17	18
4. Gar A	19	20	21	22	23	24	25
5. Gar A	26	27	28	29	30	31	
APRILA							
5. Gar A							1
Aste S A	2	3	4	5	OS1	OS2	8
Pazk ig A	9	10	11	12	13	14	15
2. Pazk A	16	17	18	19	20	21	22
3. Pazk A	23	24	25	26	27	28	29
4. Pazk A	30						
MAIATZA							
4. Pazk A		1	2	3	4	5	6
5. Pazk A	7	8	9	10	11	12	13
6. Pazk A	14	15	16	17	18	19	20
Igokun A	21	22	23	24	25	26	27
Mend.	28	29	30	31			
EKAINA							
8. Urt A					1	2	3
HS A	4	5	6	7	8	9	10
Corp. A	11	12	13	14	15	JB	17
11. Urt A	18	19	20	21	22	23	24
12. Urt A	25	26	27	28	29	30	

Asteak	Ig	Al	As	Az	Ot	Or	Lr
UZTAILA							
12. Urt A							1
13. Urt A	2	3	4	5	6	7	8
14. Urt A	9	10	11	12	13	14	15
15. Urt A	16	17	18	19	20	21	22
16. Urt A	23	24	25	26	27	28	29
17. Urt A	30	31					
ABUZTUA							
17. Urt A			1	2	3	4	5
18. Urt A	6	7	8	9	10	11	12
19. Urt A	13	14	15	16	17	18	19
20. Urt A	20	21	22	23	24	25	26
21. Urt A	27	28	29	30	31		
IRAILA							
21. Urt A						1	2
22. Urt A	3	4	5	6	7	8	9
23. Urt A	10	11	12	13	14	15	16
24. Urt A	17	18	19	20	21	22	23
25. Urt A	24	25	26	27	28	29	30
URRIA							
26. Urt A	1	2	3	4	5	6	7
27. Urt A	8	9	10	11	12	13	14
28. Urt A	15	16	17	18	19	20	21
29. Urt A	22	23	24	25	26	27	28
30. Urt A	29	30	31				
AZAROA							
30. Urt A				1	2	3	4
31. Urt A	5	6	7	8	9	10	11
32. Urt A	12	13	14	15	16	17	18
33. Urt A	19	20	21	22	23	24	25
34. Urt A	26	27	28	29	30		
ABENDUA							
34. Urt A						1	2
1. Aben B	3	4	5	6	7	8	9
2. Aben B	10	11	12	13	14	15	16
3. Aben B	17	18	19	20	21	22	23
Eguber B	24	25	26	27	28	29	30
Fami S B	31						

LABURDURAK: Aben = Abendualdia • Ast S. = Aste Santua • Corp = Corpus Eguna • Egub = Eguberrialdia • Gar = Garizuma • HE = Hausterre Eguna • HS = Hirutasun Santua • Igokun = Jesusen Igokunde • JB = Jesusen Bihotza • Mend = Mendekoste Igandea • OS1 = ostegun santua • OS2 = ostiral santua • Pazk = Pazkoaldia • Urt. = Urteko • Bataio = Jaunaren Bataioa.

SARRERA

“BIDEA ELKARREKIN IBILTZEA”

Sinodo-erako elizaren alde: elkartasuna, partaidetza, misioa

Lagun maitea!

Sinodotasuna zer den hausnartzera dei egiten dio Eliza OSOARI Frantzisko aita santuak, Elizaren bizitzarako eta bete behar duen misiorako erabakigarria baita, zeren ”**sinodotasunaren bidea**” baita, hain zuzen, 3. milurteko Elizak egitea Jainkoak nahi duen bidea” **Frantziskok**.

“Sinodotasuna” hitzak “**BIDEA ELKARREKIN IBILTZEA**” esan nahi du, horrek adierazten du ongien Eliza JAINKOAREN HERRIA dela. Bidean erromes doan eta misiolaria den Herria. **Elizak ikastea zein prozesuk lagundu diezaiokeen ELKARTASUNA biziitzea, PARTAIDETZA gauzatzen eta MISIORA irekitzen.**

Sinodotasunaren Sinodoari 2021eko irailean hasiera eman zion Frantzisko aita santuak. Bukaera 2023ko urrian ospatuko da Erroman Gotzainen Sinodoarekin. Tarte luze honetan munduko eliza guztietan lanean ari gara langintza horretan: **Sinodo-erako elizaren alde: elkartasuna, partaidetza, misioa.**

Zergatik gai hori eta hain aurre-prestakuntza luzea?

Elizaren dokumentu garrantzitsu guztiek behin eta berriz aipatzen dute eliz bereizketa (**diszernimendua**), elizaren erakunde guztietan bereizmena beharrezkoa dela. Hasierako elizan bereizketa erabiltzen zuten, baita gero ere historian barna, nola edo hala presente egon da. Garai hauetan, zeinetan arazoak, egoerak, korapilatsu izaten diren, guztiz beharrezkoa da bereizketan prestakuntza izatea eta erabakiak hartzea denon artean.

Frantzisko aita santuarentzat bereizketa da Jainkoaren Herrian elkarrekin ibiltzearen gakoa. Vatikanon II.a kontzilioan eta Latinoamerikako Elizan argi eta garbi praktikatu dute. Saiatu dira errealtatea fedetik aztertzen eta Jainkoaren Hitzetik interpretatzen, errealtatea Jainkoaren Erreinurako norabidean jartzeko. Horretarako, **bai teologia bai zientziak** elkarrekin uztartu zituzten, fedea eta arrazoimena, ekintzara bultzatzeko. Berriz ohartarazten gaitu jakineko hiru momentu hauek: ikusi, epaitu eta ekin. Eta berrasmatzen ditu: **EZAGUTU, INTERPRETATU, AUKERATU.**

Sinodotasunaren Sinodo honek lagundu behar gaitu ezagutzeko KRISTO PIZTUAREN betiko presentzia, etengabe bultzatzen gaituena iragana ez errepikatuz, baizik eta galdetuz, behin eta berriz, ea atzoko erantzunek balio duten **gaurko galderei** erantzuteko.

Kontziliok abiarazi zituen **kontseilu** ugari, parroketan, elizbarrutietan eta abarretan. Baina nahikoa izan al da? Badakigu normalean kontsultatzeko direla eta ez erabakitzeke, baina aintzakotzat hartu al dira? Elkarrekin arduratsuak eta kristau parte hartzaileak sustatu al dituzte? Edo etsipena zabaldu da sarritan; beti bezala goitik behera, alegia, erabakitzen jarraitu delako.

Beti entzun dugu eliza ez dela demokrazia bat, eta egia da, baina hori ez al da izaten **klerikalismoa zuzitzea bidea**? Ez al da egia sinodo honen balioa edo garrantzia batzuentzat beranduegi datorrela, edota, ez dela sinesgarri? Ez al dute galdu **itxaropena** sinodo-erako eliza posible delakoz?

Horregatik, agian, Frantziskok denbora luzea eman nahi izan du **KONTSULTAK** egiteko tokian tokiko elizetan, estamentu guztietan, baita ere elizatik aldentu direnak euren hitza emateko eta entzunak izateko. Konbentziturik dago, gotzain batek ezin duela gidatu eliza elizbarrutiko pastoral-kontseilurik gabe, ezta erretoreak ere pastoral-kontseilurik gabe ere.

Sinodorako bide honetan **parte hartzea** da, geure erosotasunetik ateratzeko parada, jendea isilarazteko tentazioa dugunoi entzuten

ahalegintzeko, Jainkoak ere hitz egin dezake haien bitartez. Gure pentsaera aldatzen lagun diezagukete.

Honela diosku aita santuak ausardiaz eta amets handia eginez:

“Sinodoaren helburua, eta, beraz, kontsulta honen helburua ez da dokumentuak sortzea, baizik eta ametsak ernaraztea, profeziak eta ikuspegiak sorraraztea. Itxaropenak loraraztea, konfiantza piztea, zauriak sendatzea, harremanak trukatzeta, itxaropen-egunsenti bat berpiztea, elkarrengandik ikastea, eta imajinario positibo bat sortzea, gogoak argitzeko, bihotzak sutan jartzeko, eskuei indarra emateko”.

Helburu horretarantz abiatzeko bidelagun izan dezagun liburutxo hau. Iruzkina interesgarriak oparitu dizkigu **Margarita Saldaña Mostajok** (Madrid 1972). Kazetaritzan eta Teologian lizentziatua da, eta Karlos de Foucauldin familia espiritualekoa. Liburu batzuk idatzi ditu munduan zehar egin dituen esperientzia batzuei buruz.

Esker mila **Dionisio Amundarain OSB** langile nekaezinari, aritu delako, beti bezala, gure liburutxo hau paratzen. Eskerrik beroenak berari eta baita laguntzaile izan ditueni ere, batez ere, **Andoni Sarriegi eta Anizeto Zabalgoeaskoari**. Baita, eskerrak eman nahi dizkiegu **Mezulariko** arduradunei, euren laguntza handi eta eskuzabalagatik. Beti bezala **Deustuko Unibertsitateari** geure esker ona adierazten diogu, liburutxo hau eskegitzeagatik bere webgunean: <https://deusto.eus/ebanjelioa> (aurreko orrietan dagoen egutegira joan eta klikatu bilatzen duzun egunean).

Bukatzeko berri on bat partekatu nahi dizut: 2022ko urtariletik aurrera martxan da OTOI.eus webgunea, fedea eta espiritualtasuna gure hitzetan; baita SALLEBARNE.eus webgunea ere, fedea gure ahotsean.

On egin eta adiorik ez!

Koldo Katxo, SJ

FESTABURU ETA JAI MUGIKORRAK 2023an

Jaunaren Bataioa	urtarrilaren 6a
Hausterre	otsailaren 22
Jaunaren Piztuera Igandea	apirilaren 9
Mendekoste igandea	maiatzaren 28
Hirutasun guztiz Santua	ekainaren 4
Corpus Christi	ekainaren 11
Jesusen Bihotz guztiz Santua	ekainaren 16
Jesu Kristo Jauna, diren guztien Erregea	azaroaren 26
Abendualdiko 1. igandea	abenduaren 3
Familia Santua	abenduaren 31

OSPATZEKO JAI NAGUSIAK 2023an

Andre Maria Jainkoaren Ama	urtarrilaren 1a
Jaunaren Epifania	urtarrilaren 6a
San Jose, Andre Mariaren senarra	martxoaren 19a
San Prudentzio Armentiakoa (Araba)	apirilaren 28a
Santiago apostolua	uztailaren 25a
San Ignazio Loiola (Bizkaia eta Gipuzkoa)	uztailaren 31
Andre Mariaren Jasokundea	abuztuaren 15a
Santu Guztiak	arazoaren 1a
Andre Maria Sortzez Garbia	abenduaren 8a
Jaunaren Jaiotza (Eguberri)	abenduaren 25a



URTARRILA

AITA SANTUAREN ASMOA

Hezitzaileen alde: Otoitz egin dezagun, hezitzaileak lekuko edo testigu sinesgarri izan daitezen, ahaidetasuna erakutsiz eta ez lehiakortasuna. Era berezian gazterik zaugarrienei lagunduz.



Eguberrialdia

JAINKOAREN AMA MARIAREN FESTABURUA

Jesus izena ezartzea. Bakearen eguna

Zenbakiak liburutik 6, 22-27.

Honela mintzatu zitzaion Jauna Moisesi: «Esaiezu Aaroni eta haren semeei: Honela bedeinkatuko dituzue israeldarrak: “Bedeinka zaitzala Jaunak eta zaindu. Ager diezazula Jaunak aurpegi argia, eta erruki dadila zutaz. Erakuts diezazula Jaunak aurpegi gozoa, eta eman bakea”. Honela dei egingo diote nire izenari israeldarren alde, eta Nik bedeinkatuko ditut».

Sal 66: Erruki bekigu Jainkoa, bedeinka gaitzala.**San Paulok Galaziarrei 4, 4-7.**

Senideok: Garaia bete zenean, bere Semea bidali zuen Jainkoak, emakumeagandik jaioa, legepeko egina, legepean zirenak askatzera, guk seme-alabatzakoa har genezan. Eta seme-alaba zareten seinaleztat bere Semearen Espiritua bidali du Jainkoak gure bihotzera, «Abba! Aita!», deika ari dena. Beraz, aurrerantzean ez zara esklabo, seme edo alaba baizik, eta seme edo alaba bazara, baita oinordeko ere, Jainkoari esker.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 16-21.

Aldi hartan, artzainak lasterka joan ziren Betlemera, eta han aurkitu zituzten Maria eta Jose eta haurra askan etzana. Ikusi zutenean, jakinarazi zuten haur hartaz esan zitzaiena. Entzun zuten guztiak harriturik gelditu ziren artzainek esaten zutenarekin. Mariak, berriz, gogoan jasotzen zituen gauza hauek guztiak, bere bihotzean hausnartuz. Eta artzainak Jainkoari aintzaka eta goraka itzuli ziren, entzun eta ikusi zutenagatik; dena aingeruak esan bezala gertatu zitzaien. Jaio eta zortzi egunera haurra erdaindu zutenean, «Jesus» ezarri zioten izena, sabelean sortu aurretik aingeruak esan bezala.

Eguberrialdia

JAINKOAREN AMA MARIAREN FESTABURUA

Jesus izena ezartzea. Bakearen eguna

2023. urte hau Hitzaren argitan hasteak, urteak igarotzeak berekin duen zama saihestezinaren legepean jartzen gaitu; baina, zentzuz beteriko existentzia batera destinatuak garelako, maitatuak izateko dugun izatearen errealitatean ere kokatzen gaitu. Jainkoaren Semeak ere, bere gizaki-bihurtze horregatik gure giza izaera hartu du eta, hainbestearino hartu ere, gure baldintzetatik bat bera ere ez duela saihestu. Artzainek, beren gurari eta nahien muinean Jesusen dei isila entzutean, dena utzi eta lasterka jarraitu diote. Betleemera iritsi direnean, ez dute modu distiratsuan eurak salbatzera datorren heroi bakarti bat aurkitu, ume jaioberri bat baizik, bere amarekin eta aitarekin dagoena, gaueko hotzetik estalpe batek babesten duena. Indarkeria-mota guztiek apurtutako munduan, Jesusen izena, barnean promes bat dakarren xuxurla modura entzuten da: bakea lorgarria da, baina desberdintasun ororen bila joateko gure munduaren iluntasuna lasterka zeharkatzeko ausardia dutenen esku dago. Mariaren “baiezko” etengabeak bidea erakusten digu.

Eguberrialdia

San Basilio Handia eta Naziantzoko San Gregorio, *gotzainak eta eliz irakasleak*

M^a Ana Soureau dohatsua, *birjina eta fundatzailea*

1 Joan liburutik 2, 22-28: Bego zuengan, hasieratik entzun duzuen mezua. **Sal 97:** Ikusi dute lurmuga guztiek gure Jainkoagandiko garaipena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 19-28.

Hau da Joan Bataiatzaileak egin zuen aitomena, juduek Jerusalemdik apaizak eta lebitarrak bera nor zen galdetzeraz bidali zizkiotenean. Joanek argi eta garbi aitortu zuen: «Ni ez naiz Mesias». Haiek galdetu zioten: «Nor zara, bada? Elias al zara?». Joanek erantzun: «Ez». Haiek, orduan: «Etortzekoa den profeta al zara?». Eta hark: «Ez». Berririo galdetu zioten: «Nor zara, bada? Bidali gaituztenei erantzuna eman behar diegu. Zer diozu zeure buruz?». Joanek, orduan: «Ni, basamortuan oihuka ari denaren mintzoa naiz: “Zuzendu bidea Jaunarentzat”, Isaias profetak esan zuen bezala». Bidalitako haietako batzuk fariseuak ziren, eta galdetu zioten: «Zergatik bataiatzen duzu, bada, ez bazara Mesias, ez Elias, ez etortzekoa den profeta?». Joanek erantzun zien: «Nik urez bataiatzen dut. Zeuen artean baduzue, ordea, ezagutzen ez duzuen bat, nire ondoren datorrena; eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere». Hau guztia Betanian gertatu zen, Jordan ibaiaz bestaldean, han ari baitzen Joan bataiatzen.

Gizakiok, errealitatea definitzen aritzeko etengabeko beharra daukagu eta baita joeratxo bat ere, geure kontzeptuen eta kategorien artean atzematen ahalegintzekoa. Israel herrian, apaizek eta lebitarrek Legearen kodeak edo aginduak menderatu egiten dituzte eta, horietatik abiatuz ahalegintzen dira gertatzen den guztia interpretatzen. Joan Bataiatzailea, misterioa murriztu nahi duen antzinako ordena hori hankaz gora jartzen hasi da eta,aldi berean, Erreinuaren berrikuntza absoluturako prestatzen duten aukera-giltzarriak eskaintzen. Bere nortasunaz galdetzen diotenean, Bataiatzaileak ez du azalpenik eta definiziorik ematen, soil-soilik irudi bat adierazi du: «Ni, basamortuan oihuka ari denaren mintzoa naiz». Gaur egun, noren atzean dago geure artean egon arren geuk ezagutzen ez duguna?

Jesusen Izen guztiz santua, Jesusen Lagundiko Goiburua
 Santa Genoveva, *aitorlea*. San Ziriako (indiarra, 1805ean Keralan
 jaioa), *apaiza eta fundatzailea: Karmeloko Amaren Kongregazioa*

Siraken liburutik 51, 8-15.

Orduan, zure errukiaz oroitu nintzen, Jauna, eta zuk gure alde betidanik egindakoaz: onik ateratzen dituzula zuregan itxaroten dutenak eta gaiztoen eskuetatik libratzen. Lurretik neure erregua bidali nuen zueganaino eta otoitz egin heriotzatik aske gelditzeko. Honela egin nizun dei: «Jauna, neure aita zaitut! Ez baztertu ni atsekabe-aldian, harropuzak nagusitzean, laguntzarik ez dagoenean. Etengabe goretziko zaitut, esker onez kantatuko». Zuk entzun egin zenuen nire otoitza, heriotzatik salbatu eta txarraldi honetatik atera. Horregatik eman nahi dizkizut eskerrak, eta zu goretzi eta bedeinkatu, Jauna. Oraindik gazte nintzelarik, bidaiatzen hasi aurretik, bete-betean bilatu nuen jakinduria neure otoitzean. Tenplu aurrean otoitz egin nuen hori lortzeko, eta neure bizitzaren azkeneraino bilatuko dut. Loratu zenean, hartaz poztu zen nire bihotza, heltzen ari den mahats-mordoaz bezala. Bide zuzenetik ibili dira nire oinak, jakinduriaren arrastoari gaztarotik jarraituz.

Sal 8: Jauna, gure Jainkoa, bai miresgarria zure izena lur osoan.

San Paulok Filipoarrei 2, 1-11.

Beraz, egia bada Kristok aholku ematen dizuela eta maitasunak adorez betetzen zaituztela, egia bada Espirituagan bat eginik bizi zaretela eta bihozbera eta gupidatsu zaretela, bete nazazue pozez, denok iritzi eta sentiera bereko izanez, elkar maitatuz eta ongi hartuz. Ez egin deus ere norgehiagokeriaz edota harrokeriaz, apaltasunez baizik, besteak norbera baino hobeak direla pentsatuz; ez nork bere onari bakarrik begiraturaz, baizik besteena ere bilaturaz. Izan itzazue zeuen artean Kristo Jesusek izan zituen sentipen berak. Kristo Jesusek, jainkozko izaerako izanik ez zion gogor eutsi nahi izan jainkozko bere mailari; bestela baizik, hustu egin zen bere handi izateaz eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko

Eguberrialdia

Jesusen Izen guztiz santua, Jesusen Lagundiko Goiburua

Santa Genoveva, *aitorlea*. San Ziriako (indiarra, 1805ean Keralan jaioa), *apaiza eta fundatzailea*: *Karmeloko Amaren Kongregazioa*

eginez. Gizaki huts bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, heriotzaraino menpeko eginez, gurutzean hiltzeraino. Horregatik, denen gainetik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion, Jesusen izenaren omenez, zeruan, lurrean eta lur azpian, guztien belaunak makur daitezen, eta mihi orok aitor dezan Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitaren aintzarako.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 21-24.

Jaio eta zortzi egunera haurra erdaindu zutenean, Jesus izena ezarri zioten, sortu aurretik aingeruak esan bezala. Moisesen legean agindutako garbikuntza egiteko unea iritsi zitzaientean, gurasoek Jesus Jerusalemera eraman zuten Jaunari aurkezteko. Izan ere, hau agintzen du Jaunaren legeak: Lehen-seme guztiak Jaunari sagaratuko zaizkio. Jaunaren legean ezarritako oparia ere eskaini zuten: bi usapal edo bi usakume.

Ohituraz edo usadioz, jaioberriaren izena beraren gurasoek aukeratzen dute beren gurarien edota familiako usadioen arabera. Lukasen arabera, Jesusen kasuan, izena Jainkoak aingeruaren bitartez emana da. Ume horrek, gizateria osoarekin batera partekatzen du bere nortasuna eraikitzen joan beharra, berak erabakitzen ez dituen elementuetatik abiatuta. Aldi berean, bere herriaren historia osoa bereganatu du, eta beraren presentziak zaharra den orekiko izugarriko haustura eta etorkizunarekiko behin betiko irekiera markatzen ditu. Jesusen izenak bere misioaren irismen osoa du eta hala adierazten du, eta Itun Berriko orrialde bakoitzean astiro-astiro zabaltzen joango da. Bera, geure inertziatik salbatzera datorkigu; hainbat alditan geuk hala nahi ez izan arren, “betetzea” dagokigun guztiaren erdian Jainkoaren presentzia erostezina agertzera. Berak biziartzten digu bere baitan hartzen gaituen gizateria honetako seme eta alaba izatearen berritasuna, baina aldi berean, bere arau, ohikune eta ohituren marko estuaren barruan mugatzen gaituena. Jesusen

3

Asteartea / Martitzena

URTARRILA

Eguberrialdia

Jesusen Izen guztiz santua, Jesusen Lagundiko Goiburua
Santa Genoveva, *aitorlea*. San Ziriako (indiarra, 1805ean Keralan
jaioa), *apaiza eta fundatzailea*: *Karmeloko Amaren Kongregazioa*

izenak, Aita komun bat edukitzearen berri ona xuxurlatzen du eta, aldi berean, senidetasun unibertsala herentzia-moduan jasotzeko erronka.

* * *

1 Joan liburutik 2, 29-3,6: Harengan dagoenak ez du bekatuik egiten. Sal 97: Ikusi dute lur-muga guztiek gure Jainkoagandiko garaipena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 29-34.

Hurrengo egunean, ikusi zuen Joan Bataiatzaileak Jesus beregana etortzen eta esan zuen: «Hona hemen Jainkoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Honi buruz esan nuen nik: “Badator nire ondoren gizon bat, niri aurea hartu didana, ni baino lehenagotik baitzen”. Nik ere ez nuen ezagutzen; baina ni urez bataiatzera etorri banaiz, hura Israeli ager zekion etorri naiz». Eta aitormen hau egin zuen Joanek: «Espiritua ikusi dut uso-irudian zerutik jaisten, eta haren gainean gelditzen. Nik ere ez nuen ezagutzen; baina urez bataiatzera bidali ninduenak esan zidan: “Espiritua jaisten eta gainean gelditzen zaiola ikusiko duzuna, hura da Espiritu Santuaz bataiatzen duena”. Nik ikusi dut eta aitortzen hauxe dela Jainkoaren Semea».

Eguberrialdia

Jesusen Izen guztiz santua, Jesusen Lagundiko Goiburua

Santa Genoveva, *aitorlea*. San Ziriako (indiarra, 1805ean Keralan jaioa), *apaiza eta fundatzailea*: *Karmeloko Amaren Kongregazioa*

Egun batean bere burua “artzain on” moduan aurkeztuko duena, Joan Bataiatzaileak Jainkoaren Bildots moduan seinالاتu du. Irudi horrek, boterearekin eta indarkeriarekin batere zerikusirik ez duen mesianismo-modura bideratzen gaitu. Jesus gizateria salbatzera dator, sortua izan zen maitasunezko etorkizuna bere betean bizi izatea eragozten dion bekatua erdigune sakonenetik kenduz. Horregatik, salbamera ez da inoiz etorriko indar-neurketatik, baretasunaren bidetik baizik, bildotsaren leuntasunarekin eta zaugarritasunarekin bidea astiro-astiro irekiz. Joanengana beronek bataia dezan hurbiltzen den gizonaren aurpegiak, Nazaretarraren eta Betleemgo haurraren bisaia bera agertzen du. «Nik ikusi dut –baietsi du Bataiatzaileak–, eta aitortzen dut, hauxe dela Jainkoaren Semea».

* * *

Prestatzeko otoitza

Laguntza eskatu Jainko geure Jaunari,
 nire asmo, egintza
 eta eragiketa guztiak
 garbi norabidetuak izan daitezen
 jainkozko bere Maiestatearen
 zerbitzu eta aintzara.
 Emadazu, Jauna,
 benetako askatasuna;
 ez nazala aparta zugandik, ez ezerk, ez inork,
 eta gauza orotan eta pertsona guztietan
 maita eta zerbitza zaitzadala zu.

(*Gogo Jardunak* 46)

1 Joan liburutik 3, 7-10: Jainkoagandik jaio denak ez du bekaturik egiten. Sal 97: Ikusi dute lur-muga guztiek gure Jainkoagandiko garaipena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 35-42.

Aldi hartan, han zegoen Joan Bataiatzailea bere bi ikaslerekin. Jesus handik igarotzen ikusirik, esan zien Joane: «Horra Jainkoaren Bildotsa». Bi ikasleek, hori entzunik, Jesusi jarraitu zioten. Itzuli zen Jesus eta, jarraitzen ziotela ikusirik, esan zien: «Zeren bila zabilzate?». Haiek erantzun: «Rabbi, non bizi zara?» (Rabbik «Maisu» esan nahi du). Jesusek esan zien: «Zatozte eta ikusiko duzue». Joan ziren, ikusi zuten non bizi zen, eta harekin gelditu ziren egun hartan. Arratsaldeko laurak inguru zen. Joani entzun eta Jesusi jarraitu zioten bietako bat Andres zen, Simon Pedroren anaia. Andresek bere anaia Simonekin egin zuen topo lehenengo, eta esan zion: «Mesias aurkitu dugu». (Mesias hitzak «Kristo» esan nahi du, hau da, «Gantzutua»). Eta Jesusengana eraman zuen. Jesusek, begira-begira jarriz, esan zion: «Simon zara zu, Joanen semea; aurrerantzean “Kefas” izango da zure izena» (Kefas izenak «Pedro» esan nahi du, hau da, «Harkaitza»).

Eguberri-aldia astiro-astiro urtean zeharreko aldira igaroz doa, eta irakurgetan Jaunaren haurtzaroko misterioak beraren jendarteko bizitzako misterioekin kateatzen dituzte. Betleemen, Jerusalem eta Nazareten Jesus beti pertsonen inguratua eta salbatzera etorri den mundu horretara itzulia aurkitu baldin badugu, orain ere, bere maisutza-aroa hasterakoan, giza amaraun osoa harilkatuz doa bere inguruan. Erreinuaren aldarrikapena, Maisuarekin barru-barruko topaketa sakona izatearen esperientziatik abiatuko da, eta pertsona bakoitza deitua dago dei horri baiezkua libreki ematera. Arriskua zera da, Jesusen begiradak bakoitzari nortasun berri bat sortzea eta jada, une horretatik aurrera, bakardadean ezin bizi izatea.

Eguberrialdia

San Telesforo, 8. *aita santua*San Joan Neumann, *gotzaina*

1 Joan liburutik 3, 11-21: Heriotzatik bizira aldatu gara, senideak maite ditugulako. **Sal 99**: Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 43-51.

Aldi hartan, Jesusek Galilea aldera joan nahi zuen. Felipe aurkitu zuen, eta esan zion: «Jarraitu niri». Felipe Betsaidakoa zen, Andresen eta Pedroren herrikoa. Felipek Natanael aurkitu zuen, eta esan zion: «Moisesez legearen liburuan eta profetek beren idazkietan aipatu zutena aurkitu dugu: Jesus, Joserena semea, Nazaretetokoa». Natanaelek esan zion: «Nazaretetik atera ote daiteke ezer onik?». Felipek erantzun: «Zatoz eta ikus». Jesusek Natanael beregana etortzen ikusi eta esan zuen: «Hona hemen egiazko israeldarra, faltzuleriarik gabea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?». Jesusek erantzun: «Felipek zuri dei egin baino lehen, pikupean zinela, ikusi zintudan». Natanaelek erantzun zion: «Maisu, Zu Jainkoaren Semea zara; Zu Israelgo erregea zara». Jesusek erantzun: «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako, sinesten al duzu? Handiagorik ere ikusiko duzu». Eta esan zion, gainera: «Egi-egiaz diotsuet: Zerua zabalik ikusiko duzue eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera Gizonaren Semearen gain».

Basamortuan hezi zen Joan Bataiatzailea ez bezala, Jesusen gizatasuna «Jainkoaren eta gizakien» aurrean eta artean eginez joan zen, inongo mapatan ageri ez zen eta judu jainkotiarrek mesprezatzen zuten «Jentilen Galileako» herri galdu baten barnean. Horrek denak ongi azaltzen du Felipek bere gar guztiarekin Mesias aurkitu duela esaten dionean Natanaelek erantzuten diona: «Nazaretetik irten al daiteke bada ezer onik?». Edo, bestela esanda, bizitza arrunta izan al daiteke bada profeten eskola eta salbamen-leku? Natanaelen zalantza hori gurea ere izan daiteke. Agian heldu da ordua Jaunari gu gu aurkitzen uztekoa, berak bere egin duen egunerokotasunaren barnean.

Isaias profetaren liburutik 60, 1-6.

Jaiki zaitez, Jerusalem, argitu, badator-eta zure argia; zure gainean ageri da Jaunaren aintza. Begira, ilunak estalia du lurra, gau beltzak estaliak ditu herriak; zure gainean, ordea, Jauna agertuko da, haren aintza zure gainean azalduko. Zure argira etorriko dira herriak, zure egunsenti-distirara erregeak. Jaso itzazu begiak zeure ingurura eta ikus: guztiak elkartu eta zugana datoz, urrutitik datoz zure semeak, besoetan dakartzate zure alabak. Hori ikustean, distiratsu jarriko zara, bihotza zirrarez eta zabal-zabal duzula, itsasoko aberastasunak zugana etorriko baitira eta nazioen ondasunak zuri ekarriko dizkizute. Gamelu-taldeen estaliko zaituzte, Madiango eta Efako dromedarioek. Sabatik datoz guztiak, urrea eta intsentsua dakartzatela, eta Jaunari gora eta gora diotsotela.

Sal 71: Ahuspez agurtuko zaituzte, Jauna, nazio guztiek.**San Paulok Efesoarrei 3, 2-6.**

Senideok: Jakingo duzue, noski, Jainkoak bere onginahian zuen onerako eman didan eginkizuna, goiagerpenez jakinarazi baitit bere asmo ezkutua; salbamen-asmo hau ez zitzaion iraganeko gizaldiei jakinarazi; orain, ordea, Espirituaren bidez bere apostolu santuei eta profetei agertu die Jainkoak. Eta hauxe da Jainkoaren asmo ezkutua: Berri Onari esker, jentilak Kristo Jesusekin oinorde-kide direla, harekin gorputz bat bera osatzen dutela eta agintzari beraren partaide direla.


Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 2, 1-12.

Jesus Judeako Betleemen jaio zen Herodes erregearen garaian. Aldi hartan Mago batzuk etorri ziren sortaldetik Jerusalemera, galdezka: «Non da jaioberria den juduen errege? Haren izarra ikusi

dugu sortaldean, eta hura gurtzera gatoz». Berri honekin larritu zen Herodes erregea, eta Jerusalem osoa harekin batera. Orduan, apaizburuak eta lege-maisuak bildurik, Mesias non jaiotzekoa zen galdetu zien. Haiek erantzun zioten: «Judeako Betleemen, honela idatzi baitzuen profetak: “Eta zu, Judako Betleem, ez zara, ez, Judako hirietan txikiena; zugandik aterako baita buruzagia, nire herri Israelen errege izango dena”». Orduan Herodesek, Magoei isilka dei eginik, izarra noiz agertu zitzaien jakin zuen zehatz. Ondoren, Betleemera bidali zituen, esanez: «Zoazte, eta jakin arduraz haurren berri, eta, aurkitzean, esadazue, ni ere gurtzera joan nadin». Haiek, erregeari entzun ondoren, joan ziren. Eta bat-batean, sortaldean ikusitako izarra aurretik jarri zitzaien, haurra zegoen lekuaren gainean gelditu arte. Izarra ikusi zutenean, berealdiko poza hartu zuten. Etxean sarturik, haurra ikusi zuten, Maria bere amarekin, eta, ahuspezturik, gurtu egin zuten. Ondoren, beren kutzak irekita, erregaluak eskaini zizkioten: urrea, intsentsua eta mirra. Gero, Herodesengana ez itzultzeko albistea ametsetan harturik, beste bide batetik itzuli ziren beren lurraldera.

Hasieratik amaieraraino, ebanjelioek topatze eta ez topatze-istorio asko kontatzen dituzte. Inorengandik ezkutatzen ez den eta bere bizia kontu handiz gordetzen ez duen Jesusék, ez du halaber bere presentzia ere ezartzen eta ez da alferrikako arriskuetan ere ausartegi jartzen. Berarekin topo egitea, gurariaren indarrean oinarrituta dago eta benetako giza harremanen bide mailakatuen bidez garatzen da; hain zuzen ere, horregatik aukeratzen dute pertsona batzuek alboan gelditzea. Mateoren ebanjelioak bizi-bizi kontatzen du espiritu-bizitzako etengabeko dinamika hori. Jakintsu atzerritar batzuk, izar batek eskaintzen dien ziurtasunik gabeko argi batean oinarriturik, opariz beteta bidaia luzea egin duten bitartean, Herodes «eta berarekin batera Jerusalem osoa» asaldatu egiten da, berari boterea ken diezaiokeen berri arriskutsu bat delakoan. Paradoxa dirudi, urrunetik datozenek –beste hizkuntza batekin, beste ohitura batzuekin

eta, areago, beste erlijio batekin– Jesusen misterioaren susmoa hartzea lortzen dutela eta, aldiz, hurbil dauden batzuk, beldurrak eraginda, erabat tratatuta gelditzen dira. Agerkundearen jaiak, geure segurtasun faltsuen hondoko zaborrak azalera ateratzen lagun diezaguke eta Jainkoarekin topo egiteko geure gurari sendo eta sakona eragitera bultzatza gaitzake, harengana «beste bide batetik» joateko.



Jaunaren agerkunde ondokoa

San Raimundo Peñafortekoa, *apaiza*

1 Joan 3, 22-4, 6: Aztertu espiritua, Jainkoagandik datorren ala ez.

Sal 2: Nazioak emango dizkizut ondare.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 4, 12-17. 23-25.

Egun haietan, Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutela jakin zuenean, Jesus Galileara baztertu zen. Baina, Nazaret utzirik, itsasbaterrean dagoen Kafarnaumen jarri zen bizitzen, Zabulonon eta Neftaliren lurraldean. Horrela bete zen Isaias profetak esana: «Zabulonon lurraldea eta Neftaliren lurraldea, itsasbidea, Jordanez beste aldean, jentilen Galilea. Ilunpean bizi zen herriak argi handia ikusi zuen; herio-itzalean bizi zirenei distira egin zien argiak». Ordutik hasi zen Jesus hots egiten: «Bihotz-berri zaitetze, hurbil da eta Zeruetako Erreinua». Galilea osoan barna ibili zen Jesus, hango sinagogetan irakasten, erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten eta herrian gaitz eta eritasun guztiak sendatzen. Siria guztian zabaldu zen haren izena. Edozein gaitz eta oinazek jotakoak eramaten zizkieten: deabrudun, epileptiko nahiz elbarri, eta hark sendatu egiten zituen. Eta Galilea, Dekapolis, Jerusalem, Judea eta Jordanez beste aldetik etorritako jendetza handiak jarraitzen zion.

Bizitza honetan badira inguruabarrak ordu arte uste edo ausartu ez ginen urratsak ematera edota erabakiak hartzera eramaten gaituztenak. Egoera latz batzuek abailduta edo jota utz gaitzakete edota, alderantziz, etorkizuneko bide berriak irekitzen ahal dizkigute. Joan Bataiatzailea atxilotzeak une horietako bat dela dirudi Jesusen bizitzan: haren heriotzaren berri jakin duenean, behin betiko utzi du Nazaret eta Berri Ona predikatzeari ekin dio erabat. Baina beraren misioa –Semearen misioa– ez da hasi une horretan, baizik eta eraldaketa bat jasan du. Bere “ezkutuko bizitzako” urte luzeetan «herriaren gaixotasunak eta minak» bere baitan isil-isilik jaso eta halakoak salbatzen joan da; hemendik aurrera, horrez gainera, keinuen eta hitzen bidez adieraziko du ekartzera etorri den Erreinuaren berritasuna zein den.

Isaias Profetaren liburutik 42, 1-4. 6-7.

Honela mintzo da Jauna: «Hona nire zerbitzaria, Nik eusten diodana, nire aukeratua, atsegin dudana. Honengan ipini dut neure espiritua; zuzenbidea ekarriko die herriei. Ez du oihu egingo, ez ahotsa goratuko, ez du kaleetan entzunaraziko bere mintzoa. Kanabera piztutua ez du hautsiko, doi-doi piztutua dagoen argi-metxa ez du itzaliko. Zuzenbidea ekarriko du leialki; ez du etsiko, ez da hautsiko, zuzenbidea lurrean ezarri arte; uharteak haren irakaspenaren zain daude. Nik, Jaun honek, salbamen-egintzarako dei egin dizut, eta eskutik heldu; Nik eratu zaitut eta izendatu herriarentzat itun eta nazioentzat argi izateko, itsuen begiak zabal ditzazun, giltzapetuek espetxetik askatu eta ilunpean bizi direnak kartzelatik atera ditzazun».

Sal 28: Bere herria bedeinkatuko du bakea emanaz Jaunak.**Apostoluen Eginak liburutik 10, 34-38.**

Egun haietan honela mintzatu zen Pedro: «Orain jabetzen naiz benetan Jainkoak ez duela bereizkeriarik egiten, baizik eta onartzen duela begirune diona eta beraren nahia egiten duena, edozein herritakoa dela ere.

Hark bere hitza bidali zien israeldarrei, guztien Jauna den Jesu Kristoren bidez, bakearen Berri Ona iragarritz. Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek hots egin zuen bataioaren ondoren: Nazaretoko Jesusena, alegia: Jainkoak Espiritu Santuaren indarrak gantzutu zuen, eta hark on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zuen bizitza, Jainkoa berekin baitzuen».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 3, 13-17.

Aldi hartan, Jesus Galileatik Jordanera etorri zen Joan Bataiatzaileagana, honek bataia zezan. Joanek, berriz, ez zion utzi

nahi eta esan zion: «Ni naiz Zuk bataiatu beharrekoa, eta Zu al zatorz nigana?». Jesusek erantzun zion: «Utzi oraingoz; horrela bete behar baitugu Jainkoak nahi duen guztia». Orduan, Joanek utzi egin zion. Jesus, bataiatu eta berehala, uretik atera zen. Hortan, zerua zabaldu zen, eta Jainkoaren Espiritua ikusi zuen uso-irudian jaisten eta bere gainera etortzen. Eta mintzo hau etorri zen zerutik: «Hau da nire Semea, nire maitea; hau dut atsegin».

Joan Bataiatzailearen agerpenak, bizitu eta piztu egin du herriarengan Mesias berehala etorriko den itxaropena. Joanen jarduerak ez du uzten Jesus axolagabe; alderantziz, Nazareten hainbeste urtez bizi izan duen Erreinu horretaz barne zirrara bat sentitzera eramanez ziur aski. Jesus, orduan, Bataiatzaileagana doan gizatalde hark sortua duen mugimenduan sartu da eta, «haietako bat» bailitzan, bere txanda gorde du ilaran, beste guztiek bezala, txanda iritsi eta Joanek bataiatu duen arte. «Horretarako, erabat bere senideen antzeko egin beharra zeukan», baieztatu du Hebrearrei egindako gutunean (2, 17). Gertakari horrek lehenaldi bat eta geroaldi bat markatzen ditu Jesusen ibilbidean, eta, uretik irteteen, bere misiorako berretsita eta sendotuta sentitzen da: «Hau da nire Semea, nire maitea; hau dut atsegin». Hau eta ez beste bat... Baina, nor da “hau”? Nazaretarra, arotzaren semea, kaleetan oihurik eta garrasirik egiten ez duena. Aitak atsegin duen Seme hau, eta, batez ere, Jainkoaren Espiritua beragan pausatzen sentitu duen hau, Mariaren sabelean astiro-astiro hazten joan zen hura bera da, artzain batzuen ustekabeko bisita jaso zuena eta mago edo jakintsu batuek gurtu zutena eta gaztaroa Joseren alboan lanean igaro zuena. “Hau” da eta ez beste bat, «gatibuak kartzelatik eta presoedegiko ilunean bizi direnak ateratzera datorrena».

Urteko 1. astea

San Eulogio Kordobakoa, *apaiza eta martiria*

Hebrearrei 1, 1-6: Jainkoak Semearen bidez hitz egin digu. **Sal 96:**
Ahuspeztu zaitezte Jainkoaren aurrean haren aingeru guztiak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 14-20.

Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutenean, Jesus Galileara joan zen eta Jainkoaren Berri Ona hots egiten zuen. Honela zioen: «Betea da garaia, eta hurbil da Jainkoaren erregetza. Bihotz-berri zaitezte eta sinetsi Berri Ona». Jesusek, Galileako itsasbazerretik igarotzean, Simon eta honen anaia Andres ikusi zituen sareak urera botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek berehala sareak utzi eta jarraitu zioten. Aurrerago, Santiago eta honen anaia Joan, Zebedeoren semeak, ikusi zituen; sareak konpontzen ari ziren beren ontzian. Ikusi bezain laster, dei egin zien Jesusek. Haiek, beren aita Zebedeo mutilekin ontzian utzirik, Jesusen ondoren joan ziren.

Urtekoa deitzen dugun aroa, Jainkoaren Erreinua hurbil dagoen ziurtasun gozoaz hasten da. Hain zuzen ere, hemen eguneroko bizitzaren joan-etorrien erdian dei egiten digu Jaunak, Ebanjelioa sinestera, geure burua Jainkoagana bihurtzera eta atzerapenik gabe berari jarraitzera. Txalupa, sareak, arrainak, arrantzua, dena birkokaturik gelditu da. Jesus, berak deitzen dituen eta berarekin lotura izan nahi duten pertsonekin, nahiz haiek beren artean, beraien etorkizuna finkatzeko harreman berria jartzera doa. Lehentasunak aldatu egingo dira: jada ez du hainbeste axola egin beharreko lanak, haren ortzi-mugak baizik, haren sakoneko zentzuak, alegia. Errealitate osoa Galilea berri bat bihurtzen da, non Berpiztua etengabe gure bidera irteten zaigan.

Urteko 1. astea

San Nicanor, *diakonoa eta martiria*Dolores Sopena, *dohatsua (Katekesia Institutuaren fundatzailea)*

Hebrearrei 2, 5-12: Egoki iritzi zuen, salbamenaren egitea oinazebidez bere betera eramatea. **Sal 8:** Zure esku-lan guztien buru ipini duzu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 21-28.

Iritsi zen Jesus Kafarnaumera, eta hurrengo larunbatean sinagogan sartu eta irakasten hasi zen. Harriturik zeuzkan denak bere irakatsiek; itzal handiz irakasten baitzuen, eta ez lege-maisuek bezala. Sinagoga hartan gertatu zen, hain zuzen, deabru lohiak harturik zeukan gizon bat, eta deiadarka esan zuen: «Jesus Nazaretarra, zer dugu ikustekorik Zurekin? Gu galtzeko etorri al zara? Badakit nor zaren: Jainkoaren Santua». Jesusek zorrotz agindu zion: «Zaude isilik eta atera zaitez gizon horrengandik!». Eta gizona astinduz eta orroka atera zen deabru likitsa. Denak harriturik gelditu ziren, eta honela zioten elkarri galdezka: «Zer dugu hau? Hau bai dela irakatsi berria eta itzal handiz emana! Deabru likitsei ere agintzen die, eta horiek obeditu egiten diote!». Eta laster zabaldu zen haren izena bazter guztietara, Galilea osoan.

Markos ebanjelariaren arabera, bere irakasle-bizitza hastean, Jesusek ez du izan zuzeneko lehenengo solaskidea pertsonaia garrantzitsu bat, baizik eta bera «Jainkoaren santutzat» aitortzen duen espiritu nazkagarri bat. Espiritu gaiztoak egia den zerbait esaten duen arren, Jesusek ez dio uzten bera engainatzen eta limurtzen; gaizkiarekin ez da konpontzerik. Jesus maisu gisa agertzen da inolako bereizketarik gabe, eta arte edo jakitate zail horrek ikasketa luzea eskatzen du eta ez da inprobisatzen. Irudika genezake, Nazareten igarotako urteetan: Jesusek borroka asko burutuko zuela beraren eguneroko bizitzan sartzen ahalegintzen zen espiritu gaizto horren aurka. Beraren aginteak, itzalak, Semearenak, harridura sortzen du orain bere garaikideen artean.

Urteko 1. astea

San Higinio, 9. aita santua

Santa Honorata, birjina

Hebrearrei 2, 14-18: Gauza guztietan senideen antzeko izan behar zuen, errukior izan zedin. Sal 104: Gogoan dauka Jaunak betiko egin zuen ituna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 29-39.

Aldi hartan, Jesus sinagogatik atera eta Simonen eta Andresen etxera joan zen, Santiagorekin eta Joanekin. Simonen amaginarreba ohean zegoen, sukarrarekin, eta berehala harengatik hitz egin zioten. Ondora joan zitzaion Jesus, eskutik heldu eta jaikiarazi zuen, eta sukarrak utzi zion, eta zerbitzatzen hasi zitzaion. Arratsaldean, eguzkia sartu zenean, gaixo eta deabrudun guztiak zekarzkioten; eta herri guztia ate aurrean bildu zen. Hark asko sendatu zituen era guztietako gaitzetatik, eta deabru asko uxatu zuen. Eta deabruai ez zien uzten hitz egiten, bai baitzekiten hura nor zen. Goizean goiz, oraindik ilun zegoela, jaiki zen, atera eta leku bazter batera joan zen, eta otoitzean hasi han. Simon eta Simonekin zirenak haren bila atera ziren; aurkitu zutenean, esan zioten: «Denak zure bila dituzu». Eta hark: «Goazen hemendik inguruko herrietara, han ere hitz egin dezadan; horretara etorria naiz-eta». Eta hala, Galilea guztian barna ibili ohi zen, sinagotetan hitz egiten eta deabruak uxatzen.

Jesusen ospea berehala zabaltzen da, beragandik egundoko indarrarekin irradiatzen den ongiari esker. Jesus ez da hitzaldi distiratsuetan galtzen den teorialaria, baizik eta ekintza zehatzeko gizona, itxuraz txepelak diren keinuak egiteko gai da, hala nola sukarra duen emakume batengana hurbildu, eskutik heldu eta hura altzaraztea. Asko multzoka sendatzen dituen arren, pertsona bakoitzak badu harentzat aurpegi bat, historia bat; inor ez da ezezaguna haren begientzat. Ekartzera etorri den salbamena, pertsona bakoitzaren esperientzia hunkigarria da, gorputza zeharkatu eta bereganatzen duenagan eskerrak emateko dinamika sortzen duena. Jendetza dabil Jesusen bila, baina pertsonak soilik, pertsona bakoitzak soilik, aurki dezake.

Urteko 1. astea

San Arcadio Mauritaniakoa, *martiria*

Hebrearrei 3, 7-14: Berotu ezazue elkar «gaur» hori esan daitekeen artean. **Sal 94:** Entzungo al duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 40-45.

Aldi hartan, legenardun bat etorri zitzaion Jesusi, eta, belaunikaturik, esan zion: «Nahi baduzu, garbi nazakezu». Jesusek, errukiturik, eskua ezarri eta ukitu zuen, esanez: «Nahi dut; garbi geldi zaitez». Ordu berean utzi zion leprak, eta garbi gelditu zen. Jesusek bidali zuen, zorrotz esanez: «Begira, gero, inori ezer esan! Baina zoaz, agertu apaizagana eta eskain ezazu zeure garbikuntzagatik Moisesek agindu zuena, agiri bat izan dezaten». Hura, ordea, atera zeneko, gertatua oihuka hots egiten hasi zen eta zabalzen; eta harez gero Jesus ez zitekeen agerian sar herrietan; baizik eta inguruetan gelditu ohi zen leku baztertuetan. Eta hala ere alde guztietatik zetozkion.

Batzuetan, gaindiezinak diruditen muga batzuk hausteko prest baldin bagaude soilik gauzatzen dira asmorik sakonenak. Jesus eta gizon legenardun bat, ezarrita dagoen muga gainetik pasatzen ausartu dira, urradura baten eta desira baten bidegurutzean elkarrekin topo egiteko. Legeak jende osasuntsua eta jende gaixoa elkarrengana hurbiltzea debekatua duen lekuan, gizon legenardunak eman du lehen urratsa eta Jesusek beragana iristen utzi dio. Desira berak mugitzen ditu biak, haragi osasuntsutik abiatu eta askoz ere urrunago doanak: biek berrezarri nahi dute galdutako duintasuna, eta berriro izatearen jaia ospatu nahi dute besteen aurrean. Ezusteko bidegurutze horretan, miraria gauzatu da. Ezinezkoa da neurri horretako berri ona isilaraztea.

Urteko 1. astea

San Benigno, *martiria*San Kastor, *apaiza eta ermitaia*

Hebrearrei gutuna 4, 1-5.11: Saia gaitezen atsedean horretan sartzen.

Sal 77: Ez ahaztu Jainkoak eginak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2, 1-12.

Zenbait egunen buruan itzuli zen berriro Jesus Kafarnaumera, eta etxean zegoelako hotsa zabaldu zen. Jendetza handia bildu zen, ate aurrean ere lekurik ez izateraino. Eta Jesusek hitza adierazten zien. Eta han etorri ziren lau lagun, perlesiadun bat zekarkiotela. Baina, jendetzagatik ezin baitzuten sartu, Jesus bera zegoen aldean teilatua altxatu, zulo bat egin eta eraitsi zuten perlesiaduna, etzanik zegoen esku-ohetan. Jesusek, haien sinesmena ikusirik, esan zion perlesiadunari: «Seme, barkatuak dituzu zeure bekatuak!». Bazeuden han eseririk lege-maisu batzuk, eta beren baitan zioten: «Zer ari da hau biraoka? Nork barka ditzake bekatuak, Jainkoak baizik?». Haiek beren barruan zerabiltenari antzemanik, Jesusek esan zien: «Zer burutapen darabilzkizue zeuen bihotzean? Zer da errazago perlesiadunari esaten: «Barkatuak dituzu bekatuak» ala «jaiki zaitez, hartu esku-oheta eta zoaz?». Hara, bada, jakin dezazuen Gizonaren Semeak baduela lurrean bekatuak barkatzeko aginpidea –esan zion perlesiadunari–: «Zuri diotsut: jaiki zaitez, hartu esku-oheta eta zoaz etxera».

Idazteuneko hau bezalako pasarte batzuek halako akidura- edo etsipen-sentipen bat sortzen dute. Jesus estutu, bultzatu egiten dute, ez dute bakean uzten, ez eta etxean ere. Baina oraingoan badira lau gizon muga guztiak gairitu dituztenak: beren lagun bat teilatutik behera sartzen ausartu dira Jesusek senda dezan. Gizonak, elbarria baino gehiago hildakoa dirudi: eraman, eraitsi, sendatu eta ez du erreakzionatzen. Bekatuak ongiaren muskuluak atrofiatu egiten ditu. Jesusek gizona bere geldotasunetik atera du eta, bere hitzari esker, altxatu, bere ohatila hartu eta denei oinez irten daitekeela ikusarazten die. Jende arruntak Jainkoari aintza ematen dion bitartean, jakintsuak eta adituak beren gaietan murgilduta gelditu dira.

Urteko 1. astea

San Fulgentzio, *gotzaina*San Juan de Ribera, *Valentziako artzapezpikua*

Hebrearrei gutuna 4, 12-16: Goazen uste osoz graziaren aulkira.

Sal 18: Zure hitzak, Jauna, espiritu eta bizi dira.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2, 13-17.

Aldi hartan, itsasbazterrera atera zen berriz ere Jesus, eta gizatalde osoa beregana zihoakion, eta irakasten ari zitzaion. Bidez zihoala, Alfeoren seme Lebi ikusi zuen, zerga-biltzaileen mahaian eseria, eta esan zion: «Jarrai niri». Hark zutitu eta jarraitu zion. Jesus Lebiren etxean mahaian zegoela, zerga-biltzaile eta bekatari asko ere mahaian eseri ziren, Jesusekin eta haren ikasleekin; asko baitziren atzetik zihoazkionak. Fariseuek eta lege-maisuek, bekatari eta zerga-biltzaileekin jaten zuela ikustean, esan zieten haren ikasleei: «Nolatan jaten du zerga-biltzaile eta bekatariekin?». Hori aditzean, Jesusek esan zion: «Ondo daudenek ez, baino gaixo daudenek behar dute sendagilea. Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik».

Jende gogor eta Legearen ezagutza handirik gabeko arrantzale batzuei deitzea, tira, pasa liteke. Azken batean, Maisu hau bera ere Nazaretetik dator, jentilen Galilean dagoen auzo galdu batetik eta ezer onik atera ezin omen daitekeen tokitik. Baina zerga-biltzaile eta kolaborazionista den bati dei egitea, izugarria da. Jesusen portaerak, eskribauei galdera zentzudunak eta arrazoizkoak egiteko bide ematen die: Zergatik hitz egiten du honek horrela? Zergatik egiten ditu otorduak publikanoekin eta bekatariekin? Beraien arazoa ez datza plantatzen diren gaitan, baizik eta beren barne-egoskorkeriak Jesusen erantzunak dakarren berrikuntza osoa beren bihotzean onartzea eragotzean. Zerbait berri ernetzen ari da, ez al duzue antzematen?

San Paul, *ermitaua* – San Mauro, *abadea, beneditarra*
 San Arnaldo Janssen, *apaiza eta fundatzailea*
 (*Verbo Divino kongregaziokoak*)

Isaias Profetaren liburutik 49, 3. 5-6.

Jaunak esan zidan: «Zu zara nire zerbitzaria, Israel, zure bidez agertuko dut neure ospea». Orain honela mintzo da Jauna, amaren sabelean eratu ninduena haren zerbitzari izateko, Jakobean leinuak harengana bihurtarazteko eta Israel herria biltzeko. Ohorez jantzi nau Jaunak eta neure Jainkoa izan dut indar. Jaunak esan dit: «Ez da aski zu nire zerbitzari izatea, Jakobean leinuak berreraikitzeke eta Israelen bizirik geldituak itzularazteko. Nazioen argitzat ezarriko zaitut, nire salbamena lurraren azken mugaraino irits dadin».

Sal 39: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.

San Paulok 1 Korintoarrei 1, 1-3.

Nik, Paulok, Jainkoak hala nahirik eta berak deiturik, Jesu Kristoren apostolu naizen honek, eta Sostenes anaiak, Korinton dagoen Jainkoaren eliz elkarteari idazten diogu. Jesu Kristok sagaratu zaituzte eta Jainkoak bere herri santu izateko deitu, edozein lekutan Jesu Kristo gure Jaunari dei egiten dioten guztiekin batera, hauek eta guk Jaun bat bera onartzen baitugu. Grazia zuei eta bakea gure Aita Jainkoagandik eta Jesu Kristo Jaunagandik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 29-34.

Aldi hartan, ikusi zuen Joan Bataiatzaileak Jesus beregana etortzen eta esan zuen: «Hona hemen Jainkoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Honi buruz esan nuen nik: “Badator nire ondoren gizon bat, niri aurrea hartu didana, ni baino lehenagotik baitzen”. Nik ere ez nuen ezagutzen; baina ni urez bataiatzera etorri banaiz, hura Israeli ager zekion etorri naiz». Eta aitormen hau egin zuen Joane: «Espiritua ikusi dut uso-irudian zerutik jaisten, eta haren gainean gelditzen. Nik ere ez nuen ezagutzen; baina urez bataiatzera

Urteko 2. astea

San Paul, *ermitaia* – San Mauro, *abadea, beneditarra*San Arnaldo Janssen, *apaiza eta fundatzailea**(Verbo Divino kongregaziokoak)*

bidali ninduenak esan zidan: “Espiritua jaisten eta gainean gelditzen zaiola ikusten duzuna, hura da Espiritu Santuaz bataiatzen duena”. Nik ikusi dut eta aitortzen, hauxe dela Jainkoaren Semea».

Joan da lau ebanjelarietatik Jesusen bataioa kontatzen ez duen bakarra. Alabaina, berak ere, sinoptikoez bezala, Jesusen eta Joan Bataiatzailearen arteko topaketaren lekukotza ematen du; izan ere, gertakari hori, une garrantzitsua da Jesusen bizitzan. Laugarren ebanjelioaren ikuskari honek luzatu egiten du hein batean joan den astean ospatu genuen festaburua, Elizak salbamenaren historian Joan Bataiatzaileak izandako garrantzi erabakigarria azpimarratzeko interes sakona izango balu bezala. Joan Bataiatzailea, bere burua bitartekari soil aitortzen duen gizona da: berak Jainkoagana bihurtzea eta bekaturen barkamena iragartzen baditu ere, oso ondo daki berari ez dagokiola bekatua mundutik kentzea. Horregatik seinalatzen du Jesus eta, bere keinuaz, begirada guztiak Jainkoaren Bildotsagana bideratzen ditu. Igarle guztiak bezala, berari betetzeko eman zaion misioarekin konformatzen da Bataiatzailea, agian latza eta distira gutxikoa izan arren, baina ez du besterik asmatzen. Bera begiak ondo irekitzera deitua dago, ez soilik zerutik jaisten den uso bat ikusteko –hori edonork ikus bailezake–, baizik eta zeinu horren esanahia argitzeko. Irudi interesgarria eta iradokitzailea eskaintzen digu «ahotsen artean, ahotsa» bereiztea oso zail egiten zaigun garai hauetan bizi garenoi.

Urteko 2. astea

San Martzelo 1.a, 30. aita santua, eta martiria

Hebrearrei gutuna 5, 1-10: Semea izanik ere, bere neke artean ikasi zuen esaneko izaten. **Sal 109**: Melkisedeken sailean apaiz zara zu behin betiko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2, 18-22.

Aldi hartan, Joanen ikasleek eta fariseuek barau-eguna zuten batean, etorri ziren batzuk eta esan zioten Jesusi: «Joaen ikasleek eta fariseuen ikasleek barau egiten dute, eta zure ikasleek zergatik ez?». Jesusek erantzun zien: «Barau egin al dezakete eztei-lagunek, senar berria berekin duten bitartean? Ez dezakete baraurik egin, senar berria berekin duten bitartean. Etorriko da senar berria kenduko dieten eguna; orduan bai, egun hartan egingo dute barau. Ez dio inork josten jantzi zahar bati oihal gordinezko adabakirik; adabakiak tira egiten baitio jantziari, oihal berriak zaharrari, eta handiago egiten da zarrastada. Ez ditu inork ardo berriz betetzen zahagi zaharrak; ardoak lehertu egiten baititu zahagiak: ardoa eta zahagiak, denak galtzen dira; horregatik, ardo berria zahagi berritan».

Jesus, apurka-apurka, bere proiektuaren berritasuna zirriborratzen hasi da. Gaurko ebanjelioak zalantzan jartzen duela dirudi judu jaieratsuen espiritu-bizitzan pilare garrantzitsua zen baraua. Alabaina, arretaz irakurtzen badugu, Jesusek baraua ez duela ezabatzen ikusiko dugu, baizik eta lekualdatu egiten duela askoz ere garrantzitsuagoa den interesgune batera: bere presentzia askatzailera, alegia. Bere hizkera eguneroko bizitzaren irudietatik abiatuta harilkatzen du: soingainekoa, zapia, ardoa, zahagiak. Hitz hori izan daiteke gure lehentasunak, bata bestearen aurka gabe, berrikusteko gonbita; baita geure buruari galdetzeko ere, ea guk Jainkoaz hitz egiteko erabiltzen dugun hizkera, gure etxeko bizilagunek ulertua izan al daitekeen.

Urteko 2. astea
San Anton, *abadea*

Hebrearrei gutuna 6, 10-20: Eskainia zaigun itxaropena aingura bezain sendoa eta segurua dugu. **Sal 110:** Betidaino oroituko zaie Jauna bere itunaz.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 2, 23-28.

Bazihoan Jesus larunbat batean gari-soroetan barna, eta ikasleak galburuak mozten hasi ziren bidenabar. Fariseuek esan zioten: «Adizu, nolatan egiten dute larunbatean, zilegi ez dena?». Eta hark esan zien: «Ez al duzue inoiz irakurri Davidek egin zuena, bera eta bere gizonak beharraldian eta goseak gertatu ziren batean? Jainkoaren etxean sartu baitzen, Abiatar apaiz nagusi zela, eta apaizari ez beste inori jatea zilegi ez zaion eskaintzako ogiak jan zituen, eta, gainera, lagunei eman». Eta esan zien: «Gizakiarentzat egina da larunbata, eta ez gizakia larunbatarentzat. Beraz, Gizonaren Semea bada larunbataren nagusi ere».

Jesusen berrikuntzak errotik erasaten die bere garaiko erakundeei: Tenpluari, Legeari beronen purutasun-kodeak, larunbata ospatzea eta guzti. Normala denez, usadioen bermatzaileak ezin dira axolagabe gelditu Jesusen jokabidearen aurrean, arriskuan jartzen du-eta ezarria duten ordenamendua. Beste leku batzuetan esango duen moduan, Jesus ez da etorri Legea ezabatzeraz, hura betetzera baizik, baina beraren jatorrizko ortzi-muga berreskuratuz: gizakiaren bizia Jainkoari erabat lotua izatea, alegia. Pasarte honetan, Jesusek ez du urratzen larunbateko betebeharra, baizik eta beraren ikasleak dira galburuak biltzen dituztenak gosea asetzeko. Berriro ere, desegiteaz baino gehiago zentzua aurkitzeaz eta lehentasunak ezartzeaz ari da Jesus.

Hebrearrei 7, 1-3.15-17: Apaiz zara zu betieran, Melkisedeken sailean
Sal 109: Melkisedeken sailean apaiz zera zu behin betiko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3, 1-6.

Aldi hartan, sartu zen berriro Jesus sinagogan, eta han, beso ihartua zeukan gizon bat zegoen. Begira zegozkion Jesusi, larunbatez sendatuko ote zuen, zertan salatu izateko. Jesusek gizon beso-iharrari esan zion: «Jaiki zaitez eta zatoz denon erdira». Eta han zeudenei galdera egin zien: «Larunbatez zer da zilegi, on egitea ala gaitz egitea? Bizia salbatzea ala hiltzen uztea?». Baina haiek isilik zeuden. Orduan, ingurukoei haserre begiratu, haien bihotzaren gogorrez mindurik, esan zion gizonari: «Luzatu beso hori». Luzatu zuen, eta bere onera etorri zitzaion besoa. Orduan fariseuek handik atera eta herodestarrekin batzar egin zuten, Jesus nola galduko.

Markosen ebanjelioa hasi besterik ez da egin eta dagoeneko ikusi ditugu erlijio-buruzagi batzuk Jesus suntsitu nahian. Beraz, gatazka etengabeko zerbait izango da Jesusen maisutza-ibilbide guztian, eta, dirudienez, behar dituenerako horiei aurre egiteko beharrezkoak diren erremintak badituela ematen du. Pasarte honek irudika lezake Jesusek berak sortzen dituela beretzako arazoak; izan ere, elbarriak ez baitio ezer eskatu. Baina beraren begirada, Aitarena bezala, ez da inoiz axolagabe edo galduta gelditzen gizakiek dituzten sufrimenduen aurrean: «Ikusi dut neure herriaren zapalkuntza». Beraren bihotza ere ez da sorgor gelditzen: bera blaitzen duten haserreak eta tristurak indar handiz talka egiten dute beraren aurkarien gogortasunarekin. Alde baten ala bestearen alde egin beharra dago.

Urteko 2. astea

Santuak: Joan Ogilvie, Esteban Pongrác, Meltxor Grodziecki
apaizak, eta Marko Krizevcanin, *Esstergom-eko kalonjea*.Dohatsuak: Ignazio de Azevedo, *apaiza* eta lagunak,*

Hebrearrei gutuna 7, 258, 6: Jesu Kristok opariak behin betiko eskaini zituen, bere burua eskaintzean. **Sal 39:** Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egiteko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3, 7-12.

Aldi hartan, Jesus itsasertzera baztertu zen ikasleekin, eta jendetza handiak jarraitu zion Galileatik. Egiten zituenak entzunik, jendetza handia bildu zen harengana Judeatik, Jerusalemdik, Idumeatik, Jordanez beste aldetik, eta Tiro eta Sidongo inguruetatik. Ikasleei esan zien, ontzi bat prest edukitzeko harentzat, jendetzak zapaldu ez zezan. Izan ere, asko sendatu zituen, eta gaitzik zuten guztiak gainera zihoazkion, bera ukitu nahian. Hura ikustean, espiritu lohiak ahuspez jartzen zitzaizkion aurrean, oihuka eginez: «Jainkoaren Semea zara zu». Baina, hark zorrotz agindu zien, ez agertzeko bera nor zen.

Ikasleek Jesusekin egin duten bitzita, berehala hasi da oso estua izaten eta, are gehiago, baita deserosoa izaten ere. Noranahi joanda ere, pertsona-olde handiak jarraitzen dio oso baliabide gutxirekin, gose direnek, gaixo daudenek, desorekatuek... Gizatalde ibiltari hori ez da babesten barne-bitzita hutsal batean; hasiera-hasieratik, Jesusek ez die uzten bere jarraitzaileei beren ongizatean bil-biltzen, eta bere burua haiek estutzeko arriskuan jartzen du. Maisu honek sendatzeko eta pertsonekin harremanetan sartzeko oso modu berezia du: «Gainera zetozkion bera ukitzeko». Beraren jarraitzaileek halako “gorputzetik gorputzerako” harreman bat izaten ikasi behar dute, beraren presentzia ebanjelizatzailea zehaztuko duena. Ikusi, entzun, ukitu, sentitu, gustatu... Ebanjelioa zentzumenetatik igerotzen da.

* Santiago Salès, *apaiza* eta Gilermo Saultemouche, *martiriak, jesuitak*.
San Makario Handia, *abadea*.
Martzelo Spinola, *dohatsua, fundatzailea (Jainkoaren Bihotzaren mirabeak)*.

Hebrearrei 8, 6-13: Kristo itun hobe baten bitarteko egin da. Sal 84:
Onginahia eta leialtasuna elkarren bidera aterako dira.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3, 13-19.

Aldi hartan, Jesus mendira igo zen; nahi zituenei dei egin zien, eta harekin joan ziren. Bere lagun egin zituen hamabi, predikura bidaltzeko, eta deabruak uxatzeko ahalmena eman zien. Honela eratu zuen Hamabien taldea: Simon –Pedro izena ipini ziona–, Santiago Zebedeorena eta Joan, haren anaia –Boanerges izena ipini zien, hau da, Trumoikume– Andres, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas eta Santiago Alfeorena, Tadeo, Simon kanaandarra, eta Judas Iskariote, salduko zuena bera.

Jesusek eskaintzen duen bizi-proiektua, zoragarria bezain zaila da. Ebanjelioko txalupara inor ezin da igo bere kabuz: jasotako deiak soilik eutsi diezaioke Jaunari atxiki nahi zaionaren jarraipen umilari. Markosek marko ospetsua ezarri du Hamabien hautaketa kontatzeko, agian hasiera-hasieratik kontakizunean azpimarratzeko, gizaki hauskor haiek, behin batean Jesus abandonatuko zuten haiek, berak hautatu zituela, ziren bezalako. Berak nahi izan zuelako dei egin zien. Nori bere izenaz dei egin zion. Berarekin egoteko eta berak gidatuak izateko dei egin zien. Baina aldi berean, haiekin bere hitza, boterea, misioa eta bizia bera partekatzeko.

Urteko 2. astea

Santa Ines, *birjina eta martiria*

Hebrearrei 9, 2-3.11-14: Kristo bere odolaz eta behin betiko sartu zen Santutegian. Sal 46: Oihu alaien artean igo da Jainkoa, turutasoinuz Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3, 20-21.

Aldi hartan itzuli zen Jesus ikasleekin bere etxera eta, halako gizataldea bildu zitzaien, jateko ere betarik ez baitzieten ematen. Jesusen ahaideak, hori jakitean, hura hartu eta eramatera atera ziren, burutik eginda zegoela esaten baitzuten.

Bere maisutza-aldiaren lehen aroan, Jesusek Kafarnaumen (Kfar Nahum) du bere jarduera-oinarria. Nazaretetik 40 bat kilometrora dagoen herria da Kafarnaum. Bere «etxea» berehala bihurtzen da itxuraz mugarik ez duen eta sakonki eskaintzen den harrera-toki garrantzitsu. Eskandalua berehala dator. Antzinako arro mediterraneoko gizarte-arauen artean zegoen ohorearen eta lotsaren kodea, hau da, familiako kide baten portaerak leinu osoari eragiten zion. Horregatik, Jesusen familia Kafarnaumera doa beraren bila, erotu egin dela pentsaturik. “Nazaretoko seme bihurri” horrek gatazkari aurre egin behar izan dio eta ez soilik arrotzekin, baita bere familiako kideekin ere.

Urteko 3. astea

San Bizente, *diakonoa eta martiria*
San Valero Zaragozako, *gotzaina***Isaias Profetaren liburutik 8, 23b-9, 3.**

Garai batean, lotsagarri utzi zituen Jaunak Zabulonen lurraldea eta Neftaliren lurraldea; azken aldian, ordea, ospetsu egin du itsaso ondoko bidea, Jordanez bestaldeko lurraldea, Galilea, jentilen eskualdea. Ilunpean zebilen herriak argi handia ikusi zuen; herioitzalean bizi zirenei distira egin zien argiak. Gehitu zenuen poza eta handitu atsegina; pozik dabilta zure aurrean, uzta biltzean izaten den pozez, harrapakinak banatzean izaten den atseginez. Apurtu baituzu lepoan zeramaten uztarri astuna, zapaltzailearen aginte-makila, Madiango gudarostea apurtu zenuen bezalaxe.

Sal 26: Jauna dut argi eta salbamen.**San Paulok 1 Korintoarrei 1, 10-13. 17.**

Senideok: Jesu Kristo gure Jaunaren izenean arren eskatzen dizuet: etor zaitezte bat guztiok eta ez bedi izan zatiketarik zuen artean; bizi elkar ondo harturik, ikuspegi eta iritzi bat bera duzuela. Izan ere, ene senideok, Kloeren jendeagandik jakin dut eztabaidak dituzuela zeuen artean; alegia, hor ari omen zarete nor bere aldetik esaten: «Ni Paulorena naiz», «ni Apolorena»; «ni Pedrorena», «ni Kristorena». Zatitua al dago, bada, Kristo? Paulo gurutziltzatu ote zuten zuengatik? Edota Pauloren izenean bataiatu ote zintuzteten? Kristok ez ninduen bataiatzera bidali, Berri Ona hots egitera baizik, eta hau, ez giza jakinduriazko hitzez, Kristoren gurutzeak bere indarra gal ez dezan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 4, 12-23.

Joan Bataiatzailea kartzelan sartu zutela jakin zuenean, Jesus Galileara baztertu zen. Baina, Nazaret utzirik, itsasbakterean dagoen Kafarnaumen jarri zen bizitzen, Zabulonen eta Neftaliren lurraldean. Horrela bete zen Isaias profetak esana: «Zabulonen lurraldea eta

Urteko 3. astea

San Bizente, *diakonoa eta martiria*San Valero Zaragozakoa, *gotzaina*

Neftaliren lurraldea, itsasbidea, Jordanez beste aldean, jentilen Galilea. Ilunpean bizi zen herriak argi handia ikusi zuen; herioitzalean bizi zirenei distira egin zien argiak». Ordutik hasi zen Jesus hots egiten: «Bihotz-berri zaitetze, hurbil da-eta Zeruetako Erreinuua». Jesusek, Galileako itsasbazterrean barna zebilela, bi anaia ikusi zituen, Simon, Pedro deitua, eta haren anaia Andres, sareak itsasoan botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek, berehala, sareak utzi eta jarraitu egin zioten. Aurreraxeago, beste bi anaia ikusi zituen, Santiago eta haren anaia Joan, Zebedeoren semeak, aitarekin ontzian sareak konpontzen; eta dei egin zien. Haiek, berehala, ontzia eta aita utzirik, jarraitu egin zioten. Galilea osoan barna ibili zen Jesus, hango sinagogetan irakasten, erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten eta herrian gaitz eta eritasun guztiak sendatzen.

Mateok, Itun Zaharra ondo ezagutzen duten judu-jatorriko kristauei bideratzen die bere ebanjelioa. Arrazoi horregatik, bere interesetako bat da, Jesusengan iragarpen guztiak erabat betetzen direla adieraztea. Pasarte honetan, Isaiasek «Jentilen Galilean» begia jarriz aipatzen duena betetzen dela ikusten dugu. Hain zuzen ere, Zabulon eta Neftali Jakoben bi seme izan ziren, eta beraien ondorengoak Palestina iparraldean kokatu ziren; alabaina beren gurasoen fedea utzi zuten eta atzerritarrekin nahastu ziren; hori guztia profetak «heriotzaren lurrean eta itzalean» bizi izateko modutzat ulertu zuen. Haurtzaroko kontakizunen amaieran, Mateok aipatua zuen Jesusen familia Galilean kokatu zela «profeten iragarpenera bete zedin: «Nazaretarra deitua izango da» (Mt 2, 23). Hori gertatu zenean, Jesus artean haurra zen, ez zen hautatzeko gai. Orain, aldiz, bere maisutza hastera doanean, berak erabakitzen du gaizki ikusia den baina berea duen lurralde hartan gelditzea eta Jainkoaren Erreinuua bertan predikatzen hastea. Berri Ona munduaren bazter guztietaraino iritsiko da, baina erretzatik hasita.

Urteko 3. astea

San Ildefonso, *gotzaina*
Santa Emerentziana, *birjina*

Hebrearrei gutuna 9, 15.24-28: Kristok, bekatuak kentzeko, behin bakarrik eman zuen bere burua opari; bigarren aldian, beraren zain daudenei agertuko zaie. **Sal 97:** Kanta Jaunari kantu berri, egin baititu hainbat harrigarri.

Jesu Kristoren ebanjelioa San Markosen liburutik 3, 22-30.

Aldi hartan, Jerusalemetik jaitsitako lege-maisuek hau zioten Jesusi buruz: «Beltzebu dauka honek barruan», eta «Deabruen buruzagiaren indarrez botatzen ditu deabruak». Jesusek Beregana deitu eta parabola hauen bidez hitz egin zien: «Nola dezake Satanasek Satanas bota? Bere baitan zatiturik dagoen erreinuak ezin du iraun. Bere baitan zatiturik dagoen familiak ezin du iraun. Era berean Satanasek ere, bere buruaren aurka jaiki eta zatiturik badago, ezin du iraun; harenak egin du. Ez daiteke inor indartsu baten etxean lapurretara sartu, aldez aurretik hura lotzen ez badu; orduan, bai, harrapa ditzake haren etxeko ondasunak. Benetan diotsuet: Dena barkatuko die Jainkoak gizakiei, bekatuak eta esan litzaketen birao guztiak; baina Espiritu Santuaren aurka birao egiten duenak ez du sekula barkamenik izango: errudun izango da betiko». Espiritu gaiztoa zeukala ziotenei eman zien erantzun hau.

Jesusek berak eta beraren ekintzek etengabe sortzen dituzte jendea mugimenduan jartzen duten erreakzio oso desberdinak: jende-oldeek harriduraz jarraitzen diote; aldiz, bere senitartekoak Nazaretetik datozkio bila, burutik egina dagoela uste dutelako; eskribauak, berriz, Jerusalemetik iristen dira deabruaren eraginpean jarduten duela ziurtatzeko. Jesusek ez die uzten bera liluratzeko edo bere burua atxilotzeko; bere hitza askatasunez eskaintzen die entzuteko prest daudenei. Arrazoitzeko beraren modua oso soila eta erraza da: Satanasek gizakia zapaltzen duen bitartean, Espirituak askatu egiten du, oneratu, sendatu... Bistakoa dena ikusi nahi ez dutenak, ezin dira barkatuak izan, ez Jainkoak kondenatzen dituelako, baizik eta berek argia onartzeari uko egiten diotelako.

Urteko 3. astea

San Frantzisko Saleskoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*

Hebrearrei gutuna 10, 1-10: Hona hemen ni, Jainko, zure nahia egiteko. **Sal 39:** Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 3, 31-35.

Aldi hartan, etorri ziren Jesusen ama eta senideak, eta, kanpoan gelditurik, deiarazi zuten. Jesusek bere inguruan eseria zeukan jendetaldea, eta esan zioten: «Hor dituzu kanpoan zeure ama eta senideak, zure bila». Jesusek erantzun zuen: «Nortzuk dira nire ama eta nire senideak?». Eta, bere inguruan eseriak zeudenei begiratu, esan zuen: «Hona nire ama eta nire senideak. Jainkoaren nahia egiten duena, hura da nire anaia, eta arreba, eta ama».

Agian hauxe da Markosen ebanjelioko testurik gogorrenetakoa, nahiz eta gerora kristau-usadioak oso azkar leundu duen, Maria, Jainkoaren borondatea bete duen lehenengo pertsona dela baieztatuz. Markosek ematen duen irudia, ordea, desberdinagoa da eta merezi du agerian uzten duen gatazka hori aztertzeak. Jendea ikasleek osatutako zirkuluan Jesusen inguruan eserita dagoen bitartean, beraren senitartekoak handik kanpo daude eta etortzeko dei egin diote. Agian behin eta berriz ahalegindu dira etxera eramaten, burutik egina dagoelakoan (cf. Mk 3, 20-21). Mariari ez dio ezerk ihes egiten: lehenengo ikaslea bera da, baina berak ere ikasi egin beharko du Jesus aske uzten eta bere amatasuna misiolari ikuspegiarekin modu berri batean bizitzen.

Eginak liburutik 22, 3-16: Bataia zaitetz eta garbitu zeure bekatuetatik Jaunaren izenari dei eginetz. Sal 116: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16, 15-18.

Aldi hartan, Jesus Hamaikei agertu eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete eta sendatu egingo dira».

Markosen ebanjelioaren amaieran, Jesusek berarekin egoteko eta ondoren predikura bidaltzeko deitu zituen ikasleak, eta beren misioaren berrespena jasoko dute eta lurraren azken muturreraino iristeko prest jarri ditu. Hasierako lehen elkarte hark, Paulok bezala eta XXI. mendeko kristau bakoitzak bezala, «sinesteak» zer esan nahi duen ekintza zehatz eta jakinetara bihurtuz ikasi behar du. Lehendabizi, Jesusekin izandako topaketan norberak bereganatutako esperientzia horretaz nor bere burua hornitu behar du; ondoren, entzun eta ikusitakoaren lekukotza eman behar du etengabe eta etsi gabe, bizitzaren Jainkoa zuzenean adierazten duten zeinuen bidez: gaizkiaren aurka borrokatu, sendatu eta maitasunaren hizkuntza berria mintzatu.

Urteko 3. astea

San Timoteo eta San Tito, *gotzainak***San Paulok 2 Timoteori 1, 1-8.**

Nik, Paulok, Jainkoak hala nahirik, Kristo Jesusen bidez agindu zaigun bizia iragartzeko Jesu Kristoren apostolu naizen honek, zuri, nire seme maite Timoteori: grazia, errukia eta bakea Jainko Aitagandik eta Kristo Jesus gure Jaunagandik. Eskerrak ematen dizkiot, nire arbasoek bezala bihotz garbiz zerbitzatzen dudan Jainkoari, eta gogoan zaitut etengabe, gau eta egun, neure otoitzetan. Zure malkoez oroitzean, zu ikusteko irrikaz nago, pozez bete nadin. Izan ere, gogoan dut zuk duzun zinezko fedea, lehenik Loide zure amonak eta Eunize zure amak izan zuten fede bera; ziur nago zuk ere baduzula. Gomendatzen dizut indarberri dezazula nik eskuak ezartzean Jainkoak eman zizun dohaina, Jainkoak ez baitigu beldurti egiten gaituen espiritua eman, indarra eta maitasuna ematen eta geure buruaren jabe egiten gaituen espiritua baizik. Ez izan, bada, gure Jauna aitortzeko lotsarik, ezta lotsatu ere harengatik kartzelan dagoen honetaz; bestela baizik, Jainkoaren indarraz fidaturik, eraman itzazu nekeak nirekin batean Berri Onaren alde.

Sal 95: Abestu Jaunaren gauza miresgarriak nazio guztietan.**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4, 21-25.**

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Lakaripean edota ohe azpian ipintzeko pizten ote da kriseilua? Ez ote da argimutilaren gainean ipintzeko pizten? Izan ere, ez dago ezer gordea agertuko ez denik, ezta ezkutuan ere argitaratuko ez denik. Entzuteko belarririk duenak, entzun beza!» Beste hau ere esan zien: «Kontu izan nola entzuten duzuen! Zuek zein neurritan entzun, neurri berean emango dizue Jainkoak, eta gehiago ere bai. Izan ere, duenari eman egingo zaio; ez duenari, ordea, duen apurra ere kendu»

Jesusen hitza egiatia da. Ez du inor engainatzen. Maisuak dei egiten badigu, gu mundura bidaltzeko da, Ebanjelioaren, beraren maitasunaren eta errukiaren lekuko izan gaitezen, argi egiteko izaten den argimutileko argi-zuzi bezala, geure bizi-ingurumenean Jesusen argia partekatzeko bezala. Ebanjelioa doan hartzen dugun dohain bat da, gainerakoekin partekatu behar dena. Eta zenbat eta gehiago partekatu, orduan eta gehiago zabaltzen dena. Pasarte honek Jaunagandik hartu ditugun dohainekin eskuzabal izatera gonbidatzen gaitu. Partekatu ditugunean ez gaituzte pobretzen ; aitzitik, are gehiago aberasten gaituzte eta are gehiago hurbiltzen gaituzte Jesusengana. Hau izan zen Timoteo eta Tito santuek utzi ziguten esperientzia, zeinen oroitzapena egiten baitugu gaur.

Oharra: Santutasuna ez datza halako edo bestelako bertute-ekintza bat egitean, baizik eta Jainkoaren eskuetan apal eta haur bihurtzen gaituen bihotz-jarrera bizitzean, geure ahuldadearen jakitun eta ausardiaraino fidaturik Aitaren ontasunean. (LISIEUXEKO TERESA SANTUA).

Urteko 3. astea

Santa Angela Merici, *fundatzailea (Urtsulinak)*San Enrike de Ossó, *fundatzailea (Teresianak)*

Hebrearrei gutuna 10, 32-39: Nekaldi-borroka handia izan zenuten.

Ez galdu, beraz, zeuen uste ona. **Sal 36:** Zintzoek salbamen
Jaunagandik dute.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4, 26-34.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Jainkoaren erreinua, lurreean hazia ereiten duen gizonaren antzekoa da: gizona lo dago gaez eta jaikitzen da goizean; hazia ernetzen da eta hazten doa, eta gizonak ez daki nola. Bere-berez ematen du lurra uzta: lehenengo lastoa, gero burua eta ondoren galburuaren beteko alea. Eta, alea prest dagoenean, igitaia eransten zaio, helduak baitaude gariak». Beste hau ere esan zien: «Zeren antzekoa dela esango dugu zeruko erreinua? Zer parabolatan adieraziko dugu? Mostaza haziaren antzekoa da: lurreean ereiten denean, hazirik txikiena da, baina jaiotzen denean, gora doa, eta barazki guztiak baino handiago egiten da; adar handiak botatzen ditu, txoriek haren itzalpean habia egin ahal izateraino». Horrelako parabola askoz hots egiten zien hitza, haiek uler ziezaioketen neurrian, eta parabolarik gabe ez zien hitz egiten; ikasleei, ordea, bakarrean, dena agertzen zien.

Jesus ez zen inoiz izan ikasle Israelgo maisu handien eskolan eta, horregatik, Galileako Nazareteko jende xumearen hizkera hartu zuen. Erreinuaren berritasuna adieraziko duten irudien bila hasten denean, berak eta beraren entzuleek ere ezaguna duten hurbileko errealitatean aurkitzen ditu baliabideak. Beraz, jendearen «ulermenera moldatzea» ez dugu unean uneko moda, ez eta pedagogia-berrikuntza ere, baizik eta Jesusek giza bizitza hartzean, bere buruagan izan zuen beharra. Jesusekin bat eginda, gaur egun galdera hau egin beharko genioke geure buruari: «Zerekin konpara dezakegu Jainkoaren Erreinua? Zer parabola erabiliko dugu»? Espirituaren sorkuntza-gaitasunean sinesten badugu, jakingo dugu noski inguratzen gaituen errealitateak egunero-egunero oparitzen dizkigun metaforak argitzen.

Hebrearrei gutuna 11, 1-2.8-19: Jainkoak eraiki eta antolatutako herria itxaroten zuen Abrahamek. **Sal: Lukas 1:** Bedeinkatua Jauna, Israelgo Jainkoa, agertu eta bere herria askatu duena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 4, 35-40.

Egun hartan, ilunabarrean, Jesusek esan zien ikasleei: «Goazen uraz beste aldera». Eta jendea utzi eta ontzian eraman zuten, zegoen bezala. Beste ontzi batzuek ere jarraitu zioten. Haize-ekaitz handia sortu zen, eta ontzi barruraino sartzen ziren ur-palastak, ontzia ia betetzeraino. Bera, berriz, txopan, burko gainean lo zegoen. Esnarazi eta esan zioten: «Maisu, galtzera goaz, eta ez al zaizu axola?». Orduan, jaikirik, agindu zion haizeari eta itsasoari esan: «Ixo! Hago gelditu!». Gelditu zen haizea, eta barealdi handia sortu zen. Gero, esan zien: «Zergatik zarete horren beldurti? Ez al duzue oraindik sinesmenik?». Eta harriturik gelditu ziren, eta elkarri ziotsaten: «Nor dugu, ordea, hau? Haizeak eta itsasoak ere obeditzen baitiote!».

Bizitzan ez da dena onaldia izaten eta are gutxiago Jesusi jarraitu nahi diogunean. Arrantzale galilear haiek, Nazareten, lur-barrualdean, lehorrean, hazia zen beren Maisuak baino hobeto ezagutuko zuten itsasoa ziur asko. Ez dakigu arratsalde hartan zerurantz kezka baterik begiratu ote zuten ekaitzaren beldurrez. Kontua da, obeditu egin ziotela, txalupara berarekin igo zirela eta berehala izugarriko izuikara sentitu zutela. Jesusi jarraitzea, beraren hitzean fidatu eta «beste aldeko urertzera» joateko arriskua nork bere gain hartzea da; bereziki, kontuak atera eta lurrean gelditzea zuhurragoa izan litekeela ikusten denean. Obeditzen duten haizeak eta urak, gure izatearen indar gutziakin egindako fedearen onarpen sakona irudika lezakete.

Urteko 4. astea

San Gelasio, 49. aita santua

Santa Radegunda Trebiñokoa, *birjina*

Sofonias Profetaren liburutik 2, 3; 3, 12-13.

Bila ezazue Jauna, zuek, lurraldeko apalok, haren aginduak betetzen dituzuenok; bila ezazue zuzentasuna, bilatu apaltasuna. Eta beharbada aurkituko duzue babesa Jaunaren haserre-egunean. Herri apal eta behartsua utziko dut Nik zurean; Jaunaren izena izango dute babes Israelen bizirik geldituek. Ez dute bidegabekierarik egingo, ezta gezurrik esango ere; haien ahotan ez da mihi maltzurrik aurkituko; inork izutu gabe larratuko dira eta etzango».

Sal 145: Zorionekoak gogoz behartsu direnak, berena dute-eta zeruetako erreinua.

San Paulok 1 Korintoarrei 1, 26-31.

Senideok: Begira zeintzuk zareten Jainkoak deituak: zuen artean ez dira asko munduak jakintsutat hartzen dituenetakoak, ezta ahaltsu nahiz handiketakoak ere. Aitzitik, munduak zorotzat duena aukeratu du Jainkoak, jakitsuak lotsarazteko, eta munduak argaltzat duena, indartsuak lotsarazteko; munduak baliogabetzat eta mesprezagarrizat duena aukeratu du Jainkoak, munduaren begietan ezerez dena, zerbait direla uste dutenak ezerezteko; horrela, ez du inork Jainkoaren aurrean harrotzerik. Berari zor diozue izatea Kristo Jesusengan, Berau egin baitu Jainkoak guretzat jakinduria, berorren bidez askatu gaitu, salbatu eta santu egin. Horrela betetzen da Liburu Santuak dioena: «Harrotu nahi duena, harro bedi Jaunagan».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 1-12a.

Aldi hartan, jendetza ikusirik, Jesus mendira igo zen. Eseri eta ikasleak inguratu zitzaizkion. Orduan, honela hasi zitzaien irakasten: «Zorionekoak gogoz behartsu direnak, berena baitute Jainkoaren erreinua. Zorionekoak atsekabetuak, beraiek baititu Jainkoak

Urteko 4. astea

San Gelasio, 49. aita santua
Santa Radegunda Trebiñokoa, birjina

kontsolatuko. Zorionekoak apalak, beraiek izango baitute agindutako lurra ondare. Zorionekoak zuzentasunaren gose eta egarri direnak, beraiek baititu Jainkoak aseko. Zorionekoak errukitsuak, beraiek baititu Jainkoak erruki izango. Zorionekoak bihotzez garbi direnak, beraiek ikusiko baitute Jainkoa. Zorionekoak bakegileak, Jainkoaren seme-alaba izango baitira. Zorionekoak zuzentasunagatik erasoa jasango dutenak, berena baitute Jainkoaren erreinua. Zorionekoak zuek, nigatik madarikatuko zaituztetenean, erasoka eta gezurrez gaizki esaka erabiliko zaituztetenean. Poztu zaitetze eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruetan».

Jesusen garaian, eta garai guztietan ere, zoriontasunak oso mezu harrigarriak dira. Nondik atera lezake Maisu honek sufritzen duen jendea eta gosea jasaten duena zoriontsu izatera deitua dagoela? Nolatan uler liteke benetako zoriona eta gozamina, munduko irizpideen arabera indartsuentzat eta boteretsuentzat izan ordez, jazarpenak jasan arren, txiki entzat eta errukitsuentzat, bakegileentzat eta zuzentasuna ezartzen ahalegintzen direnentzat izango direla? Zalantzarik gabe, Jesusek proposatutako ordena berri hau “lurretik” erabat etenda legokeen “zeru” baterako gordeta balego, mehatxatua dagoen behartsuen itxaropena alferrik eta faltsuki elikatzeko izango litzateke soilik. Baina, ez, Jesusen iragarpena ez da ari lurrean ezin iritsi den etorkizun batez, baizik eta guri bizitza dagokigun errealitate zehatz batez. Zeruetako Erreinua jada gaur eta hemen egiten da presente, Jesus beraren arabera eta beraren proposamena umiltasun osoz bizitza erabakitzen dutenengan. Horregatik, Ebanjelioa Berri On da eta ez “herriaren lobe-lar”; dagoeneko eta hemen eta orain esperimentera baitezakegu, lurra bizigarriago bihurtzen dela, Jainkoaren jatorrizko helburua irits dadin lan egiten dugun bakoitzean: “Jainkoaren lur” bihurtu, alegia.

Urteko 4. astea

San Lesmes, *beneditarra*Santa Martina, *birjina eta martiria*

Hebrearrei 11, 32-40: Sinesmenaren bidez menperatu zituzten erreinuak. Jainkoak guretzat zerbait hoberik erabakita zuen.

Sal 30: Bizkor zaitezte, izan bihotz, Jaunagan uste on duzuen guztiok.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 5, 1-20.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak itsasoaz bestaldera joan ziren, gerasatarren lurraldera. Jesus ontzitik jaitsi zeneko, espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat atera zitzaion hilobi artetik bidera. Hilobietan bizi zen, eta ezin zuen inork lotuta eduki, ezta kateaz ere; askotan lotua zuten girgiluz eta katez, baina hark kateak hautsi eta girgiluak puskatu egiten zituen, eta ez zen inor ere hura menperatzeko gauza. Gau eta egun, hilobi artean eta mendiz mendi ibili ohi zen etengabe, marrumaka eta bere burua harriz zauritzen. Urrutitik Jesus ikustean, lasterka joan eta aurrean ahuspeztu zitzaion. Eta oihu handiz esan zion: «Zer duzu nirekin, Jesus, Goigoiko Jainkoaren Seme horrek? Jainkoarren, ez nazazu oinazetu». Izan ere, Jesusek honela agindu zion: «Atera gizon honengandik, espiritu gaizto hori!». Orduan, Jesusek galdetu zion: «Nola duzu izena?». Hark erantzun: «Taldea, asko gara eta». Eta arren eta arren eskatzen zion, ez zitzala lurralde hartatik kanpora bidal. Txerri-talde handia zebilen mendi inguru hartan, uxarrean. Espiritu gaiztoek eskatu zioten Jesusi: «Bidal gaitzazu txerrietara, beraietan sar gaitezen». Hark baimena eman zien; orduan, espiritu gaiztoak gizonagandik atera eta txerrietan sartu ziren, eta txerri-taldea ezpondan behera itsasora amildu zen; bi milaren bat txerri ito ziren. Txerrizainek ihes egin eta gertatuaren berri zabaldu zuten herrian eta auzoetan; eta jendea, zer gertatu zen ikustera etorri zen. Jesusengana iristean, han ikusi zuten deabruduna, eserita, jantzirik eta bere onean, lehen deabru-taldearen menpe zegoen huraxe bera, eta biziki izutu ziren. Ikusi zutenek deabrudunari gertatua eta txerriena kontatu zieten. Orduan, beren lur-mugetatik alde egiteko eskatu zioten Jesusi. Jesus

Urteko 4. astea

San Lesmes, *beneditarra*
Santa Martina, *birjina eta martiria*

ontzira igotzean, deabrudun izanak arren eskatzen zion berarekin ibiltzen uzteko, baina Jesussek ez zion utzi; esan zion, ordea: «Zoaz etxera, zeure senitartera, eta jakinarazi Jaunak, zutaz errukiturik, egin dizun guztia». Joan zen, bada, eta Jesussek egin ziona hots egiten hasi zen Dekapolisko lurraldean. Denak harriturik gelditzen ziren.

Gizakia ez dirudien gizon bat, bere buruagandik eta bere gizartetik baztertzen duen gaizkiaren indar-multzo batek desitxuratua: horixe da Jesusen bila doan pertsonaia, gure historian errotuta dauden egoera zuzengabe asko argiro irudikatzen dituen. Sinesgaitza dirudien arren, inori ez zaio interesatzen egoera hori aldatzea; batez ere, pertsona bakar baten eraldaketak –kasu honetan pertsona baztertu batenak– ezarrita dagoen ordenamendua eta gainerakoengizateak zalantzan jartzen baditu. Oso gaurkoa dugu Jesusen jarrera, eta beste behin konponketatxorik ez du onartzen gizakiaren duintasuna jokoan dagoenean.

* * *

Pobreak ebanjelizatzaile

Leonidas Proaño gotzaina: Riobamba, Ekuatore, +1988-08-31. Gotzain ordenaturik, bihotz jainkotiarrez, ohore-tituludun, jantzi klerikalez iritsi zen. Zuzenbide Kanonikoa leial betetzera. Onarpen ona egin zioten lurjabe aberats handiek eta militarrek. Ohi zen bezala den-dena. Baina laster jarri zen indigenei begira, eta behartsu ikusi zituen, goseak, gaixo, kasik biluzik. Aurkikuntza honek hunkitu egin zuen, eta bere oinak indigena behartsuen artean ipintzea erabaki zuen. Egiatzatu zuen, pertsonak oinak dituen hartan pentsatzen duela. Behartsuek harrera ona egin zioten eta Taita Gotzaintzat hartu zuten; titulu familiar txeratsua goa zen hori haientzat. Pobreak aldaketa hasi zuen gotzainagan, pertsonaren eliztar konbertsio dolorezkoa eta luzea, inoiz ere amaitu gabea. (*Edgar R. Beltran, 2019-10-04 [zati bat] in Religion Digital*)

Urteko 4. astea

San Bosco, *apaiza* (salesianoen fundatzailea)

Hebrearrei 12, 1-4: Joan gaitezen, eraman handiz, dagokigun borrokaldira. **Sal 21:** Goretsiko zaituzte, Jauna, zure bila dabilzanek.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 5, 21-43.

Aldi hartan, Jesus itsasoaz bestaldera itzuli zenean, jende-talde handia bildu zitzaion. Oraindik itsaso ondoan zegoela, sinagogako buruzagietako bat etorri zen, Jairo zeritzana; Jesus ikustean, honen oinetan ahuspezturik, arren eta arren eskatzen zion: «Alabatxoa hiltzorian dut; zatoz haren gainean eskuak ezartzera, senda dadin eta bizi». Jesus harekin abiatu zen. Jende asko zihoakion ondoren, estutzen. Bazen han emakume bat, hamabi urte haietan odol-jarioz zegoena. Hamaika sendagileren eskuetan jasatekoak jasana zen, eta bere ondasun guztiak ere horretan emanak zituen; baina sendatu beharrean, gero eta okerrago zihoan. Jesusen berri entzunda, jende artean atzetik joan eta jantzia ukitu zion, honela baitzioen, bere artean: «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz». Une berean odol-jarioa gelditu zitzaion, eta gaitza sendatua zuela sumatu zuen bere gorputzean. Berehala antzeman zion Jesusek halako indar bat atera zitzaiola barnetik eta, jende artean itzulirik, galdetu zuen: «Nork ukitu dit jantzia?». Ikasleek erantzun zioten: «Hainbeste jendek estutzen zaituela ikusi, eta nork ukitu zaituen galdetzen duzu?». Baina Jesus ingurura begira zebilen, nork egin ote zion hori. Orduan, emakumeak, beldurrez dar-dar –ongi baitzekien zer gertatu zitzaion–, oinetara erori eta egia osoa aitortu zion. Baina Jesusek esan zion: «Alaba, zeure sinesmenak sendatu zaitu; zoaz bakean, eta sendatua bekizu gaitza». Oraindik hizketan ari zela, sinagogako buruzagiaren etxetik etorri ziren, esanez: «Hil zaizu alaba. Zertarako eman neke gehiago Maisuari?». Baina Jesusek, hitz horiek entzunik, sinagogako buruzagiari esan zion: «Ez izan beldurrik; zuk sinetsi!». Ez zion inori ere berekin joaten utzi, Pedro, Santiago eta honen anaia Joani izan

Urteko 4. astea

San Bosco, apaiza (*salesianoen fundatzailea*)

ezik. Sinagogako buruzagiaren etxera iristean, ikusi zuen Jesusek hango istilua, jendea negarrez eta garrasika. Sartu eta esan zien: «Zer dela-eta horrenbeste istilu eta negar? Neskatxa ez dago hilda, lo dago». Haiiek barre egiten zioten. Baina Jesusek denak kanpora bidali zituen eta, neskaxaren aita-amak eta berekin zituenak harturik, neska zegoen tokira sartu zen. Neskari eskutik heldu eta esan zion: «Talitha, kum» (hau da: «Neskatxa, zuri diotsut, jaiki»). Berehala zutitu eta ibiltzen hasi zen, hamabi urte bazituen eta. Jende guztia harri eta zur gelditu zen. Jesusek zorrotz agindu zien inork ere ez zezala jakin. Eta neskaxari jaten emateko esan zien.

Jesusek, bere lehen hogeita hamar urteak ezer berezirik egin gabe igaro dituenak, pazientzia izaten ikasi du, “pazientzia nazaretarra”, pertsona bakoitzari bere denbora ematen diona, errealitatea asaldatzen eta gainpasatzen ez duena. Irudi hau ikustean, erraza da Jairoren presari erreparatzea, beraren alaba hilzorian baitago. Jesusek sinagogako buruaren etxera alabatxoa sendatzeko joatea erabaki ondoren, emakume bat sartzen da tartean bidean. Jesusek utzi egiten dio ukitzen emakumeari, estutu dezaten ere utzi dio jendeari; baina ez dio inori utzi berak nahi ez duen lekura joanarazten. Paradoxa bada ere, mirariak, hain zuzen ere, errealitatea behartzeari uzten diogunean eta Jainkoaren erritmo txundigarriak konfiantzaz onartzen ditugunean gertatzen dira.

—

Dainkoagana
bide 
eginez
Yogo
Jardunen
 bidez

OTSAILA / ZEZEILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Parrokientzat: Otoitz egin dezagun parrokientzat: erdigunetzat elkartasuna edo komunioa harturik, izan daitezela elkarte gero eta fededunago, gero eta ahaideago, gero eta onargarriago premiarik handiena dutenentzat.



Urteko 4. astea

San Pionio, *apaiza eta martiria*

Hebrearrei 12, 4-7.11-15: Jainkoak maite duena zentzarazten du.

Sal 102: Jaunaren maitasuna betidanik betidaino beldur dioteneztat.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 1-6.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen, ikasleak ondoren zituela. Hurrengo larunbatean, sinagogan irakasten hasi zen. Entzule askok, harriturik, zioen: «Nondik du honek hori guztia? Zer da eman zaion jakinduria hori? Eta honen eskuz gertatzen diren mirari horiek? Hau ez al da, ba, arotza, Mariaren semea eta Santiago, Jose, Judas eta Simonen anaia? Eta honen arrebak ere ez al dira hemen gure artean bizi?». Eta ezin zuten sinetsi harengan. Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian, senitartean eta etxean izan ezik». Eta ezin izan zuen han miraririk egin; hala ere, gaixo bakar batzuk sendatu zituen, eskuak gainean ezarriz. Eta harriturik zegoen haien sinesgogorkeriaz. Gero, inguruko auzoetan ibili zen, irakasten.

Jesusek bere bizitzan barnean daraman gatazkak ñabardura berezia hartzen du bere herrian: «herritarrak ez dira hartaz fidatzen». Gauza benetan aztertuta, egia esan, beraren herritarrek arrazoizko galderak egiten dituzte. Beraiek ikusia dute Jesus hazten, familiar bizitzen, eskulanean... Badakite, jakin, ez duela goi-mailako ikasketarik egin eta beraren eskola eguneroko bizitza baino ez dela izan. Beraz, nondik irteten dira orain beraren mirariak? Zein da beraren jakinduriaren iturria edo jatorria? Nolatan ausartzen da sinagogan irakasten? Fedearen begiek soilik lagun diezagukete Jainkoaren presentziari geure bizitzako gertakari xumeenetan antzematen. Hain zuzen ere, hortxe ez du distirarik lortzen, Jainkoa gure bila irteten den horretan.

Malakias Profetaren liburutik 3, 1-4.

Hau dio Jainko Jaunak: «Hor bidaltzen dut neure mezularia, nire aurretik bidea prestatzera. Eta berehala etorriko da bere santutegira, zuek bila zabilzaten nagusia, eta irrikatzen duzuen ituneko mezularia. Horra non datorren, dio Jaun ahalguztidunak. Nork jasan haren etorrera-eguna? Nor zutik egon, hura agertzean? Urtzailearen sua bezala izango da, garbitzailearen lixiba bezala. Urtu eta garbitzeko eseriko da; zilarra eta urrea garbitzen diren bezala, halaxe garbituko ditu Lebiren ondorengoak, Jaunari opariak behar bezala eskain diezazkioten. Orduan, atsegin izango zaio Jaunari Judako eta Jerusalemgo oparia, lehengo garaietan bezala».

Sal 23: Jaun ahalguztiduna da Errege ospetsua.

Hebrearrei egindako gutunetik 2, 14-18.

Familia bereko seme-alabek odol eta haragi berak dituzten bezala, Jesusek gizakiaren odol-haragiak hartu zituen, bere heriotzaz heriotzaren nagusia den deabrua ezerezteko, eta heriotzaren beldurrez beren bizitza osoan esklabo bizi zirenak askatzeko; Jesus ez baitzen aingeruei laguntzera etorri, Abrahamen jatorrikoei baizik. Horregatik, gauza guztietan bere senideen antzeko izan behar zuen, apaiz nagusi errukitsu eta Jainkoari dagozkion gauzetan fidagarri izateko, herriaren bekatuak barkatzeko gai. Bera ere nekeetan probatua izan zelako, orain gauza da probaldian daudenei laguntzeko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 22-40.

Moisesen legearen arabera, amari garbikuntza egiteko ueña iritsi zitzaionean, gurasoek Jerusalemara eraman zuten Jesus, Jaunari aurkezteko. Izan ere, honela dago agindua Jaunaren legean: «Lehen-seme guztiak Jaunari sagaratuko dizkiozue». Jaunaren legean ezarritako

Urteko 4. astea

JAUNAREN AURKEZPENA**Kandelen bedeinkapena eta elizbira**Canterburyko Lorentzo santua, *gotzaina*

oparia ere eskaini behar zuten: «Bi usapal edota bi usakume». Bazen Jerusalemen Simeon izeneko gizon bat, gizon zintzo eta jainkozalea, Jainkoak Israel noiz kontsolatuko zain zegoena. Espiritu Santua berekin zuen, eta aditzera emana zion ez zela hilko Jaunaren Mesias ikusi arte. Eta Espiritu Santuak eraginda tenplura joan zen. Legeak agintzen zuena betetzeko gurasoek Jesus haurra tenplura eraman zutenean, Simeonek haurra besoetan hartu eta Jainkoa bedeinkatu zuen, esanez: «Orain utz dezakezu, Jauna, zeure morroi hau bakean hiltzen, Zeuk hitzeman bezala. Ikusi dute nire begiok zugandiko salbamena, herri guztien aurrean zuk aurkeztua: nazioak argitzeko argia eta zure herri Israelen ospea». Haurraren aita-amak harriturik zeuden haurraz esaten zirenekin. Eta Simeonek bedeinkatu egin zituen, eta haurraren ama Mariari esan zion: «Begira, israeldar asko erortzeko eta beste asko altxatzeko ipinia dago hau; eztabaida sortzen duen ezaugarri izango da, horrela bihotz askotako asmoak agerian geldi daitezen. Eta zuri ezpata batek alde zuzeneko zulatuko dizu arima». Bazen profetesatua bat ere, Ana zeritzana, Fanuelen alaba, Aserren jatorrikoa. Urteetan oso aurreratua zen; gaztetan ezkondu eta zazpi urtez senarrarekin bizi ondoren, alargun gelditu zen, eta bazituen laurogeita lau urte. Gau eta egun tenpluan egoten zen, barau eta otoitz, Jainkoa zerbitzatzeko. Ordu hartan han gertatu zen, eta Jainkoa goستن eta haurraz mintzatzeko hasi zitzaizen Jerusalem askatasunaren zain zeuden guztiei. Jesusen gurasoak, dena Jaunaren legeak agintzen duen bezala bete ondoren, Galileara itzuli ziren, beren herri Nazaretera. Haurra hazten eta indartzen zihohan, jakinduriak betetzen ari zen eta Jainkoaren grazia berekin zuen.

Salbamenaren historia, giza historiaren bide bihurri eta konplexuetan barna doa. Jainkoa behin eta berriz ahalegintzen da bere bizi betearen proiektua birbideratzen, ez du zalantzarik izan bere Semea bera herri baten koordinatu zehatzetan txertatzeko. «Gure haragi-odoletan, Jesus ere partaide izan zen», gure lege eta ohituretan, gure hazkuntza-beharretan: egiazko gizakia gu geu bezalaxe. Eta ez hori bakarrik: txikien artean izan zen gizaki eta gutxienez hartuak direnen artean; Mariak eta Josek tenplura eraman zuten opari-eskaintzak ongi erakusten du hori. Hau al da egiaz «zuek bila zabilzaten Jauna, zuek nahi duzuen itunaren mezularia?».

* * *

Jainkoaren Semea benetako gizon

Jainkoaren Semea benetan egin da gizon, eta, bekatuan izan ezik, gure antzeko egin da alde guztietatik. Horregatik, bete nahi izan du Jesusek Moisesen legea, Tenplura joanez.

Bestalde, Espirituak eraginda, Simeon zaharra eta Ana tenplura doaz Jesusi harrera egitera, Israel herriaren izenean.

Simeonek Andre Mariari esaten dionetik («Begira, ume hau israeldar batzuentzat erorbide eta besteentzat altxabide izateko ezarria dago; eztabaida sortuko duen seinalea izango da, horrela guztien asmo ezkutuak agerian geldi daitezten. Eta zuri ere saminezko ezpatak zulatuko dizu bihotza»), Jesusen gurutzeko heriotza barruntatzen dugu jadanik.

Urteko 4. astea

San Blas, *gotzaina eta martiria*San Oskar, *gotzaina*Santa Claudina Thévenet, *fundatzailea (Jesus-Maria)*

Hebrearrei 13, 1-8: Jesu Kristo berbera da atzo eta gaur; berbera gizaldi eta gizaldietan. **Sal 26:** Jauna dut argi eta salbamen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 14-29.

Aldi hartan, jakin zuen Herodes erregeak Jesusen berri, honen izena oso ezaguna baitzen. Batzuek zioten: «Joan Bataiatzailea piztu da hildakoen artetik; horregatik du mirariak egiteko ahalmen hori». Beste batzuek, berriz: «Elias da». Eta beste zenbaitek: «Profeta da, antzinako profetak bezalakoa». Iritzi hauek entzutean, Herodesek zioen: «Nik lepoa moztu nion Joan huraxe piztu da». Izan ere, Herodesek Joan harrapatu eta kartzelan lotua zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Feliperen emaztea zen Herodias, baina Herodesek bere emaztetzat hartua zuen, eta Joanek esaten zion: «Ez zaizu zilegi zeure anaiaaren emaztea edukitzea». Horregatik, gorroto zuen Herodiasek Joan eta hil egin nahi zuen, baina ezin, Herodesek begirune baitzion Joani; gizon zuzen eta santutzat zeukan, eta babestu egiten zuen. Joanen hitzek kezkarik sortzen bazioten ere, gogoz entzuten zion. Etorri zitzaion, ordea, Herodiasi aukerako eguna: Herodesek, bere urtebetetzean, afaria eman zien agintari, gudaiburu eta Galileako handikiei. Sartu zen jantokian Herodiasen alaba eta dantzari egin zuen, eta atsegin izan zitzaion Herodesi eta mahaikideei. Orduan, erregeak esan zion neskatxari: «Eskatu nahi duzuna, eta emango dizut». Eta zin eginez agindu zion: «Eskatu ahala guztia emango dizut, nire erreinuaren erdia bada ere». Atera zen neskatxa eta bere amari galdetu zion: «Zer eskatuko diot?». Amak erantzun: «Joan Bataiatzailearen burua». Itzuli zen arin-arin erregeagana eta eskaria egin zion: «Emadazu oraintxe berean Joan Bataiatzailearen burua azpilean». Goibel jarri zen erregea, baina mahaikideen aurrean egindako zinagatik, ez zion ukatu nahi izan. Berehala, bere guardiako bat bidali zuen, Joanen burua ekartzeko aginduz. Joan zen hura kartzelara eta lepoa moztu zion, eta azpilean ekarri zuen burua; neskatxari eman zion, eta neskatxak

amari. Joanen ikasleak, hori jakitean, haren gorpua jasotzera etorri eta hilobian ehortzi zuten.

Jesusen garaikideek jarraipen bat ikusten dute Jesusen mezuaren eta Joan Bataiatzailearen artean, eta, hainbestekoa ikusi ere, non Herodes erregeak berak ere bai badirudi nahastu egiten dituela bi pertsonaiak. Apurka-apurka, Jesusen fama hedatzen ari dela ikusarazten du Markosek eta hori geroz eta arriskutsuagoa izango da Jesusentzat; halere, bere lehengusua bezalaxe, ez da inoiz boteretsuen ikuspegiaren mende jarriko. Kontakizun honetan Markosek kontatzen duen Joan Bataiatzailea erailtzeko arrazoiak badu zerbait baino gehiago zentzugabetik: azpijokoek, gutzietatik eta ondo gelditzeko itxurek, profeta baten bizitzak baino gehiago balio dute. Berek libreki onartutako amaiera bortitz, gogor eta tragikoak, Joanen eta Jesusen ondorekoentzat bisita-leku gertatuko dira. Beraien jarraitzaileentzat bidaliak izateko toki.

* * *

Fedea, bila eta bila ibiltzea

Sinesten badut Jesus dela «bidea, egia eta bizia», ez naiz sekula seguru izango ezen nire ikuspegi erlijiosoa bat datorrela Egiarekin. Beti gogoratzen naiz Txinako misiolari hartaz: XX. mendearen hasieran jendetza bati predikatzen ari zen kristau-ikasbidea, eta, bukatzeko, esan zien: «Iragarri berria dizuet egia!» Txinatar batek eskua altxatu zuen eta hitza eman zioten: «Aita, hiru egia dira: zurea, nire eta egia egiazkoa. Zuk eta nik, biok batean, ibili behar dugu egia egiazkoaren bila». (*Frei Betto, Religion Digital 2017-07-30*)

Urteko 4. astea

Joana Valois-koa, *erregina*San Joan Brito, *apaiza*, eta Rodolfo Acquaviva, *apaiza*,eta lagunak, *dohatsuak, martiriak, jesuitak*

Hebrearrei 13, 15-17.20-21: Artzain handia hildakoen artetik atera duen bakearen Jainkoak, gai egin zaitzatela on guztirako. **Sal 22:** Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 30-34.

Aldi hartan, apostoluak Jesusengana bildu, eta egin eta irakatsi zuten guztiaren berri eman zioten. Jesussek esan zien: «Zatozte zuek bakarrik, leku baztertu batera, atsedean pixka bat hartzera». Askok baitziren zetozenak eta zihoazenak, eta jateko ere ez zieten astirik uzten. Eta itsasontzi batean leku baztertu eta baketsu batera joan ziren. Askok ikusi zituen joaten, eta ezagutu ere bai, eta oinez lasterka han bildu ziren hiri guztietatik, eta aurrea hartu zieten. Ontzitik ateratzean, Jesussek jendetza handia ikusi zuen; erruki izan zituen, artzainik gabeko ardiak bezala baitzeuden. eta luze irakasten hasi zitzairen.

Ikaslearen bizia, Jesusengana etengabe egindako joan-etorrietan garatzen da. «Zatozte» aginduak sarritan du oihartzuna ebanjelioen orrialdeetan: batzuetan premiazko dei moduan («zatozte nirekin eta giza arrantzale egingo zaituztet»); beste batzuetan gonbita leun moduan («zatozte nigana nekatuok, lanpetuok»); eta beste batzuetan, azkenik, adiskidetasun-xuxurla moduan («zatozte apur batean atsedetera»). Ikasleak ezin du jakin aldez aurretik, bere belarrietan sarritan berritzen den «zatozte» horrek denboraren joanean hartuko duen norabidea. Baina ziur dakiena da, Jesusengana etortzea, «artzainik gabe dabilzan ardiak» bezala dabilen hainbat jenderekin bizitza partekatze arriskuan jartzea dela.

Isaias Profetaren liburutik 58, 7-10.

Honela mintzo da Jauna: «Eman zeure ogitik gose denari eta hartu etxean aterperik gabeko behartsuak; jantzi biluzik dagoena, eta ez egin entzungor zeure gizakideari. Orduan zure argia egunsentia bezala zabalduko da eta zure osasuna berehala erneko; justizia izango duzu aurretik gidari eta Jaunaren aintza atzetik babesgarri. Orduan zuk dei egin, eta Jaunak erantzungo dizu; zuk oihu egin, eta hark esango: “Hemen nauzu!”. Uztarri oro, salaketak eta gaizki esateak bazterten badituzu, gose denari zeure ogitik ematen eta behartsuaren premia asetzen baduzu, zure argia ilunpean zabalduko da eta zure ilunaldia eguerdi bihurtuko».

Sal 111: Jaunari begirune diona ilunpean argia bezala da zintzoentzat.

San Paulok 1 Korintoarrei 2, 1-5.

Senideok: Niri dagokidanez, Jainkoaren salbamen-asmoa iragartzera joan nintzaizuean, ez nizuen hitz egin giza jakinduriazko hizkera landua erabiliz. Izan ere, zuen artean ez nuen ezer jakin nahi izan, Jesu Kristo, eta berau gurutziltzatua, izan ezik. Horregatik, ahul eta beldurrez dar-dar agertu nintzen zuen aurrean. Nire hitza eta predikua ez ziren giza jakinduriazko argudiotan oinarritu, Espirituaren indarrean baizik, horrela, zuen sinesmena Jainkoaren indarrean oinarri zedin, eta ez giza jakindurian.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 13-16.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zuek zarete lurraren gatza. Baina gatza gezatzen bada, nola gazitu berriro? Ez du jadanik ezertarako balio, kanpora bota eta jendeak zapaltzeko baizik. Zuek zarete munduaren argia. Ezin daiteke ezkuta mendi gainean dagoen herria. Kriseilua ere ez da pizten lakaripean ipintzeko, argimutilaren

Urteko 5. astea

Santa Ageda, *birjina eta martiria*

gainean ipintzeko baizik, etxeko guztiei argi egin diezaien. Era berean, zuen argiak denen aurrean egin behar du argi, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita gorets dezaten».

Mateoren 5. kapituluak (zoriontasunak), joan den igandean haren hasiera irakurri baikenuen, «mendiko hitzaldi» luzearen lehenengo zatia jasotzen du; bertan, Jesusek, bere proiektuan funtsezkoak diren eduki batzuk jakinarazten dizkie ikasleei. Geroago, ebanjelariak, salbamenaren mezua modu argian adierazten duten Jesusen ekintzak bistaratuko dizkie bere irakurleei. Berriro ere, Jesusek, hemen, eguneroko bizitzatik jasotako bi irudi erabiltzen ditu ikasleei bokazioa azaltzeko: gatza eta argia. Bi gai horiek ezaugarri bat dute komunean: beren eginkizuna nabarmenagoa izaten da beren gabezia handitzen den heinean. Gatza, sobera denean edota falta denean antzematen da janarietan. Ongi argizatutako gela batean, gauzengan jartzen dugu arreta, baina ez argian. Funtsean, hori da Jesusi jarraitzen diotenek munduan bizitzeko duten modua: eguneroko bizitza Ebanjelioaren gatzaz onduz eta gizakien eta gizarteko harremanak Jainkoaren Erreinuko balioez argituz. Baina, gatz eta argi izateak, ez du zerikusirik arreta-gune guztiak norberaganatzearekin eta gustuko gozamenak metatzearekin. Hain zuzen, ebanjelio-erako biziera egiaztatzeko irizpidea, keinu mehatxatzaileak alboratu eta ogia eta bizia gutxien dutenekin partekatzean datza. Hain justu, Jainkoari aintza ematea horretan datza.

6

Astelehena

OTSAILA / ZEZEILA

Urteko 5. astea. San Martin Igokundekoa (*Beasain 1567 – Japonia 1597*), *frantziskotarra, martiria. Santuak*: Paulo Miki, *erlijiosoa*, eta lagunak; eta *Dohatsuak*: Karlos Spinola, Sebastian Kimura, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak, jesuitak*

Hasiera liburutik 1, 1-19: Jainkoak esan zuen, eta hala egin zen.
Sal 103: Poztu bedi Jauna berak eginetan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 53-56.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak, itsasoa igaro ondoren, Genesaretera iritsi ziren eta bertan lehorreratu. Ontzitik atera orduko ezagutu zuen jendeak Jesus, eta lurralde hartan barna joan ziren; eta Jesus nora, haraxe eramaten zizkioten gaixoak ohatiletan. Jesus joaten zen herri, auzo nahiz baserrietan, gaixoak atarietan ipintzen zizkioten. Soinekoertza bederen ukitzen uzteko eskatzen zioten, eta ukitzen zuten guztiak sendaturik gelditzen ziren.

Noizbait, salbuespen gisa, Jesus ur gainean oinez ibilia da. Baina bere ibilera normala lehorrean egiten du, txalupa porturatzea, lehorreratzea, herrietan, auzoetan eta baserrietan edo etxaldeetan ibiltzea. Zerbaitegatik da Jesus nazaretarra, ukitu litekeen errealitateari lotua. Bere agintea ez du adierazten teoria konplexuen bidez, baizik eta sufritzen duen jendeari beregana iristen uzteko duen gaitasunaz eta bidean agertzen zaizkion pertsonak modu zehatzean bera ukitzen uzteko duen jarreraz. «Bera ukitzen uzte» horrek ondorio asko ditu, eta ez beti aurreikus litezkeenak. Dena delako hori hurbiltzen zaio eta begi aurrean aurpegi berezia jartzen dio Jesusek; hain zuzen ere, jendartean galduta dabilenean agertzen ez duena. Ukitzeak haragia sendatzen du... eta baita harremanak ere.

Urteko 5. astea

San Amant, *gotzaina (Baionako elizbarrutian)*San Rikardo, *erregea*

Hasiera liburutik 1, 20-2, 4a: Egin dezagun gizona, geure antz eta irudiko. **Sal 8:** Jauna, gure Jauna, bai miragarria zure izena, lurbira osoan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7, 1-13.

Aldi hartan, bildu ziren Jesusengana fariseuak eta Jerusalemdik etorritako lege-maisu batzuk, eta ikusi zuten, ikasleetako batzuek esku zikinekin –hau da, eskuak garbitu gabe– jaten zutela. Orduan, fariseuek eta lege-maisuek galdetu zioten: «Zure ikasleek zer dela-eta ez dituzte gordetzen zaharren ohiturak, eta zergatik jaten dute esku zikinekin?». Jesusek erantzun zien: «Itxurazaleak! Ederki asko esan zuen Isaias profetak zuetaz. Idatzirik baitago: “Herri honek ezpainez gorensten nau, / baina bihotza urruti dauka nigandik. / Hutsa da ematen didaten gurtza, / gizakien agindu diren irakatsiak / irakasten baitituzte”. Jainkoaren aginduak alde batera utzi, eta gizakien ohiturak gordetzen dituzue». Esan zien, gainera: «Bai, Jainkoaren agindua ezeztatzen duzue, zeuen ohiturak gordetzeagatik. Moisesek esana da: “Aintzat har itzazue aita eta ama”; eta “Aita edota ama madarikatzen duenak heriotza merezi du”. Zuek, berriz, hau esaten duzue: “Norbaitek aitari edota amari esaten badio: Nigandik izango zenukeen gutzia jaurettxeari eskaintzen diot”, halako horri ez diozue uzten aita-amengatik ezer egiten. Honela, Jainkoaren hitza ezeztatzen duzue zeuen ohiturengatik. Eta honelako beste gauza asko egiten duzue».

Jesusen eta erlijio-buruzagien arteko tirabira tonuz igotzen hasi da, Legea betetzeaz dituzten ikuspegi desberdinengatik. Bere entzuleak judu-jatorrikoak dituen eta arazoaren muinari berehala antzematen dion Mateok ez bezala, Markosek bere irakurleei azaldu beharra du usadio horiek nolakoak diren, Jesusen ikasleek zehatz-mehatz betetzen ez dituzten horiek, alegia. Oso interesgarria da Markosen aukera horri begiratzea; izan ere, bere kontakizunean itzulunguru bat egin beharra izan du, eta, gainera, aukera ematen dio bere mezuaren hartzailerei arrotzak zaizkien sentiberatasuna eta gizatasun-maila agertzeko. Horrenbestez, nola helarazi gaur egun guk Ebanjelioa jendeari, jadanik inork ulertzen ez dituen kode eta formatan itxita gelditzen bagara?

* * *

Loinazko San Martin

Beasainen Loinazko San Martinen heriotza-eguna edo, hobeto esanda, zeruratutako eguna ospatzen dugu otsailaren 5ean. Japonian 1597-02-05ean hil zuten, baina ordutegiaren aldea dela bide, hemen otsailaren 6a dateke hori eta elizaren santu-egutegian otsailaren 6an agertzen da. Beasainen beti otsailaren 5ean ospatu izan dugu egun hori.

San Martinez lan gehiago ere badira argitaratuak, baina azkenekoa eta ziur asko sakonena aipatzearren, Martin Mendizabal frantziskotarrak egin eta Beasaingo Udalak haren heriotzaren 4. mendeurrenean (1997an) argitaratutako Gipuzkoar ezezaguna San Martin Igokundekoa, Loinazkoa eta Amunabarrokoa. 1566-1597 izeneko liburua da.

Urteko 5. astea

San Jeronimo Emiliani, *aitorlea**(umezurtzen eta gaztedi utziaren zaindaria)*Santa Josefina Bakhita, *erlijiosa*

Hasiera liburutik 2, 4b-9, 15-17: Jainko Jaunak gizona hartu eta Edengo baratzean ipini zuen. **Sal 103**: Ene arima, goretzazu Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7, 14-23.

Aldi hartan, Jesusek jendeari berriro dei egin eta esan zion: «Entzun denok eta ulertu ongi. Ez da ezer, kanpotik gizakiaren barrura sartuz, hau kutsa dezakeenik; barrutik ateratzen zaionak, horrek kutsatzen du gizakia». Jendea utzi eta etxeratu zenean, hitz horien esanahiaz galdetu zioten ikasleek. Jesusek esan zien: «Beraz, ez duzue zuek ere ulertzen? Ez al duzue ikusten kanpotik sartzen zaion ezerk ez dezakeela gizakia zikindu? Sartu, ez baitzaio bihotzean sartzen, sabelean baizik, eta handik komun-zulora doa». Hitz hauekin, janari guztiak garbiak direla adierazi nahi zuen. Eta gaineratu zuen: «Barrutik ateratzen denak, horrek bai egiten duela gizakia zikin. Izan ere, barrutik, gizakiaren bihotzetik, ateratzen dira asmo txarrak, lizunkeria, lapurretak, hilketak, adulterioak, diru-gosea, gaiztakeriak, maltzurkeria, lasaikeria, bekaizkeria, irainak, harrokeria, burugabekeria. Gaiztakeria hauek guztiak barrutik ateratzen dira, eta hauek dute kutsatzen gizakia».

Jesus jabetu da bere garaiko kezka indartsu batez, lege-garbitasunari dagokionaz, alegia, eta gogoeta sakonagoa egitera bideratu ditu ikasleak. Maisua haserre azaltzen da edota, gutxienez, harritua, beretzat bistakoa den zerbait ulertzeko bere solaskideek duten nagikeriagatik: «kanpotik sartzen zaion ezerk ezin du kutsatu gizakia». Jesus ez da erlatibista horietakoa, garbiaren eta zikinaren arteko aldea ukatzen dutenetakoa, baizik eta askoz ere barrurago darama garbitasunaren edo purutasunaren betebeharra. Beraren hitzaren argitan, ezin diogu geure buruari galdera egin gabe utzi geure erdigune sakonenean bizi dugunaz, geure bihotzean dugunaz; izan ere, hor jokatzeko da –inolako aitzakiarik gabe– gauzarik funtsezkoena edo garrantzitsuena.

Urteko 5. astea

Santa Apolonia, *martiria*San Migel Febres Cordero (Migel anaia), *salletarra*

Hasiera liburutik 2, 18-25: Aurrera eraman zion gizonari emakumea.

Sal 127: Dohatsu, Jaunaren beldur dena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7, 24-30.

Aldi hartan, Tiroko lurraldera joan zen Jesus. Etxe batean sartu zen, eta ez zuen nahi inork jakitea, baina ez zuen ezkutuan egoterik izan. Berehala, haren berri entzunik, emakume bat etorri zitzaion, alabatxoa deabru lohi batek hartua zeukana, eta oinetara ahuspeztu zitzaion. Jentila zen emakumea, Feniziako siriarra sortzez, eta alabagandik deabrua haizatzeko eskatzen zion. Jesusek erantzun zion: «Utzi lehenbizi seme-alabak asetzen; ez dago ondo seme-alaben ogia hartu eta txakurrei botatzea». Baina, emakumeak erantzun zion: «Egia, Jauna; baina txakurkumeeek ere jaten dituzte mahaipean umeen apurrak». Orduan Jesusek: «Zoaz, hitz horrengatik atera da-eta deabrua zure alabagandik». Joan zen etxera, eta neskatxa ohean etzana aurkitu zuen; deabrua, berriz, alde egina zen.

Jesus eta ikasleak, orain arte Galilean ibili diren arren, hemendik aurrera beren eskualdetik eta ondo ezagutzen dituzten juduen eremuetatik kanpo dauden lurraldeak arakutzen hasiko dira. Atzerriko emakume jentil bat izango da Jesusi bere misioaren ikuspegia zabaltzen lagunduko diona: salbamena uhin hedatzailea bezalakoa da eta ez du bereizten emakumeen eta gizonezkoen artean, edo juduen eta greziarren artean edo esklaboen eta libreen artean. Lehenengo kristau-taldeek zailtasunez egingo dute ikasketa hori; agian, berengan –guregan bezalaxe– duten gauzarik sakratuena, berena bakarrik balitz bezala hartzeko tentazioa dutelako. *Deus semper maior* (*Jainkoa beti handiagoa*) delakoa ezin da geure kalkuluen horma estuen barruan itxita gelditu.

Urteko 5. astea

Santa Eskolastika, *beneditarra, birjina (Nurtsiako San Benitoren arreba, biak Kasino Mendian biak.)*

Hasiera liburutik 3, 1-8: Jaungoikoa adinako izango zarete, onaren eta txarraren jakitun. **Sal 31:** Bai dohatsu, gaiztakeria barkatu zaiona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 7, 31-37.

Aldi hartan, Jesus, Tiroko lurraldea utzi eta Sidondik igaro eta Dekapolisen barna Galileako itsasora etorri zen. Gorra eta hitz-motela zen gizon bat ekarri zioten, eta eskuak gainean ezartzeko eskatu. Jesusek, jende artetik bereiz harturik, behatzak belarrietan sartu zizkion, eta bere listuz mihia ukitu zion. Zerura begira, intziri eginez, esan zion: «Effetá» –hau da: «Ireki zaitez»–. Eta berehala ireki zitzaizkion belarriak, eta mihiko lotura askatu, eta hizketan hasi garbi-garbi. Inori ez esateko agindu zien Jesusek. baina haiek orduan eta gehiago zabaltzen zuten albistea. Eta harriturik, zioten: «Ondo egiten du dena: gorrei entzunarazi eta mutuei hitz eginarazi».

Jesusek ez du erabiltzen “prozedura-eskulibururik” bere mirariak egiteko; beretzat ez dago sendakuntza-segidarik. Jesusek pertsona bakoitzaren eta egoera bakoitzaren izaera bakuna ezagutzen du eta une bakoitzean «keinu eta hitz egokiena» bilatzen ditu. Agian, emakume siriarr-feniziarrek erakutsi dionari jarraiturik, oraingoan berehala onartu du gizon atzerritar gor eta ia mutu hau sendatzea. Jainkoarekin harremanak izateko eta gizartean bizitzeko ere gaitasunik ez zuen pertsona da. Miraria, oraingoan ere eta berriro, ukitze estu batekin gauzatu da. Eta gaur, nola berrezarri harremanetarako gaitasuna, benetan gizaki egiten gaituena, geure zentzumen guztiak besteekin topo egiteko prest edukitzeko gai ez gara?

* * *

Urteko 5. astea

*Santa Eskolastika, beneditarra, birjina (Nurtsiako
San Benitoren arreba, biak Kasino Mendian biziak.)***Santa Eskolastika: Gorazarrea**

Lore batek nola,
hala zure graziak eta zintzotasunak distira,
oi Eskolastika.
Horregatik,
poz-pezik gatoz
zure gorespenak abestera.

Benito
gure aita ohoragarriaren
imitatzaile jator aldarrikatu
nahi zaitugu,
haren partaide baitzara
espirituan, hilobian eta aintzan.

Gaztarotik hartu zintuen
Kristok beretzat,
lotura estu eta biziak,
zeure maitasuna
etengabe
zuk berari azaltzeko.

Maitasun-sukarrak zauriturik,
bihotzez ezagutu duzu
zeure Senarra.
Anaiaren bizitza imitatuz,
gaina hartu diozu berari
maitasun handiago batez.

Urteko 5. astea

Santa Eskolastika, *beneditarra, birjina (Nurtsiako San Benitoren arreba, biak Kasino Mendian biziak.)*

Orbanik gabeko uso,
hegal-di-ziztuaz
zerura igo zara,
zure arimak,
ahotsak eta zentzuek
sutsuki opa zuten hartara.

Eskolastika maitea,
egizu, har dezagula ugari
Espirituaren ihintza,
Bildotsaren aintzan
parte hartu ahal izateko,
haren gorespenak abesteko. Amen.



Urteko 5. astea

Andre Maria Lourdeskoa

San Paskual 1.a, 98. *aita santua*

Has 3, 9-24: Jaunak Edengo baratzetik bota egin zuen gizakia, lurra landu zezan. **Sal 89:** Jauna, gure ihesleku zu izan zara, gizalditik gizaldira.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8, 1-10.

Egun haietan, berriro jendetza oso ugaria izanik eta zer janik ez, Jesusek ikasleei dei egin eta esan zien: «Erruki dut jende hau; badaramate hiru egun nirekin eta ez dute ezer ere jateko. Etxera baraurik bidaltzen badituz, bidean akiturik geldituko dira, urrutitik etorriak ere badira eta». Ikasleek esan zioten: «Baina nondik atera bakardade honetan hauek asetzeko adina ogi?». Hark galdetu zien: «Zenbat ogi duzue?». Eta haiek erantzun: «Zazpi». Orduan, jendeari lurrean esertzeko agindu zion. Gero, zazpi ogiak hartu eta, Jainkoari esker onezko otoitza egin ondoren, zaitu eta bere ikasleei eman zizkien, bana zitzaten. Haiek jendeari banatu zizkioten. Bazituzten arraintxo banaka batzuk ere; Jesusek bedeinkatu zituen eta haiek ere banatzeko agindu zien. Asetzeraino jan zuten denek, eta zazpi otarre bete zituzten hondarrekin. Lau mila inguru ziren. Ondoren, Jesusek agur egin zien, eta bere ikasleekin txalupara igo eta Dalmanuta aldera joan zen.

Maite duen jendea gai izaten da beste batzuei ohartu gabe gertatzen zaizkien egoerak ikusteko. Eta zerbait ikusten dutenean, ez dira bizkarra emanda gelditzen, arazoa edo gertakaria berekin zerikusirik gabea balitz bezala. Berehala beren sorkuntza-ahalmen guztiak abian jartzen dituzte atzematen dituzten gabeziak osatzen edo betetzen ahalegintzeko. Ematen du, halako zerbait gertatzen zaiola Jesusi, ez baita mugatzen jendearen espiritu-gabeziak ikusi eta begira gelditzera; izan ere, bera mundura ekartzera datorren salbamena, gizakia bere osotasunean hartzen duen esperientzia orokorra da. Ebanjelioa aldarrikatzen duenak ezin du izan etendurarik gutxien dutenen garrasi isilekin. Ikasleek begiak ireki behar dituzte eta konpromisoak hartu... mina sentitu arte.

Urteko 6. astea

Santa Eulalia Bartzelonakoa, *birjina*

San Modesto, *martiria*

Siraken liburutik 15, 16-21.

Nahi baduzu, gordeko dituzu aginduak, eta zintzo beteko Jaunaren nahia. Hark sua eta ura jarri dizkizu aurrean; nora nahi, hara eraman dezakezu eskua. Bizia eta heriotza daude gizakiaren aurrean jarriak; zer duen aukeratzeko, huraxe emango zaio. Handia da, bai, Jaunaren jakinduria, handia da haren ahalmena eta dena ikusten du. Begirune diotenengan ditu jarriak begiak, gizakiak egindako guztia ezagutzen du. Ez dio inori fedegabe izateko agindu, ezta inori bekatu egiteko baimenik eman ere.

Sal 118: Zorionekoak Jaunaren lege-bidean dabilzanak.

San Paulok 1 Korintoarrei 2, 6-10.

Senideok: Jakinduria irakasten diegu guk kristau helduei; baina jakinduria hori ez da mundu honetakoa, ezta laster galduko diren mundu honetako agintariena ere. Guk Jainkoaren jakinduria misteriozua irakasten dugu, hark ezkutuan edukia eta betidanik gure aintzarako erabakia zeukana. Mundu honetako agintarietako inork ez du ezagutu jakinduria hori, zeren, ezagutu izan balute, ez baitzuten gurutziltzatuko Jainkoaren aintza berekin zuen Jauna. Baina, Liburu Santuak dioten bezala, «inork ikusi eta entzun ez duena, gizakiari inoiz bururatu ez zaiona, Jainkoak bera maite dutenentzat prestatuak zeukana», horixe agertu digu Jainkoak Espirituaren bidez. Espirituak, izan ere, guztia aztertzen du, baita Jainkoaren barren-barrena ere.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 17-37.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez uste izan Moisesen legea edota profeten esanak baztertzera etorria naizenik; ez naiz baztertzera etorri, beren betera eramatera baizik. Benetan diotsuet: Zeru-lurrek iraungo duten bitartean, legearen letrarik edo zeinurik

Urteko 6. astea

Santa Eulalia Bartzelonakoa, *birjina*
San Modesto, *martiria*

txikienak ere ez du baliorik galduko, dena bete arte. Beraz, agindurik txikienetako bat hausten duena eta hausten irakasten, txikiena izango da zeruetako erreinuan; betetzen duena, berriz, eta betetzen irakasten, handia izango da zeruetako erreinuan. Hara zer diotsuedan: Jainkoaren nahia lege-maisuek eta fariseuek baino hobeki betetzen ez baduzue, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Ez hil inor”, eta norbait hiltzen duena errudun izango da auzitegian. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere senidearekin haserretzen dena errudun izango da auzitegian; senideari “zoroa” esaten diona errudun izango da batzar nagusian, eta “sinesgabea” esaten diona infernuko surako errudun izango da. Beraz, zeure oparia aldarean eskaintzean, gogoratzen bazara zure senideak baduela zerbitu zure aurka, utzi oparia han bertan, aldare aurrean, eta zoaz lehenik senidearekin bakeak egitera; etorri orduan eta eskaini zeure oparia. Konpon zaitez lehenbailehen zeure etsaiarekin, harekin auzitegira zoazen bitartean, etsaiak epailearen esku jar ez zaitzan, eta epaileak ertzainaren esku, eta giltzapean sar ez zaitzaten. Benetan diotsut: Ez zara handik aterako, azken txanpona ordaindu arte. Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Ez egin adulteriorik”. Nik, ordea, hau diotsuet: Emakumeari irrikaz begiratzen dionak egin du jadanik adulterioa bere bihotzean.

Eskuineko begia galbide bazaizu, atera eta bota zeuregandik urruti: hobe duzu gorputz-atal bat galdu, oso-osorik infernura jaurtia izan baino. Eskuineko eskua galbide bazaizu, moztu eta bota zeuregandik urruti: hobe duzu gorputz-atal bat galdu, oso-osorik infernura joan baino. Agindua dago hau ere: “Emaztea uzten duenak eman diezaiola dibortzio-agiria”. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere emaztea uzten duenak –legez kontra elkartuak ez badira behintzat– adulterioa bultzatzen du emaztea; eta utzitako emakumearekin ezkontzen denak adulterioa egiten du. Entzuna duzue antzinakoei agindu zitzaiena: “Ez egin gezurrezko zinik”, eta “bete Jaunari egindako zinak”. Nik, ordea, hau diotsuet: Ez egin inolako zinik, ez zeruagatik, Jainkoaren tronua

Urteko 6. astea

Santa Eulalia Bartzelonakoa, *birjina*

San Modesto, *martiria*

baita; ez lurragatik, haren oin-aulkia baita; ezta Jerusalemengatik ere, Errege handiaren hiria da eta. Ez egin zinik zeure buruagatik ere, ez baitezakezu zeure ile bakar bat ere zuri edo beltz bihurtu. Zuek esan ezazue “bai”, bai denean, eta “ez”, ez denean; gainerakoa gaiztoagandik dator».

Eskribau eta fariseuek, Legea zorrotz betetzeko zuten ohituragatik, “onenentzat” izan ohi zuten beren burua. Jesusek ikasleei proposatu diena ez da betebeharraren behar bat; izan ere, eredia Jainkoaren santutasuna bera da. Alderantziz, Jesusek balentria handia adierazten du: “onenak baino hobeak izatea” Zeruetako Erreinuari sartu ahal izateko. Erreinu hori ez da mugatzen gaur egungo mundualdiarekin erabat etenik legokeen eskatologiako, geroko, mundu batera, baizik eta hemen bertan eta orain hasten da, Jesusekin eta beronek proposatutako balioetan oinarritutako mundua eraikitzea erabakitzen dutenekin. Erreinuak irudikatzen duen ordena berri horretan partaide izate hori dei- eta grazia-kontua da; izan ere, ekimena Jainkoagandik dator beti, baina aldi berean atxikimendu libreko ekintza da, norberak onartzekoa: «nahi baldin baduzu...». Jesusek jakin badaki indarrez inork ezin duela aurrera egin, ez soilik ekintza handietan oinarritzen den edozein ekimenetan (inor ez hil, ez dibortziatu), ez eta ekimen txikietan oinarritzen direnetan ere (harreman adeitsu eta iraunkorrek izan edo eguneroko leialtasunean iraun). Sarritan, egunero ongia ereitea, egungo gauza iduri lezakeen ekintzaren bat noiz edo noiz egitea baino askoz ere zailagoa da.

Urteko 6. astea

San Benigno, *martiria*San Kastor, *apaiza eta ermitaua*

Hasiera liburutik 4, 1-15.25: Kainek bere anaia Abeli eraso eta hil zuen. Sal 49: Eskain iezaiozu gorespen-oparia Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8, 11-13.

Aldi hartan, fariseuak etorri eta Jesusekin eztabaidan hasi ziren. Jainkoagandiko seinale bat eskatzen zioten azpikeriaz. Jesusek, barrutik hasperen eginez, esan zien: «Zer dela-eta ari da gizaldi hau seinale eske? Benetan diotsuet: Gizaldi honi ez zaio seinalerik emango». Eta, haiek utzirik, berriro txalupara igo eta bestaldera abiatu zen.

Sinetsi nahi ez duenarentzat, ezin seinale ere ez da behar adinako. Jesus, bere boterea jendearen beharren zerbitzuan jartzeko beti prest azaldu arren, ez da erori bere nortasuna frogatzeko zeinuak egiteko segada edo tranpan. Bestalde, ez du denborarik galtzen entzun eta ulertu nahi ez dioten fariseuekin eztabaidan. Batzuetan oso zaila da lotura batzuek etetea, baina Erreinua sortzeko daukagun energia hori egoki bideratzeko bide bakarra da. Noizik eta behin halako ezintasun-neurri bat ere norberaren gain onartu beharra dago, eta halakoetan, «arnasa sakon hartu, hasperen egin», ontzian sartu eta itsasoaren beste ertzera joan. Beti ere, noski, gaia bereizteko irizpidea, norberaren buruarekiko maitasuna, guraria edo interesa nagusi izan gabe.

Urteko 6. astea

San Zirilo, *monjea* eta San Metodiodi, *gotzaina**(Europako Zaindariak)*San Valentín, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 13, 46-49: Jentilengana joko dugu.

Sal 116: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 1-9.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta leku guztietara. Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uztara. Zoazte! Arkumeak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman poltsarik, ez zakutorik, ez oinetakorik, eta ez gelditu bidean inori agur egiten. Edozein etxetan sartzen zaretela, esazue lehenbizi: “Bakea etxe honetakoei!” Eta han bakezalerik bada, haren gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira. Geldi zaitezte etxe berean; eta jan eta edan daukatenetik, zor baitzaio langileari bere saria. Ez ibili etxez etxe. Herriren batean sartu eta ondo hartzen bazaituztete, jan jartzen dizuetenetik, sendatu bertako gaixoak eta esaiezue: “Hurbil duzue Jainkoaren erreinua”».

Elizaren edo munduaren egoerak behar baino gehiago larritzen gaituen bakoitzean, komeniko litzaiguke ebanjelioko pasarte hau patxadaz aztertzeko ariketa egitea. «Uzta ugaria eta hura biltzeko langileak gutxi» direla jakinda ere, Jesusek badu egitasmo bat. Lehendabizi erregutu, eskatu, lana gurea ez denaz jabearazten gaitu. Bigarren, bidean abiatu Jesusen estilo eta jarrerarekin. Hirugarren, «binaka joan», gauza gutxi garelara eta senideengan etengabe euskarria bilatu behar dugula aitortu. Laugarren, berak bidaltzen gaituen «herri eta toki guztietara joan», bazterren batean egurtuta ezintasunez gelditzeko beldurrik izan gabe. Egitasmo ona noski sinodo-bideak ibiltzeko deia jasotako gure Eliza honentzat.

Urteko 6. astea

Santa Jovita, *martiria*San Klaudio de la Colombière, *apaiza, jesuita*

Has 8, 6-13.2022: Begiratu zuen eta ikusi lurra lehortua zegoela.

Sal 115: Eskainiko dizut, Jauna, gorespen-oparia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8, 22-26.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak Betsaidara iritsi ziren, eta itsu bat ekarri zioten, uki zezala eskutatuz. Jesusek itsuari eskutik heldu eta herritik kanpora atera zuen. Begiak listuz igurtzi ondoren, eskuak ginean ezarri zizkion eta galdetu: «Ikusten al duzu ezer?». Hark begiratu eta esan zuen: «Gizonak-edo nabaritzen ditut: zuhaitzak dirudite, baina ibili dabiltza». Orduan, berriro eskuak ezarri zizkion begietan eta argi ikusten hasi zen gizona; sendaturik gelditu zen, guztia garbi-garbi ikusten zuela. Jesusek etxera bidali zuen, herrian sartu ere ez egiteko aginduz.

Itun Berrian, miraririk gehienak ia bat-batean gertatzen dira, Jesusen hitzaren eta keinuen eraginkortasuna bistan jarritz. Betsaidako itsuaren sendakuntza desberdina da eta modu oso berezian agertu zaigu; izan ere, geure esperientzian ere, batzuetan, “mirari txikiak” pixkaka-pixkaka gauzatzen direla sentitzen dugu. Erabateko iluntasunaren eta egun-argiaren artean, itsumustuka igarotzen ditugunaldi grisen maila osoa zabaltzen zaigu. «Zerbait ikusten al duzu?». Jesusen galdera horrek geure bizitzako egiara birbidaltzen gaitu: ikuspegi distiratsuak geureganatzea baino gehiago, errealitatearen inguramenak apurka-apurka bereizten joatea gertatzen zaigu, beti ere bide onean gabiltzan konfiantzarekin noski.

Urteko 6. astea

San Onesimo, *gotzaina eta martiria*Santa Juliana, *birjina eta martiria*

Has 9, 1-13: Neure ortzadarra ipintzen dut hodeietan, eta bera izango da lurrarekin egin dudan elkargoaren ezaugarri. **Sal 101:** Jaunak begiratu du lurrera zerutik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8, 27-33.

Aldi hartan, Feliperen Zesarea inguruko auzoetara abiatu zen Jesus bere ikasleekin. Bidean galdera hau egin zien ikasleei: «Ni nor naizela dio jendeak?». Haiek erantzun zioten: «Batzuek Joan Bataiatzailea zarela; beste batzuek Elias; besteek profetaren bat». Jesusek berriro galdetu zien: «Eta zuek, nor naizela diozue?». Pedrok erantzun: «Zu Mesias zara». Jesusek inori ez esateko agindu zien zorrotz. Orduan, irakasten hasi zitzairen Gizonaren Semeak asko sufritu behar zuela; zahar, apaizburu eta lege-maisuek gaitzetsi egingo zutela eta hil; eta hiru egunen buruan piztu egingo zela. Argi eta garbi mintzatzen zitzairen honetaz. Orduan, Pedro, Jesus aparte harturik, gogor egiten hasi zitzaion. Baina Jesusek, itzuli eta ikasleei begira, gogor eraso zion Pedrori, esanez: «Alde nire ondotik, Satanas! Zure asmoak ez dira Jainkoarenak, gizakiarenak baizik».

Jesusen egiazko gizatasuna baieztatzen badugu, onartu ahalko dugu, noski, bere ikasleei egin dien galdera ez dela erretoriko hutsa: «Jendeak, ni nor naizela dio?». «Eta zuek?». Jesusen nortasunak, ezkutuko bere bizitzako urte luzeetan patxadaz eta sendo eratuak, bideetan ibiliz herreraikitzen jarraitzen du jendearekin harremanak izanez. Bere ibilbidearen une honetan, Jesus gizon heldua da, bere ortzi-mugan zirriborrotzen zaion sufrimenduaren itzala antzeman eta hari aurre egiteko gai da, bere lagunik kutunenek hartatik ihes egiteko ahaleginak egingo duten arren. Zein puntutaraino gara gai geure patua edo zoria geure baitan onartzeko; batez ere, besteek itzaroten dutenarekin bat ez datorrenean?

Hasiera liburutik 11, 1-9: Jaitsiko naiz eta hizkuntza nahastuko diet. **Sal 32:** Bai dohatsu Jaunak bere oinorde hautatu duen herria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 8, 34-9, 1.

Aldi hartan, Jesusek jendeari eta ikasleei dei egin eta esan zien: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia gorde nahi duenak galdu egingo du; bere bizia nigatik eta Berri Onagatik galtzen duenak, ordea, gorde egingo du. Zertarako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bizia galtzekotan? Eta zer eman dezake gizakiak bizia berriro eskuratzeko? Beraz, norbait, gizaldi desleial eta bekatari honen aurrean, nitaz eta nire mezuaz lotsatzen bada, Gizonaren Semea ere lotsatu egingo da hartaz, bere Aitaren aintzaz beterik aingeru santuekin etorriko denean». Eta honela amaitu zuen: «Egia diotsuet: Hemen direnetako batzuk ez dira hilko, Jainkoaren erreinua ahalmenaz etortzen ikusi arte».

Pasarte hau ezin da honen aurreko testutik (atzokotik) bereizi; izan ere, Jesusek ez die dei egiten ikasleei bera bizi izateko prest ez dagoen zerbaiz biziñera. Misioa eta bizia bera Jaunarekin partekatzeak, patu edo zori berean berarekin bat egitea dakar: «gizonaren Semeak asko sufritu behar baitu»; beraz, askatasun osoz jarraitzen dionak ere bere gurutzea lepoan eraman beharko du. Begiratu arin batek pentsaraz lezake galera dela helmuga, baina errealitateak guztiz alderantzikoa adierazten du: galera, askotan, derrigorrezko urratsa da –mingarria baina osasuntsua– biziña osoago baterako, non Erreinuaren boterea, energia eta bizitasuna, zabal-zabal hedatzen diren.

Urteko 6. astea

San Simeon, *Jerusalemgo gotzaina*

Fiesoleko Joan dohatsua (Frai Angelico),

apaiza, domingotarra

Hebrearrei 11, 1-7: Fedez dakigu jainkoaren hitzak mundua eratu zuela. Sal 144: Bedeinkatuko dut zure izena betiere.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9, 2-13.

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek berekin Pedro, Santiago eta Joan, eta mendi garai batera eramán zituen beraiek bakarrik. Eta antzaldatu egin zen haien aurrean. Jantziak distiratsu bihurtu zitzaizkion, zuri-zuri, munduan inork jar ditzakeen baino zuriago. Eta Elias eta Moises agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan. Pedrok esan zion Jesusi: «Maisu, bai ederki gaudela hemen! Egin ditzagun hiru txabola: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasantzat». Ez zekien zer esaten zuen; izan ere, zeharo beldurak harturik zeuden. Orduan, hodei batek estali egin zituen, eta ahots bat atera zen hodeitik: «Hauxe da nire Seme maitea. Entzuiozue». Eta hartan, ingurura begiratu eta Jesus bakarrik ikusi zuten eurekin, beste inor ez. Menditik behera jaisterakoan, ikusi zutenaren berri inori ez emateko agindu zien Jesusek, harik eta Gizonaren Semea hilen artetik piztu arte. Agindu hori bete zuten, baina elkarri galdetzen zioten zer izan ote zitekeen «hilen artetik pizte» hori. Eta galdetu zioten: «Zergatik diote lege-maisuek lehenbizi Eliasek etorri behar duela?». Jesusek erantzun: «Bai, lehenbizi Eliasek etorri eta dena Jainkoak nahi bezala eraberrituko du. Baina, nola dio Liburu Santuak Gizonaren Semeak asko sufritu behar duela eta arbuiatua izan? Bada, hau diotsuet: Elias etorria da, baina gogoak emandako gutzia egin diote, hartaz idatzia zegoen bezala».

Jesusek, Jordan ibaiaren ertzean, bere maisutza ibiltariaren hasieran, bere lehen berrespen bat jaso baldin badu («Zu zaitut neure Semea, neure maitea, zu zaitut atsegin»), orain, Jerusalemerako igoeraren hasieran, aurrera jarraitzeko kontsolagarri eta animatzaile den beste hitz bat entzuten da. «Seme maite hau» Nazaretarra da, bere begirada jende-oldeen sufrimenduan finkatu du eta bere eskuez bideetan barna osasuna eta zuzentasuna erain ditu. Jesusen aurrean agertzen den mesiastasun sufrimenduzkoa ez da bere horretan bukatzen, osotasunezko biziari irekitzen zaio, piztuerari alegia. Ikasleek –eta guk haiekin batera– Tabor menditik jaitsi eta misterio horrekin itxuratuak izan edo bat egin beharra dute.

* * *

Gure salbazioa Kristori esker

«Jaunak berak eman zigun geure salbazioaren seinaleztat Jainkoagurekin den izen eta pertsona hura, Birjinagandik jaioa; izan ere, Jauna bera zen salbatu zituena berez salbatzeko modurik ez zutenak [...]. Hala dio Isaiasek ere: Indartu esku ahulak, sendotu belauk dardaratiak; esan bihotz-koldarrei: “Eutsi gogor, ez beldur izan”. Begira, errebantxa dakar zuen Jainkoak, berbera dator eta salbatuko zaituzte; salbatu, geurez ez, baizik Jainkoaren laguntzaz behar baitugu salbatu». (*San Ireneo, in Liturgia de las Horas I, 19 dic., pág. 291*)

Urteko 7. astea

San Konrado Confalonieri, *ermitaua*

Lebitarrak liburutik 19, 1-2. 17-18.

Jauna honela mintzatu zitzaion Moisesi: «Esan israeldarren elkarte osoari: “Izan zaitetzte santu, Ni, Jauna zuen Jainkoa, santua naiz eta. Ez izan bihotzean gorrotorik zeure senidearentzat; baina zentzarazi zeure herritarra, haren bekatuen erantzukizunik izan ez dezazun. Ez egin mendekurik, ez izan erresuminik zeure herritarrarentzat. Maita ezazu lagun hurkoa zeure burua bezala. Ni naiz Jauna”».

Sal 102: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.

San Paulok 1 Korintoarrei 3, 16-23.

Senideok: Ez al dakizue, Jainkoaren tenplu zaretela eta Jainkoaren Espiritua zuengan bizi dela? Jainkoaren tenplua hondatzen duena, hondatu egingo du Jainkoak, Jainkoaren tenplua santua baita; tenplu hori zuek zarete. Ez beza inork bere burua engaina. Zuetako norbaitek mundu honen arabera jakintsu dela uste badu, egin bedi zoro, egiaz jakintsu izateko. Izan ere, mundu honetako jakinduria zorakeria da Jainkoaren aurrean, Liburu Santuak dioen bezala: «Jakintsuak beren maltzurkerian harrapatzen ditu Jainkoak». Eta beste hau ere badio: «Badaki Jaunak jakintsuen asmoak hutsalak direla». Beraz, ez bedi inor gizakiez harrotu, dena zuena baita: Paulo, Apolo, Pedro, mundua, bizitza, heriotza, oraina eta geroa; guztia zuena da. Zuek, ordea, Kristorenak zarete, eta Kristo Jainkoarena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 38-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Begia begiaren ordain, hortza hortzaren ordain”. Nik, ordea, hau diotsuet: Gaizkileari ez erantzun gaizki; bestela baizik, eskuineko masailean jotzen zaituenari eskaini beste masaila ere; soinekoa kentzeko auzitara eraman nahi zaituenari eman soingainekoa ere; norbaitek mila pauso egitera behartzen bazaitu, egin bi mila berarekin. Eskatzen

Urteko 7. astea

San Konrado Confalonieri, *ermitaua*

dizunari eman, eta dirua uzteko eskatzen dizunari ez ukatu. Entzuna dizue antzinakoei agindua: “Maita ezazu zeure lagun hurkoa eta gorrota zeure etsaia”. Nik, ordea, hau diotsuet: Maita itzazue zeuen etsaiak eta egin oitutz eraso egiten dizuetenen alde, zeruetan dagoen zeuen Aitareen seme-alaba izan zaitezten, hark gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen baitu eguzkia eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat egiten euria. Izan ere, maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten dizue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, beraz, guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona den bezala».

Jainkoaren antzirudira sortuak bezala bizi badira, israeldarrek, herri gisa duten deiaren hondo-hondoan, santutasunerako etengabeko deia atzemango dute, eta hori profetek modu jarraian gogorazitako zuzentasunaren eta errukiaren bideetatik zabaldu beharko dute. Judu on gisa, Jesusek onartu egin du santutasunerako dei hori eta bertara dei egiten die bere ikasleei ere: «Izan zaitezte, bada, guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona den bezala» (Mt 5, 48). Mateok erabat ona edo perfektua adierazteko erabiltzen duen grezierako hitza «télos» izenetik eratorria da eta «helburua» esan nahi du, bai zerbaiten «amaiera edo bukaera zentzuan», bai gauzak norantz doazen izendatzeko erabiltzen den «azken muga edo helmuga» izendatzeko ere. Ikuspegi horretatik begiratuta, erabateko ontasuntzat hartutako santutasunak ez du berekin derrigorrez txarrik gabeko eta ondo burututako moral-egoera adierazten; baizik eta, alderantziz, gure hauskortasunetik beti ere gu baino handiagoa den maitasun baten mugarantz etengabe irekita egotea adierazten du. Zeruko Aita, Jesusek erabateko ontasun-irudi gisa proposatzen duena, ez da bere baitan itxitako izaki estatiko egonkorra; bere aurrez aurreko maitasuna etengabe isurtzen du Semeagana eta gainezka egiten du munduan Espirituaren mugarik gabeko sorkuntzarekin. Aita horren seme-alaba izateak, besteengana irteteko mugimendu iraunkor batean sarrarazten gaitu eta geure interes-gune jakinetatik aterarazten, uste gabeko jakinduria-modu berri bat irekidu.

Urteko 7. astea

San Leon, *gotzaina*Fatimako Hiazinta eta Frantzisko, *anai-arrebak, santuak*

Sirak 1, 1-10: Gauza guztiak baino lehen sortua da Jakinduria. **Sal 92:**
Errege da Jauna, jantzi da handikiro.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9, 14-29.

Aldi hartan, Jesus eta berekin zituen lagunak menditik jaitsi eta gainerako ikasleengan iritsi zirenean, jendetza handia ikusi zuten haien inguruan, eta lege-maisu batzuk haiekin eztabaidan. Jendea harriturik gelditu zen Jesus ikustean eta lasterka joan zitzaizkion agurtzera. Jesusek galdetu zien ikasleei: «Zer zenuten horiekin eztabaidan?». Jendarteko batek erantzun zion: «Maisu, hemen ekarri dizut neure semea: hitz egiten uzten ez dion espiritua du. Non edo han espiritua jabetzen zaionean, lurrera botatzen du, eta mutikoa, lerdea dariola eta hortz-karraska, gogor-gogor egina gelditzen da. Zure ikasleei eskatu diet espiritua botatzeko, baina ezin izan dute». Jesusek esan zien: «Hau gizaldi sinesgogorra! Noiz arte egon behar ote dut zuekin? Noiz arte jasan behar ote zaituztet? Ekarri mutikoa». Ekarri zioten, eta spirituak, Jesus ikustearekin batera, gogor astindu zuen mutikoa, eta lurrean iraulka eta lerdea zeriola utzi zuen. Jesusek galdetu zion aitari: «Noiztik dago horrela?». Hark erantzun: «Ume-umetandik. Askotan bota izan du sura, baita urera ere, hilarazteko. Ezer egin ahal baduzu, erruki zaitetz gutaz eta laguniezaguzu». Jesusek esan zion: «Ahal dudan diozu? Dena ahal du sinesten duenak». Orduan, mutikoaren aitak deiadarka: «Sinetsi nahi dut! Lagundu sinesgabe honi!». Jesusek, jendea pilatzen ari zela ikusirik, gogor eraso zion espiritu gaiztoari: «Espiritu gorra eta mutua, Nik agintzen diat: atera hadi honengandik eta ez sartu berriro». Espiritua, garrasika eta berebiziko astindua eman ez, atera egin zen. Mutikoa hilik bezala gelditu zen; hila zegoela zioen askok; baina Jesusek eskutik hartu eta altzarazi zuen, eta mutikoa zutik jarri zen. Jesus etxeratu zenean, ikasleek galdetu zioten bakarrean: «Eta guk, zergatik ezin izan dugu espiritua bota?». Jesusek erantzun zien: «Gisa honetako spirituak botatzeko bide bakarra otoi-ta da».

Agerkari honetan, ematen du Jesus ezintasunak hartua sentitzen dela eta ikasleekin eta jendearekin pazientzia galtzeko unean dagoela. Litekeena da guk ezin onartu izatea horrelako sentimendu ahulak Jesusengan eta atzera egitea: agian “gizatiarregiak” iruditzen zaizkigulako. Alabaina, Markosi ez zaio axola gurekiko lotura handiagoa adierazten duten Jesusen jokamoldeak azaltzea. Maisuari laguntzen dioten pertsonak, etengabe ari dira zeinuak ikusten. Hamabiek «ahalmena jaso dute espiritu gaiztoak botatzeko» (Mk 6, 7). Halere, ez batzuek eta ez besteek sinetsi dute misterio hori, horregatik ez dute lortzen errealitatea eraldatzea. Gure eguneroko deabrueri aurre egiteko moduan, agian ez gaude geu ere oso urrun ebanjelioetan aipatzen den pertsonaia-mota horretatik.

* * *

Fatimako hiru artzaintxoak

Ihazinta Marto eta Frantzisko santuak eta Luzia. Hirurei, Frantzisko eta Ihazinta anai-arreba eta Luzia lehengusina artzaintxoei agertu zitzairen Andre Maria Fatiman. Miraria 1917ko maiatza eta urria bitartean gertatu zen. Gertatu zitzaiena kontatzen hasi zirenetik hasi ziren zorigaiztoak jasaten. Batez ere, Frantziskok jardun zuen adoretsu; berak lagundu ziren beste biei nahigabea jasaten. Azkenean hirurek eutsi zioten: «eraiten bagaituzte axolarik ez, zerura joango gara». Arreba hilko ziotela esan ziotenean, bulartsu Frantziskok: «Ez kezkatu, ez dizuet ezer esango, nahiago dut hil hori baino gehiago». Aitak oso garaiz eraman zuen Frantzisko berekin.

Ihazintak asko sufritzen zuen bekatariak galtzen ari zirela nabaritzean. «Zenbat maite dudan gure Jauna! Batzuetan sentitzen dut sua dudala bihotzean, baina erretzen ez duena» esaten zuen. Luziak esana da: «Ihazinta izan zen, nik uste, Andre Mariak graziarik handienak, Jainkoaren eta bertutearen ezagutza, komunikatu zizkiona...». Ihazintaren beste ezaugarri bat Jesusen Bihotzarekiko debozioa izan zen. Ihazinta ere oso garaiz joan zen Aitagana. Luzia, berriz, adin handi-handiko hil zen.

Urteko 7. astea

San Pedro Damiani, *gotzaina eta eliz irakaslea*

Siraken liburutik 2, 1-13: Prestatu zeure burua probarako. **Sal 36:** Utzi Jaunaren esku zeure zoria, berak ekinean jardungo baitu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 9, 30-37.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak menditik alde egin eta Galilean zehar zebiltzan. Jesusek ez zuen hori inork jakiterik nahi, ikasleei irakastera emana baitzegoen. Honela ari zitzaien: «Gizonaren Semea gizakien esku utziko dute; hil egingo dute, baina hil eta hiru egunera piztuko da». Haiek, ordea, ez zuten ulertzen zer ari zitzaien; galdetzeak, berriz, beldurra ematen zien. Iritsi ziren Kafarnaumera eta, etxean zeudela, Jesusek galdetu zien: «Zer eztabaida izan duzue bidean?». Baina haiek hitzik ez; beren artean handiena nor ote zen eztabaidatu baitzuten bidean. Eseri zen Jesus eta, Hamabiei dei eginik, esan zien: «Lehenengo izan nahi duena izan bedi denetan azkena eta denen zerbitzaria». Gero, haurtxo bat hartu, haien erdian jarri eta, besarkatuz, esan zien: «Honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak, ez nau Ni onartzen, bidali nauen hura baizik».

Bidean aurrera doazen heinean, itzalak agertzen hasten dira Jesusen eta bere ikasleen artean. Hasierako proiektua zoragarria iruditu bazitzaien ere eta Maisu honek zuten gutxia utzi eta jarraitzeraino liluratu bazituen ere, geroz eta gutxiago ulertzen dute gertatzen ari dena eta beldurra sartzen ari zaie. Jesusen proposamenak kiskali egiten du guk hainbeste jarraitzen dugun munduaren logika: nork bere etorkizuna kontrolatu, sufrimendua saihestu, garrantzitsuena izan. Batzuetan, badirudi, Jesusi jarraitzea talde galtzailearen aldeko apustua egitea dela. Jesusek ezagutzen gaitu, ordea, eta patxada handiz gure ondoan eserita jarraitzen du Ebanjelioaren zentzu sakona erakusteko eta hura zorrotz eta alaitasunez bizi ahal izateko behar adinako grazia guri eskaintzeko.

Garizuma HAUSTERRE
San Pedro apostoluaren gotzain-aulkia
Santa Margarita Cortona-koa, *erlijiosa*

Joel profetaren liburutik 2, 12-18.

Hau dio Jaunak. «Itzul zaitezte nigana bihotz-bihotzez, barauz, negarrez eta doluz. Urra itzazue bihotzak, ez soinekoak; itzul zaitezte Jaunagana, zeuen Jainkoagana, bihozbera eta errukitsua baita, haserregaitza eta maitasun handikoa, bere mehatxuez damutzen dena. Agian atzera egin eta damutuko da, eta bedeinkatuko zaituzte ostera, labore- eta isurtze-oparia eskain diezaiozuen Jaunari, zeuen Jainkoari. Jo turuta Sionen, antolatatu baraualdia, dei egin batzarrera; bildu herria batzar santura, bildu zaharrak, ekarri haurrak, baita bularrekoak ere. Atera bedi senarra ezkontza-gelatik, emaztea ezkontza-ohetik. Negar egin bezate atari eta aldare bitartean apaizek, Jaunaren zerbitzariak. Esan bezate: “Barka, Jauna, barka zeure herriari; ez utzi lotsatan zeure ondarea, ez dezatela mendera atzerritarrek, ez dezatela esan beste herriek: Non dute, bada, beren Jainkoa?”». Bere lurraldearekiko maiteminez bete zen Jauna eta barkatu zion bere herriari.

Sal 50: Erruki, Jauna, bekatu egin dugu eta.

San Paulok 2 Korintoarrei 5, 20–6, 42.

Senideok: Kristoren mandataria gara, eta gure bitartez Jainkoak berak erregutuko balizue bezala da. Kristoren izenean eskatzen dizuegu: adiskidetu zaitezte Jainkoarekin. Bekatuarekin zerikusirik izan ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatuarekin bat egin zuen, guk haren bitartez Jainkoaren salbamena iritsi genezan. Jainkoaren lankide garenez gero, eskatzen dizuegu, ez dezazuela alferrik har haren onginahia. Izan ere, Jainkoak dio: «Onginahi-garaian entzun dizut, eta salbamen-egunean lagundu». Begira, beraz: oraintxe da onginahigaraia, oraintxe salbamen-eguna.

Garizuma HAUSTERRE
San Pedro apostoluaren gotzain-aulkia
Santa Margarita Cortona-koa, *erlijiosa*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 1-6.16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Begara, gero: ez egin zeuen egintza onak jendaurrean, ikus zaitzaten! Bestela, ez duzue zeruetan dagoen Aitaren saririk izango. Limosna ematean, beraz, ez ibili aurretik turuta jotzen, itxurazaleak sinagogetan eta kaleetan ibiltzen diren bezala, jendeak txalotu ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk limosna ematean, ordea, ez beza jakin zure ezkerak zer egiten duen eskuinak; horrela, zure limosna ezkutuan geldituko da; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina. Otoitz egitean, ez egin itxurazaleek bezala; horiek sinagogetan eta plaza-ertzetan zutik otoitz egitea maite baitute, jendeak ikus ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zu, ordea, otoitz egitean, sar zaitzez zeure gelan, itxi atea eta egiozu otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina. Barau egitean, ez agertu kopetilun, itxurazaleak bezala; aurpegia itsustu egiten baitute, barau egiten dutela jendeari agertzeko. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, barau egitean, gantzutu zeure burua usain gozoz eta garbitu aurpegia, jendeak ez, baino ezkutuan dagoen zure Aitak ikus dezan zure baraua; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina».

«**E**z bota ate atzera Jainkoaren grazia»; beharbada horretan datza azken finean garizumak urtez urte egitera gonbidatzen gaituen Jainkoagana bihurtzea. Jainkoa etengabe ematen zaigu, baina, zenbat kostatzen zaigun beraren ekintzaren oroitzapena gordetzea! Denbora joan ahala, zein erraz ahanzten dugun Jaunak beti handi jokatu duela gurekin! Guk oroimen hauskorra dugulako, Elizak, beste behin ere, Jainkoaren obra eta bere funtsezko eskaintza gogoratzeko denboraldi luze bat oparitzen digu –berriro ere bihotzetik pasatzeko–: «Bihur zaitzete nigana bihotz-bihotzez». Jaunak geure bizia berriro ere erabat beragana bideratzeko dei egiten digu, bere egiaren argia gure

Garizuma HAUSTERRE
San Pedro apostoluaren gotzain-aulkia
Santa Margarita Cortona-koa, *erlijiosa*

iluntasunik sakoneneko bazterretan sartzen uzteko eskatzen digu eta bere errukiaren gozagarriak beragandik eta senideengandik urruntzen gaituen zauria sendatzera gonbidatzen gaitu. Garizuma deia da, «gizakien aurrean haiek ikusia izateko zuzentasuna praktikatzera» eramango gintuzkeen ahalegin eta aldaketa moraleko bidea egitea baino areago, geure benetako asmoak azaleratzen uzteko eta asmo horiek maitasun-ekintza bihurtzarazteko.

* * *

GARIZUMA JAINKOAREKIN TOPO EGITEKO ALDIA BEREZIA:

Aldi honetan zera egin beharko genuke:

- gainerakoak juzgatzetik “barau”
 - eta haiengan Jainkoa bizi dela pentsatuz “jai”.
 - gure arteko diferentziak kontuan hartzetik “barau”
 - eta guztiok elkartzen gaituenagatik “jai”. [...]
 - gaixotasunezko pentsamendu eta hitzetatik “barau”
 - eta maitasunezko hitz osasungarriz poztuz “jai”.
 - etsipenetik “barau”
 - eta esker ona biziz “jai”.
 - amorruz bizitzetik “barau”
 - eta santu egiten gaituen pazientzia biziz “jai”.
 - pesimismoz bizitzetik “barau”
 - eta etengabe optimismoz biziz “jai”. [...]
 - ito beharrean eta arnas estuka bizitzetik “barau”
 - eta Betiko Aitari otoitz eginez “jai”.
- Gizumako xedea eta helmuga den
Pazkora begira-begira.

Garizuma Hausterre ondokoa

San Polikarpo, *gotzaina eta martiria*

Rafaela Ibarra (*Bilbo 1843-1900*),

dohatsua, fundatzailea (Aingeru Zaindaria)

Deuteronomio liburutik 30, 15-20: Bedeinkazioa eta madarikazioa jartzen dizkizut gaur aurrean. **Sal 1:** Zorionekoa Jaunagan itxarobidea jartzen duena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 22-25.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizonaren Semeak asko sufritu beharra du; zaharrek, apaizburuek eta lege-maisuek gaitzetsi egingo dute eta hil, baina hirugarren egunean piztu egingo da». Eta esan zien denei: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza eguneroko bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia salbatu nahi duenak galdu egingo du; baina bere bizia nigatik galtzen duenak salbatu egingo du. Zertako du gizakiak mundu gutzia irabaztea, bere bizia galtzen eta hondatzen badu?».

Jesus Jerusalemera igotzeko prestatzen ari da eta berari jarraitu nahi diotenek erabakia libreki hartzea nahi du. Gertatu behar zaiona zehatz-mehatz ez badaki ere, sumatzen du herriko agintariekin izango duen gatazka modu txarrean amaituko dela. Badaki jakin bere lagunak arriskua jasan beharko dutela eta bigarren aldiz dei egin die, era zuhurragoan eta ziur aski lehenengoan baino bozkario txikiagoarekin, baina bene-benetan: «Jarraitu nahi didanak...». Hastera doan garizumak, bigarren dei horrek gure bihotzaren barne-barnean oihartzuna sortzera gonbidatzen gaitu: noranahi doala ere, benetan Jesusi jarraitu nahi al diot?

Isaias profetaren liburutik 58, 1-9a: Hau da Nik maite dudana baraua.

Sal 50: Zuk ez duzu gutxiesten, ene Jainko, bihotz hautsia eta umildua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 14-15.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen ikasleak Jesusengana hurbildu eta esan zioten: «Zergatik guk eta fariseuek sarritan egiten dugu baraua, eta zure ikasleek ez?». Jesusek erantzun zien: «Ezteietara deituak egon al daitezke triste senar berria berekin duten bitartean? Etorriko zaie senar berria kenduko dieten eguna; orduan, bai, egingo dute baraua».

Garizumako ibilbidea hiru zutabetan oinarritzen da: otoiitzean, limosnan eta barauan. Horietako bakoitza ez da helburu bere baitan, eta are gutxiago espiritu-bizitzan puntuak irabazteko jomuga; alderantziz, horietako bakoitza geure asmorik sakonenekin harremanetan jartzen laguntzen digun bitartekoa baino ez da, baina sarritan, bizitzako beste kezka batzuek lausotzen dituzte, eta berriro jo behar izaten da gauzarik funtsezkoenatarantz. Barauak, ongizate-maila handiagoa lortzeko gure gizarte asebateak modan jarri duenak, oso oinarri desberdina du sinesmen-bidean. Garizuman barau egiteak galdera hau egiteko balio behar digu: zeren gose naiz ni?, non bilatzen dut jatekoa?, norekin partekatzen dut neure ogia?

Garizuma Hausterre ondokoa

San Bitorino, *martiria*

Santa Valverga, *abadesa*

Isaias Profetaren liburutik 58, 9b-14: Erakutsi iezadazu, Jauna, zeure bidea, zurekin leial joka dezadan. **Sal 85:** Erakutsi iezadazu, Jauna, zeure bidea, zurekin leial joka dezadan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5, 27-32.

Aldi hartan, Jesusek Lebi izeneko zergalari bat ikusi zuen, zergak biltzeko mahaian eseririk, eta esan zion: «Jarrai niri». Hark, dena utzirik, zutitu eta jarraitu zion. Lebig bazkari handia eman zion Jesusi bere etxean; Jesusekin eta honen ikasleekin batera zergalari eta bestelako jende asko zegoen mahaian. Fariseuak eta haien lege-maisuak marmarrean ari ziren eta esan zieten ikasleei: «Zergatik jaten eta edaten duzue zergalari eta bekatariekin?». Jesusek erantzun zien: «Ez dute osasundunek sendagilea behar, gaixok baino; ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik, bihotz-berri daitezen».

Eskribauei eta fariseuei ez zaie arrazoirik falta, Lebig eskaintzen dion oturuntza onartzeagatik Jesus kritikatzan dutenean. Diru zikinaz antolatutako jaia da, publikanoek beren erkideak estutuz irabazitako diruaz, alegia. Israelgo maisuek ikustea lortzen ez dutena, beste hau da: Jesusek, bekatari baten mahaian esertzea baino askoz ere gehiago egiten duela: bekataria den bezalakoa onartuz eta, are gehiago, ikasle bihurtzeko dei eginez. Jesus, bere bizimodua zeharo aldatzeko proposamena egiten ari zaio zerga-biltzaileari. Legeak bete gabeko aginduak soilik bereizten dituen lekuan, maitasunak eraldaketa-aukera susmaezinak antzematen eta bultzatzen ditu. Aldaketa orduan egiten dugu: hobeak izatea amesten duen Jainko horri gu ukitzen uzten diogunean.

Garizumako 1. astea
San Alexandro, *gotzaina*
San Porfirio, *gotzaina*

Hasiera liburutik 2, 7-9; 3, 1-7.

Jainko Jaunak gizona moldatu zuen lurreko hautsez eta bizi-arnasa bota zion sudur-zuloetara, eta gizona bizidun gertatu zen. Gero, Jainko Jaunak baratzea landatu zuen Eden-en, sortalderantz, eta han ipini zuen berak moldatutako gizona. Jainko Jaunak mota guztietako zuhaitzak sortu zituen lurretik, begientzat eder eta ahorako gozo, eta baratzearen erdian biziaren zuhaitza eta ongiaren eta gaizkiaren ezagutza ematen zuen zuhaitza landatu zituen. Sugea zen Jainko Jaunak egindako piztietan maltzurrena. Sugeak esan zion emakumeari: «Debekatu egin omen dizue Jainkoak baratzeko arbola guztietako fruituetatik jatea». Emakumeak erantzun zion: «Baratzeko zuhaitzen fruituetatik jan dezakegu; baratzte erdian dagoen zuhaitzaz bakarrik esan digu Jainkoak: “Horretatik ez jan, ezta ukitu ere hori, hil nahi ez baduzue”». Sugeak esan zion emakumeari: «Ez zarete hilko, ez! Ongi daki Jainkoak, horretatik jan orduko, begiak irekiko zaizkizuela eta bera bezalako izango zaretela, ongiaren eta gaizkiaren ezagutzaren jabe». Emakumeak, zuhaitza jateko gozo eta begientzat eder eta ezaguera iristeko on zela ikusirik, haren fruituetako bat hartu eta jan egin zuen; gero, senarrari eman zion eta hark ere jan egin zuen. Orduan begiak ireki zitzaizkien eta larru gorri zeudela ohartu ziren. Piku-hosto batzuk josi eta estalki bana egin zuten.

Sal 50: Erruki, Jauna, bekatu egin dugu eta.

San Paulok Erromatarrei 5, 12-19.

Senideok: Gizon baten bidez sartu zen bekatua munduan, eta bekatuaren bidez heriotza; horrela, heriotza gizaki guztiengana zabaldu zen, guztiek egin zutelako bekatu. Egia da legea baino lehen bazela bekatua munduan; baina bekatua ez zaio inori ezartzen, legerik ez badago. Hala ere, Adamengandik Moisesenganaino nagusi izan zen heriotza gizakien gain, baita Adamen hutsegitearen antzeko bekaturik

Garizumako 1. astea
 San Alexandro, *gotzaina*
 San Porfirio, *gotzaina*

egin ez zutenen gain ere. Adam etortzekoa zenaren irudi da. Baina Jainkoaren dohainarekin ez da bekatuarekin bezala gertatzen. Izan ere, gizon bakar baten bekatuaz denak hil badira ere, askoz ugariago zabaldu da denentzat Jainkoaren grazia eta dohaina, beste gizon bakar bati esker, Jesu Kristori esker, alegia. Eta ondorioei dagokienez ere, Jainkoaren dohainarekin ez da gizon bakarraren bekatuarekin bezala gertatzen. Izan ere, bekatuak, bakarra izan arren, denen gaitzespena izan du ondorio; dohainak, berriz, bekatuak asko izan arren, denen barkamena. Gizon bakarraren bekatuagatik heriotza nagusitu bazen, zenbatez gehiago ez ote dira betiko bizian nagusi izango bakar batengatik, Jesu Kristogatik, salbamenaren grazia eta dohain oparoa hartzen dutenak! Beraz, baten bekatuak gizaki guztiei gaitzespena ekarri zien bezala, baten leialtasunak gizaki guztiei salbazioa eta bizia ekarri die. Eta baten obediencia-egazatik guztiak bekatari gertatu ziren bezala, baten obedienciaz gatik guztiak zuzen gertatuko dira.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 4, 1-11.

Aldi hartan, Espirituak basamortura eraman zuen Jesus, deabruak tenta zezan. Berrogei egun eta berrogei gau baraurik egon ondoren, azkenean gosetu egin zen. Hurbildu zitzaion tentatzailea eta esan zion: «Jainkoaren Seme baldin bazara, esazu harri hauek ogi bihur daitezela». Jesusek erantzun zion: «Liburu Santuan idatzia dago: “Gizakia ez da ogiz bakarrik bizi, Jainkoaren ahotik ateratzen den hitz gutzitik baizik”». Orduan, deabruak hiri santura, Jerusalemera, eraman zuen eta tenpluaren goreneko ertzean ipinirik, esan zion: «Jainkoaren Seme baldin bazara, bota ezazu zeure burua goitik behera, idatzia dago eta: “Bere aingeruei agindu die zu zaintzeko”, eta “eskuetan eramango zaituzte, harriekin estropezu egin ez dezazun”». Jesusek erantzun zion: «Beste hau ere idatzia dago: “Ez tentatu Jauna zeure Jainkoa”». Orduan, deabruak mendi handi batera eraman zuen eta, munduko erreinu guztiak eta haien edertasuna erakutsiz, esan zion: «Hori guztia

Garizumako 1. astea
San Alexandro, *gotzaina*
San Porfirio, *gotzaina*

emango dizut, ahuspez gurtzen banauzu». Orduan Jesusek esan zion: «Alde hemendik, Satanas! Idatzia dago eta: “Jauna zeure Jainkoa gurtuko duzu eta hura bakarrik zerbitzatuko”». Orduan, deabruak utzi egin zuen, eta aingeruak hurbildu zitzaizkion zerbitzatzera.

Basamortua leku arriskutsua da eta ez da komeni hara norbera bakarrik joatea, ez eta nor bere kontura joatea ere. Jesus, arriskuari ere ihes egin gabe, ez da amiltzen basamortuan eta une egokian Espirituari gida dezan uzten dio; Nazareten “irautearen” esperientzia bizitzen urte asko igaro ondoren, Jesusek oso ondo daki basamortuak Israelentzat lehen maitasunaren esanahia duela, baina baita tentaldiena ere: ezaguera osoz, bere herriaren historian murgiltzen da; are gehiago, gizateriaren historian, eta beste «edozein bat» izatea onartzen du, tentaldia bere izatearen barne-barnean jasateko muturreraino. Tentaldiak zalantzan jartzen ditu norberaren izaeraren oinarriak eta zalantzak sortzen ditu estimatuenak eta maitatuenak diren guneeetan. Jesusek bere misioa burutzeko planteatzen duen moduak eraginkorra eta distiratsua dirudi, baina horrek bere “mesiastasun nazaretarretik” erabat urruntzen du. Jainkoaren Seme izatea, nor bere onurarako jardutea ote, ala zerbitzuaren bide desberdinetatik ospea eta aintza eskuratzea, ala jendea liluratzeko gauza harrigarriak egitea? Guretzat, Jesusentzat bezala, basamortua, geure aukeren noranzkoak bereizteko tokia ere bada.

Garizumako 1. astea

Ama Doloretakoaren Gabriel Santua, *pasiotarra*

Levitarrak liburutik 19, 1-2.11-18: Epaitu zuzenbidez zeure herritarra.

Sal 18: Zure hitzak, Jauna, espiritu eta bizi dira.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25, 31-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizonaren Semea –eta aingeru guztiak harekin– aintzaz beterik etortzean, bere erregeaulki ospetsuan eseriko da, eta herri guztiak haren aurrean bilduko dituzte. Hark batzuk besteengandik bereiziko ditu, artzainak ardiak ahuntzetatik bereizten dituen bezala: ardiak bere eskuinaldean ipiniko ditu, eta ahuntzak ezkerrealdean. Orduan, erregeak esango die eskuinekoei: “Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok; hartazue munduaren sortzetik zuentzat prestaturik dagoen erreinua. Gose bainintzen, eta jaten eman zenidaten; egarri, eta edaten eman; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoen, eta jantzi egin ninduzuen; gaixorik, eta bisitatu; espetxean, eta ikustera etorri zineten”. Orduan, zintzoek erantzungo diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goserik, eta eman genizun jaten, edota egarri, eta edaten eman? Noiz ikusi zintugun arrotz, eta etxean hartu, edota biluzik, eta jantzi? Noiz ikusi zintugun gaixorik edota espetxean, eta ikustera joan?”. Eta erregeak erantzungo die: “Benetan diotsuet: nire seniderik txikien hauetako bati egin zeniotena neuri egin zenidaten”. Gero, esango die ezkerrekoiei: “Alde nigandik, madarikatuok, deabruarentzat eta haren laguntzat prestaturik dagoen betiko sura. Gose bainintzen, eta ez zenidaten jaten eman; egarri, eta ez zenidaten edaten eman; arrotz, eta ez ninduzuen etxean hartu; biluzik, eta ez ninduzuen jantzi; gaixorik eta espetxean nengoen, eta ez zineten ni ikustera etorri”. Haiiek erantzungo diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goseak edota egarri, arrotz edota biluzik, gaixorik edota espetxean, eta guk lagundu ez?”. Hark erantzungo die: “Benetan diotsuet: txikien hauetako bati egin ez zeniotena, neuri ez zenidaten egin”. Eta hauek betiko zigorrera joango dira; zintzoak, berriz, betiko bizira».

Garizumako 1. astea

Ama Doloretakoaren Gabriel Santua, *pasiotarra*

Jesusek auziaz hitz egin du, zigorraz eta betiko bizi-az; hitz gogorrek dira, entzuteak ere ia-ia gogaitzen gaituztenak. Alabaina, alegoria hori berri ona eta lasaigarria da: Jainkoa ez da gizajo bat, dena berdin zaiona, badaki-eta historiak amaiera zorionsua izango duela. Txikien sufrimenduaren aurrean, Jainkoak jakingo du justizia egiten. Agian, “zintzoak” “gaiztoetatik” bereiztea baino gehiago, gutako bakoitzarengan Jainkoaren egitasmotik dagoen apurra berreskuratzea da kontua eta zuzengabekeria eragiten edo handitzen duten jarrerak behin betiko baztertzea. Bereizketa-irizpidea ez da ohikuneak betetzea, sufrizten dutenentzat maitasun zehatz izatea baizik.

* * *

Ama Doloretakoen Gabriel Asisen jaio zen 1838-03-01ean. Lau urteko zela ama hil zitzaion. Aita bera, hiriko epailea, arduratu zen Gabrielen heziketaz. Familiaren maila sozialak baliabide asko eskaintzen ziolarik, barruan sentitzen zuen deiari geroko gero asko esan zion Gabrieleek. Gaixoaldian promesak egin bai, baina onaldian ahaztu. Behin batean, ordea, arreba hil, eta Jainkoaren eskua ikusi zuen heriotza hartan. Eta aitari adierazi zion bere bizitzaren norabidea aldatzera zihoala. Aitak ez zuen sinetsi asmoak asko iraungo zuenik. Eta benetan asko kostatu zitzaion Gabrieli biziera iraultzea. Aldi horretan, ordea, Andre Mariaren esku hartzea sumatu zuen. 1856ko abuztuaren 22a zen.

Hitz hauek esaten zizkiola uste izan zuen: «Zu ez zara munduan segitzeko egina. Zer egiten duzu, izan ere, hartan? Zoaz bizitza erlijiosora». Urte bereko irailean pasiotar egin zen, eta orduan hartu zuen izen berri hau: Ama Doloretakoen Gabriel. Aitak esandakoa esperimentatu zuen: aldapa garratza. Baina dena gainditu zuen. Berak esanak dira hitz hauek: «Arima bakean dudala bizitzen gehienik laguntzen didana Jainkoan presentzia gogoan izatea da, gogoan hartzea Jainkoaren begiak beti begira eta belarriak ordu oro adi dituela eta Jaunak ordainduko duela beragatik egiten den gutzia, beste bati baso bat ur ematea bada ere».

Garizumako 1. astea

Rufino, Justo eta Makario santuak, *martiriak*

Isaias profetaren liburutik 55, 10-11: Nire hitzak egingo du Nik nahi dudana. Sal 33: Beldur guztietatik libratu ninduen Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Otoitz egitean, ez jardun esan eta esan, jentilak bezala, uste baitute beren hitz-jarioari esker entzungo diela Jainkoak. Ez izan haien antzeko, badaki-eta zuen Aitak zer behar duzuen, zuek eske hasi baino lehen. Beraz, zuek honela egingo duzue otoitz: «Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia, zeruan bezala lurrean ere. Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunetz gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik». Izan ere, zuek besteei beren hutsegiteak barkatzen badizkiezue, zuei ere barkatuko dizkizue zeruko zeuen Aitak; baina besteei barkatzen ez badiezue, zuei ere ez dizkizue barkatuko Aitak zeuen hutsegiteak».

Kristau-otoitzak, bihotz-berritzearen mugimenduari eusten dioten giltzarrietako bat baldin bada, baditu bere baitan halako ezaugarri berezi batzuk ere, gaur egungo garaiotan azpimarratzea komeni direnak. Otoitza, barne-esperientzia da eta ez da galtzen hitz-jarioaren azalekotasunean, ez eta hitzaldi bikainen liluran ere. Barne-esperientzia hori ez da hutsune abstraktu batera erortzen eta ez gaitu halaber energia kosmiko bati lotzen. Kristau-otoitza “zuka edo hika” ari zaio geure zilborra baino askoz harago dagoen haraindiko baten presentziari, eta, gainera, gizateriaren gainerako guztiekin harremanetan jartzen gaitu: Jainkoa Aita da eta gure Aita da. Errealitate osoa bere baitan maitekiro besarkatzen duen otoitz-modua irakatsi digu Jesusek.





MARTXOA / EPAILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Abusuen biktimen alde: Otoitiz egin dezagun sufritzen ari direnentzat, eliza-elkarteko jendeak egindako kalteagatik: aurki dezatela Eliza horretan berean erantzun zehatz bat beren min eta sufrimenduarentzat.



Garizuma 1. astea

San Rosendo, *gotzaina*San Felix III.a, 48. *aita santua*San Leon (Baionan), *gotzaina eta martiria*

Jonas profetaren liburutik 1, 1-19: Ninivetarrak beren bide okerretik itzuli. **Sal 50:** Zuk ez duzu gutxiesten, ene Jainko, bihotz hautsia eta umildua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 29-32.

Aldi hartan, jende asko biltzen ari zelarik, Jesus honela hasi zitzaion: «Gizaldi hau gaiztoa da. Ezaugarri eske ari da, baina ez zaio ezaugarririk emango Jonas profetarena besterik. Izan ere, ninivetarrentzat Jonas ezaugarri izan zen bezala, hala izango da Gizonaren Semea gizaldi honentzat. Auzi-egunean hegoaldeko erreginak gizaldi honetako jendearen aurka jaiki eta kondenatu egingo du, lurrazen azken mugetatik etorri baitzen hura Salomonen jakinduriatzko hitzak entzutera, eta hona hemen Salomon baino gehiago dena. Auzi-egunean ninivetarrek ere gizaldi honen aurka jaiki eta kondenatu egingo dute, haiek bihotz-berritu egin baitziren Jonasen predikuaz, eta hona hemen Jonas baino gehiago dena».

Sinesteko bihotza itxita duenarentzat, ezaugarririk hobena ere ez da izaten behar adinako. Jesusi jarraitzen dion jendeak ezaugarri asko ikusi ditu, baina bakoitzak bere erara hartu ditu eta batzuek deabruaren eraginari ere egotzi dizkiote. Jesusek ez du denborarik galtzen alferrikako azalpenak ematen, ez eta bere ezaugarriak inor konbentzitzeko erabiltzen: bere bidea jarraitzen du hark, Jonasek bezala, aukeratutako herriaren ingurumenean daudenei bere etorkizuna geroz eta gehiago zabalduz. Jokaleku horrek, agian, geure buruari galdera egitera behartuko gaitu; alegia, zertan ahalegintzen gara gu?, non xahutzen ditugu geure indarrak?, zer ezaugarri eskatzen dugu?, eta zer emaitza espero dugu? Geure Jainkoagana bihurtze horretan urrats bat gehiago ematen badugu, beste pertsona batzuek ere begiak irekiko dituzte, agian.

Garizumako 1. astea
San Pedro Zuñigakoa, *gotzaina*
Santa Atanasia, *aitorlea*

Esterren liburutik 14, 1-3-5.12-14: Ez dut Zu beste laguntzailerik, Jauna. Sal 137: Dei egin nizunean, erantzun zenidan, Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7, 7-12.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko dizue; eskatzen duenak hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitzen, eta atea jotzen duenari zabaldu egiten baitzaio. Zuetako norbaitek, semeak ogia eskatuta, harria emango ote dio? Edota arraina eskatuta, sugea emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez dizkie zeruko zuen Aitak gauza onak emango eskatzen dizkiotenei! Honela bada, besteek zuei egitea nahi zenuketen guztia egin zuek ere besteei; horixe da Moisesen legeak eta profetek diotena».

Eskatzea, bilatzea eta deitzea, ezegonkortasunaren esperientziatik sortzen diren ekintzak dira: soilik, zerbait falta zaigunean eta geure indarrez ezin lortu dugunean sentitzen dugu besteren batengandik zerbait jasotzeko ireki beharra, eta, soil-soilik, orduan luzatzen ditugu eskuak, behin eta berriz. Garizuma garai aproposa da Jainkoaren eta beraren Erreinuaren funtsezko desira hori pizteko, eta sakoneko gurariak nahiz gure hutsuneak eta konpentsazio-bilaketak nondik nora dabiltzan ikusteko. Eskaera, bilaketa eta dei bihurtzen den mugimendu umil horretara egokitzeko garaia da garizuma. Horregatik, garizumako otoitza, estu-estu loturik dago barauari eta limosnari; izan ere, asebetearen mamuak blai egiten gaituen bitartean, gure izaera osoa topaketari itxita egin ohi da.

Garizumako I. astea

San Emeterio eta San Zeledonio, *martiriak*

Ezekiel profetaren liburutik 18, 21-28: Gaiztoaren heriotza nahi eta dut Nik, eta ez jokabidez aldatu eta bizitzea? **Sal 129:** Gure erruak gogoan badauzkazu, Jauna, nor dagoke zutik, Jauna?

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 20-26.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jainkoaren nahia lege-maisuek eta fariseuek baino hobeki betetzen ez baduzue, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Ez hil inor”, eta norbait hiltzen duena errudun izango da auzitegian. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere senidearekin haserretzen dena errudun izango da auzitegian; senideari “zoroa” esaten diona errudun izango da batzar nagusian, eta “sinesgabea” esaten diona infernuko surako errudun izango da. Beraz, zeure oparia aldarean eskaintzean, gogoratzen bazara zure senideak baduela zerbait zure aurka, utzi oparia han bertan, aldare aurrean, eta zoaz lehenik senidearekin bakeak egitera; etorri orduan eta eskaini zeure oparia. Konpon zaitetz lehenbailehen zeure etsaiekin, harekin auzitegira zoazen bitartean, etsaiak epailearen esku jar ez zaitzan, eta epaileak ertzainaren esku, eta giltzapean sar ez zaitzaten. Benetan diotsut: Ez zara handik aterako azken txanpona ordaindu arte».

Jesusek behin eta berriz dio Jainkoarekiko harremanak ezin direla bereizi inoiz ere gainerako pertsonen harremanetatik eta, bereziki, gatazka sortzen digutenetatik. Askoz ere errazagoa izango litzateke, noski, ezer eskatzen ez duen jainkotxoren bati tarteka eskaintza xaloren bat egitea eta, soilik, geure ikuspegiak partekatzen dituztenekin harreman onak mantentzea. Jesusek proposatzen duen erreferentzia-eredua ez da “Israelgo onenenak” omen ziren haiena –ez eta Elizakoena–, baizik eta Jainkoaren santutasuna bera, maitasun zehatz eta neurrigabearekin bat datorrena. Soilik, barru-barrutik eraldatzen gaituen maitasun horrengana irekitzen garenean sor ditzakegu gainerakoekin geure geurekoikeriaren kartzelatik ateratzen gaituzten harreman askatzaileak.

Garizumako 1. astea
San Kasimiro, *aitorlea*

Deuteronomio liburutik 26, 16-19: Jaunari zeure Jainkoari sagaraturiko herri izango zara. **Sal 118:** Zorionekoak Jaunaren lege-bidean dabiltzanak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 43-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Maita ezazu zeure lagun hurkoa eta gorrota zeure etsaia”. Nik, ordea, hau diotsuet: Maita itzazue zeuen etsaiak eta egin oitaitz eraso egiten dizuetenen alde, zeruetan dagoen zeuen Aitaren seme-alaba izan zaitezten, hark gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen baitu eguzkia eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat egiten euria. Izan ere, maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuren senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, beraz, guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona den bezala».

Jesus, eguneroko bizitza arruntean diplomatutako predikaria da; horregatik erabiltzen ditu edonork ulertzeko moduko argudioak eta arrazoiak. Zergatik dakigu Jainkoa amaren erraiak dituen aita dela? Ba, eguzkiaren eta euriaren bidez bere seme-alaba guztiei, inolako bereizketarik egin gabe, on egiten dielako. Jesusek ispilu moduan proposatzen duen bihotz hori, ia aurkako noranzkoan bideratuta dabilen gurea iraultzera dator, gure antza dutenengana hurbildu bai, baina inoiz falta izaten ez diren “arerio” horiek, arrazoi batengatik edo besteren batengatik traba egiten diguten pertsona horiek, gure harremanetatik kanpo uztera bideratuta dabilen gurea iraultzera dator. Garizuma oso garai aproposa da eguneroko gauza txikietan eta xaloetan gauzatzen den aparteko maitasun horren kalitatea fintzeko.

Garizumako 2. astea

Santa Oliva, *birjina eta martiria*

San Joan Jose Gurutzekoa, *frantziskotarra, aitorlea*

Hasiera liburutik 12, 1-4a.

Egun haietan, Jaunak esan zion Abrami: «Utzi zeure lurraldea, zeure ahaideak eta zeure aitaren etxea eta zoaz Nik erakutsiko dizudan lurraldera. Herri handi egingo zaitut eta bedeinkatuko, izen handia emango dizut eta bedeinkapen-iturri izango zara. Bedeinkatuko ditut zu bedeinkatzen zaituztenak eta madarikatuko zu madarikatzen zaituztenak. Zure bitartez bedeinkatuko ditut lurreko herri guztiak». Hala, joan egin zen Abram, Jaunak agindu bezala. Jaunak esana.

Sal 32: Betor gugana, Jauna, zure maitasuna, zugan baitugu geure uste ona.

San Paulok 2 Timoteori. 1, 8b-10.

Anaia maitea: Jainkoaren indarraz fidaturik, eraman itzazu nekeak nirekin batean Berri Onaren alde. Hark salbatu gintuen eta dei egin zigun biziera santura, ez gure egiteengatik, bere erabakiagatik baizik eta mende guztiak baino lehen Kristo Jesusengan eman zigun graziagatik. Grazia hau orain agertu da, Kristo Jesus gure Salbatzailea munduan azaldu denean; honek heriotza ezereztu du eta bizia eta hilezkortasuna argitu Berri Onaren bidez.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17, 1-9.

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek berekin Pedro, Santiago eta honen anaia Joan eta mendi garai batera eraman zituen aparte. Eta antzaldatu egin zen haien aurrean: aurpegia eguzkia bezain distiratsu bihurtu zitzaion eta jantziak argia bezain zuri. Hartan, Moises eta Elias agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan. Orduan, Pedrok esan zion Jesusi: «Jauna, bai ederki gaudela hemen! Nahi baduzu, hiru txabola egingo ditut: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasentzat». Hizketan ari zela, hodei argi batek estali zituen, eta

Garizumako 2. astea

Santa Oliva, *birjina eta martiria*San Joan Jose Gurutzekoa, *frantziskotarra, aitorlea*

ahots batek esan zuen hodeitik: «Hauxe da nire Seme maitea, hau dut atsegin. Entzuiozue». Hori entzutean, ahuspez lurrera erori ziren ikasleak, beldurraren beldurrez. Hurbildu zitzairen Jesus, ukitu eta esan zien: «Jaiki zaitetze; ez beldur izan». Begiak jasorik, Jesus bakarrik ikusi zuten, beste inor ez. Menditik behera jaisterakoan, Jesusek agindu zien: «Ez esan inori ikusi duzuen hau, harik eta Gizonaren Semea hilen artetik piztu arte».

Jesusen ikasleek denbora luzexka daramate berarekin batera «Ebanjelioaren lan gogorretan» parte hartzen, baina zailena oraindik ez da iritsi. Jerusalem bidean, Jesusek esperientzia berezi bat biziko du, bere misioan berretsiko duena eta aurrera jarraitzeko animatuko duena. Fariseuekin eta saduzearekin duen etengabeko gatazka gorabehera eta egiten dituen zeinu batzuen aurrean batzuek duten sinesgogortasuna gorabehera, Aitak aitortu egin ditu harengan bere Seme maitearen ezaugarriak, lan sortzailea burutzeko bidalia izan denarenak, alegia. Esperientzia sakon horretatik, Jesusekin batera dabiltzan lagunek, azaleko uhinak soilik atzematen dituzte («zein ondo gauden hemen!»), eta horregatik gelditu nahi lukete finkatuta eta ainguratuta, pasabidea baino ez den toki batean. Bizitzan barna, askotan igaro beharra izaten dugu antzaldatzearen menditik, Jaunak bere edertasuna erakusten eta gure indar hebainduak konpontzen dituen tokitik. Baina misioa behean dago zain, mendiaren oinean, jende-oldea Ebanjelioaren ur freskoaren egarri delako. Berarekin bat egitera gonbidatu gaitu Jesusek; berak etengabe dei egiten digu altxatu eta geure lurretik irtetera.

Garizumako 2. astea

Santa Rosa Viterboko, *birjina*

San Marziano, *gotzaina*

Danielen liburutik 9, 4b-10: Guk bekatu egin dugu, gaizto izan gara.

Sal 78: Ez gu hartu, Jauna, gure bekatuek merezi bezala.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 36-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Izan zaitetze errukior, zuen Aita errukior den bezala. Ez gaitzetsi inor, eta Jainkoak ere ez zaituzte gaitzetsiko; ez kondenatu, eta ez zaituzte kondenatuko; barkatu, eta barkatuko dizue; eman, eta emango dizue: neurri bete, sakatua, estutua eta leporainokoa emango dizue altzora. Izan ere, zuek zein neurritz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak».

Historian zehar, Israelek askotan bizi izan du Jainkoaren gupidatik eta errukitik jariatutako sakoneko salbamenaren esperientzia. Herria urruntzen denean, Yahvek maitasun-sokez jarraitzen du bera erakartzen. Apartatzeak –zigorrak– Jainkoagana bihurtzera eragiten dio herriari, eta salbamenari bide ematen dio. Hala ere, oroimena hauskorra da eta Israelek berehala ahanzten du gupida eta errukia Yahvek emanda jaso dituela eta ez direla jabetza pribatu bezala gordetzeko, baizik eta beste batzuei komunikatzeko eta helarazteko. Horregatik, Jesusek behin eta berriz gogorarazten die bere ikasleei, eta guri haiei bezala, geure bihotzean errukiarentzat gero eta toki handiagoa egin behar dugula: zenbat eta gaiago garen hartzeko eta jasotzeko, orduan eta gaiago izango gara emateko ere..., eta alderantziz, noski.

Garizumako 2. astea

Perpetua eta Felizitas santuak, *martiriak*

Isaias Profetaren liburutik 1, 10. 16-20: Ikasi on egiten, bila ezazue zuzenbidea. Sal 48: Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamena erakusten.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23, 1-12.

Aldi hartan, honela mintzatu zitzairen Jesus jendetzari eta ikasleei: «Lege-maisuak eta fariseuak Moisesen maisu-aukian eseriak daude. Egizue, beraz, eta bete haiek esandako guztia; baina ez egin egiten dutena; esan, esaten baitute, baina egiten ez. Zama astunak eta eraman ezinezkoak lotzen dituzte, eta besteei leporatzen; baina berek atzamar batez ere ez dituzte mugitzen. Egiten duten guztia, jendeak ikusteagatik egiten dute; larrutxa zabalak erabiltzen dituzte bekokian, eta borlatxo deigarriak mantu barrenean. Afarrietan lehenengo jarlekuak, eta sinagogetan aurreneko aukiak maite dituzte, plazetan jendeak agur egitea eta denek “maisua” deitzea. Zuek, ordea, ez utzi inori “maisua” deitzen, bakarria baita zuen maisua, eta zuek guztiok elkarren senide baitzarete. Eta ez deitu lurrean inori “aita”, bakarria baita zuen Aita, zerukoa. Eta ez utzi inori “gidaria” deitzen ere, bakarria baita zuen gidaria, Kristo. Zuetako handiena izan bedi zuen zerbitzari. Bere burua goratzen duena beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

Bere maisutza ibiltaria hasi duenean, jendeak Jesusengan eskribauena eta fariseuena ez bezalako agintaritza-mota bat antzeman du: koherentziaren buruzagitza, Jesusek ez du zalantzan jartzen Israelgo maisuek irakasten dutenaren edukia, baizik eta esaten dutenaren eta egiten dutenaren artean dagoen jauzia eta beren bihotzean dituzten sakoneko asmoak gaitzesten ditu: «Egiten duten guztia jendeak ikus ditzan egiten dute». Hitz horiek gaur egun akuilu dira geure zio eragileak berrikusteko, eta ez gaitzezen hurkoaren begiko lastoa ikusten gelditu geure begiko habea ikusi gabe. Zeren bila nabil ni? Besteen miresmenaren eta agurren baitan bizi al naiz? Zer zentzu du niretzat azken postuak?

Garizumako 2. astea

San Joan Jainkoarena, *fundatzailea* (San Joan Jainkoaren Anaiak)San Beremundo Iratxekoa, (*Villatuertan [Nafarroa] 1092 edo 1099an jaioa; hil?, abadea*)**Jeremias Profetaren liburutik 18, 18-20:** Zatozte, jo dezagun Jeremias.**Sal 30:** Salba nazazu, Jauna, zeure maitasunaz.**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20, 17-28.**

Aldi hartan, Jesusek, Jerusalemera igotzen ari zela, hamabi ikasleak aparte hartu eta esan zien bidean: «Begira, Jerusalemera igotzen ari gara eta Gizonaren Semea apaizburuen eta lege-maisuen esku utziko dute, heriotzara kondenatuko dute eta atzerritarren esku utziko, iseka egin diezaioten, zigorkatu eta gurutziltza dezaten; baina hirugarren egunean piztuko da». Orduan, zebedeotarren ama hurbildu zitzaion Jesusi bere semeekin eta aurrean ahuspeztu, eskari bat egiteko. Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu?». Eta hark: «Agindu ezazu nire bi seme hauek, eser daitezela zure erreinuan bata zure eskuinean eta bestea zure ezkerrean». Eta Jesusek: «Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete Nik edan behar dudan kalizatik edateko?». Erantzun zioten: «Bai, gauza gara!». Jesusek orduan: «Nire kalizatik edan, bai, edango duzue; baina nire ezker-eskuin esertze hori, ez dago nire esku inori ematea; nire Aitak norentzat prestatua duen, hari emango zaio». Beste hamarrak, hori entzutean, biziki haserretu ziren bi anaiekin. Baina Jesusek dei egin eta esan zien: «Badakizue herrietako agintariiek menpean hartzen dituztela herriak, eta handikiek beren agintea ezartzen dietela. Ez bedi izan horrela zuen artean; baizik eta zuen artean handi izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena izan bedi zuen morroi. Gizonaren Semea ere ez baita etorri zerbitzatua izatera, zerbitzari izatera baizik, eta bere bizia askoren ordainsari ematera».

Jesusen egunak amaierara hurbiltzen ari dira, eta ikasleek Zerbitzariaren mesiastasuna atzeman eta berenganatu gabe jarraitzen dute. Jesusek sufrimenduak jasan eta hiltzeaz, bizia emateaz, hitz egiten dien bitartean, aulkirik onenak bete nahi lituzketen erreinu baten ametsekin jarraitzen dute haiek. Jesusen asmoak hainbestearino dira alderantzizko, non horrek sorrarazten duen ikasleen erreakzioak normala eta naturala baitirudi giza planteamenduetan. Elizak ere denbora eta Espirituaren jarduera behar ditu Jesusen berrikuntza ulertzen joateko: besteak zerbitzatu eta haiengatik bizia eman. Gainerako guztiak, giza harremanak eta gizarte-harremanak gobernatzen dituztenen jauntxokerien eta zapalkuntzen konplize izatera eramaten gaitu.

* * *

Maitasunak bere baitan ditu bokazio guztiak

Jesus Haurraren Teresak esana: «Ulertu nuen, maitasunak bakarrik eragiten diola jardutera Elizaren jendeari eta, maitasunak huts egin izan balie, apostoluek berek ez zutela Ebanjelioa hots egingo, ezta martiriek ere odola isuriko. Argi eta garbi ikusi nuen eta konbentzitu nintzen, maitasunak bere baitan dituela bokazio guztiak, maitasuna dela den-dena, aldi eta alde guztiak atzematzen dituela; hitz batean esateko, maitasuna beti-betikoa dela... Elizaren, nire amaren, bihotzean, ni maitasun izango naizela».

Garizumako 2. astea

Santa Frantziska Erromatarra, *oblata beneditarra*

San Pazio, *gotzaina*

Jeremias profetaren liburutik 17, 5-10: Madarikatua konfiantza gizakiagan duena. Bedeinkatua konfiantza Jaunagan duena. **Sal 1:** Zorionekoa Jaunagan itzarobidea jartzen duena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16, 19-31.

Aldi hartan, honela mintzatu zitzairen Jesus fariseuei: «Bazen gizon aberats bat, purpuraz eta liho finez jantzi eta egunero festa ederrak egiten zituena. Lazaro izeneko eskale bat, berriz, aberatsaren etxe-atarian etzanda egoten zen, zauriz josia; gogotsu jango zukeen aberatsaren mahaitik erortzen zena. Txakurrek berek ere etorri eta zauriak milikatzen zizkioten. Honetan, hil zen eskalea, eta aingeruek Abrahamen altzora eraman zuten. Hil zen aberatsa ere, eta ehortzi zuten. Hilen Egoitzan oinazetan zegoelarik, begiak jaso eta Abraham ikusi zuen urrutian eta Lazaro haren altoan, eta deiadarka esan zuen: “Aita Abraham, erruki zakizkit! Bidal ezazu Lazaro atzamar muturra urean busti eta niri mihia freskatzera, oinaze gorrian bainago sugar hauetan”. Baina Abrahamek erantzun zion: “Seme, oroit zaitez zuk zorion franko izan zenuela bizitzan, Lazarok, berriz, zorigaitzak; horregatik, orain hark atsegina aurkitu du, eta zuk oinazeak. Gainera, gure eta zuen artean leize handia dago, eta nahita ere ezin da inol hemendik zuengana igaro, ezta hortik gugana ere”. Aberatsak berriro: “Orduan, aita Abraham, bidal ezazu, arren, Lazaro gure aitaren etxera, bost anaia badituz eta; jar ditzala jakinaren gainean, eurak ere oinaze-leku honetara etor ez daitez”. Abrahamek erantzun zion: “Hor dituzte Moises eta profetak; entzun diezaietela”. Hark berriro: “Ez, aita Abraham; hildakoren bat joango balitzaie, bihotz-berrituko lirateke”. Baina Abrahamek erantzun zion: “Moisesi eta profetei entzuten ez badiete, ez dute sinetsiko ezta hildako bat piztuta ere»».

Parabola honek –Lukas ebanjelariak bakarrik dakar– beste aldera begirarazi diezaguke, guri bideratua ez balitz bezala; izan ere, seguruenik, ez gara sentituko, ez ebanjelioko aberatsa bezain aberats, ez behartsua bezain behartsu. Alabaina, testuaren irakurketa sakon eta barnekoi batek garizumako ibilbidearen funtsezko arlo bat agertzen digu: nahi izatearen indarra. Lazarok, beharrak eraginda, soberakinekin asetzea amesten zuen bitartean, aberats ezezaguna, hain gustura eta asebeteta bizi zen, lasaitasunak ez baitzion uzten bere ongizatek harago ikusten. Agian, iritsi da ordua guk geuk ere geure buruari galdera egiteko, ea non dagoen gaur egun benetan geure segurtasunaren iturria, ea zer toki egiten diogun beste batzuegandik zerbait jasotzeari, ea gure eguneroko bizitzan zer toki duen oinarrizko ondasunetara (ogia, maitasuna, zentzua, Ebanjelioa) sarbiderik gutxiena dutenen aurpegiak.

Garizumako 2. astea

San Alexandro, *martiria*Santa Maria Eugenia Milleret, *fundatzailea**(Jasokundeko Erlijosak)*

Hasiera liburutik 37, 3-4. 12-13a. 17b-28: Horra non datorren ameslaria; hil dezagun. **Sal 104**: Ekarri gogora Jaunak egindako mirariak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21, 33-43.45-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apaizburuei eta herriko zaharrei: «Entzun parabola hau: Behin batean, nagusi batek mahastia landatu zuen eta hesiz inguratu; bertan dolarea egin eta dorrea eraiki zuen; gero, nekazari batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen. Mahatsa biltzeko garaia iritsi zenean, bere morroiak bidali zituen nekazariengana, fruitutik zegokion partea jasotzera. Nekazariak, ordea, morroiei heldu eta bata jo, bestea hil eta bestea harrikatu egin zituzten. Berriro beste morroi batzuk bidali zituen, aurrekoan baino gehiago, eta haiei ere beste hainbeste egin zieten. Azkenean, bere semea bidali zien, bere baitarako esanez: “Izango diote begirune nire semeari”. Nekazariak, ordea, semea ikustean, esan zioten elkarri: “Oinordekoa duk. Hil dezagun eta guretzat izango duk ondarea”. Heldu zioten, mahastitik kanpora bota eta hil egin zuten». Jesusek galdetu zien: «Zer egingo die nekazari horiei mahasti-jabeak, itzultzean?». Erantzun zioten: «Errukirik gabe hilko ditu, eta bere garaian fruitua emango dioten beste nekazari batzuei utziko die mahastia». Jesusek esan zien: «Ez al duzue Liburu Santuan behin ere irakurri: “Etxegileek baztertutako harria giltzarri gertatu da. Jaunak egin du hori, gure begien harrigarri?”. Horregatik diotsuet: Jainkoaren erreinua zuei kendu eta fruitua aterako dion herri bati emango zaio». Parabola hauek entzutean, Jesus beraiengatik ari zela jabetu ziren apaizburu eta fariseuak, eta hura atxilotu nahian zebiltzan; baina jendearen beldur ziren, denek profetatzat baitzeukaten.

Jesusen bizitza, berak inoiz ihes egiten ez dion etengabeko gatazka bati lotuta dago. Israelgo buruzagiekin duen adostasunik eza etengabe handitzen da; izan ere, Jesusen mezuaren edukiak, ezarritako ordena beronen aldekoen onargarri ez zaien neurrian jartzen du koloka: nola ukatu, hain zuzen, Jainkoaren erreinua herriaren usadioen bermatzaile direnei? Ebanjelioaren aire berria ezin da gorde itxita zaharmindutako usaina dagoen tokian, honek seguru-itxura izan arren. Jesusek barneko eta kanpoko ingurumenetara bidaltzen gaitu, zimendu ezagunetatik harago, harri zorrotza aurkitzera dei egiten digu. Mahasti berri honek, erakunde-arloko muga guztiak gainditzen eta birsortzen ditu, eta neurririk gabeko senidetasunerako deia egiten digu.

* * *

Jainkoak bere burua zure bihotzean islaturik ikusi nahi du

Jainkoa maitatze hau hurkoaren ongiar ardura duen maitasunarekin batera doa beti; ondorioz, zuzentasunaren goseak lagun du beti errukiaren bertutea; horregatik esan ohi da segidan: Zorionekoak errukitsuak, errukia lortuko baitute.

Har ezazu aintzat, kristau hori, zeure jakinduria honen goreneko duintasuna, eta uler ezazu nolakoa izan behar duen zure jokabideak eta nolakoak diren Jainkoak promes egin dizkizun sariak. Errukiak zu errukitsu izatea nahi du, zuzentasunak zu zuzen izatea; izan ere, Kreatzaileak bere burua bere sorkariagan islaturik ikusi nahi du, eta Jainkoak bere irudia berreginak giza bihotzaren ispiluan, zuk Jainkoaren egintzak imitatzen dituzularik. Ez du huts egingo horrela jokatzeko dutenen fedeak, zure desioak egia bihurtuko dira, eta betiko gozatuko duzu zeure maitasunaren xede duzun hartaz. (*Leon Handia, Hitzaldi baten laburpena; in Oficio de las Horas 4; Urteko XXIII. Igandea, 165. or.*)

Garizumako 2. astea
 Santa Aurea, *abadesa*
 San Eutimio, *gotzaina*

Mikeas profetaren liburutik 7, 14-15.18-20: Itsas hondora botako ditu gure bekatu guztiak. **Sal 102:** Bihozbera eta errukiorra da Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 15, 1-3.11-32.

Aldi hartan, zergalariak eta bekatariak hurbildu ohi zitzaizkion Jesusi, entzutera. Eta fariseuak eta lege-maisuak marmarrean hasi ziren, esanez: «Honek ongi artzen ditu bekatariak, eta jan ere egiten du haiekin». Orduan, parabola hau esan zien Jesusek: «Gizon batek bi seme zituen. Gazteenak esan zion aitari: “Aita, emadazu dagokidan senipartea”. Eta aitak ondasunak banatu zizkien. Handik egun gutxira, seme gazteena, zituen guztiak bildurik, urrutiko herrialde batera joan zen, eta han, lasaikerian biziz, ondasun guztiak jan zituen. Dena xahutu zuenean, gosete handia sortu zen herrialde hartan eta beharra sentitzen hasi zen. Orduan, herrialde hartako batengana joan eta haren morroi jarri zen, eta hark bere sailetara bidali zuen txerrizain. Txerrien janari zen ezkurrez sabela betetzeko gogoak ematen zion, ez baitzion inork jaten ematen. Orduan, bere baitara itzulirik, esan zuen: “Hamaika langile bada nire aitarenean, nahikoa ogi duela, eta ni hemen goseak hiltzen. Jaiki, aitagana joan eta esango diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme izena merezi. Har nazazu zeure langileetako bat bezala”. Eta jaiki eta aitagana abiatu zen. Artean urruti zegoela, ikusi zuen aitak eta erruki izan zuen, eta, lasterka joanik, besarkatu eta musuka hasi zitzaion. Semeak esan zion: “Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure aurka. Ez dut gehiago seme izena merezi...”.

Aitak, ordea, esan zien morroiei: “Atera berehala soinekorik ederrena eta jantzi iezaiozue; ipini eraztuna eskuan eta jantzi oinetakoak; ekarri zekor gizendua eta hil; egin dezagun festa-otordua, nire seme hau hila baitzegoen eta berriz bizi da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu”. Eta festa hasi zuten. Seme zaharrena soroan zen. Etxera hurbiltzean, soinua eta dantzak sumatu zituen, eta, morroi bati

Garizumako 2. astea
Santa Aurea, *abadesa*
San Eutimio, *gotzaina*

deiturik, zer gertatzen zen galdetu zion. Morroiak erantzun: “Zure anaia etorri da eta zuen aitak zekor gizendua hil du, semea onik bereganatu duelako”. Seme zaharrena biziki haserretu zen, eta ez zuen sartu nahi. Atera zen aita eta erreguka hasi zitzaion. Baina hark erantzun zion aitari: “Hainbeste urte da zure zerbitzuan nagoela, zure agindurik behin ere huts egin gabe, eta ez didazu sekula antxume bat ere eman lagun artean jateko, eta horrako zure seme hori, emagalduekin zure ondasunak jan dituen hori, etorri denean, zekor gizendua hil diozu”.

Aitak erantzun zion: “Seme, zu beti nirekin zaude, eta nirea den gutzia zeurea duzu. Baina egoki zen festa egitea eta poztea, zure anaia hau hila baitzegoen eta berriz bizi da, galdua zegoen eta aurkitu egin dugu”».

Lege-maisuek eta fariseuek ezin dute jasan Jesusek pertsona “mesprezagarri” Erreinuko atea irekitzea: publikanoei, bekatariei, Legea behar bezala betetzen ez duen jendeari. Israelgo buruzagien bihotza, Jainkoaren bihotzarekiko zeharo desberdina da; izan ere, Jainkoaren pazientzia mugagabea da eta bere alaitasunak gainezka egiten du galdutako semea onik berreskuratzen duenean. Gure barnean ere izan dezakegu borroka sorgorrik bateraezinak diren bi jarrera horien artean: edota konponbiderik ez duela iruditzen zaigun guztiaren gaitzespena eta kanporaketa edota beti bizirik dagoen Jainkoagana bihurtzeko ahalmen patxadatsu eta konfiantzazkoa bizitzea. Horretan dago gure itxaropena, Jainkoak, gauza guztien gainetik, beti, gure aldeko apustua egiten jarraitzen duela.

Garizumako 3. astea

San Nikodemo, *aitorlea*

San Maximiliano, *martiria*

Irteera liburutik 17, 3-7.

Egun haietan, herria egarri zen, eta Moisesen kontra marmarka ari zen: «Honetarako atera al gaituzu Egiptotik, gu geu, gure seme-alabak eta abereak egarriz hiltzeko?». Moisesek deiadar egin zion Jaunari: «Zer egin behar dut nik herri honekin? Harrika emango didate laster». Jaunak erantzun zion Moisesi: «Jar zaitetz herriaren aurrean eta eraman zeurekin herri-arduradun batzuk. Hartu eskuan Nilo ibaia jotzeko erabili zenuen makila, eta zoaz. Han zeure aurrean izango nautzu Ni, Horeb mendiko harkaitz gainean. Harkaitza jo eta ura sortuko da handik, herriak edan dezan». Hala egin zuen Moisesek Israelgo arduradunen aurrean. Toki hari Masa eta Meriba, hau da, Tentazio-leku eta Auzitegi, ezarri zion izena, han berari aurpegi eman eta Jauna tentatu zutelako, esanez: «Gure artean dago Jauna, bai ala ez?».

Sal 94: Entzungo ahal duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».

San Paulok Erromatarrei 5, 1-2. 5-8.

Senideok: Jainkoak fedeagatik zuzentzat hartu gaituenez gero, bakean gaude harekin, Jesu Kristo gure Jaunari esker. Honi esker, sinesmenaren bidez eman digu Jainkoak grazi egoera honetan bizitzea, eta harro gaude Jainkoaren aintza iritsiko dugun itxaropenez. Itxaropenak ez du huts egiten, Jainkoak bere maitasuna isuri baitigu bihotzera, eman digun Espiritu Santuaren bitartez. Izan ere, oraindik bekatupean indargabe geundela, Kristo, Jainkoak erabakitako garaian, gaiztoen alde hil zen. Nekez onartuko luke norbaitek pertsona zuzen baten alde hiltzea; hala ere, pertsona on baten alde baliteke norbait hiltzeko prest egotea. Baina Kristo, artean gu bekatari ginela, hil zen gure alde; honela erakusten du Jainkoak guri digun maitasuna.

Garizumako 3. astea

San Nikodemo, *aitorlea*San Maximiliano, *martiria*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 4, 5-42.

Aldi hartan, Jesus Sikar deritzan Samariako hirira iritsi zen, Jakobek bere seme Joseri ondare emandako lur-sail ondora. Han zegoen Jakobek putzua. Jesus, bidez nekaturik, putzu-ertzean eseri zen. Eguerdi ingurua zen. Ikasleak hirira joanak ziren, jatekoak erostera. Horretan, Samariako emakume bat etorri zen ur bila, eta Jesusek esan zion: «Emadazu edaten». Samariar emakumeak esan zion: «Nola zuk, judu izanik, eskatzen didazu edatekoa niri, samariar naizen honi?» (Jakin behar da, juduek eta samariarrek ez dutela elkarrekin harremanik). Jesusek erantzun zion: «Jainkoaren dohaina zein den eta edatekoa nork eskatzen dizun jakingo bazenu, zeuk eskatuko zenioke berari, eta hark ur bizia emango lizuke». Emakumeak esan zion: «Jauna, ez duzu ura zerekin atera, eta putzua sakona da; nondik atera behar duzu ur bizi hori? Gure aita Jakobek eman zigun putzu hau eta hemendik edan zuten hark, haren seme-alabek eta abereek. Hura baino handiagoa al zara Zu?». Jesusek erantzun zion: «Ur honetatik edaten duena, berriz ere egarritu egiten da; Nik emandako uretik edaten duena, ordea, ez da gehiago egarrituko sekula; zeren Nik emango diodan ura, betiko bizia darion iturburu bihurtuko baita harengan». Orduan, emakumeak: «Jauna, emadazu ur hori, berriro egarri ez nadin, eta hona ur bila etorri beharrik izan ez dezadan». Jesusek esan zion: «Zoaz, deitu zeure senarrari eta itzuli hona». Emakumeak erantzun zion: «Ez dut senarrik». Eta Jesusek: «Ongi esan duzu ez duzula senarrik; bost izan dituzu, eta oraingoa ez duzu senarra; horretan egia diozu». Emakumeak esan zion: «Jauna, ikusten dut profeta zarela. Gure gurasoek mendi honetan adoratu zuten Jainkoa; zuek, juduok, berriz, Jerusalemen adoratu behar dela diozue». Jesusek erantzun zion: «Sinetsiezadazu, emakume: badator ordua, ez mendi honetan, ez Jerusalemen, Aita adoratu ez duzuen. Zuek ez dakizue zer adoratzen duzuen; guk badakigu zer adoratzen dugun, salbamena juduogandik baitator. Baina badator ordua, hobeto esan, iritsia da,

Garizumako 3. astea

San Nikodemo, *aitorlea*

San Maximiliano, *martiria*

egiazko adoratzaileek Aita espirituz eta egiaz adoratuko dutena. Izan ere, Aitak honelako adoratzaileak nahi ditu. Jainkoa espiritua da, eta hura adoratzen dutenek espirituz eta egiaz adoratu behar dute».

Emakumeak esan zion: «Badakit Mesias, Kristo alegia, etortzekoa dela, eta hark, etortzean, gauza guztiak agertuko dizkigula». Eta Jesusek: «Neu nauzu, zurekin hizketan ari naizen hauxe». Une hartan etorri ziren ikasleak eta harritu egin ziren emakume batekin hizketan ari zelako. Hala ere, ez zion inork galdetu zer nahi zuen edo zertaz ari zen emakumearekin. Emakumeak ur-ontzia han utzi, hirira joan eta jendeari esan zion: «Zatozte egin dudan guztia esan didan gizona ikustera. Ez ote da bera Mesias?». Jendea hiritik atera eta Jesusengana joan zen. Bitartean, ikasleak arrenka ari zitzaizkion: «Maisu, jan ezazu!». Baina hark esan zien: «Badut Nik zuek ez dakizuen beste janari bat». Ikasleek galdetu zioten elkarri: «Norbaitek ekarri ote dio, bada, jatekorik?». Jesusek esan zien: «Nire janaria bidali naudenaren nahia egitea da eta haren salbamen-egintza burutzea. Ez al duzue esaten zuek: “Lau hilabete barru uztaeroa dugu?” Horra, bada, Nik esan: Jaso begiak eta ikusi gari-oroak, uztaerako horituak. Eta dagoeneko ari da igitaria lansaria hartzen eta betiko bizirako fruitua biltzen, nola ereilea hala igitaria, biak poztu daitezten. Honetan bai betetzen dela esaera: “Batek erein, bestek bildu”. Zeuek landu ez duzuen biltzera bidali zaituztet Nik; beste batzuek egin dute lana eta zuek jasotzen duzue haien lanaren saria».

Hiri hartako samariar askok sinetsi zuen Jesusengan emakumeak egindako aitormenagatik: «Egin dudan guztia esan dit». Samariarrek, Jesusengana etorri zirenean, berekin gelditzeko eskatu zioten, eta bi egunetz egon zen han. Jesusen hitza entzutean, askoz gehiagok sinetsi zuen. Eta emakumeari esaten zioten: «Orain ez dugu zure esanagatik sinesten; geuk entzun diogu, eta badakigu hau dela egiaz munduaren Salbatzailea».

Garizumako 3. astea

San Nikodemo, *aitorlea*San Maximiliano, *martira*

Zaitasunak, mina edota probak gainditu behar ditugunean, bidezkoa izaten da Israelgo herriak egiten zuen galdera bera egitea: «Jauna gure artean al dago ala ez dago?». «Itxaropenak porrot ez duela egiten», jakin arren, zenbat aldiz kostatu izan zaigun izugarri itxaropen hori bizirik mantentzea, tentaldiak erasotzen gaituenean eta basamortuko idortasun jasangaitzak itolarria sortzen digunean! Bihotzaren barrunberik sakonenean ezkutatzen den gure egarria Jauna indartzera datorren metxa kedun horren adierazle umil bat da. Egardia dagoen bitartean, beharra dago eta desira edo guraria ere bai. Ezerk ezin gaitzake Jainkoarekin topo egitetik aldendu, geure jostailu diren jainko txikiekin asebeteta sentitzeak baino gehiago. Garizuma garai aproposa dugu geure egarriarekin harremanetan jartzeko, modu askotara nabarmentzen den arrakala mugagabe eta bete ezin horrekin, alegia. Sikarreko putzuaren alboan, une egokia dugu Jesusi laguntzen uzteko dugun egarririk sakonena zen den ikusteko, harremanetarako eta elkarrekin topo egiteko sortuak izan garela gogorarazten digun huraxe, alegia. Era berean, une egokia da, batzuetan arretuta datozen eta sosegua bilatzeko baina sosegurik inoiz aurkitu gabe erabiltzen ditugun ur horiei beldurrik gabe begiratzeko. Emakume samariarra itxaronaldirako eta aurkitzen jarraitzeko lagun bihurtu zaigu eguneroko bizitzaren putzu-karelean.

Garizumako 3. astea

Sana Eufrasia, *birjina*

Santa Kristina, *birjina*

San Silvano, *martiria*

Erregeak 2. liburutik 5, 1-15a: Bazen legenardunik asko Israelen; hala ere, ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman baizik.

Sal 41: Jainko biziaren egarri naiz: noiz iritsiko ote naiz Jainkoaren aurpegia ikustera?

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4, 24-30.

Aldi hartan, Jesus Nazaretera joan zen. Eta sinagogan jendeari esan zion: «Hara Nik egia esan: Ez da profetarik bere herrian onartua denik. Egiaz esaten dizuet: Bazen emakume alargunik asko Israelen Eliasen garaian, hiru urte eta sei hilabetez euria egin gabe egonik, lurralde guztian gosete gorria izan zenean; hala ere, Jainkoak ez zion haietako inori bidali Elias, Sidon herrialdeko Sareptako alargunari baizik. Eta bazen legenardunik asko Israelen Eliseo profetaren garaian; hala ere, ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman baizik». Hauek entzutean, sinagogan zeuden guztiak amorruez bete ziren. Eta jaikirik, Jesus herritik kanpora atera eta herria eraikia zegoen mendiko amildegira eraman zuten, handik behera botatzeko asmotan. Baina Jesus haien erditik igaro eta bere bidetik joan zen.

Jesusi lagun eginez goaz berak Jerusalemerantz daraman bidean, eta, liturgiak, gaur, Jaunaren bizia etenez amaituko den gatazka, misiolaritza ibiltariaren hasieran bertan jada ageri dena. azaltzen duen gertakaria proposatzen digu. Bere “jendarteko bizitza” hasi eta berehala, Jesus Nazaretera itzuli da, ziur aski Berri Ona bere herritarrei agertzeko ilusioarekin. Baina jaso duen erantzuna oso desberdina izan da: beren baitan itxita, jazarri egin dute «amiltzeko asmoarekin». Gu ere, ohitu egin ote gara, bada, Ebanjelioarekin, bere berritasuna ezagutu, aitortu eta onartzeko gaitasuna galtzeraino?

Garizumako 3. astea

Santa Matilde, *erregina*San Inozentzio, *gotzaina*

Danielen liburutik 3, 25.34-43: Bihotz-damuz eta gogo apalez gatozkizu: har gaitzazu onez. Sal 24: Oroit zaitetz zeure errukiaz, Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 21-35.

Aldi hartan, hurbildu zitzaion Pedro Jesusi eta galdetu zion: «Jauna, nire senideak bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?». Jesusek erantzun zion: «Zazpi aldiz ez, baizik eta zazpitan zazpi mila aldiz. Hain zuzen, bere morroiekin kontuak garbitu nahi izan zituen erregearekin bezala gertatzen da zeruetako erreinuarekin. Kontuak garbitzen hastean, dirutza izugarria zor zion bat ekarri zioten. Eta nondik ordaindurik ez baitzuen, bera eta emaztea, seme-alabak eta zituen guztiak saltzeko agindu zuen nagusiak, zorra ordaintzeko. Morroiak, orduan, nagusiaren oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadazu astia eta dena ordainduko dizut”. Nagusiak, errukiturik, dena barkatu eta libre utzi zuen morroia. Baina morroi hark berak, irten orduko, diru apur bat zor zion bere morroi-lagunarekin topo egin zuen, lepotik heldu eta ito beharrean, esan zion: “Ordain izadak zor didaana”. Lagunak, oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadak astia eta dena ordainduko diat”. Baina besteak ezetz, eta joan eta kartzelan sartu zuen, zorra ordaindu arte. Beste morroiak, gertatua ikusirik, biziro atsekabetu ziren, eta nagusiagana joan eta gertatuaren berri eman zioten. Orduan, nagusiak morroiari deitu eta esan zion: “Morroi gaizto hori! Horrenbesteko zorra barkatu diat nik, eskatu didaialako; ez al zen bidezkoa hi ere heure morroi-lagunaz errukitzea, ni hitaz errukitu nintzen bezala?”. Eta nagusiak, haserre bizian, borraroen esku utzi zuen, zor guztia ordaindu arte.

Garizumako 3. astea

Santa Matilde, *erregina*

San Inozentzio, *gotzaina*

Ebanjelioa ez da mundu hobea eraikitzeko agindu moralen sorta bat, baizik eta, soilik Jainkoagana bihurtze pertsonaletik abiatutik, errealitatea aldatzen joan daitekeen bizi-proiektua. Jesusek barkamenaren beharra hainbeste aipatzen badu, esperientzia horrek giza izaeran oso sustrai sakonak dituelako izango da. Harremanak eteten direnean, ez da nahikoa erabaki borondatetsua izatea dena ahaztu eta albora uzteko. Lehengo loturak berrezartzeko, bizia bizigarri eta gauzagarri izan dadin lortzeko, lehenik eta behin, hainbeste zor diogun Jainkoak sakonki maitatu eta bereganatu gaituela sentitu behar dugu. Beraren besarkada baldintzarik gabea izango da –ez da gure kalkulu zikoitzak bezalakoa– zauritu gaituztela uste ditugunak bihotz zabal eta kexurik gabe besarkatzeko gai egingo gaituena.

* * *

Bakearen zerbitzari

Jauna, egin nazazu zeure bakearen zerbitzari.
Gorrotoa dagoen lekuan, erein dezadala maitasuna.
Iraina dagoen lekuan, sorraraz dezadala barkamena.
Haserre dagoen lekuan, bila dezadala elkartasuna.
Gezurra dagoen lekuan, maitarazi dezadala egia.
Duda-muda dagoen lekuan, piztu dezadala fedea.
Etsipena dagoen lekuan, ernearaz dezadala esperantza.
Ilunpea dagoen lekuan, distiraraz dezadala argia.
Tristura dagoen lekuan, sar dezadala poza.

(Asisko Frantzisko santua; zatia)

Deuteronomio liburutik 4, 1.5-9: Gorde itzazue eta bete nire aginduak.
Sal 147: Jerusalem, ospa ezazu Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 17-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez uste izan Moisesen legea edota profeten esanak baztertzeraz etorria naizenik; ez naiz baztertzeraz etorri, beren betera eramatera baizik. Benetan diotsuet: Zeru-lurrek iraungo duten bitartean, legearen letrarik edo zeinurik txikienak ere ez du baliorik galduko, dena bete arte. Beraz, agindurik txikienetako bat hausten duena eta hausten irakasten, txikiena izango da zeruetako erreinuan; betetzen duena, berriz, eta betetzen irakasten, handia izango da zeruetako erreinuan».

Mateo ebanjelaria, judu-erroak dituen gizatalde batekin ari da jardunean, eta galdetzen diote: nola bateratu daiteke Jesusen berritasuna Israelgo herriaren bi gogoeta handien bitartez jasotako aginduekin: Legearekin eta profetekin? Jesus ez da ezarritako ordenamendua hautsi eta txikitu eta ezerezetik ateratako beste desberdin bat ezartzera datorren iraultzailea. Giza haragia harturik, Jesusek lehendik ezarrita dagoen errealitatea errespetatu egin du, baina bertan gako berriak sartu ditu, Jainkoak, bere asmo sortzailean amestu zuenaren amaieraraino iritsi ahal izateko. Elizaren ebanjelizatze-lanak, beti erne egon behar du historiaren aro bakoitzean Hitzaren hazia atzemateko eta aurkitzeko.

Garizumako 3. astea

San Hilario, *gotzaina*

Santa Kolunba, *martiria*

Jeremias 7, 23-28: Hona, Jaunaren, bere Jainkoaren, mintzoa entzun ez duen herria. **Sal 94:** Entzungo ahal duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 14-23.

Aldi hartan, Jesus deabru bat botatzen ari zen, deabru mutua. Eta deabrua atera bezain laster, hizketan hasi zen mutua. Gizataldeak harriturik gelditu ziren; baina batzuek zioten: «Deabruen buruzagi den Beelzebulen indarrez botatzen ditu honek deabruak». Beste batzuek, azpikeriaz, zerutik datorren mirari bat eskatzen zioten. Jesusek, gogoan zer zuten ikusirik, esan zien: «Herri batean herritarrak elkarrekin borrokan badabiltza, herri hura hondatuko da, eta etxea etxearen gainera eroriko. Satanas ere bere kideen aurka ari bada, nola iraun dezake zutik haren erreinuak? Zuek diozuenek, Beelzebulen indarrez botatzen ditut nik deabruak. Nik Beelzebulen indarrez botatzen badituzte, zuen semeek zeinen indarrez botatzen dituzte? Horrela, bada, haiek izango dituzue zeuen epaile. Baina nik deabruak Jainkoaren eskuz botatzen badituzte, garbi dago iritsi dela Jainkoaren erreinua zuen artera. Gizon indartsu eta armadun batek ere bere jauregia zaintzen duenean, haren ondasunak esku onetan daude. Baina beste indartsuago batek etorri eta menperatzen badu, kenduko dizkio indar ematen zioten armak, eta haren ondasunak banatuko ditu. Nirekin ez dagoena, nire aurka dago; nirekin biltzen ez duenak, sakabanatu egiten du».

Garizumako 3. astea
San Hilario, *gotzaina*
Santa Kolunba, *martiria*

Ezein mirari ere ez da zalantzarik gabeko zeinu; izan ere, sinesteari erabat itxita dagoenarentzat, azalpen modu asko daude. Jesusek horretaz ondo jabetua dagoela dirudi eta ez du denborarik galtzen alferrikako frogantzak egiten. Berari interesgarria iruditzen zaiona da, pertsonak deabruaren eraginpetik askatu eta berriro ere hitzaren jabe egitea, beren-beregi giza harremanak ezartzeko aukera ematen duen gogoetaren bidez. Gainerakoa indarrak barreiatzea izango litzateke, eta Jesus bildu eta elkartzera etorria da. Baina Jesusek ez du inor axolagabe uzten, eta beraren aurrean alde baterako edo besterako aukera egin behar da: berarekin egoteak beraren ekintzak egitea esan nahi du, hau da, gizakia zapalkuntza sortzen duen gauza guztietatik askatzea. Orduan, Elizaren mugetatik kanpo ere «Jesusekin» egon liteke bat, eta hori, bai, oso berri ona da.

* * *

Atzerritar madarikatua?

Zure Kristoa judua da, zure kotxea japoniarra. Zure pizza italiarra, zure demokrazia greziarra. Zure kafea brasildarra, zure oporrak turkiarrak. Zure zenbakiak arabiarrek, zure idazkera latina. Eta zure auzokidea... atzerritar madarikatua? (*Arantzazu egutegia 2020-11-09*)

Garizumako 3. astea
San Patrizio, *gotzaina*

Oseas profetaren liburutik 14, 2-10: Ez diegu gehiago «geure jainko» esango geure eskuz eginei. **Sal 80:** Ni naiz Jauna zure Jainkoa, entzun nire mintzoa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 28b-34.

Aldi hartan, hurbildu zen Jesusengana lege-maisu bat eta galdetu zion: «Zein da agindu guztietan nagusiena?». Jesusek erantzun: «Hau da nagusiena: “Entzun, Israel: Jauna gure Jainkoa Jaun bakarra da. Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz, adimen guztiz eta indar guztiz”. Bigarrena, berriz, hau da: “Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala”. Ez da hauek baino agindu handiagorik». Lege-maisuak esan zion: «Ederki, Maisu; egia diozu Jainkoa bakarra dela eta ez dela hura besterik esatean, baita hura bihotz-bihotzez, adimen guztiz eta indar guztiz maitatzea, eta lagun hurkoa nork bere burua bezala maitatzea, erre-opari eta sakrifizio guztiak baino hobea dela esatean ere». Eta Jesusek, zuhurki erantzun zuela ikusirik, esan zion: «Ez zaude urruti Jainkoaren erreinutik». Eta handik aurrera, ez zen inor galderarik egitera ausartzen.

Juduek, bete beharreko zituzten seiehun eta hamahiru aginduen artean, normala dirudi lehentasun batzuk ezarri nahi izatea. Jesusek ikusi du lege-maisu honen motibazioa benetakoa dela, eta aitortu du ez dagoela Jainkoaren Erreinutik oso urrun. Jesus ez dute engainatzen etiketek eta giza bihotzaren gunerik sakonenak arakutzen ditu. Erreinuan publikano eta bekatarientzat tokirik baldin badago, Nikodemo bezalako fariseu batentzat edo hau bezalako eskribau batentzat ere badago noski, egiaren bila dabiltzan pertsonak baitira. Erreinukoa izatearen irizpidea, Jesusen balio-eskalarekiko atxikimenduan oinarritzen da, non Jainkoa eta lagun hurkoa maitatzea agindu bakar batean biltzen diren.

Oseas profetaren liburutik 6, 1-6: Nahiago dut maitasuna sakrifizioak baino. **Sal 50:** Nahiago dut maitasuna sakrifizioak baino.

Jesu Kristoren ebanjelioa San Lukasen liburutik 18, 9-14.

Aldi hartan, parabola hau esan zien Jesusek beren burua zintzotzat hartzen eta besteak gutxiesten zituzten batzuei: «Bi gizon igo ziren tenplura otoitz egitera, bata fariseua eta bestea zergalaria. Fariseuak, zutik, honela egiten zuen otoitz bere barruan: “Eskerrak ematen dizkizut, ene Jainko, besteak bezalakoa ez naizelako: lapur, gaizkile, adulterioegile; ezta horrako zergalari hori bezalakoa ere. Astean bitan egiten dut barau, eta ditudan guztien hamarrenak ematen ditut”. Zergalaria, berriz, urruti gelditurik, ez zen begiak zerura jasotzera ere ausartzen, baizik eta bular joka ari zen, esanez: “Ene Jainko, erruki zakizkio bekatari honi!”. Hara zer diotsuedan: azkeneko hau Jainkoarekin adiskideturik itzuli zen etxera; bestea, berriz, ez. Izan ere, bere burua goratzen duena beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

Garizumak pizten duen Jainkoarengana bihurtzeko mugimenduak gainazaletik irten eta geure egirik sakonenean sartzera birarazten gaitu. Egiaren barneko gune ezkutu horretan aurkitzen dira elkarrengandik hain urrun, hain zuzen ere, parabolako fariseua eta publikanoa. Jesusentzat, arazoa ez da fariseu izatea –Nikodemo halaxe zen– eta ez da abantaila publikano izatea: Jainkoagana bihurtzeari itxita bizi izatea da arazoa. Jesusentzat kontatzen duena da, egiari berari irekita egotea: txikiak gara, bekatariak, gauza ezdeusak, beti Jainkoaren errukiaren eta senideen besarkaden beharrean gaude. Besteak diren bezalakoak ez garela» pentsatzen jarraitzen dugun bitartean, eraldatzen duen maitasunarekiko iragazgaitz izaten jarraituko dugu.

Garizumako 4. astea
Santa Quintila, *martiria*

Samuel 1 liburutik 16, 1b. 6-7. 10-13a.

Egun haietan, Jaunak esan zion Samueli: «Bete adarra olio z azar. Betleemgo Jeserengana bidaltzen zaitut, haren semeen artean begiz jo baitut nire errege izango dena». Iritsi zenean, Samuelek Eliab ikusi eta esan zuen bere baitan: «Zalantzarik gabe, aurrean du Jaunak bere gantzutua». Baina Jaunak esan zion Samueli: «Ez begiratu horren itxurari eta luzerari, alde batera utzia dut eta. Jainkoak ez dio begiratzeko gizakiek begiratzeko diotenari, gizakiek itxurari begiratzeko baitiote; Jainkoak, berriz, bihotzari». Jesek bere zazpi semeak eraman zituen Samuelen aurrera; baina Samuelek esan zion: «Jaunak ez du horietatik inor aukeratu». Orduan, Samuelek galdetu zion Jeseri: «Hauek al dituzu seme guztiak?». Hark erantzun: «Txikiena gelditzen da; artzain dabil». Samuelek esan zion Jeseri: «Agindu ekartzeko; ez gara jaten hasiko, hura etorri arte». Ekarrarazi zuen, beraz, mutila: ile-gorria zen, begi ederrak, itxura bikainekoa. Jaunak esan zion Samueli: «Jaiki eta gantzutu ezazu; horixe da». Hartu zuen, bada, Samuelek olio-adarra eta gantzutu egin zuen bere anaien aurrean. Egun hartan Jaunaren espiritua Davidengan sartu zen eta haren jabe izan zen aurrerantz.

Sal 22: Jauna dut artzain, ez naiz ezere beharrean.

San Paulok Efesoarrei 5, 8-14.

Senideok: Garai batean ilunpe zineten; orain, berriz, argi zarete Jaunari esker. Zabiltzate, beraz, argiaren seme-alabei dagokienez; on izatea, zuzentasuna eta egia dira argiaren fruituak. Aztertu zer zaion Jaunari atsegin eta ez parte hartu ilunpean bizi direnen egintza hutsaletan; baizik eta sala itzazue, lotsagarria baita horiek ezkutuan egiten dutena aipatzea ere. Baina argiak salatzen duen guztia agerian gelditzen da, eta agerian gelditzen dena argi bihurtzen da. Horregatik esan ohi da: «Esna zaitez, lo zauden hori, jaiki hilen artetik, eta Kristok argituko zaitu».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 9, 1-41.

Aldi hartan, Jesusek, bidez zihoalarik, jaiotzatik itsu zen gizon bat ikusi zuen. Eta ikasleek galdetu zioten: «Maisu, nork egin zuen bekatu, hau itsu jaiotzeko, honek ala honen gurasoek?». Jesusek erantzun zien: «Ez honek, ez honen gurasoek, ez zuten bekatu egin, baizik eta Jainkoaren egintzak honengan ager daitezen jaio zen itsu. Egun-argi den bitartean egin behar ditut bidali nauenaren egintzak; badator gaua, eta orduan inork ez dezake lanik egin. Munduan nagoen bitartean, munduaren argia naiz». Hau esanik, listua bota zuen lurrera, listuaz lohia egin eta lohiak begiak igurtzi zizkion itsuari; gero, esan zion: «Zoaz eta garbitu zaitez Siloeko uraskan» (Siloek «Bidalia» esan nahi du). Joan zen, bada, itsua, garbitu eta ikusten zuela itzuli zen. Auzokoek eta lehen eskean ikusi ohi zutenek esaten zuten: «Ez al da hau eserita eskean egoten zena?». Batzuek zioten: «Bai, hura da». Beste batzuek: «Ez, ez da hura, haren antzeko bat baizik». Berak, berriz, zioen: «Bai, huraxe naiz». Orduan galdetu zioten: «Nola ireki zaizkizu, bada, begiak?». Eta hark erantzun: «Jesus delakoak lohia egin du, begiak igurtzi dizkit eta agindu dit: “Zoaz Siloera eta garbitu”; joan, garbitu eta ikusten hasi naiz». Galdetu zioten: «Non da gizon hori?». Hark erantzun: «Ez dakit». Larunbata zen Jesusek lohia egin eta begiak ireki zizkion eguna. Horregatik, fariseuengana eraman zuten itsu izana, eta fariseuek berriro galdetu zioten nola hasi zen ikusten. Hark erantzun zien: «Lohia jarri zidan begietan, garbitu nintzen eta ikusi egiten dut». Fariseuetako batzuek zioten: «Gizon hori ez dator Jainkoagandik, ez baitu larunbateko atsedeen-eguna errespetatzen». Beste batzuek, berriz, zioten: «Nola egin dezake bekatari batek horrelako ezaugarririk?». Eta ez zetozen bat beren iritzieta. Berriz galdetu zioten itsuari: «Eta zuk zer diozu begiak ireki dizkizunaz?». Hark erantzun: «Profeta dela». Hala ere, juduek ez zuten sinetsi nahi gizon hura itsu izan eta ikusten hasi zela. Beraz, haren gurasoei deitu eta galdetu zieten: «Hau al da zuen semea, itsu jaio

Garizumako 4. astea
Santa Quintila, *martiria*

zela diozuen? Nolatan ikusten du, bada, orain?». Gurasoek erantzun zieten: «Guk badakigu gure semea dela eta itsu jaio zela; baina orain nolatan ikusten duen edo begiak nork ireki dizkion, hori ez dakigu. Galdetu berari, badu adina-eta bere buruaren berri emateko». Juduen beldurrez hitz egiten zuten gurasoek honela, ordurako agintariak erabakia baitzuten Jesus Mesias zela aitortzen zuena beren elkartetik botatzea. Horregatik esan zuten gurasoek: «Badu adina, galdetu berari». Juduek bigarren aldiz deitu zioten itsu izanari eta esan zioten: «Aitortu egia Jainkoaren aurrean. Guk badakigu gizon hori bekataria dela». Hark erantzun zien: «Bekatari den ala ez, nik ez dakit. Dakidan gauza bakarra hauxe da: itsu nintzela eta orain ikusi egiten dudala». Haiek berriro: «Zer egin dizu? Nola ireki dizkizu begiak?». Hark erantzun zien: «Esan dizuet lehen ere, eta ez didazue jaramonik egin. Zergatik entzun nahi duzue berriro? Zuek ere haren ikasle izan nahi duzue ala?». Haiek irainez bete zuten eta esan zioten: «Zeu izango zara haren ikasle; gu Moisesen ikasle gara. Guk ziur dakigu Jainkoak Moisesi hitz egin ziola, baina hori nongoa den ere ez dakigu». Hark orduan: «Hori bai harrigarria! Zuek nongoa den ere jakin ez, eta hark niri begiak ireki. Jakina da Jainkoak ez diela bekatariei entzuten, baizik eta jainkozale denari eta beraren nahia egiten duenari entzuten diola. Egundaino ez da entzun itsu jaiotako bati inork begiak ireki dizkionik. Gizon horrek, Jainkoagandik ez baletor, ezin izango luke ezer egin». Haiek erantzun zioten: «Goitik beheraino bekatari jaio zinen, eta zu guri irakatsi nahian?». Eta kanpora bota zuten. Jakin zuen Jesusek bota egin zutela eta, aurkitu zuenean, galdetu zion: «Sinesten al duzu Gizonaren Semeagan?». Hark erantzun: «Esadazu nor den, Jauna, sinets dezadan». Jesusek esan zion: «Ikusi duzu; zurekin hizketan ari dena bera da». Hark orduan: «Sinesten dut, Jauna». Eta aurrean ahuspeztu zitzaion. Ondoren, Jesusek esan zuen: «Epai baterako etorri naiz Ni mundu honetara; ikusten ez dutenek ikus dezaten, eta ikusten dutenak itsu bihur daitezzen». Jesusekin zeuden fariseu batzuek, hori entzunik, esan zioten: «Gu ere itsu ote gara, bada?». Jesusek erantzun

Garizumako 4. astea
Santa Quintila, *martira*

zien: «Itsu bazinete, ez zenukete bekatunik. Baina ikusten duzuela diozuenez, zeuen bekatuan irauten duzue».

Joanek kontatutako gertakari honen dramatismoak susmarazten digu Pazkoa geroz eta hurbilago dagoela. Jesusek herriko buruzagiekin duen gatazka bortizkeria handiko tonua hartzen ari da; agian, jokoan dagoena giza duintasuna delako, ilunpetik eta itxurakeriatik irteteko duen gaitasuna eta errealtatea begi berriez ikustekoa. Hain zuzen ere, horri guztiari egiten diote uko fariseuek, itsu bihurtzen dituen ziurtasunetan itxita baitaude eta beren egien zirkulu itxitik kanpora botatzen dituzte beraien oinarriak zalantzan jartzen ausartzen direnak. Joanek, aparteko indar batez nabarmendu du Jesusek eskainitako argi berria, ikaslearentzat borroka-gai dela. Beldurrak beren burua blokeatzen uzten dutenak, ikusi nahi ez dutenak bizi diren ilunpeen tokira itzultzen dira berriro, Jesusek sendatutako itsuaren gurasoak bezala. Argiaren seme-alaba gisa bidean ibiltzen jarraitzen dutenek, berriz, askotan ikusiko dute beren hitza zalantzan jartzen duela jende batek eta, agian, itsutasunaren erosotasuna nahiago duen munduak ezdeustzat hartzen dituelako eguneroko martirioa jasango dute. Jesusi jarraitzeak aukera garbia egitea eskatzen du, baina horretarako behar adinako agitasuna agintzen du, zentzuz bizi ahal izateko.

2 Samuel liburutik 7, 4-5a.12-14a.16.

Egun haietan, Jaunaren hitza etorri zitzaion Natani: «Zoaz eta esaiozu nire morroi Davidi: “Hau dio Jaunak: Zeure egunak bete eta zeure gurasoekin atsedean hartuko duzunean, ondorengoa emango dizut, zure erraietatik ateratakoa, eta sendotuko dut haren erregetza. Hark eraikiko dio etxea nire izenari, eta Nik betiko sendotuko diot tronua. Aita izango nau hark Ni, eta seme izango dut Nik hura. Zure etxeak eta zure erregetzak betiko iraungo dute nire aurrean, eta zure errege-aulkiak sendo iraungo du beti”».

Sal 88: Haren errege-jatorriak betiko iraungo du.

San Paulok Erromatarrei 4, 13.16-18.22.

Senideok: Beren oinordekotza mundua izango zutela agindu zien Jainkoak Abrahami eta ondorengoei. Agintzari hau, ordea, ez zegokion legea betetzeari, sinesmenak duen salbamen-indarrari baizik. Beraz, agintzaria edo promesa, dohain hutsa izanik, fedeari dagokio; horrela, Abrahamen ondorengo guztientzat balio du, legearen arabera ondorengo direnentzat ez ezik, baita Abrahamen sinesmenaren arabera bizi direnentzat ere. Bera aita dugu guztiok, Liburu Santuak dioen bezala: «Herri askoren aita egin zaitut». Abraham aita dugu, beraz, Jainkoaren aurrean, hark sinetsi egin baitzuen hildakoak biziarazten eta izaterik ez dutenak izatera deitzen dituen Jainkoagan. Abrahamek sinetsi egin zuen, inolako itxarobiderik ez zegoenean itxaropenari eutsiz; horrela, herri askoren aita egin zen, Jainkoak esan zionaren arabera: «Horrenbeste izango dira zure ondorengoak». Horrexegatik, hain zuzen, zintzotzat hartu zuen Jainkoak.

* Santa Maria Josefa Jesusen Bihotzarena, *fundatzailea* (Jesusen mirabeak)

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1, 16.18-21.24a.

Jakobek Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariagandik jaiotzen Jesus, Kristo deritzana. Jesu Kristoren sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzemanan zegoen eta, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, hura isilean uztea erabaki zuen. Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez beldur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ipiniko diozu izena, hark salbatuko baitu bere herria bekatuetatik». Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen.

San Jose egunaren ospea ezustean bezala agertu ohi da garizumaren barruan, eta, beraren irudiak, modu horretan ikusita, beste liturgia-arobatuetan sortzen dituenak ez bezalako doinuak sortzen ditu. Mateo da Joseren irudia gehienik azpimarratzen duen ebanjelaria; hala ere, ez dakar Josek esandako hitz bakar bat ere. Salbamenaren historian Jose zutabe ordezkaezina dela, ez da erakitzen hitzaldi distiratsuen ganean, baizik eta erabaki umilen eta ekintza zehatzen ganean. Josek, ametsen nahasmenduan jaso du bere misioaren edo zereginaren berri; Jainkoaren egitasmoa bere barne-errietan sakonki jaso ondoren, begiak irekitzen ditu bere aurrean agertu zaion errealitateari aurre egiteko. Hala bada, azaldu ez zaizkion inguruabarren joan-etorrian ehundu du Josek bere harreman bakar eta berezia Mariarekin. Horrelaxe gauzatu dute biek historian beste inoiz gertatu gabeko misio edo eginkizun hori: Jainkoaren Semea hezte, alegia. Gauaren ilunpean negar egiten duen haurra eta Nazaretoko isiltasunean lan egiten duen gaztea, berehala gurutzeko isiltasunera murriztuta ikusiko dugu eta Aitak piztua; Nazaretoko Jose maisu ona izan du.

* Santa Maria Josefa Jesusen Bihotzarena, *fundatzailea (Jesusen mirabeak)*

Garizumako 4. astea

San Benito, *abadea, fundatzailea (beneditarrek)*San Filemon, *martiria*San Justiniano, *gotzaina*

Ezekiel profetaren liburutik 47, 1-9.12: Ura ikusi nuen tenplutik irteten; eta ur hori iritsi zitzaizen guztiak salbatu egin ziren.

Sal 45: Jaun ahalguztiduna geurekin dugu, Jakoben Jainkoa gure gotorleku.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5, 1-3.5-16.

Aldi hartan, juduen jai bat ospatzen zen, eta Jesus Jerusalemera igo zen. Bada Jerusalemen, Ardien Atea delakoaren ondoan, hebreeraz Betzata deritzan uraska bat, bost aterpe dituena. Aterpeetan gaixo asko egon ohi zen, lurrian etzanda: itsu, herren eta elbarri. Bazen han hogeita hemezortzi urtez gaixorik zegoen gizon bat. Jesusek, han etzanda ikusi eta aspalditik egoera hartan zegoela jakinik, esan zion: «Nahi al duzu sendatu?». Gaixoak erantzun zion: «Jauna, ez dut inor ura mugitzean uraskara sartuko nauenik; ni iristerako, besteren batek aurea hartzen dit». Jesusek esan zion: «Jaiki, hartu ohatila eta zabilta». Une berean sendaturik gertatu zen gizona, ohatila hartu eta ibiltzen hasi zen. Larunbata zen egun hura, atsedeen-eguna. Horregatik, juduek esan zioten sendatuari: «Larunbata da, eta ez duzu zilegi ohatila eramatea». Hark erantzun zien: «Sendatu nauenak berak esan dit: “Hartu ohatila eta zabilta”». Orduan, galdegin zioten: «Nor da ohatila hartu eta ibiltzeko esan dizuna?». Sendatuak, ordea, ez zekien nor zen, Jesus ezkutatu egin baitzen inguruko jendearen artean. Gero, Jesusek tenpluan aurkitu zuen eta esan zion: «Begira, sendaturik zaude. Ez egin bekaturik berriro, okerragorik gerta ez dakizun». Joan zen gizon hura, eta juduei jakinarazi zien Jesus zela sendatu zuena. Horregatik, hain zuzen, erasotzen zioten juduek Jesusi: larunbatez halako gauzak egiten zituelako.

Askotan gertatzen da sendatutako zauriak orbanak uztea, gorputzak gogorarazi nahi baligu bezala gune sentibera batzuek aparteko zaintza behar dutela. Bere perlesiatik sendatutako pertsonaia horren ohatilak, pasarte honetan, orbanarena egiten du. Hala ez balitz, zertarako hartu beharko luke bizkarrean ohatila berez ondo eta zailtasunik gabe dabilen batek? Jesusek sakon-sakonean, gizon hori beraren akiduratik irten eta aise ibiltzea nahi du; baina, aldi berean, perlesia arriskutsuago baten etengabeko arriskua ere ez ahaztea nahi du: «Ez egin gehiago bekaturik, zerbait okerragorik gerta ez dakizun». Garizumak, bizitzaren bidezidorretan konfiantzaz ibiltzera gonbidatzen gaitu, maitasunak sendatu gaituela jakinda; baina, aldi berean, inozokeriaz helmugara iritsiko garela uste izatetik gorde nahi gaitu.

* * *

SAN BENITO NURSIAKOA

Gaur San Benitoz hitz egin nahi nuke. Mendebaldeko monakismoaren fundatzailea izan zen, eta nire pontifizegoko zaindaria. San Gregorio Handiaren esaldi batekin hasiko naiz. San Benitoz idaztean dioenaz: «Jainkoaren gizon hau distiratsu izan zen lurrean mirari asko eginez; ez gutxiago, ordea, bere irakaspena adieraztean agertu zuen elokuentziaz» (Elkarrizketak II, 36). Gregorio Handiak 592an idatzi zituen hitz hauek; monje santua hila zen 50 urte lehenago eta artean bizirik zegoen jendearen oroitzapenean eta, nagusiki, fundatu zuen ordena erlijioso gorakorrean. Nursiako San Benitok, bere bizitzaz eta obraz, oinarritzko eragina izan zuen europar zibilizazioaren eta kulturaren garapenean (Benedikto XVI.a aita santuak).

Garizumako 4. astea
Santa Basilisa, *martiria*
Santa Erlinda, *aitorlea*

Isaias Profetaren liburutik 49, 8-15: Herriaren elkargo zaitut zu egin, lurraldea eraiki dezazun. Sal 144: Gupidatsu da Jauna eta errukiorra.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5, 17-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien juduei: «Nire Aita lanean ari da beti, eta Ni ere lanean ari naiz». Esandako honengatik, juduak are gehiago zebiltzan Jesus hil nahian; larunbateko atsedena ez errespetatzeaz gainera, Jainkoa bere Aita zuela baitzioen, bere burua Jainkoaren pareko eginez. Jesusek esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Semeak ez dezake ezer ere bere kabuz egin, Aita egiten ikusten duena besterik: Aitak zer egin, huraxe bera egiten du Semeak ere. Izan ere, Aitak maite du Semea eta berak egiten dituen guztiak erakusten dizkio, eta hauek baino egintza handiagoak ere erakutsiko dizkio, harritu egingo zaituztetenak. Aitak hilak piztu eta bizia ematen dien bezala, Semeak ere bizia ematen die nahi dituenei. Aitak ez du inor epaitzen, baizik eta epaitzeko ahalmen guztia Semearen esku utzi du, guztiak, Aita ohoratzen duten bezala, Semea ere ohora dezaten; Semea ohoratzen ez duenak, hura bidali duen Aita ere ez du ohoratzen. Egi-egiaz diotsuet: nire hitza entzun eta bidali nauenagan sinesten duenak, betiko bizia du; ez da kondenatua izango, heriotzatik bizira igarora baita dagoeneko. Egi-egiaz diotsuet: Badator ordua –hobeto esan, iritsia da–, hildakoek Jainkoaren Semearen ahotsa entzungo dutena, eta entzuten dutenak bizi egingo dira. Aitak bizia bere baitan duen bezala, Semeari ere bizia bere baitan izatea eman dio. Gainera, epaitzeko ahalmena eman dio, Gizonaren Semea delako. Ez harritu esaten dizuedanaz; badator-eta ordua, hildako guztiak haren ahotsa entzungo dutena, eta hilobietatik aterako direna: on egin zutenak betiko bizirako piztuko dira; gaitz egin zutenak, aldiz, kondenatuak izateko. Nik ez dezaket neurez ezer egin: Aitari entzun bezala epaitzen dut, eta nire epaia zuzena da, ez baitut helburu neure nahia egitea, bidali ninduenarena baizik».

Garizumako 4. astea

Santa Basilisa, *martiria*Santa Erlinda, *aitorlea*

Joanen ebanjelioko lehenengo kapitulutik hasita atzematen da gatazka, ondorio moduan Jesusen heriotza ekarriko duena: «Bere etxera etorri zen, baina bereek ez zuten onartu» (Jn 1, 11). Ebanjelariak, hemen, bi arrazoi garbi azaltzen ditu Jesus «bere etxean» zergatik ez zuten ondo hartu adierazteko: lehenengoa, juduek pentsatzen zutelako Jesus larunbata suntsitzen ari zela, eta bigarrena, –are larriagoa– Jainkoaren eta gizakiaren arteko tartea edo distantzia ezabatzen ari zela, Jainkoari Aita deituz. Desegite hori adierazteko, Joaneke “lasaitu” edo “askatu” esanahia duen aditza erabili du: Jesusek bere Aitaren kreazio-lanean lan egiten jarraitzen du eta gizakiari seme-alaben izaera bizitzea eragozten dioten korapiloak desegiten ahalegintzen da. Senide nagusia dela uste izatearen ausarkeria hori biziarekin ordaindu behar izan zuen Jesusek.

* * *

Zibilizazioaren lehenengo zeinua, Margaret Mead antropologoaren arabera

Duela urte asko, ikasle batek galdetu zion Margaret Mead antropologoari zein ote zen beraren ustez, kultura batean, zibilizazioaren lehen zeinua. Ikasleak uste zuen Mead amuez, buztin-eltzeez eta ehotzeko harriez mintzatuko zela.

Baina ez. Mead-ek esan zuen, lehenengo zibilizazio-zeinua antzinako kultura batean hautsia eta ondoren sendatua zen izterrezur bat zela bere ustez. Meadek azaldu zuen ezen animalia-erreinuan, hanka bat puskatzen bazaizu, hil egiten zarela. Ezin diozu ihes egin arrisku bati, [...].

Hautsi den izterrezur bat sendatu izana seinale argia da, norbaitek aski astirik hartu duela erori dena sendatzen, zauria bendatzen, leku seguru batera eramaten eta oneratzeko laguntzen. Mead-ek esan zuen ezen norbaiti zailtasunetan gehiago laguntzea dela zibilizazioaren hasiera-puntua (Mariangel Gonzalez). Margaret Mead (Filadelfia; 1901-12-16 / New York; 1978-11-15) antropologoa eta poeta estatubatuarra izan zen.

Garizumako 4. astea

San Toribio Mogrovejokoa, *gotzaina*San Jose Oriol, *apaiza*

Irteera liburutik 32, 7-14: Egizu atzera, Jauna, zeure herriari egin diozun mehatxutik. **Sal 105:** Oroitu gutaz, Jauna, zeure herriaganako ongi-nahiagatik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 5, 31-47.

Aldi hartan, Jesusek esan zien judu-agintariei: «Nik neure buruaren alde egingo banu aitormen, nire aitormenak ez luke balioko. Beste batek du nire alde aitormen egiten, eta jakin badakit hark nire alde egiten duen aitormenak balio duela. Zuek mandatariak bidali zenizkioten Joan Bataiatzaileari, eta hark aitormen egin zion egitari. Ez dut hau esaten inongo gizakiren aitormen-beharrik dudalako, zuek salba zaitzeten baizik. Joan Bataiatzailea argi-zuzi piztua eta distiratsua zen, eta zuek, alditxo batez, poz hartu nahi izan zenuten haren argiaz. Baina Nik badut Joanen aitormena baino hoberik: Nik betetzeko, Aitak eman dizkidan egintzak; nire egintzek egiten dute aitormen nire alde eta Aitak bidali nauela frogatzen. Bidali nauen Aitak berak ere egiten du aitormen nire alde. Baina zuek ez duzue inoiz haren mintzoric aditu, ez haren aurpegirik ikusi, eta haren hitzak ere ez du zuen baitan lekurik, hark bidaliagan ez sinesteak erakusten duen bezala. Aztertzen dituzue Liburu Santuak, betiko bizia haietan aurkituko duzuelakoan, eta horiek dute, hain zuzen, nire alde aitormen egiten; hala ere, ez duzue nigana etorri nahi, betiko bizia izateko. Ez dut gizakiengandik aintzarik onartzen; baina ongi ezagutzen zaituztet eta badakit ez duzuela Jainkoa maitate. Ni neure Aitaren izenean etorria naiz, baina zuek ez nauzue onartu; norbait bere izenean etorriko balitz, hura bai, onartuko zenukete. Nola sinets dezakezue zuek, elkarrengandik onartzen baduzue aintza, eta Jainko bakarragandik datorren aintzak ez badizue axola? Ez uste izan Aitaren aurrean Nik salatuko zaituztedanik; bada salatuko zaituzten norbait: Moises bera, zeuen itxaropen duzuen. Izan ere, Moisesi sinetsiko bazenote, neuri ere sinetsiko zenidakete, nitaz idatzi baitzuen hark; baina hark idatzia sinesten ez baduzue, nola sinetsiko duzue nik esana?».

Jesusen arerioen drama handia da, egia aitortzen tematurik, ez dutela lortzen Jesusen misterioari antzematea hark egiten dituen ekintzen bitartez. Hain daude itxiak beren ziurtasunetan, non Jaunak eskaintzen duen bizi oparoaren albotik pasatzen baitira, non ez baitira gai bizi horren adierazle diren ezaugarriei antzemateko. Gertakari honek berriro ere argiaren arazoarekin aurrez aurre jartzen gaitu: zenbateraino gara gai ikusi nahi dugunaz harago ikusteko, Ebanjelioak eralda gaitzan uzteko geure ikuspegikoak zalantzan jarritz? Ez da ba izango munduaren aintzarekin apurka-apurka geu ere itsutzen ari garela?

* * *

Iratzarri geugan bilatze-jarrerera

Gure egunetako gizarte postmodernoa era masiboan ari da sinesgabetasuna hazten. Sinesgabetasun honek ez du berekin Jainkoarekiko fedea ukatze hutsa bakarrik; izan ere, hondo-hondoan nahi duena, orain arteko kultura fededuna ordezkatea da, era sinesgabearen izaten, sentitzen, pentsatzen, bizitzen eta hiltzen irakatsiko lukeen kultura ezarriz.

Hau guztia eskatzen ari zaigu, geugan «bilatze-jarrerera» iratzar dezagun. Ezin jarraitu dugu fedea bizitzen orain arte egin izan dugun bezala. Ezin hesitu dugu kristautasuna iraganeko gauza den kultura anakroniko batean. «Gaur-gaurko Jainko» baten lekuko izan behar dugu, hau da, Jainko baten, Jesusengan haragitu den baten, lekuko, gaur egungo gizon-emakumeei diren bezala ikusaraziz. (*J.A. Pagola, Jesús, Maestro interior. 2. Primeros pasos, 15-17*)

Garizumako 4. astea

San Segundo, *martiria*Santa Katalina Suediakoa, *abadesa*San Oscar Romero, *martiria*, *San Salvadorreko artzapezpikua*

Jakinduria liburutik 2, 1a.12-22: Heriotza lotsagarrira kondenatuko dugu. **Sal 33:** Hurbil zaie Jauna bihotz-hautsiei.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 7, 1-2.10.25-30.

Aldi hartan, Jesus Galilean zebilen; ez zuen Judean ibili nahi, juduek hil egin nahi baitzuten. Hurbil zen Etxola-jaia, juduen jaietariko bat. Jesusen senideak jaietara joan zirenean, Jesus ere joan zen; baina ez agerian, erdi ezkutuan baizik. Jerusalem dar batzuek zioten: «Ez al da hau hil nahi dutena? Lasai asko ari da, bada, hizketan, eta ez diote ezer esaten. Onartu ote dute agintariak hau dela Mesias? Baina hau badakigu nongoa den; Mesias etorriko denean, ordea, ez du inork jakingo nongoa den». Orduan, Jesusek, tenpluan irakasten ari zela, oihuka esan zuen: «Ni ezagutzen nauzue eta badakizue nongoa naizen. Baina Ni ez naiz neure etorri, baizik eta fidagarria denak bidali nau, eta zuek ez duzue hura ezagutzen. Nik, bai, ezagutzen dut, harengandik bainator eta hark bidalia bainaiz». Orduan, atxilotu egin nahi izan zuten; baina ezin izan zion inork eskurik erantsi, ez baitzen artean iritsia haren ordua.

Jesusen jatorri nazaretarrak beraren mesias-izaeraren aurka jokatzeko du. Jendeak badaki beraren jatorria zein den, bereizten du beraren hizkera, eta oso ondo daki Galilea ez dela profeta-lurraldea, are gutxiago Mesiasena. Ez da harritzekoa herriko buruzagiek bera desagerrarazi nahi izatea. «Badakizue nondik natorren»: mapetan agertzen ez den herri galdu batetik, lanbide umil batetik, asko sufritu behar izan duen familia langile batetik. «Alabaina, ni ez nator neure kontura, egiazkoa denak bidalita baizik». Jesusek bidaltze horren kontzientzia berreskuratzeko deia egiten digu: eguneroko bizitzan, Galileako edo gurutze-bideko bideetan, ekimena ez da gurea eta fruituak eta garaipenak ere ez.

Isaias Profetaren liburutik 7, 10-14.

Egun haietan, mezu hau eman zion Jaunak Akaz erregeari Isaias profetaren bidez: «Eska iezaiozu Jaunari, zeure Jainkoari, ezaugarri bat zeuretzat, lurraren barrenean nahiz zeruen goienean». Akazek erantzun zion: «Ez dut ezaugarririk eskatuko, ez dut tentatuko Jauna». Orduan Isaiasek esan zuen: «Entzun, Daviden etxe: Gutxi al deritzozue gizakientzat aspergarri izateari? Nire Jainkoarentzat ere aspergarri izan behar al duzue? Horregatik, Jaunak berak emango dizue ezaugarria. Begira, birjina haurdu dago eta semea izango du; Emmanuel ipiniko dio izena, hau da, “Jainkoa gurekin”».

Sal 39: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.

Hebrearrei liburutik 10, 4-10.

Senideok: Zezenen eta akarren odolak ez ditzake bekatuak desegin. Horregatik, Kristok, munduan sartzean, dio: «Ez zenuen oparirik eta eskaintzarik nahi izan; baina gorputza eratu zenidan. Erre-oparirik eta bekatuen barkamen-oparirik ez zenuen atsegin izan. Orduan, esan nuen: Hemen nauzu, Jainko, zure nahia betetzeko; hau dago Liburuan nitaz idatzia». Lehendabizi dio: «Ez zenuen nahi izan, ez atsegin izan, oparirik eta eskaintzarik, ez erre-oparirik, ez bekatuen barkamen-oparirik», nahiz eta gauza guztiok legeak agindutakoak izan. Ondoren beste hau dio: «Hemen nauzu, zure nahia betetzeko». Lehenengo kultua kentzen du, bigarrena jartzeko. Eta Jesu Kristok, behin betiko egin zuen bere gorputzaren opariaren bidez, Jainkoaren nahia bete duelako izan gara gu sagaratuak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret ziritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen

Garizumako 4. astea

JAUNAREN GIZAKUNDEAREN ADIERAZPENA

San Dimas (*lapur ona*)

izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzemana zegoen. Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zaitez, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura. Aingeruak esan zion: «Ez beldur izan, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta “Jesus” ipiniko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakoboen herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango». Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi». Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitziko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zugandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrean, eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik». Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekitzuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

San Joserren jaiegun ospetsuarekin batera, Jaunaren gizakundearen iragarpenak jai-giroko ukitua jartzten du garizumako laztasunean. Mariaren baietza, gizakundeari atea irekitzen diona, harmonia leunean kulunkatzen da nekaldirantz, heriotzarantz eta piztuerarantz doan Semearen baietzarekin. Mariak, ia nerabea den neskak, eta Jainkoak –dota agian Josek– izan ezik, berari kontsulta egitea inork pentsatuko ez zukeenak, «bere nortasun osoa» eskaini du bera gainditzen duen egitasmo bat egiteko. Mariak behar duen denbora guztia hartu du proposamen harrigarri bati barne-barnean entzun, onartu eta askatasun osoz erantzuteko. Mariaren “baietza” ez da gertakari bati presaka emana, baizik eta atxikimendu heldu bat, gainera datorkion gauaren pisuari eusten ahal diona. Dena Nazareten gertatu da; munduaren ingurumenean edo alboan gertatu dela esatea bezala da hori; orduz

geroztik, gizakiaren bazter hutsal bakoitza, historiaren edozein jostura ikusezin, leku aproposa da Jainkoak bere baitako lana egiten jarraitzeko «baitza berriro haragi eginda». Mariaren “baitzak”, Jainkoaren maitasunezko egitasmoaren aurka isiltasunean esandako hainbat ezezko berreskuratzen ditu eta zalantzarik gabeko agintzaria da gure baitz zalantzakorrek, graziaren laguntzarekin, amesten duten osotasuna iristeko.

* * *

Maitasunez kreatzen duen Jainkoa

«Maitasunez, maitasunez bakarrik eta soilik, kreatzen duen Jainkoagan sinesten dut, aintzarik eta gorespenik bilatzen ez duenagan, autonomiaz hornituriko mundua kreatzen duenagan, eta naturako legeak bere apetaz aldatzen ez dituenagan, gizakia kreatzen duenagan, prozesu ebolutibo, adimenezko miresgarri bat dela medio, arrazoi az eta zuzentasunaren, gosea eta indarkeria... desegitearen eta munduan bakea eta esperantza ezartzearen aldeko konpromisoa berekin duen askatasunaz horniturik» (*Juan Alemany*).

Garizumako 5. astea
San Braulio, *gotzaina*
San Kastulo, *martiria*

Ezekielen Profezia liburutik 37, 12-14.

Honela mintzo da Jainko Jauna: «Nik irekiko ditut zuen hilobiak, ateraraziko zaituztet zeuen hilobietatik, ene herri, eta Israelgo lurraldera eramango. Eta zuen hilobiak ireki eta horietatik ateraraziko zaituztedanean, ene herri, orduan jakingo duzue Ni naizela Jauna. Neure espiritua ezarriko dut zuengan, eta biziberrituko zarete. Zeuen lurraldean ezarriko zaituztet, eta jakingo duzue, Nik, Jaun honek, esandakoa bete egiten dudala». Hala dio Jainko Jaunak.

Sal 129: Jaunagan dago errukia, harengan askatasun ugaria.**San Paulok Erromatarrei 8, 8-11.**

Senideok: Grina txarren menpean bizi direnak ezin izan gogoko Jainkoari. Zuek, ordea, ez zarete grina txarren menpean bizi, Espirituaren menpean baizik, Jainkoaren Espiritua zuengan bizi baita. Norbaitek Kristoren Espiritua ez badu, hori ez da Kristorena. Kristo zuengan baldin badago, berriz, gorputza bekatuagatik hilik egon arren, espirituak badu bizia Jainkoaren salbamen-indarrari esker. Jesus hilen artetik piztu zuen Jainkoaren Espiritua zuengan bizi bada, Kristo hilen artetik piztu zuenak berak biziaraziko du zuen gorputz hilkorra ere, zuengan bizi den Espirituaren bitartez.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 11, 1-45.

Aldi hartan, Lazaro izeneko gizon bat gaixo zegoen. Betaniakoa zen, Maria eta honen ahizpa Martaren herrikoa (Maria hau –gaixo zegoen Lazaroren arreba– Jesus ukenduz igurtzi eta oinak bere ile-adatsez xukatu zizkiona zen). Lazaroren bi arrebek albiste hau bidali zioten Jesusi: «Jauna, zure adiskidea gaixorik dago». Jesusek, hori aditzean, esan zuen: «Gaitz hau ez da hiltzeko gaitza, Jainkoaren aintza azaltzeko baizik, gaitz honen bidez Jainkoaren Semearen aintza

Garizumako 5. astea
 San Braulio, *gotzaina*
 San Kastulo, *martiria*

azal dadin». Jesusek oso adiskide zituen Marta, honen ahizpa eta Lazaro. Hau gaixorik zegoela jakinda ere, zegoen lekuan gelditu zen Jesus beste bi egunez. Ondoren, esan zien ikasleei: «Goazen berriz ere Judeara». Ikasleek esan zioten: «Maisu, oraintsu juduek harrika egin nahi zizuten, eta hara joan behar duzula berriro?». Jesusek erantzun zien: «Ez al ditu egunak hamabi ordu? Egunez dabilenak ez du estropezu egiten, eguzkiak argitzen baitio bidea; gaez dabilenak, ordea, estropezu egiten du, ez baitu argirik». Eta jarraitu zuen: «Lazaro gure adiskidea lo dago; baina banoa esnatzera». Ikasleek esan zioten: «Jauna, lo badago, sendatuko da» (Jesusek Lazaroren heriotzaz esan zuen hori; baina ikasleek ohiko loaz ari zela uste zuten). Orduan, Jesusek garbi esan zien: «Lazaro hil egin da eta pozten naiz han ez izanaz, zuen onerako izango baita, horrela sinets dezazuen. Goazen, bada, haren etxera». Tomasek, Bikia zeritzanak, esan zien ikaskideei: «Goazen geu ere, berarekin hiltzera». Jesus iritsi zenean, jadanik lau egun zeraman Lazarok hilobian. Betania hurbil dago Jerusalemdik, hiru bat kilometrora. Eta judu asko etorri zen Marta eta Mariagana, anaiarengatik doluminak ematera. Marta, Jesus zetorrela entzun orduko, bidera atera zitzaion; Maria, berriz, etxean gelditu zen. Martak esan zion Jesusi: «Jauna, hemen izan bazina, gure anaia ez zen hilko. Hala ere, badakit eskatuko diozun guztia emango dizula Jainkoak». Jesusek erantzun zion: «Piztuko da zure anaia». Eta Martak: «Badakit piztuko dela azken egunean, hildakoen piztuerakoan».

Jesusek esan zion orduan: «Ni naiz piztuera eta bizia; nigan sinesten duena, hilik ere, biziko da, eta bizi dena, nigan sinesten badu, ez da betiko hilko. Sinesten al duzu hori?». Martak erantzun zion: «Bai, Jauna, sinesten dut Zu Mesias zarela, Jainkoaren Semea, mundura etortzekoa zena». Ondoren, bere ahizpa Mariari deitzera joan zen Marta, eta esan zion isilka: «Maisua hemen da eta dei egiten dizu». Hori entzutean, berehala jaiki eta Jesusengana joan zen. Jesus artean herrian sartu gabe zegoen, Martak aurkitu zuen lekuan bertan. Etxean Mariari nahigabea laguntzen zeuden juduek, hura bat-batean

Garizumako 5. astea
San Braulio, *gotzaina*
San Kastulo, *martiria*

jaiki eta irten zela ikustean, jarraitu egin zioten, negar egitera hilobira zihoalakoan. Mariak, Jesus zegoen tokira iristean, ikusi zueneko, oinetara ahuspez erori eta esan zion: «Jauna, hemen izan bazina, gure anaia ez zen hilko». Maria eta harekin etorritako juduak negarrez ikusirik, barruak zirrara egin zion Jesusi eta, zeharo hunkiturik, galdetu zuen: «Non ipini duzue?». Erantzun zioten: «Jauna, zatoz eta ikus». Jesusek negarrari eman zion. Han zeuden juduek esan zuten: «Begira zein maitea zuen!». Baina haietako batzuek esan zuten: «Itsuari begiak ireki zizkion honek, ez al zezakeen hau hiltzea galarazi?». Jesus, ostera ere hunkiturik, hilobira hurbildu zen. Haitzuloa zen, harlauzaz estalia. Jesusek esan zuen: «Ken harlauza!». Hildakoaren arrea Martak esan zion: «Jauna, kiratsa botako du, lau egun baditu eta». Jesusek erantzun zion: «Ez al dizut esan, sinesten baduzu, Jainkoaren aintza ikusiko duzula?». Kendu zuten, bada, harria. Jesusek, begiak zerurantz jatorik, esan zuen: «Aita, eskerrak zuri, entzun didazulako. Nik badakit beti entzuten didazula; baina inguruan dudan jendeagatik diot, Zuk bidali nauzula sinets dezaten». Hau esanda, oihu egin zuen ozenki: «Lazaro, zatoz kanpora!». Eta hildakoa atera egin zen. Eskuoinak oihaletan zerrendaz loturik eta aurpegia zapiz estalirik zituen. Jesusek esan zion: «Aska ezazue eta utzi joaten». Maria ikustera joandako judu askok, Jesusek egina ikustean, harengan sinetsi zuen.

Jainkoa, gizakiak bere baitan dituen hilobi-mota guztien aurka irteten da eta konpromisoa hartzen du ustelkeriatik atera eta berarentzat amestutako lurrera eramateko: «Nik neuk irtenaraziko zaituztet zeuen hilobietatik». Piztueraren mugimenduak harrapa gaitzan uzteak esan nahi du, Jainkoa bera bermatzaile harturik, lehenik eta behin, heriotzaren bizileku diren zirritu guztien kontzientzia hartzea: dolu bat?, bereizketa bat?, lanbideko porrot bat?, espiritu-bizitzan zurruntze bat?, harreman zauritu bat? Lazaro hilobiratu eta lau egunera hilobitik irten baldin bazen, edozein egoera ere ez da itzulezina, ondo hilda egon arren edo iruditu arren. Beraz, piztueraren mugimenduak harrapa

Garizumako 5. astea
San Braulio, *gotzaina*
San Kastulo, *martiria*

gaitzan uzteak, itxuraz hilak diruditen denborak ere jasaten ikastea dakar –Lazarok bezala–, beldurrik gabe negar egitea –Jesusek bezala–, beste etorkizun gertagarri baterantz bidean abiatzea –Marta bezala–, seinalerik txikienaren zain bizitzea –Maria bezala–, gure aurrean sortzen den bizitzan sinestea –judu askok bezala–. Piztuerarako bideak derrigorrez heriotza zeharkatzen badu, badugu itxaropena Jesus hilen artetik piztu zuen Espiritua bera, orain berean, munduan eta gutako bakoitzarengan jarduten ari dela, gu geure benetako etorkizunera eramateko, osotasunezko bizira alegia.

* * *

Romano Guardinik, gaixoaldi luze baten ondoren, konkluditu zuen: «Gogoeta egin dut, ikusteko, posible ote den hitz bat aurkitzea giza jarrera adierazteko bizitzaren aurrean, eta ez dut aurkitu bat besterik: Esperantza-Konfiantza. Konfiantza, zertan? Bizitzan? Existentziaren ordenuan? Uste dut abstrakzio oro okerra izango litzatekeela. Hobeto esateko, mundua kreatu duen harenganako konfiantza da, mundua zuzentzen duenagan, zentzurik gorenean gobernatzen duen harengan. Gauza erabakitzailea Jainkoaren onberatasuna da, errotik on-ona denarena gurekiko. Jainkoagan konfiantza izatea da aterabide bakarra bizi ahal izateko». (*Romano Guardini, «Sobre el límite de la vida»*)

Garizumako 5. astea

Santa Lidia, *martiria*San Ruperto, *gotzaina*Louis Edouard Cestac dohatsua, *apaiza*

Danielen Profezia liburutik 13, 1-9. 15-17. 19-30. 33-62: Errugabe izanik ere, hil beharra dut. Sal 22: Ibar beltz ilunean banabil ere, ez naiz gaitzaren beldur, Zu nirekin baitzaude.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8, 1-11.

Aldi artan, Jesus Oliamendira joan zen. Biharamun-egunsentian, ordea, tenplura agertu zen berriro, eta herri guztia etorri zitzaion; Jesus eseri eta irakasten hasi zitzaien. Lege-maisuek eta fariseuek adulterioan harrapatutako emakume bat ekarri zioten eta, erdian ipiniz, esan zioten Jesusi: «Maisu, emakume hau adulterioan ari zela harrapatu dute. Moisesek horrelakoak harrika hiltzeko agindu zigun legean. Zuk zer diozu?». Azpikeriaz esaten zioten hori, zertan salatu izateko. Jesus, ordea, makurtu eta atzamarrez lurtean idazten hasi zen. Baina haiek galde eta galde ari baitzitzaizkion, zutitu eta esan zion: «Zuetan bekatu gabe dagoenak bota diezaiola lehenengo harria». Eta, berriro makurturik, lurtean idazten jarraitu zuen. Haiek, hori entzutean, banan-banan alde egiten hasi ziren, zaharrenetatik hasita. Jesus bakarrik gelditu zen, emakumea aurrean zuela. Jesusek, zutiturik, esan zion: «Emakume, non dira salatzaileak? Ez al zaitu inork gaitzetsi?». Hark erantzun: «Inork ere ez, Jauna». Orduan Jesusek: «Ezta Nik ere, ez zaitut gaitzesten. Zoaz eta ez egin berriro bekatu gabe».

Bai erraza den emakume adulteriogile bat harrikatzea! Gizartearen bortxakeria eta itxurakeria deskargatzeko aukera ematen duen erritua da, parte diren gizonezkoen izen ona ukitu gabe utziz eta sistemaren ordena mantenduz. Kontzientzia txarra lotsagabeki garbitzeko Legean oinarritzea, hain da baldarra, non Jesusek ez baitu denborarik galtzen bere solaskide horiekin eztabaidan aritzeko. Jesusen erantzun bizkorak, norberaren egiatik abiatuta jokatzera behartu ditu salatzaileak. Jesusen hitz hori, agian, beti ere baimenduta dauden eta, areago, txalotuta ere dauden gauzetan babestuz, geure bizitza lasaitasunez bizitzen jarraitzeko baimena ematen diguten gure hainbat amarru azaleratzera dator. Ez ote zaigu iritsi galdera egiteko garaia?

Zenbakiak liburutik 21, 4-9: Sugeek zizta egindako guztiak, brontzeko sugeari begiratzean, sendatu egingo dira. **Sal 101:** Entzun, Jauna, nire otoitza, hel bedi zugana nire deiadarra.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8, 21-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien fariseuei: «Ni banoa, eta nire bila ibiliko zarete; baina zeuen bekatuan hilko zarete. Ni noan tokira zuek ezin zarete joan». Orduan, entzuleek esan zuten: «Bere burua hil behar ote du? Horregatik esan ote du “Ni noan tokira zuek ezin zarete joan”?». Jesusek jarraitu zuen: «Zuek behekoak zarete, Ni goikoa naiz; zuek mundu honetakoak zarete, Ni ez naiz mundu honetakoa. Horregatik esan dizuet, zeuen bekatuetan hilko zaretela; zeren, “Ni naizela” sinesten ez baduzue, zeuen bekatuetan hilko baitzarete». Orduan, esan zioten: «Nor zara Zu?». Jesusek erantzun: «Hasieratik ari natzaizue esaten. Badut zuetaz zer esanik eta zer gaitzetsirik asko. Bidali nauena fidagarria da; eta Nik, hari entzun diodana, horixe bera esaten diot munduari». Haiek ez ziren jabetu Aitaz mintzo zitzaiela. Jesusek, beraz, esan zien: «Gizonaren Semea jasoko duzuenean, orduan jakingo duzue Ni naizela, eta ez dudala neurez ezer egiten; baizik eta Aitak erakutsi didana bakarrik esaten dudala. Ni bidali nauena nirekin dago; ez nau bakarrik utzi, hark atsegina duena egiten baitut beti». Jesusek gauza hauek esan zituenean, askok sinetsi zuen harenan.

Aste santua gainean dugu eta liturgiak, beste behin ere, harridura berrituarekin prestatzen gaitu fariseuek egindako galderari Jesusek emango dion erantzuna agertzeko: «Nor zara zu?». Gai horrek alderik alde zeharkatzen ditu ebanjelioak, eta sinestunen kontzientziaren sakonenean oihartzuna eragiten du, itsatsitako eztenaren modura. Nor zara zu, egunero gu harritzen gaituzuna, geure egoeratik erorarazten gaituzuna eta jada ezagunak ditugun gauzen erosotasunean babestea eragozten diguzuna? Nor zara zu, zeure kabuz ezer egiten ez duzuna eta zeure Aitak erakutsi dizun bezala hitz egiten duzuna? Nor zara zu, Jesus, zeure bizia azkeneraino ematera ausartu zarena eta bidali zaituena beti zurekin dagoela eta inoiz ez zaituela bakarrik utziko uste duzuna?

Garizumako 5. astea

San Konstantino, *abadea*Santa Gladys, *erregina*

Danielen liburutik 3, 14-20.91-92.95: Jainkoak bere aingerua bidali du bere zerbitzariak libratzera. **Sal: Daniel 3:** Aintza eta gorespen zuri gizaldietan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8, 31-42.

Aldi hartan, Jesusek esan zien beragan sinetsi zuten juduei: «Nire hitzean irauten baduzue, egiaz nire ikasle izango zarete; ezagutuko duzue egia, eta egiak aske egingo zaituzte». Erantzun zioten: «Gu Abrahamen ondorengoak gara, eta ez gara inoiz inoren esklabo izan. Nola diozu aske izango garela?». Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Bekatu egiten duena bekatuaren esklabo da. Esklaboa ez da etxean betiko geratzen; semea, bai, betiko geratzen da. Beraz, Semeak askatzen bazaituzte, benetan aske izango zarete. Badakit, bai, Abrahamen ondorengoak zaretela; baina Ni hil nahian zabiltzate, nire hitza ez baita zuengan sustraitzen. Neure Aitaren ondoan ikusi dudanz mintzo naiz Ni; zuek, berriz, zeuen aitagandik ikasi duzuen egiten duzue». Haiek erantzun zioten: «Abraham dugu aita». Jesusek orduan: «Abrahamen seme bazinete, Abrahamek egin zuena egingo zenukete. Zuek, ordea, Ni hil nahian zabiltzate, eta Jainkoari entzundako egia besterik ez dizuet esan. Abrahamek ez zuen horrelakorik egin. Zuek zeuen aitak egiten duena egiten duzue». Erantzun zioten: «Gu ez gara sasikume; aita bakarra dugu, Jainkoa». Jesusek orduan: «Zuen aita Jainkoa balitz, maite izango nindukezue, Ni Jainkoagandik atera bainaiz eta etorri; Ni ez naiz neure kabuz etorria, hark bidalia baizik».

Garizumako 5. astea

San Konstantino, *abadea*

Santa Gladys, *erregina*

Joanen arabera, Jesusengana hurbiltzen diren juduen arteko askok hil egin nahi dute bera, baina badira beste batzuk berarengan sinesten dutenak. Pasarte honetan, Jesus azkeneko horiei zuzentzen zaie eta ohartarazten ditu, alegia, ez dela nahikoa sinetsi izana, baizik eta beharrezkoa dela beraren hitzaren arabera bizi eta beraren ikasle bihurtzea. Puntu horretan berriro ere gatazka sortzen da; izan ere, judu horiek ez daude prest jada badakitena ukatzeko eta beren egiaren eta askatasunaren kontzeptuak uzteko. Haien mesfidantzak, ziur asko, geurea jartzen du agerian: ikasle izateak ezagutzen denaren erosotasunari uko egitea eta umiltasunez irekita mantentzea eskatzen du, Jesusek, bere izateko modua –berarekin seme-alaba eta senide eran jokatzea, alegia– irakats diezaien uzteko.

Garizumako 5. astea

San Joan Klimako, *abadea*Santa Irene, *martiria*

Hasiera liburutik 17, 3-9: Herri askoren aita izango zara. Sal 104:
Gogoan du etengabe Jaunak bere ituna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 8, 51-59.

Aldi hartan, Jesusek esan zien juduei: «Egi-egiaz diotsuet: Nire hitza gordetzen duenak ez du inoiz heriotzarik ikusiko». Juduek esan zioten: «Orain bai dakigula deabruaren menpe zaudela. Abraham hil egin zen eta profetak ere bai; eta Zuk diozu: “Nire hitza gordetzen duenak ez du inoiz heriotzarik ikusiko”? Gure aita Abraham baino handiago al zara, bada, Zu? Hura hil egin zen eta profetak ere bai; nor zarelakoan zaude?». Jesusek erantzun zien: «Nire burua Neuk ohoratuko banu, nire ohore horrek ez luke ezer ere balioko; baina Aitak, zeuen Jainkoa omen duzuenak, ohoratzen nau Ni; zuek, ordea, ez duzue hura ezagutzen; Nik, bai, ezagutzen dut, eta ezagutzen ez dudala esango banu, gezurri izango nintzateke zuek bezalaxe; baina ezagutzen dut eta gordetzen ere haren hitza. Zuen aita Abraham pozik zen nire eguna ikusiko zuen itxaropenez; ikusi zuen eta alaitasunez bete zen». Orduan, juduek esan zioten: «Ez dituzu oraindik berrogeita hamar urte, eta Abraham ikusi duzula?». Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Abraham sortu baino lehenagokoa naiz Ni». Orduan, harriak hartu zituzten hari jaurtitzeko; baina Jesus ezkutatu egin zen eta tenplutik atera.

Garizumako 5. astea

San Joan Klimako, *abadea*

Santa Irene, *martira*

Jesusengan sinesten hasiak diren juduek berek ere ez dute lortzen jasatea erabat desorekatzen dituen eta beraien iruzurrak agerian jartzen dituen Jesusen mezua. Horregatik, beren ziurtasunek itsututa eta Jesusen berritasuna aitortzeko gaitasunik gabe, uko egiten diote egiaren sustraietan murgiltzeari eta Jesusi harrika ematen saiatzen dira. Liturgiak proposatutako idazkietan arnasten den bortxa-giro hazkorrak zalantzarik gabeko ohartarazpen izan nahi du guretzat: Jesusi jarraitzeak gatazka dakar. Baina berri on bat agintzen digu: «Nire hitza gordetzen duena, ez da betiko hilko». Alabaina, beraren hitza gordetzea ez datza hitz hori tiradera edo kutxa batean giltzapean edukitzean: piztueraren ondorengo bizitzaranzko prozesua, Jainkoagana etengabe bihurtzeko prozesua da.

Garizumako 5. astea

San Amos, *profeta*Santa Balbina, *birjina*

Jeremias profetaren liburutik 20, 10-13: Neurekin dut Jauna, gudari indartsu. Sal 17: Neure larrialdian dei egin nion Jaunari, eta entzun zuen nire oihua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10, 31-42.

Aldi hartan, juduek berriro harriak hartu zituzten Jesusi harrika egiteko. Jesusek esan zien: «Egintza onik asko egin dut zuen aurrean Aitaren izenean; horietako zeinengatik egin nahi didazue harrika?». Erantzun zioten: «Ez zaitugu egintza onak egiteagatik harrikatu nahi, birao egiteagatik baizik; gizaki izanik, zeure burua Jainko egiten duzulako». Jesusek erantzun zien: «Ez al dago idatzirik zuen Liburu Santuan: “Nik esan dut: jainko zarete”? Beraz, Jainkoak “jainko” esaten die bere hitza zuzendu zienei, eta Liburu Santuak esana ukazina da. Nolatan diozue, bada, Nik, Aitak sagaratu eta mundura bidali nauen honek, birao egiten dudala, Jainkoaren Seme naizela esateagatik? Nire Aitaren egintzak egiten ez baditut, ez sinetsi niri; baina egiten baldin baditut, niri sinesten ez badidazue ere, sinetsi egintzei. Horrela, behin betiko jakingo duzue Aita nigan dagoela eta Ni Aitagan». Berriz ere atxilotu egin nahi izan zuten, baina ihes egin zien eskuetatik. Berriro Jordanez beste aldera joan zen Jesus, garai batean Joan bataiatzen ari izan zen lekura. Han gelditu zen aldi batez, eta jende asko joaten zitzaion. Hau zioten: «Joanek ez zuen ezaugarririk batere egin, baina hark honetaz esan zuen guztia egia zen». Eta han askok sinetsi zuen Jesusengan.

Garizumako 5. astea
San Amos, *profeta*
Santa Balbina, *birjina*

Ostiral Santuaren aurreko ostiral honetan, Jesusen etorkizuna jada erabat identifikatua dago argi eta garbi profeten zori tragikoarekin: Jeremiasen adiskide faltsuak bezala, beraren estropezuaren zain daude eta beraren heriotza nahi dute. Juduek, beste behin, Jesus harrikatzeko ahalegina egiten dute, birao-esaletzat salatuz. Jesusen drama, beraren «bekatua», Jainkoa bera Jesusen ekintzetan presente egiten dela aitortzea da: juduek ezagutzen duten eta ustez otzandua duten sakratutasun guztiaren aurkako irain nabarmen gisa hartzen dute hori. Pazkoko gertakariak nabarmen utziko dute, Jesusen Jainkoa bizien Jainkoa dela, eta beraren aintza historiako erretenean eroritako gizakiaren zaharberritzean adierazten dela.

* * *

Erljio desitxuratua

«Nik ez dakizkit gauza asko; egia da; ikusitakoa bakarrik esaten dut. Eta ikusi dut: gizakiaren sehaska ipuinekin kulunkatzen dutela, gizakiaren larritasunezko garrasiak ipuinekin itotzen dituztela, gizakiaren negarra ipuinekin leuntzen dutela, gizakiaren hezurak ipuinekin lurperatzen dituztela, eta gizakiaren beldurrak... asmatu dituela ipuin guztiak». (*León Felipe*)



POBREKIN
bide
eginez
eta 
ADISKIDETZE
ZUZENTASUN
MISIOAN

APIRILA / JORRAILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Ez-indarkeriaren kulturaren alde: Otoitz egin dezagun ez-indarkeriaren kultura hedatuago baten alde: arma-erabiltze urriago batetik hasita, nola Estatuen aldetik hala hiritarren aldetik.



Garizumako 5. astea

San Venantzio, *gotzaina*

Santa Teodora, *martiria*

Ezekiel profetaren liburutik 37, 21-28: Herri bakar bihurtuko ditut.

Sal: Jeremias 31: Zainduko gaitu Jaunak, artzainak artaldea bezala.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 11, 45-57.

Aldi hartan, Maria ikustera joandako judu askok, Jesusek Lazarorekin egina ikustean, harengan sinetsi zuen. Haietako batzuek, ordea, fariseuengana joan eta Jesusek egin zuena kontatu zieten. Orduan, apaizburuek eta fariseuek Batzarra bildu zuten, eta esan: «Zer egin? Gizon hau ezaugarri asko egiten ari da. Horrela jarraitzen uzten badiogu, denek sinetsiko dute honengan, etorriko dira erromatarrak eta suntsitu egingo dizkigute bai tenplua eta bai herria». Batzarkideetako batek, urte hartan apaiz nagusi zen Kaifasek, esan zien: «Zuek ez dakizue ezer. Ez al zarete konturatzen hobe duzuela gizon bat herriagatik hiltzea, herri osoa galtzea baino?». Kaifasek ez zuen hori bere kabuz esan; baizik eta, urte hartan apaiz nagusi zenez, profeta bezala hitz egin zuen, Jesus herriaren alde hilko zela adieraztean; eta herriaren alde ez ezik, baita sakabanaturik zeuden Jainkoaren seme-alabak elkartzeko ere. Eta egun hartan, Jesus hiltzea erabaki zuten. Horregatik, Jesus ez zen agerian ibiltzen juduen artean. Basamortu ondoko bazter batera alde egin zuen, Efraim izeneko herrira, eta han egon zen ikasleekin. Juduen Pazkoa gainean zen, eta herrialdeko jende asko Jerusalemera igo zen Pazkoa baino lehen, garbikuntzak egiteko. Jerusalemera etorriak Jesusen bila zebiltzan eta, tenpluan topo egitean, galdetzen zioten elkarri: «Zer deritzozue? Ez ote da jaietara etorriko?». Apaizburuek eta fariseuek agindua zuten, baldin inork Jesus non zen jakiten bazuen, sala zieziela, atxilotu ahal izateko.

Joanen kontakizunean, Lazaroren piztuera, edalontziari gainezka eragiten dion azken tantaren antzekoa da. Jesus isilarazten modu askotara saiatu ondoren, agintari juduek, azkenean, hura hiltzea erabaki dute. Jesusen aurkako amarruaren atzean, amaraun politikoa

Garizumako 5. astea

San Venantzio, *gotzaina*Santa Teodora, *martiria*

dago eta giza zikoizkeriaren nahaste-borraste galanta: ez da komeni erromatarrek esku hartzeko modua egiterik, horrek, ezarritako ordenamendua arriskuan jar lezake-eta. Lortutako pribilegioak, negozioen errentagarritasuna, etab. Jesus sobera dago eta giroa endredatu besterik ez du egiten. Ez dio axola egin dituen ekintzen zeinu ugariak zer diren, ez eta egiatik zenbat duten ere. Paretik kendu behar da gizon hori, baina, hori bai, «gauza ondo egitearen itxurarekin». Gertatzen diren gertakarien bidez, Jesus askatasun osoz hurbiltzen ari da bere Heriotzako ordura.

* * *

Jainkoa eta ni

(Xalbador, Odolaren mintzoa)

(liburu honetan hiru zatitan emana)

Lehen zatia

1. Fede haundiko burrasoan ganik sortu bainintzan mundura,
Jainko legean hezi ninduten jitean [iristean] adimendura;
hain zen beroa denbor' hartako eliz gizonen kar [sugar] hura,
ziotelarik gaizki eginak zeramala ifernura,
muinetaraino sartu zitzautan [zitzaidan] Jaungoikoaren beldurra.

2. Entzuleeri behar diotet [diet] hau erran haste hastetik:
errexenerat nintzan lerrakor gauza guzien gainetik;
ahulezia ene nagusi izan da egundainotik;
ukan aholku guzien eta Jainko beldurraren gatik,
ez nau, ez, deusek nehoiz beiratu [gorde] bektoros [bekatari] izaitetik.
(Kako artekoak Dionisiok jarriak)

Aste Santua

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaia*

Isaias Profetaren liburutik 50, 4-7.

Jainko Jaunak hitz egiteko trebatu nau, bihotz-eroriei adore-hitza emateko. Goizero dit belarria erneazten, ikasle onak bezala entzun dezadan. Jainko Jaunak belarria ireki dit, eta nik ez diot aurka egin, ez atzera jo. Bizkarra eskaini nien jotzen nindutenei; masailak, bizarretik tiraka ari zitzaizkidanei. Ez nien aurpegia saihestu irainei eta listuei. Jauna dut laguntzaile; horregatik, ez naiz kikildu; horregatik gogortu dut aurpegia, harkaitza bezala, bai baitakit ez naizela lotsagarri gertatuko.

Sal 21: Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?

San Paulok Filipoarrei 2, 6-11.

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik, ez zion gogor eutsi Jainkozko bere mailari; bestela baizik, zegokion aintza utzi eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Eta gizaki bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, menpeko eginez heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino. Horregatik, denen gaintik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion, Jesusen izenaren omenez denen belaunak makur daitezen, zeruan, lurrean eta lurpean, eta mihi guztiek aitortu dezaten Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitaren aintzarako.

Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldia San Mateoren liburutik
26, 14–27, 66.

Zenbat agintzen didazue, Jesus zuei eskura emateagatik?

K Aldi hartan, Hamabietako batek, Judas Iskariote zeritzanak, apaizburuengana joan eta esan zien:

S «Zenbat agintzen didazue, Jesus zuei eskura emateagatik?».

K Haiek zilarrezko hogeita hamar txanpon agindu zioten. Orduz gero, Jesus haiei eskura emateko egokiera bila zebilen Judas.

Non nahi duzu pazko-afarirako prestaketak egitea?

Legamiagabeko Ogien Jaiko lehen-egunean, ikasleek Jesusengana hurbildu eta galdetu zioten:

S «Non nahi duzu pazko-afarirako prestaketak egitea?»

K Jesusek erantzun zien:

† «Zoazte hirira, halakoagana, eta esaiozue: “Maisuak dio hurbil dela bere ordua, eta zuen etxean ospatu nahi duela Pazkoa ikasleekin”».

K Jesusek agindu bezala egin zuten ikasleek, eta pazko-afaria prestatu zuten.

Zuetako batek saldu egingo nau.

Ilunabarrean, mahaian zegoen Jesus hamabi ikasleekin eta, afaltzen ari zirela, esan zuen:

† «Benetan diotsuet: Zuetako batek saldu egingo nau».

K Ikasleak, oso goibeldurik, galdezka hasi zitzaizkion banaka:

S «Nik ote, Jauna?».

K Hark erantzun:

† «Nirekin plater beretik jaten ari den batek salduko nau. Gizonaren Semea badoa, Liburu Santuek hartaz dioten bezala; baina dohakabea Gizonaren Semea salduko duena! Hobe zukeen jaio izan ez balitz».

K Orduan, Judasek, salduko zuenak, galdetu zion:

S «Ni al naiz, Maisu?».

K Jesusek erantzun zion:

† «Zeuk esan duzu».

Aste Santua

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua**Hau nire Gorputza da. Hau nire Odola da.*

K Afaltzen ari zirela, Jesusek ogia hartu zuen eta, bedeinkapen-otoitza eginez, zatitu eta ikasleei eman zien, esanez:

† «Hartzazue, jan: hau nire Gorputza da».

K Gero, edalontzi bat hartu eta, esker onezko otoitza eginez, eman zien, esanez:

† «Edan guztiok honetatik: hau nire Odola baita, itunaren Odola, bekatuak barkatzeko askoren alde isuriko dena. Hara zer diotsuedan: hemendik aurrera ez dut gehiago ardo honetatik edango, neure Aitaren erreinuan zuekin ardo berria edango dudan eguna arte».

K Gorazarreak abestu ondoren, Oliamendirantz atera ziren.

Joko dut artzaina, eta artaldeko ardiak sakabanatu egingo dira.

Jesusek esan zien:

† «Gaur gauean zuen guztion sinesmenak huts egingo du Ni naizela-eta, honela baitago idatzirik Liburu Santuan: “Joko dut artzaina, eta artaldeko ardiak sakabanatu egingo dira”. Baina Ni, piztu ondoren, aurretik joango natzaizue Galileara».

K Orduan, Pedrok esan zion:

S «Beste guztien sinesmenak huts egiten badu ere, nireak inola ere ez».

K Jesusek erantzun zion:

† «Benetan diotsut: Gaur gauean bertan, oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu».

K Pedrok esan zion:

S «Zurekin hil behar badut ere, ez zaitut inola ere ukatuko».

K Eta gauza bera zioten ikasle guztiek.

Tristura eta larria sentitzen hasi zen.

Jesus ikasleekin Getsemani zeritzan landa batera iritsi zen, eta esan zien:

† «Zaudete hemen, Ni hara otoitz egitera noan bitartean».

K Pedro eta Zebedeoren bi semeak eraman zituen berekin. Tristura eta larria sentitzen hasi zen, eta esan zien:

† «Hiltzeko zorian nago tristuraz; gelditu hemen eta zaudete erne nirekin batean».

K Eta aurreraxeago joanik, ahuspez erori zen eta otoitz egin zuen, esanez:

† «Ene Aita, ahal bada, urrun ezazu nigandik edari mingots hau. Baina ez bedi egin Nik nahi bezala, Zuk nahi bezala baizik».

K Joan zen ikasleengana eta lo aurkitu zituen. Pedrori esan zion:

† «Beraz, ordubete ere ezin izan zarete nirekin erne egon? Zaudete erne eta egin otoitz, tentaldian eror ez zaitezten: gogoz kartsu izan arren, ahula baita gizakia».

K Bigarren aldiz aldendu eta otoitz egin zuen, esanez:

† «Ene Aita, edari mingots hau nahitaez edan behar badut, egin bedi zure nahia».

K Eta berriro itzulirik, lo aurkitu zituen, begiak astun baitzituzten. Haiak utzita, berriro ere aldendu eta hirugarren aldiz otoitz egin zuen, lehengo hitz berak esanez. Gero, ikasleengana joan eta esan zien:

† «Egin lo eta hartu atsedan. Hara, iritsi da ordua Gizonaren Semea bekatarien esku utzia izateko. Jaiki, goazen, hurbil da salduko nauena».

Heldu eta atxilotu egin zuten.

K Oraindik hizketan ari zela, han azaldu zen Judas, Hamabietako bat; jende-talde handia zetorren harekin, apaizburuek eta herriko

Aste Santua

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*

zaharrek bidalita, ezpatak eta makilak eskuetan zituztela. Saltzaileak seinale hau emana zion:

S «Nik musu emango diodana, huraxe da; atxilot ezazue».

K Berehala Jesusengana hurbildu eta esan zion:

S «Agur, Maisu!».

K Eta musu eman zion. Jesusek esan zion:

† «Adiskide, egizu egitekoa».

K Orduan, besteek, Jesusengana hurbildurik, heldu eta atxilotu egin zuten. Jesusekin zeudenetariko batek, eskua luzatuz, ezpata atera zuen, apaiz nagusiaren morroia jo eta belarria moztu zion. Jesusek esan zion:

† «Itzuli ezpata bere lekura; ezpata darabilena ezpataz hilko da. Zer uste duzu? Ezin diodala neure Aitari dei egin laguntza eske? Hamabi aingeru-talde eta gehiago ipiniko litzuzke berehala nire esku. Baina nola beteko lirateke orduan Liburu Santuak, honela gertatu behar duela baitiote».

K Une hartan, Jesusek jende-taldeari esan zion:

† «Lapur baten bila bezalaxe etorri zarete, ezpata eta makilekin, Ni harrapatzera. Egunero esertzen nintzen tenpluan irakasten, eta ez ninduzuen atxilotu. Baina hau guztia profetek idatzia bete dadin gertatu da».

K Orduan, ikasle guztiek Jesus utzi eta ihes egin zuten.

Ikusiko duzue Gizonaren Semea Jainko ahalguztidunaren eskuinean esertzen.

Jesus atxilotu zutenek Kaifas apaiz nagusiaren etxera eraman zuten, han baitzeuden bilduta lege-maisuak eta herriko zaharrak. Pedro, Jesusi urrutitik jarraituz, apaiz nagusiaren jauregiraino joan zen eta, barrura sarturik, morroiekin eseri zen, hura guztia zertan bukatzen

zen ikusteko. Apaizburuak eta Batzar Nagusi osoa Jesusen kontra gezurrezko testigantza bila zebiltzan, heriotzara kondenatzeko; baina ez zuten aurkitzen, gezurrezko testigu asko azaldu arren. Azkenean, bi azaldu ziren, esanez:

S «Honek esan zuen: “Jainkoaren santutegia desegin dezaket eta hiru egunean berriro eraiki”».

K Zutitu zen orduan apaiz nagusia eta esan zion:

S «Ez al diezu ezer erantzun behar zure kontrako salaketa horiei?»

K Baina Jesus isilik zegoen. Apaiz nagusiak esan zion:

S «Jainko biziagatik eskatzen dizut: Esaguzu Zu zaren Mesias, Jainkoaren Semea».

K Jesusek erantzun zion:

† «Zeuk esan duzu. Eta gehiago diotsuet: Oraintxetik Gizonaren Semea Jainko ahalguztidunaren eskuinean eseria eta zeruko hodei gainean etortzen ikusiko duzue».

K Orduan, apaiz nagusiak bere jantziak urratu zituen, esanez:

S «Biraoa esan du. Ba al dugu lekuko beharrik? Zeuek entzun duzue biraoa. Zer deritzozue?».

K Haiek erantzun:

S «Heriotza merezi du».

K Orduan, aurpegira listua bota eta ukabilka erabili zuten; beste batzuek masailekoak ematen zizkieten, esanez:

S «Asma ezak, Mesias: zeinek jo hau?»

Oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu.

K Pedro kanpoan zegoen eserita, patioan; neskame batek hurbildu eta esan zion:

S «Zu ere Jesus Galilearrarekin ibili ohi zinen».

Aste Santua

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*

K Pedrok guztien aurrean ukatu zuen:

S «Ez dakit zertaz ari zaren».

K Atarira irten zen, eta beste neskame batek ikusi eta esan zien ingurukoei:

S «Hau Jesus Nazaretarrarekin ibili ohi zen».

K Pedrok berriro ukatu zuen, zin eginez:

S «Ez dut ezagutzen gizon hori!».

K Handik laster, han zeudenek Pedrogana hurbildu eta esan zioten:

S «Bai, zu ere horietakoa zara; hizkeran ezagun duzu».

K Orduan Pedro biraoka eta madarikazioka hasi zen:

S «Ez dut ezagutzen gizon hori!».

K Eta berehala oilarrak jo zuen. Jesusek esana gogoratu zitzaion Pedrori: «Oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu», eta, kanpora irtenik, negarrari eman zion saminki.

Pilato gobernariari eskura eman zioten Jesus.

Eguna argitu zuenean, apaizburuek eta herriko zahar guztiek bildu eta Jesusen aurkako erabakia hartu zuten, heriotzara kondenatzeko. Eta loturik hartu eta Pilato gobernariari eskura eman zioten.

*Ez da zilegi diru hau tenpluko diru-kutxara botatzea,
odol-saria da eta.*

Judas saltzaileak, Jesus kondenatu zutela ikusirik, damu izan zuen eta zilarrezko hogeita hamar txanponak apaizburuei eta herriko zaharrei itzuli zizkien, esanez:

S «Bekatu egin dut errugabea heriotzara emanez».

K Baina haiek erantzun zioten:

S «Eta guri zer? Hor konpon!».

K Orduan, dirua tenpluan jaurtirik, handik atera eta bere burua urkatu zuen. Apaizburuek dirua jaso eta esan zuten:

S «Ez da zilegi diru hau tenpluko diru-kutxara botatzea, odol-saria da eta».

K Eta, elkarrekin erabakia hartu ondoren, «Eltzegilearen Soroa» erosi zuten, kanpotarren hilerritarako. Horregatik, gaur egun ere, soro hari «Odol Soro» deritza. Honela bete zen Jeremias profetak esana: «Zilarrezko hogeita hamar txanpon hartu zituzten; hori izan zen israeldarrek ezarri zioten salneurria. Eta Eltzegilearen Soroa erosteko erabili zituzten, Jaunak agindu zidan bezala».

Juduen erregea al zara Zu?

Jesus Gobernariaren aurrera aurkeztu zuten. Gobernariak galdetu zion:

S «Juduen erregea al zara Zu?»

K Jesusek erantzun zion:

† «Zeuk diozu».

K Apaizburuak eta herriko zaharrak salatu eta salatu ari ziren Jesusen aurka, baina hark ez zuen hitzik erantzuten. Pilatok esan zion:

S «Ez al duzu entzuten zenbat gauza ateratzen duten zure kontra?».

K Jesusek salakuntza bakar bati ere ez baitzion erantzunik ematen, zeharo harriturik zegoen Gobernaria. Pazko-jai guztietan preso bat askatzeko ohitura zuen Gobernariak, herriak nahi zuena. Bazen orduan preso sonatu bat, Barrabas zeritzana. Herria bildu zenean, Pilatok galdetu zion:

S «Nor nahi duzue askatzea, Barrabas ala Jesus, Mesias delakoa?».

Aste Santua

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*

K Bai baitzekien bekaitzez emana ziotela Jesus. Auzitegian eseririk zegoela, emazteak mandatu hau bidali zion:

S «Ez egin ezer errugabe honi; asko sufritu dut bart ametsetan hori dela eta».

K Baina apaizburuek eta herriko zaharrek jendea berotu zuten, Barrabasen askapena eta Jesusen heriotza eska zitzaizkien. Gobernariak berriro galdetu zien:

S «Bietako zein nahi duzue askatzea?».

K Haiek erantzun:

S «Barrabas».

K Pilatok esan zien:

S «Eta zer egin behar dut Jesusekin, Mesias delakoarekin?».

K Denek erantzun zuten:

S «Josi gurutzean!».

K Eta hark:

S «Zer oker egin du, bada?».

K Haiek, gero eta deiadar handiagoz:

S «Josi gurutzean!».

K Pilatok, dena alferrik zela eta gainera iskanbila sortzera zihoala ikusirik, ura hartu eta eskuak garbitu zituen jendearen aurrean, esanez:

S «Ez naiz gizon honen heriotzaren erantzule. Zeuek ikusi!».

K Herri osoak erantzun zuen:

S «Gu eta gure ondorengoak egiten gara horren heriotzaren erantzule!».

K Orduan, Barrabas askatu zien eta Jesus, zigorkarazi ondoren, haien eskura eman zien, gurutziltza zezaten.

Agur, juduen erregea!

Gobernariaren gudariek jauregira eraman zuten Jesus eta gudari-talde osoa bildu zuten haren inguruan. Soinekoak erantzi eta purpurazko kapa jantzi zioten. Arantzaz eginiko koroa ezarri zioten buruan eta kanabera eskuan. Eta, aurrean belaunikaturik, iseka egiten zioten, esanez:

S «Agur, juduen erregea!».

K Listua botatzen zioten eta, kanabera kendurik, buruan jotzen zuten. Nahiko iseka egin ondoren, kapa kendu eta bere soinekoak jantzi zizkieten. Gero, gurutzean jostera eraman zuten.

Jesusekin batean bi gaizkile gurutziltzatu zituzten.

Ateratzean, Zireneko gizon bat aurkitu zuten, Simon zeritzana, eta Jesusen gurutzea eramatera behartu zuten. Golgota izeneko lekura iritsi zirenean –Golgotak «Buru-hezur» esan nahi du–, behazunez nahastutako ardoa eman zioten edatera; Jesusek dastatu zuen, baina ez zuen edan nahi izan. Gurutzean josi zutenean, gudariek Jesusen jantziak banatu zituzten, zotz eginez, eta han gelditu ziren eserita hura zaintzen.

Buruaren gainaldean kondenazioaren arrazoia ipini zuten idatzia: **HAU JESUS DA, JUDUEN ERREGEA**. Jesusekin batean bi gaizkile gurutziltzatu zituzten, bata eskuinean eta bestea ezkerrean.

Jainkoaren Seme baldin bahaiz, jaits hadi gurutzetik!

Handik igarotzen zirenek iraindu egiten zuten Jesus, buruari eraginez eta esanez:

S «Santutegia desegin eta hiru egunean berriro eraikitzen omen huen horrek, salba ezak heure burua, Jainkoaren Seme baldin bahaiz! Jaits hadi gurutzetik!».

Aste Santua

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*

K Era berean, apaizburuek, lege-maisuek eta herriko zaharrek ere burla egiten zioten, esanez:

S «Besteak salbatu dizkik, eta bere burua ezin salbatu. Israelgo erregea omen duk; jaits dadila orain gurutzetik, eta sinetsiko diagu beragan. Jainkoagan jarria dik uste ona; libra dezala orain, maite baldin badu; ez zian, ba, esaten Jainkoaren Semea zela?».

K Berarekin gurutzean josirik zeuden bi gaizkileek ere irain egiten zioten.

Eli, Eli, lema sabaktani.

Eguerditik hirurak arte, ilundu egin zuen lurbira osoan. Hirurak inguruan, Jesusek oihu handiz esan zuen:

† «Eli, Eli, lema sabaktani»,

K hau da:

† «Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu?»

K Hau entzutean, bertan zeuden batzuek esan zuten:

S «Eliasi deika ari duk».

K Berehala, haietako batek, lasterka joan, ozpinetan bustitako belakia hartu eta, kanabera bati muturrean erantsiz, edatera eman zion. Besteek, ordea, zioten:

S «Egon, ea datorkion Elias salbatzera».

K Baina Jesusek, berriro deiadar handia eginez, azken arnasa eman zuen.

Hemen, belauniko jarri eta egonalditxo bat egingo da.

Orduan, santutegiko oihala erdiz erdi urratu zen, goitik beheraino; lurrikara izan zen eta harkaitzak zartatu egin ziren; hilobiak ireki eta hilik zegoen santu asko piztu egin zen. Hauek, beren hilobietatik

atera eta, Jesus piztu ondoren, hiri santuan sartu ziren eta jende askori agertu zitzaizkion. Lurrikara eta gertakari guztiok ikustean, erromatar ehuntariak eta harekin Jesus zaintzen zeuden besteek, beldurrak jota, esan zuten:

S «Benetan, Jainkoaren Semea zen hau».

K Bazen han emakume asko ere, urrutitik begira; Jesusi jarraituz Galileatik etorriak ziren, haren zerbitzari; haien artean, Maria Magdalena, Santiago eta Joserena ama Maria, eta Zebedeoren semeena ama.

*Josek harkaitzean zulatutako bere hilobi berrian ipini zuen
Jesusen gorpua.*

Ilunabarrean, Jose zeritzan Arimateako gizon aberats bat etorri zen, bera ere Jesusen ikaslea. Pilatogana aurkeztu eta Jesusen gorpua eskatu zion. Orduan, Pilatok emateko agindu zien. Josek, Jesusen gorpua harturik, izara garbi batean bildu eta harkaitzean zulatutako bere hilobi berrian ipini zuen. Gero, harri handi bat irauliz, hilobiko sarrera itxi zuen eta joan egin zen. Maria Magdalena eta beste Maria hilobi aurrean eserita zeuden.

Badituzue zeuen guardiak; zoazte eta zaindu dakizuen eran.

Pazko-jaiaren prestatzeko egunaren ondoren, larunbatean, apaizburuek eta fariseuek Pilatogana elkarrekin joan eta esan zioten:

S «Jauna, oroitu gara gezur-saltzaile hark, artean bizi zela, nola esan zuen: “Hiru egunen buruan piztuko naiz”. Agindu ezazu, beraz, hilobia zaintzeko hirugarren eguna arte; ez dadila gerta haren ikasleek gorpua ostu eta gero “Piztu da hilen artetik” herriari esanez etortzea. Azken engainu hau lehenbizikoa baino okerragoa izango litzateke».

K Pilatok erantzun zien:

Aste Santua

San Frantzisko Paulakoa, *ermitaua*

S «Badituzue zeuen guardiak. Zoazte eta zaindu dakizuen eran».

K Joan ziren, bada, eta hilobia segurtatu zuten, harria zigilatuz eta guardia ipiniz.

Erramu igande honetako xehetasun bakoitzak, jada iradokitzen du, hurrengo egunetan Jesusi jarraituz bizi izango ditugun gertakariak gure fedearen sekreturik sakonena gordetzen dutela. Jesusek Jerusalem egindako “garaipen-sarrera” ikusiz hasiko gara, baina ez gaitezen engaina: garaipen-sarrera al da harena? Jesusek astakume bat aukeratu du, zela-abere barregarria, erromatarren zaldi bizkorren parean. Ezartzera doan mesiastasuna, «bere jainkozko mailatik jaitsi eta mendeko edo esklabo-izaera hartutakoarena da, beste gizon-emakumeen artean bat gehiago izanez» (Flp 2, 7). Bidean berarekin datorren jendetza batek inguratuta sartu da Jesus hiri santuan eta jende hark pozez goratu du, itxaropenez beteta: azkenean, iritsi ote da behartsuen ordua? Jesusi jarraitzen dion jende horren artean, ez dago jakintsu asko munduak dituen irizpideen arabera, ez eta boteredunik, ez eta noble askorik; «Jainkoak batez ere munduko jende leloa aukeratu du jakintsuak nahasteko» (1 Ko 1, 26). Jerusalemgo biztanleek –eta guk haiekin batera– arrazoiz galdetzen zuten: «Nor da hau?». Eta jendeak esaten zuen: «Hau Jesus profeta da, Galileako Nazaretakoa» (Mt 21, 10-11). Pazko-gertakariak, Jesus nazaretarraren mesiastasunaren ildoak agertzen joango dira, ehuntariak gurutzearen oinean aitortzeraino: «Hau benetan, Jainkoaren Semea zen».

Isaias profetaren liburutik 42, 1-7: Ez du oihu egingo, ez du kaleetan entzunaraziko bere mintzoa. Sal 26: Jauna dut argi eta salbamen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 12, 1-11.

Pazkoa baino sei egun lehenago, Jesus Betaniara joan zen; han bizi zen Lazaro, Jesusek hilen artetik piztu zuena. Afaria eskaini zioten; Marta zerbitzatzen ari zen, eta Lazaro Jesusekin mahaian zeudenetariko bat zen. Mariak, nardo jatorrezko kilo erdi bat lurrin-usain gozoduna, balio handikoa, harturik, oinak igurtzi zizkion Jesusi, eta bere ile-adatsez xukatu. Etxea lurrin-usainez bete zen. Judas Iskariotek, salduko zuen ikasleak, esan zuen: «Zergatik ez da saldu ukendu hori hirurehun denarioan, eta dirua behartsuei eman?». (Hori esan zuen, ez behartsuak axola zitzaizkiolako, lapurra zelako baizik, eta, diru-poltsa berak zuenez, hara botatzen zutenetik ostu egiten zuelako.). Jesusek esan zion: «Utziozu bakean; nire hilobiratze-egunerako egin du hori. Izan ere, behartsuak beti dituzue zeuen artean; baina Ni ez nauzue betiko izango». Juduetariko asko, Jesus Betanian zegoela jakinik, hara joan zen, Jesusengatik ez ezik, baita hilen artetik piztu zuen Lazaro ikusteagatik ere. Apaizburuek, orduan, Lazaro ere hiltzea erabaki zuten, hura zela-eta herritar askok haiengandik alde egiten baitzuen eta Jesusengan sinesten.

Aste Santua

San Sixto I.a., 7. aita santua

Aurreko egunetako giroak azpijokoen eta nahasmenen usaina zuen: juduak Jesus hiltzeko modu desberdinak aztertzen dabilta. Agian egindako bidearekin nekatuta eta gainera datorkionarekin ikaratuta, Maisuak atsedean apur bat bilatzen du bere lagunentzako eta han jasotzen du, hain zuzen ere, ustekabea, beste usain baten gozotasuna. Mariak bere oinetan isuri duen lurrin gozoa garbi-garbia da eta balio handikoa; beraren usaina Jesusen larruzalean barneratzen da, mezulariaren oinetan eta etxe guztia gozaten du. Bere keinu isilarekin erantzun die Mariak egin dituzten kalkulu doilorrei eta saldukeriari. Hartara, Jesusek bere biziaren eskainiko duen oparia aurreratu du ikur moduan. Jesusek argi eta garbi frogatuko du, maitasuna apurka-apurka isurtzen dela, indarkeriaz eskuratzen edo kentzen ez den lurrin gozo leuna bailitzan.

Isaias profetaren liburutik 49, 1-6: Nazioen argitzat ezarriko zaitut, nire salbamena lurraren azken mugaraino irits dadin. **Sal 70:** Nire ahoak iragarriko du, Jauna, zure salbamena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13, 21-33.36-38.

Aldi hartan, ikasleekin mahaian eseria zegoela, larritu egin zitzaion Jesusi barrua, eta argi adierazi zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Zuetako batek salduko nau». Ikasleak elkarri begira jarri ziren, zeinez ari zen asmatu ezinik. Ikasleetako bat, Jesusek hain maite zuena, haren ondo-ondoan zegoen mahaian. Simon Pedrok keinu egin zion, zeinez ari zen galdetzeko adieraziz. Hark, burua Jesusen bular gainean jarritz, galdetu zion: «Zein da, Jauna?». Jesusek erantzun zion: «Ogi-puska busti hau emango diodana, huraxe da». Eta ogi-puska bustiz, Judasi, Simon Iskarioteren semeari, eman zion. Eta ogi-puskarekin batera Satanas sartu zitzaion barrura. Orduan, Jesusek esan zion: «Egin behar duzuna egizu berehala». Mahaikideetako inork ez zuen ulertu zergatik esan zion hori. Judasek diru-poltsaren ardura zuenez, zenbaitek uste izan zuen jairako behar zena erosteko edota behartsuei zerbait emateko esan ziola. Judas ogi-puska hartu eta berehala atera zen. Gaua zen. Atera zenean, esan zien Jesusek: «Oraintxe agertuko da Gizonaren Semearen aintza, eta haren bidez Jainkoarena. Jainkoaren aintza haren bidez agertzen bada, Jainkoak ere bere aintzaz beteko du hura, eta berehala gainera. Semetxook, oraintxe ez nago luzarorako zuekin. Nire bila ibiliko zarete, baina juduei esan niena bera esaten dizuet zuei ere: “Ni noan tokira, zuek ezin zarete joan”». Simon Pedrok galdetu zion: «Jauna, nora zoaz?». Jesusek erantzun: «Ni noan lekura zuk ezin didazu jarraitu orain niri; geroago bai, jarraituko didazu». Pedrok esan zion: «Zergatik ezin dizut jarraitu orain? Neure bizia emango dut zuegatik». Jesusek erantzun zion: «Zeure bizia emango duzula nigatik? Egi-egiaz esaten dizut: Oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu».

Aste Santua

San Benito Palermokoa, *erlijiosoa*

Jesusek badaki bere Orduari berak bakarrik egin beharko diola aurre. Lagun batek saldu egingo du, beste batek ukatu eta gainerakoak ezkutatu egingo dira. Gurutzearen aurrean, une erabakigarrian, emakume batzuk eta ikasle maitea soilik geldituko dira beraren ondoan. Ez dago tarterik gaitzespenentzat, bere etorkizunaz kontzientzia hartzeko soil-soilik du tartea eta askatasun osoz bere gain hartuko du dena: «Zuetako batek saldu egingo nau». Jesus ez da hasten saltzailea hatzez seinalatzen; funtsean, haietako edonor izan daiteke, Pedrok bere burua besteak baino hobetzat duen arren: «Nire bizia zuregatik emango dut» esanez. Nekaldiko pertsonaia bakoitzak, bere jokabidearekin, geure desiretara bidaltzen gaitu, baita geure kontraesanetara ere. Jesusek hori guztia du gogoan eta, jakin badaki, nortzuk aukeratu dituen; horrenbestez, gaua igarotzeko modua erakusten digu.

* * *

Jainkoa eta ni

(apirilaren 1etik dator)

Bigarren zatia

3. Legeak zuen erakaspena hausten nuen guzietan, okaztagarri [nazkagarri] aurkitzen nintzan Jainkoaren begietan, nitaz betikotz etsi zuela iduritzen baizitzauntan [baizitzauntan]; desgustaturik damuz betea egon izan naiz bortzetan [askotan], ez sorturikan Jainkoaz deusik ez dakiten tokietan.

4. Orduko apez [apaiz suhar zintzoek halako arak [erak, moduak] zituzten, etzen [ez zen] maitasun gozo haundirik heien ahotik ixurtzen; heiek [haiek] Jaunari eman itxurak ari ninduen itsutzen, zeruko edertasunak berak hotz hotza ninduen uzten, gaztiguaren [zigorraren] labe gorria baizik ez nuen ikusten.

Isaias profetaren liburutik 50, 4-9a: Ez nien aurpegia saihestu irainei.

Sal 68: Erantzun, ene Jainko, zeure maitasun handiaz, mesedegaraia duzu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 26, 14-25.

Aldi hartan, Hamabietako batek, Judas Iskariote zeritzanak, apaizburuengana joan eta esan zien: «Zenbat agintzen didazue, Jesus zuei eskura emateagatik?». Haiek zilarrezko hogeita hamar txanpon agindu zioten. Orduz gero, Jesus haiei eskura emateko egokiera bila zebilen Judas. Legamiagabeko Ogien Jaiko lehen-egunean, ikasleek Jesusengana hurbildu eta galdetu zioten: «Non nahi duzu pazko-afarirako prestaketak egitea?». Jesusek erantzun zien: «Zoazte hirira, halakoagana, eta esaiozue: “Maisuak dio hurbil dela beraren ordua, eta zuen etxean ospatu nahi duela Pazkoa ikasleekin”». Jesusek agindu bezala egin zuten ikasleek, eta pazko-afaria prestatu zuten. Ilunabarrean, mahaian zegoen Jesus hamabi ikasleekin eta, afaltzen ari zirela, esan zuen: «Benetan diotsuet: Zuetako batek saldu egingo nau». Ikasleak, oso goibeldurik, galdezka hasi zitzaizkion banaka: «Nik ote, Jauna?». Hark erantzun: «Nirekin plater beretik jaten ari den batek salduko nau. Gizonaren Semea badoa, Liburu Santuek hartaz dioten bezala; baina dohakabea Gizonaren Semea salduko duena! Hobe zukeen jaio izan ez balitz». Orduan, Judasek, salduko zuenak, galdetu zion: «Ni al naiz, Maisu?». Jesusek erantzun zion: «Zeuk esan duzu».

Zergatik saldu du Judasek Jesus? Dirudienez, beste apostoluetako inork ere ez du Maisuaren mezua eta beraren mesiastasunaren edukia noraino iristen diren ulertu. Orduan, zergatik eman du Judasek besteek baino urrats bat gehiago aurrera, saldukerian murgilduz? Nazaretarrarekin etsita edo desengainatuta ote dago ba? Edota ez ote

Aste Santua

San Bizente Ferrer, *apaiza*

du ba harengan fidatzeko adina maite? Bere kontzientziak ezin eutsi izango dio halako erabaki baten zamari: «Ai, gizonaren Semea saltzen duena!». Jesusek ez du kondenatu, Judasen errudun-sentipenak berak baizik. Jesus Piztuaren begirada gai izango da Hamaiken konfiantza zauritua bere onera ekartzeko: nolatan ez litzateke ba gai izango berak egun batean aukeratutako lagun galdu hau ere ilunpetik argira ateratzeko?

* * *

Jainkoa eta ni
(apirilaren 4tik dator)

Hirugarren zatia

5. Orai ez dakit, Jauna, Zu edo ni aldatu ote naizen, etzira [ez zara] egun [gaur] ene gogoan lengo itxuraz agertzen; gertatzen denaz, o Nagusia, kartsuki zaitut eskertzen, gure arteko hoztasun hartaz hasia nintzan aspertzen, Jainko maitea, ordu zen noizbait lagunak egin gintezten.

6. Zure laguna eginez geroz enetzat ez da nekerik, zure behako [begirada] samurrak eman [jarri] nau fidantziak beterik; deusen [ezeren] galderik ez dautzut [dizut] bada egiten ene baitarik, ez gaztigua [zigorra] urrun dezazun, ez eta sari eskerik; gaurkotz ez dautzut [dizut] deusik eskatzen amodioaz besterik.

7. Nemoiz bakerik goza gabeko ene gogo bihurria, bihotzak edan duen ur onak hil du zure egarria, ur on guzian Jabeak berak emanikan negurria [neurria]; horra egi bat amodioak gure bixtan ezarria: Haren oinetan sortzen zaukula [zaigula] bakearen iturria.

Irteera liburutik 12, 1-8.11-14.

Egun haietan, honela mintzatu zitzairen Jauna Moisesi eta Aaroni Egipton: «Hilabete hau izango duzue hilabete nagusia, urte guztiko lehenengoa. Esaiozue israeldarren elkarte osoari: “Hil honen hamarrean, bakoitzak abere xehe bat hartuko du, familia eta etxe bakoitzeko bana. Abere osoa jateko familia aski ez bada, aldameneko bizilagunekin elkartuko da, bakoitzak jan dezakeenaren arabera zenbat lagun behar den kontuan harturik. Aberea akatsik gabea izango da, arra, urtekoa, arkume nahiz antxume. Hilaren hamalaua arte gordeko duzue, eta egun horretan, ilunabarrean, israeldar elkarteko guztiek hilko dute. Gero, odola hartu eta jango duzuen etxeko atearen bi zutoinak eta ateburua odoleztatuko dituzue. Gau horretan, suan errea jango duzue haragia, legamiagabeko ogiz eta belar mingotsez lagundurik. Honela jango duzue: gerria loturik, oinetakoak jantzirik eta makila eskuan, abiatzeko prest; presaka jango duzue, Jaunaren Pazkoa baita, hau da, Jaunaren igarotzea. Gau horretan Egipto osoan zehar igaroko naiz, eta hil egingo ditut Egiptoko lehen-ume guztiak, bai gizakienak eta bai abereenak, eta neure epaia emango diet Egiptoko jainkoei. Ala Ni Jauna! Odola izango duzue ezaugarri zuek zaudeten etxeetan. Odola ikustean, aurrera igaroko naiz; horrela, Nik egiptoarrak jotzean, izurriak ez zaituzte suntsituko. Egun hau gogoangarri izango duzue eta jai nagusiz ospatuko duzue Jaunaren ohoretan. Jai honen ospakizuna betiko lege izango duzue belaunez belauñ».

Sal 115: Esker onezko kalizak Kristoren odolean elkartzen gaitu.

San Paulok 1 Korintoarrei 11, 23-26.

Senideok: Jaunagandik hartu nuen nik, neure aldetik zuei eman dizuedan hau: Jesus Jaunak, saldu zuten gauean, ogia hartu eta, esker onezko otoitza eginez, zatitu zuela eta esan: «Hau nire Gorputza da,

Aste Santua

San Ireneo, *gotzaina (eliz gurasoa)*

zuentzat emana. Egizue hau nire oroigarri». Afal ondoan gauza bera egin zuen kalizarekin, esanez: «Kaliza hau itun berria da, nire Odolaz sinatua; egizue hau, edaten duzuen bakoitzean, nire oroigarri». Beraz, ogi honetatik jaten eta kaliza honetatik edaten duzuen bakoitzean, Jaunaren heriotza iragartzen duzue, hura etorri arte.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13, 1-15.

Pazko-jaija gainean zen. Jesusek, mundu hau utzi eta Aitagana joateko ordua iritsi zitzaiola jakinik, munduan ziren beretarrak maite izanik, azkenean bete-betean maitatu zituen. Afaltzen ari ziren. Ordurako deabruak sartua zion buruan Simon Iskariotereren seme Judasi Jesus saltzeko asmoa. Jesus, Aitak dena bere esku jarri ziola, Jainkoagandik etorria zela eta Jainkoagana zihoala jakinik, jaiki zen mahaitik, erantzi zuen soingainekoa eta, eskuzapia harturik, gerrian lotu zuen; gero, ontzi bat urez bete eta ikasleei oinak garbitzen hasi zitzaien, eta gerrian zuen eskuzapiaz lehortzen. Simon Pedrogana iritsi zenean, honek esan zion: «Jauna, Zuk niri oinak garbitu?». Jesusek erantzun zion: «Ni egiten ari naizena zuk ez duzu orain ulertzen; geroago ulertuko duzu». Pedrok berriro: «Zuk ez didazu niri sekula oinik garbituko». Jesusek erantzun: «Garbitzen ez bazaitut, ez duzu nirekin zerikusirik izango». Simon Pedrok esan zion: «Jauna, orduan oinak ez ezik, baita eskuak eta burua ere». Jesusek erantzun zion: «Garbitua hartu duenak ez du oinak baizik garbitu beharrik, erabat garbi baitago; eta zuek garbi zaudete, baina ez denok». Izan ere, bazekien nork salduko zuen; horregatik esan zuen: «Ez zaudete denok garbi». Oinak garbitu zizkienean, soingainekoa jantzi, berriro mahaian eseri eta esan zien: «Ulertzen al duzue egin dizuedana? Zuek Maisua eta Jauna deitzen didazue, eta ongi deitu ere, halaxe naiz eta. Beraz, Nik, Jauna eta Maisua naizen honek, zuei oinak garbitu badizkizuet, zuek ere elkarri oinak garbitu behar dizkiozue. Jarraibide eman dizuet, zuek ere Nik zuekin bezalaxe joka dezazuen».

Aste Santua

San Ireneo, *gotzaina (eliz gurasoa)*

Ostegun Santu gauean, eukaristiaren une bikainena, eukaristia eratzeke hitzekin batera, indar handiz entzuten da oinak garbitzeko keinuaren oihartzuna. Jesusek bere biziaren dohaina zatitutako ogi-puskarekin eta ardoarekin lotu du, itun berria zigilatuz. Baina beraren gorputza, gurutzean gudari baten lantzak zeharkatuko duen gorputz hori bera da, ogi-puska batean askatasunez kokatuta geldituko da aldien amaierara arte, eta izugarrizko trinkotasuna duen eukaristia-mugimendua egiten du azken afarian. Esklaboen eta emakumeen –gutxienik agintzen dutenen– larruazalean jarrita, Jauna makurtu egin da bere lagunak oinak garbitu eta lehortzeko. Ez dio axola zein bide ibiltzeko gai izango diren. Orduz geroztik, eukaristia-topaketa, sakramentuaren ospakizunean edota senideenganako zerbitzuaren ezkutuko liturgian bizi ahalko da. Jaunak emandako gorputza hartze horrek, beraren etorkizunak gu ere bere baitan hartzea eta gu beraren erara eraldatzea esan nahi du, harik eta berarekin batera, mundua bizitzeko guztiok zeharo kontsumituak, janda, gelditu arte.

Aste Santua

La Salleko San Joan Bautista, *apaiza eta fundatzailea*
(*Salletarrak*)

Isaias profetaren liburutik 52, 13–53, 12.

Hara, nire zerbitzariak arrakasta lortuko du; goratua, gorengo mailara jaso izango da. Asko eta asko ikaratu ziren hartaz, hain baitzuen giza itxura ere galdua eta gizakia zenik ere ez baitzirudien; era berean, herri asko harrutuko dira, erregeak haren aurrean mutu geldituko, inoiz kontatu ez zitzaiena ikusiko baitute, inoiz entzun ez zutena adituko. Nork sinetsi du gure mezua? Nori agertu zaio Jaunaren ahalmena? Sustraiak lur lehorrean dituen kimua bezala hazi zen Jaunaren zerbitzaria haren aurrean; ez zuen duintasunik, ez edertasunik, ez gure begientzat itxura erakargarririk; mesprextatua eta jendeak baztertua, oinaze-gizona, sufritzen ikasia; ez ikusiarena egiten zaiona bezala, mesprextatu egin genuen eta aintzakotzat hartu ez. Baina gure gaitzak bere gain hartu zituen hark eta gure oinazeak eraman. Guk, berriz, zigortutzat geneukan, Jainkoak zauritu eta atsekabetutzat. Gure bekatuengatik zulatu zuten, gure erruengatik zanpatu. Haren gainera erori zen guretzat salbagarri den zigorra: haren zauriek sendatu gaituzte. Ardiak bezala genbiltzan galdurik, bakoitza geure bidetik, eta Jaunak haren gainera bota zuen gu guztion errua. Gaizki erabili zuten, baina hura apaldu egin zen, ahorik zabaldu gabe. Hiltzera daramaten bildotsak bezala, ile-moztaileen aurrean isilik dagoen ardiak bezala, ez zuen ahorik zabaldu. Gogorki eta zuzengabe eraman zuten; baina haren zoria nori axola? Bizidunen lurretik erauzi zuten, nire herriaren bekatuagatik jota. Gaiztoen artean lur eman zioten, gaizkileekin batera hilobiratu, nahiz eta hark bidegabekierarik ez egin eta haren ahoan maltzurkeriarik ez izan. Jaunak oinazez josi nahi izan zuen. Bekatuen ordainetan bizia eman zuelarik, izango ditu ondorengoak eta bizitza luzea, eta haren bitartez Jaunaren nahia burutuko da. Hainbat neke jasan ondoren, argia ikusiko du eta asea izango da. Ikasi duenaren bidez, nire zerbitzari zuzenak asko egingo ditu zuzen, haien gaiztakeriak bere gain hartu baitzituen. Horregatik, jendetza ugaria emango diot ordainetan, gizataldeak izango ditu

Aste Santua

La Salleko San Joan Bautista, *apaiza eta fundatzailea*
(Salletarrak)

garaipen-sari, bere burua heriotzara eman zuelako eta bekatarien kideztat hartu zutelako. Denen bekatuak bere gain hartu zituen eta bekatarien alde erregutu zuen.

Sal 30: Aita, zure eskuetan uzten dut neure espiritua.

Hebrearrei liburutik 4, 14-16; 5, 7-9.

Senideok: Gure apaiz nagusi handia, Jesus, Jainkoaren Semea, zeruetan sartua dugunez gero, euts diezaiogun aitortzen dugun sinesmenari; izan ere, gure apaiz nagusia ez da gure ahuleriaz erruki ez daitekeen norbait, hura ere, gu bezala, gauza guztietan probatua izan baita, bekatuan izan ezik. Hurbil gaitezen, bada, konfiantza osoz Jainkoaren graziaren tronura, errukia iritsi eta premialdian laguntza izan dezagun. Kristok, bere giza bizitzaldian, deiadar handiz eta negarrez egin zion otoitz eta erregu heriotzatik libra zezakeen Jainkoari, eta, Kristok begirune izan ziolako, entzun egin zion Jainkoak. Eta Semea izanik ere, oinazearen oinazez ikasi zuen obeditzen; horrela, bere betera iritsirik, betiko salbamenaren iturri bilakatu zen obeditzen dioten guztientzat.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 18, 1-19, 42.

Getsemanin, Jesus preso hartu eta loturik eraman.

K Aldi hartan, Jesus eta ikasleak Zedron erreka igaro eta beste aldean zegoen baratze batera sartu ziren. Judasek ere, Jesus salduko zuenak, ezagutzen zuen leku hura, maiz bildua baitzen Jesus han bere ikasleekin.

Judas, beraz, tenpluko gudari-taldea eta apaizburuak eta fariseuen guardiak harturik, hara joan zen. Zuzi, argiontzi eta armez horniturik zihoazen. Jesusek, ondo baitzekien gertatuko zitzaion gutzia, bidera atera eta esan zien:

Aste Santua

La Salleko San Joan Bautista, *apaiza eta fundatzailea*
(*Salletarrak*)

S «Noren bila zatozte?».

K Haiek erantzun:

S «Jesus Nazaretarraren bila».

K Hark orduan:

† «Ni naiz».

K Han zen guardiekin batean Judas saltzailea ere. Jesusek «Ni naiz» esan zienean, atzeraka hasi eta lurrera erori ziren. Berriro galdetu zien:

† «Noren bila zatozte?».

K Haiek erantzun:

S «Jesus Nazaretarraren bila».

K Eta Jesusek:

† «Esan dizuet Ni naizela. Nire bila bazatozte, utzi hauei joaten».

K Horrela bete zen Jesusek berak esandakoa: «Eman dizkidazunetatik ez dut bat ere galdu».

Orduan, Simon Pedrok, aldean zeraman ezpata atera, apaiz nagusiaren morroia jo eta eskuineko belarria moztu zion. Morroiak Malko zuen izena. Jesusek esan zion Pedrori:

† «Itzuli ezpata zorrora. Ez al dut, ba, edan behar Aitak eman didan edaria?».

Jesus Anasen etxera eraman zuten lehenengo.

K Gudari-taldeak bere buruzagiarekin eta judu-agintarien guardiek Jesus preso hartu eta, loturik, Anasen etxera eraman zuten lehenengo; urte hartako apaiz nagusi Kaifasen aitagarreba zen Anas hau (Kaifas zen juduei aholku hau eman ziena: «Hobe da gizon bat herriagatik hiltzea»).

Aste Santua

La Salleko San Joan Bautista, *apaiza eta fundatzailea*
(Salletarrak)

Simon Pedro eta beste ikasle bat Jesusen atzetik joan ziren. Beste ikaslea apaiz nagusiaren ezaguna zen eta, Jesusekin batera, apaiz nagusiaren jauregiko patiora sartu zen; Pedro, berriz, kanpoan gelditu zen, ate ondoan. Atera zen orduan apaiz nagusiaren ezaguna zen ikaslea eta, atezainari hitz egin ondoren, Pedro barrura sarrarazi zuen. Atezain zegoen neskameak esan zion Pedrori:

S «Zu ere ez al zara gizon horren ikasleetakoa?».

K Pedrok erantzun:

S «Ez, ez naiz!».

K Morroiak eta guardiak sua piztu eta berotzen ari ziren, hotz egiten baitzuen. Pedro ere haiekin zegoen, berotzen. Apaiz nagusiak bere ikasleez eta irakatsiaz galdetu zion Jesusi. Jesusek erantzun zion:

† «Ageri-agerian hitz egin izan diot Nik mundu guztiari; sinagogan eta tenpluan irakatsi izan dut beti, judu guztiak biltzen diren lekuan, eta ezer ere ez dut ezkutuan esan. Zergatik galdetzen didazu niri? Galdetu nire entzuleei eta emango dizute esan dudanaren berri».

K Hori esan zueneko, han zegoen guardia batek masaileko bat eman zion, esanez:

S «Horrela erantzuten al diozu apaiz nagusiari?».

K Jesusek erantzun zion:

† «Gaizki hitz egin badut, esan zertan; baina ongi hitz egin badut, zergatik jo nauzu?».

K Orduan, Anasek Kaifas apaiz nagusiagana bidali zuen Jesus lotua.

Zu ere ez al zara, ba, horren ikasleetakoa? Ez, ez naiz!

Bitartean, han zegoen Simon Pedro berotzen, eta esan zioten:

S «Zu ere ez al zara horren ikasleetakoa?».

Aste Santua

La Salleko San Joan Bautista, *apaiza eta fundatzailea*
(*Salletarrak*)

K Pedrok ukatu egin zuen, esanez:

S «Ez, ez naiz!».

K Apaiz nagusiaren morroietako batek, Pedrok belarria moztu zionaren ahaideak, esan zion:

S «Ez ote zaitut, ba, neuk ikusi horrekin baratzean?».

K Ukatu egin zuen Pedrok berriz ere, eta berehala oilarrak jo zuen.

Nire erregetza ez da mundu honetakoa.

Kaifasen etxetik Gobernariaren jauregira eraman zuten Jesus. Goizaldea zen. Juduak ez ziren jauregian sartu, beren burua ez kutsatzeko, bestela ezin izango baitzuten pazko-afarian parte hartu. Pilatok kanpora atera eta galdetu zien:

S «Zertaz salatzen duzue gizon hau?».

K Haiek erantzun zioten:

S «Gaizkilea ez balitz, ez genizukeen ekarriko».

K Pilatok esan zien:

S «Eraman zeuek eta epaitu zeuen legearen arabera».

K Juduek orduan:

S «Guri ez zaigu zilegi inor heriotzara kondenatzea».

K Horrela beteko zen Jesusek esandakoa, zein heriotzaz hilko zen adierazi zuenean. Pilato jauregira sartu zen berriro eta, Jesusi deiturik, galdetu zion:

S «Zu al zara juduen erregea?».

K Jesusek erantzun:

† «Zeure kabuz galdetzen didazu hori ala besteek esan dizute hori nitaz?».

K Pilatok esan zion:

Aste Santua

La Salleko San Joan Bautista, *apaiza eta fundatzailea*
(Salletarrak)

S «Judua ote naiz, ba, ni? Zeure herritarrek eta apaizburuek ekarri zaituzte nigana. Zer egin duzu?».

K Jesusek erantzun:

† «Nire erregetza ez da mundu honetakoa. Nire erregetza mundu honetakoa balitz, nire jendeak borroka egingo luke, Ni juduen eskuetan ez erortzeko. Nire erregetza, ordea, ez da hemengo».

K Orduan, Pilatok esan zion:

S «Beraz, errege zara Zu?».

K Jesusek erantzun zion:

† «Bai, errege naiz, zeuk diozun bezala. Honetarako jaio eta etorri naiz mundura: egiarena testigantza egiteko. Egiarena denak entzuten du nire ahotsa».

K Pilatok galdetu zion:

S «Zer da egia?».

K Hori esanik, berriz ere juduengana atera eta esan zien:

S «Nik ez diot errurik aurkitzen gizon honi. Baina baduzue ohitura nik Pazko-jaietan preso bat askatzekoa: nahi al duzue juduen erregea askatzea?».

K Haiek, berriz, deiadarka:

S «Hori ez! Askatu Barrabas!».

K Barrabas hau bidelapurra zen.

Agur, juduen errege!

Pilatok, orduan, Jesus zigorkatzeko agindu zuen. Gudariak, arantzazko koroa eginik, buruan ezarri zioten eta purpurazko mantua bota zioten gainera. Eta, hurbildurik, esaten zioten:

S «Agur, juduen errege!».

Aste Santua

La Salleko San Joan Bautista, *apaiza eta fundatzailea*
(*Salletarrak*)

K Eta masailekoka zerabilten. Atera zen berriro ere Pilato eta esan zien juduei:

S «Hara, kanpora dakarkizuet, jakin dezazuen ez diodala errurik aurkitzen».

K Atera zen, bada, kanpora Jesus, arantzazko koroa eta purpurazko mantua zeramatzala.

Pilatok esan zien:

S «Hona gizona!».

K Apaizburuak eta guardiak, hura ikustean, deiadarka hasi ziren:

S «Gurutzera hori! Josi gurutzean!».

K Pilatok esan zien:

S «Eraman zeuek eta gurutziltzatu; nik ez diot errurik aurkitzen».

K Juduek erantzun zioten:

S «Guk badugu legea, eta lege horren arabera heriotza-zigorra merezi du, Jainkoaren Seme egin baitu bere burua».

K Hori entzutean, are gehiago beldurtu zen Pilato eta, berriro jauregira sarturik, galdetu zion Jesusi:

S «Nongoa zara Zu?».

K Jesusek, ordea, ez zion erantzun ere egin. Orduan, Pilatok esan zion:

S «Ez al didazu erantzun behar? Ez al dakizu aginpidea dudala Zu askatzeko nahiz gurutziltzatzeko?».

K Jesusek erantzun zion:

† «Ez zenuke nire gain inolako aginpiderik izango, Jainkoak eman ez balizu. Horregatik, zure eskura eman nauenak bekatu handiago du».

Aste Santua

La Salleko San Joan Bautista, *apaiza eta fundatzailea*
(Salletarrak)*Ken hori, ken! Josi gurutzean!*

K Ordudanik, Jesus askatu nahian zebilen Pilato. Baina juduak deiadarka hasi zitzaizkion:

S «Hori askatzen baduzu, ez zara enperadorearen adiskide. Bere burua errege egiten duena enperadorearen aurka ari da».

K Pilatok, hitz horiek entzutean, kanpora eraman zuen Jesus eta auzitegian eserarazi, «Har lauzatua» zeritzan lekuan –hebreeraz «Gabbata»–. Pazko-jairako prestaketa-eguna zen, eguerdi ingurua. Pilatok esan zien juduei:

S «Hona zuen erregea!».

K Orduan, haiek deiadarka:

S «Ken hori, ken! Josi gurutzean!».

K Eta Pilatok:

S «Gurutziltzatu egin behar al dut zuen erregea?».

K Apaizburuek erantzun zioten:

S «Ez dugu enperadorea beste erregerik».

K Orduan, Pilatok haien esku utzi zuen, gurutziltza zezaten.

Gurutzean josi zuten, eta harekin batean beste bi.

Hartu zuten, beraz, Jesus, eta, gurutzea sorbaldan zeramala, «Buru-hezur» –hebreeraz «Golgota»– zeritzan lekurantz atera zen. Han josi zuten gurutzean, eta harekin batean beste bi, alde banatan, eta erdian Jesus. Pilatok kartel bat idatzi eta gurutze-buruan ipini zuen; hau zegoen idatzia: **JESUS NAZARETARRA JUDUEN ERREGEA**.

Judu askok irakurri zuen kartela, hiritik hurbil baitzegoen Jesus gurutziltzatu zuten lekua; gainera, hebreeraz, latinez eta grekoz zegoen idatzia. Juduen apaizburuek esan zioten Pilatori:

Aste Santua

La Salleko San Joan Bautista, *apaiza eta fundatzailea*
(*Salletarrak*)

S «Ez idatzi “Juduen erregea”, baizik “Juduen erregea dela dioena”».

K Pilatok erantzun zuen:

S «Idatzia bego idatzirik!».

Nire jantziak beren artean banatu zituzten.

K Gudariak, Jesus gurutzean josi ondoren, haren jantziak hartu eta lau zati egin zituzten, bakoitzarentzat bat; gero, tunika hartu zuten, baina josturarik gabea, goitik behera ehundua, zenez, esan zioten elkarri:

S «Ez dezagun urratu; zotz egin dezagun, ea zeinentzat den».

K Horrela bete zen Liburu Santuak dioena: «Nire jantziak beren artean banatu zituzten, eta nire tunika zotz egin». Hain zuzen ere, horixe egin zuten gudariak.

Horra hor zeure semea! Horra hor zeure ama!

Jesusen gurutzearen ondoan zeuden haren ama, amaren ahizpa, Maria Kleofasen emaztea eta Maria Magdalena. Jesusek, bere ama eta, honen ondoan, maite zuen ikaslea ikusirik, esan zion amari:

† «Emakume, horra hor zeure semea!».

K Gero, ikasleari esan zion:

† «Horra hor zeure ama!».

K Eta orduz gero ikasleak bere etxean hartu zuen.

Bete da dena!

Ondoren, Jesusek, dena bete zela jakinik, Liburu Santuak esana erabat bete zedin, esan zuen:

† «Egarri naiz!».

Aste Santua

La Salleko San Joan Bautista, *apaiza eta fundatzailea*
(Salletarrak)

K Bazen han ozpinez betetako pitxar bat. Orduan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera bati muturrean erantsiz, ezpainetara hurbildu zioten. Ozpina hartu zuenean, Jesusek esan zuen:

† «Bete da dena!».

K Eta, burua makurtuz, azken arnasa eman zuen.

Hemen, belauniko jarri eta egonalditxo bat egingo da.

Odola eta ura atera ziren.

Pazko-jairako prestaketa-eguna zen, eta juduek ez zuten nahi larunbatean gorpua gurutzean gelditzerik, larunbat hura oso jaiegun handia baitzen. Horregatik, gurutziltzatuei berna-hezurak hautsi eta handik kentzeko eskatu zioten Pilatori. Joan ziren, bada, gudariak eta berna-hezurak hautsi zizkieten Jesusekin gurutziltzatutako bie; baina, Jesusengana iritsi zirenean, ordurako hilik zegoela ikusirik, ez zioten berna-hezurrik hautsi, baizik eta gudari batek lantzaz saihesta zulatu zion, eta bat-batean odola eta ura atera ziren.

Ikusi zuenak berak aitortzen du eta egiazkoa da haren aitormena. Hark badaki egia dioela, zuek ere sinets dezazuen. Liburu Santuak dioena bete zedin gertatu zen hau: «Ez diote hezurrik hautsiko». Eta beste pasarte batean hau dio: «Zulatu zutenari begiratu diote».

*Jesusen gorpua oihal-zerrendaz lotu zuten,
tarteaz lurrun-gaiak ezarriz.*

Gero, Arimateako Josek Jesusen gorpua eramateko baimena eskatu zion Pilatori. Jesusen ikaslea zen Jose, baina isilpean, juduen beldurrez. Pilatok baimena eman zion. Hark, orduan, joan eta Jesusen gorpua eraman egin zuen.

Etorri zen Nikodemo ere, behin batean gauez Jesus ikustera joan zen hura, hogeita hamarren bat kiloko mirra eta aloezko nahastura

Aste Santua

La Salleko San Joan Bautista, *apaiza eta fundatzailea*
(*Salletarrak*)

zekarrela. Hartu zuten, bada, Jesusen gorpua eta oihal-zerrendaz lotu zuten, tartean lurrun-gaiak ezarriz, juduek hobiratzeko duten ohituraren arabera. Jesus gurutziltzatu zuten lekutik hurbil, baratze bat zegoen, eta baratzean ordu arte inor ehortzi gabeko hilobi berria. Hilobia hurbil zegoenez, hantxe ipini zuten Jesus, juduen Pazko-eguna hastear baitzegoen.

Nekaldiaren kontakizunari iruzkinak gehitzen aritzea baino hobe da isiltzea eta begiratzea, kontenplatzea. Juduek ez dute helburu edozein profeta hiltzea: zehazki «Jesus Nazaretarra» bilatzen dute. Joanen arabera, hil behar duen gizona, Semea da, ez beste bat: «haragi egin eta bere bizilekua gure artean jarri duena», «bereetara etorri eta bereek onartu ez dutena». Nazaretar hori on eginez ibilia da munduan, eta orain, jada, maitasunaren ertzeraino iritsi da; halere, asko dira beraren ahotsa entzuten ez dutenak eta beraren hitza ulertzen ez dutenak. Horregatik, Jesusek, bere ordua askatasun osoz onartzen badu eta bera bada Getsemaniko baratzerara joateko erabakia hartu duena, unea iristean, isildu egin da eta bere burua utzi egin die hara eta hona erabiltzen, erabateko mendekotasuna azalduz eta sufritzen eta jasaten duen zerbitzariaren pasibotasun salbatzailea bere gain hartuz. Joanen ebanjelioak azpimarratzen duen Semearen handitasuna, urtu egin da umiliatze eta ulertezintasun oro zeharkatzeko gai den askatasunarekin. «Hauxe da gizona», hau eta ez beste bat, egiazki baieztatu dezakeena: «Dena bete da». Beraren saihets irekitik ur biziak irteten jarraitzen du eta ur horrek kreazio berria irrigatzen du eta Aitak amestutako lurraren erraiak ernaltzen ditu.

Irteera liburutik 14, 15-15, 1a.

Aldi hartan, Jaunak esan zion Moisesi: «Zergatik ari zatzaizkit oihuka? Esan israeldarrei aurrera egiteko. Eta zuk jaso makila eta luzatu eskua itsas gainera: erdi bi egingo da itsasoa eta israeldarrak erditik igaroko dira, oinik busti gabe. Nik setatsu bihurtuko ditut egiptoarrak, atzetik jarrai diezazueten, eta neure aintza agertuko dut faraoiaren eta haren gudarostearen bizkar, haien gurdien eta zaldizkoen bizkar. Orduan jakingo dute egiptoarrek Ni naizela Jauna, neure aintza agertuko dudanean faraoiaren eta haren gudarostearen bizkar, haien gurdien eta zaldizkoen bizkar». Israeldarren aurretik zihoan Jainkoaren aingerua atzealdera pasatu zen; laino-adarra ere lekuz aldatu eta atzealdean kokatu zen, israeldarren eta egiptoarren artean jarritz. Lainoa ilunpe bihurtu zen, eta ezin izan ziren gau osoan elkarrengana hurbildu. Luzatu zuen Moisesek eskua itsaso gainera eta, Jaunak eraginda, ekialdeko haize indartsuak jo zuen gau guztian. Haizeak itsasoa lehortu zuen, eta urak erdibi egin ziren. Itsasoa zabalduak lehor-bidetik igaro ziren israeldarrak, oinik busti gabe, urak ezker-eskuin zituztela harresi gisa. Egiptoarrak, faraoiaren zaldi, gurdi eta zaldizko guztiak, israeldarrei erasoka itsas erdiraino sartu ziren. Goizaldean, Jaunak su- eta laino-adarretik egiptoarren gudarosteari begiratu zion eta nahasmendua sortu zuen haren baitan. Gurdien gurpilak trabatu zituen, nekez mugitzen zirela utziz. Orduan, egiptoarrek esan zuten: «Goazen ihesi israeldarrendik, Jauna ari baita haien alde eta gure aurka». Baina Jaunak esan zion Moisesi: «Luzatu eskua itsas gainera, urak egiptoarren gainera, haien gurdien eta zaldizkoen gainera, bihur daitezten». Luzatu zuen Moisesek eskua itsas gainera; eguna argitzean urak ohiko lekura itzuli ziren, eta egiptoarrek, ihes egiteko ahaleginean, urarekin aurrez aurre topo egin zuten; Jaunak itsas hondora amildu zituen egiptoarrak. Beren lekura itzultzean, urek estali egin zituzten israeldarren atzetik itsasoa sartu ziren gurdiak, zaldizkoak eta faraoiaren gudaroste osoa; ez zen bat bakarra ere bizirik atera. Israeldarrak, berriz, oinik busti gabe

Aste Santua
Pazko Gau Beila
San Dionisio, *gotzaina*

igaro ziren itsas erditik, urak ezker-eskuin zituztela harresi gisa. Egun hartan Jaunak salbatu egin zuen Israel egiptoarren eskuetatik, eta hilik ikusi zituen Israelek egiptoarrak itsasbazterrean. Eta Jaunak egiptoarren kontra erabili zuen ahalmen handia ikusirik, herriak begirune izan zion Jaunari, eta Jaunagan eta honen zerbitzari Moisesengan jarri zuen uste ona. Orduan, Moisesek eta israeldarrek kantu hau abestu zioten Jaunari:

Sal: Ir 15, 1b-2. 3-4. 5-6. 17-18 (R/. 1b): Jaunari diot kantatzen, garaipen handia lortu duelako.

San Paulok Erromatarrei 6, 3-11.

Senideok: Bataioaz Kristo Jesusekin bat egin dugunok, haren heriotzarekin egin dugu bat. Bataioaren bitartez harekin heriotzan hobiratuak izan gara, Aitaren aintzaz Kristo hilen artetik piztu zen bezala, guk ere bizi berria bizi dezagun. Izan ere, harena bezalako heriotzan hari itsatsiak izan bagara, halaxe izango gara harena bezalako piztueran ere. Badakigu lehengo gure izaera Kristorekin gurutziltzatua izan dela, bekatuzko gure izaera hori ezereztua geldi zedin eta aurrerantzean bekatuaren esklabo izan ez gintezen. Izan ere, norbait, hiltzen denean, bekatutik aske gelditzen da. Beraz, Kristorekin hil bagara, sinesten dugu, bizi ere harekin biziko garela. Badakigu Kristo, hilen artetik piztuz gero, ez dela berriro hilko; herioak ez du gehiago aginterik harengan; haren hiltzea bekatuarentzat behin betiko hiltzea izan baitzen, eta haren bizitzea Jainkoarentzat bizitzea da. Berdin zuek ere; hartu kontuan bekatuarentzat hilik zaudetela eta Jainkoarentzat bizirik, Kristo Jesusengan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 28, 1-10.

Larunbata igaro eta asteko lehen-eguna argitzean, Maria Magdalena eta beste Maria hilobia ikustera joan ziren. Bat-batean, lurrikara handia izan zen; Jaunaren aingeru bat zerutik jaitsi zen eta,

Aste Santua
Pazko Gau Beila
San Dionisio, *gotzaina*

hurbildurik, harria irauli zuen eta gainean eseri. Tximista zirudien, eta elurra bezain zuria zuen soinekoa. Zaintzaileak beldurrez dardar eta hilda bezala gelditu ziren. Aingerua emakumeei mintzatu zitzaien: «Zuek ez beldur izan. Badakit, Jesus gurutziltzatuaren bila zabilzate. Ez dago hemen; piztu da, berak esan bezala. Zatozte eta ikusi ezarria egon zen lekua. Zoazte bizkor haren ikasleei esatera: “Piztu da hilen artetik eta zuen aurretik joango da Galileara. Han ikusiko duzue”. Hau da esan behar nizuena». Hilobitik arin-arin alde egin eta, ikaraz baina poz-pozik, lasterka joan ziren ikasleei berri ematera. Hartan, Jesus atera zitzaien bidera eta agur egin zien. Emakumeek, hurbildurik, oinak besarkatu zitzioten eta gurtu egin zuten. Orduan, Jesusek esan zien: «Ez beldur izan! Zoazte eta esan nire senideei Galileara joateko. Han ikusiko naute».

Ostiral santuaren eta Pazko goizaren artean, emakumeek jarraipen handia eta haustura sakona bizi izan dituzte. Taldeko gizezkoek badakite jakin Jesus hil dela, baina ez dute ikusi hiltzen: ikasle maitatuak salbu, gainerakoek ihes egin zuten eta ezkutatu egin ziren beldur-ikaraz. Emakumeek, aldiz, ikusi zuten Jesus gurutziltzatu, entzun zuten hartaz esaten zena, gurutzetik jaistean lekuko izan dira, isekak eta trufak jasan dituzte eta min sakona ere bai. Igande goizaldean, doluak eta beldurrak hartuta jarraitzen dute; egin dezaketen gauza bakarra egiteko jaiki eta hilobira joan da, heriotzaren tokira, alegia. Piztueraren esperientziak bete-betean harrapatu ditu Jesusekin bizi izandako historiaren jarraipen gisa eta hitz berri batek zeharkatzen die garuna ezustean: «Piztu da, esana zuen bezala». Bi Mariak, lehengotik oraingora behin betiko urratsa ematera deituta daude, baina urrats hori ez da sortzen bat-batean eta berehala. Iraganak eta iraganeko zauriek, etxean, giltzapean, sarrarazten dituzte eta han gerarazten dituzten beldurra sortzen diete. Jesus Piztuak, gure bila irten eta gure poza piztuta, Berri Ona munduko bideetan zehar iragartzera bidal gaitzala behar dugu.

Jesusen Piztuera
Pazkoa
San Maximo, *aitorlea*

Apostoluen Eginak liburutik 10, 34a.37-43.

Egun haietan, honela mintzatu zen Pedro: «Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek hots egin zuen bataioaren ondoren: Nazareteko Jesusena, alegia; Jainkoak Espiritu Santuaren indarrak gantzutu zuen, eta hark on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zuen bizitza, Jainkoa berekin baitzuen. Eta gu gara hark juduen lurraldean eta Jerusalemen egindako guztien testigu. Jesus hau habe batetik zintzilik hil zuten; baina Jainkoak piztu egin zuen hirugarren egunean eta agertzeko ahalmena eman zion; ez, ordea, herri guztiari, Jainkoak aurrez testigutzat aukeratutakoei baizik: guri, alegia, hura hilen artetik piztu ondoren harekin jan eta edan dugunoi. Jesusek berak agindu zigun herriari predikatzeko eta aitortzeko, bera dela Jainkoak bizien eta hilen epaile ipini duena. Profeta guztiak aitormen hau egiten dute hartaz: harengan sinets dezaten guztiak bekatuena barkamena hartuko dutela, haren izenean».

Sal 117: Hau da Jaunak egin duen eguna, gu pozteko eta alaitzeko eguna.

San Paulok Kolosarrei 3, 1-4.

Senideok: Kristorekin berpiztu zaretenez gero, bila itzazue zeruko gauzak, han baitago Kristo, Jainkoaren eskuinaldean eseria. Irrika itzazue goiko gauzak, eta ez lurrekoak, hilik baitzaudete, eta zuen bizia Kristorekin dago Jainkoagan gordea. Kristo, zuen bizia, agertuko denean, zuek ere aintzatsu agertuko zarete harekin batean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 1-9.

Asteko lehen egunean, Maria Magdalena hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen. Orduan, Simon Pedrogana eta Jesusek maite zuen beste ikasleagana

Jesusen Piztuera
Pazkoa

San Maximo, *aitorlea*

itzuli zen lasterka, eta esan zien: «Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri duten». Atera ziren, orduan, Pedro eta beste ikaslea, eta hilobirantz abiatu ziren. Biak batera abiatu ziren lasterka, baina beste ikaslea Pedro baino arinago zihoan, eta lehenago iritsi zen hilobira. Barrura begiratzeko makurturik, oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baina ez zen sartu. Iritsi zen haren atzetik Simon Pedro ere eta hilobian sartu zen. Oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baina Jesusen burua biltzen egoniko zapia ere; hau, ordea, ez zegoen oihal-zerrendekin batera jarria, beste toki batean bildua baizik. Orduan, sartu zen beste ikaslea ere, hilobira lehenengo iritsi zena. Ikusi eta sinetsi egin zuen. Izan ere, ordu arte ez zuten ikasleek ulertu Liburu Santuak dioena, Jesusek hilen artetik piztu behar zuela.

Jaunaren piztuerak barne-mugimendua sortzen du eta mugimendua horrek zeinu batzuk azaleratzen ditu fedearen argitan. Alabaina, orain arte gertatu gabeko esperientzia hori era mailakatuan eskaintzen da, hainbat gertaera bata bestearen atzetik kateatuz eta modu askotara uler daitezkeen seinale ahul batzuen bitartez. Maria Magdalenak harlauza baztertutik ikusi du, Pedrok eta ikasle maiteak bendak eta hil-oihalak ikusi dituzte. Funtsean, adierazpen horietako ezein ere ez da piztueraren froga ukazina: denek adierazten dutena Jesusen gorpurik eza da. Artean minaren gauean murgilduta daudela, ikasleak ezustean harrapatu ditu hainbat gertakarik, eta gau berri baterantz gidatuak izaten hasi dira: fedearen gauera. Jesusen piztuerak, Idazteunaren zentzurik sakonena bere betetasunera iritsi dela ulertzeko aukera ematen digu honek: Jainkoak piztu egin du bere Semea. Hitz hauek Jesusen ahotik askotan entzunak ziren arren, orain ulertu dituzte eta sinetsi dute. Ez dute sinetsi aparteko zerbait berezirik ikusi dutelako, baizik eta piztuerak, hilobi hutsean agertu zaizkien zeinu arrunt horien bitartez, presentzia berri bat irakurtzeko gai egin dituelako. Inguruan duten errealitate zaharra, Pazkoaren begi berriekin begiratzeko orduda da, beti ere Jainkoa Kristorengan gauza guztiak berri egitera datorren ziurtasunarekin.

Pazkoaldia. Zortziurrena

San Ezekiel, *profeta*San Makario, *gotzaina*

Apostoluen Eginak liburutik 2, 14.22-23: Jesus hori piztu egin du Jainkoak, eta gu guztiok gara horren testigu. Sal 15: Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 28, 8-15.

Aldi hartan, emakumeak hilobitik arin-arin alde egin eta, ikaraz baina poz-pezik, lasterka joan ziren ikasleei berri ematera. Hartan, Jesus atera zitzaien bidera eta agur egin zien. Emakumeek, hurbildurik, oinak besarkatu zizkioten eta gurtu egin zuten. Orduan, Jesusek esan zien: «Ez beldur izan! Zoazte eta esan nire senideei Galileara joateko. Han ikusiko naut». Emakumeak bidean zihoazela, guardiako batzuek hirira joan eta gertatutako guztiaren berri eman zieten apaizburuei. Hauek, zaharrekin bildu eta hitzartu ondoren, dirutza handia eman zieten gudariei, hau aginduz: «Esazue, haren ikasleek gauez etorri eta zuek lo zeundetelarik, gorpua lapurtu dutela. Eta Gobernariaren belarrietara ezer iristen bada, geuk hitz egingo diogu eta arriskutik aterako zaituztegu». Haiek dirua hartu eta agindu bezala egin zuten. Eta gaurdaino zabaldu da kontu hori juduen artean.

Gertakari bat beraren aurrean, hura ulertzeko erak eta harekiko hartutako jarrerak asko izan daitezke. Bitxia da ikustea, piztuerarekin antzeko zerbait gertatzen dela: hilobia hutsik ikusi duten pertsonen artean, batzuek, –emakumeek– Jesusen presentzia sumatu dute eta lasterka doaz besteei iragartzera; beste batzuk aldiz, –zaintzaileak eta herri-gidariak– interesatzen ez zaien berri baten iragarpenetik babestu egin dira, eroskeriak eta gezurrak erabiliz. Piztuerak, haragia hartzea bere gailurreraino daramanak, bere baitan eta bere prozesuan onartzen du gizatiarra den guztia, baita sinesgogor izatea eta ontasunetik urruntzea bera ere. Guk ere, egunerokotasunaren barruan, hautatu beharra dugu: Pazkoaren argian bizi hala itzalaren ilunpean jarraitu.

Pazkoaldia. Zortziurrena

San Estanislao, *gotzaina eta martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 2, 14a.36-41: Bihotz-berri zaitetze eta bataiatu guztiok Jesus Mesiasen izenean. **Sal 32**: Jaunaren graziaz betea dago lurra.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 11-18.

Aldi hartan, Maria hilobi ondoan zegoen, kanpoan negarrez. Eta, negarrez zegoela, hilobirantz makurtu zen eta bi aingeru ikusi zituen, zuriz jantziak, Jesusen gorpua egon zen lekuan eserita, bata burualdean eta bestea oinetan. Aingeruek esan zioten: «Zer duzu negarrez, emakume?». Hark erantzun zien: «Nire Jauna eraman dute, eta ez dakit non ipini duten». Hau esan eta berehala, atzera itzuli eta Jesus ikusi zuen zutik, baina ez zen konturatu Jesus zela. Jesusek esan zion: «Zer duzu negarrez, emakume? Noren bila zabilta?». Hark, baratzezaina zelakoan, esan zion: «Jauna, zuk eraman baduzu, esadazu non ipini duzun, eta nik jasoko dut». Jesusek esan zion: «Maria!». Honek, hurbilduz, esan zion hebreeraz: «Rabbuni!» (hau da, «Maisu!»). Jesusek esan zion: «Utz nazazu, oraindik ez bainaiz Aitagana igo. Zoaz nire senideengana eta esaiezu: “Neure Aitagana eta zuen Aitagana noa, neure Jainkoagana eta zuen Jainkoagana”». Joan zen Maria Magdalena, eta berri hau eman zien ikasleei: «Jauna ikusi dut, eta hau eta hau esan dit».

Piztuera, kontaezina den espiritu-espientzia da, baina gizakia bere barneko gurari asezin sakonenetan harrapatzen du. Maria Magdalenaren negar kontsolaezinak maitasun nahasi baten sakontasun hondogabea sumarazten du: «Deiadarkea irten nintzen zure atzetik eta joana zinen». Jesus hor datorkio bila, erdigune huts horretara, bere bihotzaren barrenera: «Emakume, zergatik egiten duzu negar?, noren bila zabilta?». Benetako maitasunaren elkarrizketak, batzuetan urratzailea den isiltasunean soilik izaten du oihartzuna. Baliorik gabeko ordezkoen bila ibili ordezk, hutsunea jasatea nahiago duenak soilik entzun ahal izango du bere izena, Piztutako Jaunak berriro esanda.

Pazkoaldia. Zortziurrena
San Zenon, *gotzaina*

Apostoluen Eginak liburutik 3, 1-10: Dudana emango dizut: Jesu Kristoren izenean, jaiki eta ibil zaitez. **Sal 104:** Poztu zaitezte bihotzez Jaunaren bila zabilzatenok.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24, 13-35.

Egun hartan bertan, asteko lehen-egunean, Jesusen bi ikasle Emaus izeneko herrixka batera zihoazen, Jerusalem dik hamaika kilometrora. Jerusalemen gertaturiko guztiez mintzo ziren elkarrekin. Eta, hizketan eta eztabaidan ari zirela, Jesus berbera hurbildu zitzaien eta haiekin zihoan; haien begiak, ordea, itsu zeuden eta ez zuten ezagutu. Jesusek esan zien: «Zertaz diharduzue hizketan bidean elkarrekin?». Haiek gelditu egin ziren, aurpegia ilun, eta bietako batek, Kleofas zeritzanak, erantzun zion: «Zu izango zara Jerusalemen egun hauetan gertatu dena jakin ez duen kanpotar bakarra!». Jesusek galdetu zien: «Zer gertatu da, ba?». Haiek erantzun zioten: «Nazaretoko Jesusi gertatua; profeta ahaltsua zen egitez eta hitzez Jainkoaren eta herri guztiaren aurrean; baina gure apaizburuek eta agintariak heriotzara kondenatu dute eta gurutzera josi. Guk uste genuen hark askatuko zuela Israel; baina bada hiru egun hori gertatu dela. Egia da gure arteko emakume batzuek harriturik utzi gaituztela; goizean goiz joan dira hilobira eta ez omen dute gorpua aurkitu; gainera, Jesus bizi dela esan dieten aingeruak agertu zaizkiela esanez etorri zaizkigu. Gutar batzuk ere izan dira hilobian, eta emakumeek esan bezala aurkitu dute; baina bera ez dute ikusi». Orduan, Jesusek esan zien: «Bai zentzugabeak zaretela, bai motelak profetek esana sinesteko! Ez al zuen, bada, Mesiasek hori guztia sufritu behar, bere aintzan sartzeko?». Eta, Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuek hari buruz zioten guztia azaldu zien. Zihoazen herrixkara hurbildu zirenean, Jesusek aurrera jarraitzeko keinua egin zuen. Baina haiek arren eta arren eskatu zioten: «Geldi zaitez gurekin, berandu baita eta iluna gainean dugu». Eta herrian sartu zen haiekin gelditzeko. Haiekin mahaian zegoela,

Pazkoaldia. Zortziurrena
San Zenon, *gotzaina*

Jesusek, ogia harturik, bedeinkapen-otoitza esan, zatitu eta eman zien. Orduan, begiak ireki zitzaizkien eta ezagutu zuten; baina Jesus desagertu egin zitzaien. Haiek elkarri esan zioten: «Ez al genuen bihotza sutan, bidean hitz egiten zigunean eta Liburu Santuak azaltzen zizkigunean?». Eta berehala altxatu eta Jerusalemara itzuli ziren. Han Hamaikak eta hauen lagunak bildurik aurkitu zituzten, hau ziotela: «Piztu da Jauna egiaz eta Simoni agertu zaio». Bi ikasleek bidean gertatua kontatu zieten eta nola ezagutu zuten ogia zatitzean.

Bizitzan zehar, askotan joan ohi gara itzulera: «Guk uste genuen-eta...». Ameskeriak itzali egiten zaizkigu, indarrak akitu, proiektuek porrot egiten digute. Emausa itzultzen ari diren ikasleek uste dute egun batez ideal zoragarria iruditu zitzaienari azken puntua jarri diola Jesusen heriotzak eta guztia lilura huts izanez bukatu dela. Jesusek haiekin topo egiten du, haiekin bide ere egiten du eta Idazteunen berri ematen die, baina itzaropena ez diete pizten arrazoiketek, askoz xumeagoa den beste zerbaitek baizik: barne-senak –sutan dituzten bihotzek– eta Jesusek ogia zatitzeko daukan modu berezi horrek. Ezagutu egin dute..., ezagutzen zutelako eta beren alboan ibiltzen utzi ziotelako. Oroimena eta bihotza irekita bizitzea ezinbesteko lagun garaiezin bihurtzen dira fedearen gauean.

Pazkoaldia. Zortziurrena

San Martin 1.a, *aita santua eta aita santuen**artean azken martiria*San Hermenegildo, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 3, 11-26: Biziaren sorburua hil zenuten, baina Jainkoak piztu egin du hilen artetik. **Sal 8:** Jauna, gure Jauna, bai miragarria zure izena lurbira osoan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24, 35-48.

Aldi hartan, Emausko ikasleek bidean gertatua kontatu zuten eta nola ezagutu zuten Jauna ogia zatitzean. Horretan ari zirela, Jesus bera agertu zen ikasleen erdian eta esan zien: «Bakea zuei». Haiek, beldurikaraz beterik, mamua ikusten ari zirela uste zuten. Baina Jesusek esan zien: «Zergatik izutu zarete? Zergatik sortzen zaizkizue zalantza horiek barruan? Ikusi nire esku-oinak: Ni naiz. Uki nazazue eta begira: mamuak ez du hezur-haragirik, eta Nik bai, ikusten duzue». Eta hau esatean, esku-oinak erakutsi zizkien. Haiek, ordea, pozaren pozez oraindik ere ezin sinetsirik eta harriturik baitzeuden, Jesusek esan zien: «Ba al duzue hemen jatekorik?». Arrain erre puska bat eskaini zioten. Jesusek hartu eta beraien aurrean jan zuen. Gero, esan zien: «Hauxe da, artean zuekin nengoela, esan nizuena: Moisesen legean, profetetan eta salmoetan nitaz idatzitako guztia bete beharrekoa zela». Orduan, adimena argitu zien, Liburu Santuak uler zitzaizten. Eta esan zien: «Idatzia zegoen, Mesiasek sufritu egin behar zuela eta hirugarren egunean hilen artetik piztu, eta, Jerusalemdik hasita, bihotz-berritzea hots egin behar zaiela haren izenean herri guztiei, bekatuak barka dakizkien. Zuek zarete gauza hauen testigu».

Jesus piztuak bidea urratzen du ikasleen artean berauen bizitza biltzen duen presentzia-modu berria azalduz eta eskainiz. Beraren nortasuna ezabatzen urrun, heriotzak behin betiko sendotu du Jaunaren gizatasuna eta, lehengoa bera izanik ere, modu desberdin batean agertu da. «Ikus nire eskuak eta nire oinak; ni neu naiz». Ikasleek oso ondo ezagutzen dituzte lanak zaildutako eta hainbat askatasun-zeinuren gozotasunak zeharkatutako esku haiek. Jesusen oin haiek ere oso ezagunak dituzte, Ebanjelioa zabaltzen hainbat bide egin baitute elkarrekin, inoiz ere gelditu gabe. Jaunak deituta, haren piztueraren indarrak lekuko bihurtzen gaitu eta gure eskuak eta oinak igurzten ditu errealitatea Jesusen erara eralda dezagun.

Pazkoaldia. Zortziurrena

San Tiburtzio, *martiria*Santa Liduvina, *birjina*

Apostoluen Eginak liburutik 4, 1-12: Ez dugu beste inor salba gaitzakeenik. **Sal 117:** Etxegileek baztertutako harria, berori gertatu da giltzarria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21, 1-14.

Aldi hartan, berriro agertu zitzairen Jesus ikasleei Tiberiades itsasertzean. Honela gertatu zen agerpena. Elkarrekin zeuden Simon Pedro, Bikia zeritzan Tomas, Natanael Galileako Kanakoa, Zebedeoren semeak eta beste bi ikasle. Simon Pedrok esan zien: «Arrantzura noa». Gainerakoek erantzun zioten: «Zurekin goaz gu ere». Atera eta ontzira igo ziren. Baina gau hartan ez zuten ezer harrapatu. Eguna argitu zuenean, ur-ertzean agertu zen Jesus; baina ikasleak ez ziren konturatu Jesus zela. Jesusek esan zien: «Mutilak, ba al duzue jatekorik?». Haiek erantzun: «Ez». Jesusek orduan: «Bota sarea txaluparen eskuinaldera eta aurkituko duzue». Bota zuten, bada, eta, hainbeste arrain harrapatu zutenez, ez ziren sarea ateratzeko gauza. Orduan, Jesusek maite zuen ikasle hark esan zion Pedrori: «Jauna da». Simon Pedrok, Jauna zela aditu zueneko, soinekoa jantzi (erantzia baitzuen) eta jauzi egin zuen urera. Beste ikasleak txalupan etorri ziren, sarea arrainekin arrastaka zekartela, lehorretik hurbil baitzeuden, ehunen bat metrora. Lehorrera jaitsi zirenean, su-txingarrak ikusi zituzten eta arrain bat gainean, eta ogia. Jesusek esan zien: «Ekarri harrapatu berri dituzuen arrainetako batzuk». Igo zen Simon Pedro ontzira eta lehorrera atera zuen sarea, ehun eta berrogeita hamahiru arrain handiz betea. Eta, hainbeste izanik ere, ez zen sarea urratu. Jesusek esan zien: «Zatozte gosaltzera». Ikasleetako inor ez zen ausartzen nor zen galdetzera, bai baitzekiten Jauna zela. Orduan, Jesusek, hurbildurik, ogia hartu eta eman zien, baita arraina ere. Hirugarren aldia izan zen hau, Jesus, hilen artetik piztu ondoren, ikasleei agertu zitzaiena.

Pazkoaldia. Zortziurrena

San Tiburtzio, *martiria*Santa Liduvina, *birjina*

Nola irits gaitezke maite dugun pertsonaren ahotsa ezagutzera jendetza handiaren artean, aldez aurretik geure intimitatean, isiltasunean, patxadaz eta soseguz ezagutu ez badugu? Ikasle maitearen bihotzak berehala sumatu du Jesusen taupada, itxuraz arruntak diren hitz batzuen bitartez. Baina ez da nahikoa Jauna ezagutzea: urera jauzi egin behar da, Pedrok bezala, atzerapenik gabe, beraren bila joateko. Gero, txalupa ur-ertzeraino hurbildu behar da sarea atoan jarritz, gainerako ikasleek bezala. Jesus piztuak, beldurrak barreiatutako elkarte berririo bildu du eta elkarte horri bakoitzak bere ukitu bereziaren ekarpena egin dio. Gau hartan, arrantzura irten aurretik, «elkarrekin egon dira»; hurrengo goizean, Jesusekin izandako topaketak, loturak sendotu eta zabaldu egingo dizkie.

* * *

ΙΧΘΥΣ (Ichthys) akronimo bat da: "Ιησοῦς Χριστός, Θεοῦ Υἱός, Σωτήρ", (**I**ēsous **C**hristos, **T**heou **Y**ios, **S**ōtēr): "Jesu Kristo, Jainkoaren Semea, Salbatzailea".

- Iota (i): Iēsous (Ιησοῦς)-en lehen letra, euskaraz "Jesus".
- Chi (ch): Christos (Χριστός)-en lehen letra, euskaraz "igurtzia, gantzutua".
- Theta (th): Theou (Θεοῦ)-ren lehen letra, euskaraz "Jainkoaren", Θεός, Theos-en genitiboa, euskaraz "Jainkoa".
- Ypsilon (y): (h)γίος (Υἱός)-en lehen letra, euskaraz "Seme".
- Sigma (s): sōtēr (Σωτήρ)-en lehen letra, euskaraz "Salbatzailea".

Pazkoaldia. Zortziurrena

San Kreszente, *martiria*Molokaiko Damian dohatsua, *aitorlea*

Apostoluen Eginak liburutik 4, 13-21: Guk ezin dugu inola ere entzun eta ikusi duguna isilean gorde. **Sal 117**: Eskerrak zuri, Jauna, erantzun didazulako.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16, 9-15.

Asteko lehen-egunean, goizean goiz, pizturik, Jesus Maria Magdalenari, zazpi deabru atera zizkionari, agertu zitzaion aurrena. Hura Jesusekin bizi izan zirenei berri ematera joan zen, triste eta negarrez baitzeuden. Baina haiek, bizi zela eta berak ikusi zuela entzutean, ez zioten sinetsi. Ondoren, ikasleetako biri agertu zitzairen, beste itxura batean, auzo batera bidean zihoazela. Hauek ere besteei berri ematera joan ziren; baina hauei ere ez zieten sinetsi. Azkenik, Hamaiketi agertu zitzairen, mahaian zeudela, eta aurpegira bota zien beren sinesgabetasuna eta burugogorkeria, bera pizturik ikusi zutenei sinetsi ez zietelako. Eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei».

Piztueraren mezua, beste batzuekin parteka dezagun jakinarazten digu. Maria Magdalena, Emausko biak, beste Hamaikak eta beste pertsona asko, Ebanjelioaren graziak harrapatutako lekukoen kate luze horren partaide gara. Ez da ahaztu behar iragarpen hau lekukotza ahuletan oinarritzen dela: emakume baten hitza –lege-baliorik gabea garai hartan–, etsita doazen eta ostera itzultzen diren bi gizonen lekukotza, Jesusek jada «beren sinesgogorkeria eta bihotz-gogortasuna aurpegiratu zien» apostoluen harrera zaila. Hor datza gure itxaropena, Jainkoak gu kontuan hartzen gaituela, alegia; ez noski guk lortu nahi genukeen helburua lortzeko, baizik eta benetan garenarekin jokatzeko. Geure erdipurdikeria gorabehera, Ebanjelioa kreazio (mundu) osoari iragartzera deituak gara.

Apostoluen Eginak liburutik 2, 42-47.

Senideek zintzo irauten zuten apostoluen irakaspenak entzuten eta elkarte-bizitzan, ogia zatitzen eta otoitzean. Jende guztia izuturik zegoen apostoluek egiten zuten hainbeste mirari eta ezaugarriekin. Sinestedun guztiak batasunean bizi ziren eta dena denentzat zeukaten: beren lur eta ondasunak saldu eta guztien artean banatzen zuten dirua, bakoitzaren beharrari zegokionez. Egunero bildu ohi ziren elkarrekin tenpluan, eta etxeetan zatitzen zuten ogia, otorduak pozik eta bihotz xaloz eginez. Jainkoa goersten zuten, eta herri osoak begi onez ikusten zituen. Eta Jaunak egunetik egunera biltzen zituen elkartera salbatzen zirenak.

Sal 117: Eskerrak Jaunari, ona baita, haren maitasuna betikoa baita.

San Pedroren 1. gutunetik 1, 3-9.

Bedeinkatua Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita! Bere erruki handiaz itxaropen bizira sortu gaitu berriro, Jesu Kristo hilen artetik piztuz. Horrela, hondatu, zikindu edota zimeldu ez daitekeen ondarea itxaro dugu, zuentzat zeruetan gordea dagoena. Jainkoaren indarrak zaintzen zaituzte sinesmenari esker, azken garaian agertuko den salbamera irits dezazuen. Horregatik, zaudete pozik, nahiz eta oraindik alditxo batez zenbait probaldi sufritu behar izango duzuen. Horrela, zuen sinesmenak bere jatortasuna erakutsiko du, galkorra izan arren suan garbitzen den urrea bezala; eta urrea baino askoz baliotsuagoa den zuen sinesmenak gorespena, aintza eta ohorea iritsiko du, Jesu Kristo agertuko denean. Maite duzue Jesu Kristo, ikusi ez baduzue ere. Eta ikusi gabe harengan sinesten duzuela, ezin esan ahaleko pozez, poz distiratsuz, alaitzen zarete eta zeuen sinesmenaren helburua, zeuen salbamera, iristen duzue.

Pazkoaldiko 2. astea

Jainkoaren Errukiaren Eguna

Toribio Santua Liebanakoa. Santa Bernardita Soubirouskoa
(Lourdeskoa 1844-1879), *birjina*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 19-31.

Asteko lehen-egunean, ilunabarrean, etxe batean bildurik zeuden ikasleak, ateak itxita, juduen beldurrez. Sartu zen Jesus eta, erdian jarririk, esan zien: «Bakea zuei». Hori esanda, eskuak eta saihetsa erakutsi zizkien. Ikasleak pozez bete ziren, Jauna ikustean. Jesusek berriro esan zien: «Bakea zuei. Aitak Ni bidali nauen bezala, hala bidaltzen zaituztet Nik zuek». Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei, barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die». Tomas, Hamabietako bat, Bikia zeritzana, ez zegoen haiekin Jesus etorri zenean. Gainerako ikasleek esan zioten: «Jauna ikusi dugu». Tomasek erantzun zien: «Haren eskuetan iltze-zuloak ikusten ez badituzte, neure atzamarra haren iltze-zuloetan eta neure eskua haren saihetsean sartzen ez badituzte, ez dut sinetsiko». Handik zortzi egunera, etxean zeuden berriro ikasleak, eta Tomas ere haiekin zen. Sartu zen Jesus, ateak itxirik zeudela eta, erdian jarririk, esan zien: «Bakea zuei». Gero esan zion Tomasi: «Ekarri atzamarra, begira nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saihetsean, eta ez izan sinesgogor, sinestedun baizik». Tomasek erantzun zion: «Ene Jauna eta ene Jainkoa!». Jesusek esan zion: «Ikusi nauzulako sinetsi al duzu? Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak». Beste ezaugarri asko ere egin zuen Jesusek ikasleen aurrean, liburu honetan idatzirik ez daudenak; hauek idatzi dira sinets dezazuen Mesias eta Jainkoaren Semea dela Jesus eta, sinetsiz, haren izenean bizia izan dezazuen.

Jesusen piztuera, gizakia dagoen lekuan berean harrapatzen duen mugimendua da eta beronek pentsa lezakeena baino askoz ere urrunago joateko gonbita egiten dio. Jesusen heriotzaren ondoren, ikasleak beren beldurren baitan itxita daude. Eta ez dira soilik ezkututzen eta babesten

Jesusen etsaiek beraientzat duten bistako arriskutik; izan ere, beren porrotaren egiaztapenak ere hartara jartzen ditu: jokatu egin dute eta galdu. Beldurrak eraginda, giltzapean jartzen dute etorkizuna eta gaua dute babesleku. «Horretan, Jesus sartu zen»: horretan, hau da, dabiltzan bide zehatzean, beren benetako neurrira birbidaltzen dituen hartan, Jaunari beren indarrez jarraitzeko duten ezgaitasunaren baitan, alegia. Itxita dauden ateak zeharkatu eta «erdi-erdian» jarri zaie Jesus eta itxaropen ahal bat eman diezaiekeen erdi-erdiko toki hori berreskuratu du. Ez dator berek oso ondo dakiten zerbait gogoraztera: alegia, ez dutela neurririk eman, saldu eta bakarrik utzi dutela. Jesus Piztuak ez du oroimenik galdu eta horregatik erakusten dizkie iltzeek zulatutako bere eskuak eta oinak, baina oroimen zauritu hori, bakeak eta alaitasunak betetako etorkizun berri baterako ireki nahi die.

TOPO EGITEAREN PAZKOA

**Emakumeak,
FEDEAREN aintzindari,
Jesusen bila dabilta.
Eguneroko GALILEAN hura
aurkituz, Elizaren apostoluen
apostolu izango dira.**

Ebanjelioa

Pazkoaldiko 2. astea
San Fortunato, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 4, 23-3: Otoitza bukatzean, Espiritu Santuaz beterik gelditu ziren guztiak, eta ausardiaz hots egiten zuten Jainkoaren hitza. **Sal 2:** Zorionekoak, Jauna, zugar babesten direnak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3, 1-8.

Bazen fariseuen taldean Nikodemo izeneko gizon bat, juduen buruzagietakoa. Honek gaeuz Jesusengana etorri eta esan zion: «Maisu, badakigu Jainkoak guri irakasteko bidali zaituela; inork ez baitezake egin Zuk egiten duzun ezaugarririk, Jainkoa berekin ez badu». Jesusek erantzun zion: «Egi-egiaz diotsut: Ezin du inork Jainkoaren erreinua ikusi, berriro jaiotzen ez bada». Nikodemok galdetu zion: «Nola jaio daiteke norbait, zaharra izanik? Sar ote daiteke amaren sabelean eta berriz jaio?». Jesusek erantzun zion: «Egi-egiaz diotsut: Ezin da inor Jainkoaren erreinuan sartu, uretik eta Espiritutik jaiotzen ez bada. Gizakitik berez jaioa gizaki da, Espiritutik jaioa espiritu. Ez harritu berriro jaio behar duzuela esan dizudalako. Haizeak edonondik jotzen du, eta entzuten duzu haren hotsa, baina ez dakizu nondik datorren, ez nora doan. Gauza bera gertatzen da Espiritutik jaio denarekin».

Elizaren liturgiak San Joanen ebanjelioa proposatzen du pazkoaldian kristau sinestunen gogoeta argitzeko. Garizumak Jainkoagana bihurtzearen beharraz kontzientzia hartzeko gonbita egin baldin badigu, Pazkoaldiak behin betiko «eraldaketaren edo metanoiaren» mugimenduan sartzen gaitu: bekatuaren ilunpetik ateratzen gaitu eta seme-alaba eta senide gisa bizitzeko dugun bokaziora egokitzen gaitu, Espirituaren bizitza bizitzeko, alegia. Jesusek Nikodemorekin egin duen elkarrizketak, ikuspegi honetatik begiratuta, ustekabeko sakontasuna hartzen du. Piztuerak, berriro sortzen gaitu, baina ez hutsetik hasita, baizik eta gure barnean dirauen lehengo guztiarekin eta Erreinurantz leun-leun bideratzeko Jesusen hatsa desiratzen duen bakoitzaren gogoarekin.

Pazkoaldiko 2. astea
Santa Atanasia, *aitorlea*
San Eusebio, *gotzaina*

Apostoluen Eginak liburutik 4, 32-37: Sinestedun guztiak bat ziren bihotzez eta gogoz. **Sal 92:** Errege da Jauna, ospez jantzia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3, 5a.7b-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Berriro jaiο behar duzue. Haizeak edonondik jotzen du, eta entzuten duzu haren hotsa, baina ez dakizu nondik datorren, ez nora doan. Gauza bera gertatzen da Espiritutik jaiο denarekin». Nikodemok galdetu zion: «Nola gerta daiteke hori?». Jesusek erantzun: «Zu maisu zara Israelen eta ez dakizu hori? Egi-egiaz diotsut: Guk dakiguna esaten dugu eta ikusi duguna aitortzen; baina zuek ez duzue gure aitormena onartzen. Nik lurreko gauzak esatean sinesten ez baduzue, nola sinetsiko didazue zerukoak esatean? Ez da inor zerura igo zerutik jaitsi zena baizik, Gizonaren Semea. Eta Moisesek basamortuan brontzezko sugea altxatu zuen bezala, hala izan behar du altxatua Gizonaren Semeak, harengan sinesten duten guztiek betiko bizia izan dezaten».

Jesusen eta Nikodemoren arteko topaketak, zaharraren eta berriaren arteko elkarrizketa irudikatzen du, lehenengo kristautaldean eta judu fariseuen ikuspegiaren arteko aukerena. Piztueraren argian, ez dago erdibiderik, ez adabakirik, ez zahagi zaharrik. Gonbita errotikoa da: berriro jaiο. Alabaina, guri ere etor dakiguke burura Nikodemoren galdera: «Nola gerta daiteke hori?». Ukabil eta indar kontua baino gehiago dela dirudi, beti lanean ari den, berak nahi duen lekuan putz egiten duen eta guk harrapatu ezin dugun Espiritu horretarantz egindako irekiera umila. Eta badirudi halaber, begirada, gutxien gutxienik erakartzen gaituen tokirantz itzultzea dela, paradoxa dirudien arren, bizi-emaile den minaren toki goi horretara, alegia.

Pazkoaldia 2. astea

San Leon IX.a, 152. aita santua

Apostoluen Eginak liburutik 5, 17-26: Kartzelan sartu zenituzten gizonak tenpluan daude eta herriari irakasten ari dira. **Sal 33:** Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3, 16-21.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Hain maite izan zuen Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinesten duen inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan. Jainkoak ez baitzuen bere Semea mundura bidali, mundua kondenatzera, haren bitartez mundua salbatzera baizik. Harengan sinesten duena ez dago kondenatua; sinesten ez duena, berriz, kondenatua dago jadanik, Jainkoaren Seme bakarraren izenean sinetsi ez duelako. Hauxe da kondenazioaren arrazoia: argia mundura etorria dela, eta gizakiek ilunpea nahiago izan dutela argia baino, haien egiteak gaiztoak zirelako. Izan ere, gaizkia egiten duenak gorroto dio argiari, eta ez dator argira, haren egiteak agerian geldi ez daitezten. Egiaren arabera ari dena, berriz, argira dator, haren egiteak Jainkoak nahi bezala eginak direla ager dadin».

Joanek ulertzen du, gizateriarentzat osotasunezko bizitza duen baldintzarik gabeko zerumuga amesten duela Jainkoak. Eta hainbesteraino nahi du Jainkoak bere egitasmo hori burutzea, ezen bere Semearen bizia bera ere ez baitu ekidin. Horretarako, bere aldetik jarri duen baldintza bakarra da: gizakia askatasun osoz atxiki dakiola proiektu horri eta proiektu horrengan sinets dezala. Baina, zertan datza sineste hori? Izan al daiteke ikasitako egia batzuek ezpainez errepikatzea bezain soila? Ebanjelariak askoz ere bide sakonagoa eta barnerakoiagoa proposatu du: sinesteak argia nahi izatea esan nahi du, nork bere bizia Jainkoaren erritmora bizitzea, ez noski hitzaldi errazen bidez, baizik eta ekintza zehatz eta egiaztagarrien bidez. Bide hori borondate oneko jende orori irekita dago, sineste-mota guztien gainetik, eta horretan ereiten dugu benetako senidetasuna.

Pazkoaldiko 2. astea

San Zakeo, *zerga-biltzailea*Santa Ines Montepulciano-koa, *birjina*

Apostoluen Eginak liburutik 5, 27-33: Geu gara gauza hauen testigu, baita Espiritu Santua ere. Sal 33: Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3, 31-36.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Goitik datorrena denen gainetik dago. Lurretik sortua lurrekoa da eta lurrekoaz mintzo da. Zerutik datorrena denen gainetik dago; ikusi eta entzun duena aitortzen du; baina haren aitormena ez du inork onartzen. Haren aitormena onartzen duenak Jainkoak egia diela baieztatzen du. Izan ere, Jainkoak bidali zuenak Jainkoaren hitzak esaten ditu, neurririk gabe ematen baitio bere Espiritua. Aitak Semea maite du, eta haren esku jarri du dena. Semeagan sinesten duenak betiko bizia du; baina Semeagan sinesten ez duenak ez du bizia ikusiko, baizik eta Jainkoaren haserrea du gainean».

Joanek ez ditu kontrajarri zerua eta lurra, jainkotiarrek eta gizatiarrek ongi bereizita betetako bi gune bereizi izango balira bezala. Ebanjelariak espazio-eremuaren izena erabiltzen du: batetik “goian dagoena”, Espirituagan bizitzen uzten digun guztia iradokitzen diguna, eta bestetik “lurrean dagoena”. geure hondorik sakonenean hesitzen gaituen guztia iradokitzen diguna. Piztuerak une oro eta etengabe birsortzen gaitu kontzientzia bikoitz bat gogora ekarriz: batetik, Semeak erremediorik gabe betiko den bere bizirantz erakartzen gaitu; bestetik, gure joera zaharrek geure barnean kokatuta jarraitzen dute eta etengabe tira egiten digute berengana. Sinestea, bere baitan sarrarazi nahi gaituen eta neurririk gabe ematen zaigun Espiritu horren mugimenduak bere baitan bil gaitzan uztea da.

Pazkoaldiko 2. astea

Canterbury-ko San Antselmo, *gotzaina eta eliz irakaslea*

Apostoluen Eginak liburutik 5, 34-42: Apostoluak pozez atera ziren Batzarretik, Jesusen izenagatik irainak jasateko Jainkoak duin aurkitu zituelako. **Sal 26:** Gauza bat eskatzen diot Jaunari: bizi nadila Jaunaren etxean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 1-15.

Aldi hartan, Galilea edo Tiberiadesko itsasoaz bestaldera joan zen Jesus. Jendetza handia zihoakion ondoren, ikusten baitzuten nolako ezaugarriak egiten zituen gaixoengan. Jesus, orduan, mendira igo eta han eseri zen ikasleekin. Hurbil zen Pazkoa, juduen jai nagusia. Jesusek, jende asko zetorkiola ikusirik, esan zion Feliperi: «Non erosiko dugu ogia hauei jaten emateko?». (Zirikatzeko esan zion hori, ongi baitzekien zer egin behar zuen). Felipek erantzun zion: «Berrehun denarioren ogia ez litzateke nahikoa izango, bakoitzak puska bat izateko». Ikasleetako batek, Simon Pedroren anaia Andresek, esan zion: «Bada hemen bost garagar-ogi eta bi arrain dituen mutiko bat; baina zer da hori horrenbesterentzat?». Jesusek jendea eserarazteko agindu zien ikasleei. Belar ederra zen leku hartan eta denak eseri ziren. Bosten bat mila gizonezko ziren. Jesusek ogiak hartu eta, esker onezko otoitza esan ondoren, eseritakoen artean banatu zituen, eta orobat arrainak ere, nahi adina. Ase zirenean, Jesusek esan zien ikasleei: «Bil itzazue hondarrak, ezer gal ez dadin». Bildu zituzten, bada, eta hamabi saski bete zituzten bost garagar-ogietatik jan zutenek utzitako hondarrez. Jendeak, orduan, Jesusek egindako ezaugarria ikusirik, hau zioen: «Hauxe da, benetan, mundura etortzekoa zen profeta». Jesusek, ordea, errege egiteko, indarrez eraman nahi zutelako oharturik, mendira alde egin zuen berriro, berak bakarrik.

Pazkoaldiko 2. astea

Canterbury-ko San Antselmo, *gotzaina eta eliz irakaslea*

Ebanjelioetako pasarte batzuetan, gizonetakoak soilik zenbatzen dira, eta emakumeak eta umeak ez dira ikusgarri azaltzen. Gertakari honek, paradoxa bada ere, Erreinuaren berritasuna, gizartean gutxi edo batere ez direnen bitartez azpimarratzen du. Ikasleetako baten ezintasunaren aurrean, (utzikeria?, axolagabekeria?), mutiko baten keinu ausarta nabarmendu da eta daukan apurra eskaini du: bere bost ogiak eta bi arrainak. Jesusek ez dio iritzi gutxi “horri” baliogabeke edo alferrikako eta bere eskuetan hartu, bedeinkatu eta biderkatu du. Piztuerak begi berriak ematen dizkigu gure “gutxi” ugariei itxaropenez begiratzeko eta munduari bizia emateko eskuzabaltasun osoz geure burua horretaratzen uzten laguntzeko.

* * *

San Anselmo gotzaina eta eliz irakaslea

Piamonten (Italia) jaio zen Antselmo 1033an Aostako (Italia) beneditarretan lehenengo hezkuntza hartu ondoren, monasterioan sartu zen (1056). Aitaren eraginez atera egin behar izan zuen; baina gerora, Frantziara eta Normandiara ihesi joanik, Paviako Lanfranko abadearen zuzendaritzapean babestu zen (1059). 1078an Le Bec-eko (Normandia, Frantzia) abade izendatu zuten Antselmo. Monasterioko bizitza eraberritzen saiatu zen eta predikari ere izan zen. «Sinesten zuena ahalik eta argien ulertzea» izan zuen bere gogorik biziena, Jainkoaren jakinduriaren sakona bilatuz; «Fides quaerens intellectum» (Fedea ulertzearen bila) izan zuen bere lema; teologian, arrazoiak bihotzari loturik joan behar duela irakatsi zuen; horretatik hartu du mezako otoitzak esaldi hau: «Ut cordi dulce sapiant» (Bihotzari gozo gerta dakizkiola). Horrela, Erdi Aroko pentsamenduaren oinarriak jarri zituen. Asko idatzi zuen. Elizaren nortasuna eta askatasuna kemen handiz defenditu zituen Antselmok, Gilen II.a Gorriarekin eta Henrike I.arekin haserretzeraino. 1098an eta 1103an erbesteratu egin zuten Antselmo. Bere gotzain-aulkira itzulirik, 1109an hil zen.

Pazkoaldiko 2. astea

Jesusen Lagundian, Andre Maria, Jesusen Lagundiaren Ama,
1541-04-22an Lagundia Erroman onartua izana gogoratuz

San Sotero, 13. aita santua. San Apeles, aitorlea

Apostoluen Eginak liburutik 6, 1-7: Zazpi gizon aukeratu zituzten,
Espiritu Santuaz beteak. Sal 32: Betor gugana, Jauna, zure
maitasuna, zugar baitugu geure uste ona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 16-21.

Arratsean, Jesusen ikasleak itsasora jaitsi eta, txalupara igorik, itsasoaz bestaldera abiatu ziren, Kafarnaum aldera. Iluna zen ordurako, eta artean Jesus ez zen haiengana iritsi. Haize zakarra zebilen, eta itsasoa harrotzen hasi zen. Bospasei kilometro arraanean egitean, Jesus ikusi zuten ur gainean oinez eta txalupara hurbiltzen, eta beldurrak hartu zituen. Baina hark esan zien: «Ni naiz; ez beldur izan!». Haiek txalupan hartu nahi izan zuten, baina txalupa berehala iritsi zen zihoazen tokira.

Ogiez eta arrainez jendeari jaten eman ondoren, jendeak errege izendatzeko atxiki nahi duenean, Jesusek ezari-ezarian eta bakar-bakarrak alde egin die. Ikasleak derrigortuak gertatu dira Jesusek berak errefusatzen duen ospe baten ilusioari uko egitera eta, berriro ere, aurre egin behar diete, ibiliari, ilunari, ekaitzari, distantziei eta beldurrari. Ilusioa izango litzateke berri hori, patxada hutseko helmuga edo egonlekua dela sinestea. Jesusi jarraitzeak, gure bizitza astintzen duten haize asko onartzea dakar eta munduaren bizia bera ere geure gain hartzen jarraitzea, gogoan izanik Jesus gure txalupara igoko dela eta ziurtasuna izanik iluntasun guztien erdian lagunduko digula: «Ni naiz, ez beldurtu».

* * *

Pazko ikuspegitik begiratuta, Joseri egindako iragarpen honek ñabardura berriak hartzen ditu. Maria da Jainkoaren asma askatasunez onartu duen emakumea; beraren «egin bedi» horrek

Jesusen Lagundian, Andre Maria, Jesusen Lagundiaren Ama,
1541-04-22an Lagundia Erroman onartua izana gogoratzuz
San Sotero, *13. aita santua*. San Apeles, *aitorlea*

Hitzaren ama bihurtu du eta bide berriak ireki dizkio salbamenaren historiari. Alabaina, Jainkoaren asmoa Joserren onarpenik gabe, zail gertatzen da imajinatzen, eta auskalo Jainkoak zein bide hartu behar izango zituen bere asmoa gauzatzeko. Joserren «egin bedi» hori ez da hitzetan ageri, ekintza jakinetan baizik. Jesusen legezko aitarena egiten hasita, Mariari lagundu dio Semearen ama izateko mentura malkartsuan zehar. Piztueraren argi berria haragia hartzearen hasierako egoeran bertan sumatzen da, Jainkoari «gurekin» betiko izaten laguntzen dioten bi pertsonaia horien bitartez.

* * *

Jesusen Lagundia sortu zen eguna

Jesusen Lagundiaren lehen Formula Paulo III.ak 1540ko irailaren 27an onetsi eta Konstituzioak egiteko baimena eman ondoren, Ignazio santuak, ordurako Lagundi Buru hautatuak eta beraren lagunek, hurrengo urteko apirilaren 22an, Erromako San Paulo basilikan eta Andre Maria guztiz santuaren irudiaren aurrean, beren zin solemneak egin zituzten. Bidez, beraz, hartzen da egun hau Jesusen Lagundia sortu zen eguntzat. Gertaera hura gogoratzeko, egun honetan berean ospatzen da Jesusen Lagundiaren Ama Maria Birjina santuaren jaia.

Pazkoaldiko 3. astea
San Jorje, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 2, 14. 22-33.

Mendekoste-egunean, Pedrok, Hamaika apostoluen artean zutik, ahotsa altxatuz, honela hitz egin zuen: «Juduok eta Jerusalemen bizi zareten guztiok, entzun arretaz nire hitzak. Denok dakizuenetz, zuen aurrean sinesgarri egin zuen Jainkoak Nazaretoko Jesus, haren bidez egintza ahaltsuak, mirariak eta ezaugarriak eginez. Jainkoak zuen eskura eman zuen, bere asmoaren eta aurrez hartutako erabakiaren arabera, eta zuek hil egin zenuten, sinesgabeen eskuz gurutzean josiz; baina Jainkoak piztu egin zuen, heriotzaren lokarrietatik askatuz, Herioak ezin baitzuen hura bere menpean eduki. Izan ere, hau dio Davidek hartaz: “Begi aurrean ikusten nuen beti Jauna; eskuinean dudala, ez naiteke dardara. Horregatik alai dut bihotza, pozik mihia, eta nire gorputzak ere itxaropenean du atsedean. Ez baituzu nire bizia Herio-leizera egotziko, ezta ere zeure fededuna hilobian usteltzen utziko. Bizirako bidea erakutsiko didazu, alaitasunez beteko nauzu zeure aurrean”. Senideok, uztazue argi eta garbi esaten gure aita David hil egin zela eta hobiratu egin zutela. Haren hilobia geure artean dugu gaurdaino. Baina profeta zen eta bazekien Jainkoak zin eginez agindu ziola, haren odoleko bat eseriko zela beraren tronuan. Beraz, aurrez ikusi zuen Mesias piztuko zela, eta honetaz mintzo zen hau esatean: haren bizia ez zuela Herio-leizera egotziko eta ez zela haren gorputza hilobian ustelduko. Jesus hori piztu egin du Jainkoak, eta gu guztiok gara horren testigu. Jainkoak bere eskuinaldera altxatu duelarik, agindutako Espiritu Santua hartu du Aitarengandik eta guri isuri; hauxe da zuek ikusten eta entzuten ari zaretena».

Sal 15: Bizirako bidea erakutsiko didazu, Jauna.

San Pedroren 1. gutunetik 1, 17-21.

Senide maiteok: Nor bere egintzen arabera, bereizkeriarik gabe, epaitzen duenari «Aita» deitzen diozuenetz gero, joka ezazue

begirunez munduko erbestealdian bizi zareten bitartean. Badakizue zeuen gurasoengandik hartutako biziera zentzugabetik askatuak izan zaretela, ez gauza ustelkorrez, urrez nahiz zilarrez, baizik eta bildots garbi eta akats gabe bezala, zuen alde bere burua eskaini duen Kristoren odol baliotsuaz. Mundua mundu izan aurretik zegoen Kristo Jainkoaren asmoan eta azken garai hauetan agertu da zuen onerako. Eta zuek haren bidez sinesten duzue hilen artetik piztu eta aintzaz bete zuen Jainkoagan; horrela, zeuen sinesmena eta itxaropena Jainkoagan jarria duzue.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 24, 13-35.

Egun hartan bertan, asteko lehen-egunean, Jesusen bi ikasle Emaus izeneko herririka batera zihoazen, Jerusalemdik hamaika kilometrora. Jerusalem gertaturiko guztiez mintzo ziren elkarrekin. Eta, hizketan eta eztabaidan ari zirela, Jesus berbera hurbildu zitzaizen eta haiekin zihoan; haien begiak, ordea, itsu zeuden eta ez zuten ezagutu. Jesusek esan zien: «Zertaz diharduzue hizketan bidean elkarrekin?». Haiek gelditu egin ziren, aurpegia ilun, eta bietako batek, Kleofas zeritzanak, erantzun zion: «Zu izango zara Jerusalem egun hauetan gertatu dena jakin ez duen kanpotar bakarra!». Jesusek galdetu zien: «Zer gertatu da, ba?». Haiek erantzun zioten: «Nazaretoko Jesusi gertatua; profeta ahaltsua zen egitez eta hitzez Jainkoaren eta herri guztiaren aurrean; baina gure apaizburuek eta agintariek heriotzara kondenatu dute eta gurutzean josi. Guk uste genuen hark askatuko zuela Israel; baina bada hiru egun hori gertatu dela. Egia da gure arteko emakume batzuek harriturik utzi gaituztela; goizean goiz joan dira hilobira eta ez omen dute gorpua aurkitu; gainera, Jesus bizi dela esan dieten aingeruak agertu zaizkiela esanez etorri zaizkigu. Gutar batzuk ere izan dira hilobian, eta emakumeek esan bezala aurkitu dute; baina bera ez dute ikusi». Orduan, Jesusek esan zien: «Bai zentzugabeak zaretela, bai motelak profetek esana sinesteko! Ez al zuen, bada, Mesiasek hori

Pazkoaldiko 3. astea
San Jorje, *martiria*

guztia sufritu behar, bere aintzan sartzeko?». Eta, Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuek hari buruz zioten guztia azaldu zien. Zihoazen herrixkara hurbildu zirenean, Jesusek aurrera jarraitzeko keinua egin zuen. Baina haiek arren eta arren eskatu zioten: «Geldi zaitez gurekin, berandu baita eta iluna gainean dugu». Eta herrian sartu zen haiekin gelditzeko. Haiekin mahaian zegoela, Jesusek, ogia harturik, bedeinkapen-otoitza esan, zatitu eta eman zien. Orduan begiak ireki zitzaizkien eta ezagutu zuten; baina Jesus desagertu egin zitzaien. Haiek elkarrri esan zioten: «Ez al genuen bihotza sutan, bidean hitz egiten zigunean eta Liburu Santuak azaltzen zizkigunean?». Eta berehala altxatu eta Jerusalemara itzuli ziren. Han Hamaikak eta hauen lagunak bildurik aurkitu zituzten, hau ziotela: «Piztu da Jauna egiaz eta Simoni agertu zaio». Bi ikasleek bidean gertatua kontatu zieten eta nola ezagutu zuten ogia zatitzean.

Pazkoaldiko igande bakoitzak, piztueraren esanahia eta irismena argitzen laguntzen diguten irudiak eskaintzen dizkigu eta, ez soilik lehen kristau-taldeen bizitzaren ingurukoan, baita gure bizitzaren ingurukoan ere. Emauskoen kontakizunak argi eta garbi jartzen ditu piztueraren ondorengo bizitzaren euskarri diren hainbat oinarri. Horietako lehenengoa da gure izatearen neurriekin sakonki harremanetan jartzeko dugun beharra; izan ere, etsipen, frustrazio edo porrotaren sentipenean murgilduta baikaude. Konfiantzaz makal gabiltzala sentitu baina itzalia dagoela ematen duen «guk espero genuen horri» izena jartzen diogunean, orduan soilik sor daiteke piztueraren energia-guraria eta desira birkokatzea. Bigarren elementua, lehenengoaren ondorio da: nabari ohi dugu piztuerak ez duela aldatzen errealitatea, ez eta historia ere, baina ikuspegi desberdinetatik ikustera eta aurre egitera eramaten gaitu, askotan saihestu ohi dugunaren zentzurik sakonena aurkituz errealitateari: «Ez al zen ba beharrezkoa...?». Azkenik, hirugarren arlo batek azpimarratzen digu, piztueraren esperientzia estu-estu lotuta dagoela elkarteari: Jesus modu askotara agertzen da, baina bihotza sutan jartzen duen alaitasunak senideekin bat egitera eta mundua eraldatzera eramaten gaitu beti.

Apostoluen Eginak liburutik 6, 9-15: Ezin izan zioten aurre egin Espirituak mintzatzeko ematen zion jakinduriari. Sal 118: Zorionekoak Jaunaren lege-bidean dabiltzanak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 22-29.

Bost mila gizonezkoei, ase ziren arte, jaten eman ondoren, ur gainean oinez ikusi zuten Jesus ikasleek. Biharamunean, itsasoaz bestaldean zegoen jendea ohartu zen han txalupa bakarra izan zela, eta Jesus ez zela ikasleekin ontziratu, baizik eta hauek bakarrik joan zirela. Bitartean, beste zenbait txalupa etorri zen Tiberiadestik, Jaunak esker onezko otoitza egin ondoren ogia jan zuten ingurura. Jesus eta ikasleak han ez zeudela ikustean, jendea txalupetara igo eta Kafarnaumera joan zen, Jesusen bila. Itsasoaz bestaldean aurkitu zutenean, esan zioten: «Maisu, noiz etorri zara hona?». Jesusek erantzun zien: «Egi-egiaz diotsuet: Nire bila zabilzate, ez ezaugarriak ikusi dituzuelako, ogia asetzeraino jan duzuelako baizik. Ahalegindu zaitzete, ez galtzen den janariagatik, irauten duenagatik baizik, betiko bizia ematen duenagatik; hori Gizonaren Semeak emango dizue, bera egin baitu Jainko Aitak bere aginpidearen ordezkari». Orduan, galdetu zioten: «Zer egin behar dugu, Jainkoak nahi duena egiteko?». Jesusek erantzun zien: «Hau da Jainkoak nahi duena: berak bidali duenagan zuek sinestea».

Interesatzen zaigun zerbait dagoenean, gai izaten gara goiak eta beheak astintzeko, nahi dugun hori lortzearren. Jesusi jarraitzen dion jendeari ere gauza bera gertatzen zaio: komeni zaizkien seinale batzuk ikusi dituzte, ogiz ere ase dira eta ez daude prest halako etorkizun oparoa eskaintzen duen Mesias hori begi aurretik galtzeko. Eta aurkitu dutenean, Jesusek agerian jarri du beraien sakoneko arrazoia, eta bide saihestezina erakusten die ikusten dutena baino urrunago joateko: kontua da, zeinuak zulatu eta beraien esanahia lortzea, baina esanahi

Pazkoaldiko 3. astea

Sigmaringengo San Fidel, *apaiza eta martiria*

horrek konprometitu egiten duela kontuan hartuz. Hori, ordea, ez zaie hainbeste interesatzen eta elkarrizketa batean endredatzen dira Jesusen mezuaren aurkako jarrera geroz eta gehiago nabarmenduz. Une aproposa da ziur aski, geuk ere Jesusi egiten diogun jarraipen horretan zerk eragiten digun aztertzeko: irauten duen eta guztiontzako bizia sortzen duen elikagaiaren alde ari al gara lanean ala atsegin iragankorrerako sortutako elikagai ustelkorren alde ari gara?

* * *

Bizirik jarraitzea bizitzeko oztopo

Hiltzearren hiltzen nintzen;
biziak ninduen hiltzen,
zu ikusteko oztopoa
hartan irautea baitzen.
Preso ninduten arrotzak
biziki ziren alaitzen.

(S. Joan Gurutzekoa, *Poesiak* “*Super flumina Babylonis*”)

San Pedroren 1. gutunetik 5, 5b-14.

Senide maiteok: Izan zaitezte denok apalak zeuen harremanetan, Jainkoak harroei aurre egiten baitie; apalei, berriz, onginahia azaltzen. Beheratu zaitezte, beraz, eta jarri Jainko ahaltsuaren eskumenean, bere garaian gora zaitzaten. Utzi Jainkoaren esku zeuen kezka guztiak, bera baita zuetaz arduratzen. Izan zaitezte neurritsu eta egon erne; zuen etsaia, deabrua, zuen inguruan dabil, goseak dagoen lehoia bezala, nor irentsiko. Egiozue aurre, sinesmenean sendo, jakinik mundu zabalean diren beste senideak ere zuenak bezalako sufrimenduak jasaten ari direla. Eta pixka batean sufritu ondoren, dohain guztien emaile den Jainkoak, Kristoren bidez betiko bere aintzara deitu zaituztenak, bizkortuko zaituzte, sendo egingo eta finko ezarriko. Berari dagokio indarra menderen mendetan. Amen. Anaia leialtzat daukadan Silvanoren eskuz idatzi dizuet gutun labur hau, zuei adore eman eta Jainkoaren benetako dohaina zein den adierazteko asmoz. Iraun sendo dohain horretan. Babilonia honetan bizi den eta zuek bezalaxe Jainkoak aukeratua den eliz elkarte honek agurtzen zaituzte, baita nire seme Markosek ere. Agurtu elkar, senideen maitasun-laztanaz. Bakea Kristorenak zareten guztioi.

Sal 88: Jauna, zure maitasuna abestuko dut betiren beti.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16, 15-20.

Aldi hartan, Jesus Hamaikei agertu eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete, eta sendatu egingo dira». Horrela mintzatu ondoren, Jesus Jauna zerura jasoan izan zen eta

Pazkoaldiko 3. astea

SAN MARKOS, EBANJELARIA

Jainkoaren eskuinaldean eseri zen. Haiek, berriz, alde guztietara joan ziren Berri Ona hots egitera. Eta Jauna bera ari zen haiekin, egiten zituzten mirarien bidez hitza baiesten zuela.

Markos ebanjelariaren jaiak, Eliza osoaren misiolari-bokazioa oroitarazten digu. Jesusek bidali izana ez da mugatzen dena utzi eta leku arrotzetara doazen aukeratu gutxi batzuetara. Eskaintza horrek «sortua izan den guztia» harrapatzen du; izan ere, Ebanjelioa, «alde guztietan» iragarri behar da eta gizaki bakoitzak ordezkazina den tokia du horretarako; beraz, ebanjelizatze-lanean, bakoitzak bere erantzukizuna hartu behar du. Arreta jartzen baldin badugu, Jesusen botere-zeinuak Hamaikek izan zituzten bezalaxe izango ditugu lagun: eguneroko bizitzan, asko dira kanpora ditzakegun deabruak (mesfidantza, tristezia...); beti gaude maitasunaren hizkuntza berria ikastera deituak, gaizkiari aurre egin diezaiokegu hark gu eraitsi edo abaildu gabe eta, agian, bakardadearen gaixotasunak jota dauden pertsonen estutasuna eta larritasuna arintzea ere lor dezakegu. Mirariak apaltzen ari diren honetan, ez da bada izango sinesteari uzten ari garelako?

San Paulok 1 Korintoarrei 8, 1-10.

Senideok: Niri dagokidanez, Jainkoaren salbamen-asmoa iragartzera joan nintzaizuenean, ez nizuen hitz egin giza jakinduriarako hizkera landua erabiliz. Izan ere, zuen artean ez nuen ezer jakin nahi izan, Jesu Kristo, eta berau gurutziltzatua, izan ezik. Horregatik, ahul eta beldurrez dar-dar agertu nintzen zuen aurrean. Nire hitza eta predikua ez ziren giza jakinduriarako argudiotan oinarritu, Espirituaren indarrean baizik, horrela, zuen sinesmena Jainkoaren indarrean oinarri zedin, eta ez giza jakindurian. Jakinduria irakasten diegu guk kristau helduei; baina jakinduria hori ez da mundu honetakoa, ezta laster galduko diren mundu honetako agintariena ere. Guk Jainkoaren jakinduria misteriotsua irakasten dugu, hark ezkutuan edukia eta betidanik gure aintzarako erabakia zeukana. Mundu honetako agintarietako inork ez du ezagutu jakinduria hori, zeren, ezagutu izan balute, ez baitzuten gurutziltzatuko Jainkoaren aintza berekin zuen Jauna. Baina, Liburu Santuak dioen bezala, «inork ikusi eta entzun ez duena, gizakiari inoiz bururatu ez zaiona, Jainkoak bera maite dutenentzat prestatuak zeukana», horixe agertu digu Jainkoak Espirituaren bidez. Espirituak, izan ere, guztia aztertzen du, baita Jainkoaren barren-barrena ere.

Sal 118: Argi da zure hitza, Jauna, nire oinentzako.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 13-16.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zuek zarete lurraren gatza. Baina gatza gezatzen bada, nola gazitu berriro? Ez du jadanik ezertarako balio, kanpora bota eta jendeak zapaltzeko baizik. Zuek zarete munduaren argia. Ezin da ezkuta mendi gainean dagoen herria. Kriseilua ere ez da pizten lakaripean ipintzeko, argimutilaren gainean ipintzeko baizik, etxeko guztiei argi egin diezaien. Era berean, zuen argiak denen aurrean egin behar du argi, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita goretz dezaten».

Pazkoaldiko 3. astea

San Isidoro, *gotzaina eta eliz irakaslea*

Jesusek zapore sakonez betetako irudi herrikoiez adierazten du bere jakinduria. Sakontasunez bizitako eguneroko bizitzak nahieran edo eskura jartzen dizkio irudiak modu soilean eta argian bere mezua adierazteko. Gatza, argia, legamia, ura, ogia, atea, txanpona, ardia... Ebanjelio sinoptikoetan gutxienez, Jesusek, Berri Onaren albistea eman nahi duenean, ez dirudi hitzaldi konplexuetara jotzen duenik; nahikoa du gauza txikiekin, errealitate arrunta bere errebelazio-mezu harrigarriaren bitartez eraldatu egiten da. Maisuak gauzak egiteko duen modu berezi horrek, geure kodeak, errituak, moduak... berrikustera gonbidatzen gaitu. Agian, erabiltzen dugun erabat arrotza zaion hizkera dela-eta, jendea ez da iristen gure mezua jasotzera.

Apostoluen Eginak liburutik 8, 26-40: Hona ura; zerk eragozten du ni bataiatzea? Sal 65: Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 44-51.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Ezin da inor nigana etorri, bidali nauen Aitak erakartzen ez badu. Eta Nik piztuko dut azken egunean. Hau dio profeten liburuak: “Jainkoaren ikasle izango dira denak”. Aitari entzun eta hark irakatsia bereganatzen duena nigana dator. Horrek ez du esan nahi inork Aita ikusi duenik; Jainkoagandik etorri denak bakarrik ikusi du Aita. Egi-egiaz diotsuet: Sinesten duenak betiko bizia du. Ni naiz bizia ematen duen ogia. Zuen gurasoek mana jan zuten basamortuan eta, halere, hil egin ziren. Bestelakoa da zerutik jaisten den ogia; honetatik jaten duena ez da hilko. Ni naiz zerutik jaitsia den ogi bizia; ogi honetatik jaten duena betiko biziko da. Eta Nik emango dudan ogia nire haragia da, mundua bizi dadin emana».

Jesusengana joatea erakarmen-kontua da, eta ez ahaleginarena, ez eta merituena ere. Beraren mezua atzeman eta jaso ahal izateak, entzutea eta ikastea eskatzen du, ustez bildua dugun jakinduriaren altxorra gainditzeko duen mezuak liluratzeko uztea. Agian, ez gaude oso urrun Jesusekin gogor eztabaidatzen duten eta beraren etsairik amorratuena izatera iritsi diren juduagandik. Haiek asebeteta daude dakitenarekin eta jada gozatzen ari diren bizitzarekin. Horregatik kostatzen zaie hainbeste Jesusek eskaintzen duen eta berarekin duten harremanetik bereizte zina den «ogi bizi horren» gosea sentitzea. Entzutea eta ikastea, gose eta asegaitez sentitzea, ikasle baldintzak dira, eta baldintza horiek irekitzen diete Jaun horrek eta aurreikuspen guztiak gainditzeko dituen beraren proiektuak erakarriz sentitzea.

Pazkoaldiko 3. astea

San Prudentzio, gotzaina (*Gasteizko elizbarrutiko eta Arabako Zaindaria*)

Apostoluen Eginak liburutik 9, 1-20: Neure zerbitzurako aukeratutut gizon hori, jentilei nire izena adieraz diezaien. **Sal 116:** Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 52-59.

Aldi hartan, juduak eztabaidan ari ziren beren artean: «Nola eman diezaguke honek bere haragia jaten?». Jesusek esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Gizonaren Semearen haragia jaten eta haren odola edaten ez baduzue, ez duzue bizirik izango zeuengan. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duenak betiko bizia du, eta Nik piztuko dut azken egunean. Zeren nire haragia egiazko janari baita eta nire odola egiazko edari. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duena nigan dago eta Ni harengan. Bizia den Aitak bidali nau eta Ni Aitari esker bizi naiz; era berean, Ni jaten nauena niri esker biziko da. Hau da zerutik jaitsi den ogia; ez da zuen gurasoek jan zutena bezalakoa, haiek hil egin baitziren. Ogi honetatik jaten duena betiko biziko da». Hau guztia Kafarnaumgo sinagogan irakatsi zuen Jesusek.

Pasarte hau berehala eukaristiarekin lotzen ohituta gaude; horregatik, agian, ez dugu atzematzen beraren izaera zirikatzailea. Bizimodu arruntean, norbait maite dugunean, batzuetan esan ohi dugu “musuka jango” genukeela eta “begiez edango”. Maitasunean, bestearekin bat egiteko gurari aseezina ezkatutzen da, maite den pertsonaren biziarekin erabat bat egiteko guraria. Jesusek ikasle izatearen zentzua eta harremanak, azaleko itxurekin konformatzen ez den maitasun horren neurri indartsuetan planteatzen ditu, eta izatearen funtsa, misioa eta etorkizuna sakon-sakonean ezagutu eta partekatzea ditu helburu. Zorrotza da eskatzen duen maitasuna, beretzat ezer gordetzen ez duena: «Jaten nauena, nire baitan biziko da». Beraz, hori ikusita, ez dirudi arraroa bere ikasleetako askok atzera egin izana.

San Joan Apostoluaren 1. gutunetik 1, 5–2, 2.

Senide maiteok: Hona hemen Jesu Kristogandik entzuna dugun mezua eta zuei iragartzen dizueguna: Jainkoa argi da eta harengan ez da inolako ilunik. Harekin elkartasunean bizi garela esan eta ilunpetan baldin bagabiltza, gezurra diogu eta ez gara egiaren arabera ari. Baina argitan bagabiltza, elkartasuna dugu batak bestearekin eta haren Seme Jesusen odolak bekatu guztitik garbitzen gaitu. Bekaturik ez dugula esaten badugu, geure burua engainatzen dugu eta egia ez dago geure baitan. Geure bekatuak aitortzen baditugu, ordea, leiala eta zuzena den Jainkoak barkatuko dizkigu bekatuak, eta gaiztakeria guztitik garbituko gaitu. Bekaturik ez dugula egin esaten badugu, gezurti egiten dugu bera, eta haren mezua ez dago gudan. Ene seme-alabok, bekatu egin ez dezazuen idazten dizuet hau. Hala ere, norbaitek bekatu egiten badu, badugu laguntzailea Aitaren aurrean: zuzena den Jesu Kristo. Hark bere burua eskaini zuen gure bekatuen barkamenerako; eta gureen barkamenerako ez ezik, baita mundu guztikoen barkamenerako ere.

Sal 102: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 25-30.**

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik. Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartzazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

Liturgiak Sienako Santa Katalinaren oroitzapena ospatzea proposatzen digu. Santu hori Elizaren doktorea da, eta Jesusen poza

Pazkoaldiko 3. astea

Santa Katalina Sienakoa, *birjina eta eliz irakaslea*
(*Europaren Zaindaria*)

agertzen duen ebanjelio honekin ospatzen da beraren eguna. Muinmuinean eta paradoxa dirudien arren, benetako jakinduria ez datza jakintsu batzuek soilik ulertzea lortzen duten arrazoitze konplexuetan. Jende xumea jakinduriaren maisu da askotan, bai baitaki ez dakiela eta poz handiz irekitzen du bihotza Jainkoaren Semeak erakusteko daukana ikastera. Halaber, nekea eta itolarria ere sentitzen ditu jende horrek, eta Jesusen lasaigarria ere jaso behar izaten du. Agian, jakindurian irabazten ari gara, baldin eta ulertzen badugu, uztarrria eta kargak izate beraren zati direla, baina beste moduren batean ere eraman daitezkeela, batez ere beste lagun batzuekin batera.

* * *

Sienako Katalina santua

Katalina Sienan jaio zen (Italian) 1347an. Hamabost urterekin, domingotarren hirugarren ordenako egin zen. San Domingok egindako agerpenaren ondoren, bere ile-adatsa moztu eta domingotarren abitua jantzi zuen.

Oso kezkatua zegoen Katalina Elizak bizi zuen egoera nahasi eta okerraz: apezpiku eta apaiz askoren utzikeria eta ustelkeria zela eta; aita santuaren aulkia Avignonon zegoela eta; Mendebaldeko zisma zela eta (Frantziako kardinalak Klemente VII.a antipaparen alde atera baitziren 1378an). Bidaia asko egin zuen egoeraren aldaketa bultzatu nahirik. Gregorio XI.a aita santuagana ere joan zen, «bere artaldea Erromako muinoetatik, eta ez Avignondik, zaindu behar zuela» esatera. Sienako Katalina goi-mailakoa da mistikan. «Maitasunaren su bizia zuen, Jesu Kristoren nekaldia hausnartzeko eta Elizaren zerbitzari adoretzu izateko». Sienako 1374ko izurritean, egundokoak egin zituen gaixoak sendatzen. 1380an hil zen Erroman, bakardadean, hogeita hamahiru urterekin, maitasunezko estasian zegoela. Hil zenean, gorputzean, ezkutuan, Kristoren nekaldiko zauriak zeramatzala ohartu ziren.

Eliz irakasle izendaturiko emakumeetarik lehenengoa da, Avilako Teresarekin batera.

Pazkoaldiko 4. astea

San Pio V.a, 225. aita santua
Santa Sofia, birjina eta martiria

Apostoluen Eginak liburutik 2, 14a. 36-41.

Mendekoste-egunean, Pedrok honela hitz egin zien juduei: «Jakin beza ziur Israel herri osoak, Jaun eta Mesias egin duela Jainkoak zuek gurutziltzatu zenuten Jesus hau». Hitz hauek bihotza ukitu zietelarik, Pedrori eta gainerako apostoluei esan zieten: «Anaiok, zer egin behar dugu?». Pedrok erantzun zien: «Bihotz-berri zaitezte eta bataiatu guztiok Jesus Mesiasen izenean, bekatuak barka dakizkizuen, eta Espiritu Santua hartuko duzue dohainik. Izan ere, zuentzat eta zuen seme-alabentzat agindu zuen Jainkoak dohain hau, baita Jaunak gure Jainkoak deituko dituen atzerritar guztientzat ere». Beste hitz askoren bidez ere egiten zien Pedrok testigantza, eta arrenka eskatzen zien, esanez: «Salba ezazue zeuen burua gizaldi galdu honengandik». Pedroren hitza onartu zutenak bataiatu egin ziren, eta egun hartan hiruren bat mila lagun bildu zitzaion taldeari.

Sal 22: Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.

San Pedroren 1. gutunetik 2, 20b-25.

Senide maiteok: On egiteagatik nekeak jasan behar badituzue, hori gauza ederra da Jainkoaren begietan. Horretarako deitu zaituzte Jainkoak; izan ere, Kristok berak ere nekeak jasan zituen zuengatik, zuei eredia utziz, haren urratsei jarrai diezaiezuen. Hark ez zuen bekaturik egin, haren ahoan ez zuten aurkitu maltzurkeriarik. Iraintzen zutenean, ez zuen iranez erantzuten; nekeak jasatean, ez zuen mehatxurik egiten; aitzitik, zuzen epaitzen duenaren eskuetan jartzen zuen bere burua. Gure bekatuak bere gain hartu eta gurutzera eraman zituen, gu, bekaturako hilik, zuzen bizi gaitezen; haren zauriek sendatu zaituztete. Ardi galduak bezala zenbiltzaten; baina orain zeuen artzain eta zaintzaileagana bihurtu zarete.

Pazkoaldiko 4. astea

San Pio V.a, 225. aita santua

Santa Sofia, birjina eta martiria

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10, 1-10.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Egi-egiaz diotsuet: Artegian, atetik ez, baino beste nonbaitetik sartzen dena lapurra da eta harrapatzailea. Atetik sartzen dena, berriz, artzaina da. Honi ireki egiten dio atezainak, eta ardiek aditzen dute haren ahotsa; ardi bakoitzari bere izenaz deitzen dio, eta kanpora ateratzen ditu. Ardi guztiak atera ondoren, aurretik joaten zaie eta ardiek jarraitu egiten diote, ezagutzen baitute haren ahotsa. Arrotzari, ordea, ez diote jarraituko; aitzitik, ihes egingo diote, arrotzaren ahotsa ez baitute ezagutzen». Jesusek adibide hau eman zien, baina haiek ez zuten ulertu zer esan nahi zien. Orduan, honela azaldu zien Jesusek: «Egi-egiaz diotsuet: Ni naiz ardien atea. Nire aurretik etorritako guztiak lapurrak ziren eta harrapatzaileak; horregatik, ardiek ez zieten jaramonik egin. Ni naiz atea. Ate honetatik sartzen dena onik izango da, lasai sartuko da eta aterako, eta aurkituko du jatekoa. Lapurra ez doa artaldera ostu, hil eta hondatzera baizik; Ni, berriz, bizia izan dezaten etorri naiz, bizia ugari izan dezaten».

Gure kultura hiritarrean, zail gertatzen da Jesusek erabilitako irudi batzuk ulertzea. Naturatik erabat bereizita bizi garenok, zer dakigu ardiek eta artzainek dituzten jokabideez eta portaerez? Baina, Jesusen solaskideek eta garaikideek ere ez dute ulertzen konparazio horietako batzuen esanahia; ematen du, ebanjelariak adierazi nahi digula Jaunaren jakinduria jasotzeko ez dela aski kultura-testuingurua ezagutzea; zerbait gehiago partekatu behar dela; alegia, fedearen begiak oso ondo ireki behar direla eta bihotzaren belarriez entzuten hasi behar dela. Erabateko irekitze hori eginda kontura daiteke soilik, Jesusek ez gaituela deitzen nortasunik gabeko morrontzara, arrazoitzen ez duten izakien moduan buruzagi bati itsu-itsuan jarraitzera. Jesusen proposamena askoz ere zorrotzagoa da: «nigan sartzen dena, salbatuko da eta sartu eta irten egin ahal izango da». Askatasun berri baterako deia

Pazkoaldiko 4. astea

San Pio V.a, 225. aita santua
Santa Sofia, birjina eta martiria

da; «atea» non dagoen jakinda gero, bizitzari zentzua eta gozotasuna ematen dioten erreferentziekin inguramen guztietara joan liteke, sartu eta irten liteke, edonora joanda ere bertan «bazka» aurkitzeko ziurtasunarekin. Ebanjelioaren eta inguruan egiten zaizkigun beste hainbat eskaintzen arteko aldea zera da: Jesus guk bizia izan dezagun eta bizi hori emankorra izan dadin etorria dela mundura.

* * *

Optimismoa

«Optimismoa», baikor izatea da, bizitzari bai esatea.
«Izan zaitez alai eta optimista!
Ez galdu denbora atzera begira pasatua dena edo iragana, iragana da.
Begiratu beti aurrera eta segi zeure bideari, burua tente duzula eta aurpegi alaiarekin, on eginez eta denei lagunduz.
Luzatu eskua hurbiltzen zaizunari, esan kariño edo txerazko hitz kontsolagarriak, izan denentzat ontasunezko irribarrea ezpainetan.
Egiazko poza izango da zure bizitzako giroa eder egingo duena».

(C. Torres Pastorino, Arantzazu egutegia 2017-11-06)

GAZTEEKIN
bide eginez
etorkizun
ITZAROPENTSU
bat
SORTZEKO

MAIATZA / ORRILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Eliza-mugimenduen eta taldeen alde: Otoitz egin dezagun eliza-mugimendu eta taldeek berraurki dezatela egunero beren ebanjelizazio-misioa, beren karisma propioak munduaren premien alde ipiniz.



Pazkoaldiko 4. astea

SAN JOSE LANGILEA (Meza berezia, ikus beherago)

Apostoluen Eginak liburutik 11, 1-18: Jentilei ere eman die Jainkoak bizira daraman bihotz-berritzea. **Sal 41:** Jainko biziaren egarri naiz: noiz iritsiko ote naiz Jainkoaren aurpegia ikustera.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10, 11-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Ni naiz artzain ona. Artzain onak bere bizia ematen du ardiene alde. Ez, ordea, morroiak, artzain ez denak eta ardiak bereak ez dituenak; honek, otsoa datorrela ikustean, ardiak utzi eta ihes egiten du; eta otsoak ardiak harrapatu eta sakabanatu egiten ditu. Izan ere, morroiari lansaria zaio axola, eta ez ardiak. Ni naiz artzain ona. Ezagutzen ditut neure ardiak, eta neurek ezagutzen naute Ni, Aitak Ni ezagutzen nauen eta Nik Aita ezagutzen dudana bezalaxe. Nik neure bizia ematen dut ardiene alde. Baditut artegi honetakoak ez diren beste ardi batzuk; hauek ere erakarri egin behar ditut; adituko dute nire ahotsa eta artalde bakarra izango dira, artzain bakarraren gidaritzapean. Horregatik maite nau Aitak: neure bizia ematen dudalako, berriro eskuratzeko. Ez dit bizia inork kentzen, Neuk ematen dut neure kabuz. Neure esku dut ematea eta neure esku berriro eskuratzea. Hori da neure Aitagandik hartu dudana agindua».

Judu gizonen artean ohikoa zenez, Jesusek bere aita Joseren lanbidea hartu zuen oinordetzan; ebanjelioek «tékton» gisa definitzen dute lanbide hori; garai hartan eraikuntza-lan txiki nahiz handietan harria, metala nahiz zura lantzen zituen langile moduan. Alabaina, Nazaretan igaro zituen urte luzeetan, Jesusek beste lan asko ere egin behar izan zuen eta, agian, horregatik, berari hainbeste egokitzen zaion artzainaren lanbidearekin ere lotzen da. Bada modu bat, geure esku jartzen den errealitatea laguntzeko, ihesik eta abandonurik egin gabe hitza betetzeko eta azkeneraino erantzukizuna hartuta, bizia emateraino iristen dena. Jesusek eta beraren aita Josek egin zuten bezala, alegia.

* * *

SAN JOSEREN JAIKO MEZA

Hasiera liburutik 1, 26-2, 3.

Jainkoak esan zuen: «Egin dezagun gizakia geure irudiko, geure antzeko; mendera ditzala itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak, etxeke abereak eta lurreko narrastiak». Jainkoak, beraz, bere irudiko egin zuen gizakia, Jainkoaren beraren irudiko egin zuen; gizaseme eta emakume kreatu zituen. Eta bedeinkatu egin zituen Jainkoak eta esan zien: «Sor itzazue umeak eta ugaritu, bete lurra eta izan haren nagusi; mendera itzazue itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurrean dabiltzan piztia guztiak». Jainkoak esan zuen: «Begira, zuei ematen dizkizuet lurraren azalean diren hazidun landare guztiak eta hazidun fruitua dakarten zuhaitz guztiak; janari izango dituzue horiek. Abereei, zeruko hegaztiei eta lurrean dabiltzan bizidun guztiei, berriz, belarra ematen diet janari». Eta hala izan zen. Eta egindako guztia ikusi zuen Jainkoak, eta oso ona zen. Eta arrats eta goiz: seigarren eguna burutu zen. Honela, burutuak gelditu ziren zeru-lurra eta hauetan dagoen guztia. Zazpigarren egunerako burutu zuen Jainkoak egindako lana, eta zazpigarren egunean, egindako lan guztiaren ondoren, atsedean hartu zuen. Jainkoak bedeinkatu egin zuen zazpigarren eguna eta sagaratu, egun horretan hartu baitzuen atsedean bere kreazio-lan guztitik.

Sal 89: Sendotu ezazu, Jauna, gure eskuen lana.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 54-58.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen, eta irakasten hasi zen sinagogan. Jendeak, harriturik, hau zioen: «Nondik du honek horrelako jakinduria, eta nondik mirari horiek? Ez al da, ba, arotzaren semea? Ez al da Maria honen ama, eta Santiago, Jose, Judas eta Simon

Pazkoaldiko 4. astea
SAN JOSE LANGILEA

honen anaiak? Eta honen arrebak ere ez al dira hemen gure artean bizi? Nondik du, beraz, hori guztia?». Eta ezin zuten sinetsi harengan. Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian eta etxean izan ezik». Eta ezin izan zuen han mirari askorik egin, ez baitzuten sinesten.

Aroztegi batean lan egin zuen Jesusek beste hainbat gizakik bezala. Jesusek, bere esku langiletsuz, Jainkoaren borondatea egin nahi izan zuen: munduari giza aurpegia eman. Bere lan-egun haiek gogora ekarriz, geroago esango du: «Nire Aitak lanean dihardu, horregatik dut nik lan egiten» (Jn 5, 17). Lanaren balioa erakutsi zigun horrela –Jainkoak agindua dela Adamek bekatu egin aurretik–, den apalena izanik ere mundua «gizakiaren etxe» bihurtzeko balio duela eta kreatoran Jainkoak gizakiari emandako duintasuna azaltzen duela: kreatoraile kreatu zuen gizakia Kreatoraileak; mundua eraldatzeko eginkizuna emanez, zeina, geure fedez dakigunez, Jainkoak eginga baita eta Jainkoarentzat.

Pazkoaldiko 4. astea

San Atanasio, *gotzaina eta eliz irakaslea*
San Felix, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 11, 19-26: Jentilei ere Jesus Jaunaren Berri Ona iragartzen hasi ziren. Sal 86: Goretsazue Jauna, nazio guztiok.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 10, 22-30.

Aldi hartan, tenpluaren sagarapen-jaiak ospatzen ziren Jerusalemen. Negua zen. Jesus tenpluan zebilen, Salomonen aterpean. Inguratu zuten juduek eta esan zioten: «Noiz arte eduki behar gaituzu zalantzan? Zu bazara Mesias, esaguzu argi eta garbi». Jesusek erantzun zien: «Esan dizuet, eta ez duzue sinesten. Nik neure Aitaren izenean egiten ditudan egintzek ematen dute nire alde testigantza; zuek, ordea, ez duzue sinesten, nire ardietakoak ez zaretelako. Nire ardiek aditzen dute nire ahotsa; Nik ezagutzen ditut, haiek jarraitu egiten didate, eta Nik betiko bizia ematen diet; ez dira betiko galduko, ez dizkit inork ere eskutik kenduko. Haiek eman dizkidan nire Aita beste guztiak baino handiagoa da, eta ezin ditu inork ere kendu nire Aitaren eskutik. Aita eta biok bat gara».

Jesusen solaskideak hain daude jada badakitenari itsatsita, mesiastasun berriaren zeinuak ez dituztela igartzen. Beren arazoa ez sinestea dute, ikusten dutena ikusten dutela eta entzuten dutena entzuten dutela. Dogmei itsatsita egoteagatik, eskandaluaren alarma gertatzen zaie Jesusek dakarren berrikuntza pentsaezina. Juduen zailtasun hori, agian, guri geuri ere ez zaigu erabat ezezaguna egiten. Sinestea, Jesusekin, gure bidean bizi diren eta topatzen ditugun zeinuekin konformatzea da eta horietan Jaunaren presentzia bereizten jakitea, era etengabean agerkari berriak eskatzen aritu gabe. Sinestea, mugimendu elkarkaria da: Jesusi entzutea eta hark ezagutu gaitzan uztea, hari jarraitzea eta harengandik betiko bizia jasotzea.

Pazkoaldiko 4. astea

San Felipe eta Santiago, *apostoluak***San Paulok 1 Korintoarrei 15, 1-8.**

Senideok: Irakatsi nizuen Berri Ona oroitarazten dizuet. Zuek onartu egin zenuten, horretan sendo oinarrituak zaudete eta salbatu ere horrexek salbatzen zaituzte, nik iragarri nizuen bezala eusten badiozue. Bestela, alferrik sinetsiko zenuten. Nik hartu nuena bera eskualdatu nizuen lehen-lehenik, hau da, Kristo gure bekatuengatik hil zela, Liburu Santuek esan bezala; hobiratu egin zutela eta hirugarren egunean piztu egin zela, Liburu Santuek esan bezala; Pedrori agertu zitzaiola, eta ondoren Hamabiei; gero, bostehun eta gehiago senideri agertu zitzaion batera –horietako gehienak bizirik daude oraindik, batzuk hil badira ere–; gero, Santiagori agertu zitzaion, ondoren apostolu guztiei. Beste guztiei agertu ondoren, neuri ere agertu zitzaidan, garaia baino lehen jaiotako haurra bezalakoa naizen honi.

Sal 18: Zeruek Jainkoaren aintza dute kontatzen.**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14, 6-14.**

Aldi hartan, Jesusek esan zion Tomasi: «Ni naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitagana joan, nire bidez izan ezik. Ni benetan ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete. Are gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue». Orduan, Felipek esan zion: «Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta nahikoa dugu». Jesusek erantzun: «Hainbeste denbora zuekin, eta ez al nauzu ezagutzen, Felipe? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du. Nola diozu: “Erakutsiezaguzu Aita”? Ez al duzu sinesten Ni Aitagan nagoela eta Aita nigan? Nik esaten dizuedana ez dizuet neure kabuz esaten. Nigan bizi den Aita da bere egintzak burutzen ari dena. Sinetsiezadazue: Ni Aitagan nago eta Aita nigan. Besterik ez bada ere, sinetsi egintzengatik. Egi-egiaz diotsuet: Nigan sinesten duenak Nik egiten ditudan egintzak burutuko ditu berak ere, eta are handiagoak, Ni Aitagana bainoa. Nire izenean eska dezazuen guztia emango dizuet,

Pazkoaldiko 4. astea

San Felipe eta Santiago, *apostoluak*

Aitaren aintza Semeagan ager dadin. Nire izenean zerbait eskatzen baduzue, emango dizuet Nik».

Pazko-ibilbideak etengabe bideratzen gaitu Jauna gero eta sakonkiago ezagutzera, hura gehiago maita dezagun eta bizikiago jarrai diezaiogun. Piztueraren energiak geu harrapatzea da kontua, eta, energia horrek hainbestearaino harrapatu ere, gure izate guztian benetako «eraldaketa edo metanoia» gauza dezala. Aita on batek maitatzen gaituen eta berarengana erakartzen gaituen izaki gara eta Jesus geure senide nagusia dugu, guretzat, bide, egia eta bizi bihurtu dena. Bera dugu Aitarekin topo egiteko bide bakarra, edo, bestela esanda, geure betetasuna eta bururatzea iristeko euskarri bakarra. Baina Jesusekiko atxikimendu hori gizateria osoaren esku dagoen modu jakin batean egiten da: «Nigan sinesten duenak, egingo ditu nik egiten ditudan egintzak». Hau, printzipio-kontua baino gehiago, egintzen kontua da.

Pazkoaldiko 4. astea

San Jose Maria Rubio, *apaiza, jesuita*

Apostoluen Eginak liburutik 13, 13-25: Daviden hazitik atera zion Jainkoak Israeli Salbatzailea, Jesus alegia. **Sal 88:** Jauna, zure maitasuna abestuko dut betierez betiere.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 13, 16-20.

Jesusek, bere ikasleei oinak garbitu ondoren, esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Morroia ez da nagusia baino handiago, ezta bidalia ere bidaltzailea baino handiago. Hortaz jabeturik, zorionekoak izango zarete, horren arabera jokatzeko baduzue. Ez naiz zuek guztiotzat ari; badakit, bai, zein aukeratu ditudan; baina bete beharrekoa da Liburu Santuak dioen hau: “Nire ogitik jaten duena kontra altxatu zait”. Aurrez, gertatu baino lehen, esaten dizuet, gerta dadinean, “Ni naizela” sinets dezazuen. Egi-egiaz diotsuet: Nik bidalia onartzen duenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali ninduen onartzen du».

Gaur, beste egun batez, liturgia guri gogorarazten ahalegintzen da; alegia, Jesusekin elkartzea ez dela gertatzen bakardade antzuan, baizik eta berak egin zituen egintzak eginez geure bizia arriskuan jarritz. Ostalariei edo apopiloei oinak garbitzea eguneroko lana zen, baina esklaboek eta emakumeek egiten zutena; Jesusek keinu hori beren eginkizun bihur dezatela proposatu die ikasleei eta, agindu ere agindu die, hain zuen ere, horretan aurkituko dutela zoriona: «Zorionekoak zuek, hori praktikatzeko baduzue». Zerbitzuaren zorientasunak aurrez aurre talka egiten du geure bizia ondo gorde eta zaintze hutsean gelditzearekin. Horregatik, ez da harrizkoa guk ere tarteka haren deiari iskin egitea. Egunero hasi behar da ibilia berriro; beti ere, Jesusek, berak nortzuk aukeratu dituen ongi dakiela konfiantza izanda.

Pazkoaldiko 4. astea

Santa Felizisima, *martiria*Santa Irene, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 13, 26-34: Agintzaria geuri bete digu Jainkoak, Jesus berpiztuz. **Sal 2:** Nire Seme zara zu; Nik zaitut gaur sortu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14, 1-6.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez izan kezkarik; sinetsi Jainkoagan eta sinetsi nigan ere. Nire Aitarenean bititoki asko dago; horrela izan ez balitz, esango nizuekeen. Orain zuentzat tokia prestatzera noa. Joan eta tokia prestatu ondoren, berriro etorri eta neurekin eramango zaituztet, Ni nagoen tokian zuek ere egon zaitetzten. Zuek badakizue Ni noan tokirako bidea». Tomasek esan zion: «Jauna, ez dakigu nora zoazen, eta nola jakin bidea?». Jesusek erantzun: «Ni naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitagana joan, nire bidez izan ezik».

Ikasleek, ikusten hasi direnean Jesus nolako etorkizunerantz doan, dar-dar egiten dute eta koldartu egin dira. Maisuak agur egin nahi die eta bere mezu batzuk gogorarazten dizkie: ez da harritzekoa, noski, haiek nahastuta eta beldurrez erreakzionatzea: norik sartu nahi izango luke sufrimenduak eta heriotzak marraztutako etorkizun ezezagun batean? Jesusek dei herri bat egin die sinesteko, berari atxikitzeko, begiak berarengan jartzeko, «ni nagoen tokian, zuek ere egon zaitetzten». Ikaslearen zoriona, zalantzarik gabe, Jaunarekin harreman estu hori bizitzetik pasatzen da derrigorrez. Beragan sinestea, noranahi doala ere, berak hara eramaten uztea da.

Pazkoaldiko 4. astea

Domingo Savio santua, *aitorlea*San Luzio, *profeta eta doktorea*

Apostoluen Eginak liburutik 13, 44-52: Jentilengana joko dugu.

Sal 97: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14, 7-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni benetan ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete. Are gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue». Orduan, Felipek esan zion: «Jauna, erakuts iezaguzu Aita, eta nahikoa dugu». Jesusek erantzun: «Hainbeste denbora zuekin, eta ez al nauzu ezagutzen, Felipe? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du. Nola diozu: “Erakuts iezaguzu Aita”? Ez al duzu sinesten Ni Aitagan nagoela eta Aita nigan? Nik esaten dizuedana ez dizuet neure kabuz esaten. Nigan bizi den Aita da bere egintzak burutzen ari dena. Sinets iezadazue: Ni Aitagan nago eta Aita nigan. Besterik ez bada ere, sinetsi egintzengatik. Egi-egiaz diotsuet: Nigan sinesten duenak Nik egiten ditudan egintzak burutuko ditu berak ere, eta are handiagoak, Ni Aitagana bainoa. Nire izenean eska dezazuen guztia emango dizuet, Aitaren aintza Semeagan ager dadin. Nire izenean zerbait eskatzen baduzue, emango dizuet Nik».

Garai guztietako gizakion bihotzean hautematen da gutxi asko ezkutukoa den Jainkoa ikusteko gose sakona. Non aurkitu, ordea? Felipek sumatzen du Jesusek arrasto seguruak eskain ditzakeela bilaketa hori gidatzeko, baina oraindik ez du atzeman, bere burua bera duela oinarritzko egarri horrentzako behin betiko erantzuna: «Ni ikusi nauenak, Aita ere ikusi du». Bere izatearen ezaugarrietako bakoitza, bere bizitzako misterioetako bakoitza du Jainkoaren aurpegi maitekorra eta historiarekin duen konpromisoa agertzen dituen toki bat. Jesusen piztueraren ondoren, ez dugu jada agerpen eta ikuskizun berriren beharrik: Jesusek berak jarraitzen du –bere hitzez, sakramentuen bidez, kristau-elkartean, mundu hobe baten aldeko lanean– Jainko gizaki eginaren presentzia agertzen denboren amaierara arte.

Apostoluen Eginak liburutik 6, 1-7.

Egun haietan, ikasleak ugaritu zirelarik, marmarra sortu zen greko hizkuntzakoen artean hebreera hizkuntzakoen aurka, haien andre alargunak eguneroko janari-banaketan baztertera uzten zituztelako. Hamabiek, ikasleen batzar orokorra bildurik, esan zuten: «Ez da bidezko guk Jainkoaren hitzaren predikua alde batera uztea, janari-banaketat arduratzeko. Beraz, senideok, aukera itzazue zeuen artean izen oneko zazpi gizon, Espiritu Santuaz eta jakinduriaraz beteak, eta haiei emango diegu egiteko hori; guk, horrela, otoitzean eta hitzaren zerbitzuan jardungo dugu». Batzar osoak ontzat eman zuen proposamena, eta hauek aukeratu zituzten: Esteban –sinesmenez eta Espiritu Santuaz bete–, Felipe, Prokoro, Nikanor, Timon, Parmenas eta Nikolas, Antiokiako judu berria; aurkeztu zizkieten apostoluei, eta hauek, otoitz eginez, eskuak ezarri zizkieten buruan. Jainkoaren hitza zabaltzen ari zen; ikasleen taldea franko ugarituz zihoan Jerusalem, eta apaiz asko ere sinestedun egiten zen.

Sal 32: Betor gugana, Jauna, zure maitasuna, zukan baitugu geure uste ona.

San Pedroren 1. gutunetik 2, 4-9.

Senide maiteok: Hurbil zaitezte Jaunagana. Harri bizia da Jauna, gizakiek baztertua, baina Jainkoaren begietarako aukeratua eta bikaina; harengana hurbiltzen zaretelarik, zuek ere, harri bizi bezala, espirituzko tenpluaren eraikuntzan parte hartzen duzue eta apaiz sagaratuak zarete, Jainkoari atsegin zaizkion espirituzko opariak Jesu Kristoren bitartez eskaintzeko. Hau dio, izan ere, Liburu Santuak: «Hona Nik Sionen harria ipini, giltzarri aukeratu eta bikaina. Horretan sinesten duenik ez da lotsaturik geldituko». Zuentzat, beraz, sinesten duzuenontzat, harri hori aintzagarri da; sinesten ez dutenontzat, berriz, «etxegileek baztertutako harria giltzarri bihurtu da, eta baita

behaztopa-harri ere, erorarazteko harkaitz». Hitzaz onartzen ez dutenek egiten dute behaztopa; hori da ezarri zaien zoria. Zuek, ordea, jatorri hautatua zarete, errege eta apaiz, nazio santua, Jainkoak beretzat eskuratutako herria, ilunpetatik bere argi zoragarria deitu zaituzten Jainkoaren egintza bikainak iragar ditzazuen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14, 1-12.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez izan kezkarik; sinetsi Jainkoagan eta sinetsi nigan ere. Nire Aitarenean bititoki asko dago; horrela izan ez balitz, esango nizuekeen. Orain zuentzat tokia prestatzera noa. Joan eta tokia prestatu ondoren, berriro etorri eta neurekin eramango zaituztet, Ni nagoen tokian zuek ere egon zaitezten. Zuek badakizue Ni noan tokirako bidea». Tomasek esan zion: «Jauna, ez dakigu nora zoazen, eta nola jakin bidea?». Jesusek erantzun: «Ni naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitagana joan, nire bidez izan ezik. Ni benetan ezagutuko baninduzue, nire Aita ere ezagutuko zenukete. Are gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue». Orduan, Felipek esan zion: «Jauna, erakutsi iezaguzu Aita, eta nahikoa dugu». Jesusek erantzun: «Hainbeste denbora zuekin, eta ez al nauzu ezagutzen, Felipe? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du. Nola diozu: “Erakutsi iezaguzu Aita”? Ez al duzu sinesten Ni Aitagan nagoela eta Aita nigan? Nik esaten dizuedana ez dizuet neure kabuz esaten. Nigan bizi den Aita da bere egintzak burutzen ari dena. Sinets iezadazue: Ni Aitagan nago eta Aita nigan. Besterik ez bada ere, sinetsi egintzengatik. Egi-egiaz diotsuet: Nigan sinesten duenak Nik egiten ditudan egintzak burutuko ditu berak ere, eta are handiagoak, Ni Aitagana bainoa».

“Keep calm” gure gizartean modan jarri den leloa da, halako umore puntu batekin, une zailetan lasaitasuna mantentzeko gonbita egiteko. Akidurak edo estresak erasotzen gaituenean, sarritan, arnasa sakon hartzea gomendatzen digute, belar-ur lasaigarriren bat hartzea, intsentsu apur bat piztea eta soseguzko jarrera hartzea. Horrek ez du inolako zerikusirik noski Jesusen metodoarekin. Gainera datorkion krisialdiaz jabetuta, Jaunak sosegu-mota desberdin bat sartu die bere ikasleei. Lehenengo giltzarria da, gure lekua Jesus dagoen tokian egotea dela, beraren oinatzei jarraitzea, ideia hori finkatzea, alegia. Kontua ez da eskatologikoa (geroko mundukoa) den etorkizuna soilik, ez da orainalditik erabat etenda dagoen etorkizuna; baizik eta osotasuneko biziak hemen bertan eta orain harrapatzen gaituela. Bigarren giltzarria da, sinestea Jainkoa ez dela erabat ezezaguna eta mundu honetaz kanpokoa, baizik eta beraren aurpegia Jesusen aurpegiaren eta egintzen bidez agertzen zaigula sinestea. Berak, bere proiektuan parte hartzera dei egiten digu. Eta hirugarren giltzarri bat eskaintzen digu: egiteko jartzen dizkigun lanak ez dira gureak eta ez datoz gure ahaleginetik; ireki egin behar dio bihotza Aitari eta gure bizitzan jardun dezan utzi. Logika horretan sartzen baldin bagara, ziur asko, patxada behin baino gehiagotan galduko dugu, baina bakean eta konfiantzaz beteta biziko gara.

Pazkoaldiko 5. astea

Antiguako Andre Maria

Santa Dominga, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 14, 5-18: Berri on hau adierazten dizuegu: utz ditzazuela idolo hutsalak eta bihur zaitezteela Jainko biziagana.

Sal 113: Ez guregatik, Jauna, baizik zeure izenaren ohoregatik erakutsi zeure ospea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14, 21-26.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Nire aginduak onartu eta betetzen dituenak, horrexek nau maite, eta Ni maite nauena nire Aitak maite izango du, eta Nik ere maite izango dut eta agertuko natzaio». Esan zion Judasek, ez Iskariotek, besteak baizik: «Jauna, zer dela-eta agertuko zatazizkigu guri eta ez munduari?». Jesusek erantzun zion: «Ni maite nauenak gordeko du nire hitza; nire Aitak maite izango du, eta Aita eta biok harengana etorriko gara eta harengan egingo dugu bizileku. Ni maite ez nauenak, ordea, ez ditu gordetzen nire hitzak. Eta entzuten duzuen hitza ez da nirea, bidali nauen Aitarena baizik. Zuekin naizen artean esan dizuet hau. Baina Aitak Laguntzailea, Espiritu Santua, bidaliko dizue nire izenean; hark irakatsiko dizue dena eta gogoraraziko Nik esan dizuedan guztia».

Pazkoaldiko bosgarren asteak, piztueraren esperientzia, Jesusen zerura igotzea eta Espirituari irekitzea, leun-leun giltzatzen dituen giltzarri moduan jokatzeko du. Gure ingurura begiratuta, guri ere oihartzun egin diezaguke Judasen galderak: «Jauna, zer gertatu da zu guri agertzeko eta ez munduari?». Beste era batera esanda: zein arrazoi misteriozengatik, guk Jesusen presentzia sentitu dugu eta beraren deia entzun dugu, baina beste hainbat jende, Jesus ezagutu nahi duen arren, zergatik ezin da iritsi fedea izatera? Gaiak irekita dirau, baina Jesusek zortea iradokitzen du erantzunean: Espiritua etorriko da zuei dena irakastera, Jesusekin topo egitea grazia soila dela guri gogoraraztera eta guri misiolaritzara eragitera, beste pertsona batzuek ere –behar bada gure lekukotzaren bitartez– berarekin topo egin dezaten.

Apostoluen Eginak liburutik 14, 19-28: Jainkoak beraien bidez egindako guztia azaldu zioten elkarteari. Sal 144: Zure adiskideek ager bezate, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14, 27-31a.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Bakea uzten dizuet, neure bakea ematen; Nik ematen dizuedan bakea ez da munduarena bezalakoa. Ez kezkatu, ez beldur izan. Entzun duzue esan dizuedana: “Banoa, baina itzuliko naiz zuengana”. Benetan maite baninduzue, poztuko zinatekete Aitagana noalako, Aita Ni baino handiagoa baita. Orain esan dizuet, gertatu baino lehen, gerta dadinean sinets dezazuen. Ez dut jadanik luze hitz egingo zuekin, bai baitator mundu honetako buruzagia. Horrek ez du nire gain ahalmenik; baina munduak jakin behar du Nik maite dudala Aita eta Aitaren agindua bete egiten dudala».

Jesusegandik bereizi beharra sumatzean, ikasleek beldurra eta tristura sentitzen dituzte. Oraindik ere oso urrun daude Jesusekin duten lotura ezerk ere ezin duela eten uste izatetik, lotura hori Jesusek berak sortu duelako eta Jesus bera delako lotura horren bermatzaile. Munduak proposatzen duen azaleko baretasunaren aurrean, Jesusek, eskuzabaltasun osoz, benetako bake iraunkorra ematen du, baina bake horren oinarria berari atxikirik bizitzea da. Nekaldiaren aurreko une hauetan, Jesusek, berak hautatutako eta berari eusten dion esanekotasun zaileko bidea eskaintzen die bere ikasleei «Nik Aita maite dut eta Aitak agintzen didana, egin egiten dut».

Pazkoaldiko 5. astea

San Joan Avilakoa, *apaiza*San Damian Molokaikoa, *apaiza eta aitorlea*

Apostoluen Eginak gutunetik 15, 1-6: Jerusalemera igo zitezela erabaki zuten, apostoluekin eta arduradunekin auzia argitzera.

Sal 121: Goazen pozik Jaunaren etxera.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15, 1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ni naiz egiazko mahatsondoa, eta nire Aita da nekazaria. Nigan fruiturik ematen ez duen aihena moztu egiten du Aitak, eta fruitu ematen duena garbitu eta kimatu, fruitu gehiago eman dezan. Zuek garbi zaudete dagoeneko, Nik adierazi dizuedan hitzari esker. Zaudete nigan, Ni zuengan bezala. Aihenak berez, mahatsondoan ez badago, fruiturik eman ezin duen bezala, zuek ere ez, nigan ez bazaudete. Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait nigan badago, Ni harengan bezala, hark fruitu asko emango du; Ni gabe ezin baituzue ezer egin. Nigan ez dagoena kanpora botatzen dute, ebaki eta ihartzen den aihena bezala; gero, bildu, sura bota eta erre egiten dute. Nigan bazaudete eta nire hitzak zuengan badaude, eskatu nahi duzuen eta izango duzue. Honetan azaltzen da nire Aitaren aintza: zuek, nire ikasle izanik, fruitu asko ematean».

Nazaretan hazi eta hezia izaki, Jesusek ezagutzen ditu eraikuntzaren arloa eta artzaintzarena, baina baita laborantzarena ere. Jakin badaki, mahasti orotan, nekazaria, mahatsondoa, aihenak eta mahats-aleak daudela hondoan. Bere ikuskapen eta esperientziatik hartutako datuetatik abiatuta, benetako mahatsondoaren ipuina eraiki du Jesusek, eta aparteko indarrez adierazi du berak eta ikasleek beren artean duten lotura. Harreman horrek mugimendu bikoitza du. Mugimendu horren baitan –hein batean pasiboa– dohaina onartze hutseko dinamika bat dago, Jesus beragan kokatuta “gelditzeko” dinamika, begiak beragan finkaturik gelditzekoa. Bigarren dinamikak –izugarri eragilea– lehenengoa egiaztatu eta osatu egiten du, baina fruitu asko ematera eragiten du. Bi ildo horiek erabat batzen dira benetako ikasleetan.

Apostoluen Eginak liburutik 15, 7-21: Ene iritiz, ez zaie alferreko oztoporik ezarri behar Jainkoagana bihurtzen diren jentilei. **Sal 95:** Zabaldu Jaunaren mirariak herri guztietan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15, 9-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Aitak Ni maite izan nauen bezala, halaxe maite izan zaituztet Nik ere zuek; irauin tinko nire maitasunean. Nire aginduak betetzen badituzue, nire maitasunean irauingo duzue, Nik ere, Aitaren aginduak bete ditudalako, haren maitasunean irauten dudan bezala. Hau esan dizuet nire poza zeuengan izan dezazuen, eta zuen poza bete-betea izan dadin».

Jesus, berarekin harremanak biziak eta benetakoak direnean, alaitasunaren bitartez ezagutzen da. Arau-sorta bat betetzeak gidatuta egiten den bizia berehala amaitzen da iharturik eta lehorturik. Jesusekin lotura izateak ez ditu ezabatzen aginduak, baizik beren funtsera laburbiltzen ditu: beraren maitasunean irautean datza dena, berak Aitarekiko maitasunean irauten duen moduan. Jesusen maitasunean irauteak, gure oinarriak beragan jartzea esan nahi du, Ebanjelioan geure bizilekua jartzea, beraren hitza gure eguneroko elikagai izatea, lotura hori arretaz eta iraukorki zaintzea, probaldietan eustea. Alaitasun sakona, askotan besteek gudan nabaritzen dutena, gure bilatze umil eta amaigabearen egiaztapen-irizpidea da.

Pazkoaldiko 5. astea

Santo Domingo Ozkabartekoa (de la Calzada, Errioxan),
erlijiosoa. San Nereo eta San Akileo, *martiriak*
 San Pankrazio, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 15, 22-31: Espiritu Santuak eta guk erabaki dugu zuei zamarik ez ezartzea, behar-beharrezko direnak izan ezik. **Sal 56:** Goretsiko zaitut, Jauna, herrien artean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15, 12-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar, Nik maite izan zaituztedan bezala. Ez du inork maitasun handiagorik, bere bizia adiskideen alde ematen duenak baino. Zuek nire adiskide izango zarete, Nik agindua betetzen baduzue. Aurrerantzean ez dizuet morroi deituko, morroiak ez baitu jakiten nagusiak zer egiten duen; zuei adiskide deitzen dizuet, neure Aitak jakinarazi didan guztia adierazi baitzuet. Ez ninduzuen zuek aukeratu Ni, Nik aukeratu zintuztedan zuek, eta eginkizun hau eman dizuet: fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela edonon; horrela, Aitari nire izenean eskatuko diozuen guztia emango dizue. Hauxe agintzen dizuet: maita dezazuela elkar».

Jesusek bere ikasleak beragan irautera gonbidatzea ez da noski halako erosotasun egoista batean atxikita edukitzeko, baizik eta errealitatea maitasunaren energiarekin eraldatzera bidaltzeko. Beragan dirauten pertsonak aihena indartsu bihurtzen dira eta fruitu ugari ematen dute munduaren bizirako. Alferrik da eta amets hutsa Jainkoa maite dugula pentsatzea, baldin eta harengandik jasotzen dugun maitasuna beste batzuekin partekatze prest ez baldin bagaude. Muin-muinean, Jesusek gauza bat baino ez du eskatzen –baina behin eta berriz eskatzen du–: «elkar maita dezazuela nik maite izan zaituztedan bezala». Zeren, aukeratzen duena bera baita, maitasunaren neurria berak ematen baitu, eta gure eginkizun bakarra beragan irautea baino ez da, «adiskide, lagun» deitzen utzi eta berak Aitagandik azaltzen diguna entzutea.

Pazkoaldiko 5. astea

Zeruko Andre Maria Fatiman agertua
San Andres Huberto Fournet, *apaiza*

Apostoluen Eginak liburutik 16, 1-10: Zatoz Mazedoniara eta laguniezaguzu. **Sal 99**: Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15, 18-21.

Aldi artan, Jesusek esan zien ikasleei: «Munduak gorroto badizue, jakizue zuei baino lehen niri izan didala gorroto. Mundukoak bazinete, munduak maite izango zintuzkete, nork berea maite duen legez; baina Nik aukeratu eta mundutik atera zintuztedanez, munduak gorroto dizue, mundukoak ez zaretelako. Gogoratu esan nizuena: morroia ez da nagusia baino handiago. Ni pertsegitu banaute, zuek ere pertsegituko zaituztete; nire hitza hartu badute, hartuko dute zuena ere. Nire izenagatik egingo dizuete hori guztia, bidali nauena ezagutzen ez dutelako».

Ikasleen bidean, alaitasuna, Maisuaren etorkizuna bere osotasunean partekatzean sortzen da. Alabaina, inor engaina ez dadin, Jesusek argi eta garbi ohartarazten ditu bere adiskideak alaitasun hori alaitasun zaila dela, kontraesan bezala. Pasarte honek, geure bizitzaren oinarriaz eta norabideaz geure buruari sakonki galdetzeko gonbita egiten digu. “Munduak” proposatzen dizkigun gauza atseginekin konformatzen al gara?, hau da, gure ni hori behin-behinekotasunez asebetetzen duen horrekin guztiarekin? Ala Jesusen alaitasun geroz eta handiagorantz irekiz goaz bizitzen? Jesusen hitzetik sortu eta beraren egintzak egitetik ernaltzen den alaitasun horrekin? Dena ondo badoakigu, jende guztiak garena garelako eta egiten duguna egiten dugulako zorientzen bagaitu, agian, kezkatzen hasteko garaia dugu.

Pazkoaldiko 6. astea
San Matias, *apostolua*

Apostoluen Eginak liburutik 8, 5-8. 14-17.

Egun haietan, Felipe Samaria hirira jaitsei eta Mesiasen berri ematen hasi zen. Felipek esaten zuena entzun eta egiten zituen mirariak ikustean, gogo batez onartzen zuen jendeak haren predikua; izan ere, deabrudun askorengandik ateratzen ziren espiritu gaiztoak deiadarka, eta elbarri eta herren asko sendatzen zen. Poz handia izan zuten hiri hartan. Jerusalemen zeuden apostoluek, Samariak Jainkoaren hitza onartu zuela jakitean, Pedro eta Joan bidali zituzten hara. Iritsi zirenean, bertakoen alde otoitz egin zuten, Espiritu Santua har zezaten. Izan ere, artean haietako inorengana jaitsei gabe zegoen Espiritua; Jesus Jaunaren izenean bataiatuak baizik ez zeuden. Orduan, Pedrok eta Joanez eskuak ezarri zizkieten buruan eta Espiritu Santua hartu zuten.

Sal 65: Lur osoa, egiozu irrintzi Jainkoari.

San Pedroren 1. gutunetik 3, 15-18.

Senide maiteok: Gora ezazue Jauna, Kristo, zeuen bihotzean, eta egon beti prest zeuen itxaropenaren arrazoia emateko eskatzen dizueten guztiei; baina egizue apaltasunez eta begirunez, kontzientzia garbiz jokatu. Horrela, kristau bezala duzuen jokabide onaz gaizki esaka ari direnak lotsatu egingo dira zuen kontra esaten dutenaz. Hobe da, izan ere, Jainkoak hala nahi izanez gero, ongi egiteagatik sufritzea, gaizki egiteagatik baino. Kristok heriotza jasan zuen bekatuengatik behin betiko, errugabeak errudunengatik, zuek Jainkoagana eramateko. Gizakia zenez, heriotza jasan zuen, baina bizia hartu zuen berriro Espirituagandik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 14, 15-21.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Maite banauzue, beteko dituzue nire aginduak. Nik Aitari eskatuko diot, eta beste Laguntzaile

Pazkoaldiko 6. astea
San Matias, *apostolua*

bat emango dizue, beti zuekin egon dadin, egiaren Espiritua. Munduak ezin du hartu, ez baitu ikusten, ez ezagutzen; zuek, ordea, ezagutzen duzue, zuengan bizi baita eta zuekin egongo betiko.

Pazkoaldia berriro ere bere gailurrerantz aurreratzen ari da eta aldi berean Espirituaren agintzaria agertzen da. Prestatu beharra dago halako Jesusen hutsune bati aurre egiteko. Lehenengo kristau-elkarteak paradigma-moduan bizi izan zuen espiritu-esperientzia hori, baina sinestun oro dago bere bizitzan halako zerbait egitera deitua. Jesus piztuak ez gaitu bakarrik utzi, ez eta umezurtz ere; senide nagusia dugu bera eta Aitagana itzuli da eta gu berarekin eraman nahi gaitu. Hala ere, ezin dugu ikusi eta ezin dugu ukitu, fedea argitutako zentzumenekin ez bada, eta saihestezina den tarte hori, nahasgarria eta mingarria suertatzen da batzuetan. Espiritu Santua, Jesusen eta Aitaren arteko batasun hori, Semearen lurreko bizitzako urteetan mantendu duen betiereko maitasunaren lotura hori, guri ere doan eman digu Jesusek berarekin dugun loturari eusteko, bera bitarteko dela eta itxurazko tarte gorabehera. Jesusek Espirituari «paraklito» deitzen dio, abokatu, bitartekari, kontsolatzaile, alegia. Munduan egoera asko daude itxaropena galaraz diezaguketenak: Espiritua zentzugabekeriatik defendatzera datorkigu eta gaizkiak azken hitza izango duen ustetik babestera. Baina geure espiritu-bizitzan ere, batzuetan gaua nagusitzen zaigu: Espirituak jarriko digu geure bihotzean kontsolamenduaren eztingarria eta fedea garra bitzituko digu.

Pazkoaldiko 6. astea

San Isidro, *nekazaria*

Santa Joana Lestonac-ekoa, *fundatzailea (Mariaren Lagundia)*

Apostoluen Eginak liburutik 11, 11-15: Jaunak bihotza ireki zion, Pauloren hitzak gogoz onar zitzan. **Sal 149:** Maite du Jaunak bere herria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 15, 26–16, 4a.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Nik Laguntzailea, jatorria Aitagari duen egiaren Espiritua, bidaliko dizuet Aitagandik. Hark, etortzean, aitormen egingo du nire alde. Eta zuek ere egingo duzue aitormen, hasieratik nirekin baitzaudete. Zuen sinesmenak huts egin ez dezan esan dizuet hau. Zeren eta judu-elkartetik bota egingo baitzaituztete; are gehiago, badator ordua, zuek hilko zaituztenak Jainkoari kultu ematen diola uste izango duena. Eta horrela jokatuko dute, ez Aita, ez Ni, ezagutu ez gaituztelako. Aurrez esaten dizuet, hori gertatzean esana nizuela gogora dezazuen».

Jesulentzat Espiritua ez da izaki abstraktua, baizik eta presente dagoen izakia, lekukotza irazekitzen duen bizi-hatsa eta Jaunarekin partekatutako biziaren oroimena pizten duena. Zailtasun-uneetan edo lehorraldietan, oso zaila da zutik irautea. Baina Jainkoak ez dizkigu gure gaitasuna gainditzen duten balentriak eskatzen, alderantzira baizik: arrazoi desberdinak tarteko balantza egiten dugunean, edo Ebanjelioaren astuntasuna sentitzen dugunean eta fideltasuna garestia denean, Jainkoak berak eusten digu Espirituaren indarrez. Berak egiten gaitu gai fedean umil bezain sendo irauteko, eta Jesusen oinatzan atzetik hasitako bideak zentzua eta helmuga badituela gogorarazteko.

Apostoluen Eginak Liburutik 16, 22-34: Sinetsi Jesus Jaunagan, eta salbatuko zarete zu eta zure etxeokak. **Sal 137**: Zeure eskuinez salbatzen nauzu, Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16, 5-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Orain, bidali ninduen Aitagana noa, eta zuetako inork ez dit nora noan galdetzen. Baizik eta hori esan dizuedalako, tristurak bete du zuen bihotza. Hala ere, egia diotsuet: hobe da zuentzat Ni joatea; izan ere, joaten ez banaiz, ez zaizue etorriko Laguntzailea. Joaten banaiz, ordea, bidali egingo dizuet. Hura etortzean, agerian jarriko du munduaren errua bekatuari, zuzentasunari eta epaiari buruz: bekatuari buruz, nigan sinesten ez duelako; zuzentasunari buruz, Aitagana noalako, eta ez nauzue gehiago ikusiko; epaiari buruz, mundu honetako buruzagia jadanik gaitzetsia dagoelako».

Jesusen hitzak itxaropen sakonez blai eginda daude, baina ikasleek berehala datorrela sumatzen dute harengandik bereizi beharra, eta horrek eragindako tristuraz beterik ageri dira. Ez dute Jesusen hitza atzematea lortzen: «Komeni zaizue ni joatea»; gogorra izaten da sakonki maite dugun batengandik mezu hori entzutea. Jesusekiko kontaktu fisikoak, espazioan eta denboran mugatua denak, den-dena hartzen duen Espirituaren presentziari utziko dio lekua. Espiritu horren etorrerak agintzari harrigarria du bere baitan: Espirituak bere betera eramango du Jesusek hasitako egintza, eta mundua bekatuaren ilunpean sartzen duen guztia ezabatzea lortuko du.

* San Andres Bobola, *apaiza, martiria, jesuita*
San Ubaldo, *martiria*
Santa Gema Galgani, *birjina*

Pazkoaldiko 6. astea

San Paskoal Bailon, *frantziskotarra*

Apostoluen Eginak liburutik 17, 15.22-18, 1: Zuek ezagutu gabe gurtzen duzuen, horixe iragartzen dizuet nik. Sal 148: Zerulurrak beterik dauzka zure distirak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16, 12-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gauza asko dut oraindik zuei esateko, baina oraingoz ez zarete gai ulertzeko. Halere egiaren Espiritua etortzean, hark gidatuko zaituzte egia osoraino. Ez da bere kabuz mintzatuko, baizik eta entzungo duena esango dizue eta etorkizuna iragarriko. Hark nire aintza azalduko du, adieraziko dizuen niretik hartuko baitu. Aitak duen guztia nirea da; horregatik esan dizuet Espirituak niretik hartuko duela adieraziko dizuen».

Joanen ebanjelioak bost kapitulu luzetan bildu ditu (oinak garbitzetik atxilotze-uneraino) Jesusek bere ikasleei emandako irakaspen ugariak. Lehenengo kristau-elkarte hura ez zen gai Jesusen mezua berehala irensteko; areago, leku bat hutsik uztera gonbidatua sentitu zen, misterioaren ezagutzan Espiritua apurka-apurka sartzen joan zedin. Belaunaldiz belaunaldi, Espirituak lan bera egiten jarraitzen du Elizaren bihotzean eta sinestedun bakoitzarengan. Jesusen hitzak eguneratu, gure esperientzian oihartzun izan daitezten lortu, egungo munduarekin elkarrizketan jarri eta beste pertsona batzuei transmititzeko modua aurkitu. Apurka-apurka, batzuetan itsumustuka bada ere, Espirituak egia oso eta beterantz gidatzen gaitu.

Apostoluen Eginak liburutik 18, 1-8: Haiekin gelditu zen bizitzen eta lanean, eta sinagogan eztabaidan jarduten zuen. **Sal 97**: Agertu du Jaunak nazioen aurrean beragandiko garaipena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16, 16-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Denbora gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira ikusiko nauzue berriro». Ikasleetako batzuek hau zioten elkarren artean: «Zer ote da esaten digun hau: “Denbora gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira ikusiko nauzue berriro”, eta “Aitagana noa”? Zer esan nahi ote du horrako “gutxi barru” horrekin? Ez diogu antzik ere ematen zertaz ari den». Konturatu zen Jesus galdegin esan ziotela, eta esan zien: «Eztabaidan ari zarete zeuen artean esan dizuedan honetaz: “Denbora gutxi barru ez nauzue ikusiko, baina handik gutxira ikusiko nauzue berriro”. Egi-egiaz diotsuet: Negar egingo duzue eta aieneka egongo zarete; mundua, berriz, poztu egingo da. Zuek triste egongo zarete; baina zuen tristura poz bilakatuko da».

Pazko-gertakarietan sartzear daudela, ikasleak txundituta gelditu dira Jesusek bere bereizketaz edo banaketaz esandako hitz misterioetsuekin: «Ez dugu ulertzen esaten duena». Haientzat, Jaunari jarraitzen hainbeste denbora daramatenentzat, beragandik «apur bat» urruntzeak, ziur aski, «asko» esan nahi du. Harremanetan, fede-bizitzan bezalaxe, badira hutsuneak hutsik iraun behar izaten dutenak beren emankortasuna agertzeko, badira malkoek duten sekretua entzuteko beren zurrumurrua harrapatu behar zaienak. Espiritu-menturak ez ditu distantziak aurrezten, ez eta isiltasunak edo gau ilunak ere, baina gure ahaleginetik ez datorren alaitasuna agintzen digu eta hori ezerk eta inork ez digu kenduko.

Pazkoaldiko 6. astea

San Zelestino V.a, 192. aita santua

San Frantzisko Coll, *apaiza eta fundatzailea**(La Anunciata-ko moja domingotarrak)*

Apostoluen Eginak liburutik 18, 9-18: Nire herri izango den jende asko dut Nik hiri honetan. Sal 46: Jainkoa da mundu osoaren errege.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16, 20-23a.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Negar egingo duzue eta aieneka egongo zarete; mundua, berriz, poztu egingo da. Zuek triste egongo zarete; baina zuen tristura poz bilakatuko da. Emakumea, erditzerakoan, triste egon ohi da, ordua etorri zaiolako; haurra izan ondoren, ordea, ahaztu egiten da larrialdiaz, munduari gizaki bat jaio zaiolako pozik. Zuek ere triste zaudete orain; baina agertuko natzaizue berriro, eta poztuko zarete, eta zuen poza ez dizue inork kenduko. Egun hartan ez didazue ezer galdetuko».

Jesusi bere benetako gizatasunak aukera eskaintzen dio pertsonok nabaritzen ditugun emozio guztiak sakonki ezagutzeko. Ebanjelioetako atal desberdinetan, alaitasunaren zantzuak aurkitzen ditugu: emakumea eta artzaina poztu egin dira galdu dutena berreskuratu dutenean, ikasleek ez dute baraurik egin behar aurpegi tristea jarrita, Jesusek berak bedeinkatzen du Aita, pozez beteta, bere sekretuak jende xumeari agertu izanagatik. Tristura ere ezaguna da Jesusek eta negar egiten du Naimgo alargunagatik eta bere adiskide Lazarogatik. Orain bada, bere adiskideetatik bereizteko orduan, Jesusek sentimendu sakonak agertzen dizkie eta haiek artean ulertu ezin duten itxaropen berri batez betetzen ditu: «Itzuliko naiz zuek ikustera, zuen bihotzak poztuko dira eta inork ez dizue zeuen alaitasun hori kenduko».

Pazkoaldiko 6. astea

San Bernardino Sienakoa, *apaiza*, *frantziskotarra*

Apostoluen Eginak liburutik 8, 23-28: Liburu Santuen bidez, Jesus zela Mesias frogatu Apolok. Sal 46: Jauna da mundu osoaren errege.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16, 23b-28.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Aitari zerbait nire izenean eskatzen badiozue, emango dizue. Orain arte ez diozue ezer eskatu nire izenean. Eskatu eta hartuko duzue, zuen poza bete-betea izan dadin. Orain arte irudi bidez hitz egin dizuet; baina badator ordua irudi bidez hitz egingo ez dizuedana, baizik eta argi eta garbi emango dizuet Aitaren berri. Egun hartan nire izenean eskatuko duzue, eta ez dizuet esaten Nik Aitari zuen alde eskatuko diodala; zeren Aitak berak maite baitzaituzte, zuek Ni maite izan nauzelako eta Jainkoagandik etorri naizela sinetsi duzuelako. Aitagandik irten eta mundura etorri nintzen; orain mundua utzi eta Aitagana noa berriro».

Bere adiskide eta lagunetatik apartatu aurretik, Jesusek, berarekiko duten harremanen egirik sakonenean bermatu nahi ditu. Egia da noski batek saldu egingo duela, beste batek ukatu eta gainerakoek bakarrik utziko dutela, baina egintza horietatik ezerk ez du osatzen bere historia partekatua muina. Egia da halaber piztuaren ondoren, lehenengo kristauek mila aldiz estropezu egingo dutela eta Elizak ere mendeetan zehar hanka sartzen jarraituko duela, baina ematen du, Jesusek, hori guztia kontuan hartua duela, eta bere ikasleen oroimenean ondo sartu nahi duena da, elkarlotzen dituen maitasuna eta beragan jarri duten konfiantza: «Zuek maite nauzue eta ni Jainkoagandik irtena naizela sinesten duzue». Esperientzia horretatik abiatuta, etorkizun oro gertagarria da, Jaunak Aitari gugatik erregutzen diolako eta Aitak berak ere maite gaituelako.

Apostoluen Eginak liburutik 1, 1-11.

Teofilo maitea: Neure lehenengo liburuan, hasieratik zerura jasoa izan zen eguna arte Jesusek egin eta irakatsi zuen guztia idatzi nuen. Zerura igo aurretik, Espiritu Santuaren eraginez aginduak eman zizkien berak aukeratutako apostoluei. Jesus apostoluei agertu zitzairen bere nekaldiaren ostean eta bizirik zegoeneko froga asko eman zien, berrogei egunez bere burua ikustera emanez eta Jainkoaren erreinuaz hitz eginez. Haiekin bazkaltzen ari zen batean, hau agindu zien: «Ez alde egin Jerusalemdik. Zaudete han Nik Aitaren partetik egin dizuedan agintzaria bete zain. Joanek urez bataiatu zuen; baina zuek Espiritu Santuaz izango zarete bataiatuak egun gutxi barru». Orduan, bildurik zeudenek galdegin zioten: «Jauna, orain ezarriko al duzu berriro Israelgo erreinua?». Jesusek erantzun zien: «Aitak bakarrik du hori erabakitzeko ahalmena, eta ez dago zuen esku zein aldi edo unetan gertatuko den jakitea. Baina zuen gain jaitziko den Espiritu Santuaren indarra hartuko duzue, eta nire lekuko izango zarete Jerusalemen, Judea osoan, Samarian eta lurraren azken mugaraino». Hori esanik, gorantz igo zen Jesus haien begi aurrean, hodei batek begietatik ezkutatu zien arte. Oraindik zerura nola zihoan begira-begira zeudela, zuriz jantzitako bi gizaseme azaldu zitzaizkien ondoan, eta esan zieten: «Galilearrok, zertan zaudete hor zerura begira? Zuen ondotik zerura igo den Jesus hori, zerura joaten ikusi duzuen bezalaxe etorriko da berriro».

Sal 46: Oihu alaien artean igo da Jainkoa, turuta-soinuz Jauna.

San Paulok Efesoarrei 1, 17-23.

Senideok: Jesu Kristo gure Jaunaren Jainkoak, aintzaren Aitak, eman diezazuela Espirituaren jakinduria eta goi-argia, bera ezagutzeko. Argi ditzala zuen barruko begiak, jakin dezazuen zer itxarotera dei egin dizuen, zein aberatsa den fededunentzat oinordekotzan prestatua

duen aintza eta zein handia den sinesten dugunon alde erabiltzen duen ahalmena. Ahalmen eta indar hori Kristogan erakutsi zuen Jainkoak, berau hilen artetik piztu eta zeruan bere eskuinaldean eserarazi zuenean. Jainkoak aginte, botere, indar eta nagusigo ororen gainetik ezarri du Kristo, eta mundu honetan ez ezik, datorren munduan ere aipa daitekeen izen ororen gainetik. Dena jarri du Jainkoak Kristoren oinazpian, eta berau ezarri du denen gainetik Elizaren buru. Haren gorputza da Eliza, unibertsoa erabat betetzen duen Kristok betea.

Jesu Kristoren Ebanjelioaren bukaera San Mateoren liburutik 28, 16-20.

Aldi hartan, Hamaika ikasleak Galileara joan ziren, Jesusek adierazi zien mendira. Ikusi zutenean, gurtu egin zuten; batzuko ordea, zalantzan zeuden. Jesus, hurbildurik, honela mintzatu zitzairen: «Aginpide osoa eman dit Jainkoak zeru-lurretan. Zoazte, bada, eta egin herri guztiak nire ikasle, Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean bataiatuz, eta Nik agindu dizuedan guztia betetzen irakatsiz. Eta Ni zeuekin izango nauzue egunero munduaren azkena arte».

Jesus zerura igotzearen kontakizunek xehetasun garrantzitsuak azaltzen dituzte lehenengo kristau-elkarte haren fede-bidea ulertzeko. Badirudi, ikasleek oraindik ere ez dutela ulertu mezuaren muina zertan datzan: «Orain berrezarri behar al duzu Israelgo erreinua?», galdetu diote. Oraindik ere beren Maisuaren proiektua berek ezagutzen dituzten kodeen barruan sartzea itxaro dute, eta, Jesus piztuarekin topo egin duten arren, ez dira gai sentitzen Erreinuaren berritasunera erabat irekitzeko. Gainera, zeinu asko ikusi dituzten arren, beren fedeaz ez dago sendotuta: Jesusekin izan zuten azken topaketan, «haiek makurtu egin ziren baina batzuek zalantzak zituzten». Jesus piztua ez da hasten haien jokabideak gaitzesten edota azalpenak ematen: misioaren garaia da, bideetara irten eta arreta ezerekin ez gaitzeko

garaia. Bidali modura bizitzen hasten direnean soilik joango dira ikusten, Jesusek, beren artean dirauela, egunero, munduaren azkena arte eta beren botereak edo ahalmenak mirariak egiten dituela beren keinu eskasen bitartez eta gauza zoragarriak iragartzen dituztela beren hitz baldarren bidez. Baina ikasle horiek, eta haiekin batera guk ere, Espirituaren indarraren beharra dugu oraindik, mundu zaurituaren bila geure mugetatik irteteko.

* * *

Gaurko ebanjelioko pasarte honetan bete-betean agertu du Jesusek bere burua, nor den: «Aginpide osoa eman dit Aitak», eta beren misio edo zeregina agertu die ikasleei: mundu osoari berak eman dien irakaspenaren berri eman eta guztiak Jesusen jarraitzaile egin. Ikasleak Galileara joan dira, Jesusek eskatu zien bezala; baina paraje berezi batean elkartu ditu: zeruetako erreinua hots egiten hasi zen toki berean. Artean zalantzan daude batzuk. Baina berekin izango dutela hitzeman die Jesusek. Bestalde, konpara ditzagun Mt 10, 5-15 eta gaurko pasartea; han, Israel herriari bakarrik hots egin behar zioten berri ona; hemen, herri guztiak egin behar dituzte Jesusen ikasle. Jesusen bi agindu horien artean, Mateorentzat, gauza handi bat gertatu da: Israel herriak uko egin dio Jesusi; horregatik, beste herri bati eman zaio erreinua. Azkenik, Mateoren kristau-elkartean kristau-hastapena nola egiten zuten ageri da: Jesusen irakatsien berri eman eta bataiatu. Gogoan hartzekoa da, era berean, ebanjelioa misio edo bidaltze handi horrekin bukatu izana; Kristoren Eliza, hau da, kristau bakoitza, misiolaria dela esan nahi du. Horretarako, geurekin izango dugu beti Jesus geure Jauna.

Apostoluen Eginak liburutik 19, 1-8: Hartu al zenuten Espiritu Santua, sinetsi zenuzue? Sal 67: Munduko erreinuak, kanta Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 16, 29-33.

Aldi hartan, ikasleek esan zioten Jesusi: «Orain bai argi hitz egiten duzula, eta ez irudi bidez. Orain badakigu dena dakizula eta ez duzula inork galdetu beharrik; horregatik sinesten dugu Jainkoagandik etorri zarela». Jesusek erantzun zien: «Orain sinesten duzuela? Hara, badator ordua, hobeki esan, etorria da, nor bere aldetik joanez sakabanatu eta Ni bakarrik utziko nauzuen ordua. Baina Ni ez nago bakarrik, neurekin baitut Aita. Hau esan dizuet, nigan bakea izan dezazuen. Izango duzue larrialdirik munduan; baina izan adore, garaitu dut Nik mundua».

Aste honetako irakurgaiek eginkizun bikoitza dute. Batetik, «Kristo gure Jaunak dakarren kontsolamendu-ofizioari» begiratzera gonbidatzen dute, eta, bestetik, Espiritu Santuaren berehalako etorrerarentz bideratzen dute arreta. Jauna zerura igotzearekin ohi ez bezalako pitzadura irekitzen da beraren eta beraren lehen ikasleen artean, Elizak berak eta sinestedunotako bakoitzak bizi dugun berbera. Jesusekiko gure harremanak ez daude zentzumenetan ainguratua eta ezin da oinarritu ikusten edo ukitzen dugunagan, baina beraren presentziaren faltarik ere ez dugu eta hortik datorkigu geure poza. Jaunak, jarraipena erraza izango dela agintzen ez digun arren, ziurtatu digu berak mundua garaitu duela eta gure bakea dela, borrokek eta gatazkek markatutako misio baten erdian.

Pazkoaldiko 7. astea

San Desiderio, *gotzaina*

Santa Almerinda, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 20, 17-27: Neure ibilaldia burutu eta Jesus Jaunak eman didan egitekoa bete behar dut. **Sal 67:** Munduko erreinuak, kanta Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17, 1-11a.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta esan zuen: «Aita, iritsi da ordua. Ager ezazu zeure Semearen aintza, Semeak zure aintza ager dezan. Gizon-emakume guztien gain aginpidea eman diozunez gero, betiko bizia eman diezaiela Zuk berari emandakoei. Hau da betiko bizia: Zu, egiazko Jainko bakar hori, eta Zuk bidalitako Jesus Mesias ezagutzea. Nik zure aintza agertu dut munduan, Zuk eman zenidan egitekoa betez. Orain, Aita, emadazu aintza zeure ondoan, eman mundua mundu izan baino lehen zure ondoan nuen aintza. Agertu diet zure izena mundutik bereizi eta eman zenizkidan gizon-emakumei. Zeureak zenituen, Zuk niri eman zenizkidan, eta haiek onartu dute zure hitza. Badakite orain Zuk eman didazun guztia zugandik datorrela. Zuk niri eman zenizkidan hitzak eman dizkiet Nik, eta haiek onartu dituzte. Eta benetan jakin dute zugandik atera nintzela, eta sinetsi Zuk bidali ninduzula. Hauen alde erregutzen dizut; ez dut munduaren alde erregutzen, Zuk eman dizkidazunon alde baizik, zureak direlako. Bai, dudan guztia zurea da eta Zuk duzuna nirea, eta hauengan agertu da nire aintza. Ez naiz aurrerantzean munduan egongo; hauek, bai, munduan jarraituko dute. Ni, berriz, zugana noa».

Pazkoaldiko 7. astea

San Desiderio, *gotzaina*Santa Almerinda, *martiria*

Laugarren ebanjelioan, Jesus Aitaren agertzaile moduan aurkeztua da eta berarekin hain estuki lotua, non bere izate guztia libreki haren borondatea betetzeko jartzen baitu. Bidali moduan, Jesusek mundura egiteko ekarri duen misioa edo eginkizuna bete du, eta Aitagana itzuli da agindutako eginkizuna bete eta burutu ondoren. Joanen ikuspegitik, Jesusen bizitza osoa aintzazko bizitza izan da eta, osperik handiena, paradoxa den arren, gurutzeko umilazio gorenean lortu du. Pasarte hau Igokundearen ondoren irakurtzeak haragia hartu duen Semeak egindako ibilbidearen koherentzia sakona aitortzeko gonbita egiten digu eta geure bizitzako ibilbidea bera ere harenari atxikitzekoa, beraren hitza bete eta gorde nahi duten pertsonen artean zenbatuak izateko gurari umilarekin.

* * *

Bataioa dela bide guztiok espiritudun, guztiok ebanjelizatzaile

«Bataiatu guztiengan, lehenengotik azkeneraino, ari da Espirituaren indar santutzailea ebanjelioa hots egitera eraginez. (...) Jainkoak fededun guztiei ematen die fedearen sena –sensus fidei delakoa–; horrek laguntzen die bereizten egiaz Jainkoagandik datorrena. Espirituaren presentzia horrek jainkozko errealitateekiko nolabaiteko berezkotasuna ematen die kristauei, baita jakinduria ere beroriek intuitiboki atzemateko, zehatz adierazteko baliabide egokirik ez badute ere». (*Frantzisko aita santuak, in Evangelii Gaudium 119*)

Pazkoaldiko 7. astea

Stradako Andre Maria, jesuiten ama-elizan:

Gesù elizan Erroman.

Apostoluen Eginak liburutik 20, 28-38: Jainkoaren eskuetan uzten zaituztet; hark badu ahalmen eraikitzeko eta oinordekotza emateko. **Sal 67:** Munduko erreinuak, kanta Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17, 11b-19.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta honela egin zuen otoitz: «Aita santu horrek, zaindu itzazu zeure ahalmenaz Zeuk eman dizkidazunok, bat izan daitezen Gu Geu bat garen bezala. Hauekin izan naizen bitartean, Nik zaindu ditut zeure izenean eman dizkidazunok. Hauen ardura izan dut eta ez da bat ere galdu, galdu behar zuena baizik; horrela, Liburu Santuek diotena bete da. Orain, ordea, zugana noa. Oraindik munduan nagoela esaten dut hau guztia, nire poza berengan izan dezaten, eta bete-betea izan dezaten. Zure hitza eman diet Nik; baina munduak gorroto die, mundukoak ez direlako, Ni ere mundukoa ez naizen bezala. Ez dizut eskatzen hauek mundutik ateratzeko, Gaiztoagandik gordetzeko baizik. Ez dira mundukoak, Ni ere mundukoa ez naizen bezala. Sagara itzazu egiaren bidez; zure hitza da egia. Ni mundura bidali ninduzun bezala, Nik ere mundura bidali ditut. Eta hauengatik sagaratzen dizut neure burua, hauek ere sagara ditzazun egiaren bidez».

Espirituaren garaia, burutzapen- eta bidaltze-garaia da. Jesusek, bere adiskideak inoiz ere limurtu ez dituenak, jakin badaki ikasleek eta adiskideek gaizkiari aurre egin beharko diotela; aurre egin, alegia, «mundu» izenarekin laugarren ebanjelioan Jainkoaren proiektuaren aurkakoak diren indar horiei guztiei. Eta mundu honetatik Aitagana igaro baino lehen, Jesusek otoitz egin du bere ikasleen alde, eta bere bitartekotza eskaini du haien alde samurki eta kontu handiz: «Haiekin egon nintzenean, nik zure izenean ondo gorde nituen eman zenizkidanak eta zaindu egin nituen». Jaunaren bitartekotza eta erregu horretan aurkitzen da gutako bakoitza, eta bera egunero ahalegintzen da inor ez galtzen. Beraren oinatzen atzetik joanez eta Espirituaren indarrarekin, sinets liteke munduan iraun daitekeela eta bera eralda daitekeela gaizkiak harrapatuta gelditu gabe.

Apostoluen Eginak liburutik 22, 30; 23, 6-11: Erroman ere nire testigu izan behar duzu. **Sal 15:** Zaindu nazazu, Jauna, babes bila bainator zugana.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 17, 20-26.

Aldi hartan, Jesusek begiak zerura jaso eta honela egin zuen oitotiz: «Aita santu hori, ez dut erregutzen hauen alde bakarrik, baita hauen hitzaren bidez nigan sinetsiko dutenen alde ere. Egizu denak bat izan daitezela. Aita, Zu nirekin eta Ni zurekin biok bat garen bezala, hauek ere bat izan daitezela gurekin, munduak sinets dezan Zuk bidali nauzula. Zuk eman zenidan aintza bera eman diet Nik, bat izan daitezen, Gu biok bat garen bezala: Ni hauekin bat eta Zu nirekin bat. Horrela guztiz bat izango dira, eta munduak ezagutu ahal izango du Zuk bidali nauzula eta Ni maitatu nauzun bezala maitatu dituzula hauek ere. Aita, Zuk eman dizkidazunak Ni nagoen tokian nirekin egotea nahi dut, nire aintza, mundua izan baino lehen maite izan nauzulako eman didazun aintza, ikus dezaten. Aita zuzen hori, munduak ez zaitu ezagutu; Nik, ordea, ezagutu zaitut, eta hauek jakin dute Zuk bidali nauzula. Jakinarazi diet zure izena, eta aurrerantzean ere jakinaraziko, Zuk niri didazun maitasuna hauengan izan dadin, eta Ni ere hauengan izan nadin».

Jesus Aitari hain lotua sentitzen da, Hirutasunaren elkartean barruan gizateria osoa jarri nahi duela. Beraren asmoa ez da mugatzen lurrean jarraitu dioten ikasle haietara, baizik eta zabaldu egiten da lehenengo lekuko haien iragarpenekin sinestera iritsiko diren hainbat eta hainbat pertsonarengana. Maitasuna dinamika barne hartzaile horren bidez adierazten du eta ez da konformatzen gutxi batzuk besarkatzearekin eta ez du atsedunik hartzen pertsona bakar bat urrun

* San Beda Agurgarria, *apaiza eta eliz irakaslea, beneditarra.*
San Gregorio VII.a, *aita santua, beneditarra*
Santa Maria Magdalena Pazzi-koa, *birjina*

Pazkoaldiko 7. astea

Santa Bizenta Maria Lopez Bikuña

*(Kaskante 1847-Burgos 1890), birjina, fundatzailea**(Maria Sortzez Garbiaren Erlijosak,**

edo kanpoan dagoen arte: «Denak bat izan daitezela». Hirutasunaren elkartearen irudiko, begi sakonena du besteak ere bere baitan nork bere burua bezala ikusteko. Gu ere deituak gaude ezberdintasunak barneratu eta batasun sortzaile bat lantzerantz guztiekin gozatzeko.

* * *

Bizenta Maria Lopez Bikuña

Bizenta Kaskanten (Nafarroa) jaio zen 1847-03-22an. Familia kristau eta konprometitan jaio eta hezi zen. Bazuen izeba bat Madrilen, premium zirenekiko txit arduratsua. Kontuan hartu zuten hori gurasoek Bizenta Madrilera bidaltzean heziketa jarraitzeko.

Gaztaroko lehen urteak bilatze-urte izan zituen. Izebak harreman handiak zituen Kristau Dotrinaren Kongregazioarekin, eta Bizentak lagun egiten zion etxe-zerbitzuko neska edo neskame gazteen alde egindako ekintzetan; bere bidea hautatzeko laguntza izan zuen hori.

Gurasoei kasu eginez, izebak ezkontzearena aipatu zion batean, erantzun hau jaso zuen: «izeba, ez Errege batekin, ez santu batekin». Hautatua zuen, beraz, bere bidea bihotzean. Aipatu gazte horiei nola lagundu iraultzen hasi zen bere buruan. Horretarako etxe batean beharra otu zitzaion, eta 1853an «La Casita» izendatu zuen solairua aukeratu zuen. Gogo Jardunak 1868an egin ondoren, argiago ikusi zuen bere bidea, eta 1876an abian ipini zuen bere Institutua.

Karitatea ipini zion horizonte bakartzat. «Ezerk ez dit atseginik ematen, zuek karitatearen suan sutan ikusteak adina» esan ohi zien bere institutuko kideei. Heriotza gainean zuela jabetu eta neskatilak gogoan zituela, esan zien: «Gomendatu nahi dizuet, nire heriotzagatik ez dezazuela eten neskatiilen jaitxo bakar bat ere, nire gorpua presente bada ere».

* San Beda Agurgarria, *apaiza eta eliz irakaslea, beneditarra.*
San Gregorio VII.a, *aita santua, beneditarra*
Santa Maria Magdalena Pazzi-koa, *birjina*

Pazkoaldiko 7. astea

San Felipe Neri, *fundatzailea (Oratoriokoak)*

Apostoluen Eginak liburutik 25, 13-21: Hila den eta Paulok bizi dela dioen Jesus. Sal 102: Jaunak zeruan ezarri du bere aulkia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21, 15-19.

Jesusek, ikasleei agertu eta haiekin gosaldu ondoren, esan zion Simon Pedrori: «Simon, Joanen semea, hauek baino maiteago al nauzu?». Hark erantzun: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala». Jesusek, orduan: «Bazka itzazu nire bildotsak». Bigarrenez galdetu zion Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite al nauzu?». Hark erantzun: «Bai, Jauna, badakizu maite zaitudala». Jesusek, orduan: «Zaindu itzazu nire ardiak». Hirugarrenez galdetu zion Jesusek: «Simon, Joanen semea, maite al nauzu?». Pedro goibeldu egin zen maite al zuen hirugarrenez galdetu ziolako, eta erantzun zion: «Jauna, Zuk dena dakizu; Zuk badakizu maite zaitudala». Orduan, Jesusek esan zion: «Bazka itzazu nire ardiak. Bene-benetan diotsut: gazteago zinenean, zeuk lotzen zenuen gerrikoa eta nahi zenuen tokira joaten zinen; zahartzean, ordea, zuk besoak luzatu eta beste batek lotuko dizu gerrikoa eta nahi izango ez duzun tokira eramango zaitu». Horrela, zer-nolako heriotzaz Jainkoari aintza emango zion adierazi zuen Jesusek. Ondoren, esan zion: «Jarraitu niri».

Oroimen zaurituak galgatu egiten du bizitzaren zabalkuntza; horregatik da hain garrantzitsua saneamendu-prozesuak egitea, iragana integratu eta etorkizun berriei irekirik bizitzeko. Jesus piztuak behar adina denbora ematen dio Simon Pedrori bere jarraipenaren historia berriro aztertzeko. Asko maitatu du Jesus, Maisuaren bizitzan giltzarri izan diren uneen lekuko izan da, bizia beraren alde ematea ere agindu du eta, azkenean, huts egin du, besteek bezalaxe. Litekeena da tristorak, harrokeria zaurituak eta bere buruagan duen konfiantzaz gabeziak jokaldi txar bat jokarazi izana. Eta hortxe, itzulerarik gabeko bere uko hirukoitzaren puntuan, Jesusek misioa berriro ere hiru aldiz eman dio berari. Piztuerak bizi berri batean sartzen gaitu, Piztuaren hitzari esker: «Jarrai iezadazu!».

Pazkoaldiko 7. astea

San Agustin Canterburykoa, *gotzaina*

Apostoluen Eginak liburutik 28, 16-20.30-31: Erroman gelditu zen, Jainkoaren erreinua hots egiten. **Sal 10:** Zuzenek ikusiko dute, Jauna, zure aurpegia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 21, 20-25.

Aldi hartan, Pedrok, itzuli eta Jesusek maite zuen ikaslea ondoren zetorrela ikusi zuen, afarikoan, Jesusen bular gainean jarririk, «Jauna, nor da salduko zaituena?», galdetu ziona. Hura ikusi zuenean, bada, Pedrok galdetu zion Jesusi: «Jauna, eta hori zer?». Jesusek erantzun zion: «Ni itzuli arte hori gelditzea nahi baldin badut, zuri zer? Zuk jarraitu niri». Hitz hauek zirela eta, ikasle hura hilko ez zelako zurrumurrua sortu zen senideen artean. Jesusek, ordea, ez zion esan ez zela hilko, beste hau baizik: «Ni itzuli arte hori gelditzea nahi baldin badut, zuri zer?». Ikasle huraxe da gauza hauez guztiez testigantza egiten duena eta idatzi dituen, eta badakigu egiazkoa dela haren testigantza. Beste gauza asko ere egin zuen Jesusek. Guztiak banan-banan bilduko balira, nik uste, mundu osoan ere ez lirakekeela sartuko idatz litezkeen liburuak.

Joanen ebanjelioa egiaztapen batekin amaitu da, alegia, Jesusen jarraipenean, bakoitza bere bidea egitera deitua dagoela. Pedro eta Joan, biak galilearrak, biak arrantzaleak, biak Jesusen ikasleak, biak piztueraren lekukoak, baina bakoitza modu pertsonal eta desberdinean bidalia. Hitz honek oihartzun berezia du eraikitzen jarraitu nahi dugun batzar erako Elizan: elkarte irekia, dohain eta karisma-mota guztiak dituela eta bere Jaunagandik jasotzen duen ugaritasuna munduaren zerbitzura jartzeko. Izan ere, funtsean, benetan elkartzen gaituena, Jesus piztuaren lekuko izateko dei komuna da.

Apostoluen Eginak liburutik 2, 1-11.

Mendekoste-eguna iritsi zenean, leku berean bildurik zeuden ikasle guztiak. Bat-batean, haize-bolada indartsu batena bezalako burrunba etorri zen zerutik eta ikasleak zeuden etxe guztia bete zuen. Orduan, suzko mihiak bezalako batzuk agertu zitzaizkien, eta, banatuz, bakoitzaren gainean kokatu ziren. Denak Espiritu Santuaz bete ziren eta hizkuntza arrotzez hitz egiten hasi, bakoitza Espirituak eragiten zion bezala. Bazen egun haietan Jerusalem judu jainkozalerik asko, zerupean diren herri guztietakoak. Burrumba hura entzutean, jendetza handia bildu zen eta txunditurik gelditu ziren, nork bere hizkuntzan hitz egiten entzuten baitziren. Harri eta zur, honela zioten: «Mintzo direnok, ez al dira guztiak galilearrak? Nola entzuten diegu, bada, bakoitzak geure jatorriko hizkuntzan? Gure artean badira partiarrek, mediarrak eta elamdarrak; baita Mesopotamian, Judean, Kapadozian, Ponton eta Asian bizi direnak ere; badira Frigiakoak eta Panfiliakoak, Egiptokoak eta Zirene inguruko Libiakoak, baita erromatarrek ere; eta denok, judu nahiz judu berri, kretar nahiz arabiar, geure hizkuntzan entzuten diegu Jainkoaren egintza harrigarriak hots egiten».

Sal 103: Zeure arnasa bidal gugana eta lur-azala berritu, Jauna.

San Paulok 1 Korintoarrei 12, 3b-7.12-13.

Senideok: Ezin du inork esan «Jesus da Jauna!». Espiritu Santuak eraginda ez bada. Era askotakoak dira dohainak, baina bat bakarra Espiritua; era askotakoak zerbitzuak, baina bat bakarra Jauna; era askotakoak eginbideak, baina bat bakarra Jainkoa, guztiengan guztia egiten duena. Bakoitzari denen onerako ematen dizkio Jainkoak Espirituaren dohainak. Gorputzak, bat izanik ere, atal asko du; baina atal guztiek, asko izanik ere, gorputz bat bakarra osatzen dute. Gauza bera gertatzen da Kristorekin ere. Gu guztiok, judu nahiz greziar, esklabo nahiz libre, Espiritu bat berarengan izan gara bataiatuak, gorputz bat bakarra egiteko. Eta guztiok Espiritu bat beretik edan dugu.

NEURTITZA

Zatoz, bai, Gogo Guren eta bidal zerutik zeure argi-izpia. Zatoz, gaixoen aita, zatoz, dohain-emaile, zatoz, bihotzen argi.

Poz-emaile bikaina, etxelagun atsegin, sargorian haize fin. Lan artean atsedean, nekean aringarri, malkoetan pozgarri.

Bete, argi dohatsu, zintzoen bihotzeko zirrikiturik barnena. Zure laguntza gabe, ez du gizakiak ezer, ez du ezer on denik.

Garbi zikin dagoena, busti lehor dagoena, zauriak oro senda.

Zurrun dena bigundu, makur dena zuzendu, hotz dagoena berotu.

Zugan uste on duten zintzoei isuri zazpi dohain zerutik. Zintzo saria eman, osasun hil artean, poza betierez betiere. Amen. Aleluia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 19-23.

Asteko lehen-egunean, ilunabarrean, etxe batean bildurik zeuden ikasleak, ateak itxita, juduen beldurrez. Sartu zen Jesus eta, erdian jarririk, esan zien: «Bakea zuei». Hori esanda, eskuak eta saihesta erakutsi zizkien. Ikasleak pozez bete ziren, Jauna ikustean. Jesusek berriro esan zien: «Bakea zuei. Aitak Ni bidali nauen bezala, hala bidaltzen zaituztet Nik zuek». Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei, barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die».

Jesusen piztuera izan zen bezalaxe, Mendekosteko esperientzia ere harrigarria eta zirraragarria gertatu zen lehenengo ikasleentzat, eta hainbat kontakizun egin zituzten beren bizitzan izandako eraldaketa hein batean azaltzeko. Usadio desberdinen arabera egindako kontakizun desberdinetatik harago, Apostoluen Eginak liburuko irudiak eta Joan ebanjelariarenak, bat datoz funtsezko gaietan, eta horiek eratzten dute Mendekoste egunean hasitako Elizaren etapa berria. Arreta hartzen duen lehendabiziko gauza da, ikasleak elkarrekin eta bilduta

daudela: Espiritua haietako bakoitzarengan nabarmentzen da guztien onerako, eta gure aniztasuna eraldatzeko lan egiten du, munduari irekia egongo den elkarte sor dezagun. Hona arreta hartzen duen bigarren elementua: taldea etxe batean dago, leku itxian eta babestuta. Espirituaren sarrerak, ordea, beldurraren eta erosotasunaren hormen gainetik jauzi egiten du, Jesusek bidalita, plaza eta kaleetara, hots, jendea Ebanjelioaren egarri den lekuetara, irteteko. Hirugarren dimentsio batek, Espirituak gure komunikazio-gaitasuna handitzeko duen ahalmena adierazten du, entzuten digutenengan Jainkoaren gauza harrigarriak miresteke egarria sortzeko. Beraz, orduan, Espirituaren seinale ziurretakoa bat zera izango da, garai berri hauetan ulergarriak diren hizkera berriak landu eta erabiltzeko ausardia.

* * *

Zatoz, Espiritu Santua

Bizi emaillea zara, / Kontsolatzailea, / arimaren Sua,
bihotz-barneko Iturri bizia.

Maitasuna zara,

Jainkoaren araberako Maitasuna.

Zure erabateko beharra dugu. [...]

Gozoa zara eta, denbora berean,
kemena, egiazko kristau-bizitarako.

Arimako Arrotz gozoa zara.

Barne arreta / eskaini nahi diogun Adiskidea zara;
errespetuko zerbitzua,

aditasuna eta esanekotasuna

bihotzezko debozioa,

maitasun handia / eskaini nahi dizkiogun Adiskidea zara

Zatoz Espiritu Santua.

Berri ezazu lurraren itxura!

(*Pablo VI.a; Vida Nueva 1998-05-23, 46. or.*)

Urteko 8. astea

ANDRE MARIA, ELIZAREN AMASan Paulo VI.a *aita santua*Santa Restituta, *martiria*. San Eleuterio, *aitorlea***Hasiera liburutik 3, 9-15. 20.**

Adamek zuhaitzetik jan ondoren, Jainko Jaunak dei egin eta esan zion: «Non zara?». Hark erantzun: «Zure oin-hotsa baratzean entzun dudanean, beldurtu eta gorde egin naiz, larrugorri nengoelako». Jainkoak esan zion: «Eta zeinek jakinarazi dizu larrugorri zeundela? Galarazi nizun zuhaitzeko fruitua jan al duzu?». Gizonak erantzun: «Laguntzat eman didazun emakumeak eskaini dit fruitua, eta jan egin dut». Orduan, Jainko Jaunak esan zion emakumeari: «Zer egin duzu?». Emakumeak erantzun: «Sugeak engainatu nau eta jan egin dut». Eta Jainko Jaunak esan zion sugeari: «Hori egin dualako, madarikatua izango haiz abere guztien eta basapiztia guztien artean; sabel gainean ibiliko haiz arrastaka eta hautsa jango duk heure bizitzako egun guztietan. Elkarren etsai egingo zaituztet hi eta emakumea, hire eta haren ondorengoa; honek burua zapalduko dik, eta hik orpotik helduko diok». Gizonak bere emazteari «Eva» ezarri zion izena, bizidun guztien ama delako.

Sal 87: Bai mezu handia zuretzat, Jainkoaren Hiria.**Jesu Kristoren ebanjelioa San Joanen liburutik 19, 25-34.**

Garai hartan, Jesusen gurutzearen ondoan zeuden haren ama, amaren ahizpa, Maria Kleofasen emaztea eta Maria Magdalena. Jesusek, bere ama eta, honen ondoan, maite zuen ikaslea ikusirik, esan zion amari: «Emakume, horra hor zeure semea!». Gero, ikasleari esan zion: «Horra hor zeure ama!». Eta orduz gero ikasleak bere etxean hartu zuen. Ondoren, Jesusek, dena betea zela jakinik, Liburu Santuak esana erabat bete zedin, esan zuen: «Egarri naiz!». Bazen han ozpinez betetako pitxar bat. Orduan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera bati muturrean erantsiz, ezpainetara hurbildu zioten. Ozpina hartu zuenean, Jesusek esan zuen: «Bete da dena!». Eta, burua makurtuz, azken arnasa eman zuen. Pazko-jairako prestaketa-eguna zen, eta

juduek ez zuten nahi larunbatean gorpuak gurutzean gelditzerik, larunbat hura oso jaiegun handia baitzen. Horregatik, gurutziltzatuei berna-hezurak hautsi eta handik kentzeko eskatu zioten Pilatori. Joan ziren, bada, gudariak eta berna-hezurak hautsi zizkieten Jesusekin gurutziltzatutako bie; baina, Jesusengana iritsi zirenean, ordurako hilik zegoela ikusirik, ez zioten berna-hezurrik hautsi, baizik eta gudari batek lantzaz saihetsa zulatu zion, eta bat-batean odola eta ura atera ziren.

Mendekoste ondoren, hain zuzen ere, liturgiak, Andre Maria Elizaren ama gisa ospatzea proposatzen digu, eta geure begiak Jesusen amarenganantz itzultzera gonbidatzen gaitu, beronen eskutik, beronen Semearen misterio sakona hobeto eta sakonago ezagutzera iristeko. Andre Maria “presentziaren maistra” da, Nazareteko iluntasunean landu duen arte edo jokabide zail horren jabe delarik. Hitz askorik gabe, gauza harrigarriarik gabe, bere minaren karga bere gain hartuta, badaki fedean eta maitasunean azkeneraino irauten bere Semearekin batera. Espirituaren indarrez mundura bidalia izaki, Elizak etengabe ikasi beharra du nekaldiko minak jasaten dituzten hainbat sendideren gurutzearen oinetan etengabe egoten eta irauten. Mariak, Elizaren amak, erakusten digu bidea.

Urteko 8. astea

San Fernando III.a, *erregea*

Santa Joana Arc-ekoa, *martiria*

Siraken liburutik 35, 1-15 (gr. 1-12): Aginduetara makurtzea opari salbagarria da. **Sal 49:** Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamaena erakusten.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 10, 28-31.

Aldi hartan, Pedrok esan zion Jesusi: «Hara, guk dena utzi dugu, zuri jarraitzeko». Jesusek erantzun: «Benetan diotsuet: Nigatik eta Berri Onagatik etxea, senideak, ama, aita, seme-alabak eta lurrak uzten dituenak, orain, mundu honetan, ehun halako hartuko du: etxe, senide, ama, seme-alaba eta lur, erasoaldiekin batera; eta gero, datorren munduan, betiko bizia. Orain lehenengo diren asko azkeneko izango dira, eta orain azkeneko direnak lehenengo».

Pazko-jaiak bukaturik, Espirituaren poza eta ausardia gainezka dugula, Markosen ebanjelioaren harira, urtekoa deitzen dugun liturgia-aldian murgilduko gara. Jesusek egunero oparitzen digu hitzen bat, hain zuzen ere, bidean jarraitzeko behar dugun itxaropenaren tanta doi-doia. Gaurkoan Pedro aurkitzen dugu halako galera-zantzu baten errezeloa agertuz: «Guk dena utzi dugu eta jarraitu dizugu». Jesusek ez du ukatzen galera hori, baina askoz ere handiagoa den irabazi bikain baten markoan birkokatzen du: bateko ehuneko irabazia eta betiko bizia. Agian egun ona da geure buruari galdetzeko, ea, Jesusen oinatzan atzetik igarotako geure biziaren une honetan, zerk duen pisu handiagoa, uzten joan garenak ala jasotzen ari garenak.

Sofoniasen Profezia liburutik 3, 14-18.

Egin poz-irrintzi, Sion hiri! Egin oihu alai, Israel! Poztu zaitez bihotz-bihotzez, alaitu, Jerusalem! Urratu du Jaunak zure kontrako erabakia, atzerarazi ditu zure etsaiak. Jauna, Israelgo erregea, zure erdian dago; ez zara gehiago ezeren beldur izango. Egun hartan, honela esango diote Jerusalem: «Ez beldur izan, Sion! Ez bitez eror zure eskuak! Jauna zure Jainkoa zure erdian dago salbatzaile indartsu! Pozaren pozez alaitzen da zugatik, bere maitasunez biziberritzen zaitu. Pozez jauzika dabil zugatik, jaiegunez bezala». Honela dio Jaunak: Nik bilduko ditut, Jerusalem, zuregandik urruti, jairik gabe, triste, zeudenak. Bai astuna zure lotsa!

Sal: Is 12, 2. 3 eta 4bcd. 5-6 (R/. 6b): Egin poz-oihu, handikiro ari baita zuen alde Israelgo Santua.

San Paulok Erromatarrei 12, 9-16b.

Senideok: Zuen maitasuna izan bedi itxurakeriarik gabea. Gorrotatu gaizkia eta eutsi ongiari. Maita ezazue elkar senide onak bezala, ohoratu elkar zeinek gehiago. Izan saiatuak eta ez nagi; izan gogoz gartsu, Jauna zerbitzatzeko beti prest; izan itxaropenean alai, ezbeharrean eraman handiko, otoitzean lehiatsu; lagundu fededunei beren beharretan eta eman gogoz ostatu arrotzei. Bedeinka itzazue erasotzen dizuetenak; bedeinkatu, ez madarikatu. Poztu, pozez daudenekin; egin negar, negarrez daudenekin. Bizi zaitezte elkar ongi hartuz; ez izan handinahi, apalen mailako baizik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 39-56.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion. Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion

Urteko 8. astea

Andre Mariaren Ikustaldia Elisabeti

Santa Gertrudis, *aitorlea*. San Noe Mawaggali, *martiria*. San Eduardo Cestak (1801-1868), *Baiona, apaiza eta fundatzailea*

Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!». Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barrua, Jainkoa baita nire salbamena, ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna. Horregatik, dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, handiak egin baitizkit Ahalguztidunak; santua da haren izena, eta haren errukia gizaldiz gizaldi begirune diotenengana. Bere besoaren indarra erabili du, buru-harroak suntsitu ditu; bota ditu beren aulkietatik ahaltsuak, eta gora jaso ditu ezerezak; ondasunez bete ditu gose zeudenak eta esku-hutsik bidali aberatsak. Lagun etorri zaio bere morroi Israeli, bere errukiaz oroiturik; hala zien gure gurasoei hitzeman, Abrahami eta ondorengoei betiko esana». Mariak hiru hilabete inguru egin zuen Elisabetekin; gero, etxera itzuli zen.

Ikustaldia edo bisita topo egitearen festa da, bestearen aurrean egoteak pizten duen pozarena. Mariaren eta Elisabeten artean, espero ez duten lotura bat sortu da beren erraietako mailarik sakonenean. Bi emakume horiek ez dute hitzik eta azalpenik behar beraiengan bizi den misterioa sumatzeko. Alaitasunez betetako isiltasunean, hain handia den baina gauza xume batean sartu den Jainkoaren gorespentkantua lehertzen da. Ama-sabel iluna, bisita-leku bihurtzen da; baita Joanentzat eta Jesusentzat ere eta bion etorkizuna zeharo eta behin betiko lotuta gelditu da. «Ahotsa» soilik izango den hark jauzi egin du orain pozez, Hitzaren presentzia isilaren aurrean. Ustekabeko bideetatik doan bizitzagatik pozteko moduko eguna dugu gaurko hau ere.





Guztion



ETXEAREN



ZAINTZAN



partaide

EKAINA / BAGILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Torturaren abolizioaren alde: Otoitz egin dezagun nazioarteko elkarteak zehatz konprometitu dadin tortura ezabatzearen alde, sostengua bermatuz biktimei eta beraien familiei.



Isaias Profetaren liburutik 52, 13–53, 12.

Hara, nire zerbitzariak arrakasta lortuko du; goratua, gorengo mailara jaso izango da. Asko eta asko ikaratu ziren hartaz, hain baitzuen giza itxura ere galdua eta gizakia zenik ere ez baitzirudien; era berean, herri asko harrituko dira, erregeak haren aurrean mutu geldituko, inoiz kontatu ez zitzaiena ikusiko baitute, inoiz entzun ez zutena adituko. Nork sinetsi du gure mezua? Nori agertu zaio Jaunaren ahalmena? Sustraiak lur lehorrean dituen kimua bezala hazi zen Jaunaren zerbitzaria haren aurrean; ez zuen duintasunik, ez edertasunik, ez gure begientzat itxura erakargarririk; mespretxatua eta jendeak baztertua, oinaze-gizona, sufritzen ikasia; ez ikusiarena egiten zaiona bezala, mespretxatu egin genuen eta aintzakotzat hartu ez. Baina gure gaitzak bere gain hartu zituen hark eta gure oinazeak eraman. Guk, berriz, zigortutzat geneukan, Jainkoak zauritu eta atsekabetutzat. Gure bekatuengatik zulatu zuten, gure erruengatik zanpatu. Haren gainera erori zen guretzat salbagarri den zigorra: haren zauriek sendatu gaituzte. Ardiak bezala genbiltzan galdurik, bakoitza geure bidetik, eta Jaunak haren gainera bota zuen gu guztion errua. Gaizki erabili zuten, baina hura apaldu egin zen, ahorik zabaldu gabe. Hiltzera daramaten bildotsak bezala, ile-moztaileen aurrean isilik dagoen ardiak bezala, ez zuen ahorik zabaldu. Gogorki eta zuzengabe eraman zuten; baina haren zoria nori axola? Bizidunen lurretik erauzi zuten, nire herriaren bekatuagatik jota. Gaiztoen artean lur eman zioten, gaizkileekin batera hilobiratu, nahiz eta hark bidegabekierarik ez egin eta haren ahoan maltzurkeriarik ez izan. Jaunak oinazez josi nahi izan zuen. Bekatuen ordainetan bizia eman zuelarik, izango ditu ondorengoak eta bizitza luzea, eta haren bitartez Jaunaren nahia burutuko da. Hainbat neke jasan ondoren, argia ikusiko du eta asea izango da. Ikasi duenaren bidez, nire zerbitzari zuzenak asko egingo ditu zuzen, haien gaiztakeriak bere gain hartu baitzituen. Horregatik, jendetza ugaria emango diot ordainetan, gizataldeak izango ditu

garaipen-sari, bere burua heriotzara eman zuelako eta bekatarien kideztat hartu zutelako. Denen bekatuak bere gain hartu zituen eta bekatarien alde erregutu zuen.

Sal 39: Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.

Hebrearrei idazkitik 10, 12-23.

Jesu Kristo, opari bat bakarra bekatuengatik eskaini ondoren, Jainkoaren eskuinaldean eseri zen behin betiko. Eta, orain, Jainkoak etsaiak oin-aulkizat noiz jarriko dizkion itxaroten dago. Izan ere, opari bakar baten bidez beren betera eraman ditu Jainkoarentzat behin betiko sagaratuak direnak. Aitorpen bera egiten digu Espiritu Santuak ere, hau esatean: Hona hemen etorkizunean haiekin egingo dudana ituna: Bihotzean ezarriko dizkiet neure legeak, buruan idatziko. Hala diot nik, Jaunak. Eta haien bekatuak eta gaiztakeriak ez ditut gehiago gogoratuko. Horrela bada, bekatuak barkaturik daudenean, ez da bekatuen barkamenerako opari beharrik. Beraz, senideok, Jesu Kristoren odolari esker konfiantza dugu santutegian sartzeko, Jesusek errezelean barrena –hau da, bere gorputzean barrena– bide berri eta bizia ireki baitigu. Jesus apaiz handia Jainkoaren etxeo buru dugunez, hurbil gakizkion bihotz zintzoz eta sinesmen osoz, barrua bekatu-kontzientzia guztitik garbiturik eta gorputza ur garbiz txukundurik. Iraun dezagun sendo itxaropena aitortuz, leiala da-eta hitza eman diguna.

Jesus Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 22, 14-20.

Ordua etorri zenean, Jesus mahaian jarri zen apostoluekin eta esan zien: «Banuen gogoia, sufritu aurretik pazko-afari hau zuekin egiteko. Hara zer diotsuedan: ez dut gehiago Pazkoa ospatuko, hau Jainkoaren erreinuan bere betera iritsi arte». Eta edalontzi bat hartu, esker onezko otoitza egin eta esan zuen: «Hartzazue eta banatu zeuen artean. Hara

Urteko 8. astea

**JESU KRISTO GURE JAUNA
BETIEREKO APAIZ NAGUSIA**San Justino, *martiria*

zer diotsuedan: ez dut gaurdanik gehiago ardo honetatik edango, Jainkoaren erreinua iritsi arte». Gero, ogia hartu eta, esker onezko otoitza eginez, zatitu eta eman zien, esanez: «Hau nire Gorputza da, zuentzat emango dena. Egizue hau nire oroigarri». Afal ondoan gauza bera egin zuen edalontziarekin, esanez: «Edalontzi hau itun berria da, zuentzat isuriko den nire Odolaz ezarria».

Jesus, bere bizitzan zehar, ez zen apaiz izan. Israelen apaizgoa Lebitarren leinuko partaideentzat gordeta zegoen eta haiek ziren Jainkoaren gurtzaren eta hari egindako eskaintzen arduradunak eta bermatzaileak. Jesus, bestalde, “laiko” soila zen, herriko gizon bat, tenpluan eta gauza sagaratuetan sarbiderik ez zuena. Hala ere, lehenengo kristau-elkarteek berehala ulertu zuten Jesusen bizitza benetako apaiz-bizitza izan zela, bere burua eskaintzeko (bere gorputza, odola, bere bizi osoa) izandako gaitasunagatik eta Aitagana gizateria osoa eramateagatik. Berarekin batera, bataiatuok ere «benetako apaiz» gara (1 P 2, 9), geure bizia ematera deituak, gauza soiletan eta egunerokoan, maitasun-adierazpen eta gorespen gisa.

Urteko 8. astea

San Martzelino, *apaiza*, eta San Pedro, *exorzista*, *martiriak*

Siraken liburutik 44, 1.9-12. Sal 149. Jaunak bere herria maite du.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 11, 11-26.

Aldi hartan, jendeak goraka hartu ondoren, tenpluan sartu zen Jesus, Jerusalemen. Eta inguru guztira begiratu ondoren, ordurako berandu baitzen, Betaniarantz atera zen Hamabiekin. Biharamunean, Betaniatik atera zirenean, Jesus gosetu egin zen. Eta, hostotan zegoen pikondo bat urrutitik ikusirik, bertara joan zen, pikurik aurkitzen ote zuen; baina ondora iristean, ez zuen hostoa besterik aurkitu, ez baitzen piku-sasoia. Orduan, pikondoari esan zion: «Ez dezala gehiago inork hiregandik fruiturik jan!». Ikasleek ere entzun zioten. Iritsi ziren Jerusalemera, eta, tenpluan sarturik, bertan salerosketan ari zirenak kanpora botatzen hasi zen Jesus, eta diru-trukatzaileen mahaiak eta usosaltzaileen postuak irauli egin zituen. Eta ez zion inori tenplu barruan ezer eramaten uzten. Gero, irakasten hasi zitzairen, esanez: «Ez al dio Liburu Santuak: “Nire etxea otoitz-etxe izango da herri guztientzat?”». Zuek, ordea, lapur-zulo egina duzue». Apaizburuak eta lege-maisuak, hori jakin zutenean, Jesus nola hilko hasi ziren; baina beldur ziren, jende guztia harriturik baitzegoen haren irakaspenaz. Ilunabarrean hiritik kanpora atera ziren Jesus eta ikasleak. Biharamun goizean, bezperako lekutik igarotzean, pikondoa sustraietaraino ihartua ikusi zuten. Oroitu zen Pedro eta esan zion Jesusi: «Begira, Maisu, Zuk madarikatutako pikondoa dena ihartu da». Jesusek erantzun: «Izan sinesmen Jainkoagan. Egiaz diotsuet: Norbaitek esaten badio mendi honi: “Ken hadi hortik eta amildu itsasora”, eta mendiari agindu diona gertatuko dela zalantzarik gabe sinesten badu, halaxe gertatuko zaio. Horregatik diotsuet: Otoitzean eskatzen duzuen edozein gauza, sinetsi lortuko duzuela, eta emango dizue Jainkoak. Eta otoitzean ari zaretela, barkatu inoren aurka ezer baduzue, zeruko zuen Aitak ere zeuen hutsegiteak barka diezazkizuen. Zuek barkatzen ez baduzue, zuei ere ez dizkizue barkatuko zeruko Aitak zeuen hutsegiteak».

Urteko 8. astea

San Martzelino, *apaiza*, eta San Pedro, *exorzista, martiriak*

Tenpluan Jesusek izandako haserrealdiak ez dirudi bat-bateko sentipena izan zenik. Saltzaileak kanpora bidali zituen eguna argitu aurretik, Jesus dena xehetasunez ikusten egona da eta egiaztatu du leku sagaratu lapur-zulo bihurtu dutela, negozioak egiteko toki. Herriko buruzagiek agian espero ez zuten ausardiarekin, Jesus atrebitu da ezarritako ordena hankaz gora jartzen eta beste behin ere gizartea gobernatzeko erabiltzen dituzten arauak, jenderik txikienari eta indargabeenari hainbat sufrikario sortzen dizkiotenei, desafio egiten. Jesusek presa du Jainkoaren proiektu berria berriro ezartzeko eta, agian horregatik, ezin da zain egon pikondoak une egokian fruituak eman arte: Erreinua iritsi da eta garai oro da emankor.

* * *

Etorkinak

«Hegoaldetik iparralderako lekualdatzea ezin saihestua da. Ez dute balioko, ez alanbre-hesiek, ez harrizko murruek, ez deportazioek. Milioika etorriko dira. Gose direnek konkistatuko dute Europa. Ostu diegunaren bila datoz».

(José Saramago)

Siraken liburutik 51, 17-27 (gr. 12-20): Aintza emango diot jakinduria irakatsi didanari. **Sal 18:** Jaunaren arauak zuzenak dira, bihotzaren pozgarri.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 11, 27-33.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak Jerusalemera etorri ziren berriro. Jesus tenpluan zebilela, apaizburuak, lege-maisuak eta zaharrak hurbildu zitzaizkion, galdezka: «Zein aginpidez jokatzten duzu horrela? Zeinek eman dizu horretarako aginpidea?». Jesusek erantzun zien: «Nik ere gauza bat galdetuko dizuet; erantzuidazue, eta nik ere esango dizuet zein aginpidez jokatzten dudan horrela. Joan Bataiatzaileak Jainkoaren aginduz ala giza aginduz bataiatzen zuen? Erantzun!». Haiek hau zioten beren artean: «Jainkoaren aginduz ari zela esaten badiogu, zergatik ez genion sinetsi esango digu. Baina nola esan giza aginduz ari zela?». Honetarako, jendearen beldur ziren, guztiek egiazko profetatzat baitzuten Joan. Beraz, erantzun zioten: «Ez dakigu». Jesusek, orduan: «Ba, Nik ere ez dizuet esango zein aginpidez jokatzten dudan horrela».

Uertu nahi ez duenari azalpenak ematea baino gauza alferrikakoagorik ez dago. Lege-maisu eta zaharrak, beren jakindurian finkatuta, ez daude prest berek duten agintaritzaz desberdina izango den beste agintaritza-modu bateko partaide izateko. Nahi duten gauza bakarra da, Jesusekin gorren arteko eztabaida sortzea galdera erretoriko batekin hasita. Jesusek ez erantzutea erabaki du eta ezarizarian ihes egin die, beste hainbat alditan egin duen bezala. Gertakari horrek gonbita egiten digu gure energia benetan zertan erretzen ari garen gogoeta egiteko; izan ere, gauza bat da nork bere bizia azkeneraino ematea eta beste bat, oso desberdina, zerbitzurako eman zaizkigun indarrak –Erreinuaren zerbitzuan erabiltzeko indarrak, alegia– aldez aurretik galduta dauden borroketan alferrik xahutzea.

Irteera liburutik 34, 4b-6.8-9.

Egun haietan, Moises, goizean goiz, Sinai mendira igo zen, Jaunak agindu zion bezala, bi harlosa eskuetan zeramazkiela. Jaitsi zen hodeian Jauna, eta han gelditu zen harekin, eta Moisesek Jaunaren izenari dei egin zion. Eta Jaunak, aurretik igarotzean, oihu egin zuen: «Jauna, Jauna, Jaungoiko errukitsu eta bihozbera, haserrera nagi, errukian aberats eta leial». Moisesek, berehala lurreraino makurturik, ahuspez gurtu zuen, esanez: «Jauna, zure begietan ederra aurkitu baldin badut, ibil zaitez gure artean, herri hau lepagogorra bada ere; barka gure gaiztakeriak eta bekatuak, eta har gaitezazu zeuretzat».

Sal: Daniel 3: Aintza eta gorespen zuri gizaldietan.

San Paulok 2 Korintoarrei 13, 11-13.

Poztu zaitezte; saia zaitezte onak izaten; gora zuen bihotzak; izan iritzi bereko, eta bizi bakean. Eta maitasunaren eta bakearen Jaungoikoa zuekin izango da. Agur egiozue elkarri, musu santua emanaz. Kristau guztiak agurtzen zaituzte. Jesu Kristo gure Jaunaren grazia, eta Jaungoikoaren maitasuna, eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuek guztiokin.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3, 16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Hain maite izan baitu Jainkoak mundua, / bere Seme bakarra eman dio; / Hari sinesten dionik inor gal ez dadin, / baizik betiko bizia izan dezan. / Jainkoak ez baitu bere Semea, / mundua galtzera bidali; / baizik haren bitartez mundua salbatzeko. / harengan sinesten duenak, ez du auzirik izango; / sinesten ez duenarentzat, berriz, / erabakia dago auzia, / Jainkoaren Seme bakarraren izenean / sinetsi ez duelako».

Hirutasun Santuarena ez da teologiako eztabaida eta azterketa burutsuen ondorioz argi daitekeen misterioa. Hirutasun Santua misterioa da, gu gainditzen gaituen errealitatea, baina, aldi berean, gure bila datorrena eta guk onartua izateko eta guri agertua izateko izugarritzko gogoarekin datorrena. Jainkoaren misterioa da, eta Jainkoa bere baitan, aldi berean, alteritatea eta elkartasuna da: Aita eta Semea befikotasun osoan bizi dira bata besteagana emanda, Espiritu Santuak emandako maitasun-hats agortezinaren bitartez. Eta Hirutasuneko maitasunak gainezka egin eta kreazioa sortu da, eta berarekin batera bizi-hatsari eusten dion eta adierazten duen izakietako bakoitza. Eta gizakiak kreazioko proiektua zikindu duelako, Hirutasunaren maitasunak bide berriak irudikatu ditu bere lana bere onera erakartzeko, zauritutako askatasuna berreginez. Hirutasun Santua ospatzea, ez da noski gutxi gorabeherako hausnarketetan galtzea, baizik eta kreazio guztia besarkatu nahi duen maitasun neurrigabe handi horri sotiltasun guztiz bihotza irekitzea. Hirutasun Santua ospatzeak, bizi bete eta oso horren korronteak eraman gaitzan uztea ere berekin du, oraindik ere pitzatuta dagoen gure mundu honetan samurtasuna eta itxaropena zabaltzeko.

Urteko 9. astea

San Bonifazio, *beneditarra, gotzaina eta martiria*

Tobit liburutik 1, 1a.2; 2, 1-9: Tobiasek erregeari baino beldur handiagoa zion Jainkoari. **Sal 111**: Zorionekoa Jainkoari beldur diona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 1-12.

Aldi hartan, Jesus parabola bidez hitz egiten hasi zitzaizen apaizburuei, lege-maisuei eta herriko zaharrei: «Gizon batek mahastia landatu zuen eta hesiz inguratu, bertan dolarea egin eta dorrea eraiki zuen. Gero, nekazari batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen. Bere garaian, morroi bat bidali zien nekazariei, mahastiko fruitutik zegokion partea jasotzera; baina haiek morroiari heldu, jo eta esku hutsik bidali zuten. Berrito beste morroi bat bidali zien; hau ere buruan jo eta irainez bete zuten. Beste bat ere bidali zien geroago, eta hil egin zuten. Ondoren, beste asko bidali zizkien, eta batzuk jo eta besteak hil egin zituzten. Bazuen oraindik beste norbait, bere seme maitea, eta huraxe bidali zien azkenik, bere baitarako esanez: “Izango diote begirune nire semeari”. Nekazariak, ordea, esan zioten elkarri: “Oinordekoa duk! Hil dezagun eta mahastiaren jabe izango gaituk”. Hartu, hil eta mahastitik kanpora bota zuten. Zer egingo ote du mahasti-jabeak? Joan eta garbitu egingo ditu nekazari horiek, eta mahastia beste batzuen esku utziko. Ez al duzue Liburu Santuetako hura irakurri: “Etxegileek baztertutako harria giltzarri gertatu da. Jaunak egin du hori, gure begien harrigarri”?». Apaizburu eta herriko zaharrak Jesus atxilotu nahian zebiltzan, ongi jabetu baitziren beraiengatik esan zuela parabola hura. Baina jendearen beldurrez, utzi eta alde egin zuten.

Aste guztian zehar irakurriko dugu Markosen 12. kapitulua; argi eta garbi erakusten du, Jesusek herriko buruzagiekin duen gatazka; zein puntutaraino doan konponezinak diren mugetaraino iristen ikusiko dugu. Hain zuzen ere, apaiz, eskribau eta zaharrei zuzentzen die Jesusek hain argia den eta hain zuzenean leporatzen dien parabola hau; ezinbestean, mingarria gertatu zaie noski. Israelgo herriaren mahastizain direnez, akusatuta sentitzen dira mahasti-jabearen aginduei zorrotzasun osoz ez erantzuteagatik; areago, mahasti-jabearen semea hiltzea leporatzen die haren oinordekotzaz jabetzeko. Oso nabarmen deitzen du arreta Jesusek bere arerioei aurre egiteko duen gaitasunak, azkartasun eta zuhurtzia osoz, datorcion amaieraz jabetuta noski. Noraino heltzeko gaude prest gu, Jainkoaren proiektua kaltetzen duten indarren aurkako borrokan?

* * *

San Bonifazio, gotzaina eta martiria

San Bonifazio 673an jaio zen Wessex-eko erreinu anglosaxoian –Ingalaterra hego-mendebaldean–. Bonifazio 715ean sartu zen monasterioan eta Nursling-eko abade izatera iritsi. Jentilei ebanjelioa eraman nahirik, Alemaniako Frisiara jo zuen 716an. 719an Gregorio II.a aita santuak Alemania ebanjelizatzekeo mandatu eman zion. Aita santu berak 722an apezpiku eginik, Alemaniara itzuli zen, Donar-eko arteondoak bot zituen –paganismoaren sinboloak– eta eskualde askotan ibili zen Ebanjelioa hots egiten.

Gregorio III.ak 732an artzapezpiku egin zuelarik, Bavarian egon zen, zenbait monasterio eta gotzain-aulki antolatuz Salisburgon, Freysingen, Ratisbonan, Passau-n. 744an Fuldako monasterioa fundatu zuen. Alemaniako Eliza ez ezik, frankoen Eliza ere eraberritu zuen. 747an Maguntzian jarri zuen bere gotzain-aulkia. Frisiara itzulirik, Dokkum ondoan (gaur egun, Holanda), eukaristia ospatzen ari zela erail zuten jentil batzuek 754an.

Urteko 9. astea

San Norberto, *gotzaina*

San Martzelino Champagnat, *fundatzailea (Maristak)*

Tobit liburutik 2, 10-23: Itsu gelditu nintzen. **Sal 111:** Sendo du zintzoak bihotza, Jaunaz fidaturik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 13-17.

Aldi hartan, fariseuen eta Herodesen alderdiko batzuk bidali zizkioten Jesusi, hitzen batean harrapatzeko asmoz. Etorri eta esan zioten: «Maisu, badakigu egiazale zarela eta ez dizula axolarik inoren zeresanak; Zuk ez diozu gizakiaren itxurari begiratzan, baizik eta Jainkoaren bidea behar bezala irakasten duzu. Zilegi da Zesarri zerga ordaintzea ala ez? Ordaindu behar diogu ala ez?». Baina Jesusek, haien azpikeriaz oharturik, esan zien: «Zergatik zatozkidate zirika? Ekarki txanpon bat, ikusteko». Ekarki zioten, eta Jesusek galdetu zien: «Norenak dira irudi eta izen hauek?». Haien erantzunak: «Zesarrenak». Jesusek, orduan: «Emaiozue Zesarri Zesarrena eta Jainkoari Jainkoarena». Eta txunditurik gelditu ziren.

Jesusen arerioek hura harrapatzeko proiektu bat lantzen jarraitzen dute. Badakite jakin Jesusek ez duela eragozpenik mahaian publikanoekin, erromatar okupatzaileentzako zergak biltzen dituzten horiekin eta gisakoekin esertzeko: areago, badakite beraren ikasleetako bat lanbide horretan ibilia dela: Maisua erromatarren laguntzaileetat akusa dezakete. Baina Jesusek badaki ondo asko bere solaskideen asmoen berri eta ez du bere burua haien zurikeriaz engainatzen uzten. Eman Zesarri Zesarrena, eta Jainkoari Jainkoarena: erantzun askoz ere finagoa da zerga osoa ordaintzeari uko egitea baino, ezen Zesar zein den eta Jainkoa zein den ongi bereiztea baitakar horrek, eta, horixe da, hain zuzen ere, guk askotan egiten asmatzen ez duguna.

Tobit liburutik 3, 1-11a. 16-17a: Bien otoitzak entzun zituen Jainko aintzatsuak. Sal 24: Jauna, zugana jasotzen dut gogoia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 18-27.

Aldi hartan, saduzear batzuk etorri zitzaizkion Jesusi (saduzearrek ez dute onartzen hildakoak pizten direla). Eta galdetu zioten: «Maisu, Moisesek idatzi zigun: “Norbaiti anaia hiltzen bazaio, emaztea seme-alabarik gabe utziz, ezkon bedi alargunarekin, anaiari ondorengoa emateko”. Behin batean, baziren zazpi anaia. Zaharrena ezkondu eta seme-alabarik gabe hil zen. Bigarrena alargunarekin ezkondu zen, eta seme-alabarik gabe hil zen; berdin hirugarrena ere. Horrela, zazpiak ondorengorik gabe hil ziren. Azkenik, hil zen emakumea ere. Piztuerakoan, hildakoak piztuko omen direnean, zeinen emazte izango da, zazpiek izan baitzuten emazte?». Jesusek erantzun zien: «Ez ote zabiltzate oker, Liburu Santuek dioten hori eta Jainkoaren ahalmena ezagutzen ez dituzuelako? Izan ere, hildakoak piztean, ez da inor ezkonduko; zeruko aingeruak bezala izango dira denak. Gainera, hildakoen piztueraz, ez al duzue irakurri Moisesen liburuan, sasia sutan zegoeneko pasartean, Jainkoak berak nola esaten dion: “Ni Abrahamen Jainkoa, Isaaken Jainkoa eta Jakoben Jainkoa naiz”? Ez da hilen Jainkoa, biziena baizik. Oker zaudete oso».

Saduzearrek iseka egin nahi diote Jesusi istorio baldar baten bidez; Jesusek Israelgo fedearen oinarrizko printzipio bat gogorarazteko erabilia duen gaia da: Jainkoa bizien Jainkoa dela, alegia. Alabaina, piztuera onartzea oso zaila da eta, agian, horregatik sineste hori oso berandu garatu zen Jainkoaren Israel herrian. Bi mila urte geroago ere, gaur egun, jende askok jarraitzen du piztutakoen bizitzako xehetasunez galdetzen, piztutakoei lurrian bizi garenok aplikatu dakizkigukeen irizpide edo xehetasun berak aplikatzea balego bezala. Maitasuna salbu, gainerako guztia igarotzen bada, pentsa liteke, lurrian izandako gure harremanek, mugatzen eta zikintzen dituzten gauza guztietatik garbiturik, jarraitu egingo dutela betikotasunean maitasun diren heinean.

Urteko 9. astea

San Santiago Berthieu, *apaiza, martiria, jesuita*San Maximo, *gotzaina*San Heraklio, *gotzaina*

Tobit liburutik 6, 10-11; 7, 1. 9-17; 8, 4-9a: Erruki zakizkigu eta egizu hel gaitzela biok elkarrekin zahartzarora. **Sal 127:** Zorionekoa Jaunari begirune diona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 28b-34.

Aldi hartan, hurbildu zen Jesusengana lege-maisu bat eta galdetu zion: «Zein da agindu guztietan nagusiena?». Jesusek erantzun: «Hau da nagusiena: “Entzun, Israel: Jauna, gure Jainkoa, Jaun bakarra da. Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz, adimen guztiz eta indar guztiz”. Bigarrena, berriz, hau da: “Maitatu lagun hurkoa, zeure burua bezala”. Ez da hauek baino agindu handiagorik». Lege-maisuak esan zion: «Ederki, Maisu; egia diozu Jainkoa bakarra dela eta ez dela besterik esatean, baita hura bihotz-bihotzez, adimen guztiz eta indar guztiz maitatzea, eta lagun hurkoa nork bere burua bezala maitatzea, erre-opari eta sakrifizio guztiak baino hobea dela esatean ere». Eta Jesusek, zuhurki erantzun zuela ikusirik, esan zion: «Ez zaude urruti Jainkoaren erreinutik». Eta handik aurrera, ez zen inor galderarik egitera ausartzen.

Jainkoaren Erreinutik hurbil ala urrun gauden jakiteko irizpide bat da, lehenengo eta bigarren aginduak, biak batera, bizi izatea. Jainkoa lagun hurkoa maitatu gabe maitatu nahi dugunean, geure buruari iruzur egiten diogu argi eta garbi: Nola maita genezake ikusten ez dugun Jainkoa, aurrean daukagun geure senidea maite ez badugu? (cfr. I Jn 4, 20). Baina era berean geure buruari iruzur egiten diogu, Jainkoarekiko gure harremanak hozten utzi arren, lagun hurkoa maita dezakegula pentsatzen dugunean. Kasu horretan maitasunaren neurria jada ez baita Jesusena izango, geurea baizik. Maitasunaren ariketa zailean, komeni da egunero oinarrietara itzultzea: «Entzun, Israel...».

Tobit liburutik 11, 5-17: Zigortu egin ninduen Jainkoak, baina orain ikusten dut berriro neure seme Tobias. **Sal 145:** Goretsazu Jauna, ene barrena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 35-37.

Aldi hartan, Jesusek, tenpluan irakasten ari zela, esan zuen: «Nola esan dezakete lege- maisuek Mesias Daviden ondorengo dela? Hona zer dioen Davidek Espiritu Santuaren argiaz: “Hona Jaunak nire Jaunari esana: Eseri nire eskuinean, zure etsaiak oinazpian jartzen dizkizudan bitartean”. Davidek berak “Jauna” esaten dio; beraz, nola izan dezake hura bere ondorengo?». Jendetza ugariak atseginez entzuten zion.

Markos ebanjelariak kontraste interesgarria jartzen du agerian: Israelgo jakintsuek eta adituek gauza guztien gainetik Jesus estutasunean jarri nahi zuten bitartean, segadak jarri eta atxilotzeko aitzakiak biltzen ari ziren bitartean, «jendeak, jende askok, gozatu egiten zuten Jesusi entzuten. Jesusen mezua berbera da denentzat, baina entzuleen barne-jarrerak erabakitzen du mezuak norberagan oihartzuna izan ala ez. Buruzagiek mehatxutzat hartzen dute Jesus, beren sistema desorekatzen dielako; jende arruntak Berri Ontzat jasotzen du Jesusen esana, bere salbamen-beharrei erantzuten dielako. Eta guk, benetan gozatzen al dugu Jaunari entzunez?

Urteko 9. astea

San Alexandro, *gotzaina*

Tobit liburutik 12, 1.5-15.20: Bedeinka ezazue Jauna; Jainkoagana itzuli behar dut. Sal: Tb 13, 2. 6. 7. 8: Bedeinkatua, beti bizi den Jainkoa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 12, 38-44.

Aldi hartan, Jesusek, bere irakastaldian, esan zion jendeari: «Zabiltzate kontuz lege- maisuekin! Gogoko dute harro-harro jantzita ibiltzea eta plazetan jendearen agurrak hartzea; gogoko dituzte sinagogetan aurreneko aulkiak eta jai-otorduetan mahaiburuak. Eta, azkengabeko otoitzen aitzakiaz, alargunen ondasunak irensten dituzte. Horrelakoek epairik zorrotzena izango dute». Jesus tenpluko diru-kutxaren aurrean eseria zegoen, jendeak kutxara dirua nola botatzen zuen begira. Aberats askok ugari ematen zuten. Etorri zen emakume alargun behartsu bat ere, eta bi txanpon bota zituen, huskeria bat. Jesusek, ikasleei dei egin eta esan zion: «Benetan diotsuet: Alargun behartsu honek beste guztiek baino gehiago bota du kutxara. Izan ere, beste guztiek sobera dutenetik eman dute; honek, ordea, bere eskasian, zeukan guztia, bizitzeko behar zuena, eman du».

Jesusen begiak ohituta daude errealitateari arreta handiz begiratzen. Nazareteko urte luzeek erakutsi diote gaien azala urratu eta itxurek adierazten dutena baino askoz ere sakonagora sartzen. Beste batzuek ikusten ez dutena ikusten du Jesusek: bihotzaren asmoak edo intentzioak, sakoneko motibazioa, gurariak. Beraren Aitaren begirada bezalaxe, berarena ere ezin gelditu da axolagabe ikusten duenaren aurrean. Horregatik ausartzen da eskribauen harrapari-izaera salatzerara edota alargunaren eskuzabaltasuna goraiatzera. Agertoki hau gonbita da guretzat ere, aztertzeke, ea gure bizitzan zeharreko ibilian, bihotzaren arreta sakona lantzen eta errealitatea sakontasunez aztertzen saiatuko izan garen ikusteko.

Deuteronomio liburutik 8, 2-3. 14b-16a.

Honela mintzatu zitzaion Moises Israel herriari: «Gogoratu Jaunak zeure Jainkoak basamortuan berrogei urte hauetan eginarazi dizun bidea: atsekabetu egin zaitu eta probatu, zure barne-asmoak ezagutzeko eta zuk beraren aginduak beteko zenituen ala ez jakiteko. Behar gorrian jarri zintuen, gosea pasarazi eta mana eman zizun jaten, ez zuk eta ez zure gurasoek ezagutzen ez zenuten janaria, zuri jakinarazteko gizakia ez dela ogiz bakarrik bizi, baizik eta Jaunaren ahotik ateratzen den hitz guztitik bizi dela. Ez ahaztu Jauna zeure Jainkoa. Berak atera zaitu Egiptotik, esklabotza-lurraldetik; berak eraman zaitu suge pozoitsuz eta eskorpioiz betetako basamortu handi eta ikaragarrian barrena, urik gabeko eremu elkor horretan barrena; berak atera du sukarritik ura eta edaten eman dizu; berak eman dizu jaten basamortuan zure gurasoek ezagutu ez zuten mana».

Sal 147: Jerusalem, ospa ezazu Jauna.**San Paulok Korintoarrei 1 gutunetik 10, 16-17.**

Senideok: Jainkoa bedeinkatuz hartzen dugun esker onezko kalizak ez al gaitu Kristorekin bat egiten haren odolean? Eta zatitzen dugun ogiak ez al gaitu Kristorekin bat egiten haren gorputzean? Ogia bat denez, guztiok gorputz bat gara, ogi bakarretik hartzen baitugu denok.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 51-58.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Ni naiz zerutik jaitsia den ogi bizia; ogi honetatik jaten duena betiko biziko da. Eta Nik emango dudan ogia nire haragia da, mundua bizi dadin emana». Juduak eztabaidan ari ziren beren artean: «Nola eman diezaguke honek bere haragia jaten?». Jesusek esan zien: «Egi-egiaz diotsuet: Gizonaren

Urteko 10. astea

KRISTOREN GORPUTZ ODOLAK

San Bernabe, *apostolua*

Semearen haragia jaten eta haren odola edaten ez baduzue, ez duzue bizirik izango zeuengan. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duenak betiko bizia du, eta Nik piztuko dut azken egunean. Zeren nire haragia egiazko janari baita eta nire odola egiazko edari. Nire haragia jaten eta nire odola edaten duena nigan dago eta Ni harengan. Bizia den Aitak bidali nau eta Ni Aitari esker bizi naiz; era berean, Ni jaten nauena, niri esker biziko da. Hau da zerutik jaitsia den ogia; ez da zuen gurasoek jan zutena bezalakoa, haiek hil egin baitziren. Ogi honetatik jaten duena betiko biziko da».

Corpus-eguna edo Bestaberri-eguna, XIII. mendean hasi zen ospatzen Eliza jai hau, eta helburua, eukaristia-espezieetan Kristoren benetako presentzia gurtzea izan zuen. Orduz geroztik, eukaristiaren inguruan espiritualtasun sendoa garatzen joan da, baina ez dira falta izan, hein batean, guztia “gauzaki huts bihurtzearen” moduko gehiegikeriak ere; adibidez, gurtzakoa den bigarren une hori ospakizungihar den lehenengo unearekin (Jesusen presentziarekin) zerikusik ez balu bezala hartzea. Gaur egun “Corpus” eguna ospatzen jarraitzean, litekeena da jada prozesioan irtete horrek hainbesteko esanahirik ez izatea eta, aldiz, «barneko sotoan» sartzea garrantzitsuagoa izan daiteke, han, misterio honek duen zentzua eta irismena (Jesusen presentzia) sakon edateko. Eukaristia gune arriskutsua da; izan ere, Jaunak besteen alde emandako biziari begiratzeak, beraren misioari eta beraren zoriari derrigorrez atxikitzen gaitu. Beraz, Kristoren gorputza jatea eta odola edatea, «beraren bidez» eta «beraren bitartez» bizi izaten ausartzea da eta geure bizitzan kokatzea, bera geure bitartez bizi ahal izan dadin. Gorputz hori, puskatzen uzten den gorputza da eta gose den munduak jan dezan uztea da. Odol izatea, berriz, gordetzen ez dena, baina gizateriaren zaurietan isuria izan daitekeena, samurtasuna eta sendakuntza eskaintzeko da. Zerbait bizia da Eukaristia eta bidean ibili dabilena.

San Paulok 2 Korintoarrei 1, 1-7: Jainkoak ematen digu adore, guk ere besteak edozein atsekabetan adoretu ahal ditzagun. **Sal 33:** Dasta ezazue eta ikus zein ona den Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 1-12.

Aldi hartan, jendetza ikusirik, Jesus mendira igo zen. Eseri eta ikasleak inguratu zitzaizkion. Orduan, honela hasi zitzaien irakasten: «Zorionekoak gogoz behartsu direnak, berena baitute Jainkoaren erreinua. Zorionekoak atsekabetuak, beraiek baititu Jainkoak kontsolatuko. Zorionekoak apalak, berek izango baitute agindutako lurra ondare. Zorionekoak zuzentasunaren gose eta egarri direnak, beraiek baititu Jainkoak aseko. Zorionekoak errukitsuak, beraiek baititu Jainkoak erruki izango. Zorionekoak bihotz-garbi direnak, berek ikusiko baitute Jainkoa. Zorionekoak bakegileak, Jainkoaren seme-alaba izango baitira. Zorionekoak zuzentasunagatik erasoa jasaten dutenak, berena baitute Jainkoaren erreinua. Zorionekoak zuek, nigatik madarikatuko zaituztetenean, erasoka eta gezurrez gaizki esaka erabiliko zaituztetenean. Poztu zaitetze eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruetan. Zuen aurreko profetak ere halaxe erabili zituzten».

Liturgia-urtearen garai honetan, egunez eguneko irakurketa jarraikia Mateoren ebanjelioan barneratzen hasi gara. Zoriontasunen pasarteak, pazkoaldiko eta ondorengo jaien poza igaro ondoren, gure artean leun-leun irudikatuz doan denboraldi arrunta argitzera dator. Hain zuzen ere, eguneroko bizitzaren lurraldean gara gonbidatuak, behin eta berriz, benetako zoriontasunaren esperientzia bizi izatera, Jesusek behin eta berriz iragarri zuen eta berari bizia kosta zitzaion jarrera da zoriontasunean, baina piztuerak berretsi ziona. Berari jarraitzeak eta goizero ikaslearen bideari ekiteak, zoriontasunen paradoxa moduko jakinduriari geure burua irekitzea dakar; baina ez mundu ideal batean, baizik eta Jainkoak hainbeste maite duen gure lur honetan.

Urteko 10. astea

San Antonio Paduakoa, *apaiza eta eliz irakaslea,*
*frantziskotarra*San Fandila, *apaiza eta martiria*

San Paulok 2 Korintoarrei 1, 18-22: Jesus ez zen izan batean «bai» eta bestean «ez»; harengan dena «bai» izan zen. Sal 118: Erakutsi aurpegi argia, Jauna, zeure zerbitzari honi.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 13-16.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zuek zarete lurraren gatza. Baina gatza gezatzen bada, nola gazitu berriro? Ez du jadanik ezertarako balio, kanpora bota eta jendeak zapaltzeko baizik. Zuek zarete munduaren argia. Ezin daiteke ezkuta mendi gainean dagoen herria. Kriseilua ere ez da pizten lakaripean ipintzeko, argimutilaren gainean ipintzeko baizik, etxeko guztiei argi egin diezaien. Era berean, zuen argiak denen aurrean egin behar du argi, zuen egintza onak ikusiz, zeruko zuen Aita goretz dezaten».

Aste honetan irakurriko dugun Mateoren 5. kapituluan, argi eta garbi ikusiko dugu, Jesusi borborka ateratzen zaiola Nazareten ikasia duen jakinduria. Gatza eta argia eguneroko bizitzako funtsezko bi elementu dira. Ikasleak ere ezinbesteko dira: Ebanjelioaren zapoerari bizia ematen diotelako eta beren Jaunagandik jasotzen duten argia eskaintzen dutelako. Ez dira berak giltzarri, baizik eta beraien lekukotzari esker gertatzen da hori. Zein garrantzitsua den gogoan izatea, tresna soil baino ez garelara, graziaren zubi alegia; gogoan izatea, behin ere ez dugula bistatik galdu behar eta gogoan izan behar dugula zein garrantzitsua den –agian gure egintza onak ikustean–, jendea biziago senti daitekeela eta Jainkoari aintza gogotsuago emango diola.

Urteko 10. astea
San Eliseo, *profeta*

San Paulok 2 Korintoarrei 3, 4-11: Itun berri baten zerbitzari izateko gai egin gaitu. Itun hori ez da legearen letra soilean oinarritzen, Espirituaren indarrean baizik. **Sal 98:** Santua zara Jauna, gure Jainkoa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 17-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez uste izan Moisesen legea edota profeten esanak baztertzeraz etorria naizenik; ez naiz baztertzeraz etorri, beren betera eramatera baizik. Benetan diotsuet: Zeru-lurrek iraungo duten bitartean, legearen letrarik edo zeinurik txikienak ere ez du baliorik galduko, dena bete arte. Beraz, agindurik txikienetako bat hausten duena eta hausten irakasten, txikiena izango da zeruetako erreinuan; betetzen duena, berriz, eta betetzen irakasten, handia izango da zeruetako erreinuan».

Mateo ebanjelaria, erro juduak dituen elkarteari zuzentzen zaio eta jende horrentzat Legea eta Profetak oso garrantzitsuak dira. Ebanjelari honek behin eta berriz dio, Jesus, Israelgo herriaren sustrai den hura bete-beteaz burutzeraz etorria dela. Baina, jarraikortasun- eta betetze-lerro horretan, Mateoren elkartea, apurka-apurka, haustura ikusiz joango da. Jesusek oso modu berezia du Legearen osotasuna ikusteko eta ez dator erabat bat letra hutsarekin. Sakonagora joaten da eta letraren erraietan sartzen da, zentzua ematen dion espirituan, alegia.

Urteko 10. astea

Santa Maria Mikaela, *birjina, fundatzailea*
(*Aldareko Sakramentuaren Adoratzailerak*)

San Paulok 2 Korintoarrei 3, 15–4, 1. 3-6: Jainkoak berak piztu du argia gure bihotzean, Jesu Kristoren aurpegiari distira egiten duen Jainkoren aintza argiro ezagut dezagun. **Sal 84:** Gure lurraldean kokatuko da Jaunaren aintza.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 20-26.

Aldi artan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jainkoaren nahia lege-maisuek eta fariseuek baino hobeki betetzen ez baduzue, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Ez hil inor”, eta norbait hiltzen duena errudun izango da auzitegiari. Nik, ordea, hau diotsut: Bere senidearekin haserretzen dena errudun izango da auzitegiari; senideari “zoroa” esaten diona errudun izango da batzar nagusian, eta “sinesgabea” esaten diona infernuko surako errudun izango da. Beraz, zeure oparia aldarean eskaintzean, gogoratzen bazara zure senideak baduela zerbait zure aurka, utzi oparia han bertan, aldare aurrean, eta zoaz lehenik senidearekin bakeak egitera; etorri orduan eta eskaini zeure oparia. Konpon zaitez lehenbailehen zeure etsaiarekin, harekin auzitegiari zoazen bitartean, etsaiak epailearen esku jar ez zaitzan, eta epaileak ertzainaren esku, eta giltzapean sar ez zaitzaten. Benetan diotsut: Ez zara handik aterako azken txanpona ordaindu arte».

Jesusen irakaspenen artean, garrantzi nabarmena hartzen dute gizakien arteko harremanak kudeatzen dituztenek. Berak proposatzen duena da, bere garaiko usadio eta ohiturekiko jauzi kualitatiboa egitea. Jada ez da nahikoa inor ez hiltzea, lege naturalean finkatutako agindua betetze hori, alegia; orain beharrezkoa da askoz ere urrunago joatea: gatazkan, desadostasuna ekidin eta gatazka konpondu behar da. Jesusek, harremanen korrante baikorrean sartzera dei egiten digu, gaitzik ez egiteko bertutetik karitate ekintzailera igarotzera, elkarrizketaren ekimena eta berradiskidetzea hartzen dituenara. Bizitzeko modu horrek, erresuminaren kartzelatik irten eta askeago izateko aukera emango digu.

Deuteronomio liburutik 7, 6-11.

Honela mintzatu zitzaion Moises Israel herriari: «Jaunarentzat, zeure Jainkoarentzat, sagaraturiko herria zara; berak aukeratu zaitu munduko herri guztien artean beraren herri, beraren jabego berezi, izateko. Jaunak atsegin izan eta aukeratu bazaituzte, ez da beste herriak baino handiago zaretelako –txikiena baitzarete–, baizik eta zuen arbasoei eginiko zina bete nahi izan duelako; horregatik, hain zuzen, atera zaituzte ahalmen handiz esklabotzatik eta askatu Egiptoko faraoiaren menpetik. Aitor ezazu, beraz, Jauna zeure Jainkoa dela egiazko Jainkoa: Jainko leiala, maite dutenei eta haren aginduak betetzen dituztenei ituna gordetzen eta onginahia mila belaunaldiz agertzen diena; gorroto dionari, berriz, zuzenean ematen dio ordaina eta suntsitu egiten du; luzatu gabe ematen dio ordaina. Bete, bada, gaur ematen dizkizudan aginduak, legeak eta erabakiak». Jaunak esana.

Sal 102: Jaunaren maitasuna betidanik betidaino begirune diotenezat.**San Joan Apostoluaren 1. gutunetik 4, 7-16.**

Seme-alaba maiteok: Maita dezagun elkar, maitasuna Jainkoagandik baitator, eta maite duen guztia Jainkoagandik jaioa da eta ezagutzen du Jainkoa. Maite ez duenak ez du ezagutzen Jainkoa, Jainkoa maitasun baita. Jainkoak digun maitasuna honetan agertu zen: Jainkoak bere Seme bakarra bidali zuela lurrera, gu haren bidez bizi gaitezen. Honetan datza maitasuna: ez guk Jainkoa maite izatean, baizik eta hark gu maite izatean, eta bere Semea gure bekatuen barkamen-oparizat bidali izatean. Seme-alaba maiteok, Jainkoak gu hain maite izan bagaitu, guk ere maitatu egin behar dugu elkar. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi. Elkar maite badugu, Jainkoa gudan dago, eta haren maitasuna bere betera iritsi da gudan. Guk badakigu harengan gaudela eta hura gudan, eta hori, bere Espiritua eman digulako. Guk ikusi dugu eta aitortzen Aitak

Urteko 10. astea

JESUSEN BIHOTZ GUZTIZ SANTUA

Santa Justina, *martirina*San Bernabe, *monjea*

bere Semea bidali zuela munduaren salbatzaile. Norbaitek aitortzen badu Jesus Jainkoaren Semea dela, Jainkoa harengan dago, eta hura Jainkoagan. Guk ezagutu dugu eta sinetsi Jainkoak digun maitasuna. Jainkoa maitasun da; maitasunean dirauena Jainkoagan dago eta Jainkoa harengan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 25-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik. Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartazue nire uztarria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

Badira jai batzuk, beren historiako arrastoak edota jaierazkoak tarteko direlarik, ongi ospatzea zailago gertatzen zaizkigunak; Jesusen Bihotzaren jaia izan daiteke horietako bat. Alabaina, Jesusen bihotzaren zentzu sakonean sartzeak gaurkotasan izugarria duen gonbita dirudi, hain zuzen ere, bihotza leku guztietan presente aurkitzen den munduan. Jesusen bihotzari begiratzeak, ez du zerikusirik pertsonaren gainerako organoetatik bereizitako, lantza batek zeharkatutako eta arantzazko koroa jasandako fisiologia-organo batera hurbiltzearekin. Usadiozko irudikatze horrek –gaur egungo gure sentiberatasunarekin ziur aski talka egiten du– askoz ere sakonagoa den zerbait adierazten du: Jesusek, hainbestearino partekatu du gure gizatasuna, gurea den gauza ororekin dar-dar egiten baitu, maitasunarekin eta minarekin batez ere. Jesusen bihotza, Mariaren sabelaren iluntasunean haziz joan den umekiaren bihotza da. Betleemen negar egiten duen haurraren bihotza eta Nazaretoko bizitza bizi izan duen gaztearena. Bideetara

Berri Ona hots egitera irteten den gizonaren bihotza da, bere Aitarekin elkartuta bizi denarena, heriotza askatasun osoz bere gain hartzen duenarena, gaizkiari bere burua zeharka dezan utzi dionarena eta pizturik munduaren bihotzean taupaka ari dena. Horixe da Jesusen bihotz sagaratu, gudan taupaka jarraitu nahi duena.

* * *

Jesusen Bihotz Guztiz Santua

XVII. mendearen erdi aldera sortu zuen Jesusen Bihotzarekiko jaiera edo debozioa San Joan Eudes apaiz frantsesak, eukaristia ospatzeko testuak ere hautatu zituelarik. Frantziako apezpiku batzuek onespena eman zioten. Santa Margarita Maria Alacoque-k Jesusen Bihotzaren agerpenak izan zituela eta, indar handia hartu zuen debozio honek, baita hileko lehenbiziko ostiraletan jaunartzeko ohiturak ere, eta Eliza osoan jai berezia egiteko proposatu zuen Margaritak, bekatuen barkamena eskatzeko. Colombière, Croiset eta Gallifet jesuitek asko lagundu zioten horretan. XVIII. mendean asko zabaldu zen Jesusen Bihotzarekiko debozioa Euskal Herriko elizetan, aita Mendibururi eta beste jesuita batzuei esker. Erromako aita santuek ere gero eta maila handiagoa eman izan diote jai honi, nahiz eta beti izan diren teologia eta liturgia aldetik kritikak egin dituzten autoreak.

Urteko 10. astea

Andre Mariaren Bihotz Guztiz Garbia

Santa Valeriana, *martiria*. San Inozentzio, *martiria*

San Paulok 2 Korintoarrei 5, 14-21: Bekatuarekin zerikusirik ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatu bihurtu zuen. Sal 102: Bihozbera eta errukiorra da Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 41-51.

Jesusen gurasoak Jerusalemara joaten ziren urtero erromes Pazko-jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituenean, Jerusalemara igo ziren jaietara, ohitura zen bezala. Jaiegunak bukaturik gurasoak etxerantz abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalemen gelditu zen, haiek jakin gabe. Erromes-kideen artean zetorrelakoan, egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren taldeko ahaideen eta ezagunen artean. Eta aurkitzen ez zutelarik, Jerusalemara itzuli ziren haren bila. Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, irakasleen artean eserita, haiei entzuten eta galdezka. Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden erantzunetan azaltzen zuen argitasunagatik. Gurasoak, ikusi zutenean, harriturik gelditu ziren, eta amak esan zion: «Seme, baina zergatik egin diguzu hori? Horra nolako atsekabez ibili garen aita eta biok zure bila!» Hark erantzun zien: «Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten Nik neure Aitaren etxean egon behar dudala?» Haiek, ordea, ez zuten ulertu zer esan nahi zien. Jesus Nazaretera jaitsi zen haiekin, eta haien menpean bizi zen. Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak.

Ospakizun honek, atzokoari lotuak, Jainkoak gure bizitzan dagien ekintza kontenplazera gonbidatzen gaitu. Jainkoaren errukiak inguratzen gaitu, bihotzeko begiez kontenplatu behar dugu, Mariak egin zuen bezala: bere Semearen Gizakundearen Adierazpenean emandako «bai» fidatuan hasi, Jaiotzearen poza eta Nazareteko haurtzaroko eta gaztaroko egunerokotasuna bizi eta jendaurreko bizitza eginik gurutzeko heriotzan eta Piztueraren esperientzia gozoan bukatu zuen arte. Mariak bere bihotzean hausnartzen zuen hau guztia,

Urteko 10. astea

Andre Mariaren Bihotz Guztiz Garbia

Santa Valeriana, *martiria*. San Inozentzio, *martiria*

eta honek, gainerakoengandik aldendu ordeztu, bultza egiten zion gizonekumeengana.

* * *

ANDRE MARIAREN MEZA

Isaias Profetaren liburutik 61, 9-11.

Ospetsu izango dira nire herriaren ondorengoak nazio eta herrien artean; ikusiko dituzten guztiek aitortuko dute Jaunak bedeinkaturiko herria direla.

Pozaren pozez nago Jaunarekin, neure arima Jainkoarekin alai daukat, salbamenaz jantzi bainau, garaipen-soinekoz estali, koroa jantzen duen senargaia bezala, edergailuz apaintzen den andreagaia bezala.

Lurrak landarea ematen eta baratzeak hazia ernearazten duen bezala, hala ernearaziko du Jaunak justizia eta gorespena nazio guztien aurrean.

Sal: 1 Sm 2, 1. 4-5. 6-7. 8abcd: Jaunagan da nire bihotza pozten, nire Salbatzaileagan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 41-51.

Jesusen gurasoak Jerusalemara joaten ziren urtero erromes Pazko-jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituenean, Jerusalemara igo ziren jaietara, ohitura zen bezala. Jaiegunak bukatu gurasoak etxerantz abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalemen gelditu zen, haiek jakin gabe. Erromes-kideen artean zetorrelakoan, egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren taldeko ahaideen eta ezagunen artean. Eta aurkitzen ez zutelarik, Jerusalemara itzuli ziren haren bila. Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, irakasleen artean eserita, haiei

Urteko 10. astea

Andre Mariaren Bihotz Guztiz Garbia

Santa Valeriana, *martiria*. San Inozentzio, *martiria*

entzuten eta galdezka. Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden erantzunetan azaltzen zuen argitasunagatik. Gurasoak, ikusi zutenean, harriturik gelditu ziren, eta amak esan zion: «Seme, baina zergatik egin diguzu hori? Horra nolako atsekabez ibili garen aita eta biok zure bila!». Hark erantzun zien: «Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten Nik neure Aitaren etxean egon behar dudala?». Haiek, ordea, ez zuten ulertu zer esan nahi zien. Jesus Nazaretera jaitsi zen haiekin, eta haien menpean bizi zen. Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauza hauek guztiak.

«**B**eraren amak bihotzean gorde ohi zuen hau guztia». Jesusekin bizi izandakoen oroitzapenen gordailua da Mariaren bihotza. Ama izateko jaso duen deiaren... bere semearen jaiotzaren... Jesusen haurtzaroaren... iristen zitzaizkion bere semearen jarduera predikatzaile eta taumaturgikoaren albisteen... zintzilik, hiltzorian eta gurutzean hiltzen ikusi izanaren dolorearen... piztu zelako albistean pozaren... gordailua. Oroitzapen hauek beti zuten, ordea, zeinek bere galdera: «zergatik?». Halere, ez zuen galdera horrek Mariaren Bihotza bere «ego»an hesitu; aitzitik, beti handiago agertzen zitzaion Jainkoagana ireki ohi zuen. Jainkoa zen, egun batean, seguru zegoen bera, beraren xumetasunaz maitemindu zena.

Urteko 11. astea

San Markos eta San Martzelino, *martiriak*
San Ziriako eta santa Paula, *martiriak***Irteera liburutik 19, 2-6a.**

Egun haietan, israeldarrek Sinai basamortura iritsi eta han ipini zuten kanpalekua, mendiaren aurrez aurre. Jainkoagana igo zen Moises. Jaunak menditik dei egin eta esan zion: «Hitz egin Jakoben ondorengoei, israeldarrei, eta adierazi hau: “Ikusi duzue zer egin diedan egiptoarrei, eta zuek nola eraman zaituztedan arrano-hegaletan eta neugana ekarri. Orain, beraz, nire esana betetzen baduzue eta nire ituna gordetzen, zuek izango zaituztet herri guztien artean neure jabego berezi, nirea baita lur osoa; apaiz eta errege izango zaituztet eta neuri sagaraturiko herri”».

Sal 99: Jaunaren herri gara eta haren larreko artalde.**San Paulo Apostoluak Erromatarrei 5, 6-11.**

Senideok: Oraindik bekatupean indargabe geundela, Kristo, Jainkoak erabakitako garaian, gaitzoten alde hil zen. Nekez onartuko luke norbaitek pertsona zuzen baten alde hiltzea; hala ere, pertsona on baten alde baliteke norbait hiltzeko prest egotea. Baina Kristo, artean gu bekatari ginela, hil zen gure alde; honela erakusten du Jainkoak guri digun maitasuna. Orain Jainkoak Kristoren odolaz zintzotzat hartu gaituelarik, zenbatez gehiago ez ote gaitu salbatuko zigorretik beraren bitartez! Etsai ginelarik, Jainkoak berekin adiskidetu bagintuen bere Semearen heriotzari esker, zenbatez gehiago, behin adiskidetzuz gero, ez ote gaitu salbatuko haren biziari esker! Are gehiago, harrotu ere egiten gara Jainkoaz Jesu Kristo gure Jaunari esker, honen bitartez Jainkoarekin adiskidetzea iritsia baitugu dagoeneko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 36–10, 8.

Aldi hartan, jendetza ikustean, erruki izan zuen Jesusek, nekatua eta lur joa baitzegoen jende hura, artzainik gabeko ardiak bezala. Orduan,

Urteko 11. astea

San Markos eta San Martzelino, *martiriak*San Ziriako eta santa Paula, *martiriak*

ikasleei esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Erregutu, bada, uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztara». Eta hamabi ikasleei dei egin eta ahalmena eman zien espiritu gaiztoak botatzeko eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzeko. Hona hamabi apostoluen izenak: lehenbizi Simon, Pedro deritzana, eta honen anaia Andres; Santiago Zebedeorena eta honen anaia Joan; Felipe eta Bartolome, Tomas eta Mateo zergalaria, Santiago Alfeorena eta Tadeo, Simon Zelote eta Judas Iskariote, Jesus saldu zuena. Hamabi horiek bidali zituen Jesusek, ohar hauek eginez: «Ez joan jentilen lurraldeetara, ez sartu Samariako herrialdean ere, baizik eta zoazte galduak dabiltzan Israel herriko ardietara. Eta bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu lepradunak, bota deabruak; hutsean hartu duzue, eman hutsean».

Jesuden misiorako presa errukitik sortzen da, bizitzak nekarazi eta abaildua duen jendeari bidera irteteko bere erraietan sentitzen duen beharrak eraginda. Bere ikasleak misiolari bidaltzen dituenean, ez ditu bidaltzen jendea konbentzitzera eta konbertitzera, baizik eta bizia eta pertsonaren duintasuna zaharbertitzen duten keinuak eta hitzak eskuzabaltasunez banatzera: sendatu, piztu, garbitu, kanporatu. Bi egiaztapen horiek funtsezkoak gertatzen dira Elizaren bizitzan eta bataiatu guztion eguneroko konpromisoan. Ez gara zenbakiak handitzera eta elizak betetzera bidaliak; xede horrek ihes egingen digu eskuetatik, Jainkoak ez baitigu horretarako ahalmenik eman. Jaunak berak egindako egintza berberak egitera bidaliak gara, geure harremanen eta geure eguneroko eginkizunen barruan. Bakardadeak zauritutako zenbat pertsonak ez ote du itxaroten sendatzea, belarri bat entzuteko prest ikusirik! Goseak akabatutako zenbat pertsonak ez ote du behar gu mila erataria konprometitzea mundu zuzenago baten eraikuntzan! “Legenar eta deabru garaikideek” baztertutako zenbat pertsonak ez du nahi Elizak benetako inklusioen arloan urratsak ematea! Jokoan dagoena Erreinuaren hazkuntza da; beraz, horregatik, guk ezin dugu geure loriatan lo hartu. Horregatik, eta egunero doan jasotzen duguna gorderik gordetzeko eskubiderik ez dugulako.

San Paulok 2 Korintoarrei 6, 1-10: Jainkoaren zerbitzari garela agertzen dugu. Sal 97: Bere garaipena ezagutarazi du Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 38-42.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Bergia begiaren ordain, hortza hortzaren ordain”. Nik, ordea, beste hau diotsuet: Gaizkileari ez erantzun gaizki; bestela baizik, eskuineko masailean jotzen zaituenari eskaini beste masaila ere; soinekoa kentzeko auzitara eraman nahi zaituenari eman soingainekoa ere; norbaitek mila pauso egitera behartzen bazaitu, egin bi mila berarekin. Eskatzen dizunari eman, eta dirua uzteko eskatzen dizunari ez ukatu».

«**H**au eta hori... entzun duzue, baina nik diotsuet...». Nori entzuten diogu benetan? Nori esaten dio Jesusek «bergia begi-truk eta hortza hortz-truk» jokabidearekin ibiltzeaz nahikoa duela? Edota nori dei egiten dio guk burura genezakeena baino bide askoz aldapatsuagoa ibiltzera? Etengabe ari gara entzuten, geure burua liluratzen uzten dugu, eta aukerak egiten ditugu. Hitz horrek galdera egitera gonbidatzen gaitu: norantz begira jarrita dago gaur egun gure bihotzeko belarria? Kitzikagarriz lepo egina den munduan, Jesusen kontrakulturako proposamena guregan txerta daiteke, baldin eta hark erakar gaitzan, lilura gaitzan eta bidal gaitzan uzten badugu.

Urteko 11. astea

Santa Florentina, *birjina*

San Silverio, *58. aita santua*

San Paulok 2 Korintoarrei 8, 1-9: Jesu Kristo behartsu egin zen zuengatik. Sal 145: Goretsazu Jauna, ene barrena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 43-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzuna duzue antzinakoei agindua: “Maita ezazu zeure lagun hurkoa eta gorrota zeure etsaia”. Nik, ordea, hau diotsuet: Maita itzazue zeuen etsaiak eta egin oitotz eraso egiten dizuetenen alde, zeruetan dagoen zeuen Aitaren seme-alaba izan zaitezten, hark gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen baitu eguzkia, eta zuzenentzat eta zuzengabeentzat egiten euria. Izan ere, maite zaituztenak bakarrik maite badituzue, zer sari zor zaizue? Zergalariek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zeuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue berezirik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitezte, beraz, guztiz onak, zeruko zuen Aita guztiz ona den bezala».

Jesusen arabera, gure egitekoa Aitaren seme-alaba moduan duintasunez bizitzea da. Beraz, gure izateko moduaren erreferentzia, Jainkoaren izateko modua da baina haren irizpideak gurengandik oso urrun daude. Geure kalkulu zikoitzekin guk “zuzenak” izan eta bakoitzari dagokiona eman nahi geniokeen arren, Aitak, neurririk gabeko maitasunarekin arrazoitzen du eta mugarik gabeko eusmenarekin: agian gaiztoak Jainkoagana bihurtuko dira eguzkia aurkitzen dutenean; agian zuzengabeek pentsatu egingo dute euriak beraien lurra ere irrigatzen dituela ikustean. Espirituak soilik sar gaitzake pozez Jainkoaren logikan eta leun-leun maitasunaren bete-betera eraman.

Urteko 11. astea

San Luis Gonzaga, *jesuita*
San Ramon Rodakoa, *gotzaina*

San Paulok 2 Korintoarrei 9, 6-11: Alai ematen duena maite du Jainkoak. Sal 111: Zorionekoa Jaunari begirune diona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 1-6.16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Begira, gero: ez egin zeuen egintza onak jendaurrean, ikus zaitzaten! Bestela, ez duzue zeruetan dagoen Aitaren saririk izango. Limosna ematean, beraz, ez ibili aurretik turuta jotzen, itxurazaleak sinagogetan eta kaleetan ibiltzen diren bezala, jendeak txalotu ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk limosna ematean, ordea, ez beza jakin zure ezkerak zer egiten duen eskuinak; horrela, zure limosna ezkutuan geldituko da; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina. Otoitz egitean, ez egin itxurazaleek bezala; horiek sinagogetan eta plaza-ertzetan zutik otoitz egitea maite baitute, jendeak ikus ditzan. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zu, ordea, otoitz egitean, sar zaitetz zeure gelan, itxi atea eta egiozu otoitz ezkutuan dagoen zeure Aitari; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina. Barau egitean, ez agertu kopetilun, itxurazaleak bezala; aurpegia itsustu egiten baitute, barau egiten dutela jendeari agertzeko. Egia esan, horiek jaso dute beren saria. Zuk, ordea, barau egitean, gantzutu zeure burua usain gozoz eta garbitu aurpegia, jendeak ez, baino ezkutuan dagoen zure Aitak ikus dezan zure baraua; eta ezkutuan ere ikusten duen zeure Aitak emango dizu ordaina».

Urteko 11. astea

San Luis Gonzaga, *jesuita*San Ramon Rodakoa, *gotzaina*

Limosna, baraua eta otoitza ziren juduen espiritualtasunaren hiru pilareak, eta Jesusek ez zituen hiru horiek ezabatu, baizik eta berraztertu egin zituen, beraren ikasleek hiruren benetako funtsa aurki zezaten. Azken batean, “ohiturak”, “jaierak”, “gogo-jardunak” eta gisakoak, geure burua Jainkoagana irekitzeko ditugun bitartekoak baino ez dira. Bitarteko horiek helburu bihurtzen ditugunean, edota, okerrago dena, geure zuzentasunaren ideia edo geure buruaren irudiaren ontasuna asetzeko haietaz baliatzen garenean, haiek urardotu eta geure burua engainatu besterik ez dugu egiten. Jainkoarekiko harremana, geure egiaren barne-egoitza horretan gertatzen da eta gogoetek lagun diezagukete barnera sartzen, baina berak atean geldituta.

* * *

San Luis Gonzaga

San Luis Gonzaga Italian jaio zen 1568an, markes baten lehen- seme. Florentzian, hamar urterekin, Frantzisko duke handiaren ohorezko zerbitzari izan zen; gorteko ustelkeria ikusirik, birjintasuna gordetzeko zina egin zuen.

Hamabi urte zituela, lehen-jaunartzea egin zuen. Espainian, 1581etik 1584ra, otoitzean ari zela, jesuita sartzeko inspirazioa izan zuen. Aitaren asmoen aurka, markes-titulua bere anaia Rodolfori utzirik, 1585ean Erromako jesuiten nobiziatuan sartu zen, hamazazpi urterekin. Otoitz eta penitentzia-bizitza sakona eraman zuen. Apaizgorako prestatzen ari zela, izurritea sortu zen Erroman. Lehenbizikoa izan zen bere burua eskaintzen gaixoak zaintzeko. Bera ere kutsatua gertatu zen, gaixo bat sorbaldan ospitalera zeramala. Hogeita hiru urterekin hil zen Erroman 1591n. Amari idatzi zion: «Hau dena diot, neure gogoia adierazteko bakarrik: zuk, andere handi horrek, eta familiako beste guztiek har dezazuela ni mundu honetatik joatea pozteko aukeratatzat».

San Paulok 2 Korintoarrei 11, 1-11: Jainkoaren Berri Ona dohainik hots egin nizuen. Sal 110: Zure egintzak, Jauna, leial eta zintzo dira.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Otoitz egitean, ez jardun esan eta esan, jentilak bezala, uste baitute beren hitz-jarioari esker entzungo diela Jainkoak. Ez izan haien antzeko, badaki-eta zuen Aitak zer behar duzuen, zuek eske hasi baino lehen. Beraz, zuek honela egingo duzue otoitz: “Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia, zeruan bezala lurrean ere. Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik”. Izan ere, zuek besteei beren hutsegiteak barkatzen badizkiezue, zuei ere barkatuko dizue zeruko zeuen Aitak; baina besteei barkatzen ez badiezue, zuei ere ez dizkizue barkatuko Aitak zeuen hutsegiteak».

Jesusek irakatsi zigun otoitza hain da indartsua, non Elizaren eguneroko otoitza elikatzen baitu. Otoitz egiteak, kristau-moduan, ez du zerikusirik nork bere burua hutsune atseginean biltzarekin. Batez ere, geure bizitza izen eta aurpegi jakinez betetzen uztea da. Otoitz egitea seme-alaba eta senide gisa begiratzen digun Aitarek presentziari irekitzea da. Gizakiaren bizitza errespetatzen dugun bakoitzean, bere izena goratua eta santifikatua ikusten du Aitak. Bere Erreinuaren hazkuntza nahi duen Aita, guztiontzako ogiz bete, senidetasun-harremanez ehundua eta barkamenak eutsia da. Zenbat aldiz jo behar ote dugu Aita horrengana geure aita gisa benetan senti dezagun?

Urteko 11. astea

Santa Agripina, *martiria*

San Urbano, *martiria*

San Paulok 2 Korintoarrei 11, 18. 21b-30. Horien guztien gainetik, eguneroko nire buruhaustea: eliz elkarte guztien ardura. **Sal 33:** Beldur guztietatik atera ninduen Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 6, 19-23.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez pilatu mundu honetan zeuen ondasunak, sitsak eta herdoilak jaten baitituzte hemen, eta lapurrek zuloak egin eta harrapatzen. Pilatu zeruan zeuen ondasunak, han ez baititu sitsak, ez herdoilak jaten, ezta lapurrek zuloak egin eta harrapatzen ere. Zeren, zure aberastasuna non, zure bihotza han. Begia da gorputzari argi egiten dion kriseilua. Begia onik baduzu, zure gorputz osoa argian ibiliko da. Baina begia gaixo baduzu, zure gorputz osoa ere ilunetan ibiliko da. Beraz, zure barruan argi izan behar lukeena iluna bada, a zer ilunpea zurea!».

Ez zaio arrotz Jesusi gizatiar den ezer, ez eta sitsaren eta lapurren egintzak ere! Harrigarria da bere mezua itxuraz hain arruntak diren irudietan txertatzeko duen gaitasuna. Zergatik dugu guk hainbeste zailtasun mundu guztiak ulertzen dituen hitzekin Ebanjelioaz hitz egiteko? Zergatik murrizten dugu sarritan Jainkoa erlijio-adierazpenen arlora edo hizkera sagaratueta, berak bere burua hainbat eratarazaltzen duenean? Jainkoak haragia hartu izanak ezabatu egin du sagaratu denaren eta sagaratu ez denaren arteko muga, eta «Jainkoa gauza guztietan bilatzera eta aurkitzera» bidaltzen gaitu, bera beti aurrez aurre dugunaren ziurtasuna bizirik.

Isaias Profetaren liburutik 49, 1-6.

Entzun, uharteok! Aditu, urrutiko herriok! Jaio aurretik deitu ninduen Jaunak, amaren sabelean nengoela gogoratu zen nitaz. Ezpata zorrotz bihurtu zidan ahoa, bere eskupean babestu ninduen; gezi zorrotz bihurtu ninduen eta gezi-ontzian gorde. Eta esan zidan: «Zu zara nire zerbitzaria, Israel, zure bidez agertuko dut neure ospea». Nik, berriz, hau nioen: «Alferrik nekatu naiz; alferrik eta hutsean akitu ditut neure indarrak». Baina Jaunaren baitan zegoen nire eskubidea, Jainkoaren eskuetan nire lansaria. Orain honela mintzo da Jauna, amaren sabelean eratu ninduen haren zerbitzari izateko, Jakoben leinuak harengana bihurtzeko eta Israel herria biltzeko. Ohorez jantzi nau Jaunak eta neure Jainkoa izan dut indar. Jaunak esan dit: «Ez da aski zu nire zerbitzari izatea, Jakoben leinuak berreraikitzeko eta Israelen bizirik geldituak itzularazteko. Nazioen argitzat ezarriko zaitut, nire salbamena lurraren azken mugaraino irits dadin».

Sal 138: Eskerrak zuri, harrigarriro egin nauzulako.

Apostoluen Eginak liburutik 13, 22-26.

Egun haietan, honela mintzatu zen Paulo: «Jainkoak David eman zien errege, honetaz aitormen hau eginez: “Aurkitu dut David, Jeseren semea, nire gogoko gizona, nik nahi guztia beteko duena”. Hitzemana zuenez, honen hazitik atera zion Jainkoak Israeli Salbatzailea: Jesus. Hau etorri baino lehen, Joan Bataiatzaileak bihotz-berritzeko bataioa hots egin zion Israel osoari. Eta bere bizitza bukatzera zihoanean, honela zioen Joanez: “Ez naiz ni zuek uste duzuen; badator nire ondoren beste bat, eta ni ez naiz inor haren oinetakoak askatzeko ere”». Senideok, Abrahamen ondorengo zaretenok, eta zuek, Israelen Jainkoa gurtzen duzuenok, geuri bidali zaigu salbamen-hitz hau».

Urteko 11. astea

SAN JOAN BATAIATZAILEAREN JAIOTZA

San Orentzio, *martiria*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 57-66.80.

Haurra izateko denbora bete zitzaionean, Elisabetek semea izan zuten. Jakin zuten auzokoek eta ahaideek zein erruki handia agertu zion Jaunak, eta zorionak ematen zizkioten. Jaio eta zortzigarren egunera, haurra erdaintzera eraman zuten, eta aitaren izena jarri nahi zioten, Zakarias. Amak, ordea, esan zuen: «Ez! Joan izango du izena». Esan zioten: «Ez duzue senitartean inor izen hori duenik». Orduan, aitari keinuka galdetu zioten zein izen eman nahi zion haurrari. Eta hark oholtxo bat eskatu eta idatzi zuen: «Joan du izena». Denak harriturik gelditu ziren. Bat-batean mihia askatu zitzaion Zakarias, eta hitz egiten hasi zen eta Jainkoa goesten. Beldurrak hartu zituen auzoko guztiak, eta Judeako mendialde guztian zabaldu zen gertatuaren berri. Entzuten zuten guztiek beren baitarako esaten zuten: «Zer izango ote da ume hau?». Zeren Jainkoaren eskua harekin baitzegoen. Haurra gorputzez hazten ari zen, eta espirituz sendotzen; basamortuan bizi izan zen, Israel herriaren aurrean agertu zen eguna arte.

Lukasek Jesusen hartzaroz dakarren ebanjelioak, parekidetasun handia du Joanen eta Jesusen artean; biek kontatzen dute jaiotzaren iragarpena, jaiotza bera, erdaintzea eta «ezkutuko bizitza» hurrenez hurren. Bikote horren koadroak, Lukasen kontakizunaren hasiera-hasieratik jadanik, bi pertsonaia horien arteko lotura estua ikusteko aukera ematen du. Biak datoz mundura bi emakume arau-hausleren bitartez, emakume biak dira ausartzen jendaurrean hitz egiten: Mariak Jaunaren handitasuna abesten du, eta Elisabetek tenpluko apaizei hitza kentzen die bere semearen benetako izena adierazteko. Joan Elisabet eta Zakariasen semea, «Jainkoa behin betiko aldeko duela» iragartzen duen aitzindaria da. Jesusek, berriz, bere biziarekin, heriotzarekin eta piztuarekin, bete-betea agertu du Jainkoaren aldeotasuna zertan datzan.

Jeremias Profetaren liburutik 20, 10-13.

Honela mintzo zen Jeremias: «Jendearen mehatxuak entzuten ditut, beldur-ikara nonahi: “Salatu, sala dezagun”. Adiskideak berak ere begira ditut, nik noiz huts egingo: “Ea engainatzen dugun, diote; orduan menderatuko dugu eta mendekua hartuko”. Baina neurekin dut Jauna, gudari indartsu; eroriko dira nire etsaiak, ezin izango naute garaitu; haien asmoek porrot egingo dute, haien lotsa sekulakoa izango da, ahaztezina betiko. Jaun ahalguztiduna, zuzen aztertzen duzuna, gizakiaren buru-bihotzak ikusten dituzuna, zure esku utzi dut neure auzia: ikusiko ahal dut zure mendekua etsaien bizkar! Kanta Jaunari, goretzazue Jauna, hark askatu baitu gaiztoen eskutik behartsuaren bizia».

Sal 68: Erantzun, ene Jainko, zeure maitasun handiaz.

San Paulok Erromatarrei 5, 12-15.

Senideok: Gizon baten bidez sartu zen bekatua munduan, eta bekatuaren bidez heriotza; horrela, heriotza gizaki guztiengana zabaldu zen, guztiak egin zutelako bekatu. Egia da legea baino lehen bazela bekatua munduan; baina bekatua ez zaio inori ezartzen, legerik ez badago. Hala ere, Adamengandik Moisesenganaino nagusi izan zen heriotza gizakien gain, baita Adamen hutsegitearen antzeko bekaturik egin ez zutenen gain ere. Adam etortzekoa zenaren irudi da. Baina Jainkoaren dohainarekin ez da bekatuarekin bezala gertatzen. Izan ere, gizon bakar baten bekatuaz denak hil badira ere, askoz ugariago zabaldu da denentzat Jainkoaren grazia eta dohaina, beste gizon bakar bati esker, Jesu Kristori esker, alegia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 26-33.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Ez izan jendearen beldur! Izan ere, ez dago ezer gordea agertuko ez denik, ezta ezer

Urteko 12. astea

San Felix, *ermitaia*Santa Orosia, *birjina*San Adalberto, *diakonoa eta abadea*

ezkutuan ere jakingo ez denik. Gaueko ilunpean esaten dizuedana esan zuek egun-argitan, eta belarrira entzuten duzuen hots egin etxegainetik. Ez izan beldurrik gorputza hil, bai, baina bizia kendu ezin dutenei; izan beldur, gorputza ez ezik, pertsona osoa ere infernua gal dezakeenari. Ez al dira bi txori txanpon batean saltzen? Hala ere, ez da bat bakarra ere lurrera erortzen zuen Aitaren baimenik gabe. Zuen buruko ileak ere zenbatuak ditu Jainkoak. Ez, bada, beldur izan; txori guztiek baino gehiago balio duzue zuek. Jendearen aurrean aitortzen nauena aitortuko dut Nik ere zeruko neure Aitaren aurrean; baina jendearen aurrean ukatzen nauena ukatu egingo dut Nik ere zeruko neure Aitaren aurrean».

Lehenengo kristau-elkarteak Jesusen heriotzaren zuzeneko eraginpean bizi izan ziren eta jazarpen-arriskuaren erasoan. Mateo ahalegintzen da konfiantzazko mezua zabaltzen segada edo tranpa inozoetan erori gabe. Jesusek ez zituen engainatu inoiz ere bere ikasleak eta ez zien ezkutatu inoiz ere berari jarraitzeak zekarren arriskua. Jesus bera ere hil egin zuten Aitak emandako misioa edo eginkizuna azkeneraino zintzo bete zuelako. Beraz, arriskua benetakoa da eta hori ere kontuan hartu behar da. Hala ere, posible da arriskuari konfiantzaren ikuspuntutik aurre egitea: «Ez ezazue beldurrik izan», dio behin eta berriz Jesusek. Beldurrak lotu egiten gaitu, geure baitan itxita jartzen eta aurrera egitea eragozten. Gainera, beldurrak ikusmena lausotzen digu eta beste aukera batzuk bilatzeko gure ahalmenari galga jartzen dio. Konfiantza, bestalde, ez da sortzen aldeko giro soiletik, ez eta aurkako inguruabarrei aurre egiteko norberak duen gaitasunetik ere. Gure fedea eraso jasaten ari dela sentitzen den garaian (gaixotasuna, dolua, beharaldia edo dena delakoa tarteko), benetan etsi diezagukeen konfiantza, gure bizia, guk geuk ikusten edo sentitzen duguna baino areago, esku onetan gaudela eta Aita on bat gutaz samurtasunez arduratzen dela sinestetik ernetzen da.

Urteko 12. astea

San Pelaio, *martiria*San Josemaria Escriba, *fundatzailea (Opus Dei)*

Hasiera liburutik 12, 1-9: Hala, joan egin zen Abram, Jaunak agindu bezala. **Sal 32:** Bai dohatsu Jaunak bere oinorde hautatu duen herria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7, 1-5.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez gaitzetsi inor, Jainkoak zuek gaitzetsi ez zaitzaten. Izan ere, zuek besteak nola epaitu, hala epaituko zaituzte Jainkoak; eta zuek zein neurritz neurtu, halakoaz neurtuko zaituzte Jainkoak. Nolaz ikusten duzu senidearen begiko lasto-izpia eta ez zara zeure begiko habeaz ohartzen? Eta nola esan diezaiokezu senideari: “Uztazu zeure begitik lasto-izpia ateratzen”, zuk zeurean habea duzula? Itxurazale hori! Atera lehenik zeure begitik habea, eta orduan ikusiko duzu garbi, senidearen begitik lasto-izpia ateratzeko».

Nazaretoko urte luzeetako bizitzak, giza izaeraren gorabeheren ezagutza eman dio Jesusi. Berak oso ondo daki zein puntutaraino zaigun erraza eta bat-batekoa beste batzuk epaitzea, neurtzeko bi neurri edukitzea (eskuzabalena geuretzat, noski) eta gainerakoek gaizki egiten dutenari erreparatzea, gutxi bada ere, eta geure akats eta hutsegiteei hainbeste ez begiratzea. Zentzu komunez beterik, Jesusek, oinarritzkoak diruditen arazoei erreparatzen die, baita errealitatea eta eguneroko harremanak askotan susmaezinak diren muturretaraino tratatzen dituztenei. Denok ere hobeto hartzen dugu arnasa itxurakeriatik askatu eta geure egiatik abiatuta bizi garenean.

Urteko 12. astea

San Zirilo Alexandriakoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*

San Zoilo, *martiria*

Hasiera liburutik 13, 2. 5-18: Senitartekoak gara biok. Ez dugu, beraz, bion artean eztabaidarik izan behar. **Sal 14:** Nor bizi daiteke, Jauna, zure mendi santuan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7, 6.12-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez eman zakurrei gauza sakratuak, ez bota zerriei zeuen harri bitxiak, hankapean erabil ez ditzaten eta, zuen kontra itzulirik, zatika ez zaitzateten. Besteek zuei egitea nahi zenuketen gutzia egin zuek ere besteei; horixe da Moisesen legeak eta profetek diotena. Sar zaitzete ate estutik; zabala baita hondamenerako atea eta lasaia bidea, eta asko dira hortik doazenak. Baina bai estua dela bizirako atea eta meharra bidea, eta gutxi dira aurkitzen dutenak!».

Seguruenik, Jesusek ate bat baino gehiago egina izango zuen Nazaretan bizi izandako urte luzeetan. Horregatik, atearen irudi hori oso etxekoa du. Betiko bizirako sarbidetzat proposatzen duen «ate estuak», besteak gu tratatzea nahi genukeen moduan guk besteak tratatzea bezain zaila den zerbait dakar. Ez besteek gu tratatzen gaituzten bezala (begia begi truk), gu besteek tratatzea nahi genukeen bezala baizik. Ate hori benetan estua da; izan ere, hor ez da geurekoikeriarik sartzen, ez norberaren bila ibiltzerik ere, ez eta emaitzak berehala ikusi nahi izaterik ere. Nola jakin, ordea, ate horrek bizira eramaten duela? Izan ere, ate hori zeharkatzen dugunean, «ematean jasotzean baino alaitasun gehiago dagoela» konturatzen gara.

Urteko 12. astea

San Ireneo Lyongoa, *gotzaina eta martiria*

Hasiera liburutik 15, 1-12. 17-18: Abrahamek sinetsi egin zuen Jaunagan, eta Jaunak zuzentzat hartu zuen. Eta Jaunak ituna egin zuen harekin. **Sal 104**: Gogoan du etengabe Jaunak bere ituna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7, 15-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Kontuz sasiprofeteekin! Ardi-larruz jantzita datozkizue, baina barrutik otso harrapariak dira. Beren egintzetatik antzemango diezue. Elorritik biltzen ote da mahatsik, edota laharretatik pikurik? Zuhaitz onak fruitu ona ematen du, eta zuhaitz txarrak fruitu txarra. Zuhaitz onak ezin du fruitu txarrik eman, ezta zuhaitz txarrak ere fruitu onik. Fruitu onik ematen ez duen zuhaitza moztu eta sura botatzen da. Beraz, beren fruituetatik antzemango diezue sasiprofetei».

Bizitza arrunteko eskolak gauza asko irakatsi dizkio Jesusi landako bizitzaz: adibide horiez baliatzen da sarritan bere irakaspena argitzeko; izan ere, bere entzuleak jarduera horretan dihardutenak izaten dira nagusiki. Nola jakin geure bizitza Ebanjelioaren arabera? Jesusen arabera, ez dago jirabiraka ibili beharrik: «beren fruituetatik ezagutuko dituzue». Agian, nahikoa da agendari astiro begiratzea, gure garaiko zuhaitzaren fruituak bereizteko: zertan igarotzen ditugu orduak? Zeri edo nori ematen diogu lehentasuna?, norekin topo egitea dugu aukeratzen?, zer-nolako energia edo indarra gordetzen dugu Jainkoaren harremanetarako?, zein leku dute txikienek guretzat?

Urteko 12. astea

SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAK

Santa Maria, *San Markosen ama*

Apostoluen Eginak liburutik 12, 1-11.

Aldi hartan, Herodes erregea eliz elkarteko batzuei gogor erasotzen hasi zen. Joanen anaia Santiago ezpataz hilarazi zuen eta, hori juduei atsegin zitzaiea ikusirik, Pedro ere preso hartu zuen. Pazko-astea zen. Pedro atxilotu eta kartzelan sartu zuen, bada, eta launa gudariko lau talderen zainpean jarri, Pazko ondoren herriaren aurrean agerrarazteko asmoz. Pedro kartzelan zaindua zeukaten bitartean, eliz elkarte otoitzean ari zitzaion haren alde Jainkoari etengabe. Herodesek hura kartzelatik atera behar zuen aurreko gauean, Pedro lo zegoen bi gudariren artean, bi katez loturik, eta guardiak atean kartzela zaintzen zeudelarik. Bat-batean, Jaunaren aingerua agertu eta gela guztia argiz bete zen. Aingeruak, saihetsean ukituz, Pedro esnarazi eta esan zion: «Jaiki azkar». Erori egin zitzaizkion kateak eskuetatik. Gero, aingeruak esan zion: «Lotu gerrikoa eta jantzi oinetakoak». Hala egin zuen; eta aingeruak berriro: «Jantzi soingainekoa eta jarraitu niri». Haren ondoren atera zen Pedro; ez zekien aingeruaren bitartez gertatzen ari zena egia zen ala ez; ametsa iruditzen zitzaion. Lehenengo eta bigarren zaintzaile-taldeen ondotik igarota, kalera zeraman burdinazko ateraino iritsi ziren. Atea berez zabaldu zitzaien eta kanpora irten ziren. Kale bat igaro ondoren, aingeruak bakarrik utzi zuen Pedro. Gertatuaz jabeturik, Pedrok esan zuen: «Orain badakit Jaunak bere aingerua bidali duela, ni Herodesen eskuetatik eta judu-herriak niretzat zituen asmoetatik askatzera».

Sal 33: Beldur guztietatik libratu ninduen Jaunak.

San Paulok 2 Timoteori 4, 6-8.17-18.

Anaia maitea: Ni neure bizia opari eskaintzeko zorian nago; ganean dut mundu honetatik joateko ordua. Borroka ona egin dut, bukatu dut lasterketa, gorde dut sinesmena. Dagoeneko zain dut garaipearen koroa, Jaunak, epaile zuzenak, azken egunean emango

Urteko 12. astea

SAN PEDRO ETA SAN PAULO, APOSTOLUAK

Santa Maria, *San Markosen ama*

didan koroa; eta niri ez ezik, baita haren agerraldia maitasunez itxarotu duten guztiei ere. Jauna neurekin izan nuen eta indartu ninduen, nire bidez mezua osorik iragarria izan zedin eta jentil guztiek entzun zezaten. Berak atera ninduen lehoiaren ahotik. Jaunak aterako nau gaitz guztitik eta salbatuko, zeruko bere erreinura eramanez. Berari aintza menderen mendetan. Amen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16, 13-19.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?». Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat». Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?». Simon Pedrok erantzun zuen: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea». Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta hau diotsut Nik: Zu Pedro zara –harkaitza–; harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza, eta Herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zeruetako erreinuko giltzak emango dizkizut: zuk mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua, zeruan ere askatua».

Pedro eta Paulo santuen jaia egun berean ospatze hau, “aniztasunaren jaia” ospatzeko aukera-edo da. Elizaren bi pilare hauek, asko dute komunetik: bien bizitzak ikusita eta martiritza partekatzea eraman zituen Jesusenganako maitasun izugarria ikusita, ez dute ezer elkarri aurpegiratzeko. Aldi berean, ordea, Jesusen mezuaz puntu batzuetan egin zituzten interpretazio desberdinek, gatazkak sortu zituzten, bien arteko bereizketa eragin zuten, eta Ebanjelioaren zabalkuntza egitea ahalbide zuten juduen munduaren mugez kanpo ere. “Fedearen bi harkaitz” horiek kitzikatu egiten gaituzte desberdintasunak ausardiaz bere barnean onartuko dituen eta gizatasunaren ingurumariak etengabe aztertzea irtengo den Eliza baten alde lan egiteko.

Urteko 12. astea

Erromako Eliza Santuko Lehen Martiriak

Hasiera liburutik 17, 1.9-10.15-22: Erdaindu itzazue gizaseme guztiak, itunaren ezaugarri. Sarak semea emango dizu. **Sal 127:** Honela izango da bedeinkatua Jaunari begirune diona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 1-4.

Jesus menditik jaitsi zen eta jende askok jarraitu zion. Legenardun bat hurbildu zitzaion eta, aurrean ahuspezturik, esan zion: «Jauna, nahi baduzu, garbi nazakezu». Jesusek eskua luzatu eta ukitu zuen, esanez: «Nahi dut, izan zaitez garbi». Eta berehala garbitu zitzaion legenarra. Jesusek agindu zion: «Kontuz gero! Ez esan ezer inori! Baina zoaz, agertu apaizagana eta eskaini Moisesek agindutako oparia, ezaugarri izan dezaten».

Sendatze-kasu honen kontaketa labur hau, benetan hunkigarria gertatzen da. Jesusek eta legenardun batek, giza izaeraren txokorik ezkutuenean topo egin dute: gurariaren txokoa: «Nahi baduzu...». «Bai, nahi dut». Elkarrizketa labur horretan, espiritu-bizitzako errotiko eta benetako mugimendua biltzen da. Funtsezkoena da, Jainkoak berak nahi duela, borondate jakinarekin eta maitekorrarekin, bere izakiaren bila etortzea. Eta gero, gure benetako neurriaren jabe izanik, beragana irekitzen gaitu; kasu honetan: «nahi baduzu» umil eta fidakor horrek Jainkoagandik datorrena itxaro duela adierazien du. Motorra, gure bihotzean dagoen Jainkoaren egarria da, Espirituak etengabe eragina. Legenardun izengabe honek geure gurariei edo nahiei izena jartzera bultzatzen gaitu, eta, konfiantzaz eta zabaltasunez, jaria daitezen uztera.





UZTAILA / GARAGARRILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Eukaristia-bizitza baten alde: Otoitz egin dezagun katolikoek jar dezaten beren bizitzaren erdigunean Eukaristia ospatzea, giza harremanak sakon eralda ditzan eta ireki Jainkoarekin eta anai-arebekin topo egiteko bidea.



UZTAILA

Urteko 12. astea

San Aaron (*Moisesen anaia*)

Santa Regina, *aitorlea*

Santa Ester, *erregina*

Larunbata / Zapatua

1

Hasiera liburutik 18, 1-15: Ba ote da ezer ezinezkorik Jaunarentzat?
Itzuliko natzaizunean, Sarak semea izango du. **Sal: Lk 1, 46-48a.**
48b-50. 53-55 (R/. ik. 54b): Oroitu da Jauna bere errukiaz.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 5-17.

Aldi hartan, Jesus Kafarnaum herrian sartu zelarik, erromatar ehuntari bat etorri zitzaion, arrenka esanez: «Jauna, elbarri eta oinazetan dago nire morroia etxean». Jesusek esan zion: «Joan eta sendatuko dut». Baina ehuntariak erantzun zion: «Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko; baina esazu hitz bat eta sendatuko da nire morroia. Nik ere, neu besteren mendean egon arren, soldaduak ditut neure mendean, eta bati joateko agintzen badiot, joan egiten da; beste bati etortzeko agindu, eta etorri; eta nire morroiari zerbait egiteko esan, eta hala egiten du». Hori entzunik, harritu egin zen Jesus eta ondoren zetozkionei esan zien: «Egia esan, Israelen ez dut inorengan aurkitu horrenbesteko sinesmenik. Eta hau diotsuet: Asko etorriko dira sortaldetik eta sartaldetik, eta zeruetako erreinuko mahaian eseriko dira, Abraham, Isaak eta Jakobekin; erreinuaren oinordeko zirenak, berriz, kanpoko ilunpera botako dituzte; han izango da negarra eta hortz-karraska!». Ondoren, ehuntariari esan zion: «Zoaz, eta gerta bekizu sinetsi duzun bezala». Eta ordu hartan berean, sendatua gertatu zen morroia. Gero, Pedroren etxera joan zen Jesus, eta haren amaginarreba oheratua aurkitu zuen sukarrak. Hartu zuen Jesusek eskutik eta sukarrak alde egin zion; orduan, emakumea jaiki eta zerbitzatzen hasi zitzaion. Arratsean deabrudun asko eraman zituen Jesusi, eta honek deabruak bere hitzez bota eta gaixo guztiak sendatu zituen. Horrela bete zen Jainkoak Isaias profetaren bidez esana: «Hark bere gain hartu zituen gure ahuleriak, eta gure gaitzak eraman».

Hilzorian dagoen gizon bat sendatzea edo amarratzen duten deabruak kanporatzea, kontuan hartzea «merezi duten mirariak» direla esan dezakegu. Aldiz, ohean sukar apur batekin dagoen emakume bat sendatzeak, talentua “alferrik galtzea” dela dirudi. Hain aberatsa den ikuskari honek, hainbat berri on dakarkigu. Jesus ez da bakoitzaren eginkizunez arduratzen, berarentzat pertsona oro da aintzat hartzeko, erromatarra eta ehuntaria izanda ere. Jesusek edozein sufrimendu ere ez du huskeriatzat jotzen; min guztiak axola zaizkio, zauri guztiak irekitzen zaizkio Aitarene maitasunaren agerpen-bide moduan. Neurrigabeko maitasun hori ezin da mugatu herri batera, ez eta erlijio batera ere, baizik eta gizateria osoa besarkatu nahi du izugarrizko besarkadan.

* * *

«Iragarri berria dizuet egia!»

Sinesten badut ere Jesus dela «bidea, egia eta bizia», ez naiz sekula seguru izango ezen nire ikuspegi erlijiosoa bat datorrela Egiarekin. Beti gogoratzen naiz Txinako misiolari hartaz: XX. mendearen hasieran jendetza bati predikatzen ari zen kristau-ikasbidea, eta, bukatzeko, esan zien: «Iragarri berria dizuet egia!» Txinatar batek eskua altxatu zuen eta hitza eman zioten: «Aita, hiru egia dira: zurea, nirea eta egia egiazkoa. Zuk eta nik, biok batean, ibili behar dugu egia egiazkoaren bila» (*Frei Betto*).

Urteko 13. astea

Santuak: Bernardino Realino, Juan Francisco Régis
eta Francisco de Gerónimo; Dohatsuak:Julían Maunoir eta Antonio Balducci, *apaizak, jesuitak*,***Erregeak bigarren liburutik 4, 8-11. 14-16a.**

Behin batean, Eliseo Xunemdik igaro zen. Bazen han andre handiki bat, eta bere etxera eraman zuen Eliseo bazkaltzera. Harrezkero, handik igarotzen zen bakoitzean, bertan gelditu ohi zen Eliseo bazkaltzen. Behinola, andreak esan zion senarrari: «Begira, badakit gure etxera etorri ohi den hori Jainkoaren gizon santua dela. Egin diezaiogun goian gela txiki bat; ohea, mahaia, aulkia eta argiontzia ipiniko dizkiogu, gurera etortzean bertan geldi dadin». Etorri zen behin Eliseo eta, goiko gelara sarturik, bertan etzan zen. Eliseok Gehazi bere morroiari esan zion: «Zer egin dezakegu andre honen alde?». Gehazik erantzun zion: «Begira, ez du haurrik eta senarra zahartua du». Eliseok esan zion morroiari: «Dei egiozu». Dei egin zion eta andrea atean agertu zen. Eliseok esan zion: «Datorren urtean, garai honetan, semea izango duzu besoetan».

Sal 88: Jauna, zure maitasuna abestuko dut betierez beti.**San Paulok Erromatarrei 6, 3-4. 8-11.**

Senideok: Bataioaz Kristo Jesusekin bat egin dugunok, haren heriotzarekin egin dugu bat. Bataioan hobiratuak izan gara harekin batean heriotzan, Aitaren aintzaz Kristo hilen artetik piztu zen bezala, guk ere bizi berria bizi dezagun. Beraz, Kristorekin hil bagara, sinesten dugu, bizi ere harekin biziko garela. Badakigu Kristo, hilen artetik piztuz gero, ez dela berriro hilko; herioak ez du gehiago aginterik harengan; haren hiltzea bekatuarentzat behin betiko hiltzea izan baitzen, eta haren bizitzea Jainkoarentzat bizitzea da. Berdin zuek ere; hartu kontuan bekatuarentzat hilik zaudetela eta Jainkoarentzat bizirik, Kristo Jesusengan.

* San Juvenal, *martiria*
San Odon, *gotzaina*

Santuak: Bernardino Realino, Juan Francisco Régis
eta Francisco de Gerónimo; Dohatsuak:

Julián Maunoir eta Antonio Balducci, *apaizak, jesuitak*,*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 37-42.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Aita nahiz ama Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai; semea nahiz alaba Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai. Bere gurutzea hartu eta jarraitzen ez didana ez da niretzat gai. Bere biziaren jabe izan nahian dabilenak galdu egingo du; bere bizia nigatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du. Zuek onartzen zaituztenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali nauena onartzen du. Profeta bat, profeta delako, onartzen duenak profetari zor zaion saria izango du, eta pertsona zuzen bat, zuzena delako, onartzen duenak pertsona zuzenari zor zaion saria izango du; eta txiki hauetako bati, nire ikasle delako, baso bat ur fresko besterik ez bada ere ematen diona, benetan diotsuet ez dela saririk gabe geldituko».

Jesusen maitasunak ezagutza osoz gurutzearen irudia hartzen du: mundu osoa onartzeko besoak irekitzen dituen maitasuna da eta besteek bera lot dezaten uzten du gatazkatik ihes egin gabe. Hori da berak jarraitzen diotenei proposatu dien maitasuna. Beragan lotura guztiak kabitzen dira; kontua ez da inor baztertzea, baizik eta pertsona bakoitza odol-loturak baino askoz handiagoa den eta askatzaileagoa den espazioan maitatzea, Erreinuaren espazioan. Alabaina, harreman berri horietarako sarbideak talka egiten du besteaz jabetzeko dugun joera zaharrarekin. Jesus, gurutzea lepoan hartu eta berari jarraitzeko dei egiten digunean, ez da ari sufrimenduaren aldeko apustu sadikoa egiten, erabat alderantzizkoa baizik. Ebanjelioa sakon-sakonean bizi nahi izateak, segurtasuna ematen diguten harremanen marko estua zulatzea esan nahi du, ezustekoz eta batzuetan min handiz betetako abegikortasunari ausardia handiz aurre egiteko. Besteak diren

* San Juvenal, *martiria*
San Odon, *gotzaina*

Urteko 13. astea

Santuak: Bernardino Realino, Juan Francisco Régis
eta Francisco de Gerónimo; Dohatsuak:Julián Maunoir eta Antonio Baldinucci, *apaizak, jesuitak,**

bezalako onartzeak, geure ziurtasunak lekualdatzea esan nahi du, eta bilatze-lanetan besteen lagun bihurtzea. Besteek onar gaitzaten uzteak, ulertuak nahiz ez onartuak izateko arriskua geure gain hartzea esan nahi du, zalantzan jar gaitzaten geure gain hartzea. Harremanetako gurutzeak dira horiek, jarraitze-giltzarri bezala, benetako bizia aurkitzen lagun diezagukete.

* * *

Bataioaz sinboloen garrantzia

K.o. lehen hiru mendeetan Erromatar inperioan hamar pertsekuzio anker jasan zituzten kristauak. K.o. 313an, Konstantino enperadoreak kultu-askatasuna dekretatu zuen.

Dekretu horren ondoren, Letran edo Lateranoko Bataiategia da eraiki zen lehenengoa. Lehen mendetik, bataioak, Erroman, ur-iturrien ondoan ospatzen ziren. Tertulianok, II. mendekoak, jakin zuen Pedrok Tiber ibaian bataiatu ohi zuela.

Konstantinok forma zirkularra eman zion aipatu Bataiategiari, 320 eta 325 bitartean mustu edo estreinatuari. Sixto aita santuak, 432-440, ordea, oktogono-forma eman zion; gaur ere duena.

Oktogono-forma honek Piztuera-eguna irudikatzen du. BERPIZTUA 8. egunean agertu zaie apostoluei (Jn 10, 19). Adierazi nahi da, bataioaz aro berrian murgiltzen garela, Kristok bere piztueraz mustu edo estreinatu duen aroan. Zortzigarren eguna kreaizio berriaren eguna da, gainera, zeinetan betiko biziaren jabe egiten baikara, nahiz eta oraino bere betera iritsi ez den.

(Zatitxoa; Ahizpa. Agnese Scavetta-tik hartu eta egokitua)

* San Juvenal, *martiria*
San Odon, *gotzaina*

Urteko 13. astea
 SANTO TOMAS, APOSTOLUA
 San Heliodoro, *gotzaina*

San Paulok Efesoarrei 2, 19-22: Apostoluen oinarri gainean eraikiak zaudete. Sal 116: Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 24-29.

Tomas, hamabietako bat, Bikia zeritzana, ez zegoen haiekin Jesus etorri zenean. Gainerako ikasleek esan zioten: «Jauna ikusi dugu». Tomasek erantzun zien: «Haren eskuetan iltze-zuloak ikusten ez badituz, neure atzamarra haren iltze-zuloetan eta neure eskua haren saihetsean sartzen ez badituz, ez dut sinetsiko». Handik zortzi egunera, etxean zeuden berriro ikasleak, eta Tomas ere haiekin zen. Sartu zen Jesus, atak itxirik zeudela eta, erdian jarririk, esan zien: «Bakea zuei». Gero esan zion Tomasi: «Ekarri atzamarra, begira nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saihetsean, eta ez izan sinetsigor, sinestundun baizik». Tomasek erantzun zion: «Ene Jauna eta ene Jainkoa!». Jesusek esan zion: «Ikusi nauzulako sinetsi al duzu? Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak».

Tomasen irudiak fede-hazkuntzan funtsezko elementu gisa zalantza baitaratzen edo geuretzen laguntzen digu. Hark bezalaxe, Jauna sentitu beharra dugu, baina beraren presentzia ezkutatu egiten zaigu sarritan oso opaku edo ezkutagarri diren errealitatearen tolesturetan. «Eta alderrai dabiltzan guztiek, zure mila grazia dizkידate aipatzen...», baina halakoen lekukotzak ez gaitu betetzen. Aurrez aurreko topaketa pertsonala izan nahi dugu Jesusekin, baina, ez gara gu hori eragiteko gai. Tomasen ondoan, ekimena Jaunarena dela ikusten dugu, eta bera, Jesus, egokitu egiten dela gure bideetara, gero gu bere bideetatik eramateko. Iltze-zuloetan hatza sartu nahi zuen ikaslea, Jesus piztuaren froga egin duenean, menderatuaren gurtzarik sakonenean erori da. Haren zorientasuna gurea izateko egina da.

Urteko 13. astea

San Valentin Berrio-Otxoa (*Elorrio 1827 – Vietnam 1861*),
domingotarra, gotzaina, eta lagunak, martiriak

Hasiera liburutik 19, 15-29: Jaunak suzko eta sufrezko euri-erauntsia bota zuen Sodoma eta Gomorra gainera. **Sal 25:** Begi aurrean daukat, Jauna, zure ontasuna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 23-27.

Aldi hartan, Jesus txalupara igo zen eta ikasleek jarraitu egin zioten. Bat-batean, ekaitz handia sortu zen itsasoan, eta olatuek txalupa estali egiten zuten. Jesus, berriz, lo zegoen. Ikasleak hurbildu eta esnatu egin zuten, esanez: «Salba gaitzazu, Jauna! Galtzera goaz!». Hark esan zien: «Zergatik zarete hain beldur, sineste gutxikook?». Eta, zutiturik, haserre egin zien haizeari eta itsasoari, eta barealdi handia egin zen. Ikasleek, harriturik, honela zioten: «Nor ote dugu hau, berak esana egiten baitute haizeak eta itsasoak ere?».

Nola gerta liteke Jesusek ekaitz baten erdian lo egitea? Nola argitzen ahal da Jainkoa Auschwitz en edo Mediterraneo itsasoaren hondoa gertatuekin isilik egotea? Zergatik dago isilik Jainkoa? Mateoren kontakizunak ez die inolako erantzunik ematen berak sustatutako galdetzaileei. Agian birplanteatu egin behar dira gaiak, eta zergatik ordez zertarako galdetu. Gehiago ezinda aurkitzen direnean soilik oihu egiten dute ikasleek itxaropenik gabe: «Salba gaitzazu, hondora goaz-eta!». Agian, behar adinako fedea falta ote zaigu, bada, Jainkoa sufrimendu oroz arduratzen dela eta beraren maitasuna errealiterik gogorrena edo zaurituena ere eraldatzeko gai dela sinesteko? Itsasoak eta haizeak Jesusi obeditu diote, baina ez dezagun ahaztu, salbamenaren lanak bere bizia galtzea ekarriko diola.

Hasiera liburutik 21, 5. 8-20: Neskamearen semeak ez du oinordeko izan behar nire seme Isaakekin. **Sal 33:** Dohakabeak oihu egin zuen, eta Jaunak entzun.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 28-34.

Aldi hartan, Jesus beste itsasertzera, gerasatarren lurraldera, iritsi zenean, bi deabrudun irten zitzaizkion bidera, hilobi artetik aterata. Hain baitziren gaitzokak, ez zen inor ausartzen bide hartatik ibiltzen. Deiadarka esan zioten: «Zer duzu gurekin, Jainkoaren Seme horrek? Garaia baino lehen guri oinaze ematera etorri al zara?». Handik urrutira gabe, txerri-talde handi bat zebilen uxarrean, eta deabruak eskatu zioten Jesusi: «Botatzekotan, bidal gaitzazu txerri-taldera». Jesusek esan zien: «Zoazte!». Haiek atera eta txerrietan sartu zirean, eta txerri-talde osoa ezpondan behera itsasora amildu zen eta urean ito. Txerrizainek ihes egin zuten eta, hirira joanik, dena kontatu zuten, baita deabrudunei gertatua ere. Orduan, herri osoa atera zen Jesusengana eta, ikusi zutenean, beren lur-mugetatik alde egiteko eskatu zioten.

Badira mirariak, egitea komeni ez direnak, ez lehen eta ez orain. Ebanjelioak eragiten duen errealitatearen eraldaketak, beti krisian jarri izan du ezarrita dagoen eta guretzat mugitzeko eroso samarra gertatu ohi den ordenamendua. Ikuspegi horretatik ikusita, ezin diegu ezer aurpegiratu, beraien negozioak porrotera eraman zitzaizkeela-eta, Jesusi beren herritik alde egiteko erregutu ziotenei. Zein neurritaraino gaude gu prest, agian segurtasun-gabezia eta gatazkak izan ditzaketen etorkizuneko bide ezezagunetarantz jotzeko eskatzen digun Jesusen deia onartzeko? Zein neurritaraino axola zaigu gizaki bakoitzaren bizitza, Jesusek geure bizitza apur bat zailtzea onartzeko gai ez bagara?

Urteko 13. astea

Santa Maria Goretti, *birjina eta martiria*

Hasiera liburutik 22, 1-19: Sinesmenean gure aita dugun Abrahamen oparia. Sal 114: Ibiliko naiz Jaunaren aurrean bizidunen lurraldean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 1-8.

Aldi hartan, Jesus txalupara igo, itsasoaz bestaldera igaro eta bere herrira etorri zen. Hortan, elbarri bat ekarri zioten, ohatilan etzana. Jesusek, lagun haien sinesmena ikusirik, esan zion elbarriari: «Zan bihotz, seme! Barkatuak dituzu bekatuak». Orduan, lege-maisu batzuek hau zioten beren baitan: «Biraoka ari duk hau». Baina Jesusek, haien burutapenei antzemanik, esan zien: «Zergatik dituzue burutapen gaizto horiek zeuen baitan? Zer da errazago, “barkatuak dituzu bekatuak” esatea ala “jaiki eta zabilta” esatea? Orain ikusiko duzue, bada, Gizonaren Semeak baduela mundu honetan bekatuak barkatzeko ahalmena. Orduan, esan zion elbarriari: “Jaiki, hartu ohatila eta zoaz etxera!”» Hura jaiki eta etxera joan zen. Hau ikustean, izaturik gelditu zen jendea eta Jainkoa goresten zuten, gizakiei horrenbesteko ahalmena eman zielako.

Bere ibilbidearen puntu honetara iritsita, Jesus «bere hirira», Kafarnaumera, doa eta ez Nazaretera, non hogeita hamarren bat urtez bizi izan baitzen, izan ere, Kafarnaum aukeratu zuen bere irakaskuntza ibiltariaren gune nagusi izateko. Han egiten du topo ezer esaten eta egiten ez duen paralisidun elbarriarekin: hain dago elbarritua gizagaixoa, bere burua Jesusengan fede handia duten pertsona batzuek eraman dezaten uzten duela. Badira une batzuk zeinetan gu geu ere hain kateatuak sentitzen garenak, indarrak ere erabat uzten gaituela. Espiritu-bizitzan, noizik eta behin lehorteak harrapatzen gaitu, eta itxita eta blokeatuta gelditzen gara. Orduan, garaia izaten da beste pertsona batzuen fedeak, elkartearen bitartekotza tarteko, eraman eta gida gaitzan. Haien bitartez, litekeena izaten da Jesusen hitz sendatzailea entzutea: «Aupa, zutitu zaitetz!».

Urteko 13. astea

San Fermin (*Iruñea 3. mendean – Amiens*),
gotzaina eta martiria, Nafarroako Zaindaria

Hasiera liburutik 23, 1-4. 19; 24, 1-8. 62-67: Maite izan zuen Isaakek Rebeka. Honela arindu zitzaion Isaaki ama galdu izanaren nahigabea. **Sal 105**: Eskerrak Jaunari, ona baita.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 9-13.

Aldi hartan, Jesusek, bidez zihoala, Mateo zeritzan gizon bat ikusi zuen zergak biltzeko mahaian eseririk, eta esan zion: «Jarraitu niri». Mateok zutitu eta jarraitu egin zion. Geroago, Jesus mahaian zegoen Mateoren etxean; beste zergalari eta bekatari asko ere etorri eta mahaian eseri ziren Jesusekin eta honen ikasleekin. Fariseuek, hori ikustean, esan zieten ikasleei: «Nolatan jaten du zuen Maisuak zergalariekin eta bekatariekin?». Hori aditzean, Jesusek esan zion: «Ez dute osasunduek sendagile beharra, gaixoez baizik. Hobe zenukete Jainkoak esandako honetaz jabetuko bazinete: “Nahiago dut errukia sakrifizioak baino”. Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik».

Fariseuen galdera ez da zentzugabekeria: publikanoak erromatarren laguntzaile badira eta erromatarrak judu-herriaren zapaltzaile, zergatik jaten du Jesusek haiekin eta esaten gainera berari jarraitzeko? Aldea, begiradan dago: fariseuek “publikano bat” ikusten duten tokian, Jesusek “apostolu-gai bat” ikusten du; fariseuek “bekatariak” ikusten dituzten lekuan, Jesusek “pertsona gaixoak” topatzen ditu. Begirada desberdinek erreakzio desberdinak eragiten dituzte: fariseuak asaldatu eta halakoak baztertzen dituzten bitartean, Jesusek beraien ingurunean sartu eta Jainkoagana itzultzeko dei egiten die. Ez dago sobera, noski, galdetzea, ea gu zein begiradarekin ari garen errealitatea ikusten; agian, Jesusi geure ikusmena zuzentzeko eskatu beharko genioke.

Urteko 13. astea

Santa Priszila, *martiria*San Prokopio, *martiria*

Hasiera liburutik 27, 1-5.15-29: Jakobek bere anaiari lehen-semetza kendu zion, eta haren bedeinkapena jaso. **Sal 134:** Goratu Jauna, ona baita.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 14-17.

Aldi hartan, Joanen ikasleek Jesusengana hurbildu eta esan zioten: «Nolatan egiten dugu fariseuek eta guk hainbeste barau, eta zure ikasleek ez?». Jesusek erantzun zien: «Ezteietara deituak egon ote daitezke triste, senar-berria berekin dutelarik? Etorriko zaie, bai, senar berria kenduko dieten eguna; orduan egingo dute barau». Inork ez dio jantzi zaharrari oihal gordinezko adabakirik josten, adabakiak jantzia behartu eta zarratada handiagoa egingo bailuke. Ez da ardo berrikeri eta sartzen zahagi zaharretan; bestela, zahagiak lehertu egingo lirateke, eta ardoa isuri eta zahagiak galdu. Ardo berria zahagi berrietan sartzen da, eta horrela biek irauten dute».

Bere jakinduria zabalaren barruan, Jesusek badaki jakin jostintza edo josturaz ere, eta, dirudienez, badaki halaber kapa edo soingaineko zaharkituez. Ziur aski Mariak erakutsi dio noizbait adabakiak ongi jartzen. Jose izan ote da agian ardo berria zahagi berrietan jarri behar dela irakatsi diona? Jesusek, behartsuen eguneroko bizitzan sustraitutako irudi horietara jotzen du garai berriak iritsi direla eta horiekin batera baraua onartzen ez duen alaitasuna ere iritsi dela adierazteko. Atzo bezala gaur ere, lekukorik adierazgarriena ez da noski sakrifizioek eraturako aurpegi luze eta desitxuratua, baizik eta ezkongai gure artean dagoela jakiteak ernarazten duen poza eta harekiko adiskidetasunak sortzen duen ardo onduaren zaporea.

Txinako martiriak: San Agustin Zhao Rong, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak*. Santuak: Leon Ignazio Mangin, *apaiza*, Maria Zhu Wu eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*

Zakariasen Profezia liburutik 9, 9-10.

Honela mintzo da Jauna: «Poztu biziro, Sion hiri eder! Egin irrintzi, Jerusalem hiriburu! Hara, badatorkizu zeure erregea: zuzen eta garaile dator, apal eta asto baten gainean, astakume baten gainean. Berak hondatuko ditu Efraimgo gudu-gurdiak eta Jerusalemgo zaldiak; hautsiko ditu gudu-uztaiak, eta bakea iragarriko die nazioei. Itsasotik itsasora aginduko du. Eufrates ibaitik lurraren azken mugetaraino».

Sal 144: Ene Jainko, ene errege, bedeinkatuko dut zure izena betiere.

San Paulok Erromatarrei 8, 9. 11-13.

Senideok: Zuek ez zarete grina txarren menpean bizi, Espirituaren menpean baizik, Jainkoaren Espiritua zuengan bizi baita. Norbaitek Kristoren Espiritua ez badu, hori ez da Kristorena. Jesus hilen artetik piztu zuen Jainkoaren Espiritua zuengan bizi bada, Kristo hilen artetik piztu zuenak berak biziaraziko ditu zuen gorputz hilkorrek ere, zuengan bizi den Espirituaren bitartez. Zorretan gaude, beraz, senideok, baina ez grina txarrekin, horien arabera bizitzeko. Horrela bizitzen bazarete, hil egingo zarete; baina Espirituaren bidez giza gintza gaiztoei uko egiten badiezue, biziko zarete.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 25-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik. Zatozte nigana nekatu eta zamatuz guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartazue nire uztarrria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta

UZTAILA

Igandea /Domeka

9

Urteko 14. astea

Txinako martiriak: San Agustin Zhao Rong, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak*. Santuak: Leon Ignazio Mangin, *apaiza*, Maria Zhu Wu eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*

aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarria leuna baita, eta nire zama arina».

Uda hasia da, ongi merezitako atsedena-garaia jende askorentzat. Bakoitzak, bere eguneroko jarduera utzi eta lan-ohitura eteteko modurik onena bilatuko du noski, berriro ere pilak kargatzeko, eta zorterik onena dutenek oporretan norabait joateko aukera ere izango dute. Alabaina, horrek ez du bermatzen behar dugun benetako lasaitasuna aurkituko dugula. Agian, garaia da galdetzeko, zer den bizitzan ahultzen gaituena, nondik datorren hainbat aldiz akitzen gaituen presioa eta zein diren gure bizkar hauskorrei geroz eta astunagoak gertatzen zaizkien zamak. Pisua eta nekea izendatzea behar-beharrezkoa da Jesusen eskaintza entzun ahal izateko: «Zatozte nigana... eta nik arinduko zaituztet». Agian, nekea ez zaigu etorri beti Ebanjelioaren ondorio diren lan gogorretatik, eta bai gauzak edukitzeko eta boterea lortzeko lasterketan endredatzeagatik. Agian horregatik, Jesusen bihotza izan daiteke gure atsedena bilatzeko aurreikus genezakeen azkeneko tokia, baita seguruena ere. Bihotz umil horrek, txikitasunera birbidaltzen gaitu, gure umetasunaren neurrira, gauza xumeei gustua hartzera. Ez da paradisu-tankerako hondartza, hori baino askoz ere ederragoa da: Aitak txikiei agertzen dien ezkutuko altxorra da.

Urteko 14. astea
 Santa Rufina, *martiria*
 San Felix, *martiria*

Hasiera liburutik 28, 10-22a: Zurubi bat ikusi zuen, eta Jainkoaren aingeruak zurubian gora eta behera. Sal 90: Ene Jainko, zугan dut nik konfiantza.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 18-26.

Aldi hartan, Jesus mintzatzen ari zela, buruzagietako bat etorri zitzaion eta, ahuspezturik, esan zion: «Hil berria dut alaba; baina zatoz hari eskua ezartzera, eta biziko da». Jesus jaiki eta ondoren joan zitzaion bere ikasleekin. Hontan, hamabi urte hartan odol-jarioz zegoen emakume bat atzetik hurbildu zitzaion Jesusi eta soineko-ertza ukitu zion, hau baitzioen bere baitan: «Jantzia bederen ukitzen badiot, sendatuko naiz». Itzuli zen Jesus eta, emakumea ikustean, esan zion: «Izan bihotz, alaba! Zeure sinesmenak sendatu zaitu». Eta ordu beretik sendatua gelditu zen. Iritsi zen Jesus buruzagiaren etxera eta, hango erostariak eta jendearen istilua ikustean, esan zion: «Alde hemendik! Neskak ez dago hila, lo dago». Haiek barre egin zioten. Jendea bidali zutenean, sartu zen Jesus eta eskutik heldu zion neskatxari, eta neskatxa jaiki egin zen. Inguru hartan guztian zabaldu zen gertatuaren berri.

Jesuentzat ez dago ezer behin betiko galduta, ez dago ezer heriotzaren atzaparretatik aska ezin litekeenik. Horregatik abiatzen da eskaera egiten dion pertsonaren etxerako bidean, eta, ziurtasun horretan bermatuta, bera baino inozoagoak ez direla uste dutenen isken denboralea gaintu du. Pertsona bat edo harreman bat galdutzat jotzen dugunean, besoak jaisten ditugu etsipenez eta ez gara saiatzen beste ezer egiten. Batzuetan, gainera, zaratari eta txistu-joleei erabat lilura gaitzaten uzten diegu, eta sura egur gehiago bota baino ez digute egiten, geure itxaropen-gabezia are gehiago indartuz. Jesusek beste bide baten aukera erakusten digu: abian jarri, zailtasunari aurre egin, ukitu, eta, are gehiago, eskuetan hartzera ere ausartu. Eta litekeena da, geure harridurarako, pertsona bat baino gehiago zutik jartzea ere.

Urteko 14. astea

San Benito, *abadea* (Europako Zaindaria)
(Ikus beheraxeago Benitoren Meza berezia)

Esaera Zaharrak liburutik 2, 1-9.

Ene seme, nire esanak onartu eta nire aginduak gogoan gordetzen badituzu, jakinduriari kasu eta zuhurtziari jaramon egiten badiezu; adimenari dei eta zuhurtziari oihu egiten badiezu, horiek dirua eta altxorrak bezala bilatzen badituzu, orduan ulertuko duzu Jaunaganako begirunea, eta Jainkoa ezagutzera iritsiko zara. Jauna baita jakinduria ematen duena, beragandik datoz ezaguera eta zuhurtzia.

Berak ematen die arrakasta zintzoei eta babesba jokabide zuzenekoei; zuzenbidea babesten du eta zintzoen jokabidea zaintzen. Orduan ulertuko duzu zer den justizia eta zuzenbidea, jatortasuna eta jokabide on oro.

Sal 33: Bedeinkatuko dut aldi oro Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19, 27-29.

Aldi hartan, Pedrok esan zion Jesusi: «Hara, guk dena utzi dugu, zuri jarraitzeko. Zer izango da guretzat?». Jesusek erantzun zien: «Benetan diotsuet: Jainkoak mundu hau eraberritzean eta Gizonaren Semea bere aintzazko tronuan esertzean, zuek ere, nire jarraitzaileok, hamabi tronutan eseriko zarete, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko. Eta nigatik etxea, senideak, aita, ama, seme-alabak edota lurrak uzten dituenak, ehun halako hartuko du eta betiko bizia jasoko ondare».

Pedrok jakin nahi du, ea zein izango den bere ordainsaria, Jesusi jarraitzeko dena utzi duelako. Erantzuna eskuzabala da: ehun aldiz gehiago eta betiko bizia. San Benitorentzat, gaur ospatzen baitugu beraren jaia, ebanjelio honen sekretua, «Kristoren maitasunari aurretik ezer ez jartzean» datza. Lotura eta proiektu orok jarraipenean aurkitzen du dagokion lekua, beti ere lehenatasun absolutua errespetatzen badu: Jesusen maitasuna, gainerako maitasun guztiei norabidea eta zentzua ematen diena. Horregatik, Jaunaren hitz hori, zorrotza bada ere, ez dago kristau gutxi batzuentzat mugatua, baizik eta bataiatu guztiei zabaldua da, Jesus gure biziaren hasiera eta oinarri izateko, era berean ditauk izan baitira.

Hasiera liburutik 41, 55-57; 42, 5-7a.17-24a: Geure anaiari egin genion okerra ari gara ordaintzen. Sal 32: Betor gugana, Jauna, zure maitasuna, zugan baitugu geure uste ona.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 1-7.

Aldi hartan, Jesusek, hamabi ikasleei dei eginik, ahalmena eman zien espiritu gaiztoak botatzeko eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzeko. Hona hamabi apostoluen izenak: lehenbizi Simon, Pedro deritzana, eta honen anaia Andres; Santiago Zebedeorena eta honen anaia Joan; Felipe eta Bartolome, Tomas eta Mateo zergalaria, Santiago Alfeorena eta Tadeo, Simon Zelote eta Judas Iskariote, Jesus saldu zuena. Hamabi horiek bidali zituen Jesusek, ohar hauek eginez: «Ez joan jentilen lurraldeetara, ez sartu Samariako herrialdean ere, baizik eta zoazte Israel herriko ardi galduetara. Bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua».

Misioa ez dator ekimen pertsonaletik, ez eta gauza handiak egitera bultzatzen duen berotasun eskuzabaletik ere. Jesus da misiora bidaltzen gaituena, bera da deitzen duena-eta. Antzina, orduan ere, gaur bezalaxe, Jaunak ez ditu hautatzen aparteko gizakiak, baizik eta pertsona jakinak, beren izen jakinekin eta beren historiekin, beren burua emateko gai direnak, baina ezkutuan saldukeria egiteko ere mekanismorik badutenak. Zauritutako gizateriaren alde mugagabea errukiak mugituta, Jesusek dena hartu du bere gain, bere boterea ikasleekin partekatu du, Aitagandik jaso duen misioa haien eskuetan jartzera ausartu da. Guretzat ere jada heldua da ordua, salbatzen, deitzen eta bidaltzen duen erruki horrek harrapa gaitzan.

Urteko 14. astea

San Enrique, *enperadorea*San Silas, *San Pauloren laguna*

Hasiera liburutik 44, 18-21. 23b-29; 45, 1-5: Zuen bizia salbatzeko bidali ninduen Jainkoak Egiptora. Sal 104: Ekarri gogora Jaunak egindako mirariak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 7-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zeruetako erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu legenardunak, bota deabruak. Hutsean hartu duzue, eman hutsean. Ez eraman urrerik, ez zilarrik, ez dirurik gerrikoan; ez zakutorik biderako, ez soinekorik aldatzeko, ez oinetakorik, ezta makilarik ere, zor baitzaio langileari behar duen jatekoa. Edozein herritan nahiz auzotan sartzen zaretela, jakizue ba ote den konfiantzazko inor, eta gelditu haren etxean, herri hartatik atera arte. Etxean sartzean, egin bake-agurra; etxeok duin badira, hel bekie zuen bakea; duin ez badira, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira. Onartzen ez bazaituztete eta zuen hitza entzun nahi ez, etxe nahiz herri hartatik ateratzean, astindu zeuen oinetako hautsa. Benetan diotsuet: auzi-egunean Sodomak eta Gomorrrak zigor bigunagoa izango dute herri hark baino».

Jesusen deiak bultzatu ditu ikasleak beren zirkulu txikitik irten eta gaixoak, hildakoak, legenardunak eta deabruak bilatzera joateko. Baina dinamika hori ez da oinarritzen soilik beren indarrean, baizik eta Jesusek maitatuak eta berrerosiak direlako esperientzian. Misioa grazia da, eta ikasleak, beraien bizitzaren barne-muina eraldatzen ari den Berri Onaren bide-gidatzaile bihurtu dira. Misiorako ezinbestekoa den bitarteko edo baliabide bakarra, misiora bidaltzen duen Jaunaren hitzean konfiantza apurtezina izatea da. Kontua da, soil-soilik esanda, doan jaso duguna doan eman behar dugula.

Urteko 14. astea

San Kamilo Leliskoa, *apaiza, fundatzailea (Kamilotarrak)*

Hasiera liburutik 46, 1-7. 28-30: Orain bai hil naitekeela zure aurpegia ikusi ondoren. **Sal 36**: Jaunagandik dator zintzoen salbamena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 16-23.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Hara, ardiak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Izan zaitezte, bada, sugeak bezain zuhur eta usoak bezain xalo. Kontuz jendearekin! Auzitegietara eramango zaituztete eta sinagogetan zigorkatuko; agintarien eta erregeen aurrera eramango zaituztete nigatik, aitormen egin dezazuen haien eta jentilen aurrean. Eramaten zaituztetenean, ez egon zer eta nola esango duzuen kezkatan: une hartan bertan adieraziko dizue Jainkoak zer esan; ez zarete zuek mintzatuko, zuen Aitaren Espiritua mintzatuko da zuen bidez. Anaiak anaia emango du heriotzara, eta aitak semea; seme-alabak gurasoen aurka altxatuko dira eta hil egingo dituzte. Mundu guztiak gorroto izango dizue nigatik; baina azkeneraino irauten duena, horixe izango da salbatua. Herri batean pertsegitzen bazaituztete, egin ihes beste batera. Benetan diotsuet: Gizonaren Semea etorri aurretik, ez dituzue Israelgo herri guztiak igaroko».

Jesusi ez zaio axola agintzari edo promes errazak eginaren poderioz jarraritzailak irabaztea. Benetan, beraren errealismoak eta buru-argitasunak beldurra ere eman lezakete. Garai guztietako ikasleen ortzi-mugan, otsoak eta auzitegiak, bortizkeria eta heriotza, eta Jesusengatik eta beraren mezuagatik gorrotoa eta ezin eramana marratzen dira. Martiri-ikuspegi horrek, Mateoren elkartean oso ezaguna denak, baikortasun merkea salatzen du eta itxaropen guztia Jesusen hitzetan jartzeko gonbita egiten. Gaur, agian, ez zaigu eskatzen geure odola isurtzea, baina bai eguneroko lekukotasunean baietzaren dohainaren amaieraraino joatea, kontraesanak berari begira jarrita eramanez. «Gure lekukotza sarritan hain kaxkarra baldin bada, lekuko izateko ere martiri izateko behar den heroi-izaera bera behar dela konturatzen ez garelako da.» (Madeleine Delbrêl).

Urteko 14. astea

San Buenaventura, *gotzaina eta eliz irakaslea, frantziskotarra*
 Joan Maiorga (*Donibane Garazi 1530 – Brasileria bidean*
kortsarioek hil 1570), dohatsua, jesuita eta lagunak, martiriak

Hasiera liburutik 49, 29-32; 50, 15-26a: Jainkoak zuen alde esku hartuko du, eta lurralde honetatik igoaraziko zaituzte. **Sal 104:** Izan bihotz, apalok, Jainkoaren bila zabilzatenok.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 24-33.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago, ezta morroia ere nagusia baino gehiago. Nahikoa du ikasleak irakaslea adina izatea, eta morroiak nagusia adina. Etxeko jaunari Beeltzebul deitu badiote, zer ez ote diete deituko haren etxekoei? Ez izan jendearen beldur! Izan ere, ez dago ezer gordea agertuko ez denik, ezta ezer ezkutuan ere jakingo ez denik. Gaueko ilunpean esaten dizuedana esan zuek egun-argitan, eta belarrira entzuten duzuen hots egin etxe-gainetik. Ez izan beldurrik gorputza hil bai, baina bizia kendu ezin dutenei; izan beldur, gorputza ez ezik, pertsona osoa ere infernuan gal dezakeenari. Ez al dira bi txori txanpon batean saltzen? Hala ere, ez da bat bakarra ere lurrera erortzen zuen Aitaren baimenik gabe. Zuen buruko ileak ere zenbatuak ditu Jainkoak. Ez, bada, beldur izan; txori guztiek baino gehiago balio duzue zuek. Jendearen aurrean aitortzen nauena aitortuko dut Nik ere zeruko neure Aitaren aurrean; baina jendearen aurrean ukatzen nauena ukatu egingo dut Nik ere zeruko neure Aitaren aurrean».

Ez da arraroa noski, Jesusen proposamenak duen irismenaren kargu egiten denak beldurra sentitzea. Ebanjelioa zorrotz eta azkeneraino bizi izatearen ondorioak, tragikoak izan daitezke. «Gaur gauean martiri hil behar banu bezala bizi», esaten zuen Carlos Foucauldek. Hori da kontua: une bakoitza, hil ala biziko unea bailitzan pentsatuz jarriko genukeen ebanjelio-indar berberarekin bizitzea. Hain zuzen ere, hor jotzen du desagertzera beldurrak, sentitzen dugunean Jainkoa geure aurrean dugula beraren Semeari jarraitzeko dugun gogoaren aurretik, eta Jainkoa gu arretaz zaintzeko adinako maitasuna dela, gure buruko ileak zenbat diren ere dakielarik. Ezinezkoa da nork bere bizia ematea, esku onetan dagoela jakin gabe.

Urteko 15. astea

Karmelo Mendiko Andre Maria (Karmengo Ama). Larreako
Andra Maria, Karmengo Ama

Karmengo Amaren Meza: Zakarias 2, 14-17: Poztu zaitetz, Siongo alaba, banatorkizu-eta! **Sal: Lukas 1, 46-55:** Zorionekoa zu, Maria Birjina, betiko Aitaren Semea ekarri zenuena. **Mateo 12, 46-50:** Eskua bere ikasleetara luzatuz, Jesusek esan zuen: «Horra nire ama eta nire senideak».

Isaias Profetaren liburutik 55, 10-11.

Honela mintzo da Jauna:

«Euria eta elurra zerutik jaisten dira eta ez dira berriro hara itzultzen lurra ase, ernaldu eta ernamuindu gabe, ereiteko hazia eta jateko ogia eman ditzan; hala egingo du nire ahotik ateratako hitzak ere: ez da nigana hutsik itzuliko, baizik eta egingo du Nik nahi dudana eta beteko Nik ezarritako helburua».

Sal 64: Lur onean erori zen haziak ugari eman zuen fruitua.

San Paulok Erromatarrei 8, 18-23.

Senideok: Nire iritzian, oraingo neke-lanak ezer gutxi dira gero guban azalduko den aintzaren aldean. Izadia bera ere irrikaz dago, zain-zain, Jainkoak noiz agertuko bere seme-alaba izatea zer den. Izadiak bere benetako helburua galdua izan arren –ez bere gogoz, horretara behartu zuenarengatik baizik–, badu itxaropena, esklabotzatik eta hondamenetik askatua izan eta Jainkoaren seme-alaben aintzazko askatasunean parte izateko. Badakigu, jakin ere, izadi osoa erdiminetan intzirika dagoela orain arte. Eta hura ez ezik, gu geu ere bai; Espiritua lehen dohain bezala hartu dugunok intzirika gaude geure barruan, Jainkoak noiz askatuko eta bere seme-alaba noiz egingo gaituen zain.

Urteko 15. astea

Karmelo Mendiko Andre Maria (Karmengo Ama). Larreako Andra Maria, Karmengo Ama

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 1-23.

Egun hartan, Jesus etxetik irten eta itsasertzean eseri zen. Eta hainbeste jende bildu baitzizaion inguruan, txalupa batera igo eta bertan eseri zen. Jende-taldea, berriz, hondartzan zegoen. Gauza asko esan zien, parabola bidez hitz eginez: «Behin batean, atera zen ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide-bazterrean erori zen, eta txoriek etorri eta jan egin zuten. Beste zenbait ale harri artean erori zen, lur handirik ez zen lekuan, eta, lur axala izanik, berehala erne zen; baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu. Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiak, haztean, ito egin zuen hazia. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta fruitua eman zuten: bateko ehun nahiz hirurogei nahiz hogeita hamar. Belarririk duenak entzun beza».

Zientzialaria ez bezala, bere saiakuntzak laborategiko baldintzarik egokienetan egiten baititu, ereilea aukeratu ez duen lurraren aurrean gertatzen da, txoriak ere erasorako prest daudelarik, harriak eta sasiak ere badirelarik. Konturatzen da ereilea hazi asko sasiak itotzen duela edota eguzkiak harri artean ihartuta uzten duela; halere, aldeztu aurretik onartzen du nolabaiteko porrot bat. Baina, bere lana deitoratu ordez (zertarako erein!) eta atsedeteko eserita gelditu ordez, hazia eskuzabal ereiten du landa osoan ezker-eskuin, eta hazi-ale bakoitza bere tokian eror dadin saiatzeko da eta fruitua sor dezan. Emaizten baitan estuegi bizitzeak, estres-egoera itogarrian jartzen gaitu; presioak helburuarekin itsutzera eramaten gaitu eta ez digu uzten bidez gozaten. Egia da noski «fruitua ematera eta fruitu iraunkorra ematera» (Jn 15, 16) deituak izan garela, baina ez dagokigu guri aldeztu aurretik uzta errentagarritasuna aurreikusitako ondorioen arabera kalkulatzeko. Gure jarrerak hazia ereiten duenaren doakotasunarena izan behar du, errealitatea, guk gustuko genukeen eran portatzera (harremanak, proiektuak) behartzen ahalegindu gabe.

Urteko 15. astea

Santa Segunda, *martiria*San Leon IV.a, *103. aita santua*

Irteera liburutik 1, 8-14. 22: Israeldarren herria gu baino ugariago eta indartsuago bihurtzen ari da. Beraz, joka dezagun zuhur berarekin.
Sal 123: Gure laguntza Jaunaren izena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 34-11, 1.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Ez uste izan munduari bakea ekartzera etorria naizenik; bakea ez, baizik banaketa ekartzera etorria naiz. Bai, semea aitagandik banatzera etorri naiz, alaba amagandik eta erraina amaginarrebagandik banatzera. Eta nork bere etxeokak izango ditu etsai. Aita nahiz ama Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai; semea nahiz alaba Ni baino maiteago duena ez da niretzat gai. Bere gurutzea hartu eta jarraitzen ez didana ez da niretzat gai. Bere biziaren jabe izan nahian dabilenak galdu egingo du; bere bizia nigatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du. Zuek onartzen zaituztenak Ni onartzen nau, eta Ni onartzen nauenak bidali nauena onartzen du. Profeta bat, profeta delako, onartzen duenak profetari zor zaion saria izango du, eta pertsona zuzen bat, zuzena delako, onartzen duenak pertsona zuzenari zor zaion saria izango du; eta txiki hauetako bati, nire ikasle delako, baso bat ur fresko besterik ez bada ere ematen diona, benetan diotsuet ez dela saririk gabe geldituko». Hamabi ikasleei argibide hauek ematen amaitu zuenean, joan egin zen Jesus handik, herri haietan irakastera eta mezua hots egitera.

Jesusek badaki jakin bere esperientziaz, Ebanjelioaren iragarpena desadostasun-iturri izan daitekeela, baita pertsonarik gertukoena eta maiteenen artean ere. Behin baino gehiagotan, bere ahaideak bila joan izan zaizkio eta bere konpromisoa burutik kentzen saiatu izan dira, zoratu dela pentsatuta (cf. Mk 3, 20-21). Gatazka publikoa da, gizartean ondorioak dituena. Gurutzea sorbaldan hartzea, esklabo presoek egiten zuten azken egintza zen; behartuak izaten ziren, denen

Urteko 15. astea

Santa Segunda, *martiria*San Leon IV.a, *103. aita santua*

aurrean hil arte jasaten zituzten torturen urkamendiraino, gurutzea bizkarrean eramatera. Gure jarraipeneko gurutzea, agian, ez da hain astuna, baina beti jasan beharko dugu ulergaitzasun-neurri bat, Jesusi egiazki atxikitzeak askotan sortzen duena eta agian burlaraino ere iritsiko dena.

* * *

**Bizia sumatu
bai Aralar mendia ikustean,
bai adiskide bat gorpu ikustean**

Zeruko Aita onbera,
Lazkaomendiko San Joan ermita ondotik / Aralar mendia,
beti lerdan eta beti zut, / beti bizi-bizi eta zoragarri ikusteak
zugana eramaten gaituen bezala,
piztu dezala gugan zure eskua sumatu ahal izatea
Beasaingo Senpereko Ehorztetxeko
leiho atzean adiskide fin bat gorpu ikusteak;
pentsatuz, / bizia biziki maite zuen
eta bizia indartsu ereiten zuen adiskide hori
ezin bihur daitekeela / espiriturik eta hatsik gabeko materia huts;
pentsatuz, / gorputz fisikoa ikusiko ez badugu ere,
pertsona bizi eta suhar izaten jarraitzen duela; [...] egizu,
Aita onbera, / zabal ditzagula bihotzeko begiak
bizi hori sumatzeko,
bai Aralar mendira begira jartzean,
bai gorpu den adiskide bati begira jartzean [...].

Urteko 15. astea
San Federiko, *gotzaina*

Irteera liburutik 2, 1-15a: Moises ezarri zion izena, uretik atera baitzuen, eta, heldua zelarik, bere senideengana joan zen. **Sal 68:** Izan bihotz, apalok, Jainkoaren bila zabilzatenok.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 20-34.

Aldi hartan, Jesus miraririk gehienak egin zitueneko herriak gaitzesten hasi zen, bihotz-berritu ez zirelako: «Ai zu, Korozain! Ai zu, Betsaida! Izan ere, Tiro eta Sidon hiri jentiletan zuengan bezainbeste mirari gertatu izan balitz, bihotz-berrituak ziratekeen aspaldi, dolujantziz eta hautsez estalirik. Horregatik, hau diotsuet: auzi-egunean, zigor bigunagoa izango dute Tirok eta Sidonek, zuek baino. Eta zu, Kafarnaum, zeruraino altxatuko zarela? Lurraren barneraino eroriko zara! Izan ere, zuregan bezainbeste mirari gertatu izan balitz Sodoman, gaurdaino iraungo zukeen. Horregatik, hau diotsuet: auzi-egunean, zigor bigunagoa izango du Sodomak, zuk baino».

Batzuetan ume apetatsu gisa bizi izaten gara eta ezerk ez gaitu asebetetzen. Geure esku ditugu espiritu-bizitza indartsua lantzeko bitarteko guztiak, baina gure egarri mugagabea ase ezin duten papur batzuekin konformatzen gara. Korozain eta Betsaida bezala, Jaunaren presentziaz hitz egiten diguten eguneroko mirari askoren lekuko gara, baina ez gara sinestera iristen. «Ai zu!». Beharbada ez zaigu gaizki etorriko Jesusek gure bihotzera pertsonalki esandako hitz hauek entzutea. Jaunak ez gaitu mehatxatzen, baizik eta non gauden aitortzera eta beragana konfiantzarekin gure bizitzako iparrorratza birbideratzera etengabe deitzen.

Urteko 15. astea

Kordobako Santa Aurea, *martiria*

Irteera liburutik 3, 1-6. 9-12: Jaunaren aingerua agertu zitzaion, sasi artean pizturiko sugarrean. **Sal 102:** Bihozbera eta errukiorra da Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 25-27.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi dionak baizik».

Zein dira Aitak jende xumeari agertu dizkion «gauza horiek»? Badirudi Jesus Erreinuaren mezuaz ari dela eta umeak bezalakoak direnen artean harrera hobea aurkitzen duela «jakintsuek eta adituek» beren indar guztiekin aurka egiten dioten bitartean. Gauza bat da dogmak ikastea eta teologiako diskurtsoak eraikitzea, eta oso beste bat da Ebanjelioaren funtsa bihotzez hartzea. Jesusen arabera, Jainkoaren goi-agerpena ondo hartzeko benetako gaitasuna dutenak, beren burua txikitzat duten pertsonak dira, eta, horregatik dira, ziur aski, gutxi hitz egin eta eskaintzen zaien Berri Ona alaitasunez entzuten dutenak.

Irteera liburutik 3, 13-20: Naizena naiz Ni. «Naizena naiz» deritzanak bidali nau zuengana. Sal 104: Gogoan du etengabe Jaunak bere ituna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 28-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartzazue nire uztarrria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedena. Nire uztarrria leuna baita, eta nire zama arina».

Gaurko ebanjelioak harribitxi bat oparitzen digu bi txatal soiletan. Jesusek bere erraiak alderik alde irekitzen ditu, bertan bizitzan nekatuta gabiltzanok hartzeko, eta ez gutxi batzuk soilik, «guztiok» baizik. Berri Ona da benetan guri itxaroten dagoen urmael-gune bat badagoela jakitea, mila arrazoiengatik gure barne nekatuak hainbeste desiratzen duen atsedena eskaintzeko. Leku ireki eta zabal horretan, ez zaigu ezer galdetzen, ez eskatzen; soil-soilik umiltasunez gonbita egiten digu: «Zatozte». Eta horixe da, hain zuzen ere, zailena: utzi esku artean duguna eta soil-soilik Jesusen bihotzean atsedean hartzera joatea.

Urteko 15. astea

San Lorenzo Brindiskoa, *apaiza eta eliz irakaslea*

Irteera liburutik 11, 10–12, 14: Ilunabarrean abere xehe bat hilko duzue; odola ikustean, aurrera igaroko naiz. **Sal 115:** Salbamentu edontzia dut hartuko eta Jaunaren izenari dei egingo.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12, 1-8.

Aldi hartan, larunbatean gari-soroetan barrena zihoan Jesus. Ikasleak goseak zeuden eta galburuak moztu eta jaten hasi ziren. Hori ikustean, fariseuek esan zioten Jesusi: «Begira, larunbatez zilegi ez dena egiten ari dira zure ikasleak». Hark erantzun: «Ez al duzue irakurri zer egin zuen Davidek, bera eta lagunak goseak gertatu ziren batean? Nola Jainkoaren etxean sartu eta Jaunari eskainiriko ogiak jan zituzten, legez ez berak ez beraren lagunek, baizik eta apaizek bakarrik jan zitzaizketenak? Edota ez al duzue irakurri Moisesen legean apaizek larunbatero hausten dutela tenpluan atsedeen-legea, horregatik errudun izan gabe? Ba, Nik diotsuet: bada hemen tenplua baino gehiago den norbait. Ulertu bazenute zer esan nahi duen Jainkoak esandako honek: “Nahiago dut errukia sakrifizioak baino”, ez zenituzketen errugabeok gaitzetsiko. Zeren Gizonaren Semea larunbataren nagusi baita».

Ebanjelioetako beste hainbat alditan bezala, gertakari honetan ere, giltzarrietako bat begiraden arteko aldean datza. Egoera bat beraren aurrean, larunbatez galburuak erauzi eta jaten dituzten ikasleen jokabidean, bakoitzak gauza desberdina ikusten du. Jesusek bere adiskideen gosea ikusten du, jan-beharra, alegia; fariseuek, berriz, hautsi omen duten araua eta errua. Hitz honek zalantzan jartzten du errealitatea ikusteko dugu modua: Zer ikusten dugu guk lehenik? Zein neurritaraino sentitu dugu guk gure mugak ukitzen dituen Jainkoaren errukia, besteen mugekin eramankor izateko gai egiten gaituena? Kontua ez da erlatibismoa, buru-argitasun umila baizik; izan ere, Jesus, larunbataren Jaun eta jabe da eta zabalera eta bizia oparotasunez eskaintzera dator.

Urteko 15. astea
Santa Maria Magdalena

Kantarik Ederrena liburutik 3, 1-4: Aurkitu nuen neure bihotzeko kuttuna. Sal 62: Zure egarriz daukat gogoa, Jauna, ene Jainkoa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 1-2.11-18.

Asteko lehen-egunean, Maria Magdalena hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen. Orduan, Simon Pedrogana eta Jesusek maite zuen beste ikasleagana itzuli zen lasterka, eta esan zien: «Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri duten». Maria hilobi ondoan zegoen, kanpoan, negarrez. Eta, negarrez zegoela, hilobirantz makurtu zen eta bi aingeru ikusi zituen, zuriz jantziak, Jesusen gorpua egon zen lekuan eserita, bata burualdean eta bestea oinetan. Aingeruek esan zioten: «Zer duzu negarrez, emakume?». Hark erantzun zien: «Nire Jauna eraman dute, eta ez dakit non ipini duten». Hau esan eta berehala, atzera itzuli eta Jesus ikusi zuen zutik, baina ez zen konturatu Jesus zela. Jesusek esan zion: «Zer duzu negarrez, emakume? Noren bila zabilta?». Hark, baratzezaina zelakoan, esan zion: «Jauna, zuk eraman baduzu, esadazu non ipini duzun, eta nik jasoko dut». Jesusek esan zion: «Maria!». Honek, hurbilduz, esan zion hebreeraz: «Rabbuni!» (hau da, «Maisu!»). Jesusek esan zion: «Utz nazazu, oraindik ez bainaiz Aitagana igo. Zoaz nire senideengana eta esaiezu: “Neure Aitagana eta zuen Aitagana noa, neure Jainkoagana eta zuen Jainkoagana”». Joan zen Maria Magdalena, eta berri hau eman zien ikasleei: «Jauna ikusi dut, eta hau eta hau esan dit».

Urteko 15. astea

Santa Maria Magdalena

Doluak hainbesteraino itxi du Maria Magdalena bere baitan, jada ez baita gai Jesus piztua ezagutzeko ere. Bera, Jesus hainbeste maite duena, minak erabat abailduta gelditu da, eta berak bakarrik ez luke sekula lortuko egoera hori gainditzea. Jauna da beraren izena doinu berriz esan duena, eta horrela, bizitzara itzularazi du Maria; Jesusekin bizi izan duen intimitate sakonak errotiko eraldaketa jasan du: «Aska nazazu!». Bidalketaren ordua da, iragarpenarena, ebanjelio-ausardiarena. Maria Magdalenak, apostoluen apostoluak, benetako jarraipenaren bidea erakutsi digu, Jesusekin izandako harreman pertsonalean oinarritu eta Erreinuaren iragarpenera bideratuta.

* * *

Santa Maria Magdalena

«Asteko lehen eguneko goizean pizturik, Jesus lehenik Magdalako Mariari agertu zitzaion, zeinagandik zazpi deabru bota baitzituen» (Mk 16, 9). Jesusekin herriz herri Berri Ona hots egiten ibili ohi ziren Hamabiekin eta emakumeekin batera ibili ohi zen Magdalena (Lk 8, 3). Jesus atxilotu eta gurutzean josi zutenean, han egon zen Magdalena (Jn 19, 25). Jaunaren gorputzari lur eman ziotenean, han gelditu zen Magdalena (Mt 27, 61). Jesus piztuak Magdalenari eman zion piztueraren berri ona eramateko agindua (Jn 20, 17). Horrela, «Apostoluentzat apostolu» egin zuen Jaunak Magdalena. XIII. mendean Letrango meza-liburuak onartu zuen hiru emakume –Maria Magdalakoa, Maria Betaniakoa eta bekatari ezezaguna– pertsona bakarrean biltzen zituen legenda. Baina Bibliako datuen arabera, egiazkoago dela ematen du hiru Maria (Maria Magdalakoa, Maria Betaniakoa, bekatari anonimoa) bereiztea.

Magdalena bila eta bila dabilena da, fede zail baten bidea egin duena, hilobi ondoan negarrez egon dena; bilatzera eragiten zionak berak [Jesus berpiztuak] barnean argitzen zuena; apostoluei (eta guri) Kristo berpiztuaren berri eman diena.

Santa Brigida Suediakoa, *erlijiosa, fundatzailea (Salbatzaile Santu-santuaren Ordena) (Europaren Zaindaria)*. Maturana, *dohatsua (Berriz) (Bilbon jaio 1884-07-25 – Donostian hil 1934)*

Jakinduria liburutik 12, 13. 16-19.

Ez da gauza guztiez arduratzen den Zu beste jainkorik, ez duzu zure epaia zuzena dela inori frogatu beharrik. Zure indarra da justiziaren oinarria, eta gauza guztien nagusi izateak guztiekin errukior izatera zaramatza. Guztiz ahaltsu zarela sinesten ez dutenei zeure indarra erakusten diezu, eta, zure indar hori aitortu ez arren, ausardiaz jokatzen dutenak nahasten dituzu; baina Zuk, zeure indarraren nagusi zaren horrek, neurritasunez epaitzen duzu eta bihozberatasun handiz gobernatzen; zeure esku duzu nahi duzunean indarraz baliatzea. Horrela jokatuz erakutsi diozu zeure herriari gizon zuzenak gizakiaren adiskide izan behar duela, eta, bekatariei bihotz-berritzeko aukera emanaz, itxaropenez bete dituzu zeure seme-alabak.

Sal 85: Ona zara, Jauna, eta barkabera.

San Paulok Erromatarrei 8, 26-27.

Senideok: Espiritua datorkigu geure ahulerian lagun, guk ez baitakigu behar bezala otoitz egiten; baina Espirituak berak erregutzen du gure alde, ezin esan ahaleko intziriz. Eta bihotzak azertzen dituen Jainkoak ezagutzen du zein den Espirituaren gogoia, Espirituak Jainkoaren asmoen erara erregutzen baitu fededunen alde.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 24-43.

Aldi hartan, parabola hau esan zion Jesusek jendeari: «Zeruetako erreinuarekin gizon batek soroan hazi ona erein zuenean bezala gertatzen da. Jendea lo zegoela, etorri zen etsaia eta gari artean iraka erein zuen eta alde egin. Garia hazi eta burutu zenean, han azaldu zen iraka ere. Joan ziren, orduan, morroiak etxeko nagusiagana eta esan zioten: “Jauna, ez al zenuen hazi ona erein soroan? Nondik dator, bada, iraka?”. Nagusiak erantzun zien: “Etsaiaren lana da hori”. Morroiek,

UZTAILA

Urteko 16. astea

Igandea / Domeka

23

Santa Brigida Suediakoa, *erlijiosa, fundatzailea (Salbatzaile Santu-santuaren Ordena) (Europaren Zaindaria)*. Maturana, *dohatsua (Berriz) (Bilbon jaio 1884-07-25 – Donostian hil 1934)*

orduan: “Joango al gara iraka biltzera?”. Eta nagusiak: “Ez! Ez dadila gerta, iraka biltzean garia ere ateratzea. Utzi biak batera hazten uztaroa iritsi arte; orduan, igitariei esango diet: bildu lehendabizi iraka, lotu balatan eta erre; garia, berriz, jaso nire mandiora”». Jesusek beste parabola hau esan zion jendeari: «Zeruetako erreinua gizon batek soroan ereiten duen mostaza-haziaren antzekoa da. Hazi guztietan txikiena da; baina, hazten denean, beste barazki guztiak baino handiago egiten da eta zuhaitz bihurtzen, txoriek etorri eta haren adarretan habiak egiteko moduko zuhaitz». Beste parabola hau ere esan zion jendeari: «Zeruetako erreinua legamiaren antzekoa da: emakume batek hiru lakari-irinetan nahasten du, eta ore guztia harrotzen da». Irakaspen hau guztia parabola bidez eman zion Jesusek jendeari, eta ez zien ezer irakasten parabola bidez izan ezik. Honela bete zen Jainkoak profetaren bidez esana: «Parabola bidez mintzatuko naiz, munduaren hasieratik gordea zegoena azalduko dut». Ondoren, jendea agurturik, etxera joan zen Jesus. Orduan, ikasleak hurbildu zitzaizkion, esanez: «Argi iezaguzu soroko irakaren parabola». Jesusek erantzun zien: «Hazi ona ereiten duena Gizonaren Semea da; soroa mundua; hazi ona erreinuko seme-alabak dira; iraka, berriz, gaiztoarenak; iraka erein duen etsaia deabrua da; uzta munduaren azkena, eta uzta-biltzaileak aingeruak. Iraka bildu eta suan erretzen den bezala, hala gertatuko da munduaren azkenean ere. Gizonaren Semeak bere aingeruak bidaliko ditu, eta haren erreinutik bereizi egingo dituzte gaizkileak eta besterentzat gaizpide izan direnak, eta su-labera botako dituzte. Han izango da negarra eta hortz-karraska! Orduan, zintzoek eguzkiak bezala egingo dute distira beren Aitaren erreinuan. Belarririk duenak aditu beza».

Santa Brigida Suediakoa, *erlijiosa, fundatzailea (Salbatzaile Santu-santuaren Ordena) (Europaren Zaindaria)*. Maturana, *dohatsua (Berriz) (Bilbon jaio 1884-07-25 – Donostian hil 1934)*

Zergatik gertatzen da sarritan, hazi ona erein dugun lurlean belar txarra ere haztea? Nolatan guk geure seme-alabak fedean hezi, eta haiek Elizatik urrun bizi izatea aukeratzea? Zergatik gertatzen da geure lanean oneski jokatu eta jendea gutaz trufatzea? Jesusek berak aitortzen du hori enigma bat dela, norberaren gurariatetik harago gertatzen dela eta gure kontroletik kanpo dagoela: «Beraren jendea lotan zegoen bitartean, beraren etsaia etorri, iraka erein eta joan egin zen.» Parabolak bi tentaldi aurkeztu ditu. Lehenengoa da, irakak hainbesteraino liluratzen iritsi eta gariaren balioa begi-bistatik galtzea. Bene-benetan arrazoi ugari dugu mundua nola doan deitoratzeko. Eta, hala ere, aitortzeko gai ez baldin bagara ere, egunero ikusten ditugu geure aurrean mirari txikiak, garrantzi gabeko keinuak baina benetako bizitzaren indarra nabarmentzen dutenak. Bigarren tentaldia lehenengoa baino itogarriagoa da. Soroa garbi uzten ahalegintzea da kontua, hartarako iraka agertu ahala erauziz. Soroaren jabeak gariaren bizia arriskuan ez jartzea nahiago baldin badu eta sega-ordua iritsi arte irakarekin batera bizitzen uztea aukeratzen baldin badu, zergatik ahalegindu behar dute soroko langileek ezin lortua den perfektutasuna lortzeko ahaleginak egiten?

Urteko 16. astea

Joan Pedro Bengoa (*Arrasate 1890 – Carrion de Calatrava 1936*), Nizeforo Jesusena eta Mariarena,*

Irteera liburutik 14, 5-18: Jakingo dute Ni naizela Jauna, neure aintza agertuko dudanean faraoiaren bizkar. **Sal:** Ir 15, 1b-2.3-4.5-6 (R/.1b): Jaunari diot kantatzen, garaipen handia lortu duelako.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 12, 38-42.

Aldi hartan, lege-maisu eta fariseu batzuek esan zioten Jesusi: «Maisu, Zuk egindako seinale bat ikusi nahi genuke». Jesusek erantzun zien: «Seinale eske ari da gizaldi gaizto eta desleial hau; baina ez zaio seinalerik emango, Jonas profetarena besterik. Zeren, Jonasek arrainaren sabelean hiru egun eta hiru gau egin zuen bezala, hala egingo baitu Gizonaren Semeak ere hiru egun eta hiru gau lurraren barruan. Auzi-egunean ninibetarrek gizaldi honen aurka altxatu eta kondenatu egingo dute, haiek bihotz-berritu egin baitziren Jonasen predikuaz, eta baduzue hemen Jonas baino gehiago den norbait. Auzi-egunean gizaldi honen aurka jaikiko da hegoaldeko erregina eta kondenatu egingo du, lurraren azken mugetatik etorri baitzen hura Salomonen jakinduriatzko hitzak entzutera, eta baduzue hemen Salomon baino gehiago den norbait».

Batzuetan, lege-maisuek bezala, Jainkoa zeinu ikusgarrien bidez agertzea itxaro izaten dugu. Errealitatean, ordea, gure bizitza eguneroko mirariz betea dago eta, txikiak izateagatik, ez dira baliogabeak. Azterketa on batek ikusten eta aitortzen laguntzen digu Jainkoaren etengabeko egintzak, gure begirada behar adina zorrozuta ez dagoenean hutsalak iruditzen zaizkigun seinaleen bidez. Zein egoeratan

* Zakaria Fernandez (*Zentroniko 1917 – Ciudad Real 1936*) eta beste 23 lagun, *dohatsuak, Daimiel-eko pasiotarrak, martiriak (1936)*
Margarita Maria Lopez de Maturana, *birjina*
Santa Kristina, *martiria*
San Arnulfo, *martiria*

Urteko 16. astea

Joan Pedro Bengoa (*Arrasate 1890 – Carrion de Calatrava 1936*), Nizeforo Jesusena eta Mariarena,*

antzean ahal izan dut Jainkoaren samurtasunaren arrastoren bat? Zein pertsonak hitz egiten dit errukiaz, barkamenaz eta baldintzarik gabeko maitasunaz bere keinuen bidez? Bihotzaren arreta etengabe landu beharra dugu, ezinbestekoa dugu hori bizitza osoa huts eginez eta iristen ez diren mirarien zain igarotzea nahi ez badugu.

* * *

Gure Aita beste aldetik

Ene seme, lurrean zarena, / egizu, zure bizitza izan dadila
nire izenaren islarik hobena.
Murgil zaitetz nire Erreinuan / emango duzun urrats bakoitzean,
hartuko duzun erabaki bakoitzean,
fereka bakoitzean eta keinu bakoitzean.
Eraiki ezazu zuk nire orde, eta nirekin batean.
Hori duzu nire nahia / nola lurrean hala Zeruan.
Har ezazu egunean eguneko ogia
jakinik pribilejio bat dela eta mirari bat.
Barkatzen dizkizut zeure okerrak,
zeure eroriak, zeure zabarkeriak,
baina egizu zeuk ere gauza bera / anai-arreben ahuldadearekin.
Saia zaitetz zeure bizitzan bide egokia hartzen
zeure ondoan izango bainauzu,
eta ez izan ezeren beldur
gaitzak ez baitu izango zure bizitzan / azken hitza. Amen

(*José María. Rodríguez S.J.*)

* Zakaria Fernandez (*Zentroniko 1917 – Ciudad Real 1936*) eta beste 23 lagun, *dohatsuak, Daimiel-eko pasiotarrak, martiriak (1936)*
Margarita Maria Lopez de Maturana, *birjina*
Santa Kristina, *martiria*
San Arnulfo, *martiria*

Urteko 16. astea
SANTIAGO, APOSTOLUA
San Kristobal, *martiria*

Apostoluen Eginak liburutik 4, 33; 5, 12.27-33; 12, 2.

Egun haietan, Apostoluek aginpide handiz egiten zuten Jesus Jaunaren piztueraren aitormena, eta jendeak oso estimatuak zituen guztiak. Mirari eta egintza harrigarri asko gertatzen zen herrian apostoluen eskuz. Batzar Nagusiaren aurrera ekarri zituzten apostoluak, eta apaiz nagusiak esan zien: «Ez al genizuen zorrotz agindu ez irakasteko Jesusen izenean? Zuek, berriz, Jerusalem osoa bete duzue zeuen irakaspenez; gainera, gizon horren heriotzaren erantzukizuna geuri leporatu nahi diguzue». Pedrok eta beste apostoluek erantzun zuten: «Jainkoaren esana egin behar da aurrena, ez gizakiena. Gure arbasoen Jainkoak piztu egin du zuek egur batetik zintzilik hil zenuten Jesus. Jainkoak goratu egin du bere eskuinaz, Buruzagi eta Salbatzaile eginez, Israeli bihotz-berritzea eta bekatuen barkamena emateko. Geu gara gauza hauen testigu, geu eta esaneko zaizkionei Jainkoak ematen dien Espiritu Santua». Erantzun honek beren onetik atera zituen batzarkideak, eta hil egin nahi zituzten apostoluak. Eta Herodes erregeak ezpataz hilarazi zuen Joanen anaia Santiago.

Sal 66: Ene Jainko, aipa zaitzatela herriek, aipa zaitzatela herri guztiek.

San Paulok 2 Korintoarrei 4, 7-15.

Senideok: Altxor baliotsu hau buztinezko ontzian daramagu, argi ager dadin honenbesteko indarra Jainkoagandik datorrela, eta ez gugandik. Alde guztietatik estutzen gaituzte, baina zapaltzen ez; larri gaude, baina etsita ez; erasopean bai, baina eskutik utzita ez; lurrera botatzen gaituzte, baina suntsitzen ez; nonahi eta beti Jesusen heriotza daramagu geugan, Jesusen bizia ere gugan ager dadin. Bizi garen bitartean, beti heriotzara garamatzate Jesusengatik, gure izate hilkor honetan Jesusen bizia ere ager dadin. Horrela, gugan heriotza ari da; zuengan, berriz, bizia. Hau dio Liburu Santuak: «Sinetsi nuen, eta horregatik hitz egin nuen». Guk ere, sinesmen-espiritu bera

Urteko 16. astea
SANTIAGO, APOSTOLUA
San Kristobal, *martiria*

dugularik, sinesten dugu eta horregatik hitz egiten dugu, jakinik, Jesus Jauna piztu duenak piztuko gaituela gu ere Jesusekin, eta haren ondoan ipiniko gaituela zuekin batean. Hau guztia zuen onerako da, Jainkoaren dohaina askorengana zabaltzean, esker ona ere ugal dadin, Jainkoaren aintzarako.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20, 20-28.

Aldi hartan, zebedeotarren ama hurbildu zitzaion Jesusi bere semeekin eta aurrean ahuspeztu, eskari bat egiteko. Jesusek galdetu zion: «Zer nahi duzu?». Eta hark: «Agindu ezazu nire bi seme hauek, eser daitezela zure erreinuan bata zure eskuinean eta bestea zure ezkerrean». Eta Jesusek: «Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete Nik edan behar dudan kalizatik edateko?». Erantzun zioten: «Bai, gauza gara!». Jesusek orduan: «Nire kalizatik edan, bai, edango duzue; baina nire ezker-eskuin esertze hori, ez dago nire esku inori ematea; nire Aitak norentzat prestatua duen, hari emango zaio». Beste hamarrak, hori entzutean, biziki haserretu ziren bi anaiekin. Baina Jesusek dei egin eta esan zien: «Badakizue herrietako agintariak menpean hartzen dituztela herriak, eta handikiek beren agintea ezartzen dietela. Ez bedi izan horrela zuen artean; baizik eta zuen artean handi izan nahi duena izan bedi zuen zerbitzari, eta zuen artean lehenengo izan nahi duena izan bedi zuen morroi. Gizonaren Semea ere ez baita etorri zerbitzaturat izatera, zerbitzari izatera baizik, eta bere bizia askoren ordainsari ematera».

Urteko 16. astea
SANTIAGO, APOSTOLUA
San Kristobal, *martiria*

Ikaragarria da ikustea, Jesusek ebanjelioa hots egiteko eginkizuna egundoko asmoak dituzten baina, aldi berean, muga izugarriak dituzten gizon-emakumeen esku utzi izana. Gertakari honetan argi eta garbi ikusten da, inork ez duela Jesusen benetako mezua ulertu: ez Zebedeotarrek, ez berauen amak, ez eta gainerako lagunek ere. Zer-nolako eraldaketa gauzatu du, ordea, Mendekosteko Espirituak pertsonaia horiengan guztiengan beren botere-gosetik irten eta beren bizia, Jesusek bezala, azken ertzeraino eman dezaten? Noraino eraman gaitzake gu geu ere Espiritu horrek berak, baldin eta geure buztin pobreakin Erreinuko altxorra gordetzeko buztin-ontzia hark egin dezan uzten badugu?

* * *

Santiago Handia Apostolua

Zebedeoren semea da, Joanen anaia. Jesusek maiteenak zituen hiru ikasleetako bat. Bi anaiei, Santiagori eta Joani, Boanerges ezizena eman zaie: trumoikumeak. Handia esaten zaio Santiagori, beste Santiagogandik bereizteko: Txikia, Jesusen anaia. Santiago Handia Agripa erregeak hilarazi zuen Kristo ondoko 41 eta 44 urte bitartean. Jesusek berak esan zion, gai izango zela, Joan anaia bezala, bere kaliza bera edateko.

Oso beranduko tradizio batek Galiziako Compostelako Santiagorekin erlazionatzen du gure Santiago hau. Jakina denez, santutegi oso jendetsua bihurtu da Compostela.

Santiagok, piztueraren testigu izan zenean, ongi ulertu zituen gurutzean hil aurretik Jesusek bi anaiei esan zizkien hitzak: Martiri izateko gai izango zarete, nik neuk bezala sufrutuko duzue, heriotza bortitza izango duzue, horrela izango zarete nire nekaldiaren partaide.

Urteko 16. astea

San Joakin eta Santa Ana, Andre Mariaren gurasoak.

Irteera liburutik 16, 1-5. 9-15: Euria bezala jaitsaraziko dizuet zerutik janaria. Sal 77: Zeruko ogia eman zien Jaunak janari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 1-9.

Egun hartan, Jesus etxetik irten eta itsasertzean eseri zen. Eta hainbeste jende bildu baitzitzaion inguruan, txalupa batera igo eta bertan eseri zen. Jende-taldea, berriz, hondartzan zegoen. Gauza asko esan zien, parabola bidez hitz eginez: «Behin batean, atera zen ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide-bazterrean erori zen, eta txoriek etorri eta jan egin zuten. Beste zenbait ale harri artean erori zen, lur handirik ez zen lekuan, eta, lur axala izanik, berehala erori zen; baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu. Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiak, haztean, ito egin zuen hazia. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta fruitua eman zuten: bateko ehun nahiz hirurogei nahiz hogeita hamar. Belarririk duenak entzun beza».

Horrela, salbamen-historia astiro-astiro idatziz doa, «apur bat bide-ertzean... beste apur bat harri artean... beste apur bat sasi artean... eta gainerakoa lur onean eroritako» hazia bezala. Guri azeleragailua sakatzea gustatuko litzaziguke, hilak diruditen denborak kentzea, eraginkortasunik gabeko gauza guztiak ezabatzea eta soil-soilik fruitua ematen duen galburua atxikitzea. Alabaina, gure itxaropena da, Jainkoak, parabolako hazi-ereileak bezala arrazoitzen duela, eta guk geurez baztertzea nahiago genituzkeen gure bizitza pertsonaleko eta munduaren historiako neurriak hartzen dituela kontuan. Beraren logikan sartzea –oso astiro ziur aski–, itzalguneak ere Jainkoaren lur direla onartzea da.

Urteko 16. astea

San Galaktario, *gotzaina eta martiria (Baionako elizbarrutian)*

Maria Pilar Izquierdo Albero *dohatsua, birjina*

Irteera liburutik 19, 1-2.9-11.16-20b: Jaitsiko da Jauna Sinai mendira herriaren aurrean. **Sal: Daniel 3:** Aintza eta gorespen zuri gizaldietan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 10-17.

Aldi hartan, Jesusengana hurbildu eta galdetu zioten ikasleek: «Zergatik hitz egiten diezu parabola bidez?». Jesusek erantzun zien: «Zuei eman zaizue zeruetako erreinuaren misterioak ezagutzea; horiei, ordea, ez. Izan ere, duenari eman egingo zaio eta gainezka izango du; ez duenari, ordea, duen apurra ere kendu egingo zaio. Hona zergatik hitz egiten diedan parabola bidez: begiratu bai, baina ikusten ez dutelako; entzun bai, baina aditzen ez dutelako, ezta ulertzen ere. Horrela, Isaias Profetak esana betetzen da horiengan: Entzungo duzue, bai, baina ulertu ez; ikusiko duzue, bai, baina ohartu ez. Izan ere, herri honek gogortu egin ditu buru-bihotzak, gortu belarriak, itsutu begiak. Ez bezate begiez ikus, ez belarriez entzun, ezta buruaz ulertu ere, horrela nigana bihur ez daitezen eta salba ez ditzadan». Zorionekoak, ordea, zuen begiak, ikusten dutelako, eta zuen belarriak, entzuten dutelako. Benetan diotsuet: profeta eta zintzo askok ikusi nahi izan zuen zuek ikusten duzuen, baina ez zuen ikusi, eta entzun zuek entzuten duzuen, baina ez zuen entzun».

Ebanjelioetan, zoriontasun gisa ezagutzen ditugun zortzi horiek baino askoz ere gehiago daude ezkutuan. Hemen aurkituko dugu horietako bat: «Zorionekoak zuen begiak ikusten dutelako eta zuen belarriak entzuten dutelako!». Mateok hemen, 5. kapituluan erabili duen izen bera (*makários*) erabili du. Zorionekoak gara, hain zuzen ere, hori merezi izateko ezer egin gabe, Erreinuko ezkutukiak agertzen ari zaizkigulako. Espirituak zorroztu egiten ditu gure zentzumenak, Jainkoaren taupadak sentitu ez arren, mundu guztiak ikusi eta entzun ditzakeen gertaeren bitartez Berri Onaren zeinuak aurki ditzagun. Zoriontasun hau misio edo bidaltze bihurtzen da, eta bultza egiten digu, ikusi eta entzun duguna, geure bizieraz besteei hots egitera.

Julian Plazaola (*Donostia 1915*), Lazaro Mujika (*Idiazabal 1867*), Braulio Maria Corres (*Torralba, Nafarroa, 1897*), *dohatsuak, eta lagunak, erlijiosoak eta martiriak (1936)*,*

Itteera liburutik 20, 1-17: Legea Moisesen bidez eman zuen Jainkoak.

Sal 18: Zuk dauzkazu, Jauna, betiko biziaren hitzak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 18-23.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Entzun ereilearen parabolaren esanahia: Erreinuaren hitza entzun bai, baina ulertzen ez duenari, Gaiztoak etorri eta kendu egiten dio bihotzean erein zaiona. Hori da bide-bazterrean ereindakoa. Harri artean ereindakoa hauxe da: hitza entzutean, berehala pozik hartzen duena; baina, sustrairik gabea eta iraupen gutxikoa izanik, hitza dela-eta estutasun edo erasoaldiren bat sortu orduko, berehala huts egiten du. Sasi artean ereindakoa hauxe da: hitza entzun bai, baina mundu honetako ardurak eta diru-goseak ito egiten diote hitza, fruiturik gabe utziz. Lur onean ereindakoa, berriz, hauxe da: hitza entzun eta ulertzen duena. Honek fruitua ematen du: bateko ehun nahiz hirurogei nahiz hogeita hamar».

Parabola hau errazegi irakurtzeak, jendearen sailkapena egitera eramango gintuzke eta, agian, baita ezagunen bat laukitxoren baten barruan jartzera ere: ulertzen ez dutenak, ezegonkorrak, aberastasunek liluratzen dituztenak, etab. Lasaiago irakurtzeak eta, batez ere, zintzoago, geure barruan Hitzak fruitua ematea eragozten duten egoera horiek denak eta beste asko ere aitortzera eramango gaitu. Jainkoak gure bitartez egiten dituen egintza onengatik alaitu eta eskerrak eman behar ditugunaldi berean; komeni da noski noizbehinka geure bideen ertzak, lurralde harritsuak eta geure bizitzako sasiak ikuskatzea, eta Espirituari Erreinuaren bizitzarako emankorrek diren lursailak bereganatzen joan dadin eskatzea.

* *San Joan Jainkoaren ordenakoak*
San Pedro Poveda, apaiza, fundatzailea (*Teresatar Institutzioa*) eta martiria
(1936)

Urteko 16. astea

Santa Marta, *Lazaroren arreba eta Mariaren ahizpa*

Irteera liburutik 24, 3-8: Jaunak zuekin burutu duen itunaren ezaugarria da odol hau. **Sal 49:** Eskaini esker onezko oparia Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 11, 19-27.

Aldi hartan, judu asko etorri zen Marta eta Mariagana, anaiarengatik doluminak ematera. Marta, Jesus zetorrela entzun orduko, bidera atera zitzaion; Maria, berriz, etxean gelditu zen. Martak esan zion Jesusi: «Jauna, hemen izan bazina, gure anaia ez zen hilko. Hala ere, badakit eskatuko diozun guztia emango dizula Jainkoak». Jesusek erantzun zion: «Piztuko da zure anaia». Eta Martak: «Badakit piztuko dela azken egunean, hildakoen piztuerakoan». Jesusek esan zion orduan: «Ni naiz piztuera eta bizia; Nigan sinesten duena, hilik ere, biziko da, eta bizi dena, Nigan sinesten badu, ez da betiko hilko. Sinesten al duzu hori?» Martak erantzun zion: «Bai, Jauna, sinesten dut Zu Mesias zarela, Jainkoaren Semea, mundura etortzekoa zena».

2021. urtean, Jainkoaren Kulturako eta Sakramentueterako Kongregazioak aldatu egin zuen Erromatar Egutegi Orokorra uztailaren 29ari dagokionez; ordudanik Marta, Maria eta Lazaro santuen Oroitzapena deritzo, eta ez Marta santuarena bakarrik. Betaniako etxean, espiritu familiarra eta Marta, Maria eta Lazaroren adiskidetasuna sumatu eta bizi zituen Jesusek, eta Joanen ebanjelioak dio horregatik maite zituela Jesusek. Martak eskuzabal eskaini zion etxe-harrera. Mariak adi-adi entzun zuen Jesusen hitza. Lazaro batean irten zen hilobitik heriotza umiliatu duen haren aginduz. Jaunaren grazia lagun, egin diezaiogula geuk ere arrera ona geure etxean, geure ingurumenean —eta edozein dela presente egingo zaigun era— eskain diezaiogula arrera eguneroko eta erantzun arin-arin eta konfiantzaz.

San Pedro Krisologo, *gotzaina eta eliz irakaslea*. Braulio Corres *dohatsua* eta lagunak, *martiriak*. Primo Martinez de San Vicente, *dohatsua, martiria* (Araba)

I Erregeak liburutik 3, 5. 7-12.

Egun haietan, Jauna agertu zitzaion ametsetan Gabaonen Salomoni, eta esan zion: «Eskatu nahi duzuna, eta emango dizut». Salomonek erantzun zion: «Jauna, ene Jainkoa, nire aita Daviden ordeztu ni, zeure zerbitzari hau, egin nauzu errege. Ni, ordeza, gaztea naiz eta ez dakit nola gobernatu. Zure zerbitzari hau Zeuk aukeratu duzun herriaren erdian dago, herri izugarria, ugariaren ugariz ezin konta ahalekoa. Emaiozu zeure zerbitzari honi adimen argia, zure herria gobernatzeko, eta ona eta txarra bereizteko. Bestela, nola gobernatu zure herri handi hau?». Atsegin izan zitzaion Jaunari Salomonen eskaria, eta esan zion: «Hori eskatu duzulako, eta ez zeuretzat urte asko, aberastasunak edota zeure etsaien heriotza, baizik eta zuzen gobernatzeko jakinduria eskatu duzulako, beteko dut zuk eskatua; zure aurretik inork izan ez duen eta zure ondoren ere inork izango ez duen adinako jakinduria eta adimena emango dizut».

Sal 118: Bai maite dudala, Jauna, zure legea.

San Paulok Erromatarrei 8, 28-30.

Senideok: Badakigu bera maite dutenen onerako bideratzen dituela Jainkoak gauza guztiak, bere aurre-erabakiaz deitu dituenen onerako, alegia. Aurrez ezagutu zituenak aukeratu ere egin zituen, bere Semearen irudiko izan zitezen eta, horrela, Semea senide askoren artean lehen-eme izan zedin. Aurrez aukeratu zituenak deitu ere egin zituen; deituak, berriz, zuzentzat hartu, eta zuzentzat hartuak aintzaz bete.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 44-52.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeruetako erreinuarekin soroan ezkutatua dagoen altxorrarekin bezala gertatzen da. Norbaitek, aurkitzen duenarik, berriro ezkutatu egiten du eta, pozaren pozez joan,

Urteko 17. astea

San Pedro Krisologo, *gotzaina eta eliz irakaslea*. Braulio Corres *dohatsua* eta lagunak, *martiriak*. Primo Martinez de San Vicente, *dohatsua, martiria* (Araba)

dituen guztiak saldu eta soro hura erosten du. Era berean, zeruetako erreinuarekin, harribitxi bila dabilen merkatarekin bezala gertatzen da. Balio handiko bat aurkitzen duenean, joan, bere gauza guztiak saldu eta erosi egiten du. Era berean, zeruetako erreinuarekin itsasora bota eta mota guztietako arrainak biltzen dituen sarearekin bezala gertatzen da. Beterik dagoenean, bazterrera ateratzen dute eta, eseririk, onak saskira biltzen dituzte eta txarrak kanpora botatzen. Horrela gertatuko da munduaren azkenean: aingeruak etorri eta gaiztoak zintzoen artetik bereiziko dituzte eta su-labera botako. Han izango da negarra eta hortz-karraska!». Jesusek galdetu zien ikasleei: «Ulertu al duzue hau guztia?». «Bai», erantzun zioten. Eta Jesusek: «Beraz, zeruetako erreinuko ikasle egin den lege-maisua, bere altxorretik zaharrak eta berriak ateratzen dituen etxeko jaunaren antzekoa da».

Parabola honek geure fede-bizitzaren benetako motibazioen aurrez aurre jartzen gaitu. Agian ohitu egin gara kristauak izaten, jostailuz bete eta irudimenik gabe aspertzen den ume aberatsa bezala. Konforma gaitzke beti egin duguna egitearekin, arriskurik hartu gabe, bere aurrezkiak baldintza finkoetan epe baterako jartzen dituen bezala. Eser gaitzke eta itxaron Jainkoak gugana jotzea ontzat ematen duen arte, espiritu-negozioetan inondik inora ere sartu beharrik izan gabe. Inertzia, segurtasuna, erosotasuna... Jesusek guardian jartzea eskatzen digu espiritu-bizitza erabat geratzen duten eta Erreinuaren hazkuntza tratatzen duten deabru horien aurka. Parabolan, altxorren eroslea eta harribitxiaren eroslea bi pertsonaia ekintzaile dira eta arriskuak hartzen dituzte biek, beren helburuak lortzeko, egin beharreko eragiketen kostuak beren gain hartzeko. Erreinuaren menturan, alferkeriak edo inoiz falta ez diren zailtasunek gainditu gaitzaten uzten dugunean, galdetzeko ordua dugu, ea zein puntutaraino ari den Jesusen proposamena gure bizitzari heltzen. Egoeraren adierazle giltzarria edo hutsik egiten ez duen motorra poza da. Inork ez du aurrera egiten Ebanjelioa bizitzen, betebeharrak soilik eraginda eta ukabilladaka. Eta lehendabizi Jainkoaren Erreinoa eta beraren zuzentasuna bilatzearen poz hori inork ere ez digu kenduko.

Urteko 17. astea

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, *apaiza, fundatzailea*
(*Jesusen Lagundia*) (*Gipuzkoaren eta Bizkaiaren Zaindaria*)

Irteera liburutik 32, 15-24. 30-34: Bekatu larria egin du herri honek, urrezko jainkoa eginez. Sal 105: Eskerrak Jaunari, ona baita.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 31-35.

Aldi hartan, parabola hau esan zion Jesusek jendeari: «Zeruetako erreinua gizon batek soroan ereiten duen mostaza-haziaren antzekoa da. Hazi guztietan txikiena da; baina, hazten denean, beste barazki guztiak baino handiago bihurtzen da eta zuhaitz egiten, txoriek etorri eta haren adarretan habiak egiteko moduko zuhaitza». Beste parabola hau ere esan zion: «Zeruetako erreinua legamiaren antzekoa da: emakume batek hiru lakari-irinetan nahasten du, eta ore guztia harrotzen da». Irakaspen hau guztia parabola bidez eman zion Jesusek jendeari, eta ez zion ezer irakasten parabola bidez izan ezik. Honela bete zen Jainkoak profetaren bidez esana: «Parabola bidez mintzatuko naiz, munduaren hasieratik gordea zegoena azalduko dut». Bibliaren pentsaera konbentzimendu honetatik abiatu da: gauzarik txikienak eta azkenak direnetatik datorrela salbazioa guztientzat. Mostaza hazia hazi guztietan txikiena da. Baina zuhaixkarik handiera bihurtzen da, halako moduan non txoria beraren adarretan egiten baitu habia... Legamia-apur batek ore guztia hazarazten du... Txikien jakinduria geure egitea dugu Jainkoaren jarduera ulertzeko era, geure jarduera harenaren harira egiteko era... Jesusen sentimenduak geure eginez, otoitz egigun esanez: «Eskerrak zuri, Aita, gauza hauek txikiei eta xumeei agertu dizkiezulako, eta jakintsuei eta adituei ezkatutu».

Jesusek arrazoi zuen ziapa- edo mostaza-hazia oso hazi txikia dela esatean; hain zuzen ere, hazi-ale bakoitzak bi milimetroko diametroa du gehienez. Arreta bizia eskatzen du Jesusek, hazi txiki-txiki hori Jainkoaren Erreinuaren eredu gisa aukeratzean. Idazteunaren ezagutzaila ona izaki, har zezakeen eredutzat Libanoko zedroa, usaintsua eta adaje bikainekoa (cf. Ez 31, 3), edo Xarongo arrosa, edertasun paregabea duena, (cf. Kt 2, 1). Jesusek, ordea, ustekabeko

Urteko 17. astea

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, *apaiza, fundatzailea*
(*Jesusen Lagundia*) (*Gipuzkoaren eta Bizkaiaren Zaindaria*)

emankortasuna salbu, apartekotik ezer ez duen landare batean jarri du begia; Erreinuaren ametsa, txikiaren aldeko erabateko apustua egitean datza, hain zuzen ere; guk bat-batean aukeratuko ez genukeena, eta, areago oraindik, munduak baliogabeko gisa baztertzen duena.

* * *

Loiolako San Ignazio: Meza berezia

Jeremias profetaren liburutik 20, 7-9.

Liluratu egin nauzu, Jauna, eta ni zure lilurapean erori; bortxatu egin nauzu eta menderatu.

Barregarri gertatu naiz egun osoan; burlaka ari zaizkit denak. Hitz egiten dudan bakoitzean, garrasi egiteko da; indarkeria eta zapalkuntza salatuz hots egin beharra dut; Jaunaren hitza irain- eta iseka-bide da niretzat egun guztian. Hau nioen neure baitarako: «Gogoratu ere ez dut egingo; ez dut gehiago haren izenean hitz egingo».

Baina, orduan, sua bezalako zerbait sentitzen nuen barruan; hezurretaraino erretzen ninduen; saiatzen nintzen hura itotzen, baina ezin!

Sal 1: Bai dohatsu gau eta egun Jaunaren legea hausnartzen duena.

Paulo santuak 1 Korintoarrei 10, 31–11, 1.

Senideok: Nahiz jan, nahiz edan, nahiz beste edozer egiten duzuela, egizue dena Jainkoaren aintzarako. Ez izan erorbide, ez juduentzat, ez jentilentzat, ez Jainkoaren eliz elkartearentzat ere. Ni ere guztiei gauza guztietan atsegin ematen saiatzen naiz, eta ez dut bilatzen neure ona, besteena baizik, guztiak salba daitezen. Izan zaitezte nire antzeko, ni Kristoren antzeko naizen bezala.

Urteko 17. astea

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, *apaiza, fundatzailea*
(*Jesusen Lagundia*) (*Gipuzkoaren eta Bizkaiaren Zaindaria*)

Jesu Kristoren ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 25-33.

Aldi hartan, jende-talde handiak zihoazen Jesusekin; honek, haiengana bihurturik, esan zien: «Norbaitek nirekin etorri nahi badu, eta bere aita-amak eta emaztea, seme-alabak eta anai-arrebak, eta bere burua bera baino maiteago ez banau, ez daiteke izan nire ikasle. Bere gurutzea hartu eta nire ondoren ez datorrena ez daiteke izan nire ikasle. Izan ere, zuetako nork, dorrea egin nahi badu, eseri eta ez ditu aurretik gastuen kontuak ateratzen, bukatzeko lain ba ote duen ikusteko? Bestela, zimenduak hartu ondoren ezin bukatuko balu, hori ikustean barre egingo liokete denek, esanez: “Honako hau eraikitzen hasi huen eta ezin izan dik bukatu”. Edota zein erregek, beste baten kontra gerrara joan nahi badu, eseri eta ez du alde zuretik deliberatzen, ea hamar mila gizon aski dituen, hogei milarekin kontra datorkionari aurre egiteko? Eta ezetz ikusten badu, artean bestea urruti dela, mandatariak bidaliko dizkio bakea eskatuz. Era berean, zuetako inor ez daiteke nire ikasle izan, dituen guztiei uko egiten ez badie».

Loiolako dorretxea eta Iruñeko borrokaldia, Ignazioaren bizitzako bi irudi dira, eta ziur aski, gaurko liturgiak proposatzen digun testuaren barruan sarturik erraztu egingo liokete presente egotea. Testuan, Jesus kalkuluez hitz egiten hasi da eta batuketa zeron utziz bukatu du: jarraitu nahi dionak ezin du ezer gorde, ezta bere burua ere. Deitzen eta bidaltzen duen Jauna sakon sentitu eta beraren barnean gustuko izan ondoren, Ignazio geroz eta gehiago doa erromes funtsezko uste duen hartara: maitatu eta denean zerbitzatu. Bizitza Jaun horren banderaren azpian jarrita dagoenean, iristeko gelditzen den “magis” (gehiago) edo helburu bakarra, umiltasunean txertatuta dagoena da eta bere gurutzea gainean hartzeko gai dena.

* * *

Urteko 17. astea

SAN IGNAZIO LOIOLAKOA, *apaiza, fundatzailea*
(*Jesusen Lagundia*) (*Gipuzkoaren eta Bizkaiaren Zaindaria*)

LOIOLAKO SEMEA GURE ZAINDARIA

R/. Loiolako semea gure zaindaria,
entzun, arren, gure eskaria.
Jainkoaren aurrean izan zaitez
gure lagun,
zerua irabazi dezagun.

1. Iruñean zauriturik,
Loiolan santutu,
Andre Mariaren bitartez
zinen bihotz-berritu,
santu handia,
zerutik iguzu lagun,
gure bihotzak berri ditzagun. R/.

2. Zure gazte bizitza
bekataria zen,
ta gero santutasunaren
mendra igo zinen.
Gure bihotzak
zurekin jaso ditzagun,
Jaunaren aintza bila dezagun. R/.



Dainkoagana
bide 
eginez
Gogo
Jardunen
 bidez

ABUZTUA / DAGONILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Gazteriaren Munduko Ekinaldia: Otoitz egin dezagun Gazteriaren Munduko Ekinaldiak, Lisboan ospatzekoak, lagundu diezaiela gazteei bideari ekiten, beren bizieraz Ebanjelioaren testigantza eskainiz.



Urteko 17. astea

San Alfontso Maria Ligorio, *gotzaina eta eliz irakaslea, fundatzailea (erredentoristak)*

Irteera liburutik 33, 7-11; 34, 5b-9. 28: Jaunak aurrez aurre hitz egiten zuen Moisesekin. **Sal 102:** Bihozbera eta errukiorra da Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 36-43.

Aldi hartan, jendea agurturik, etxera joan zen Jesus. Orduan, ikasleak hurbildu zitzaizkion, esanez: «Argi iezaguzu soroko irakaren parabola». Jesus ek erantzun zien: «Hazi ona ereiten duena Gizonaren Semea da; soroa mundua; hazi ona erreinuko seme-alabak dira; iraka, berriz, gaiztoarenak; iraka erein duen etsaia deabrua da; uzta munduaren azkena, eta uzta-biltzaileak aingeruak. Iraka bildu eta suan erretzen den bezala, hala gertatuko da munduaren azkenek ere. Gizonaren Semeak bere aingeruak bidaliko ditu, eta haren erreinutik bereizi egingo dituzte gaizkileak eta besterentzat gaizpide izan direnak, eta su-labera botako dituzte. Han izango da negarra eta hortz-karraska! Orduan, zintzoek eguzkiak bezala egingo dute distira beren Aitarene erreinuan. Belarrik duenak entzun beza».

Jesusek irakaren parabolari eman dion azalpenak, gu ikaratzeko baino gehiago, gure itxaropena pizteko balio dezake. Jesus ez da pertsona baikor-baikor horietakoa, dena ondo joango dela uste duena. Mundua eta giza izaera ongi ezagutzen dituenek, oso ondo daki, Erreinuko gari onaren alboan belar txarra ere erne eta hazten dela. Jesus itxaropena duen errealista da eta, gaizkia badela baieztatetik abiatuta, garaien amaieran gaizkia suntsitua izango dela uste du eta ongiak behin betiko garaipena lortuko duela. Beraz, gauzak horrela, itxaro dezakegu geure heriotzako orduan Jainkoak geure izatearen hondo-hondotik, garatzen joan garen on guztia berreskuratuko duela eta, aldi berean, guretzat eta gainerakoentzat sufrimendu-iturri izan den ilunpea desagerraraziko duela. Horrela ikusita, auzia, egiaren eta berradiskidetzaren toki bihurtuko da.

2

Asteazkena / Eguaztena ABUZTUA / DAGONILA

Urteko 17. astea

Aingeruen Andre Maria. San Eusebio Vercellikoa, *gotzaina*
San Pedro Julian Eymard, *apaiza, fundatzailea (Sakramentu*
Santuaren Apaizak). San Pedro Fabro, *apaiza, jesuita*

Irteera liburutik 34, 29-35: Moisesek aurpegia distiratsu zuela ikusirik, beldur ziren harengana hurbiltzeko. **Sal 98:** Santua zara Jauna, gure Jainkoa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 44-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeruetako erreinuarekin soroan ezkutatua dagoen altxorarekin bezala gertatzen da. Norbaitek, aurkitzen duelarik, berriro ezkutatu egiten du eta, pozaren pozez joan, dituen guztiak saldu eta soro hura erosten du. Era berean, zeruetako erreinuarekin, harri bitxi bila dabilen merkatariarekin bezala gertatzen da. Balio handiko bat aurkitzen duenean, joan, bere gauza guztiak saldu eta erosi egiten du».

Bat-batean, edozein soro, balio mugagabea duen ondasun bihurtzen da, baina beraren balio hori ez dator berak balio duenetik, bere barnean ezkutatuta duen altxorretik baizik. Jainkoarentzat, gure izate txikia da soro hori, horretan jarri baitu jainkozko bere bizitzaren altxorra egundoko gozotasunez. Gizaki bakoitza bikaina da bere Egilearen begietarako, baita minaz edo bekatuaz desitxuratuta direnak ere. Soro horretan sartu aurretik, oinetakoak erantzi behar ditugu. Pertsona ororen muinean, ezagutzen ez dugun misterioa dago ezkutatuta eta, beraren aurrean, sagaratua denari zor diogun errespetu sakonarekin soilik jar gaitezke. Jainkoak egiten duen moduan, aurkitu al dugu geure gizatasunaren soroan edo eremuan bizi izatearen poza?

Urteko 17. astea

San Pedro Osmakoa, *gotzaina*. Santa Lidia, *martira*

Irteera liburutik 40, 16-21.34-38: Lainoak estali zuen elkarketa-etxola eta Jaunaren aintzak bete zuen egoitza. **Sal 83:** Bai maitagarria zure egoitza, Jaun ahalguztiduna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 47-53.

Aldi hartan, esan zion Jesusek jendeari: Era berean, zeruetako erreinuarekin itsasora bota eta mota guztietako arrainak biltzen dituen sarearekin bezala gertatzen da. Beterik dagoenean, bazterretera ateratzen dute eta, eseririk, onak saskira biltzen dituzte eta txarrak kanpora botatzen. Horrela gertatuko da munduaren azkenean: aingeruak etorri eta gaiztoak zintzoen artetik bereizi egingo dituzte eta su-labera botako. Han izango dira negarra eta hortz-karraska!». Jesusek galdetu zien ikasleei: «Ulertu al duzue hau hortz-karraska!». «Bai», erantzun zioten. Eta Jesusek: «Beraz, zeruetako erreinuko ikasle egin den lege-maisua, bere altxorretik zahar eta berriak ateratzen dituen etxeko jaunaren antzekoa da». Jesusek, parabola hauek amaitu zituenean, alde egin zuen handik.

Sarearen parabolaren bitartez, Jesusek jakinaren gainean jarri ditu bere ikasleak inor baztertu edo eskluditzeko joeraren aurka. Jainkoaren Erreinua, gure jabetzako gauza izatetik urrun, denei irekita dagoen errealitatea da eta, arrantzaleak itsasoa botatzen duen sareak bezala, bertan hartzen ditu bertara sartzen diren arrain guztiak. Sareak baina, denak bildu arren, zurrun jokatu gabe gordetzen ditu arrainak; sendoa da baina eta aldi berean malgua. Erreinuaren irudi bikaina da bestalde: pertsona bakoitza den bezalakoa onartzeko gai den tokia eraikitza gongbidatuak gaudela adierazten digu, inor pasarazi gabe geure ikuspegiaren araberako molde aurrefabrikatutik. Funtsezko eta oinarritzko arau bakarrak, Jesus eta beraren Ebanjelioa dira eta horiek ezin ditugu nahas beti aldatuz doazen geure ulertzeko moduekin.

Urteko 17. astea

San Joan Maria Vianney, *Ars-eko apaiza*

Lebitarraena liburutik 23, 1.4-11.15-16.27.34b-37: Jaunaren jaietan batzar santuak egingo dituzue. Sal 80: Egin pozez oihu laguntzaile dugun Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 13, 54-58.

Aldi hartan, Jesus bere herrira joan zen eta irakasten ari zitzaizen sinagogan. Jendeak, harriturik, zioen: «Nondik du honek horrelako jakinduria, eta nondik mirari horiek? Hau ez al da, ba, arotzaren semea? Honen amak ez al du izena Maria, eta honen anaiek Santiago, Jose, Simon eta Judas? Eta honen arrebak ez al dira gure artean bizi? Nondik du, beraz, honek hori guztia?». Eta ezin zuten sinetsi harengan. Jesusek esan zien: «Profetari edonon ematen diote ohore, bere herrian eta etxean izan ezik». Eta, haien sinesgogorkeriagatik, ez zuen han mirari askorik egin.

Nazaretarren galderek zentzu handia dute. Jesus txiki-txikitatik ezagutzen dute, beren kaleetan jolas egiten ikusi dute, beren etxeetan lan egiten, beren sinagogan errezatzen. Oso ondo dakite berena bezalako familia batekoa dela eta eguneroko jarduerak eta bizitzak ematen dutena baino ikasketa handiagorik ez diotela ematerik izan. «Orduan, nondik ateratzen du berak hori guztia?». Guk, jendea geure iritzi izatera irits daitekeenaren marko barruan sartzen dugunean, benetan denaren izate zoragarria eta egiten dituen mirariak galtzen ditugu. Noizbehinka, behartsuek ere harritu egiten gaituzte, guk uste duguna baino askoz ere urrunago iristen direlako. Ba ote dago guban miresmenerako tokirik, ala eskandalurako soilik dago?

Urteko 17. astea

Andre Mariaren Eliza Sagaratzea, Erroman

Andre Maria Zuria Gasteizen. Elurretako Andre Maria

Levitarrak liburutik 25, 1.8-17: Jubileu urtean, bakoitza lehen bereak zituenen jabe egingo da berriro. Sal 66: Ene Jainko, ospa zaitzatela herriek, ospa zaitzatela herri guztiek.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14, 1-12.

Aldi hartan, Jesusen berri jakin zuen Herodes Galileako gobernariak, eta esan zien bere zerbitzariei: «Joan Bataiatzailea da! Hildakoen artetik piztu da, eta horregatik du mirariak egiteko ahalmen hori». Izan ere, Herodesek Joan harrapatu eta, loturik, kartzelan sartua zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Filiporen emaztea zen Herodias. Joaneke esaten zion Herodesi: «Ez zaizu zilegi emazte hori edukitzea». Herodesek hil egin nahi zuen, baina jendearen beldur zen, profetatzat baitzuten denek. Baina Herodesen urtebetetzean, Herodiasen alabak dantzan egin zuen guztien aurrean eta atsegin izan zitzaion Herodesi. Hargatik, eskatu ahala guztia emango ziola agindu zion neskatxari zin eginez. Neskatxak, bere amaren aholkuari jarraituz, esan zion Herodesi: «Emadazu oraintxe bertan Joan Bataiatzailearen burua azpilean». Goibel jarri zen erregea; baina mahaikideen aurrean egindako zinagatik, eskatua emateko agindu zuen, eta Joani lepoa moztu zioten kartzelan. Azpilean burua ekarri eta neskatxari eman zioten, eta neskatxak amari. Joanen ikasleek haren gorpua jasotzera etorri eta lur eman zioten; gero, Jesusi berri ematera joan ziren.

Gizadiaren historia ondorengo zekenkeria zentzu-gabe honen antzekoz beterik dago: emakumeagandik jaiotakoetan zaharrena, gutizia batengatik hil da, mendeku-goseagatik, koldarkeria-keinu batengatik. Herodesi Joan Bataiatzailearen mamuak jarraitzen dio, gizakiak egiten duen zuzengabekeria orok barnean arrastoa uzten diolako. Kanpotik inork zigortzen ez bagaitu ere, geure kontzientziak gogorarazten digu bidean ereinda utzi dugun gaitza. Geure egiari aurre egin eta barkamena eskatu behar izaten dugu bakean bizitzen jarraitu

Urteko 17. astea

Andre Mariaren Eliza Sagaratzea, Erroman
 Andre Maria Zuria Gasteizen. Elurretako Andre Maria

ahal izateko; hala ez bada, gaizki konpondutako historiak, ordaina eskatzen jarraituko du.

* * *

Elurretako Andre Maria

[Zakarias 2, 1-13: Poztu zaitetz, Siongo alaba, banatorkizu-eta! Apokalipsia 21, 1-5a: Jerusalem berria ikusi nuen, bere senargaiarentzat apaingutako andregaia bezala. Sal: Judit 13: Zugar du gure herriak bere edertasuna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburitik 11, 27-28.

Aldi hartan, Jesus gauza hauek jendeari esaten ari zela, emakume batek jendartetik deiadarka esan zuen: «Zorionekoa sabelean eraman zintuen eta bularra eman zizun emakumea!». Baina Jesusék esan zuen: «Hobeki esan, zorionekoak Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!».

* * *

Andre Maria Zuria

Andre Mariaren basilika nagusia Sixto III.ak (432-440) sagaratu zuen abuztuaren 5ean. Horrela, 431n Efesoko kontzilioak Andre Mariaz esan zuena oihukatu nahi izan zuten: Jainkoaren Ama dela Andre Maria. Legendak dio, abuztuaren 5-6 bitarteko gauetan egindako elurrez markatua zegoela elizaren planoan. Horregatik, Andre Maria Zuria edo Elurretako Ama deritza (Sancta Maria ad Nives). Betleemgo ganbela edo aska han gordea zegoela ere zabaldu zen VII. mendean. Arkitektura bikainekoa da eliza eta hogeita hamasei mosaiko ikusgarriak apaintzen dute erdiko nabea.

Urteko 18. astea

JAUNAREN ANTZALDATZEA

San Justo eta San Pastor, *anaiak, martiriak*

Daniel Profetaren liburutik 7, 9-10.13-14.

Begira nengoela, tronu batzuk jarri zituzten eta gizon zahar bat eseri zen. Haren soinekoa elurra bezain zuri, buruko ilea artilea bezain garbi! Haren aulkia eta gurpilak, sugar kiskalgarri! Suzko ibaia ateratzen zen haren aurretik. Jendetza izugarria zuen zerbitzari, milaka eta milaka zeuden haren aurrean zutik. Auzia hasi eta zabaldu ziren liburuak. Neure gau-ikuskarian, gizaseme antzeko bat ikusi nuen zeruko hodeietan etortzen. Gizon zaharragana hurbildu zenean, beroni aurkeztu zioten. Agintea, aintza eta erregetza eman zioten: herri, nazio eta hizkuntza guztietako jendeak zerbitzatzeko zuen. Haren agintea betierekoa, ez da inoiz bukatuko; haren erregetza ez da inoiz hondatuko.

Sal 96: Errege da Jauna, Goi-goikoa, lur guztaren gainetik.

San Pedroren 2. gutunetik 1, 16-19.

Senide maiteok: Jesu Kristo gure Jauna ahalmenez etorriko den egunaz hitz egin genizuenean, ez ginen oinarritu irudipenezko ipuinetan, geure esperientzian baizik, geure begiz ikusi baikenuen haren handitasuna. Jesusek bere Aita Jainkoagandik hartu zituen ohorea eta aintza, hau esan baitzion Jainkoaren aintza bikainetik etorritako mintzoak: «Hau da nire Semea, nire maitea, honengan dut neure atsegina». Guk geuk entzun genuen zerutik etorritako mintzo hori, berarekin mendi santuan ginela. Badugu profeten hitza ere, hitz guztiz sendoa, eta zuek ederki egiten duzue hitz horri adi-adi egonez: toki ilunean argi egiten duen kriseilua bezala da zuentzat, eguna zabaldu eta goizeko izarra zuen bihotzean jaiki arte.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17, 1-9.

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek berekin Pedro, Santiago eta honen anaia Joan eta mendi garai batera eraman zituen aparte. Eta

antzaldatu egin zen haien aurrean: aurpegia eguzkia bezain distiratsu bihurtu zitzaion eta jantziak argia bezain zuri. Hartan, Moises eta Elias agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan. Orduan, Pedrok esan zion Jesusi: «Jauna, bai ederki gaudela hemen! Nahi baduzu, hiru txabola egingo ditut: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasentzat». Hizketan ari zela, hodei argi batek estali zituen, eta ahots batek esan zuen hodeitik: «Hauxe da nire Seme maitea, hau dut atsegin. Entzuiozue». Hori entzutean, ahuspez lurrera erori ziren ikasleak, beldurraren beldurrez. Hurbildu zitzaion Jesus, ukitu eta esan zien: «Jaiki zaitezte; ez beldur izan». Begiak jasorik, Jesus bakarrik ikusi zuten, beste inor ez. Menditik behera jaisterakoan, Jesusek agindu zien: «Ez esan inori ikusi duzuen hau, harik eta Gizonaren Semea hilen artetik piztu arte».

Mateok, antzaldatzearen gertakaria, doi-doi nekaldiaren lehen iragarpenaren ondoren kokatu du, Jesusek bere ikasleei berak asko sufritu behar duela esaten dienean eta, beraiek ere, jarraitzeko prest baldin badaude, bizia galtzeko aukera beren gain hartu beharko dutela adierazten dienean. Esperientzia argitsu horrek, berrespen berri bat ematen dio Jesusi, alegia, bere mesiastasunaren eitea, Legeak eta Profetek aginduak betetzeko duen modua, erabat bat datorrela Aitak duen nahiarekin: «Hauxe da nire Semea, nire maitea, nire begikoa». Ikasleei ere igortzen zaie berrespen-mezua: «Entzuiozue». Jesusen aurka altxatzen diren ahots askoren artean, errukirik gabe beraren aurka botako diren eta heriotzaraino entzungo dituen irain eta laidoen artean, ikasleek belarriak desbideratu gabe entzuten jarraitu behar dutena da, Jesusen otzantasuna, beraren koherentzia, beraren maitasun jakin eta zehatza, beraren zerbitzari-izaera. Antzaldatze-mendia geuretzat ere zain dugu, noizbehinka Jaunaren aurpegiak duen edertasun neurtezina gustarazteko. Beraz, ez dago jarraipenik gurutze-biderik gabe, baina ez eta Tabor mendiko antzaldatzerik gabe ere. Orduan, jaiki eta menditik jaitsi beharra dugu, bihotzaren oroimenean jasotako on gutziak gordez. Oroimen horrek eutsiko digu gero proba datorkigun orduan.

Urteko 18. astea

San Sixto II.a, *aita santua* eta lagunak, *martiriak*
San Kaietano, *apaiza (teatinoen fundatzailea)*,*

Zenbakiak liburutik 11, 4b-15: Nik bakarrik ezin dut herri hau guztia eraman. **Sal 80:** Egin pozez oihu laguntzaile dugun Jainkoari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14, 13-21.

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen heriotzaren berri jakitean, Jesus leku bakarti batera joan zen bera bakarrik txalupaz. Baina ohartu zen jendea eta oinez jarraitu zion herrietatik. Txalupatik ateratzean, Jesusek jendetza handia ikusi zuen; erruki izan zituen eta gaixoak sendatu zizkien. Ilunabarrean, ikasleek hurbildu eta esan zioten: «Leku bakartia da hau eta orduak aurrera doaz. Bidal ezazu jendea, auzoetara joan eta jatekoa eros dezan». Jesusek esan zien: «Ez dute zertan joan; emaezue zeuok jaten». Haiek, orduan: «Ez dugu hemen bost ogi eta bi arrain besterik». Eta Jesusek: «Ekarri hona». Jendeari belar gainean esertzeko agindu ondoren, hartu zituen bost ogiak eta bi arrainak, eta, begiak zerurantz jasorik, bedeinkapen-otoitza egin, ogiak zatitu eta ikasleei eman zizkien, eta ikasleek jendeari. Asetzeraino jan zuten guztiek, eta gelditutako hondarrez hamabi saski bete bildu zuten. Bost mila gizon inguru ziren jan zutenak, emakumeak eta haurrak aparte.

Joan Bataiatzailearen heriotza egundoko kolpea izan bide da Jesusentzat eta ez soilik berarekin lotura estua zuelako, baita Aitzindariaren bukatzeko moduak, bere bukaera, iragarpen aurreratu gisa, adierazten diolako. Jesusek bakardade-apur baten beharra du eta hori bilatzen du kolpea jaso ondoren burua altxatzeko eta dolu egiteko, baina lasaitasunak oso gutxi irauango dio. Bere bila dabilkion jendearen aurrean, ez da bere malko artean gorde eta ez da bere sentimenduen barnean itxi, tristuraz eta beldurrez. Jesus honi begiratzeak, guk geuk geure mina nola kudeatzen dugun galdetzera garamatza eta bizitzako sufrimenduak besteen sufrimendua ulertzeko gure erruki-gaitasuna noraino zabaltzen eta hedatzen duen galdetzera. Negar-malkoak oso emankorrak izan ditzakegu, bakardadean ez xukatzea erabakitzen badugu eta irekitasun eta zerbitzu-jarreraz bizitzea aukeratzen.

* Santa Kandida Maria Jesusena (Andoain 1845 – Salamanca 1912), *birjina, fundatzailea (Jesusen Alabak)*

Zenbakiak liburutik 12, 1-13: Moises ez da gainerako profetak bezalakoak: nolaz ausartu zarete haren kontra gaizki esatera?
Sal 50: Erruki, Jauna, bekatu egin dugu eta.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14, 22-36.

Jendea ase ondoren, ontzian sarrarazi zituen Jesusek bere ikasleak eta bere aurretik bestaldera joateko agindu zien, berak jendeari agur egin bitartean. Jendea bidali eta gero, mendira igo zen Jesus bera bakarrik, otoitz egitera. Ilundu zuenean, han zegoen bakarrik. Txalupa, ordurako, lehorretik urruti zihoan, olatuek astindua, haizea kontra baitzuen. Goizaldera, Jesus haiengana joan zen, ur gainean oinez. Ikasleak, ur gainean ibiltzen ikusi zutenean, ikaratu egin ziren, mamuren bat zelakoan, eta beldurraren beldurrez deiadarka hasi ziren. Baina Jesus berehala mintzatu zitzaien: «Izan bihotz! Ni naiz; ez beldur izan!». Orduan Pedrok esan zion: «Jauna, benetan Zu bazara, agindu iezadazu ur gainean zuregana joateko». Jesusek erantzun: «Zatoz!». Pedro ontzitik jaitsi eta Jesusengana abiatu zen, ur gainean oinez. Baina, haizearen indarra nabaritzean, beldurra sartu zitzaion eta, urperatzen hasi zelarik, deiadar egin zuen: «Jauna, salba nazazu!». Berehala Jesusek eskua eman eta heldu zion, esanez: «Sinesmen txikiko hori! Zergatik izan duzu zalantza?». Ontzira igo zirenean, haizea gelditu egin zen. Eta ontzian zeudenak Jesusen aurrean ahuspez jarri ziren, esanez: «Egiaz Jainkoaren Semea zara Zu!». Itsasoa igaro ondoren, Genesareten iritsi ziren lehorrera. Bertakoek, Jesus ezagutu zutenean, inguruko lurralde guztian zabaldu zuten berria, eta gaixo guztiak eraman zizkioten. Soineko-ertza bederen ukitzen uzteko eskatzen zioten, eta ukitzen zuten guztiak sendaturik gelditzen ziren.

Urteko 18. astea

Domingo santua, Guzmangoa, apaiza, fundatzailea
(domingotarrak). Trebiñu Konderrian jaia

Ur gainean ibiltzea ezinezko ariketa da gizakiontzat, eta zentzurik ere ez du. Beraz, Jesus ur gainean oinez ibiltzearen ikuskizunak ikur gisako esanahia du. Ekaitzaren erdian, Jesusek ez ditu bakarrik utzi bere adiskideak, etengabe dabil haien bila eta han doa haiengana nola edo hala, izan dezakeen irudimen guztiarekin; horrek, ekaitzak astindutako laku baten gainazalean oinez ibiltzea bezain gauza sinestgaitzaren esanahia hartu arren. Gaurik ilunenak estaltzen gaituenean ere, Jainkoa beti gure bila dabilela eta guregana datorrela sinestera iritsiko bagina, gure bizitza zeharo aldatuko litzateke. Geure ekaitzen artean, eska dezagun Jesusen hitza entzuteko grazia: «Aupa, ni naiz, ez izan beldurrik!».

* * *

Guzmango Domingo santua

Caleruegan, Burgostik hurbil, jaio zen Domingo 1170ean. Kalonje izan zen; 24 urteko zela, Erromara lagundu zion bere apezpiku Diego de Azevedo-ri. Frantzia hegoaldean, heresiek nolako kalteak ari zituzten ikusirik, misioa antolatu zuen Okzitaniako Tolosa inguruan; San Agustinen erregela harturik, gizaseme-talde bat bildu zuen, predikatzeke, 1215ean. Haiak izan ziren fraide predikarien ordenako lehenbiziko kideak. Bost urtez Frantzian, Espainian eta Italian barna gelditu gabe ibili zen predikatzen. 1221ean hil zen, lanak eta penitentziak akiturik, berrogeita hamaika urte zituela.

Gazterik atxiki zitzaion pobretasunari; bere oharrez beteak zituen liburuak ere saldu zituen. Languedoc-en ere pobre ekin zion misiozintzari, eta eskandalagarri zerizkion zistertarren predikatzeke moduari: «Ikus nola dabilzan zaldiz». Bera oinez ibili ohi zen. Benetan predikari eta jainkozale bero eta kartsua izan zen.

Oseasen Profezia liburutik 2, 16b.17b.21-22.

Honela mintzo da Jauna: «Basamortura eramango dut Nik neure herria eta bihotzera hitz egingo diot. Han bere gaztaroan bezala erantzungo dit, Egiptotik igo zenean bezala. Neure emazte egingo zaitut betiko; neure emazte egingo justiziaz eta zuzenbidez, maitasunez eta errukiz. Leialtasunez egingo zaitut neure emazte, eta zuk ezagutuko duzu Jauna».

Sal 44: Badator senargaia; irten zakizkiote bidera.**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25, 1-13.**

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin, beren kriseiluak eskuetan hartu eta senargaiari bidera irten zitzaizkion hamar neskatxekin bezala gertatzen da. Neskatxetako bost zentzugabeak ziren eta bost zentzudunak. Kriseiluak hartzean, zentzugabeek ez zuten oliorik hartu; zentzudunek, ordea, kriseiluekin batera olioia ere hartu zuten ontzietan. Senargaiak luzatzen zuenez, logaletu egin ziren denak eta loak hartu zituen. Gauerdian oihu bat entzun zen: “Badator senargaia; irten zakizkiote bidera!” Jaiki ziren neskatxa guztiak, eta beren kriseiluak prestatu zituzten. Orduan, zentzugabeek esan zieten zentzudunei: “Emaguzue olio-pixka bat, kriseiluak itzaltzen ari zaizkigu eta”. Zentzudunek erantzun zieten: “Ea ez dugun nahikoa geuretzat eta zuentzat; hobe duzue, badaezpada, dendara joan eta erosi”. Baina, eroatera joanak zirelarik, senargaia iritsi zen, eta prest zirenak ezteietara sartu ziren harekin. Eta atea itxi zuten. Iritsi ziren, azkenik, beste neskatxak ere eta dei egin zuten: “Jauna, Jauna, ireki!” Baina hark erantzun zien: “Benetan diotsuet, ez dakit nor zareten”. Egon, beraz, erne, ez baitakizue, ez eguna, ez ordua».

Urteko 18. astea

Gurutzeko Santa Teresa Benedikta (Edith Stein),
erlijiosa eta martiria, Europaren Zaindaria

Litekeena da parabola hau guri gaizki iruditzea, hala aitortzen ausartu ez arren. Ez al dira bada berekoi samar neskatxa zentzudunak? Ez ote dute sinesten agian besteak baino gehiago direla, eta isilean, jaiaz berek soilik gozatzea pentsatzen? Jesusek, garen eta dugun guztia besteekin partekatu beharraz hainbeste aldiz hitz egin digunak, beste behin gomendatu digu kasu honetan geure erantzukizun pertsonala zaintzeko. Ezin itxaron du beste inork gure ordezt, ez eta sinetsi eta maitatu ere gure ordezt. Jaunari jarraitu nahi baldin badiogu eta munduko gau ilunean beraren oinatzak aurkitu, kontu eta arreta handiz zaindu behar dugu fedearen olio; izan ere, —nahi balu ere— inork ezin beteko luke gure tokia Jesusek berarekin hastea proposatzen digun harreman pertsonalean.

Urteko 18. astea

San Lorenzo, *diakonoa eta martiria*

San Paulok 2 Korintoarrei 9, 6-10: Alai ematen duena maite du Jainkoak. Sal 111: Pertsona onak errukitu eta eman egiten du.

Jesu Kristoren ebanjelioa San Joanen liburutik 12, 24-26.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Egi-egiaz diotsuet: Gari-alea, lurrean erori eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; baina, hiltzen bada, fruitu asko ematen du. Bere bizia maite duenak galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxiesten duenak betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai biezat eta, Ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena ohoratu egingo du Aitak».

Nolatan gorrota dezakegu Jainkoak hainbeste maite duen mundu hau? Eta mundua gorrotatu ezin badugu, nolatan gaitzets dezakegu Jainkoaren antzirudira sortutako geure burua? Agian, kontua ez da hainbeste geure bizitza arbuiazea, Erreinuaren arabera maitatzea baizik, eta horrek ukoa eta heriotza dakartza derrigorrez. Helburua ez da hiltzea, Jesusi jarraitzea baizik, Hura maitatzea eta zerbitzatzea; baina horrelako ezer ezin daiteke gerta, aldi berean daukagunari eta dakigunari itsuki eusten ahalegintzen baldin bagara. Jesusek, jarraitzearen egiarik sakonenaren adibidea eskaini du gari-ale txiki baten irudi xumearekin. Emankortasuna, paradoxa bada ere, ez da iristen garen gutxia gordetzen dugunean, baizik eta izatera irits gaitzkeen hartara iristeko –batzuetan era mingarrian bada ere– zabaltzen garenean.

Urteko 18. astea
Santa Klara, *birjina*

Deuteronomio liburutik 4, 32-40: Zure arbasoak maite izan zituen, eta haien jatorria aukeratu zuen. Sal 76: Oroitzen naiz Jainkoak eginez.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16, 24-28.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin diezai bere buruari, har beza bere gurutzea eta jarrai diezat. Izan ere, bere bizia gorde nahi duenak galdu egingo du; bere bizia nigatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du. Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen badu? Eta zer eman dezake gizakiak berriro bizia eskuratzeko? Izan ere, Gizonaren Semea bere Aitarekin aintzaz beterik etorriko da aingeruekin, eta orduan bakoitzari bere jokabidearen arabera ordainduko dio. Egia diotsuet: hemen direnetako batzuk ez dira hilko, Gizonaren Semea errege bezala etortzen ikusi arte».

Berriz ere, urradurak zeharkatutako itzaropen-hitzak entzunarazten dizkigu liturgiak. Agintzari edo promes bat marrazten da ortzi-mugan: Semearen maiestatea. Baina halako agintzarirantz garamatzen bidea, ukoz, galeraz eta gurutzeaz hornituta dago. Kristau-bizitzako paradoxa honek egundoko indar eraldatzailea du bere barnean eta gai da gu bezalako pertsona normalak santu handi bihurtzeko. «Zer balio dio gizakiari mundu osoa irabazteak, bere bizia galtzen badu?». Jaunaren hitzek eraginda, Xabierko Frantzisko Txinako ateetaraino iritsi baldin bazen, zerk eragotzi behar digu gure egungo munduan fedearen arriskua zentzuz eta alaitasunez bizitzea?

Urteko 18. astea

Santa Joana Frantziska Chantalekoa, *erlijiosa, fundatzailea*
Salesko Frantziskorekin batean (Ahitza Bisitarien Ordena)

Deuteronomioa liburutik 6, 4-13: Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez. Sal 17: Maite zaitut, Jauna, nire indar.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17, 14-20.

Aldi hartan, gizon bat hurbildu zitzaion Jesusi eta, belaunikaturik, esan zion: «Jauna, erruki zakizkio nire semeari; epilepsia ematen dion deabrua du eta gorriak ikusarazten dizkio. Maiz botatzen du sura eta urera. Ekarki diet zure ikasleei, baina ezin izan dute sendatu». Jesusek esan zien: «Hau gizaldi sinesgogorra eta makurra! Noiz arte egon behar ote dut zuekin? Noiz arte jasan behar ote zaituztet? Ekarki mutila hona». Jesusek gogor eraso zion deabruari eta atera egin zen mutilagandik; ordu hartatik sendatua gelditu zen. Ikasleek, Jesusengana hurbildurik, bakarrean galdetu zioten: «Eta guk, zergatik ezin izan dugu bota deabrua?». Jesusek erantzun zien: «Zuen sinesmena txikia delako. Egia diotsuet: sinesmena bazenute, mostaza-hazia bezain txikia izanik ere, mendiari “aldatu hemendik hara” esanez gero, aldatu egingo litzateke; ez litzateke zuentzat ezinezkorik izango».

Gertakari hau hunkigarria da. Ikasleei kostatu egiten zaie mirariak egiten ikastea, eta Jesus, benetako gizakia izaki, bere onetik irteteko zorian jartzen da: «Noiz arte jasan behar ote zaituztet?». Maisuak aspertuta dagoela dirudi bere lagunek era egokian bereganatzen ez duten ikasgaia behin eta berriz errepikatzeaz. «Federik gabeko jende makur» deitzen die: entzuteko oso gogorrek gertatzen diren bi izen ematen dizkie, hain zuzen ere. Baina litekeena da Jesusek hitz horiek era txeratsuan esan izana ere. «Makurrak» zentzu horretan ez du esan nahi «ankerrak edo doilorrak» direnik, «desbideratuak edo okerrak» direla baizik. Zergatik ezin dugu miraririk egin? Ez da ba izango, gure begirada lausotuak ez digula ikusten uzten Jainkoaren Erreinua, jada gure artean dagoena, eta horregatik ezin sinetsi dugula?

Urteko 19. astea

San Pontziano, 18. Aita Santua, eta San Hipolito, apaiza, martiria. Felipe Jesusena Munarriz (*Allo 1875–Barbastro 1936, klaretarra, dohatsua, eta lagunak, martiriak*)

Erregeak lehenengo liburutik 19, 9a. 11-13a.

Egun haietan, Elias Horebera, Jainkoaren mendira, etorri eta hango hartzulo batean gelditu zen. Jaunak esan zion: «Atera eta zaude zutik mendian, Jaunaren aurrean; Jauna igaroko da». Jaunaren aurretik haize zakar indartsuak jo zuen, mendiak urratzen eta harkaitzak zartatzen zituela; baina Jauna ez zegoen haizean. Haizearen ondoren, lurrikara izan zen; baina Jauna ez zegoen lurrikaran. Lurrikararen ondoren sua; baina Jauna ez zegoen suan. Suaren ondoren haize fin baten hotsa. Entzun zuenean, Eliasek aurpegia estali zuen soingainekoaz; gero, irten eta zutik gelditu zen hartzulo aurrean.

Sal 84: Jauna, zeure onginahia erakutsiezaguzu, zeure salbamena emaguzu.

San Paulok Erromatarrei 9, 1-5.

Senideok: Egia diot –Kristo dut lekuko–, ez diot gezurrik; neure kontzientziak ere, Espiritu Santuak argituta, hala aitortzen dit: handia da nire nahigabea, etengabea nire bihotzeko mina. Ni neu madarikatua, Kristogandik aldentua, izatea ere onartuko nuke, baldin eta hori nire odoleko senideen onerako izango balitz. Israelen ondorengoak dira eta Jainkoak seme-alabatzat hartu zituen; haiek dituzte Jainkoaren presentzia aintzatsua, itunak, legea, kultura eta agintzariak; haienak dira arbasoak eta, giza jatorriari dagokionez, haiengandik dator Kristo, gauza guztien gainetik dagoen Jainkoa. Bedeinkatua izan bedi mendeetan. Amen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 14, 22-33.

Jendea ase ondoren, ontzian sarrarazi zituen Jesus bere ikasleak eta bere aurretik bestaldera joateko agindu zien, berak jendeari agur egin bitartean. Jendea bidali eta gero, mendira igo zen Jesus bera bakarrik, otoitz egitera. Ilundu zuenean, han zegoen bakarrik.

San Pontziano, 18. Aita Santua, eta San Hipolito, apaiza, martiria. Felipe Jesusena Munarriz (*Allo 1875–Barbastro 1936, klaretarra, dohatsua, eta lagunak, martiriak*)

Txalupa, ordurako, lehorretik urruti zihuan, olatuek astindua, haizea kontra baitzuen. Goizaldera, Jesus haiengana joan zen ur gainean oinez. Ikasleak, ur gainean ibiltzen ikusi zutenean, ikaratu egin ziren, mamuren bat zelakoan, eta beldurraren beldurrez deiadarka hasi ziren. Baina Jesus berehala mintzatu zitzairen: «Izan bihotz! Ni naiz; ez beldur izan!». Orduan Pedrok esan zion: «Jauna, benetan Zu bazara, agindu iezadazu ur gainean zuregana joateko». Jesusek erantzun: «Zatoz!». Pedro ontzitik jaitsi eta Jesusengana abiatu zen ur gainean oinez. Baina, haizearen indarra nabaritzean, beldurra sartu zitzaion eta, urperatzen hasi zelarik, deiadar egin zuen: «Jauna, salba nazazu!». Berehala Jesusek eskua eman eta heldu zion, esanez: «Sinesmen txikiko hori! Zergatik izan duzu zalantza?». Ontzira igo zirenean, haizea gelditu egin zen. Eta ontzian zeudenak Jesusen aurrean ahuspez jarri ziren, esanez: «Egiaz Jainkoaren Semea zara Zu!».

Jauna beti datorkigu, huts egiten ez duen etengabeko abendu batean. Ezerk ezin du gerarazi berak gu aurkitzeko duen gogo beroa, ez gauak, ez ekaitzak, ez eta fede-gabeziak ere. Badira uneak geure beldurren kobazuloan sartzen garenak eta mamuak besterik ikusten ez ditugunak: errealitatea izan litekeena baino askoz ere zailagoa iruditzen zaigu berari aurre egiteko, baina ez litzateke hala izango sosegu apur batekin ikusiko bagenu eta, batez ere, Jesusen eskutik ibilita ikusiko bagenu. Baina beste batzuetan, ekaitzak oso gogor jotzen du zeharkaldia egiteko darabilkigun Elizaren eta munduaren txalupa. Gaur egun ez zaizkigu falta desengainu handiak sortzen dizkiguten eskandaluak, kikilduta uzten gaituzten hondamendiak, beren aurrean txikiegi eta indargabe sentitzen garen zuzengabekeriak. Eta hori, gure adiskidetasun eta harremanetan ohikotasunez lehertzen diren ekaitzak aipatu gabe. Hain zuzen ere, hortxe, onaldiaren barnean saiatzen da Jainkoa gure bila, nahiz eta inoiz pentsatuko ez genukeen moduan agertzen zaigun eta berari antzematea asko kostatzen zaigun. Zein hizkera berririen bidez saiatzen da Jauna gu beldurretik ateratzen, orainaldiari kementsu aurre egiteko? «Zatoz!». Ekaitzaren barnean oihartzuna eragiten duen deiak, konfiantzarik baldin badugu, gu zutik jarrarazteko indarra du.

Urteko 19. astea

San Maximiliano Maria Kolbe, *apaiza eta martiria, kaputxinoa*

Deuteronomio liburutik 10, 12-22: Erdaindu zeuen bihotza. Maita arrotza, zuek ere arrotzak izan zineten eta. **Sal 147:** Jerusalem, ospa ezazu Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17, 22-27.

Aldi hartan, Galilean zehar zebiltzala, esan zien Jesusek ikasleei: «Gizonaren Semea gizakien eskuetara emango dute; hil egingo dute, baina hirugarren egunean piztu egingo da». Ikasleak oso nahigabeturik gelditu ziren. Kafarnaumera iritsi zirenean, tenplurako zerga biltzen zutenek Pedrorengana joan eta esan zioten: «Zuen Maisuak ez al du tenplurako zerga ordaintzen?». «Bai», erantzun zien. Pedro etxeratu zenean, Jesusek aurrea hartu zion, esanez: «Zer deritzozu, Simon? Munduko erregeek zeinengandik hartzen dituzte zergak edo kontribuzioak, etxeoengandik ala arrotzengandik?». Pedrok erantzun zion: «Arrotzengandik». Jesusek, orduan: «Etxekoak libre daude, beraz. Halaz guztiz ere, inori zeresanik ez emateko, zoaz itsasora, bota amua eta hartu lehenengo aterako duzun arraina; ireki iezaiozu ahoa, eta biren zerga ordaintzeko dirua aurkituko duzu. Hartu eta ordaindu zeure eta bioi dagokiguna».

Pasarte honek, ulertzeko zaila bada ere, frogaturik uzten du Jesus bere garaiko gizarteko eta politikako koordinatuetan benetan sartuta ibili zela. Hain zuzen ere, I. mendeko Palestinan, juduak zerga-karga handiaren mende zeuden, eta hori ere jasan zuen Jesusek. Alde batetik, Erromari zergak ordaindu behar zizkioten, eta horiek publikanoek kobratzen zituzten, baina, gainera, tenpluko jaiei eta ospakizunei ere eutsi behar izaten zieten, pasarte honetan ageri den tributuaren bitartez. Ebanjelioa garai bakoitzean gauzatzen da eta garai guztietako zeinuen bidez adierazten da. Guri dagokigu, gauden lekuan, gaudela, fedea eta kultura, fedea eta zuzentasuna, elkarrizketan jartzea; hartara, Jainkoaren Erreinua lekua irabazten joango da gizateriaren bihotzean.

Apokalipsi liburutik 11, 19a; 12, 1.3-6a.10ab.

Ireki zen Jainkoaren santutegia zeruan eta haren itun-kutxa agertu zen santutegian. Seinale handia agertu zen zeruan: emakume bat eguzkiz jantzia, ilargia oinazpian eta hamabi izarreko koroa buruan. Haurdun zegoen eta, erdiminez eta haurgintzako oinazez, garrasika ari zen. Beste seinale bat ere agertu zen zeruan: herensuge gorri handi bat, zazpi buru eta hamar adar zituena, eta buruetan koroa bana. Bere isatsez zeruko izarren herena arrastaka hartu eta lurrera jaurti zuen. Herensugea, haurra izateko zegoen emakumearen aurrean gelditu zen, jaio orduko semea irensteko. Emakumeak semea izan zuen, herri guztiak burdinazko makilaz gobernatuko dituen; hartu zuten semea eta Jainkoaren tronuraino eraman zuten. Emakumeak, berriz, basamortura egin zuen ihes; han leku bat prestatua zion Jainkoak. Orduan, ahots handia entzun nuen zeruan esaten: «Orain etorri dira gure Jainkoaren salbamena, indarra eta erregetza, eta beraren Mesiasen agintea».

Sal 44: Zure eskuinean dago erregina, urre finez apaindua.

Paulok I Korintoarrei 15, 20-27a.

Senideok: Piztu da Kristo hilen artetik, heriotzatik piztuko direnetan lehen-fruitu. Izan ere, heriotza gizon baten bidez etorri zen bezala, gizon baten bidez etorri da hildakoen piztuera ere. Eta Adamekin duten elkartasunagatik gizaki guztiak hiltzen diren bezala, Kristorekin duten elkartasunagatik guztiak itzuliko dira bizira. Baina bakoitza bere garaian: lehenengo Kristo, lehen-fruitua denez; gero, Kristorenak, hau berriro etortzean. Gero, azkena izango da, Kristok, Jainkoaren kontrako nagusitza, aginte eta indar guztiak ezereztu ondoren, Jainko Aitari erreinua emango dionean. Kristok errege izan behar baitu, Jainkoak etsai guztiak haren oinazpian ipini arte. Azkena ezereztuko den etsaia heriotza izango da. Izan ere, «gauza guztiak haren menpean jarri ditu Jainkoak».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburitik 1, 39-56.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion. Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!». Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barrua, Jainkoa baita nire salbamena, ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna. Horregatik, dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, handiak egin baitizkit Ahalguztidunak; santua da haren izena, eta haren errukia gizaldiz gizaldi begirune diotenengana. Bere besoaren indarra erabili du, buru-harroak suntsitu ditu; bota ditu beren aulkietatik ahaltsuak, eta gora jaso ditu ezerezak; ondasunez bete ditu gose zeudenak eta esku-hutsik bidali aberatsak. Lagun etorri zaio bere morroi Israeli, bere errukiaz oroiturik; hala zien gure gurasoei hitzeman, Abrahami eta ondorengoei betiko esana». Mariak hiru hilabete inguru egin zuen Elisabetekin; gero, etxera itzuli zen.

Elizaren ikonografiak egundoko arreta jarri izan du Apokalipsiko 12. kapituluari; horren ondorioz, kristau-herria, Nazareteko emakumeagandik oso urrun dagoen Mariaren irudia eraikitzen joan da. Gure elizetan eta kaperetan, etengabe topatzen dugu Mariaren irudia goi-goian jarrita, sugea zapalduz, izarrez koroatua eta ilargia bere oinpean duela. Funtsean, irudi hori, oso urrun dago ebanjelioek aipatzen diguten haragi eta hezurrezko emakumeagandik: aingeruaren iragarpena jaso zuenagandik eta Joserekin bidea egin zuenagandik, Jainkoaren handitasuna abestu, pobrezian erditu, bere

Semeari heriotzaraino lagundu eta lehenengo kristau-elkarteen ama bihurtu zenagandik. Baina hala eta guztiz ere, gaur ospatzen dugun Zeruratzearen festaburu handi honek emakume hori goraiatu nahi du; ez, ordea, iritsi ezina den idulki batean jartzeko, baizik eta Eliza erromesaren lehen irudi moduan aurkezteko. Andre Maria zeruratuak, Magnificat-en poztasun neurrigabearekin, Jainkoak gure txikitasunean arreta jartzen duela eta gure buztin honen inguruan lan handiak egiten dituela adierazten digu. Are gehiago, zeruratze honetan gure gizatasuna xumeen Jainkoak behin betiko besarkatua izango dela sumatzen dugu.

* * *

Andre Mariaren lau ezaugarri

Paulo VI.ak oinarritzko lau fede-ezaugarri ikusten ditu Mariagan:

- entzulea: fedez onartzen du Jainkoaren hitza; hitza bete egiten du; lehenik entzun eta gero aldarrikatu egiten du;
- ama: hitza onartu ondoren, sortu egiten du bizitza berrirako;
- otoitz egilea: Jainkoa goresten du: Magnificat: mirespena, poz-oihua; Kanan: eskatu; apostoluek otoitzean dihardute Mariarekin batera;
- birjina: Espiritu Santuaz beterik dihardu: birjintasuna = bere burua erabat eta osorik ematen du, Goi-goikoaren zerbitzura jartzen du bere burua.

Urteko 19. astea

San Esteban Hungariakoa, *erregea*San Roke, *martira*

Deuteronomioa liburutik 34, 1-12: Han hil zen Moises, Jaunak esan bezala. Ordudanik, ez da sortu Israelen Moises bezalako profetarik.

Sal 65: Bedeinkatua Jainkoa, bizirik baitigu eutsi.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 15-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zure senideak bekatu egiten badu zure aurka, zoaz beragana eta zentzarazi bakarrean. Jaramon egiten badizu, irabazia duzu senidea. Jaramonik egiten ez badizu, berriz, har itzazu zeurekin lagun bat edo bi, auzia bi edo hiru lekukoren aitopenaz erabaki behar da eta. Hauei ere jaramonik egiten ez badie, esaiozu elkarteari, eta elkarteari ere jaramonik egin nahi ez badio, izan bedi zuretzat jentil edo zergalari baten pareko. Benetan diotsuet: zuek mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuek mundu honetan askatua, zeruan ere askatua. Beste hau ere badiotsuet: zuetako bik elkar hartzen badute mundu honetan Jainkoari zerbait eskatzeko, emango die zeruko nire Aitak. Izan ere, nire izenean bizpahiru lagun bilduak dauden tokian, han naiz Ni haien artean».

Atsotitz zaharrak dio, bi begik baino gehiago ikusten dute lauk. Epai lasterrak emateko dugun joera itsuaren aurrean, Jesusek elkartearen esku hartzea gomendatzen die ikasleei. Zenbat zorigaizto eta zenbat gehiegikeria ez ote liratekeen ekidingo, boterearen erabilpen berekoiak egin eta isiltasun gaizkideak dauden lekuan, senideen begiradak eta hitzak tokia aurkituko balu. «Lotzeko eta askatzeko» boterea ez zaie ematen zapaltzaile moduan erabil dezaketen pertsona isolatuei: bestela baizik, botere hori senide-maitasunetik eta otoitzetik abiatuta gauzak bereizten dakien elkartearen ondarea da.

Josue liburutik 3, 7-10a.11.13-17: Jaunaren itun-kutxa zuen aurretik igaroko da Jordan ibaian zehar. Sal 113: Aleluia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 21-19, 1.

Aldi hartan, hurbildu zitzaion Pedro Jesusi eta galdetu zion: «Jauna, nire senideak bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?». Jesusek erantzun zion: «Zazpi aldiz ez, baizik eta zazpitan zazpi mila aldiz. Hain zuzen, bere morroiekin kontuak garbitu nahi izan zituen erregearekin bezala gertatzen da zeruetako erreinuarekin. Kontuak garbitzen hastean, dirutza izugarria zor zion bat ekarri zioten. Eta nondik ordaindurik ez baitzuen, bera eta emaztea, seme-alabak eta zituen guztiak saltzeko agindu zuen nagusiak, zorra ordaintzeko. Morroiak, orduan, nagusiaren oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadazu astia eta dena ordainduko dizut”. Nagusiak, errukiturik, dena barkatu eta libre utzi zuen morroia. Baina morroi hark berak, atera orduko, diru apur bat zor zion bere morroi-lagunarekin topo egin zuen, eta, lepotik heldu eta ito beharrean, esan zion: “Ordain iezadak zor didaana”. Lagunak, oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadak astia eta dena ordainduko diat”. Baina besteak ezetz, eta joan eta kartzelan sartu zuen, zorra ordaindu arte. Beste morroiak, gertatua ikusirik, biziro atsekabetu ziren, eta nagusiagana joan eta gertatuaren berri eman zioten. Orduan, nagusiak morroiari deitu eta esan zion: “Morroi gaizto hori! Horrenbesteko zorra barkatu diat nik, eskatu didaialako; ez al zen bidezkoa hi ere heure morroi-lagunaz errukitzea, ni hitaz errukitu nintzen bezala?”. Eta nagusiak, haserre bizian, borreroen esku utzi zuen, zor guztia ordaindu arte. Zuei ere gauza bera egingo dizue zeruko nire Aitak, senideok elkarri bihotzez barkatzen ez badiozue». Hitzaldi hau bukatu zuenean, Galileatik alde egin eta Judeako mugetan sartu zen Jesus, Jordanez bestaldera igaroz.

Urteko 19. astea

Santa Beatriz Silvakoa, *fundatzailea**(Kontzepzionista Frantziskotarrak)*San Eusebio, *aita santua*

Batzuetan, dena zor zaigun ustean bizi ohi gara eta gainerakoak estutzera jo ohi dugu beren zorrak zehatz ordain diezazkiguten. Ahaztu ez dugun mesederen bat dela. Ordainik izan ez duen maitasunen bat dela. Hartzekodun-kontzientziak espiritu latz eta estuko pertsona bihurtzen gaitu, eta gugana hurbiltzeko edo guri zerbait eskatzeko gogorik nekez sortzen dugu besteengan. Hori, zordun-kontzientziarekin bizitzearen alderantzizkoa da. Merezi gabe egunero jasotzen duguna aitortzen dugunean, gure izatea leun-leun argitua gertatzen da eranskorra den eskerrarekin. Orduan jada ez da gogo handirik gelditzen erreklamatzeko eta kontuak ateratzeko, energia edo indarra, harrera onera eta ongintzara bideratzen baita.

Josue liburutik 24, 1-13: Eufrates ibaiaren bestaldetik hartu nuen Abraham, zuen aita; zuek Egiptotik atera zintuztedan eta lurralde bat eman nizuen. **Sal 135:** Eskerrak Jaunari, ona baita: Haren maitasuna betikoa baita.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19, 3-12.

Aldi hartan, fariseu batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi eta, zertan harrapatuko, galdetu zioten: «Zilegi al zaio gizonari bere emaztea edozein arrazoiengatik uztea?». Hark erantzun zien: «Ez al duzue irakurri Liburu Santuak dioena? Hasieratik Egileak gizaseme eta emakume egin zituela, alegia, eta esan zuela: “Horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu eta bere emaztearekin elkartuko da, eta biak bat izango dira”. Beraz, aurrerantzean ez dira bi, bat baizik. Horrela, bada, Jainkoak bat egin duena ez beza gizakiak banatu». Haiek galdetu zioten: «Zergatik eman zuen, bada, Moisesek dibortzio-agiria idatzi eta emaztea uzteko baimena?». Jesusek erantzun zien: «Zeuen burugogorkeriagatik eman zizuen Moisesek emaztea uzteko baimena; baina hasieran ez zen horrela. Hau diotsuet: bere emaztea utzi –legearen kontra elkartuak ez badira behintzat– eta beste batekin ezkontzen denak, adulterioa egiten du». Ikasleek esan zioten orduan: «Baldin horrelakoa bada senar-emazteen arteko lotura, ez du merezi ezkontzea». Jesusek erantzun zien: «Ez dira denak hori onartzeko gai, Jainkoak gai egiten dituenak baizik. Batzuk ez dira ezkontzen, jaiotzaz ezin dutelako; beste batzuk giza eskuz ezinduak izan direlako; beste batzuk, berriz, zeruetako erreinuagatik hala erabaki dutelako. Onar dezakeenak onar beza».

Urteko 19. astea

San Agapito, *martiria*Santa Juliana, *martiria*San Alberto Hurtado Cruchaga, *apaiza, jesuita*

Pasarte hau arreta handiz irakurtzen baldin badugu, aurkituko dugu –eta horrek ia-ia arindu egingo gaitu– Jesusek ezarritako ezkontzaren debekuak, emakumezkoak gizonezkoen bidegabekieretatik babestea zuela helburu. Hain zuzen ere, garai hartan dibortzioa baimenduta zegoen, baina gizonezkoek soilik eska zezaketen, eta, gainera, «edozein arrazoiengatik» eskatu ere. Jesusek galga jarri dio gehiegikeria horri berari galdetzen diotenak kreazioko proiektura bidaliz: «Hasieran ez zen horrela izan». Nola izan zen hasieran? «Gizon eta emakume egin zituen» (Has 1, 27), ugalkortasunera bideratutako askatasunarekin. Harremanek bizi-iturri izateari uzten diotenean, eta ez edozein arrazoiengatik, ez eta alde bakarreko erabakiengatik, zapalkuntza berriak eragiten dituen letra kodetua baino gehiago, Jesusen asmoa edo iritzia entzun behar da berriro.

* * *

San Alberto Hurtado Cruchaga

Viña del Mar-en, Txilen, jaio zen, 1901eko urtarrilaren 22an. Jesusen Lagundian 1923ko abuztuaren 14an sartu zen, Chillan-en, eta apaiz 1933ko abuztuaren 24an ordenatu zuten. Irakasle bezala egin zuen lan, eta behartsu eta umei laguntzen saiatu zen. Gogartetxe bat eraiki zuen; 1947an Txileko sindikatu-elkartea fundatu zuen, eta 1951n «Mensaje» aldizkaria argitaratzen hasi zen. Bere apaiz, apostolu, heziketa, erruki eta gizarte-obrak egiteko gogoia Kristo eta behartsuak maitatzetik sortu zitzaion. 1952an hil zen, eta 1994an Erromako Gotzain Joan Paulo II.ak dohatsu aitortu zuen, eta Benedikto XVI.ak santu deklaratu 2005eko urriaren 23an.

Josue liburutik 24, 14-29: Aukera ezazue gaur zein zerbitzatu. **Sal 15:**
Zu zaitut, Jauna, ondasuna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19, 13-15.

Aldi hartan, haurrak eraman zizkioten Jesusi, haien gainean eskuak ezarri eta otoitz egin zezan; ikasleek, ordea, haserre egiten zieten. Jesussek esan zien: «Utzi haurrei nigana etortzen, ez galarazi, horrelakoena baita zerueta erreinua». Eta, haurrei eskuak gainean ezarri ondoren, joan egin zen handik.

Jesusen garaiko kulturaren, umeak ez ziren gaur ezagutzen ditugun eskubide guztiak dituzten izaki bikain. Umeak, heldutasun faltak uzten ez zielako, Legea betetzeko gaitasunik ez zutenez, Legea betetzeko gai ez ziren pertsonen multzo handi eta zabaleko partaide ziren; beraz, ez zuten baliorik. Behartsuek edo bekatariek bezalaxe, umeek ere ez zuten eskubiderik maisuen jarduera eteteko eta, are gutxiago, beren presentziarekin traba egiteko. Egun batez, pertsona bihurri eta izengabe bat ume batzuk Jesusi hurbiltzera ausartu zen. Pertsona horri esker dakigu Erreinua txikiei dagokiela, «umeak bezalakoak direnei», besteren mendeko izatea konfiantzaz bizi dutenei eta direna baino gehiagoren itxura ematen saiatzen ez direnei. Agian bide asko gelditzen zaigu oraindik egiteko, inoiz ere abandonatu ez gaituen geure barneko umearekin benetan harremanak egitera iristeko.

Urteko 20. astea

San Bernardo, *abadea eta eliz irakaslea*
San Samuel, *Israelen epailea eta profeta*

Isaias Profetaren liburutik 56, 1. 6-7.

Honela mintzo da Jauna: «Gorde zuzenbidea, egin justizia, iristear baitago nire salbamena, agertzeaz nire garaipena. Jaunaren kulturberbitzurako, haren izena maitatzeko eta haren morroi izateko atxikiko zaizkion atzerritarak, larunbata profanatu gabe gordetzen dutenak eta nire itunean leial irauten duten guztiak neure mendi santura ekarriko ditut, eta pozez beteko neure otoitz-etxean; onartuko ditut neure aldare gainean haien erre-opariak eta sakrifizioak; nire etxea otoitz-etxe baita, eta hala deituko dute herri guztiek».

Sal 66: Ene Jainko, aipa zaitzatela herriek, aipa zaitzatela herri guztiek.

San Paulok Erromatarrei 11, 13-15. 29-32.

Senideok: Zuei, jentiloi, diotsuet: «Jentilen apostolu naizenez, ospetsu egin nahi dut neure zerbitzu hau, ea neure jatorrikoen inbidia pizten dudan eta horietako batzuen batzuk salbatzen ditudan. Israeldarrak bazterretetik Jainkoarekin baketzea etorri baldin bazaio munduari, zer ote datorke Jainkoak haiek berriro onartzetik? Heriotzatik bizira itzultzea izango litzateke hori! Behin betikoak dira Jainkoaren dohainak eta deia. Zuek, garai batean Jainkoarekin gorbizi zinetenok, orain, israeldarrak gorbizi izateari esker, errukia lortu duzue. Era berean haiek ere: orain gorbizi bihurtu dira, zuei egin zaizuen errukiari esker errukia lor dezaten. Jainkoak gorbizi izaten utzi baitzuen gizon-emakume guztiei, denez erruki izateko».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 15, 21-28.

Aldi hartan, Tiroko eta Sidongo lurraldera aldendu zen Jesus. Hartan, inguru haietan bizi zen emakume kanaandar bat deiadarka hasi zitzaion: «Jauna, Daviden Semea, erruki zakizkit! Oinaze gorritan dauka deabruak nire alaba». Baina Jesusek ez zion hitzik erantzun. Ikasleak,

hurbildurik, erreguka ari zitzaizkion: «Egiozu kasu, eta doala, deiadarka baitatorkigu atzetik». Jesusek, ordea: «Israel herriko ardi galduengana bakarrik bidali nau Jainkoak». Baina emakumea, hurbildurik, ahuspez jarri zitzaion, esanez: «Lagun iezadazu, Jauna!». Jesusek, orduan: «Ez dago ondo seme-alabei ogia kendu eta txakurrei botatzea». Emakumeak erantzun zion: «Bai, Jauna, halaxe da; baina txakurrek ere jan ohi dituzte nagusien mahaitik erortzen diren ogi-apurrak». Orduan, Jesusek esan zion: «Emakumea, handia da zure fedea! Gerta bekizu nahi duzun hori». Eta une hartatik sendatua gelditu zitzaion alaba.

Polita da ikustea, Jesusek berak ere nola uzten dien bere burua ebanjelizatzen, bidean topatzen dituen pertsoneri. Bere ibilbidearen une honetarako iritsita, bera ere jabetu da, alegia, bere mezua ezin dela mugatu Israelgo herriaren muga estuen barrura. Irudi honek talka egiten du gure iritziarekin: Jesus orojakilea dela uste izatearekin; gainera. Jainkoak haragia hartu izanaren arloa gogorazten digu – gure fedearen funtsezko printzipio den arloa–, giza pertsona ororen hazkuntza eta bilakaera; beraz, baita Jesusena ere, benetako gizon dela, alegia. Kasu honetan, atzeritar emakume bat da bere misioaren esanahia askoz sakonago ulertzen lagundu diona. Kanatar emakumea ez da kikiltzen Jesusen hasierako hoztasunagatik, hura gelditu ere ez baitzaio egin entzuteko. Ikasleak dira bitartekaritza egiten dutenak eta, ziur aski, ez emakumeaz zerbait arduratzen direlako, sortzen ari den eskandaluagatik baizik. Zer daki atzeritarra eta jentila den emakume horrek Jesusez? Zergatik dihardu behin eta berriz, azkenerako korrika ere eginez, bera harrapatzeko eta hitz egiteko ahaleginean? Poztu gaitezen gure erakundeen mugetatik kanpo hainbeste “jentil” egoteaz, sarritan gurea baino handiagoa den fedea biziz.

Urteko 20. astea

San Pio X.a, 257. aita santua

San Bonoso eta San Masimiano, *martiriak*

Epaileak liburutik 2, 11-19: Jaunak buruzagiak sorrarazi zituen, baina israeldarrek ez zieten kasurik egin buruzagiei ere. **Sal 105:** Oroitu gutaz, Jauna, zeure herriaganako onginihiagatik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19, 16-22.

Aldi hartan, gazte batek Jesusengana hurbildu eta esan zion: «Maisu, zer onik egin behar dut betiko bizia eskuratzeko?». Jesusek erantzun zion: «Zergatik galdetzen didazu onari buruz? Jainkoa bakarrik da ona. Betiko bizian sartu nahi baduzu, bete aginduak». Hark, berriz: «Zein agindu?». Eta Jesusek: «Ez hil inor, ez egin adulteriorik, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, hartu aintzat aita-amak, eta maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala». Gazteak, orduan: «Hori guztia bete dut; zer falta dut oraindik?». Jesusek erantzun zion: «Guztiz ona izan nahi baduzu, zoaz, saldu zeure ondasunak eta eman behartsuei, eta altxorra izango duzu zeruan; gero, zatoz eta jarraitu niri». Hitz hauek entzutean, nahigabeturik joan zen gaztea, ondasun handien jabe baitzen.

Gizon honek bidezidor bat aukeratu du: betiraundera igaro nahi du bizitza honetatik igaro gabe. Jesus ezagutu ondoren, benetako egiazko bizitza berari jarraitzean datza, begiak berarengan jarrita bizi izatean. “Zerura” bide askotatik irits daiteke noski; batez ere, aginduak buruz baldin badakizkigu eta ondo betetzen. Baina Jesusek batez ere agertzen digu, gure izateak benetan ederra duena ez dela aginduen barruan sartuta gelditzea, baizik eta berarekin dugun harreman sakonean datzala: «Zatoz nirekin». Gizaki hark, artean gaztea gainera, galera baizik ez du ikusten Jesusek biziaren osotasuna oparitu nahi dion hartan. Berriro ere ikuspegi kontua da aukera egitekoan erabilitakoa.

Andre Mariaren MEZA: Isaias 9, 2-4.6-7. Sal 112, 1-2.3-4.5-6.7-8.
Jesu Kristoren Ebanjelioa Lukasen liburutik 1, 26-38.

Epaileak liburutik 6, 11-24a: Gedeon, aska ezazu Israel. Nik bidaltzen zaitut! Sal 84: Jaunak bakea agintzen dio bere herriari.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 19, 23-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Benetan diotsuet: aberatsa nekez sartuko da zeruetako erreinuan. Berriro diotsuet: jostorrazaren begitik gamelua igarotzea errazago, aberatsa Jainkoaren erreinuan sartzea baino». Hitzok entzutean, ikasleek, zeharo harriturik, honela zioten: «Nor salba daiteke, orduan?». Jesusek begira-begira jarri eta esan zien: «Gizakiarentzat ezinezkoa da hori, baina Jainkoak dena dezake». Orduan, Pedrok esan zion: «Hara, guk dena utzi dugu, Zuri jarraitzeko. Zer izango da guretzat?». Jesusek erantzun zien: «Benetan diotsuet: Jainkoak mundu hau eraberritzean eta Gizonaren Semea bere aintzazko tronuan esertzean, zuek ere, nire jarraitzaileok, hamabi tronutan eseriko zarete, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko. Eta nigatik etxea, senideak, aita, ama, seme-alabak edota lurak uzten dituenak, ehun halako hartuko du eta betiko bizia jasoko ondare. Orain lehenengo diren asko azkeneko izango dira, eta orain azkeneko direnak lehenengo».

Urteko 20. astea

Andre Maria Birjina Erregina

San Fabrizio eta Filiberto, *martiriak*

Andre Mariaren zeruratzearen zortziurrenean, Elizak Mariaren ospakizuna berresten du «erregina» izenburuaz. Harengan bete-betean bete da beraren Semearen hitza: «Lehenengo asko azkenak izango dira eta azken asko lehenengo». Maria, bere izakia benetako neurrian pozez eta atseginez bizi duen emakumea da, eta horregatik kanta dezake Jaunaren handitasuna: Jainkoak «bere mirabearen umiltasuna ikusi duelako» (Lk 1, 48). Maria partaide da bere Semearen apalkuntzan, hau «heriotzaren mende jartzeraino eta gurutzean hiltzeraino behertua» izan baitzen (Flp 2, 8). Erregina bihurtua, Jesus piztuaren jaiari beso zabalik hartua izanik, Mariak, batez ere, ikasle eta jarraitzaile jarraitu du, Eliza erromesaren ama eta arreba gisa; bere gizatasunaren osotasunaz, agintzari eta sustatzaile da guretzat.

* * *

Andre Maria Birjina Erregina

XX. mendearan hasieran eta batez ere 1925ean Kristo Erregearen jaia eratu ondoren, Maria «erregina» izendatzeko eskabideak ugari izan ziren. Eskabide horiei erantzunez eta Sortzez Garbia (1854) dogmatzat ematearen ehungarren urteurrena ospatzeko, 1954an Pio XII.ak «Ad coeli Reginam» entziklika eman zuen argitara eta 1955ean Maria Erreginaren jaia eratu. Lumen Gentium konstituzioak (59. zenb.) dioen bezala: Zeruko aintzara jasoan izan zen Maria eta Jaunak denen erregina eginez goratu zuen, bere Semearen antzekoago izan zedin. Ikonografian Kristo «Pantokrator»-raren (denen errege) ondoan, ama Maria maiz azaltzen da; Erdi Aroko gorazarre askotan izen hori eman izan dio Mariari kristau-herriak: «Salve Regina», «Regina coeli laetare», «Ave Regina caelorum» eta horrelakoetan. Maria erregina izatea kristau-herriaren babeserako dela sinesten eta aitortzen dugu, bere Seme Kristoren «eskuinaldean» dagoelako eta haren salbamen-egintzan esku hartze berezia izan zuelako.

Epaileak liburutik 9, 6-15: Erregea nahi dugu agintari, esaten ari zarete, Jauna errege duzuelarik. **Sal 20:** Jauna, zure indarraz pozten da erregea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20, 1-16.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin mahasti-nagusiarekin bezala gertatzen da. Goizean goiz bere mahastirako langile bila atera zen. Egunekeo lansaria zilarrezko txanpon batean hizketatu ondoren, mahastira bidali zituen langileak. Goizeko bederlatziak aldera berriro atera zen eta, beste batzuk plazan lanerako zain ikusirik, esan zien: “Zoazte zuek ere nire mahastira eta ordainduko dizuet bidezko dena”. Eta haiek ere joan ziren. Atera zen berriro hamabiak aldera eta hirurak aldera, eta gauza bera egin zuen. Arratsaldeko bostak aldera ere atera zen eta, beste batzuk oraindik geldirik aurkiturik, esan zien: “Zertan zaudete hemen egun osoan lanik egin gabe?”. Haiek erantzun zioten: “Ez gaitu inork hartu lanerako”. Hark, orduan: “Zoazte zuek ere nire mahastira”. Iluntzean mahastinagusiak esan zion arduradunari: “Deitu langileei, eta emaitza bakoitzari bere soldata, azkenekoetatik hasi eta lehenengoetara”. Etorri ziren, bada, arratsaldeko bostetakoak, eta zilarrezko txanpon bana hartu zuten. Lehenengo ordukoak, txanda iritsi zitzaizanean, besteek baino gehiago hartuko zutela uste zuten; baina haiek ere zilarrezko txanpon bana hartu zuten. Orduan, nagusiaren kontra gaizki esaka hasi ziren, eta esan zioten: “Azkeneko hauek ez dute ordubete besterik lan egin, eta gurekin berdindu dituzu, egun osoko nekea eta beroa jasan dugunokin”. Baina nagusiak erantzun zion haietako bati: “Adiskide, ez dizut bidegabekeriarik egiten. Ez al ginen zilarrezko txanpon batean hizketatu? Tori dagokizuna eta zoaz. Zuri bezainbat eman nahi diot azkeneko honi ere. Ezin ote dut neure diruaz nahi dudana egin? Ala inbidia duzu, ni ona naizelako?”. Horrela, bada, azkenekoak lehenengo izango dira eta lehenengoak azkeneko».

Zein gauza handia den halako nagusi ireki eta gizatiarrarentzat lan egitea! Esperientzia hori bizi izan duenak, sentitu du, ordaindu zaionak zerikusi txikiagoa duela talentuarekin sumatu duen pozarekin baino. Parabola honek zuzen-zuzenean galdetzen digu Jesusen jarraipena bizitzeko dugun moduz: Nekarazten duen obligazioa al dugu eta gutxienez ere hartatik abantailaren bat atera nahi genukeen zerbait? Ala zentzuzko etengabeko iturria da eta hartatik urrun jada ez ginateteke zoriontsu izango? Gure erantzuna nolakoa, halakoa izango da guk Jainkoaz dugun ideia ere: batzuetan –kasu honetan bezala– zuzena ez den arbitroa, edo aita eskuzabal eta ona. Eta guk Jainkoaz dugun irudia nolakoa izan, halakoa izango da munduan dugun kokapena ere: konpliztailearen zurruntasuna duena ala maiteminduaren zabaltasuna duena.

* * *

Santuen Elkartasuna (1. zatia)

(2. zatia abuztuaren 24an)

Norekin gaudela elkartzurik aitortzen dugu? Galdera honi erantzuteko, beste bat egin behar dugu: Zein da elkartasun honen oinarria? Eta erantzuna: karitatea, maitasuna: «Jainkoak bere maitasuna isuri digu geure bihotzera, berak emandako Espiritu Santuaren bitartez» (Erm 5, 5). Eman digun maitasun honek maitasuna sortzen du gugan, fededunen artean elkartasuna eragiten duena, ondasun espiritualak komunikatzea dela medio. Batengan dagoena beste baten onurarako izaten da, atal baten osasuna gorputz osoaren onurarako gertatzen den bezala. San Joan Krisostomok honela adierazten du: «Karitateak beste ZU bat bezala aurkezten dizu zeure lagun hurkoa; haren ondasunez pozten erakusten dizu zeureak izango bazenitu bezala eta haren atsekabeak jasaten zeureak bazenitu bezala. Maitasunak gorputz bakar batean biltzen du kopuru handi bat eta beraien arimak Espiritu Santuaren beste hainbat egoitza eraldatzen ditu. Baina bakearen espirituak ez du atsedetik hartzen banaketa baten aurrean, baizik eta bihotzen batasunaren aurrean... Bakoitzaren ondasunak guztien onerako jarrarazten ditu maitasunak». (*De Perfecta Caritate*, PG 56, 281). (*Comunión de los Santos*, J. L. Vázquez Borau [Religion Digital 2021-10-27] zatia)

Apokalipsi liburutik 21, 9b-14.

Aingeru batek esan zidan: «Zatoz, emaztegaia erakutsi behar dizut, Bildotsaren emaztea». Hartu ninduen aingeruak eta mendi handi eta garai batera eraman ninduen espirituz; Jerusalem hiri santua erakutsi zidan, zerutik Jainkoagandik jaisten, Jainkoaren aintzaz dirdaitsu. Haren distira harribitxi eder baten antzekoa zen, jaspe harria bezain gardena. Harresi sendo eta garaia zuen, hamabi atekoa, eta ate gainetan hamabi aingeru eta hamabi izen idatziak, israeldarren hamabi leinuen izenak. Hiru ate ekialdera zeuden, hiru iparraldera, hiru hegoaldera eta hiru mendebaldera. Hiriko harresiak hamabi oinarri zituen, eta hauetan idatziak Bildotsaren hamabi apostoluen izenak.

Sal 144: Zure fededunek ager dezatela, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 45-51.

Aldi hartan, Felipek Natanael aurkitu zuen, eta esan zion: «Moisesek legearen liburuan eta profetek beren idazkietan aipatu zutena aurkitu dugu: Jesus, Joserren semea, Nazaretetkoa». Natanaelek esan zion: «Nazaretetik atera ote daiteke ezer onik?». Felipek erantzun: «Zatoz eta ikus». Jesusek Natanael beregana etortzen ikusi eta esan zuen: «Hona hemen egiazko israeldarra, faltsukeriarik gabea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?». Jesusek erantzun: «Felipek zuri dei egin baino lehen, pikupean zinela, ikusi zintudan». Natanaelek erantzun zion: «Maisu, Zu Jainkoaren Semea zara; Zu Israelgo erregea zara». Jesusek erantzun: «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako, sinesten al duzu? Handiagorik ere ikusiko duzu». Eta esan zion, gainera: «Egi-egiaz diotsuet: Zerua zabalik ikusiko duzue eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera Gizonaren Semearen gain».

Urteko 20. astea

San Bartolome, *apostolua*

Joan ebanjelariak soilik aipatzen du Natanael, baina usadioak Bartolome apostoluarekin lotu izan du eta sinoptikoetan beti Feliperekin batera azaltzen da. Jesusek oso iritzi ona du hartaz eta «benetako israeldartzat jo du, engainurik ez dutenetakotzat». Baina ba al daki Maisuak Natanaelek bere buruari Nazaretetik zerbait onik atera ote daitekeen galdetzen diola? Normala da hark ere bere buruari hori galdetzea; izan ere, judu on guztiek gauza jakintzat dute Galilea ez dela profeten lurra. Jesusek, ordea, eraldatu egin dio itxaro duten Mesiasen irudia: gizaki hilkorren bizimodu arrunta beregan hartu du eta sufritzen duen morroiaren bidean dabil Mesias. Hori guztia harrigarria eta nahasgarria da eta guretzat ere ikasleentzat adina. Prest al gaude Jainkoaren ekintza salagarria Nazaretiko Joseren seme Jesusengan aitortzeko?

* * *

Santuen Elkartasuna (2. zatia)

Batasun hau benetakoa delako, sinesten ahal dugu mundu honetaz haragokoan eta maitatu Jainkoaren munduan ere, beraren bihotzean ere eta beraren bihotzaz ere. Horregatik santuen elkartasuna zeruko dohatsuenganaino zabaltzen da eta gure begientzat ezkututzen dituen zapiatz haragoko gure hildakoenganaino.

Jainkoaren maitasunak, beraren errotiko sustraiarekin, Espiritu Santuarekin, Kristoren Gorputzeko atal guztietan gertatzean, posible egiten du beraien artean energia espiritualak interkomunikatzea. Akinoko Tomas santuaren arabera: «Ez zaigu komunikatzen Kristoren nekaldiaren eta bizitzaren merezimendua bakarrik, baizik eta santuek egin duten on guztia komunikatzen zaie karitatea bizi dutenei, guztiak bat direlako. Horrela, karitatea bizi duen orok parte hartzen du munduan egin den on guztian». Tomasek hildakoekiko otoitza maitasunaren batasunean oinarritu du (Cf. Quodl. II, 14; VIII, 9). Heriotzak ezin apartatu gaitu Jesu Kristo gure Jaunagan agertu den Jainkoaren maitasunetik (Erm 8, 38-39). (*Comuni3n de los Santos*, J. L. Vázquez Borau [Religion Digital 2021-10-27] zatia)

Rut liburuaren hasiera 1, 1.3-6.14b-16.22: Itzuli zen Noemi Rutekin, bere errain moabdarrekin, eta Betlemera iritsi ziren. **Sal 145:** Goretsazu Jauna, ene barrena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22, 34-40.

Aldi hartan, Jesusek saduzearrak hitzik gabe utzi zituela jakitean, elkarrekin bildu ziren fariseuak, eta haien arteko lege-gizon batek azpikeriaz galdetu zion Jesusi: «Maisu, zein da legeko agindurik nagusiena?». Jesusek erantzun: «“Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz eta adimen guztiz”. Hau da agindurik nagusiena eta lehena. Eta bigarrena horren parekoa da: “Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala”. Bi agindu hauetan oinarritzen dira Liburu Santu guztiak».

Israelgo adituek Jesus probatu nahi dute baina, beren harridurarako, hark Legearen eta Profeten oinarrietara bidaltzen ditu. Beste behin ere, Mateok dio, Jesus ez dela etorri usadioak eta ohiturak apurtzera, haiek beren betera eramatera baizik, eta, hain zuzen ere, osotasun hori, zorroztasun hori, da herriaren buruzagiei traba egiten diena. Agian, guri ere traba egiten digute, Jainkoaganako maitasunak eta lagun hurkoaganakoak, biak zutabe bakarrean urtuta, baina sufritzen duen senidea ekiditeko egindako edozein ihesbidek ez du inolako zilegitasunik. Gizakia maitatzea da biderik zuzenena, beraren duintasuna arriskuan dagoenean bereziki, neurtzen hain zaila den Jainkoa maitatzeko gure benetako guraria edo nahia adierazteko.

Urteko 20. astea

Santa Teresa Jesusena Jorret eta Ibars, *birjina**(Adin handikoen Zaindaria)*. Santa Joana Elisabet Bichier des Ages, *birjina, fundatzailea (Gurutzearen Alabak)***Rut liburutik 2, 1-3.8-11; 4, 13-17:** Jaunak ondorengoa eman dizu.Jeseren aita izan zen Obed; Jese, berriz, Daviden aita. **Sal 127:** Honela izango da bedeinkatua Jaunari begirune diona.**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 17-29.**

Aldi hartan, Herodesek Joan harrapatu eta kartzelan lotua zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Feliperen emaztea zen Herodias, baina Herodesek bere emaztetzat hartua zuen, eta Joaneke esaten zion: «Ez zaizu zilegi zeure anaiaren emaztea edukitzea». Horregatik, gorroto zuen Herodiaske Joan eta hil egin nahi zuen, baina ezin, Herodesek begirune baitzion Joani; gizon zuzen eta santutzat zeukan, eta babestu egiten zuen. Joanen hitzek kezkarik sortzen bazioten ere, gogoz entzuten zion. Etorri zitzaion, ordea, Herodiasi aukerako eguna: Herodesek, bere urtebetetzean, afaria eman zien agintari, gudalburu eta Galileako handikiei. Sartu zen jantokian Herodiasen alaba eta dantzan egin zuen, eta atsegin izan zitzaion Herodesi eta mahaikideei. Orduan, erregeak esan zion neskatxari: «Eskatu nahi duzuna, eta emango dizut». Eta zin eginez agindu zion: «Eskatu ahala guztia emango dizut, nire erreinuaren erdia bada ere». Atera zen neskatxa eta bere amari galdetu zion: «Zer eskatuko diot?» Amak erantzun: «Joan Bataiatzailearen burua». Itzuli zen arin-arin erregeagana eta eskaria egin zion: «Emadazu oraintxe bertan Joan Bataiatzailearen burua azpolean». Goibel jarri zen erregea, baina mahaikideen aurrean egindako zinagatik, ez zion ukatu nahi izan. Berehala, bere guardiako bat bidali zuen, Joanen burua ekartzeko aginduz. Joan zen hura kartzelara eta lepoa moztu zion, eta azpolean ekarri zuen burua; neskatxari eman zion, eta neskatxak amari. Joanen ikasleak, hori jakitean, haren gorpua jasotzera etorri eta hilobian ehortzi zuten.

Santa Teresa Jesusena Jorret eta Ibars, *birjina*
(*Adin handikoen Zaindaria*). Santa Joana Elisabet Bichier des
Âges, *birjina, fundatzailea* (*Gurutzearen Alabak*)

Herodes erregeak agindurik Joan Bataiatzailea erail izana mingarria izan zuen Jesusek; ez soilik Bataiatzailearekiko zuen afektuagatik, baita Jesus beraren heriotzaren aurre-irudia zelako. Horregatik, geroago Herodesekin aurrez aurre gertatuko denean, gogor kritikatu du Jesusek «azerikume» deituz; horrela, bere adorea eta Jainkoaren egitasmoaz -ez berak ez beste inork geldiaraziko baitu- zuen atxikipena nahi izan zituen agertu. Eta Nekaldikoan, jolas politikoaz, Pilatok Herodesengana bidaliko duenean, Jesusek ez dio hitzik esango. Herodesek magia-jarduera ikusi nahi zuen unetxo bat ongi pasatzeko, baina bere isiltasunaz erantzungo dio Jesusek. Badira hitz diren isiltasunak. Gerta dakiguke geuri ere bizitzako uneren batean, zuzengabekeriaren aurrean, mespretxagarri den jarrera baten aurrean, isiltasuna bakarrik gelditzea; baina isiltasun adoretsua, Jainkoaren Hitzean fidatu den isiltasuna, munduan beraren Berri Onaren lekuko izatera bidali gaituen Jainkoaren hitzean fidatu den isiltasuna, horrek guztiak berekin izan ditzakeen zailtasunak eta arriskuak gorabehera.

Urteko 21. astea

Santa Monika, *aitorlea*

San Lizerio, *gotzaina*

Isaias Profetaren liburutik 22, 19-23.

Hau diotso Jaun ahalguztidunak Xebnari, errege-jauregiko arduradunari: «Bota egingo zaitut kargutik eta zauden lekutik kenduko. Egun hartan neure zerbitzari Eliakimi, Hilkiaseen semeari, dei egingo diot; zure soingainekoa jantzarazi, zure gerrikoa ezarri eta zure aginpidea emango diot. Aita baten pareko izango da Jerusalemgo bizilagunentzat eta Judako herriarentzat. Daviden jauregiko giltzak jarriko dizkiot lepoan; hark irekia ez du inork itxiko; hark itxia ez du inork irekiko. Iltzea egur gogorrean bezain sendo ezarriko dut Eliakim, eta bere senitartearen harrogarri izango da».

Sal 137: Jauna, zure maitasuna betikoa da, ez utzi bertan behera zeure eskuen lana.

San Paulok Erromatarrei 11, 33-36.

Bai handia eta sakona Jainkoaren eskuzabaltasuna, jakinduria eta ezaguera! Bai aztergaitzak haren erabakiak eta bai sumaezinak haren bideak! Nork ezagutu du Jaunaren pentsamendua? Nor izan da haren aholkulari? Nork eman dio hari lehenengo, gero hark itzuli behar izateko? Harengandik dira gauza guztiak, haren bidez eta harentzat. Aintza berari betieran! Amen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16, 13-20.

Aldi hartan, Jesusek, Filiporen Zesareara iritsi zenean, galdera hau egin zien ikasleei: «Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?». Haiek erantzun: «Batzuek Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek Elias; besteek Jeremias edo profetaren bat». Jesusek, orduan: «Eta zuek, nor naizela diozue?». Simon Pedrok erantzun zuen: «Zu Mesias zara, Jainko biziaren Semea». Orduan, Jesusek esan zion: «Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea, hori ez baitizu hezur-mamizko inork

Urteko 21. astea
 Santa Monika, *aitorlea*
 San Lizerio, *gotzaina*

agertu, zeruko nire Aitak baizik. Eta hau diotsut Nik: Zu Pedro zara –harkaitza–; harkaitz horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza, eta Herioaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zeruetako erreinuko giltzak emango dizkizut: zuk mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua, zeruan ere askatua». Orduan, bera Mesias zela inori ez esateko agindu zien Jesusek ikasleei.

Geure nortasuna bizi ohi ditugun harremanetan agertuz doakigu. Garela uste duguna baino gehiago gara, eta besteek gugan aurkitzen dutena ere bagara. Bere ibilbidearen une jakin batean, Jesusek bere nortasuna argitzen sakondu beharra izan du bere adiskideen begien bitartez. Beraren galdera ez da erretorikoa: jendeak beraz esan dezakeena baino harago, beraren adiskideek beraz duten iritzia jakin nahi du Jesusek. Tabor mendian, Aitaren ahotsak berretsiko du Seme maitea dela. Lautadan, jendearen artean, Pedrorren ahotsak bere mesiastasuna berretsi dio. Bi hitz hauek berretsi egin dute beraren fideltasuna. Izan ere, benetako harreman orotan, beti dago elkartasun-neurriren bat, eta Jesusek Pedrorrekin izan duen elkarrizketak, Jesusek berearen hondoa edo muina erakutsi dio ikasleari, etorkizuneko nortasuna alegia, ez soilik bera orainaldian dena, piztueraren ondoren izatera iritsiko dena ere alegia. Jaunak beragan duen konfiantzak eraldatu egingo du Galileako arrantzalea eta Elizaren harkaitz edo pilare bihurtuko da; ukoak egin izan dituen gizona, Erreinuko altxorren administratzaile zintzo bihurtuko du. Ematen du, harremanak eragiten dituen maitasunezko elkarrizketa horretan joketzen dela den-dena: Nor naiz ni Jaunarentzat? Nor da Jauna niretzat?

Urteko 21. astea

San Agustin, *gotzaina eta eliz irakaslea*
Santa Florentina Cartagenakoa, *abadesa*

San Paulok 1 Tesalonikarrei 1, 1-5.8b-10: Sasijainkoak utzirik, Jainkoagana itzuli zineten, Jainkoak hildakoen artetik piztu zuen bere Semearen zain egoteko. **Sal 149:** Maite du Jaunak bere herria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23, 13-22.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Jendeari zeruetako erreinuko sarrera ixten diozuenok! Zeuek ez zarete sartzen eta sartu nahi dutenei ez diezue uzten. Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Baten bat judu berri egiteagatik itsaso eta lehor zabiltzate eta, egin duzuenean, zeuek baino bi aldiz gaiago bihurtzen duzue infernurako. Ai zuek, gidari itsuok! Honela irakasten duzue: “Tenpluagatik zin egiteak ez du baliorik; tenpluko erreagatik zin egiteak, ordea, behartu egiten du”. Zoro itsuok halakook! Zer da handiago, urrea ala urrea sagaritzen duen tenplua? Beste hau ere irakasten duzue: “Aldareagatik zin egiteak ez du baliorik; aldare gaineko opariagatik zin egiteak, ordea, behartu egiten du”. Itsuok halakook! Zer da handiago, oparia ala oparia sagaritzen duen aldarea? Aldareagatik zin egiten duenak, aldareagatik eta gainean dagoen guztiagatik egiten du zin; tenpluagatik zin egiten duenak, tenpluagatik eta bertan bizi den Jainkoagatik egiten du zin; zeruagatik zin egiten duenak, Jainkoaren tronuagatik eta bertan eserita dagoenagatik egiten du zin».

Argiaren eta ilunaren arteko aurkakotasunak, Joanen ebanjelioan hain aipatua denak, Mateoren pasarte honetan ere badu bere oihartzuna, non Jesusek Israelgo buruzagien itsutasuna salatzen duen. Ikusi behar luketenak, Jainkoaren hitzak beraien burua gida dezan uzten dutela uste baitute, benetan itsu daude, itxurakerian, zikoizkerian eta zuzengabekerian finkatu baitira. Gainera, hori gutxi balitz bezala, besteen gidaritzat dute beren burua, eta lortzen duten gauza bakarra

Urteko 21. astea

San Agustin, *gotzaina eta eliz irakaslea*
Santa Florentina Cartagenakoa, *abadesa*

da, Legea urardotzea eta herria galbidera arrastatzea. Salaketa larri honek gure buruzagitasuna ere aurrez aurre jar dezake, behin ere ez dago-eta urardotzeko arriskutik kanpo. Nola lagun diezaiekegu beste pertsona batzuei, geure buruari begira egotearen poderioz itsututa gelditzen ari bagara?

* * *

San Agustin Hiponakoa, gotzaina eta eliz irakaslea

San Agustin Tagasten (Algerian) jaio zen 354an. Kultura klasikoa ikasi zuen (Zizeron-en obrak irakurtzean, jakinduria irrikatzen ikasi zuen). Liburu Santuak traketsak eta kulturarik gabeak zirela iruditzen zitzaion orduan. 371tik 384ra bitartean filosofia-eskola batetik bestera ibili zen. 384an Milanon erretorika-katedra lortu zuen. Ama Monika haraino etorri zitzaion, kristau-fedea onar zezan nolabait bultzatzera. Milanon zela, hango apezpiku San Ambrosioren hitzaldiak entzun zituen. Liburu Santuei buruz egiten zituen azalpen alegorikoak entzutean liluratua gelditu zen. Hogeita hamabi urte zituela, ametsetan haur-kanta bat entzun omen zuen: «Tolle, lege» (hartu, irakurri). Orduan, Liburu Santuak irekirik, San Pauloren gutun-zati hau aurkitu zuen: «Gabiltzan duintasunez, egun-argiz bezala: ez jan-edanean eta hordikerietan, ez lizunkerian eta neurrigabekieran, ez haserre eta norgehiagokerian» (Erm 13, 13). 387ko Pazko-gauan San Ambrosiok bataiatu zuen. Urte hartan berean, ama Monika Ostia hirian hil ondoren, Afrikara itzuli zen. Handik aurrera, asko idatzi zuen manikeoen aurka, kristau-fedea defendituz. Eta gotzain izendatu zuten.

San Paulok 1 Tesalonikarrei 2, 1-8: Prest ginen, Jainkoaren Berri

Ona ez ezik, baita geure bizia ere zuei emateko. **Sal 138:** Jauna,
Zuk aztertzen nauzu eta ezagutzen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 6, 17-29.

Aldi hartan, Herodesek Joan harrapatu eta kartzelan lotua zuen, Herodias zela eta. Herodesen anaia Feliperen emaztea zen Herodias, baina Herodesek bere emaztetzat hartua zuen, eta Joaneke esaten zion: «Ez zaizu zilegi zeure anaiaren emaztea edukitzea». Horregatik, gorroto zuen Herodiasek Joan eta hil egin nahi zuen, baina ezin, Herodesek begirune baitzion Joani; gizon zuzen eta santutzat zeukan, eta babestu egiten zuen. Joanen hitzek kezkarik sortzen bazioten ere, gogoz entzuten zion. Etorri zitzaion, ordea, Herodiasia aukerako eguna: Herodesek, bere urtebetetzean, afaria eman zien agintari, gudaiburu eta Galileako handikiei. Sartu zen jantokian Herodiasen alaba eta dantzan egin zuen, eta atsegin izan zitzaion Herodesi eta mahaikideei. Orduan, erregeak esan zion neskatxari: «Eskatu nahi duzuna, eta emango dizut». Eta zin eginez agindu zion: «Eskatu ahala guztia emango dizut, nire erreinuaren erdia bada ere». Atera zen neskatxa eta bere amari galdetu zion: «Zer eskatuko diot?» Amak erantzun: «Joan Bataiatzailearen burua». Itzuli zen arin-arin erregeagana eta eskaria egin zion: «Emadazu oraintxe bertan Joan Bataiatzailearen burua azpilean». Goibel jarri zen erregea, baina mahaikideen aurrean egindako zinagatik, ez zion ukatu nahi izan. Berehala, bere guardiako bat bidali zuen, Joanen burua ekartzeko aginduz. Joan zen hura kartzelara eta lepoa moztu zion, eta azpilean ekarri zuen burua; neskatxari eman zion, eta neskatxak amari. Joanen ikasleak, hori jakitean, haren gorpua jasotzera etorri eta hilobian ehortzi zuten.

* San Adelfo, *martiria*
Santa Sabina, *martiria*

Herodes erregeak agindurik Joan Bataiatzailea erail izana mingarria izan zuen Jesusek; ez soilik Bataiatzailearekiko zuen afektuagatik, baita Jesus beraren heriotzaren aurre-irudia zelako. Horregatik, geroago Herodesekin aurrez aurre gertatuko denean, gogor kritikatu du Jesusek «azerikume» deituz; horrela, bere adorea eta Jainkoaren egitasmoaz -ez berak ez beste inork geldiaraziko baitu- zuen atxikipena nahi izan zituen agertu. Eta Nekaldikoan, jolas politikoaz, Pilatok Herodesengana bidaliko duenean, Jesusek ez dio hitzik esango. Herodesek magia-jarduera ikusi nahi zuen unetxo bat ongi pasatzeko, baina bere isiltasunaz erantzungo dio Jesusek. Badira hitz diren isiltasunak. Gerta dakiguke geuri ere bizitzako uneren batean, zuzengabekeriaren aurrean, mespretxagarri den jarrera baten aurrean, isiltasuna bakarrik gelditzea; baina isiltasun adoretsua, Jainkoaren Hitzean fidatu den isiltasuna, munduan beraren Berri Onaren lekuko izatera bidali gaituen Jainkoaren hitzean fidatu den isiltasuna, horrek guztiak berekin izan ditzakeen zailtasunak eta arriskuak gorabehera.

* San Adelfo, *martiria*
Santa Sabina, *martiria*

San Paulok 1 Tesalonikarrei 2, 9-13: Gau eta egun egin genuen lan Berri Ona hots egin genizuenean. **Sal 138:** Jauna, Zuk aztertzen nauzu eta ezagutzen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23, 27-32.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Hilobi zurituen antzeko zarete: kanpotik itxura ederrekoak, baina barrutik hil-hezurrez eta ustelkeriaz beteak! Zuek ere honelakoak zarete: kanpotik zintzoak jendearen aurrean, baina barrutik itxurakeriaz eta gaiztakeriaz beteak. Ai zuek, lege-maisu eta fariseu itxurazaleok! Profeten hilobiak eraikitzen eta gizon zintzoen hilarriak apaintzen dituzue, esanez: “Gure arbasoen egunetan bizi izan bagina, ez genukeen parterik hartuko haiekien profeten hilketan”. Horrela, zuek aitortzen duzue profetak hil zituztenen ondorengoak zarete. Bete, bada, zuek ere zeuen gurasoen egintza gaiztoen neurria!».

Mateoren 23. kapitulan Jesusek behin eta berriz darabil fariseuen aurka «itxurazale» hitza: «aktore» izatea adierazten du hitz horrek; pertsona batek bere bizitza errealean bizi duena ez bezala agertzea adierazten du. Horixe bera gertatzen da barnean metatzen duten haratustela ahaztu nahirik hilobiak zuritzen dituztenekin, edo profeten mausoleoak apaintzen dituztenekin, beraien heriotzaren hiltzaile berak ez balira bezala. Berez, itxurazalekeria, koherentziarik ezaren ondorio izan daiteke: esaten duguna egiten ez dugunean, itxurak egin beharrean gertatzen gara eta berehala ikasten dugu disimulatzen. Geure hauskortasun guztiak gorabehera, geure egia sakonetik biziz soilik iskin egin ahal izango diogu maitasunaren lehentasuna aitortzea eragozten digun itsutasunari.

San Paulok 1 Tesalonikarrei 3, 7-13: Jaunak gero eta handiago egin dezala zuek elkarrentzat eta denentzat duzuen maitasuna. Sal 89: Zeure maitasunaz ase gaitzazu, Jauna, poztu gaitezen zugan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 24, 42-51.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zaudete erne, ez baitakizue zein egunetan etorriko den zuen Jauna. Hartu hau gogoan: etxeko nagusiak baleki gaueko zein orduan etorriko den lapurra, erne egongo litzateke eta ez luke bere etxea zulatzen utziko. Egon, bada, prest zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko zaizue eta Gizonaren Semea. Izan zaitezte morroi leiala eta zentzuduna bezalakoak, nagusiak etxeko morroiei bere orduan janaria banatzeko eginkizuna eman dion morroia bezalakoak. Zorionekoa morroi hori, nagusiak, iristean, agindua egiten aurkitzen badu! Benetan diotsuet: bere ondasun guztien buru ipiniko du. Baina beste morroi gaizto hura, nagusiak luzatu egingo duelakoan, bere morroi-lagunak jotzen eta mozkorrekin jan-edanean hasten bada, gutxien espero duen egunean eta gutxien uste duen orduan etorriko zaio nagusia, eta gogor zigortuko du eta itxurazaleek merezi dutena emango dio. Han izango da negarra eta hortz-karraska!».

Pasarte honek, “katalogo” ofizialean sartzen ez diren beste zoriontasun horietako bat oparitu digu; kasu honetan, beste pertsona batzuek zaintzeko ardura hartu duten pertsonari bereziki zuzendua. «Zorionekoa nagusia iristean horrela jokatzeko harrapatzen duen morroia». Zein morroiz ari da? Ba, nagusiak zerbitzariak zaintzeko eta jana beren orduetan emateko ardura eman dion langile batez, edota, beste modu batean esanda, bere mende jarri dion jendea gizatasunez tratatzeko ardura bere gain hartu duenaz. Norbait zaintzea zeregin fina da eta, batzuetan, luze gertatzen da, pertsona zaurgarriak zaindu behar direnean batez ere. Zorionekoak, Jaunak, etorriko denean, “besteak zaintzen” aurkituko dituen pertsonak.



Jainkoagana



bide
EGINEZ



bereizmenaz

IRAILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Ertzean bizi den jendearen alde: Otoitz egin dezagun, gizatasunpeko biziera eginez, gizartearen ertzean bizi den jendearen alde: ez dezatela ahaztu erakundeek eta ez dezatela bazter utzi sekula.



Urteko 21. astea

San Josue, *patriarka*

San Gil (Egidio), *ermitaua*

San Paulok 1 Tesalonikarrei 4, 1-8: Hau nahi du Jainkoak zuengandik: bizi zaitezela berarentzat, sagaratuei dagokienez. **Sal 96:** Poztu zaitezte Jaunarekin, zintzook.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25, 1-13.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin, beren kriseiluak eskuetan hartu eta senargaiari bidera irten zitzaizkion hamar neskatxekin bezala gertatzen da. Neskatxetako bost zentzugabeak ziren eta bost zentzudunak. Kriseiluak hartzean, zentzugabeek ez zuten oliorik hartu; zentzudunek, ordea, kriseiluekin batera olioia ere hartu zuten ontzietan. Senargaiak luzatzen zenez, logaletu egin ziren denak eta loak hartu zituen. Gauerdian oihu bat entzun zen: “Badator senargaia; irten zakizkiote bidera!”. Jaiki ziren neskatxa guztiak, eta beren kriseiluak prestatu zituzten. Orduan, zentzugabeek esan zieten zentzudunei: “Emaguzue olio-pixka bat, kriseiluak itzaltzen ari zaizkigu eta”. Zentzudunek erantzun zieten: “Ea ez dugun nahikoa geuretzat eta zuentzat; hobe duzue, badaezpada, dendara joan eta erosi”. Baina, eroatera joanak zirelarik, senargaia iritsi zen, eta prest zirenak ezteietara sartu ziren harekin. Eta atea itxi zuten. Iritsi ziren, azkenik, beste neskatxak ere eta dei egin zuten: “Jauna, Jauna, ireki!” Baina hark erantzun zien: “Benetan diotsuet, ez dakit nor zareten”. Egon, beraz, erne, ez baitakizue, ez eguna, ez ordua».

Jauna beti etorri dator, baina ez dakigu nola eta noiz, zer ordutan, etorriko den. Espiritu-bizitza haren zain soilik heriotzako orduan egotean baletza, lasai lo egiteko beta hartzerik izango genuke. Baina Jauna beti etorri dator, egunero eta egun bakoitzean, gutxien itxaro ditugun gertakarien eta inguruabarren bidez eta burutik pasa ere egiten ez zaizkigun aurpegien bitartez. Berarekin topo egitea ez dago etorkizun urrunerako gordeta, baizik eta gure eguneroko bizitza

Urteko 21. astea

San Josue, *patriarka*San Gil (Egidio), *ermitaua*

grisaren bazterretaraino zabaltzen da: samurtasun-keinu bat, laguntza-eske bat, otoitz baten hondarra... Gure argi-ontziaren olioia zaintzea eta itxaropenaren garra bizitzea, eginbeharrik garrantzitsuen bihurtzen dira orduan; izan ere, horiek dira Jauna datorrenean eta dei egiten digunean, bera ezagutzeko ditugun giltzarriak.

* * *

Zaindu bizitza, zuzenbidea, maitasuna eta bakea

Jainko ahalguztiduna, unibertso osoan eta zeure sorkarrietako txikienean presente zarena. Existitzen den guztia zeure samurtasunez inguratzen duzuna, isur ezazu gure gainera zeure maitasunaren indarra, bizitza eta edertasuna zaindu ahal ditzagun.

Blaitu gaitzazu bakeaz, anai-arreba bezala bizi ahal gaitezen, inori kalterik egin gabe. Behartsuen Jainkoa, lagundu gaitzazu zure begientzat horrenbeste balio duen jendea, bertan behera utzia eta ahaztua, berreskuratzen.

Uki ezazu behartsuen eta ludiaren bizkar onura besterik bilatzen ez dutenen bihotza.

Sanea ezazu gure bizitza, munduaren babesle izan gaitezen eta ez beraren suntsitzaile,

edertasuna erein dezagun eta ez kutsadura eta suntsipena.

Irakatsiezaguzu gauza bakoitzaren balioa aurkitzen, miretsirik kontenplaten, mugarik gabeko zure argirantz egiten ari garen bidean topatzen ditugun sorkari guztiekin sakon loturik gaudela aitortzen.

(Frantzisko aita santua, Laudato si' 246)

Urteko 21. astea

Frantzisko Dardan dohatsua (Isturitze ondoan 1733-Paris 1792, Iraultzakoa), *dohatsua, apaiza*, eta lagunak, *martiriak (Iruñeko eta Baionako elizbarrutietan),**

San Paulok I Tesalonikarrei 4, 9-11: Jainkoak berak irakasten dizue elkar maitatzen. **Sal 97:** Badator Jauna herriak zuzentasunez epaitzera.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,1-5.10.

Aldi hartan, hurbildu zitzaizkion ikasleak Jesusi eta galdetu zioten: «Nor da handiena zeruetako erreinuan?» Jesusek, haurtxo bati deitu, haien artean jarri eta esan zien: «Benetan diotsuet: Aldatu eta haurren antzeko bihurtzen ez bazarete, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Beraz, bere burua haur honen antzera apaltzen duena, hori da zeruetako erreinuan handiena. Eta honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau. Kontuz! Ez dezazuela txiki hauetako inor gutxietsi! Zeren, egia esan, hauen aingeruak zeruko nire Aitaren aurpegia ikusten ari baitira etengabe zeruan».

Hiru sinoptikoek aipatu dute ikasleen jarrera lehiakorra. Tentazio hau geure izaeran ainguraturik dugu, eta guztiok dakigu etengabe bizi arazten dizkigula azpijoko gaiztoak bizitza pertsonal, sozial eta eliztarrean. «Nor da handiena zeruko erreinuan?», «nor garrantzizkoena?» Jesusen erantzunak beste behin ere nahas-nahas egin gaitu: Garrantzizkoena? Txikia den hura. Ezer gutxirako dena edota ezertarako ez dena. Aginduak hartu eta bete behar izaten dituenak. Zuen artean inolako eskubiderik ez dutenak eta halakorik eskatu ere ezin dutenak!... Beren aingeruak Jainkoagandik hain hurbil dituztenak, non beti ikusi baitezakete bera, beraren familiakoak direlako.

* Santiago Bonnaud, *apaiza*, eta lagunak; Jose Imbert eta Joan Nicolas Cordier, *apaizak*; Tomas Sitjar, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak, jesuitak*

Urteko 22. astea

Angostoko Andre Maria (iraileko 1. igandea)
 San Gregorio Handia, 64. aita santua eta eliz irakaslea

Jeremias Profetaren liburutik 20, 7-9.

Liluratu egin nauzu, Jauna, eta ni zure lilurapean erori; bortxatu egin nauzu eta menderatu. Barregarri gertatu naiz egun osoan; burlaka ari zaizkit denak. Hitz egiten dudan bakoitzean, garrasi egiteko da; indarkeria eta zapalkuntza salatuz hots egin beharra dut; Jaunaren hitza irain- eta iseka-bide da niretzat egun guztian. Hau nioen neure baitarako: «Gogoratu ere ez dut egingo; ez dut gehiago haren izenean hitz egingo». Baina, orduan, sua bezalako zerbait sentitzen nuen barruan; hezurretaraino erretzen ninduen; saiatzen nintzen hura itotzen, baina ezin!

Sal 62: Zure egarriz daukat gogoa, Jauna, ene Jainkoa.

San Paulok Erromatarrei 12, 1-2.

Senideok: Jainkoaren errukiagatik eskatzen dizuet eskain dezazuela zeuen burua opari bizi, santu eta Jainkoarentzat atseingarri; hori da egiazko zuen gurtza. Ez egokitu mundu honen iritzietara, baizik eta eraberri zaitezte zeuen pentsaera aldatuz; horrela bereizi ahal izango duzue zer den Jainkoak nahi duena, zer den ona, atseingarri zaiona eta bikaina.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 16, 21-27.

Aldi hartan, Jesus bere ikasleei azaltzen hasi zitzaien beharrezko zela bera Jerusalemera igotzea, eta han asko sufritu beharra zuela apaizburuen eta lege-maisuen aldetik; hil egingo zutela eta hiru egunen buruan piztuko zela. Orduan, Pedro, Jesus aparte harturik, gogor egiten hasi zitzaion: «Inola ere ez, Jauna! Ez zaizu horrelakorik gertatuko!». Baina Jesusek, itzulirik, esan zion Pedrori: «Alde nire ondotik, Satanas! Oztopo zara niretzat, zure asmoak ez baitira Jainkoarenak, gizakiarenak baizik». Jesusek esan zien, gainera,

Urteko 22. astea

Angostoko Andre Maria (iraileko 1. igandea)

San Gregorio Handia, *64. aita santua eta eliz irakaslea*

ikasleei: «Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, har beza bere gurutzea eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia gorde nahi duenak galdu egingo du; bere bizia nigatik galtzen duenak, ordea, eskuratu egingo du. Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen badu? Eta zer eman dezake gizakiak bizia berriro eskuratzeko? Izan ere, Gizonaren Semea bere Aitaren aintzaz beterik etorriko da aingeruekin eta orduan bakoitzari bere jokabidearen arabera ordainduko dio».

Tentaldiak beti presente daude giza bizitzan eta bidegurutze bakoitzean aurpegi desberdinez azaltzen zaizkigu. Horregatik da hain garrantzitsua «espirituak» ongi bereizten ikastea; ongiaren itxura duten gauzetan ere geure bidea jarraitzetik desbideratu nahi gaituzten seinale batzuk ager daitezke. Bere benetako gizatasunaren baitan, Jesus ere tentaldia saihestu beharrean gertatu da hasieratik amaieraraino. Agian, Jerusalemgo tenpluan, hamabi urte zituenean eta doktoreen artean gelditu zenean, Jesusek izan zezakeen lehenengo aldiz Aitak beretzat amestua ez zuen mesiastasun modu bat sentitzeko era. Geroago, tentatzailea bere bila joango zaio basamortura eta, bere biziaren amaieran, berari agiraka ari zaizkionen ahotsetan entzungo ditu hitz tentagarriak: «Jaitsi dadila gurutzetik eta sinetsiko dugu beragan!» (Mt 27, 42). Gaurko gertakarian, tentaldia Pedroren asmo onetan ezkutatuta dago; izan ere, Jesus profeten etorkizun tragikotik babestu eta gorde nahi du Pedrok. Erantzuna indartsua izan da, espiritu gaiztoarekin traturik ezin egin litekeelako: horra hor estrategia bikaina tentaldiaren aurka gure eguneroko borroketan erabiltzeko, ekidin ezina den arren, gainditua izan baitaiteke tentazioa.

Urteko 22. astea
San Moises, *profeta*

San Paulok 1 Tesalonikarrei 4, 13-18: Jesusekin bat eginik hil direnak Jainkoak berekin hartuko ditu. **Sal 95:** Badator Jauna lurra epaitzera.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4, 16-30.

Aldi hartan, Jesus Nazaretera, bera hazitako herrira, joan zen, eta larunbatean, ohi zuenez, sinagogan sartu eta zutik jarri zen irakurgaia egiteko. Isaias profetaren liburua eman zioten eta, irekitzean, pasarte hau aurkitu zuen: «Jaunaren Espiritua nire gainean dago, hark gantzutu bainau, behartsuei Berri Ona emateko. Gatibuei askatasuna eta itsuei ikusmena hots egitera bidali nau, zapalduet askatasuna ematera, Jaunaren onginaldi-urtea hots egitera». Liburua bildu ondoren, laguntzaileari eman eta eseri egin zen. Denak sinagogan begira-begira zeuzkan. Jesus honela hasi zitzaien: «Gaur bete da orain entzun duzuen Liburu Santuko hitz hau». Denek Jesusen alde hitz egiten zuten eta harriturik zeuden Jainkoaren onginaldiaz esaten zituengatik. Baina hau zioten: «Ez al da, ba, hau Joserren semea?». Orduan, Jesusek esan zien: «Harako esaera hura gogorazaziko didazue, noski: “Sendagile, sendatu zeure burua”, eta esango: “Egitzazu hemen ere, zeure herrian, Kafarnaumen egin omen dituzun gauzak”». Eta erantsi zuen: «Hara Nik egia esan: Ez da profetarik bere herrian onartua denik. Egiaz esaten dizuet: Bazen emakume alargunik asko Israelen Eliasen garaian, hiru urte eta sei hilabetez euria egin gabe egonik, lurralde guztian gosete gorria izan zenean; hala ere, Jainkoak ez zion haietako inori bidali Elias, Sidon herrialdeko Sareptako alargunari baizik. Eta bazen legendunik asko Israelen Eliseo profetaren garaian; hala ere, ez zen haietako inor sendatu, Siriako Naaman baizik». Hauek entzutean, sinagogan zeuden guztiak amorruez bete ziren. Eta jaikirik, Jesus herritik kanpora atera eta herria eraikia zegoen mendiko amildegira eraman zuten, handik behera botatzeko asmotan. Baina Jesus haien erditik igaro eta bere bidetik joan zen.

Urteko 22. astea
San Moises, *profeta*

Urteko deitzen dugun aldiak gaur hasten du bere hirugarren eta azken zatia, abendura iritsi arte. Markosen eta Mateoren ebanjelioak irakurri ondoren, liturgiak, Lukasen kontakizunak proposatzen dizkigu hemendik aurrera Jesus bera eta beraren misterioa ikuspegi osagarrietatik sakontzen jarraitzeko. Gaurkoan Nazaretoko sinagogan aurkitu dugu; bere “bizitzaldi ezkutuko” urte luzeetan aurkituz joan den Berri Ona bere herritarrei aldarrikatzen ari da, eta hainbesteko sua eragiten dio horrek bere bihotzean, bideetan zehar iragartzera ere irten egiten dela. Baina, «Joseren seme hau» Mesias gisa onartzetik urrun, nazaretarrek –ohi ez bezalako– bortizkeriaz, hura amiltzen saiatu dira. Ez gaitezen harritu, beraz, geure herrian profetatzat hartzen ez bagaituzte.

* * *

Iratzarri gugan bilatze-jarrera

Gure egunetako gizarte postmodernoan era masiboan ari da sinesgabetasuna hazten. Sinesgabetasun honek ez du berekin Jainkoarekiko fedea ukatze hutsa bakarrik; izan ere, hondo-hondoan nahi duena, orain arteko kultura fededuna ordezkatzea da, era sinesgabean izaten, sentitzen, pentsatzen, bizitzen eta hiltzen irakatsiko lukeen kultura ezarritz.

Hau guztia, horrenbestez, eskatzen ari zaigu, gugan «bilatze-jarrera» iratzar dezagun. Ezin jarraitu dugu fedea bizitzen orain arte egin izan dugun bezala. Ezin hesitu dugu kristautasuna iraganeko gauza huts bat den kultura anakroniko batean. «Gaur-gaurko Jainko» baten lekuko izan behar dugu, hau da, Jainko baten, Jesusengan haragitu den baten, lekuko izan behar dugu, gaur egungo gizon-emakumeei diren bezala ikusaraziz. (*J.A. Pagola, Jesús, Maestro interior. 2. Primeros pasos, 15-17*)

San Paulok I Tesalonikarrei 5, 1-6.9-11: Gugatik hil zen, gu harekin bat eginik bizi gaitezen. Sal 26: Jaunaren ontasuna ikusi ustean nago bizidunen lurrean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4, 31-37.

Aldi hartan, Jesus Galileako Kafarnaum hirira jaitsi zen, eta larunbatetan jendeari irakasten zion. Txunditurik zegoen jendea haren irakaspenaz, nagusitasunez hitz egiten baitzuen. Bazen sinagogan espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat, eta oihu bizian hau zioen: «Zer duk gurekin, Jesus Nazaretarra? Gu hondatzera al hator? Bazekiat nor haizen: Jainkoaren Santua». Jesusek gogor eraso zion: «Isil hadi eta atera gizon horrengandik!». Deabruak jendartean lurrera bota zuen gizona, baina batere kalterik egin gabe atera zen harengandik. Ikaraturik gelditu ziren denak, elkarri galdezka: «Zer da hau? Nagusitasunez eta indarrez agintzen die espiritu gaiztoei, eta hauek atera egiten dira». Jesusen entzutea herrialde hartako bazter gutzietara zabaldu zen.

Markosen testuan gertatzen den bezala, Lukasek ere, Jesusen lehenengo mirari moduan, deabrua kanporatzea aipatzen du; «nazkagarria» izan arren, «Jainkoaren santutzat» aitortu du Jesus deabru hark. Jesusek ez du uzten bere burua gaizkiak lausenga dezan, ez du berarekin jolasik egiten, baizik eta agindu zorrotza eman dio: «Itxi ahoa eta irten hortik!». Miraria gauzatu da eta, Jesus, agertu duen aginpidea dela medio ezagutua eta aitortua izaten hasten da, beste maisu batzuek dutenarekiko hain desberdina den aginpidea azaldu ondoren. Jesusek gaizkiaren aurrean duen jarrerak, erasotzen gaituzten gure eguneroko deabruai aurre egiteko daukagun moduaz galdera planteatzen digu: Zenbaterainoko lekua ematen diegu? Noraino uzten diegu hitza eta aginpidea hartzen? Prestatuta al gaude haiekin ez hitz egiteko, edota geure hitza haiek isilarazteko bakarrik izateko?

Urteko 22. astea

San Eleuterio, *abadea*

San Paulok Kolosarrei 1, 1-8: Zuengana iritsi da Berri Ona, eta lur osora. Sal 51: Jauna, zure maitasunean dut konfiantza betiko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 4, 38-44.

Aldi hartan, Jesus sinagogatik atera eta Simonen etxean sartu zen. Simonen amaginarreba sukar handiaz zegoen, eta haren alde zerbait egiteko eskatu zioten. Orduan, harengana makurturik, zorrotz agindu zion sukarrari, eta sukarrak alde egin zion. Berehala jaiki eta zerbitzatzan hasi zitzaion amaginarreba. Eguzkia sartu zenean, gaixoak zituzten guztiek, edozein zela ere haien gaitza, Jesusi eramaten zizkieten, eta hark, bakoitzari eskuak ezarriz, sendatu egiten zituen. Askorengandik deabruak ere ateratzen ziren, deiadarka esanez: «Zu Jainkoaren Semea zara!». Jesusek zorrotz galarazten zien hitz egitea, bazekiten-eta Mesias zela. Eguna argitu orduko, atera eta bazter bakarti batera joan zen. Jendea haren bila zebilen eta, aurkiturik, eutsi egin nahi zioten, alde egin ez ziezaien. Baina Jesusek esan zien: «Gainerako herrietan ere adierazi beharra dut Jainkoaren erreinuaren Berri Ona, horretara bidali bainau Jainkoak». Eta Judeako sinagogetan ibili zen Berri Ona hots egiten.

Bere prediku-aroaren hasieran, izugarria izan da Jesusek garatu duen jarduera; frenetikoa izan dela ere esan daiteke, xehetasun bati erreparatuko ez bagenio: «Eskuak bakoitzaren gainean jarriz, sendatzen zituen». Jesusek presa du Erreinuaren berri emateko eta ez du nahi jendeak inon geldiaraz dezan, beraren mirariak gordetzeko. Baina, hala ere, ez da ezinegona Jesus mugiarazten duena, baizik eta bete beharreko misioaren presa: Maria bezala, jaiki eta berandutu baino lehen bere lehengusu Elixabet bisitatzera joan zen hura bezala. Jesusek behar den denbora hartzen du pertsona bakoitza bilatzeko, «bakoitza» ukitzeko eta zerbitzua eta goresmena eragozten duen oro entzuteko; ez zaio axola pasadizoko sukarra den edo deabru arriskutsua. Gure bizitzeko moduak, uzten al digu «bakoitzarekin» egoten?

Urteko 22. astea
Santa Regina, *martiria*

San Paulok Kolosarrei 1, 9-14: Berak atera gaitu ilunpearen menpetik eta bere Seme maitearen erreinura aldatu. **Sal 97:** Bere garaipena ezagutarazi du Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5, 1-11.

Aldi hartan, jendea gainera zetorkion Jesusi, Jainkoaren hitza entzuteko; Genesaret aintzira-ertzean zegoen Jesus. Bi txalupa ikusi zituen ur-bazterrean geldituta; arrantzaleak, ontzietatik jaitsita, sareak garbitzen ari ziren. Igo zen txalupa haietako batera, Simonenera, eta lehorretik pixka bat aldentzeko eskatu zion. Gero, eseri eta txalupatik jendea irakasten jardun zuen. Hitzaldia bukatzean, esan zion Simon: «Jo itsaso zabalera eta bota sareak arrantzurako». Simonek erantzun zion: «Maisu, gau osoan eginahalak egin eta ez dugu ezer harrapatu; hala ere, Zuk diozunez gero, botako ditut sareak». Hala egin zuten eta, hainbesteko arrain-pila harrapatu zuten, sareak lehertzeko zorian baitzeuden. Beste txalupako lagunei keinu egin zieten laguntzera etortzeko; etorri ziren, eta bi txalupak bete zituzten, ia-ia hondoratzeraino. Gertatua ikusirik, Jesusen oinetan ahuspeztu zen Simon Pedro, esanez: «Alde nigandik, Jauna, bekataria naiz eta». Izan ere, zur eta lur zeuden Simon eta harekin ziren guztiak, eginiko arrantzuagatik, eta gauza bera gertatzen zitzaien Simonen arrantzu-lagun ziren Zebedeoren seme Santiagori eta Joani ere. Baina Jesusek esan zion Simon: «Ez beldur izan, hemendik aurrera giza arrantzale izango zara». Haiek txalupak lehorrera atera zituzten eta, dena utzirik, jarraitu egin zioten.

Ez dakigu zer irudituko zitzaion arrantzale bati (Pedrori) arotz batek (Jesusek) bere arrantzu-ogibideaz irakatsi nahi izatea. Batez ere, Jesusek kasu honetan esaten duenak zentzu handirik ez duelako: inor ez da irtetzen arrantzura egunez. Simonek badaki hori eta, halere, Jesusen

Urteko 22. astea

Santa Regina, *martiria*

esana onartzen badu, ez da arrainik harrapatuko duela uste duelako; soil-soilik, Jesusek esan duelako egin du. Erreakzio horrek konfiantza desberdin baten oinarriak finkatu ditu, non Jesusen hitzek aparteko balioa hartu duten: “Jesusek esanak” direlako. Askotan sentitu ohi dugu aukera batzuk onartzea ez dela arrazoizkoa, nahikoa saiatuak garelako hartan eta, gure ahaleginak, lortutako emaitzak baino askoz ere handiagoak izan direla. Batzuetan, aurrera egitea lortzen badugu, begiak itxi eta emana dugun hitza, “Jesusen” hitza onartu dugulako izaten da.

* * *

Ura ondasun komuna

Ura ondasun komun bezala hartu beharko litzateke, duela 3.800 milioi urte Ludian bizia sortu zeneko sorburu eta habia bezala. Ura ondasun komun publiko da mundu osoan. Biosferaren ondare da eta hil ala bizikoa bizitze-era guztietarako. Urik gabe bizirik ez.

NBEk (Nazio Batuen Erakundeak [ONU]) 2010eko uztailaren 28an deklaratu zuen ezen ur garbi eta segurua, oinarrizko saneamendua bezala, oinarrizko giza eskubidea dela. Baina horrek egitura konplexua eskatzen du ur-bilketarako, kontserbaziorako, tratamendurako eta banaketarako. (*Leandro Sequeiros, Fe Adulta 2021-08-08*)

Mikeasen Profezia liburutik 5, 1-4a.

Honela mintzo da Jauna: «Zu, Efratako Betleem, Judako leinuetan txikiena, zuek aterako da Israelen buruzagia. Aspaldikoa da honen sortzea, betiereko egunetakoa. Horregatik, utzi egingo du Jaunak herria, amak haurra izan dezan arte. Orduan, atzerrian bizirik gelditutako senideak Israelgoengana itzuliko dira. Sendo eutsiko dio eta artzain bizkorra izango da Jaunaren indarrez, Jaunaren bere Jainkoaren izen handiaz. Lasai biziko dira herritarrak; handi agertuko baita hura lurraren mugetaraino, eta bakea ekarriko du».

Sal 12: Pozaren pozez nago Jaunarekin.**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1, 1-16. 18-23.**

Abrahamen eta Daviden ondorengo den Jesu Kristoren jatorri-liburua. Abrahamek Isaak sortu zuen, Isaakek Jakob, Jakobek Juda eta haren senideak; Judak Tamarrengandik Fares eta Zara sortu zituen, Faresek Esrom, Esromek Aram, Aramek Aminadab, Aminadabek Naason, Naasonen Salmon; Salmonek Rahabengandik Booz sortu zuen, Boozek Rutengandik Obed, Obedek Jese, Jese David erregea. Davidek Uriasen emazte izanagandik Salomon sortu zuen, Salomonek Roboam, Roboamek Abia, Abiak Asaf, Asafek Josafat, Josafatek Joram, Joramek Ozias, Oziasek Joatam, Joatamek Akaz, Akazek Ezekias, Ezekiasen Manases, Manasesen Amon, Amonek Josias; Josiasen Babiloniako erbesteratutako Jekonias eta haren senideak sortu zituen. Eta Babiloniako erbesteratutako ondoren, Jekoniasek Salatiel sortu zuen, Salatielek Zorobabel, Zorobabelek Abiud, Abiudek Eliakim, Eliakimek Azor, Azorrek Sadok, Sadokek Akim, Akimek Eliud, Eliudek Eleazar, Eleazarrek Matan, Matanek Jakob; Jakobek, berriz, Jose sortu zuen, Mariaren senarra, eta Mariagandik jaio zen Jesus, Kristo deritzana. Jesu Kristoren sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzeman zegoen eta, elkarrekin

bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, hura isilean uztea erabaki zuen. Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez beldur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ipiniko diozu izena, hark salbatuko baitu bere herria bekatuetatik». Hau guztia Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin gertatu zen: «Begira, birjinak sabelean sortu eta semea izango du, eta Emanuel ipiniko diote izena (Emanuel izen honek “Jainkoa gurekin” esan nahi du)».

Elizak santu askoren heriotza ospatzen du eta data hori *dies natalis* edo jaioteguntzat hartzen du, hots, betiko bizitzan sartutako eguntzat. Alabaina, hiru kasutan soilik, pertsona horien lurreko jaioteguna ere ospatzen du: Jesusena, Joan Bataiatzailearena eta Mariarena hain zuzen ere. Mariaren jaioteguna, Sortzez Garbiaren jai egunetik bederatzi hilabetera ospatzen da eta jaiotegun horrek, Mariaren jai egunetan antzinakoenetakoa izan arren, ez du Biblian sustrairik; honetaz usadioak helarazi dizkigun xehetasunak ebanjelio apokrifoetatik datoz. Elizak Amaren jaiotza Semearen jaiotzaren aurrerakintzat hartzen du, eta behar-beharrezkoa du ospatzea ezen salbamenak giza haragia hartu duela historian, hainbat belaunaldiren jauziak igaro ondoren Galileako emakume batek emandako “bai” erabakigarrian bukatuz. Ume orenen jaiotza Jainkoaren gonbita da, beraz, berarekin bete-beteko bizitzan parte hartzera.

San Paulok Kolosarrei 1, 21-23: Berekin adiskidetu zaituzte Jainkoak, beraren aurrean santu eta errugabe ager zaitezten. **Sal 53:** Nik Jainkoa dut laguntzaile.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 1-5.

Behin batean, larunbatez gari-soroetan barna zihoan Jesus. Eta ikasleak galburuak moztu, eskuetan aletu eta jaten ari ziren. Fariseu batzuek esan zieten: «Nolatan ari zarete, larunbatez zilegi ez dena egiten?». Jesusek erantzun zien: «Ez al duzue irakurri Davidek egin zuena, bera eta beraren lagunak goseak gertatu zirenean? Jainkoaren etxean sartu eta, Jaunari eskainiriko ogiak hartuz, jan egin zituen, eta bere lagunei ere eman zizkien, legez apaizek bakarrik jan zitzaizketen ogiak izanik». Eta esan zien: «Gizonaren Semea larunbataren nagusi da».

Bi modu daude bizitzan bizitzeko: baimenduta dauden eta ez dauden gauzen kodeei soil-soilik obedituz edota arau horiek duten zentzuaz galderak egiteko arriskua hartuz eta hanka sartzeko aukera kontuan hartuz. Jesusek oso ondo daki larunbatean zer egin daitekeen eta zer ez, eta, gainera, ez da etorri Legeak ezabatzerara. Baina Legeak betetzeko beraren era, haien izaera zalantzan jartzeko kokagune bitxi horretatik pasatzen da, beti ere, bidean suertatzen diren pertsonen beharren arabera. Legeak bere onurarako erabiltzen dituen gizon arbitrarioa izatetik urrun, Jesus «larunbataren Jauna da», bere askatasun ukiezinagatik, bere galderak egiteko gaitasunagatik eta ezarritako moldeetan sartzen ez diren erantzunak ematera ausartzeagatik.

* * *

Urteko 22. astea

Arantzazuko Andre Maria

San Pedro Claver, *apaiza, misiolaria, jesuita*

Arantzazuko Andre Mariaren Meza

Judit liburutik 15, 8-10; 16, 13-14. Sal: Lukas 1, 46-54.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 39-47.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi-aldera joan zen, Judeako herri batera, eta Zakariasenean sartu, eta Elisabeti agur egin zion. Elisabetek Mariaren agurra entzun orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nondik niri, neure Jaunaren ama nigana etortzea? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, sinetsi duzulako, beteko baitu Jaunak esan dizuna!». Orduan Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barnea».

Arantzazuko Ama

Gaur ospatzen ari gara Arantzazuko Andre Mariaren, Gipuzkoako Zaindariaren, eguna. Tradizioak dioenez, Rodrigotxok (Baltategi baserrikoak) Andre Mariaren harrizko irudi txiki bat aurkitu zuen, Jesus Haurra besoetan zuela.

«Arantzan zu?», galdetu omen zuen txunditurik. Gaurko festa-egun honetako ebanjelioak garbi esaten digu: fede sakonaz onartu du Mariak Jainkoaren hitza. Elisabeten senar Zakarias ez da fidatu aingeruaren hitzaz; Mariak, aldiz, konfiantza osoa eskaini dio: «gerta bekit zuk diozuna». Arantzazuko Andre Mariaren goratasun betearen ospatzen dugun honetan, goratasun horretarako bidea zein dugun agertzen digu zeruko amak: bihotza besteengana irekitzea da bidea.

Ezekielen Profezia liburutik 33, 7-9.

Honela mintzatu zitzaidan Jauna: «Gizaseme, Israel herriaren begirale izendatu zaitut. Nik esandakoa entzutean, ohartarazi egin behar diezu nire izenean. Gaiztoren bati hilko dela esaten badiot, eta zuk ez badiozu ohartarazten bere jokabidea alda dezan, gaiztoa bere erruz hilko da, baina zuri eskatuko dizut haren heriotzaren kontua. Aitzitik, zuk ohartarazten badiozu gaiztoari, bere jokabidea alda dezan, eta hark ez badu aldatzen, gaiztoa bere erruz hilko da, baina zuk onik aterako duzu zeure bizia».

Sal 94: Entzungo ahal duzue gaur Jaunaren mintzoa: «Ez gogortu zeuen bihotza».

San Paulok Erromatarrei 13, 8-10.

Senideok: Ez izan zorrik inorekin, elkar maitatzekoa baizik, zeren lagun hurkoa maite duenak betea baitu legea. Izan ere, harako «ez egin adulteriorik, ez hil inor, ez ostu, ez gutziziatu» eta beste edozein agindu, esaera honetan biltzen da: «Maita ezazu lagun hurkoa zeure burua bezala». Lagun hurkoa maite duenak ez dio gaitzik egiten. Maite duenak, beraz, erabat betetzen du legea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 15-20.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zure senideak bekatu egiten badu zure aurka, zoaz beragana eta zentzarazi bakarrean. Jaramon egiten badizu, irabazia duzu senidea. Jaramonik egiten ez badizu, berriz, har itzazu zeurekin lagun bat edo bi, auzia bi edo hiru lekukoren aitopenaz erabaki behar da eta. Hauei ere jaramonik egiten ez badie, esaiozu elkarteari, eta elkarteari ere jaramonik egin nahi ez badio, izan bedi zuretzat jentil edo zergalari baten pareko. Benetan diotsuet: zuek mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da,

eta zuek mundu honetan askatua, zeruan ere askatua. Beste hau ere badiotsuet: zuetako bik elkar hartzen badute mundu honetan Jainkoari zerbait eskatzeko, emango die zeruko nire Aitak. Izan ere, nire izenean bizpahiru lagun bilduak dauden tokian, han naiz Ni haien artean».

Gure senideen zaintzaile ote gara bada gu? Gurea den bezalako gizarte geurekoi honetan, non bakoitza berea egitera doan, beste hau esateko joera dugu: “nire senideak bekatu egiten badu... ez da nire kontua”. Jainkoak, ordea, beste era batera arrazoitzen du eta, dirudienez, gu lagun hurkoaren kargu egitea ere itxaro du; ez da, ordea, onarpen-maitasun hutsa, ez, baizik eta hala behar denean, errieta egitea ere bai. Ez da komeni, ordea, “senide-zentzarazpena” deitu ohi den hori era arbitrarioan eta nork bere gogara egindakoarekin nahastea, ongiaren eta gaizkiaren zentzuaren jaun eta jabe geu bagina bezala. Ikaslea halako tentalditik gordetzeko, Jesusek elkartearen bitartekaritza aipatu du. Otoitz egiteko biltzen diren senideak eta beren artean Jauna dagoela antzematen dutenak, abilagoak izango dira hainbat jarreraren bidez, ausardiaz eta karitatez, gaizkiari aurre egiteko. Helburua ez da izango pertsona zigortzea, askoz gutxiago hura umiliatzea, baizik eta hura zabaltzeko gai den on guttia zabaltzen laguntzea. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da onartzea besteen askatasunak ihes egiten digula maiz geure begirada indargabearen aurrean. Izan dezagun itxaropena eta konfiantza konturatzeko, Jaunak badakiela pertsonak besarkatzen eta berak bakarrik ezagutzen dituen bideetatik eramaten.

Tomas Zumarragakoa (Gasteiz 1577 - Japonia 1622),
dohatsua, apaiza, domingotarra eta lagunak, *martiriak*
(Gasteizko elizbarrutian)

San Paulok Kolosarrei 1, 24–2, 3: Jainkoak Elizaren zerbitzari egin nau gizaldietan ezkantuan egona den misterioa zuei adierazteko.
 Sal 61: Jainkoagan nire salbamena eta ohorea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 6-11.

Beste larunbat batez, Jesus sinagogan sartu eta irakasten hasi zen. Bazen han eskuineko besoa elbarria zuen gizon bat. Lege-maisuak eta fariseuak zelatan zegozkion, larunbatez sendatuko ote zuen, zertan salatu izateko. Jesusek, haien gogoetei igarririk, beso-elbarriari esan zion: «Jaiki eta zatoz hona, erdira». Hura jaiki eta zutik gelditu zen. Jesusek esan zien orduan: «Galdera bat: larunbatez zer da zilegi, on egitea ala gaitz egitea, bizia salbatzea ala hondatzea?». Eta, inguruko guztiei begira, esan zion gizonari: «Luzatu beso hori». Hark luzatu zuen eta sendatu egin zitzaion. Lege-maisuak eta fariseuak beren onetik atera ziren eta Jesusi zer egingo ari ziren beren artean.

Gainerako ebanjelariet bezala, Lukasek ere hasi eta berehala azpimarratu du Jesusek judu herriaren buruzagiekin izandako gatazka tonuz igoz doala. Gaurko kasu honetan, Lukas da sinoptikoetako bakarra, xehetasun txiki baina esanguratsu bat aipatu duena: Jesusek larunbatean sendatu duen gizonak, eskuin eskua paralizatuta dauka. Pertsonarik gehienak (lehen gehiago orain baino) esku eskuinaz baliatu izan dira beren eguneroko zereginak egiteko: agurtu, jan, lan egin... Paralisisiak ez du hiltzen gizon hori, baina mendekotasunera kondenatu du eta bere gaitasun guztiak garatzea eragozten dio. On egitea, giza izakiaren gaitasun guztiak berreskuratzeke bidean jartzea da eta eginkizun hori hain da sagaratu, atzerapenik ezin dela onar.

Urteko 23. astea

Estibalziko Andre Maria (*Arabaren Zaindaria*)

San Paulok Kolosarrei 2, 6-15: Jainkoak biziarazi egin zaituzte Kristorekin batera, bekatu guztiak barkaturik. **Sal 144:** Ona da Jauna guztientzat.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburitik 6, 12-19.

Aldi hartan, Jesus mendira joan zen otoitz egitera, eta Jainkoari otoitzean igaro zuen gaua. Eguna argitu zuenean, ikasleei deitu eta haietako hamabi aukeratu zituen, eta apostolu izena eman zien: Simon –honi Pedro izena ezarri zion– eta honen anaia Andres, Santiago, Joan, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago Alfeorena, Simon –Zelote zeritzana–, Judas Santiagorena eta Judas Iskariote, Jesusen saltzaile izan zena. Jesus ikasleekin menditik jaitsi eta zelaigune batean gelditu zen. Ikasle-multzo handia zen harekin; baita herriko jendetza ugaria ere, Judea osotik, Jerusalemdik eta Tiroko eta Sidongo itsasaldetik etorria, hari entzutera eta beren gaitzetatik sendatzera. Espiritu gaiztoek oinazetuak sendatu egiten ziren. Jende guztiak Jesus ukitu nahi zuen, halako indar bat baitzerion, denak sendatzen zituen.

Jesus otoitzean zaildutako gizona da eta Lukasek arreta berezia jarri du haren alde hori erakusten. Sinoptikoen artean, Lukas da bakarra dioena, ikasleei dei egin eta Hamabiak hautatu aurretik, Jesusek gaua otoitzean igaro duela. Agian horregatik daramatza bihotzean eta dei egin die, beraien aurpegiak eta beraien izenak lehenagotik dituelako bihotzean bere Aitarekin sakonki barneratuta egon denean, Jesusek otoitz-era berezia bizi du, bere misio-egintza hornitzen diona eta hartara kitzikatzen duena; horregatik daki, bai mendira igotzen, bai lautadara jaisten, bai gaua beilan igarotzen eta egunez sendatzen; hitz batean esanda, Aitaren hitza entzuten eta sufritzen duen gizateriaren mina sentitzen. Bizimodu osoaren bateratze hori, beti eskatzen jarraitu beharko genukeen dohaina da.

* * *

Urteko 23. astea

Estibalizko Andre Maria (*Arabaren Zaindaria*)**Estibalizko Andre Mariaren Meza**

Sirak 24, 1-2.5-6.12-16.26-30: Maria, jakinduriaren aulkia. Sal: 1 Samuel:
Jauzika daukat bihotza Jaunagan, nire Salbatzaileagan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 39-47.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion. Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna betekoa dela sinetsi duzulako!».

Mariak esan zuen:

«Handiesten du nire arimak Jauna,
pozaren pozez daukat neure barrua,
Jainkoa baita nire salbamera,
ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna.

Estibalizko Andre Maria

Estibalizko santutegiaren lehenbiziko albiste idatzia 1074koa da, Estibalizko Jaun edo Kondeak elizako eskuineko aldea Donemiliaga Kukulako (Errioxa) monasterioari emate-agirian. Sortzez, bertako jaunaren otoitz-leku izango zen santutegia. XII-XVI mende artean joera eta debozio handia zion Arabako herriak Estibalizko santutegiari. Bi jai nagusi izan ohi ziren Estibalizen: Jainkoaren Semearen Gizakundekoa –gehienetan Garizuman izaten denez, maiatzaren 1ean ospatu ohi zuten– eta iraileko igande batean,

Urteko 23. astea

Estibalziko Andre Maria (*Arabaren Zaindaria*)

ziur aski Estibalziko Andre Mariari uztarengatik eskerrak emateko. 1608an Frantziskotarrek beren ardurapean hartu nahi izan zuten Estibalziko santutegia, eta Gasteizko Udalak baimena ere eman zien; baina ez zuten antolatu anaidirik. XIX. mendeko gerrateak zirela eta, santutegi oineko Villafrancako parrokiara jaitsi zuten Andre Mariaren irudia. XX. mendean berpiztu eta indarberritu egin zen Estibalziko joera eta debozioa, batez ere 1906an santutegia eraberritu eta urriaren 21ean Andre Maria berriz ere hara igo zutenez geroztik. 1915ean aldare nagusi berria sagaratu zuen apezpikuak. 1923az geroz, antzina kaperauarena zen etxea handiturik, beneditar lekaide-taldea kokatu zen Estibalizen. (*Dionisio Amundarain*).

* * *

Estibalziko Andre Mariaren Gorazarrea

Estibalziko Ama maitea: / Izar eder eta zeruko atea:

Pozturik agurtzen zaitugu, / pozturik agurtzen zaitugu.

Goratua zu zeru gaiñean, / bedeinkatua lur zabalean.

Agur zuri, biotzez Agur! / Ama maite, biotzez Agur!

1. Arabako lurretan / sinismen gaztelu bat / zeruak eman zion / Euskalerrinari. / Ordutik, Ama maite, / izan zera guretzat / zoritxar-illunpetan / izar ditzizari.

2. Arriagako Batzar / Nagusietarako / Zu jeitxi oi zinduten / San Juan bezperan; / Argatik dira gure / Oitura eta Legeak / ain garbi: Zuri eskutik / artuak aukeran.

(*Errepika Lekuonatarrena omen: osaba-ilobena, eta bertsoak Nemesio Etxanizenak*)

Urteko 23. astea

San Joan Krisostomo, *gotzaina eta eliz irakaslea*

San Paulok Kolosarrei 3, 1-11: Kristorekin hil zarete. Hil ezazue, beraz, zeuen gorputzean lurkoi den guztia. **Sal 144:** Ona da Jauna guztientzat.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 20-26.

Aldi hartan, Jesusek, ikasleei begira, esan zien: «Zorionekoak behartsuok, zuena baita Jainkoaren erreinua. Zorionekoak orain gose zaretanak, aseko baitzaituzte Jainkoak. Zorionekoak orain negar egiten duzuenok, barre egingo baituzue. Zorionekoak zuek, Gizonaren Semea dela-eta jendeak gorrotatu, beren artetik bota eta madarikatuko zaituztetenean eta izen txarra emango dizuetenean. Alaitu zaitezte egun horretan eta egin pozez jauzi, handia izango baita zuen saria zeruan; gauza bera egin zieten profetei jende horren gurasoek. Baina ai zuek, aberatsok, bai baituzue zeuen poza. Ai zuek, orain aseak zaudetenok, gose izango baitzarete. Ai zuek, orain barre egiten duzuenok; aiene eta negar egingo baituzue. Ai zuek mundu guztiak zuetaz ondo hitz egingo duenean, gauza bera egin baitzieten sasiprofetei jende horren gurasoek».

Zoriontasunez Lukasek ematen duen ikuspegiak, oso interesgarriak eta bere-bereak diren ñabardurak ditu. Lukasek zoriontsu deitzen die behartsuei, besterik gabe, gosea eta egarria dutenei, alegia. Beharbada, konfiantza edo lotura handiegia diegu ondasun batzuei, Jesusek esandako hitz hori guretzat ere badela sentitu ahal izateko. Lukasek –“errukiaren ebanjelari” deituak–, gorde nahi izan dituen “zorigaitzez” geure buruari galderak egin beharra dugu, agian. Gure bizitzako zein gune daude hain beteta eta aserik, Jaunaren goserik eta egarrikerik ere ez sentitzeko? Zein egoeratan onartzen dugu profeta faltsuen jarrera, mundu guztiarekin ondo gelditzea bilatuz? Muin-muinean, ez ote gara hain aberatsak, Jainkoaren kontsolamendurik ere ezertarako ez behar izateko?

Urteko 23. astea

JURUTZE SANTUAREN GORAPENA

Jerusalemeko San Alberto, *gotzaina*

Zenbakiak liburutik 21, 4b-9.

Egun haietan, herria, bidez gogaituta, gaizki esaka hasi zen Jainkoaren eta Moisesen aurka: «Zertako atera gintuzun Egiptotik? Basamortuan hiltzeko? Ez dugu ogirik, ez urik, eta asperturik gaude mana delako janari kaskar honekin». Jaunak suge pozoitsuak bidali zizkion herriari, eta haien ziztadaz israeldar asko hil zen. Orduan, Moisesengana joan eta esan zioten: «Bekatu egin dugu, Jaunaren eta zure kontra gaizki esaka jardunez. Erregutu Jaunari sugeak gugandik urruntzeko». Erregutu zuen Moisesek herriaren alde, eta Jaunak esan zion: «Egizu brontzeko sugea eta ipini haga baten muturrean. Sugeek zizta egindako guztiak, brontzeko sugeari begiratzean, sendatu egingo dira». Egin zuen Moisesek brontzeko sugea eta hagaren muturrean ipini zuen. Eta sugeren batek norbaiti zizta egiten zionean, brontzekoari begiratzean sendatu egiten zen.

Sal 77: Ez ahaztu Jaunaren egintza handiez.

San Paulok Filipoarrei 2, 6-11.

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik, ez zion gogor eutsi Jainkozko bere mailari; bestela baizik, zegokion aintza utzi eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Eta gizaki bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, menpeko eginez heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino. Horregatik, denen gaisetarik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion, Jesusen izenaren omenez denen belaunak makur daitezen, zeruan, lurpean eta lurpean, eta mihi guztiarik aitor dezaten Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitaren aintzarako.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3, 13-17.

Aldi hartan, Jesusek esan zion Nikodemori: «Ez da inor zerura igo zerutik jaitsi zena baizik, Gizonaren Semea. Moisesek basamortuan

Urteko 23. astea

GURUTZE SANTUAREN GORAPENA

Jerusalemeko San Alberto, *gotzaina*

brontzeko sugea altxatu zuen bezala, hala izan behar du altxatua Gizonaren Semeak, harengan sinesten duten guztiek betiko bizia izan dezaten. Izan ere, hain maite izan zuen Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinesten duen inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan. Jainkoak ez baitzuen bere Semea mundura bidali mundua kondentzera, haren bitartez mundua salbatzera baizik».

Gurutze Santuaren gorespen-jaiak, Elizak oso antzinatik ospatzen duenak, gaur egun ikuspegi berri bat behar du bere benetako zentzu sakona hartu ahal izateko. Kristauok ez gara tortura-tresna bati liluratuta eta harrapaka begira egoteko bezain masokista; behin ere ez litzaiguke burutik pasatuko aulki elektrikoa gurtzea. “Gurutzea” esaten dugunean, kristauok Gurutziltzatua ikusten dugu, munduaren mina bere gain hartu zuena eta maitasunarekin min hori bizi- eta salbamenturri bihurtzeko gai izan zena. Senideak gurutzean hiltzen dituzten gurutze guztien aurkako borrokan, guztiok Aitagana eramateko, «gutako bat gehiago» bihurtu zen Seme bakar horrek azken mugaraino maite izan gaituela sentitzetik sortzen da gure indarra.

Urteko 23. astea

DOLORETAKO ANDRE MARIA

San Paulok 1 Timoteori 1, 1-2.12-14: Ni lehenago biraolari izan nintzen, baina nitaz errukitu egin zen Jainkoa. **Sal 15**: Zu zara, Jauna, nire ondarea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 39-42.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Izan ote daiteke itsua itsuaren gidari? Ez ote dira biak zulora eroriko? Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago, baina ondo eskolaturiko ikaslea bere irakaslea adinako izango da. Nolatan ikusten duzu senidearen begiko lasto-izpia eta zeure begiko habeaz ohartzen ez? Nolatan esan diezaiokezu senideari: “Adiskide, uztazu begian duzun lasto-izpia ateratzen”, zuk zeurean duzun habea ikusten ez duzula? Itxurazalea halakoa! Atera lehenik zeure begitik habea, eta orduan ikusiko duzu garbi, senidearen begitik lasto-izpia ateratzeko»

Gurutziltzatuari begira egon ondorengo egunean, Elizak Andre Maria oroitzen du, bere Semeari azkeneraino jarraitu zion emakume gisa oroitu ere: bere minak fiat edo egin bedi zorrotz eta ilun batekin partekatze prest orduan ere. Andre Mariak, Jesusen heriotza ekidin ezin izan zuen arren, bizia nola lapurtzen zioten ikusteko trantzeari eutsi zion, bere ezintasunetik eutsi ere egoera horri. Gaur egungo gure mundu zauritu honetan, biktimen atzean, sarritan Maria asko ezkututzen dira, sufritzen duten pertsonen alboan “egoten” baizik ez dakitenak eta minak kendu nahi dien duintasuna beren begiradarekin bikain gordetzen dutenak. Norbaiten alde jada ezer ezin dugula egin dirudienean, oraindik ere haren aurrean egotea aukera dezakegu, munduak ezertarako balio ez dugunak garelako uste izan arren.

* * *

Neurtitza (Doloretako Andre Mariarena)

Zutik, gurutze ondoan, / Ama samina zegoan, / eta Semea zintzilik. /
Haren arimaren mina!, / zazpi ezpatek egina, / han zegoen larririk.

Hain estu eta atsekabea, / Seme bakardun Andrea, / Ama
bedeinkatua! / Oinazez eta atsekabez, / Seme kutunaren lanez / zegoen
kupitua.

Nork ez du negar egingo, / Jesusen Ama halako oinazez ikusita? /
Ama-semeak ikustean / biak oinaze berean / elkarrekin josita?

Bazekien beretarren / erruz zutela zigortzen / Jesus, bere maitea. /
Inortxok ere ez laguntzen, / eta azken arnasa ematen / han zekusan Semea.

Hots, Ama, maite-iturri, / zurekin oinaze bizi / har dezadan egizu.
/ Sutu Kristoren maitean / bihotz hau, eta haren aurrean / eder egin
nazazu.

Ama, nire bihotzari / Kristoren zauriak jarri, / otoi, mami-mamian. /
Seme horren neke-lanak / erdiz bidal niregana, / maite nauen sarian.

Zurekin negar bizian / naukazu, eta haren zorian, / hil nadin
arteraino. / Zurekin gurutze ondoan / lagunduz, negar malkoan /
nagon bizi naizeino.

Birjinetan ederrena, / zakizkit samurrena, / niri negar eragin. /
Kristoren neke-herio / zauriak hartzeko, bihotz / hau adoretu egin.

Zauri ni zeure zauriez, / zora ni zeure odolez, / gurutze-iturripean. /
Sugarrez erre ez nazaten / nire alde jarri, arren, / Ama azken egunean.

Hemendik irtetekoan, / Amaren bidez ni noan, / Kristo, garaipenera. /
Nire gorputz hau hiltzean, / arima doala hegan / zeruko pozetara. Amen.

Urteko 23. astea

San Kornelio, *aita santua* eta San Zipriano, *gotzaina, martiriak*

San Paulok 1 Timoteori 1, 15-17: Bekatariak salbatzera etorri zen Kristo Jesus mundura. **Sal 112:** Bedeinkatua izan bedi Jaunaren izena, orain eta beti.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 43-49.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez da zuhaitz onik fruitu txarra ematen duenik, ezta zuhaitz txarririk ere fruitu ona ematen duenik. Bere fruituetatik antzematen zaio zuhaitzari; elorritik ez da pikurik biltzen, ezta sasitik mahatsik hartzen ere. Ona denak ona ateratzen du bere barneko ondasun-altxorretik, eta gaiztoak gaitza bere gaiztakeri altxorretik; ahoak esan, bihotzari gainezka dariona esaten baitu. Zergatik esaten didazue “Jauna, Jauna!” eta ez duzue egiten esaten dizuedana? Erakutsiko dizuet noren antzeko den nigana etorri eta nire hitzak entzun eta betetzen dituen: etxea eraikitzean, zulatu, sakondu eta zimenduak harkaitzean hartu zituen gizonaren antzekoa da. Uholdea gertatzean, jo zuen ur-boladak etxea, baina ezin izan zuen dardararazi, sendo eraikia baitzegoen. Entzun bai, baina betetzen ez dituen, berriz, etxea lur gainean, zimendurik gabe, eraiki zuen gizonaren antzekoa da. Jo zuen ur-boladak eta berehala erori zen eta erabat porrokatua gelditu».

Jesusek hemen konparazio bat erabili du; horren bidez, ondo adierazten du bere *tékton* edo lanbidearen ezagutza: ebanjelioek *tékton* terminoaz definitzen dute Jesusen gaztaroko ofizioa; ez hainbeste zura soilik lantzen duen arotzarena, ez eta gaur egungo esanahia duen artisaureaua ere, baizik eta eraikuntza-lanetan diharduen pertsonarena. Jesusek ondo daki, noski, etxe bat eraikitzeko sendotasuna duen lurzorua aukeratu behar dela eta zimendu sendoak eraiki behar direla. Jesusi jarraitzea ez da “Jauna, Jauna” esatea, geure bizitza beraren hitzean finkatzea baizik, ekaitzak etxea eraistea lor ez dezan eta gu eraits ez gaitzan. Baina lan hori ezin dugu burutu geure indar soilez; gainera, ez dugu amaituko berarekin topo egiten dugun une erabakigarria iritsi arte. Bitartean... *people in progress!* herria garabidean!

Urteko 24. astea

San Roberto Belarmino, *gotzaina eta eliz irakaslea, jesuita***Siraken liburutik 27, 33–28, 9.**

Amorrua eta haserrea higuingarriak dira; horietan maisu da gizon bekataria. Mendekatzen denak Jaunaren mendekua jasan beharko du, bekatuen kontu zorrotza hartuko dio. Barkatu lagun hurkoari egin dizun iraina, eta, zuk erregutzean, barkatuko dizkizu Jainkoak ere zeure bekatuak. Gizaki batek, amorrua badio beste bati, nolatan eska diezaiokie Jaunari osasuna? Bere kidekoarentzat errukirik ez duenak, nolatan eskatuko du bere bekatuen barkamena? Gizaki huts besterik ez denak amorruari eusten badio, nork lortuko dio bere bekatuen barkamena? Gogoratu amaiera eta egin uko gorrotoari; gogoratu ustelkeria eta heriotza, eta jarraitu leial aginduei. Gogoratu aginduak, eta ez izan gorrotorik lagun hurkoari; oroitu Goi-goikoaren itunaz, eta ez hartu iraina kontuan.

Sal 102: Bihozbera eta errukiorra da Jauna, haserregaitza eta onginahiz betea.**San Paulok Erromatarrei 14, 7-9.**

Senideok: Gutako inor ez da beretzat bizi, ezta beretzat hiltzen ere. Bizi bagara, Jaunarentzat gara bizi, eta hiltzen bagara, Jaunarentzat gara hiltzen. Beraz, nahiz bizi nahiz hil, Jaunarenak gara. Honetarako hil eta piztu zen Kristo: hildakoen eta bizien Jauna izateko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 21-35.

Aldi hartan, hurbildu zitzaion Pedro Jesusi eta galdetu zion: «Jauna, nire senideak bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?». Jesusek erantzun zion: «Zazpi aldiz ez, baizik eta zazpitan zazpi mila aldiz. Hain zuzen, bere morroiekin kontuak garbitu nahi izan zituen erregearekin bezala gertatzen da zerueta erreinuarekin. Kontuak garbitzen

Urteko 24. astea

San Roberto Belarmino, *gotzaina eta eliz irakaslea, jesuita*

hastean, dirutza izugarria zor zion bat ekarri zioten. Eta nondik ordaindurik ez baitzuen, bera eta emaztea, seme-alabak eta zituen guztiak saltzeko agindu zuen nagusiak, zorra ordaintzeko. Morroiak, orduan, nagusiaren oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadazu astia eta dena ordainduko dizut”. Nagusiak, errukiturik, dena barkatu eta libre utzi zuen morroia. Baina morroi hark berak, atera orduko, diru apur bat zor zion bere morroi-lagunarekin topo egin zuen, eta, lepotik heldu eta ito beharrean, esan zion: “Ordainiezadak zor didaana”. Lagunak, oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: “Emadak astia eta dena ordainduko diat”. Baina besteak ezetz, eta joan eta kartzelan sartu zuen, zorra ordaindu arte. Beste morroiak, gertatua ikusirik, biziro atsekabetu ziren, eta nagusiagana joan eta gertatuaren berri eman zioten. Orduan, nagusiak morroiari deitu eta esan zion: “Morroi gaizto hori! Horrenbesteko zorra barkatu diat nik, eskatu didaalako; ez al zen bidezkoa hi ere heure morroi-lagunaz errukitzea, ni hitaz errukitu nintzen bezala?”. Eta nagusiak, haserre bizian, borrheroen esku utzi zuen, zor guztia ordaindu arte. Zuei ere gauza bera egingo dizue zeruko nire Aitak, senideok elkarri bihotzez barkatzen ez badiozue».

Barkamena funtsezko jarreretako bat da giza bizitzan; izan ere, etengabe gaude guk besteak zauritzeko edo geu haiek zauritzeko trantzean. Batzuetan erruduntzat jotzen dugu geure burua, dena ahaztu eta hutsetik abiatzea lortzen ez dugulako; baina benetako barkamena ez datza gauzak ahaztean, baizik eta bake-jarrerarekin gogoratzean. Jainkoaren maitasuna soilik da baldintzarik gabea, barkamena eskatzen dugun bakoitzean kontagailuak hutsean jartzeko gai dena. Gure maitasuna, berarenaren antzekoa izateko helburua duena, ez da, ordea, horren urrun iristen eta ez du kaltearen oroimena hain erraz ahazten. Barkatzea, guretzat, prozesu luze eta landua da eta sarritan laguntza behar izaten dugu horretarako. Zauria topatu egin behar da, izendatu, bertan sortzen diren sentimenduei irteten utzi (haserre,

Urteko 24. astea

San Roberto Belarmino, *gotzaina eta eliz irakaslea, jesuita*

amorrua, tristura, zuzengabekeria); min eman diguten arren, bizirik jarraitzen dugula sinetsi eta adierazi, jasotako ikasgaia agertu, bidea egiten jarraitzeko indarrak berreskuratu, eta arazo osoaz jabetu izana eskertu. Orduan, eta orduan soilik, atera ahal izango dugu erasotzailea geure bihotzaren kartzelatik eta pertsona gisa bizi izaten utziko diogu berriz ere, agian gugandik distantzia batera... Izan ere, barkamenaz, batzuetan, kaltegilea geure barnean bedeinkatu arren, geure bizitzatik urrun samar uztera pasatzen gara.

* * *

Montepulzianon, Etrurian (Italia), jaiotzen zen 1542an Roberto, eta Jesusen Lagundian 1660an sartu zen. Erromatar Ikastetxeko irakasle eta errektore izan zen eta Napoliko Probintzia-buru; beste zenbait kargu ere bete zituen Lagundian guztien txaloarekin. Teologiako eta espiritu-gaiari dagozkion obra bat baino gehiago egin zuen. Horien artean «Dotrina cristiana» eta «Disputationes de controversiis fidei» azpimarra ditzakegu. 1599an kardinal egin zuten, eta 1602-1605 Capuako artxi-elizbarrutiko buru izan zen. Erromara itzulirik, garrantzi handiko gaietan Erromako Gotsainaren aholkulari izan zen, eta han bertan hil zen 1621ean. Pio XI.ak 1930ean santu deklaratu zuen, eta hurrengo urtean Pio berak eliz irakasle izendatu.

Karlos Eraña (*Arexabaleta 1884 – Ciudad Real 1936*),
marianista, Fidel Fuidio eta Jesus Hita, *dohatsuak, erlijioso*
eta martiriak. San Jose Kupertino-koa, *frantziskotarra*

San Paulok 1 Timoteori 2, 1-8: Egin oitutz Jainkoari gizaki guztien alde, gizaki guztiak salbatzea nahi baitu berak. **Sal 27:** Bedeinkatua Jauna, entzun baitu nire erregu-oihua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7, 1-10.

Aldi hartan, Jesus, herriari egindako hitzaldia amaiturik, Kafarnaumen sartu zen. Bazen han erromatar ehuntari bat, eta honek morroi bat zuen, oso maitea; morroia gaizki zegoen, hiltzorian. Ehuntariak, Jesusen berri entzunik, judu buruzagi batzuk bidali zizkion, morroia sendatzera etortzeko erreguaz. Haiek, Jesusengana joanik, arren eta arren eskatu zioten: «Merezi du Zuk hori egitea, maite baitu gure herria eta berak egin digu sinagoga ere». Jesus haiekin joan zen. Etxera hurbilduxea zela, lagun batzuk bidali zizkion ehuntariak, esatera: «Ez hartu nekerik, Jauna, ni ez bainaiz inor Zu nire etxean sartzeko. Horregatik, ez naiz ausartu neu zugana joaten; aski duzu hitz bat esatea, nire morroia sendatzeko. Nik ere, neu besteren mendean egon arren, soldaduak ditut neure mendean, eta bati joateko agintzen badiot, joan egiten da; beste bati etortzeko agindu, eta etorri; eta nire morroiari zerbait egiteko esan, eta hala egiten du». Hau entzutean, Jesus harritu egin zen hartaz eta, ondoren zetorkion jendeagana itzulirik, esan zuen: «Egia esan, Israelen bertan ere ez dut aurkitu horrelako sinesmenik». Mandatariak etxera itzuli zirenean, sendatua aurkitu zuten morroia.

Judu zaharrek erromatarren ehuntariaren alde erregutzen diote Jesusi, merezi duela uste baitute. Eta Jesusek entzun die. Ehuntaria bera, aldiz, ez da horretarako duin sentitu, baina Jesusek hari ere entzun dio. Zaharrek ehuntariak egin dienagan jarri dute meritua: sinagoga bat eraiki die. Interesatuak, berriz, Jesusekin neurtu du bere burua; horregatik aitortu du umiltasun handiz: «ni ez naiz inor zu nire etxean sartzeko». Jesusekin duen harremanean, ez dago balio duen

Karlos Eraña (*Aretxabaleta 1884 – Ciudad Real 1936*),
marianista, Fidel Fuidio eta Jesus Hita, dohatsuak, erlijioso
eta martiriak. San Jose Kupertino-koa, frantziskotarra

meriturik, ekimena Jesusena baita, eta fruituak eta denborak ere bai. Erreinuaren aldeko lanean ere ez du merituaren logikak parte hartzen; misioa ematen zaigun dohaina da eta nola ez dakigula handitzen da. Sarritan “urrunenik” daudenak dira ezkutuko jakinduria hori irakasten ditugutenak.

* * *

Karlos Eraña eta lagunak

Karlos 1884-11-04an jaio zen Aozarazako «Otala» baserrian (Gipuzkoan). 1899an, 14 urterekin, Eskoriatzako marianisten seminarioan sartu zen, beste lagun batzuk bezala. Maisu-titulua lorturik, Ordiziako ikastetxera destinatu zuten 1904an. 1908an egin zuen behin betiko profesioa. Madrilgo Nuestra Señora del Pilar ikastetxera destinatu zuten. Zenbait ikastetxetako zuzendari ere izan zen. 1936-07-16an errepublikar ezkertiarrek ikastetxean sartu eta fraide guztiak bota zituzten; ahal zuenak ahal zuen lekura jo zuen: ostatueta, ezagunen etxeetara. Atxilotzeko bila zebilizkiola eta, Ciudad Real-era jo zuen, eta kongregazioko kide batzuei lagundu ahal izan zien. Irailaren 6an, hala ere, zegoen ostatura milizianoak etorri eta atxiloturik eraman zuten Karlos Eraña. Irailaren 18an, egunsentian, zortzi lagun, ukalondotik elkarri loturik, atera, kamioira igoarazi eta hiritik kanpora atera zituzten. Bide bazterrean fusilatu zituzten denak.

Urteko 24. astea

San Jenaro, *gotzaina eta martiria*

San Paulok 1 Timoteori 3, 1-13: Gotzainak akatsik gabea izan behar du; diakonoek ere sinesmenaren misterioa bihotz garbian gordetzen dutenak. **Sal 100:** Bihotz errugabez ibiliko naiz.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7, 11-17.

Aldi hartan, Nain izeneko herrira joan zen Jesus, bere ikasleak eta jende asko lagun zituela. Herriko sarrerara hurbildu zenean, hildako bat, ama alargun baten seme bakarra, zeramaten lur ematera. Herriko jende asko zihoan amarekin. Hau ikustean, errukitu egin zitzaion Jauna eta esan zion: «Ez egin negarrik!». Hurbildurik, hilkutxa ukitu zuen, eta zeramatenek gelditu egin ziren. Orduan, esan zuen: «Gazte, zuri diotsut: Jaiki!». Jaiki zen hildakoa eta hizketan hasi, eta Jesusek amari eman zion. Beldurrak hartu zituen denak eta Jainkoa gorensten zuten, esanez: «Profeta handia sortu da gure artean». Eta hau ere bazioten : «Jainkoa bere herria salbatzera etorri da». Judea eta inguruko lurralde guztian zabaldu zen gertaera honen berri.

Tenpluko alargunak bi txanpon baino ez zituen eta biak eman zituen; Naingo alargunak seme bakarra du eta hura ehorztera doa. Bi emakume horiek, beren mutur-muturreko beharrizanean, Jesusen arreta piztu dute eta honen begiradak beste batzuei ihes egiten dizkien errealitatearen ertzak ikusi ditu. Alargun honek ez du ezer eskatzen, Jesus ez du ikusi ere ikusi; Jesus da alarguna ikusi duena eta haren negarra entzun duena; beraz, sentibera jartzen da eta egintzari ekin dio. Gaztea bizitzara itzultzea, heriotzak apurtutako harremanak berriro ezartzea da eta haren amari gizartean bizitzeko jarraipena ematea. Jesusek egiten duen keinu honetan, jendeak ikusi du Jainkoak bere herria bisitatu duela. Izan ere, Jainkoa biziaren laguna da, negarmalkoen zurrumurrua entzuten duena eta haiek nola gozatu dakiena.

Urteko 24. astea

San Andres Kim Taegon, *apaiza*, San Paulo Chong Hassag eta lagunak, *martiriak* (Koreako *martiriak*).

San Paulok 1 Timoteori 3, 14-16: Handia da gure erlijioaren misterioa.
Sal 110: Jaunak eginak handi dira.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 7, 31-35.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Norekin konparatuko nuke gizaldi honetako jendea? Noren antzekoa da? Plazan eserita dauden haurren antzekoa da, honela oihu egiten baitiete batzuek besteei: “Soinua jo dizuegu, eta zuek dantzarik ez; hiletak jo, eta zuek negarrik ez”. Izan ere, etorri da Joan Bataiatzailea, ez ogirik jan ez ardorik edan egiten ez zuela, eta deabruak hartua dagoela esaten duzue. Etorri da Gizonaren Semea, jaten eta edaten duela, eta honela diozue: “A zer tripazaina eta mozkorra, zergalari eta bekatariak adiskidea”. Baina bera onartzen dutenek arrazoi eman diote Jainkoaren jakinduriari».

Jesus oso gomendagarria ez den fama hartzen ari da: jatuna, mozkorra eta lagun txarrekin dabilena. Modu batean esanda, gizatiarregia. Itxuraz behintzat oso antz gutxi du orbanik gabeko izena duen Joan Bataiatzailearekin. Alabaina, arrazoi desberdinengatik, ez bata eta ez bestea dira profetatzat onartuak. Egia esan, geure eskemetan kokatzen garenean, ezer ez zaigu komenigarria eta nahikoa iruditzen, eta zalantzan jartzen gaituenetik ihes egiten ahalegintzen gara, bizimodu lasaia eta asaldurarik gabea egiten jarraitzeko. Baina, ez dantza egiteko eta ez negar egiteko gai ez bagara, benetan bizirik ote gaude?

Urteko 24. astea

SAN MATEO, APOSTOLUA ETA EBANJELARIA

San Jonas, *profeta***San Paulok Efesoarrei 4, 1-7.11-13.**

Senideok: Nik, Jaunagatik preso nagoen honek, eskatzen dizuet, bizi zaitezte hartu duzuen bokazioari dagokionez. Izan beti apal, otzan eta jasankor, elkar maitekiro eramanez. Saia zaitezte Espirituak sortzen duen batasunari eusten, bakearen lokarriz. Bat bakarra da gorputza eta bat bakarra Espiritua, Jainkoak egin dizuen deiari dagokion itxaropena ere bat bakarra den bezala. Bat bakarra Jauna, bat bakarra sinesmena, bat bakarra Bataioa; bat bakarra guztien Jainkoa eta Aita, guztien gainetik dagoena, guztien bidez ari dena eta guztiengan bizi dena. Gutako bakoitzak Kristok eman nahi izan dion neurrian hartu du dohaina. Berak apostolu egin zituen batzuk, beste batzuk profeta, beste batzuk Berri Onaren hotsegile, beste batzuk artzain eta irakasle; horrela gai egiten ditu fededunak beren zerbitzu-lanerako eta Kristoren gorputza eraikitzeko, harik eta guztiok Jainkoaren Semearen sinesmen eta ezagutza berberak izatera iritsi arte, heldutasun beteko pertsona, Kristoren betetasunaren neurriko pertsona, izatera iritsi arte.

Sal 18: Lurbira guztira zabaltzen da haien hotsa.**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 9-13.**

Aldi hartan, Jesusek, bidez zihoala, Mateo zeritzan gizon bat ikusi zuen zergak biltzeko mahaian eseririk, eta esan zion: «Jarraitu niri». Mateok zutitu eta jarraitu zion. Geroago, Jesus mahaian zegoen Mateoren etxean; beste zergalari eta bekatari asko ere etorri eta mahaian eseri ziren Jesusekin eta honen ikasleekin. Fariseuek, hori ikustean, esan zieten ikasleei: «Nolatan jaten du zuen Maisuak zergalariekin eta bekatariekin?». Hori aditzean, Jesusek esan zien: «Ez dute osasundunek sendagile beharra, gaixoek baizik. Hobe zenukete Jainkoak esandako honetaz jabetuko bazinete: “Nahiago dut errukia sakrifizioak baino”. Ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik».

Jesus hor doa bidean baina ez dabil ibiltze hutsagatik. Horregatik hautematen ditu errealitatearen hainbeste xehetasun. Ibitzean, guk ikustea eta begiratzea ere nahi ez genituzkeen hainbat gauza ikusten ditu Jesusek. Oraingoan, halabeharrez, «Mateo izeneko gizon bat ikusi du». Gainerakoentzat publikano mespretxagarria da soil-soilik, Jesusentzat bere izena duen pertsona da. Begiratzen ahal zaion eta, are gehiago, dei egin ere deitzen ahal zaion pertsona da. Mateo bere bizitzaren erosotasunean ederki eserita zegoen, baina Jesusen hitzak zutik jarrazazi du bere duintasunean, eta bizi berri bati ekiteko gai sentitzen da. Horren ondorioz, altxatu eta orain arte ezagutu duen bidearekiko oso desberdina den beste bide bat hartu du, erabakimen osoz. Jesusen begiradak geure balioa azaltzeko eta ustekabeko etorkizuna irekitzeko gaitasuna du.

* * *

San Mateo apostolu eta ebanjelaria

Kafarnaumgoa zen Mateo (arameeraz Mathai, Jainkoaren dohaina). Markosek eta Lukasek diote «Lebi» zuela izena, Alfeoren semea zela (Mk 2, 14). Beste apostolu bat ere, Jakue (Santiago), Alfeoren seme zela dio Markosek (12, 8); baliteke biak anaiak izatea. Hierapolisko Papiasek (95-165) dioena –lehenengo ebanjelioaren idazlea Mateo dela eta arameeraz idatzia dela (agian, 42. urtean)– aipatzen du Eusebio historialariak. Lebi/Mateo zergalaria zen, juduen artean gaizki ikusia; baina Jesusek dei egin zionean, berehala dena utzi eta jarraitu zion (Mt 9, 9). Idatzi apokrifoez diotenez, Pertsian edota Etiopian ibili zen Mateo ebanjelioa hots egiten, eta hango erregea eta haren alaba Efigenia kristautzea lortu zuen; hurrengo erregeak, Hitarkok, ordean, Mateo hiltzeko agindu eta ezpataz hil zuten.

Urteko 24. astea

Frantziska Amezual (*Abadiño 1881*), Justa Maiza (*Ataun 1897*), Kontxi Odriozola (*Azpeitia 1882*), Klara Ezkurra (*Arrasate 1896*), Feliziana Uribe (*Muxika 1893*),*

San Paulok 1 Timoteori 6, 2c-12: Zu, Jainkoaren gizon hori, saia zaitez justizian. **Sal 48:** Zorionekoak gogoz behartsu direnak, berena baitute Jainkoaren erreinua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8, 1-3.

Aldi hartan, herriz herri eta auzorik auzo ibili zen Jesus, Jainkoaren erregetzaren Berri Ona hots egiten. Berekin zituen Hamabiak, baita espiritu gaiztoetatik eta gaitzetatik sendatua zuen zenbait emakume ere: Maria Magdalena –honengandik zazpi deabru bota zituen–, Joana –Herodesen etkezain Kusaren emaztea–, Susana eta beste asko; hauek beren ondasunez laguntzen zieten Jesusi eta honen ikasleei.

Txatal hauei arreta apur batez erreparatzen badiegu, irudi harrigarri bat atzemango dugu. Jesusekin, beraren ingurune hurbileneko bezala, Hamabiak eta emakume-talde handi bat –hauetako batzuen izenak soilik ezagutzen ditugu–, eskura dutenarekin laguntzen diotenak ageri dira. Gizonak bezalaxe, emakumeak ere, ikasle dira, Jesusek deituak eta berak bidaliak. Baina bada alde nabarmen bat, gero nekaldiko ordu garrantzitsuenetan atzemango dena: Hamabiek beren mugen kontzientziarik ez dute eta edozer gauza egiteko gai sentitzen dira; emakume horiek, berriz, Jaunak sendatu dituelako esperientzia bizi dute. Hala, beren hauskortasunaren oroitzapena bizirik dutela jarraitzen diote Jesusi; agian horregatik jakingo dute Jesusen hauskortasuna jasaten; gizonak, aldiz, ihes egin eta ezkutatzea besterik ez dute egin. Geure hauskortasuna onartzea eta, areago, hura Jainkoaren samurtasunez besarkatzea, bide segurua da minak, indartsu direnak ere, abailtzen dituen lekuan zutik irauteko.

* Kotsuelo Cuñado (*Bilbo 1884*), Antonia Gosenz Saez de Ibarra (*Gasteiz 1870*), Daria Campillo (*Gasteiz 1870*) eta lagunak, *vedrunatarrak, dohatsuak, birjinak eta martiriak, 1936*

Urteko 24. astea

San Pio Pietrelcina-koa, *apaiza, kaputxinoa*

San Paulok 1 Timoteori 6, 13-16: Bete agindua akatsik gabe, Jauna agertuko den eguna arte. **Sal 99:** Sar zaitetze oihu alaiz Jaunaren aurrera.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8, 4-15.

Aldi hartan, herri guztietatik jendetza handia bildu zitzaion batean, Jesusek parabola hau esan zien: «Behin batean, atera zen ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide-bazterrean erori zen, eta zapaldu egin zuten eta txoriek jan. Beste zenbait ale harri artean erori zen eta, erne orduko, ihartu egin zen, hezetasunik ez zuelako. Beste zenbait ale sasi artean erori zen, eta sasiak, harekin batera ermerik, ito egin zuten hazia. Gainerakoak lur onean erori ziren, eta erne eta bateko ehun eman zuten fruitua». Hau esanik, honela egin zuen oihu: «Entzuteko belarririk duenak entzun beza». Orduan, parabola honek zer esan nahi zuen galdetu zioten ikasleek Jesusi. Honek erantzun zien: «Zuei eman zaizue Jainkoaren erreinuaren misterioak ezagutzea; besteei, ordea, parabola bidez hitz egiten diet. Horrela, begiratzen dute, baina ikusten ez; entzuten dute, baina ulertzen ez. Hona, bada, parabolaren esanahia: Hazia Jainkoaren hitza da. Bide bazterreko hazia bezalakoak hauek dira: hitza entzuten dutenak, baina deabrua etortzen zaie eta kendu egiten die hitza beren bihotzetik, sinetsi eta salba ez daitezten. Harri arteko hazia bezalakoak hauek dira: hitza entzutean pozik hartzen dutenak; baina, sustrairik gabeak izanik, denboraldi batean sinesten dute, baina tentaldi-garaian atzera egiten dute. Sasi artean eroritako hazia bezalakoak beste hauek dira: hitza entzuten dutenak, baina bizitzako arduren, diruaren eta atseginen artean itota gelditzen dira eta ez dira iristen fruitua ematera. Lur oneko hazia bezalakoak, berriz, hauek dira: hitza bihotz onez eta zabalez entzunik, barruan gorde eta iraupenez fruitua ematen dutenak».

Urteko 24. astea

San Pio Pietrelcina-koa, *apaiza, kaputxinoa*

Jesusen taldeari jendea gehitzen ari zaio eta berak eskuzabal hots egiten die bere hitza, hazi-ereileak hazia bezalaxe. Halako kide desberdinez osatutako askotariko taldean, bakoitzak bere itxaropen eta asmo desberdinak ditu; hargatik, bakoitzak Jesusen irakaspena norberak jaso dezakeen neurrian eta moduan jasotzen du. Parabolez hitz egitean, Maisuak, bere entzuleen irudimenaren atea zabaltzen ditu eta beren errealitatera itzularazten dituen hainbat irudikapenekin edo imajinekin identifikatzera gonbidatzen ditu. Jainkoak jakin badaki, lur ona garela, baina sasiak ere baditugula geure baitan eta txoriak ere geure gainean dabiltzala hegan. Uzta oparoa izango da bizi dugun unea kontuan hartu eta Jesusekin bidea egiteko prest baldin bagaude.

* * *

San Pio Pietrelcina-koa

San Pio 1887an jaio zen Pietrelcinan (Italia). Kaputxino egin zen. Meza ematean debozio berezi-berezia nabarmentzen zuen. Aitorlekuan ere jende asko hartzen zuen. Santutasun-ezaugarri handiak eman zituen; apaltasuna, bere buruaren ukapena... ageri-agerian zituen. 1918tik hil arte estigmak jasan zituen; Kristoren 5 zaurien parekoak: eskuetan, oinetan eta ezker saihetsean; mediku-miaketa asko egin zitzaion arren, argibiderik ez. Egundoko jendetza erakarri ohi zuen. Ezin-ulertuak ere jasan zituen ordea bizitzan: komentukoan aldetik eta eliz hierarkiaren aldetik. 1968an hil zen.

Urteko 25. astea

Mesedeetako Andre Maria

Isaias Profetaren liburutik 55, 6-9.

Bila ezazue Jauna, aurki daitekeen bitartean; hots egiozue, hurbil dagoen bitartean. Utz beza gaiztoak bere bidea, gaizkileak bere asmo txarrak; itzul bedi Jaunagana, errukiz hartuko baitu, gure Jainkoagana, gutzit barkabera baita. Nire asmoak ez dira zuenak bezalakoak, ezta zuen jokabidea ere nirea bezalakoa, dio Jaunak. Nola zerua lurraren gainetik garai, hala nire jokabidea zuen jokabidearen gainetik, nire asmoak zuen asmoen gainetik.

Sal 144: Hurbil dago Jauna dei egiten diotenengandik.**San Paulok Filipoarrei 1, 20c-24. 27a.**

Senideok: Ziur nago, ni bizirik nahiz hilik egon, bere handitasuna agertuko duela Kristok nigan. Izan ere, niretzat, bizitzearen arrazoia Kristo da, eta hiltzea irabazpide. Baina bizitzen jarraituz lan onuragarria egin ahal badezat, ez dakit nik zer aukeratu. Bi aldeetatik nago estu: batetik, hil egin nahi nuke, Kristorekin izateko; niretzat hau askoz hobea delarik; baina, bestetik, nik bizirik jarraitzea beharrezkoago da zuentzat. Hauxe bakarrik eskatzen dizuet: bizi zaitezela Kristoren Berri Onari dagokion bezala.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20, 1-16.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin mahasti-nagusiarekin bezala gertatzen da. Goizean goiz bere mahastirako langile bila atera zen. Egunekeo lansaria zilarrezko txanpon batean hizketatu ondoren, mahastira bidali zituen langileak. Goizeko bederlatziak aldera berriro atera zen eta, beste batzuk plazan lanerako zain ikusirik, esan zien: “Zoazte zuek ere nire mahastira eta ordainduko dizuet bidezko dena”. Eta haiek ere joan ziren. Atera zen berriro hamabiak aldera eta hirurak aldera, eta gauza bera egin zuen.

Urteko 25. astea

Mesedeetako Andre Maria

Arratsaldeko bostak aldera ere atera zen eta, beste batzuk oraindik geldit aurkiturik, esan zion: “Zertan zaudete hemen egun osoan lanik egin gabe?”. Haiiek erantzun zioten: “Ez gaitu inork hartu lanerako”. Hark, orduan: “Zoazte zuek ere nire mahastira”. Iluntzean mahastinagusiak esan zion arduradunari: “Deitu langileei, eta emaiouzu bakoitzari bere soldata, azkenekoetatik hasi eta lehenengoetara”. Etorri ziren, bada, arratsaldeko bostetakoak, eta zilarrezko txanpon bana hartu zuten. Lehenengo ordukoek, txanda iritsi zitzaientean, besteek baino gehiago hartuko zutela uste zuten; baina haiiek ere zilarrezko txanpon bana hartu zuten. Orduan, nagusiaren kontra gaizki esaka hasi ziren, eta esan zioten: “Azkeneko hauek ez dute ordubete besterik lan egin, eta gurekin berdindu dituzu, egun osoko nekea eta beroa eraman dugunokin”. Baina nagusiak erantzun zion haietako bati: “Adiskide, ez dizut bidegabekeriarik egiten. Ez al ginen zilarrezko txanpon batean hizketatu? Tori dagokizuna eta zoaz. Zuri bezainbat eman nahi diot azkeneko honi ere. Ezin ote dut neure diruaz nahi dudana egin? Ala inbidia duzu, ni ona naizelako?”. Horrela, bada, azkenekoak lehenengo izango dira eta lehenengoak azkeneko».

Parabola hau irakurtzean, badirudi Jesusek oso ondo dakiela zertaz ari den hizketan. Litekeena da berak ere egun bat baino gehiago plazan igaro izana, inork kontratatu gabe orduak pasatzeak sortzen duen larritasuna bere baitan jasanez eta etxera jateko zer eraman behar duen bere buruari galdetuz. Duda-muda horren sentimendua, behartsuek oso ondo ezagutzen dutena, mahatsa biltzen egun bero batean hego haizeak duen astuntasuna baino askoz ere astunagoa da. Esperientzia gogorra da, egunsentian hartuak izan diren langileek ahaztu dutena. Mahasti-jabeak, ordea, begien aurrean du sentimendu hori; horregatik irten da bost alditaraino langile bila, akitu gabe, arratsa arte. Ondo begiratuta, eguna amaitzean dela langilea kontratatze horrek zentzurik ez du, norbaiti bizirauteko zerbait eskaintzeko aukera ematea besterik.

Urteko 25. astea

Mesedeetako Andre Maria

Besteek baino gehiago jasotzea itxaro zutenei sortu zaien haserreak eragotzi egin die hain ugazaba ona edukitzeagatik eta ogia duintasunez irabazi ahal izateagatik zorioneko direla ikustea eta alaitzea. Eta gu? Poztuko ahal gara Jainkoak, beraren mugagabeko askatasuna eta maitasuna direla-eta, gizateria osoa besarka dezakeelako eta hala egin nahi duelako.

* * *

Eukaristia eta konpromisoa

«Ni naiz ogi bizia zerutik jaitsia; ogi honetatik jango duena biziko da betiko». Esapide hauen sinbolismoa argitzeari emanik, pentsa dezakegu ezen gure ogia, gure janaria, Jesusen praxia bera dela, beraren irizpideak direla, beraren egitasmo handiosa dela; esan nahi baitu, barkatzen dugunean elikatzen garela, errukitzen garenean, jaten ematen dugunean, bakearen eta zuzentasunaren alde borroka egiten dugunean... Zeren Erreinuarekiko konpromisoak bertute-gurpil bat sortzen baitu, bere burua elikatzen duena, eta horrela, zenbat eta konpromiso handiagoa hartzen dugun, are hobeto elikatzen baikara konpromiso sakonagoak hartzeko (*Miguel Ángel Munárriz Casajús, Fe Adulta 2021-08-08*).

Urteko 25. astea

San Kleofas, *Jaunaren ikaslea*

Esdras liburuaren hasiera 1, 1-6: Jainkoaren herriko diren guztiak igo bitez Judako Jerusalemera, eta eraiki biezaiote etxea Jaunari.
Sal 125: Gurekin handikiro jokatu du Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8, 16-18.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Inork ez du argia pizten eta ontzipean gordetzen edota ohepean ipintzen, baizik eta argimutilaren gainean ipintzen du, sartzen direnek argia ikus dezaten. Izan ere, ez dago ezer gordea agertuko ez denik, ezta ezkutuan ere jakingo eta argitaratuko ez denik. Kontu izan, beraz, nola entzuten duzuen! Izan ere, duenari eman egingo zaio; ez duenari, ordea, eduki uste duena ere kendu egingo zaio».

Argi-mutila estaltzeak edo ohe-azpian sartzeak ez du inolako zentzurik, Berri Ona ezkutuan gordetzeak zentzurik ez duen bezala, berak harrapatuak sentitzen garenean. Munduko gizartean legamiak eta gatzak bezala jardutera deituak garelarik, ezari-ezarian baina izugarritzko eraldaketa eraginez, geure argi-izpi txikia besteen zerbitzuan jartzera deituak gara. Batzuetan nahastu egiten ditugu argi izateko bokazioa eta distira izateko tentazioa. Gure asmoak ez du izan behar pertsona miresgarri bezala beste batzuek liluratzea, ez eta foku guztiak era barregarrian geure baitan biltzea ere, baizik eta geure lekukotzaren bidez Jesus argi bihurtzea, mundua bizi dadin.

Urteko 25. astea

San Kosme eta San Damian, *martiriak*

Esdrasen liburutik 6, 7-8. 12b. 14-20: Bukatu zuten jauretxea eraikitzea, eta Pazkoa ospatu zuten. **Sal 121:** Bagoaz pozik Jaunaren etxera.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 8, 19-21.

Aldi hartan, ama eta anai-arrebak joan zitzaizkion Jesusi, baina jendearen jendeaz ezin iritsi ziren beragana. Eta jakinarazi zioten Jesusi: «Ama eta anai-arrebak dituzu kanpoan, zu ikusi nahian». Jesusek erantzun zien: «Hauek ditut Nik ama eta anai-arreba: Jainkoaren hitza entzun eta betetzen dutenak».

Jesusen ahaideek, beraren ama barne, ibilbide bat egin behar izan dute: odol-loturetatik ikasle izatearen senidetasunera. Eta prozesu zaila da hori; seguruenik, nolabaiteko gatazka-giro bat ere baduena, baina, aldi berean, ezinbestekoa Jesusekin harremanak bizirik mantentzeko. Jesusek ez du bestelako loturen lehentasunik onartzen, hitza entzun eta hitzarekiko konpromisoa ez denik. Espiritu-bizitzako uneraren batean, Jesus berriro ere aukeratu beharrean izango gara: edota «kanpoan» gelditu, orain arte bera guretzat izan denari itsatsita, edota oinetakoak kendu eta beraren ikasleen zirkuluan jarri, Jainkoaren hitza entzuten, lehenengo aldia bagenu bezala.

Urteko 25. astea

San Bizente Paul, *fundatzailea*

(*Pauldarrak eta Karitateko Ahizpak*)

Esdras liburutik 9, 5-9: Geure Jainkoak ez gaitu eskutik utzi geure esklabotzan. **Sal:** Tb 13, 2. 3-4a. 4bcd. 5. 8 (R/. 2a): Bedeinkatua, beti bizi den Jainkoa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 1-6.

Aldi hartan, Jesusek, Hamabiak beregana bildurik, deabru guztiak botatzeko ahalmena eta gaitzak sendatzeko indarra eman zien. Eta Jainkoaren erreinua hots egitera eta gaixoak sendatzera bidali zituen, esanez: «Ez hartu ezer biderako, ez makilarik, ez zakutorik, ez ogirik, ez dirurik, ezta aldatzeko soinekorik ere. Etxe batean sartzen zaretela, gelditu han herri hartatik atera arte. Eta onartzen ez bazaituztete, herri hartatik ateratzean, astindu zeuen oinetako hautsa, haien kontrako seinaleztat». Atera ziren, bada, eta herriz herri joan ziren, Berri Ona hots eginez eta alde guztietan gaixoak sendatuz.

Jesusi jarraitzen diogunean, zer daukagun edota zer falta zaigun ikus dezakegu, berak eskaintzen diguna batetik eta uztera behartzen gaituena bestetik. Hamabiak jendartera bidali dituenen, jada badutena uzteko eskatu die: ez dira erosotasun-ondasun, baizik eta bizirautekoak. Jesusek, ikasleek jakin dezaten nahi du zein duten beren benetako sostengua, beren jatekoa, beren aberastasuna. Baina lehenengo gauza ez da gabezia, dohain neurrigabea baizik: «Deabru mota guztien gaineko boterea eta ahalmena eman zien eta baita gaixotasunak sendatzekoa ere». Halako altxor horrekin eguneroko bizitzako deabru guztiei egin diezaiekegu aurre (zalantzei, etorkizuneko beldurrari, konfiantza-etzari...), eta beste batzuen bizitza gozatzen eta sendatzen duen ukendua isur dezakegu.

San Domingo Erkizia (*Errezil 1589*), *domingotarra*, San Mikel Aozaraza (*Oñati 1598*), *domingotarra*, *biak apaizak*, San Lorenzo eta lagunak, *martiriak (Japonian 1637)*

Ageoren Profezia liburuaren hasiera 1, 1-8: Ekin tenplua eraikitzeari; atsegin izango dut Nik hori. Sal 149: Maite du Jaunak bere herria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 7-9.

Aldi hartan, jakin zuen Herodes agintariak gertatzen ari zen guztia, eta zer pentsatu ez zekiela zegoen. Batzuek Joan Bataiatzailea hilen artetik piztu zela zioten; beste batzuek Elias profeta agertu zela; beste zenbaitek, berriz, antzinako profetaren bat piztu zela. Herodesek, ordea, honela zioen: «Joani neuk moztu nion lepoa. Nor da, beraz, hau, horrelakoak entzuten baititut honi buruz?». Eta Jesus ezagutzeko egokiera bila zebilen.

Ebanjelioetan asko dira Jesus ikusi nahi duten pertsonaiak, baina bakoitzak arrazoi desberdinengatik ikusi nahi du. Batzuek beharrak bultzatzen ditu hartara, beragana mirari bila irteten den hainbat eta hainbat jende, adibidez. Beste batzuek arbuioak eta gaitzespenak eraginda irteten dira; beti segadapean jarri nahi duten eskribau eta fariseuak adibidez, gero bera paretik kentzeko argudioak eskura izateko. Beste batzuk, berriz, ikusminak edo bitxikeria-zaletasunak eraginda irteten dira. Askotan, balio duena ez da izaten hasierako arrazoia, baizik eta hasierako gose hori gero nola doan eraldatzen eta bilakatzen gudan. Zakeo eta Herodes, biak ere ikusminak kitzikatuta irten direla dirudi, baina Zakeok Jesusi bere sakoneko asmoak ukitzen utzi dio; Herodesek, aldiz, alferrikako ikerketa antzuetan murgilduta jarraitu du.

Urteko 25. astea

GOIINGERU SANTUAK:

MIKEL, GABRIEL ETA RAFAEL

Danielen Profezia liburutik 7, 9-10. 13-14.

Nik, Danielek, ikuskaria izan nuen gaeuz. Begira nengoela, tronu batzuk jarri zituzten eta gizon zahar bat eseri zen. Haren soinekoa elurra bezain zuri, buruko ilea artilea bezain garbi! Haren aulkia eta gurpilak, sugar kiskalgarri! Suzko ibaia ateratzen zen haren aurretik. Jendetza izugarria zuen zerbitzari, milaka eta milaka zeuden haren aurrean zutik. Auzia hasi eta zabaldu ziren liburuak. Neure gau-ikuskarian, gizaseme antzeko bat ikusi nuen zeruko hodeietan etortzen. Gizon zaharragana hurbildu zenean, beroni aurkeztu zioten. Agintea, aintza eta erregetza eman zioten: herri, nazio eta hizkuntza guztietako jendeak zerbitzatzen zuen. Haren agintea betierekoa, ez da inoiz bukatuko; haren erregetza ez da inoiz hondatuko.

Sal 137: Eresi egingo dizut, Jauna, aingeruen aurrean.

Apokalipsia liburutik 12, 7-12a.

Gudua izan zen zeruan: Mikel eta beronen aingeruak herensugearen aurka. Herensugea eta beronen aingeruak gogor borrokatu ziren, baina ezin izan zuten garaitu, eta aurrerantzean zeruan ez zen tokirik izan haientzat. Bota egin zuten, beraz, herensuge handia, antzinako sugea, deabru eta Satanas deritzana, mundu osoa engainatzen zuena; lurrera bota zuten bere aingeruekin batera. Orduan, ahots handia entzun nuen zeruan esaten: «Orain etorri dira gure Jainkoaren salbamera, indarra eta erregetza, eta beraren Mesiasen agintea; bota baitute gure senideen salatzailea, gure Jainkoaren aurrean, gau eta egun, salatzen zituena. Bildotsaren odolaz eta aitortu duten mezuaz lortu dute garaipena; nahiago izan zuten heriotza, bizia baino. Poztu zaitezte, beraz, zeruok, eta haietan bizi zaretenok».

Urteko 25. astea

GOIINGERU SANTUAK:

MIKEL, GABRIEL ETA RAFAEL

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 47-51.

Aldi hartan, Jesusek Natanael beregana etortzen ikusi eta esan zuen: «Hona hemen egiazko israeldarra, faltsukeriarik gabea». Natanaelek esan zion: «Nondik ezagutzen nauzu?». Jesusek erantzun: «Felitek zuri dei egin baino lehen, pikupean zinela, ikusi zintudan». Natanaelek erantzun zion: «Maisu, Zu Jainkoaren Semea zara; Zu Israelgo erregea zara». Jesusek erantzun: «Pikupean ikusi zintudala esan dizudalako, sinesten al duzu? Handiagorik ere ikusiko duzu». Eta esan zion, gainera: «Egi-egiaz diotsuet: Zerua zabalik ikusiko duzue eta Jainkoaren aingeruak gora eta behera Gizonaren Semearen gain».

Bibliak halako maiztasun batekin aipatzen ditu aingeruak; Jesusek berak ere aipatzen ditu hainbatetan. Eguneroko bizitzan, ez da arraroa guk ere une larrietan laguntzen diguten eta kontsolatzen gaituzten pertsonak “aingeru” gisa aipatzea. Pasarte honek arrasto batzuk ematen ditu izaki misteriotsu horien izaeraz eta eginkizunaz. Aingeruak Jainkoagandik hurbil daude, baina etengabe hartzen dute lurrerako bidea gure ahulaldietan gu suspertzeko eta berri onak iragartzeko (Gabriel), Jainkoak bakarrik eman dezakeen sendakuntza ekartzeko (Rafael) eta Jainkoak garaitu egiten duela ziurtatzeko (Mikel). Jesusek ere, bere benetako gizatasunean, ahulaldietan eta probaldietan, Jainkoaren aingeruak beragana jaitxi eta jaso zezaten beharra izan zuen.

Urteko 25. astea

San Jeronimo, *apaiza eta eliz irakaslea*

Zakariasen Profezia liburutik 2, 5-9.14-15a: Etorriko naiz eta zure erdian biziko. **Sal:** Jr 31, 10. 11-12b. 13 (R/. 10d): Zainduko gaitu Jaunak, artzainak artaldea bezala.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 43b-45.

Aldi hartan, Jesusek egiten zituenengatik txundituta zeuden guztiak. Hark esan zien ikasleei: «Hartu ongi gogoan hitzok: “Gizonaren Semea gizakien esku utziko dute”». Haiek, ordea, ez zuten ulertzen zer ari zitzaien; ilun gertatzen zitzaien, eta ez ziren esanahiaz jabetzen; galdetzeak, berriz, beldurra ematen zien.

Ez da harritzekoa ikasleei Jesusen hitzek beldurra sortzea eta galdetzen ez ausartzea. Agian, ez dute gogorik ere Maisuak bere mezuaren esanahia argiago azal diezaien: hobe oraingoz berak sortzen duen harriduran kuzkurtuta gelditzea. Orainaldia sakon eta kontzientziaz bizitzen irakasten digun aldi berean, Jesusek ohararazten digu, berari benetan jarraitu nahi badiogu, geure etorkizunak beraren etorkizuna partekatzerara eraman gaitzakeela hein batean. Ezagutzen ez dugun etorkizunagatik larritu gabe, komeni zaigu noski «buruan ondo sartzea», «ikaslea ez dela bere maisua baino gehiago».



POBREKIN
bide
eginez
eta 
ADISKIDETZE
ZUZENTASUN
MISIOAN

URRIA / URRILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Sinodoaren alde: Otoitz egin dezagun Elizaren alde, jar ditzan entzutea eta elkarrizketa biziera gisa maila guztietan, Espiritu Santuari utziz munduko ertz-aldeetara, periferietara, gida dezan.



Urteko 26. astea

Santa Teresa Jesus Haurrarena, *birjina eta eliz irakaslea*

Ezekielen Profezia liburutik 18, 25-28.

Honela mintzo da Jainko Jauna: «Zuek diozue: “Ez da bidezkoa Jaunaren jokabidea”. Entzun, bada, israeldarrok: Nire jokabidea bidezkoa ez dela? Ez ote da zuena bidezkoa ez dena? Zintzoa, bere zuzentasunetik aldendu, txarkeria egin eta hiltzen bada, egin duen txarkeriagatik hiltzen da. Eta gaiztoak, egin duen gaiztakeriatik aldendu eta zuzenbidez eta justiziaz jokatzeko badu, bizirik iraungo du. Egindako txarkeriez ohartu eta haietatik aldentzen bada, biziko da, bai, eta ez da hilko».

Sal 24: Oroit zaitez zeure errukiaz, Jauna.

San Paulok Filipoarrei 2, 1-11.

Senideok: Egia bada Kristok adore ematen dizuela eta maitasunak kementsu egiten zaituztela, egia bada Espirituagan bat eginik bizi zaretela eta bihozbera eta errukitsu zaretela, bete nazazue pozez, denok iritzi eta sentiera bereko izanez, elkar maitatuz eta ongi hartuz. Ez egin ezer norgehiagokeriaz edota harrokeriaz, apaltasunez baizik, eta besteak norbera baino hobek direla pentsatuz; ez norberaren onari bakarrik begiratuz, besteena ere bilatuz baizik. Izan itzazue zeuengan Kristo Jesusi dagozkion asmoak: Hark, Jainkoaren izaera bereko izanik, ez zion gogor eutsi Jainkozko bere mailari; bestela baizik, zegokion aintza utzi eta esklabo-izaera hartu zuen, gizakien antzeko eginez. Eta gizaki bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, menpeko eginez heriotzaraino, gurutzean hiltzeraino. Horregatik, denen gainetik goratu zuen Jainkoak eta izen guztietan bikainena eman zion, Jesusen izenaren omenez denen belaunak makur daitezen, zeruan, lurpean eta lurpean, eta mihi guztiek aitortzen Jesu Kristo dela Jauna, Jainko Aitaren aintzarako.

Urteko 26. astea

Santa Teresa Jesus Haurrarena, *birjina eta eliz irakaslea*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21, 28-32.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apaizburu eta herriko zaharrei: «Zuek zer deritzozue? Gizon batek bi seme zituen, eta batarengana joan eta esan zion: “Seme, zoaz gaur mahastira, lanera”. Hark erantzun: “Ez dut nahi”. Baina gero damutu eta joan egin zen. Bestearengana ere joan eta gauza bera esan zion. Eta hark erantzun: “Banoa, jauna”; baina ez zen joan. Bietan zeinek egin zuen aitaren nahia?». «Lehenengoak», erantzun zioten. Orduan, Jesusek esan zien: «Egiaz diotsuet: Zergalariak eta emagalduek zuek baino lehenago sartuko dira Jainkoaren erreinuan. Izan ere, etorri zitzaizuen Joan Bataiatzailea Jainkoaren nahiari dagokion jokabidea hots eginez, eta ez zenioten sinetsi; zergalariak eta emagalduek, berriz, sinetsi egin zioten. Zuek, ordea, ikusi eta gero ere, ez zineten bihotz-berritu, hari sinesteko».

Mateok pasadizo hau une zehatz batean kokatu du: Jesus Jerusalemen sartzearen eta saltzaileak tenplutik botatzearen segidan, kasik. Maisuaren eta herri-agintarien arteko aurkaritza ondo gogortua dago jadanik, eta asko atzeratuko ez den ondorio tragikoaren beldur da irakurlea. Kasu honetan, apaiz nagusiek eta eskribauek jasan beharra dute Jesusek konpara ditzan –beherantz- zeinekin?, eta prostituitu eta zerga-biltzaileekin berekin. Zer dela-eta iritsiko da zeruetako Erreinura Legea betetzen ez duen eta gizartetik at bizi den jende hau Israelgo liderrak baino lehenago? Jesusek ez du eman argibiderik, baina «aditzaile onari berba gutxi». Kultuaren profesionalak «banoa, Jauna», esanez bizi ohi dira, baina hurkoari laguntzeko beren erosotasunak izpi bat ere mugitu gabe. Horregatik, beren ahoa otoitzez beterik badute ere, Jainkoak ez die entzuten. Bekatariengan, ostera, Jainkoaren borondatera irekirik bizitzeko bi lerro ikusten ditu Jesusek: beren onera etorri eta bizitzaz aldatzekoa, eta beren lanbide lohiak gorabehera beren inguruan egiten duten ongia. Eta gudan, zer ikusten ahal du Jaunak?

Urteko 26. astea
AINGERU ZAINDARIAK
San Saturio, *ermitaua*

Zakariasen Profetia liburutik 8, 1-8: Nik salbatuko dut neure herria, sortaldeko eta sartaldeko lurraldeetatik. **Sal 101:** Eraiki du Jaunak berriro Sion eta bera aintzaz betea agertu da.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18,1-5.10.

Aldi hartan, hurbildu zitzaizkion ikasleak Jesusi eta galdetu zioten: «Nor da handiena zeruetako erreinuan?» Jesusek, haurtxo bati deitu, haien artean jarri eta esan zien: «Benetan diotsuet: Aldatu eta haurren antzeko bihurtzen ez bazarete, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan. Beraz, bere burua haur honen antzera apaltzen duena, hori da zeruetako erreinuan handiena. Eta honelako haur bat nire izenean onartzen duenak Ni onartzen nau. Kontuz! Ez dezazuela txiki hauetako inor gutxietsi! Zeren, egia esan, hauen aingeruak zeruko nire Aitaren aurpegia ikusten ari baitira etengabe zeruan».

Hiru sinoptikoez aipatu dute ikasleen jarrera lehiakorra. Tentazio hau geure izaeran ainguraturik dugu, eta guztiok dakigu etengabe bizi arazten dizkigula azpijoko gaiztoak bizitza pertsonal, sozial eta eliztarrean. «Nor da handiena zeruko erreinuan?», «nor garrantzizkoena?» Jesusen erantzunak beste behin ere nahas-nahas egin gaitu: Garrantzizkoena? Txikia den hura. Ezer gutxirako dena edota ezertarako ez dena. Aginduak hartu eta bete behar izaten dituenak. Zuen artean inolako eskubiderik ez dutenak eta halakorik eskatu ere ezin dutenak!... Beren aingeruak Jainkoagandik hain hurbil dituztenak, non beti ikusi baitezakete bera, beraren familiakoak direlako.

Zakariasen Profezia liburutik 8, 20-23: Herri asko etorriko da Jerusalemara Jaunaren bila. **Sal 86:** Jainkoa gurekin da.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 51-56.

Jesusek, mundu honetatik eramana izateko garaia zetorkiolarik, Jerusalemara joateko erabakia hartu zuen. Mandatariak bidali zituen aurretik, eta Samariako herri batean sartu ziren, Jesusi ostatu prestatzera. Baina herrikoek ez zuten hartu nahi izan, Jerusalemara zihoalako. Hori ikusirik, Santiago eta Joan ikasleek esan zioten: «Jauna, aginduko al dugu zerutik sua jaitsi eta kiskal ditzan?». Baina Jesusek, haiengana itzulirik, haserre egin zien. Eta beste herri batera joan ziren.

Lukasen ebanjelioko zati handi batek Jerusalemara igotzearen forma du. Jesusek bekoz beko begiratu dio aurrera datorkion bideari, eta aske eta deliberatuki erabaki du bide egitea. Bidaia honetan gauza asko gertatuko dira, baina guztiak bere eginak ditu Jesusek alde aurretik. Honek ez du esan nahi gertatuko zaion guztiaren berri duenik, baizik eta prest dagoela gertatuko zaion guztia hondoraino bizitzeko. Iritsi zaion lehenengo gauza ukoa izan da; ikasleek ezin jasan dute bera; segur aski, artean onartu ez dituztelako bideko gorabehera guztiak. Ebanjelioa nork bere egiteak, ekarriko dizkigun ondorio guztiak onartzeko konpromisoa hartzea esan nahi du.

Urteko 26. astea

San Frantzisko Asis-koa, *erlijiosoa eta fundatzailea*
(*Frantziskotarrak*)

Nehemiasen liburutik 2, 1-8: Erregeari ondo iruditzen bazaio, bidal nazazu nire gurasoen hirira, berriro eraiki dezadan. **Sal 136:** Nire mihia ahosabaian itsatsi bedi, zutaz oroitzen ez banaiz.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9, 57-62.

Aldi hartan, Jesus eta ikasleak bidez zihoazela, batek esan zion: «Noranahi jarraituko dizut». Jesusek erantzun zion: «Azeriek badituzte zuloak eta zeruko hegaztiek habiak; Gizonaren Semeak, ordea, ez du burua non ezarri». Beste bati esan zion: «Jarraitu niri». Baina hark erantzun: «Jauna, uztazu lehenik neure aitari lur ematera joaten». Jesusek erantzun zion: «Utzi hildakoei beren hildakoei lur ematen; zu zoaz Jainkoaren erreinua hots egitera». Beste batek, berriz, esan zion: «Jarraituko dizut, Jauna, baina uztazu lehenik etxekoei agur egiten». Jesusek erantzun zion: «Goldeari heldu eta atzera begiratzen duena ez da gai Jainkoaren erreinurako».

Ebanjelioetako pasarte askotan topatzen dugu Jesusekin ibili den jenderik, eta ematen du Jesusek ez duela onartzen horrelako jende asko. Zergatik ez da aski guraria? Lehenik eta behin, lehen ekintza Jesusena delako: bera da dei egiten duena, bera da zeregin batera bidaltzen duena. Baina badira beste arrazoi batzuk ere. Jesusek ez du nahi inork bere burua engaina dezan; berari jarraitzea ez datza gogo bero pasakor batek eramana izatean, baizik eta abentura ziur gabe eta arriskutsu bati ekitean. Gainera, berak ezartzen ditu baldintzak, zentzuaren zeruertza ere berak markatzen du, bera da gaua eta eguna gozo egiten dituen. Berari jarraitzea norberaren bizitza mugitzen duena Erreinua izan dadin uztea da, baita agur esateko orduan ere, baita dolualdian ere.

Deuteronomio liburutik 8, 7-18.

Egun haietan, honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Jaunak, zure Jainkoak, lurralde ederrera eramango zaitu: lurralde oparoa da, errekaz, iturriz eta ibarretan eta mendietan sorturiko iturburuz hornitua; gari, garagar, mahasti, pikondo, mingranondo, olibondo, olio eta eztiz hornitua. Ogia neurrigabe jan ahal izango duzu eta ez zaizu ezer ere faltako. Hango harriek burdina dute eta mendietatik kobrea aterako duzu. Ase arte jango duzu, beraz, eta Jauna zeure Jainkoa bedeinkatuko duzu, eman dizun lurralde ederragatik. Baina, kontuz! Ez ahaztu Jauna zeure Jainkoa, gaur ematen dizkizudan haren agindu, lege eta erabakiak bazterrerara utziz. Ez dadila gerta, ase arte jatean, zeuk eraikitako etxe ederretan bizitzean eta zeure behiak eta ardiak, zilarra eta urrea eta era guztietako ondasunak gehitzean, zeu harrotu eta Jauna zeure Jainkoa ahazturik uztea. Berak atera zaitu Egiptotik, esklabotza-lurraldetik; berak eraman zaitu suge pozoitsuz eta eskorpioiz betetako basamortu handi eta ikaragarrian barrena, urik gabeko eremu elkor horretan barrena, berak atera du sukarririk ura eta edaten eman dizu; berak eman dizu jaten basamortuan zure gurasoek ezagutu ez zuten mana. Atsekabetu eta probatu zaitu, bai, baina azkenean zure onerako izan da. Ez esan zeure buruari: “Neure indarrez eta trebeziak lortu ditut ondasun hauek guztiak”; gogora ezazu Jaunak, zeure Jainkoak, ematen dizula ondasun horiek lortzeko indarra; horrela, leial eusten dio gaur ere zure gurasoei zin eginez hitzemandakoari».

Sal: 1 Kronikak 29: Zeureak dituzu, Jauna, handitasuna eta indarra.

San Paulok 2 Korintoarrei 5, 17-21.

Senideok: Kristorena dena sorkari berri da; zaharrarenak egin du, berria sortu da. Hau guztia Jainkoagandik dator, Kristoren bitartez berekin adiskidetu baikaitu, eta adiskidetzeko zerbitzua guri eman

Urteko 26. astea

ESKARI ETA ESKER ONEZKO OTOITZ EGUNA

San Froilan Leon-go, *ermitaua eta gotzaina*

digu. Izan ere, Jainkoa zen Kristogan mundua berekin adiskidetzen ari zena, gizon-emakumeei bekatuen kontua eskatu gabe, eta guri eman digu adiskidetzearen mezua. Senideok: Kristoren mandatari gara, eta gure bitartez Jainkoak berak erregutuko balizue bezala da. Kristoren izenean eskatzen dizuegu: adiskidetu zaitezte Jainkoarekin. Bekatuarekin zerikusirik izan ez zuen hura, Jainkoak gugatik bekatuarekin bat egin zuen, guk haren bitartez Jainkoaren salbamena iritsi genezan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7, 7-11.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko dizue; eskatzen duenak hartu egiten baitu, bilatzen duenak aurkitzen, eta atea jotzen duenari zabaldu egiten baitzaio. Zuetako norbaitek, semeak ogia eskatuta, harria emango ote dio? Edota arraina eskatuta, sugea emango ote dio? Beraz, zuek, gaiztoak izanik ere, zeuen seme-alabei gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatez gehiago ez dizkie zeruko zuen Aitak gauza onak emango eskatzen dizkiotenei!».

Tenporak oso aspaldiko jai-tradizio dira; alde batetik, Jainkoari eskerrak emateko uzta-onuragatik eta, bestetik, giza lanaren gaineko bedeinkazioa eskatzeko. Lur-lanarekin gure aurrekoek baino lotura txikiagoa dugu, noski; halere, beti dugu mesedegarri gogoratzea ezen egunero Jaunak bidaliak garela mundua den gure lur hau lantzerantz eta seme-alaben eta anai-arreben benetako lur bihurtzerantz. Emankortasun oro Jainkoagandik datorkigula ahazteko arriskuaren aurrean, gogoan izatea komeni da ezen gure ahalegin hauskorra Espirituak sostengatzen duela etengabe, gudan baitihardu eta gu bitarteko gaituelarik. Horregatik da hain garrantzizkoa mugimendu bikoitz hau: eskerrak ematea atsedetik gabe eta eskatzea konfiantzaz.

Urteko 26. astea

San Bruno, *fundatzailea (Kartusiarrak)*

Baruken Profezia liburutik 1, 15-22: Bekatu egin dugu Jaunaren aurka eta ez diogu obeditu. **Sal 78:** Libra gaitzazu, Jauna, zeure izenaren ohoregatik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 13-16.

Aldi hartan, honela mintzatu zen Jesus: «Ai zu, Korozain! Ai zu, Betsaida! Izan ere, Tiro eta Sidon hiri jentiletan zuengan hainbat mirari gertatu izan balitz, aspaldi bihotz-berrituak ziratekeen, dolujantziz estali eta hautsean eserita. Horregatik, Tiro eta Sidonek zigor bigunagoa izango dute auzian zuek baino. Eta zu, Kafarnaum, zeruraino altxatuko al zara? Lurraren barneraino eroriko zara! Zuei entzuten dizuenak niri entzuten dit, eta zuek onartzen ez zaituztenak Ni ez nau onartzen; Ni onartzen ez nauenak, berriz, bidali nauen hura ez du onartzen».

Jesusek jendaurreko bere bizitzaldian Kafarnaumen kokatu zuen bere etxea. Bertako jendeak, agian, pribilegiatutzat zuen bere burua eta hein batean harro sentitzen bide zen. Bertako kaleetan eta enparantzetan mirari asko gertatu ziren, baina horietako ezer ez da aski «zerua eskalatzeko», bihotz-berritze pertsonal bat egiten ez bada. Aitzitik, gerta liteke «infernura jaitea» segurtasun faltsutik; gerta liteke, halaber, ezin eman izatea urrats deliberaturik Jesusi jarraitzeko. Jesusekin topo egin izana ez da pribilejio bat, baizik eta, egiazkiago, erantzukizun bat. Geure bizitzan Jainkoak ugari isurtzen dizkigun ezaugarri edo zeinuek hainbat eta hainbat tokitarantz bidean jarri behar gintuzkete, Tiro eta Sidon bezala, Ebanjelioa hots egitetik kanpo dauden tokitarantz, alegia.

Urteko 26. astea

Arrosarioko Andre Maria Birjina
Santana Justina, *birjina eta martiria*

Baruken Profezia liburutik 4, 5-12. 27-29: Zoritxarra bidali dizuenak berak poza emango dizue betiko. **Sal 68:** Entzun die Jaunak behartsuei.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 17-24.

Aldi hartan, hirurogeita hamabi ikasleak pozez beterik itzuli ziren, eta esan zioten Jesusi: «Jauna, deabruak ere menpean jartzen zaizkigu zure izenean». Jesusek erantzun zien: «Tximista bezala zerutik erortzen ikusi dut Satanas. Begira, sugeak eta eskorpioiak zapaltzeko eta etsaiaren indar guztiak menperatzeko ahalmena eman dizuet, eta ezin izango dizue ezerk ere kalterik egin. Hala ere, ez poztu espirituak menpean jartzen zaizkizuelako; poztu, bai, zuen izenak zeruan idatzirik daudelako». Une hartan, Jesusek, Espiritu Santuaren pozez beterik, esan zuen: «Bedeinkatua zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei gorde eta jende xumeari agertu dizkiozulako. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork ezagutzen Semea nor den, Aitak baizik; ezta Aita nor den ere, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak baizik».

Bidezkoa da poztea geure egitasmoak ondo irteten zaizkigunean; batez ere, Jainkoaren Erreinua eraikitzeko lanean murgildurik bagabiltza. Alabaina, Jesusek, ikasleekin egin zuen bezala, benetako pozaren iturbururik sakonenera eraman nahi gaitu, zeina ez baitago lortu izan ditugun emaitzetan, baizik eta biziarzten gaituen maitasunaren ziurtasunean. Gure izena zeruan idatzia dagoela sinestea uste izatea da ezen, gertatua gertatu, gurerik ezer ez zaiola Jainkoari axolagabeko. Den-dena ongi irtengo zaiela uste dutenen baikortasun errazetik urrun, bizia bizi izango dugu esku onetan daudela sentitzen dutenen esperantza zailari loturik, baita egitasmo batzuek porrot egiten dutenean eta azaleko poza lausotzen denean ere.

Urteko 27. astea

Santa Pelagia Antiokia-koa, *birjina eta martiria***Isaias Profetaren liburutik 5, 1-7.**

Nire adiskidearen izenean nator kantatzera adiskidearen eta beraren mahastiaren kantua. Nire adiskideak bazuen mahasti bat, mendi-malda jorian. Lurra harrotu, harriak kendu eta landare aukeratuak landatu zituen. Erdian talaia eraiki zuen eta dolarea egin. Mahats ona espero zuen, eta sasimahatsa eman zion. Orain, bada, Jerusalemgo bizilagunok, Judako gizon-emakumeok, erabaki zeuk nire eta nire mahastiaren arteko auzia. Zer egin niezaiokeen neure mahastiari, egin diodanaz gainera? Mahats ona espero nuen; zergatik eman dit sasimahatsa? Esango dizuet, bai, zer egingo diodan neure mahastiari: hesia kenduko diot, larre bihur dadin; harresia zulatuko, zapal dezaten; lugorri bihurtuko dut: ez dute inausiko, ez jorratuko, eta sasiak eta laharrek hartuko dute; bertan euririk ez egiteko aginduko diet hodeiei. Horra, bada: Israel da Jaun ahalguztidunaren mahastia, Judako herria haren landare-sail kuttuna. Zuzenbidea espero zuen Jaunak harengandik, eta horra: zuzengabekeria! Justizia espero zuen, eta horra: aieneak!

Sal 79: Israel da Jaunaren mahastia.**San Paulok Filipinoarrei 4, 6-9.**

Senideok: Ez izan ezeren kezkarik, baizik eta gorabehera guztietan agertu zeuen eskabideak Jainkoari, otoitz eta erregu eginez eta eskerrak emanez. Eta guk pentsa dezakeguna baino handiagoa den Jainkoaren bakeak gordeko ditu zuen gogo-bihotzak Kristo Jesusen bidez. Gainerakoan, senideok, hartazue aintzakotzat egiazko, gizabidetsu, zuzen eta garbi den guztia, maitagarri eta goresgarri, bertutetsu eta onargarri den guztia. Egizue nigandik ikasi, hartu eta entzun zenutena eta nigan ikusia. Eta bakea ematen digun Jainkoa zeuekin izango duzue.

Urteko 27. astea

Santa Pelagia Antiokia-koa, *birjina eta martiria*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 21, 33-43.

Aldi hartan, Jesusek esan zien apaizburuei eta herriko zaharrei: «Entzun parabola hau: Behin batean, nagusi batek mahastia landatu zuen eta hesiz inguratu; bertan dolarea egin eta dorrea eraiki zuen; gero, nekazari batzuei errentan utzirik, urrutira joan zen. Mahatsa biltzeko garaia iritsi zenean, bere morroiak bidali zituen nekazariengana, fruitutik zegokion partea jasotzera. Nekazariak, ordea, morroiei heldu eta bata jo, bestea hil eta bestea harrikatu egin zituzten. Berritro beste morroi batzuk bidali zituen, aurrekoan baino gehiago, eta haiei ere beste hainbeste egin zieten. Azkenean, bere semea bidali zien, bere baitarako esanez: “Izango diote begirune nire semeari”. Nekazariak, ordea, semea ikustean, esan zioten elkarri: “Oinordekoa duk. Hil dezagun eta guretzat izango duk ondarea”. Heldu zioten, mahastitik kanpora bota eta hil egin zuten». Jesusek galdetu zien: «Zer egingo die nekazari horiei mahasti-jabeak, itzultzean?». Erantzun zioten: «Errukirik gabe hilko ditu, eta bere garaian fruitua emango dioten beste nekazari batzuei utziko die mahastia». Jesusek esan zien: «Ez al duzue Liburu Santuan behin ere irakurri: “Etxegileek baztertutako harria giltzarri gertatu da. Jaunak egin du hori, gure begien harrigarri?». Horregatik diotsuet: Jainkoaren erreinua zuei kendu eta fruitua aterako dion herri bati emango zaio».

«Mahastizain hiltzaileen parabola» ezagun-ezagun hau historia triste bat da; soilik bukaera dramatiko baten ondoren irekitzen digu berririk eta geure egiteko zail dugun ikuspeirik. Jesusen entzuleek ondo asko ezagutzen dute Isaias profetak dakarren kontraeraren bertsioa: Israel herria da mahastia, Jainkoak ardura berezi-bereziaz aukeratua eta zaindua, baina mahastizainek axolagabe hartu eta bertan behera utzi dutena. Herriko liderrek zehatz adierazi dute kontraeraren ondorio logikoa: Jainkoak ezin jasan du mahastiari egin dioten mesprezia; horrenbestez, kendu egingo die –bortxaz- laborari

Urteko 27. astea

Santa Pelagia Antiokia-koa, *birjina eta martiria*

gaiztoei, jende onaren esku jartzeko. Baina Israelgo agintariek espero ez zutena egotzi die Jesusek: agintari horiek berak apuntatu ditu hatzez «mahastizain gaiztoez» ari denean. Eta gu, prest al gaude entzuteko salaketa hau egiten digutenean, pertsona nahiz Eliza bezala? Ez ote dago, agian, gure elkarteetatik kanpo, «bere fruituak ematen dituen herri bat»: zuzentasuna, solidaritatea, pobreekiko konpromisoa, planeta zaintzearen ardura? Parabola honen argitan, begira diezaiogun oneski errealitateari eta poztu gaitezen Erreinua gogo oneko jende guztiaren ondare dela jakiteaz.

* * *

Ezaugarri, «Kristorekin izateagatik», «Jainkoaren herri izateagatik»

Pandemiaren ondoren (2021eko martxoa), «En camino con Ignazio» (Sal Terrae) liburuan, Jesusen Lagundiko nagusi-buruak, Arturo Sosak, aitortu dio Dario Menor-i: «Frantziskok herri ideia berreskuratu du, esapidea ikuspegi politiko eta eliztarretik zentzu oso sakonean erabili duenean. Pertsona egiten gara herri batean txertatzen eta geure baitatik irteten garenean, zuzenbidea, bakea eta guztien ona bilatzeko elkarte bat moldatzeko. Fratelli tutti-ren V. kapituluak gogoeta baliosa eskaintzen digu politika hoberenaz herri-kategoriatik abiatuz. Vatikanoko II.a kontzilioak Jainkoaren Herri bezala definitu du Eliza, esan nahi baitu guztiok herri bateko partaide garela. Frantziskok kontzeptu horretara jo izateak biblia- eta kristau-tradizio sakona du; ez da kasualitatea horrela hitz egin izana». (*Aipatua in Vida Nueva, abuztua 2021, 30. or.*)

Urteko 27. astea

San Dionisio, *gotzaina*, eta lagunak, *martiriak*
 San Joan Leonardi, *apaiza*, *botikari*en zaindaria

Jonasen Profetia liburuaren hasiera 1, 1-2, 1. 11: Abiatu zen Jonas, Jaunagandik urrun ihes egiteko asmoz. **Sal: Jonas 2, 3. 4. 5. 8 (R/. 7c):** Zuk, Jauna, bizirik atera ninduzun leizetik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 25-37.

Aldi hartan, lege-maisu batek jaiki eta azpikeriaz galdetu zion Jesusi: «Maisu, zer egin behar dut ondareztat betiko bizia jasotzeko?». Jesusek esan zion: «Zer dago idatzia Moisesen legean? Zer irakurtzen duzu?». Hark erantzun: «Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz, indar guztiz eta adimen guztiz; eta lagun hurkoa zeure burua bezala». Jesusek erantzun zion: «Ederki erantzun duzu. Bete hori eta bizia izango duzu». Baina, lege-maisuak, galdera bidezkoa zela adierazi nahirik, esan zion Jesusi: «Eta zein da nire lagun hurkoa?». Jesusek, orduan: «Behin batean, gizon bat zihoan Jerusalemetik behera Jerikorantz, eta lapurren eskuetan erori zen. Lapurrek zeuzkanak kendu eta, egurtu ondoren, alde egin zuten, erdi hilik utziz. Hain zuzen, apaiz bat gertatu zen bide hartan behera eta, gizona ikusi zuenean, bidetik baztertu eta aurrera jo zuen. Beste horrenbeste egin zuen handik igaro zen tenpluko lebitar batek ere: ikustean, bidetik baztertu eta aurrera jo zuen. Baina bidaian zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, errukitu egin zitzaion. Hurbildu eta zauriak lotu zizkion, olio eta ardoz igurtzi ondoren; gero, bere asto gainean jarri, ostatura eraman eta bere ardurapean hartu zuen. Biharamunean, zilarrezko bi txanpon atera eta ostalariari eman zizkion, esanez: “Zaindu ezazu eta, gehiago gastatzen baduzu, hurrena natorrenean ordainduko dizut”. Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu zuen lagun hurko bezala lapurren eskuetan eroritako gizonarekin?». Lege-maisuak erantzun zion: «Hartaz errukitu zenak». Jesusek esan zion, orduan: «Zoaz eta egin zeuk ere beste horrenbeste».

Kristau-fedearen muina ez da mugatzen esaldi polit batzuetara; adibidez, «Jainkoa eta lagun hurkoa maitatu», baizik eta agindu bikoitz hori, benetan bat besterik ez den hori, adierazten duten egintza jakin batzuetan haragitzen da. Bai, epaitzeko irizpide bakarra maitasuna izango da, eta maitasun honek hauskortasunaren zoko guztiak zeharkatzen ditu. Bide bazterrean erdi hilik ikusi duten apaizak eta lebitarrak ezikusiarrena egin diote; konpromisorik gabeko maitasunean bizi nahiz asmatzen ditugun geure estratagemak salatzen dizkigu jokabide horrek. Maitatzeak biluzik dena besarkatzea esan nahi du, zauriak sendatzea, bestearen biziaren berme bihurtzea, zenbatu gabe ematea. Maitasuna, Jesusen arabera, mugimendu bat da, nahi genukeen baino urrutirago eramaten gaituena.

* * *

Ondasun komuna eta zuzenbidea giza belaunaldien artean

Munduko gizarteak gaur egun bizi duen egoeran, zeinetan hainbat eta hainbat zuzengabekeria ageri baita eta gero eta gehiago baitira pertsona baztergarriak, hau da, oinarrizko giza eskubideak ukatzen zaizkienak, ondasun komunaren printzipioa besterik gabe bilakatzen da solidaritaterako dei eta pobreenen lehentasun-aukera, ondorio logiko eta ezinbesteko bezala.

Ondasun komunaren kontzeptuak berekin hartzen ditu etorkizuneko giza belaunaldiak ere. Nazioarteko krisialdi ekonomikoek gordinki jarri dituzte agirian zori komuna aintzat ez hartzearen ondorioak, eta hauetatik ezin libratu dira gure ondoren etorriko direnak.[...].

Ludia eman zaigun ondasuna bada, jadanik ezin hartu dugu irizpide bakartzat eraginkortasun eta produktibitate probetxugarri indibiduala soilik. Ez gara mintzo aukerakoa izango litzatekeen jarrera batez, baizik eta zuzenbidezko arazo oinarrizkoa dago jokoan; izan ere, hartu dugun ludia etorriko direnena ere bai baita. (*Frantzisko aita santua, Laudato si' 158-159*)

Urteko 27. astea

Santo Tomas Villanueva-koa, *gotzaina, agustindarra*
San Daniel Comboni, *fundatzailea (Konbonianoak)*

Jonas Profetaren liburutik 3, 1-10: Ninivetarrak beren bide okerretik itzuli ziren, eta Jainkoa errukitu zitzaien. **Sal 129:** Gure erruak gogoan badituzu, Jauna, nor dagoke zutik?

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 38-42.

Aldi hartan, Jesus herrixka batean sartu zen, eta Marta zeritzan emakume batek bere etxean hartu zuen. Bazuen honek Maria izeneko ahizpa bat, eta hau, Jaunaren oinetan eserita, haren hitza entzuten zegoen. Marta, berriz, lanpetua zebilen etxeko zereginetan. Orduan, Martak Jesusen aurrean jarri eta esan zion: «Jauna, ez al zaizu axola nire ahizpak lan guztia nire gain uztea? Esaiozu laguntzeko». Jaunak, ordea, erantzun zion: «Marta, Marta, gauza askorengatik zabilta kezkatua eta larri; baina bat bakarra da beharrezko. Alderdirik onena aukeratu du Mariak, eta ez dio inork kenduko».

Jesus bi emakumeren arteko gatazka baten aurrez aurre dago. Ingurugiroan erraz sumatzen den ondoez bat nabari da. Zergatik ez dio Martak bere ahizpari zuzenean eskatu lagundu diezaion, Jesusengana jo gabe? Nolatan gelditu da Maria eserita, Martaren kexua ez balegokio bezala? Bitarteko baten jarrera hartu ordez, Jesusek Martari lagundu dio, beraren kexak harrotu duen barne-jarrera ezagutzen: ez dira arazo esku artean dituen mila gauza, baizik eta larritasunez, kezka eta asalduraz bizi duen modua. «Behar den gauza bakarra» ez da, egia esan, ezer egin gabe eserita gelditzea, baizik eta «alderik hobena» hautatu ondoren dagokigun hura bizitzea, hau da, «gauza guztietan» Jainkoari sakon entzuteko jarrera galdu gabe.

Urteko 27. astea

Begoñako Andre Maria Birjina (Bizkaiaren zaindaria),*

Jonasen Profetia liburutik 4, 1-11: Zuk errukia agertzen diozu landare honi. Eta Nik ez ote diot errukia agertuko Ninive hiri handiari?
Sal 85: Ona zara, Jauna, eta barkabera.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 1-4.

Aldi hartan, Jesus otoitzean ari zen leku batean; bukatu zuenean, ikasleetako batek esan zion: «Jauna, irakatsiezaguzu otoitz egiten, Joanek bere ikasleei irakatsi zien bezala». Jesusek esan zion: «Otoitz egitean, esazue: “Aita, santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, emaguzu egunean eguneko ogia, eta barkatu gure bekatuak guk ere zor diguten guztiei barkatzen diegunez gero, ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen”».

Otoitz-gizona da Jesus. Ikasleek sarritan ikusi izan dute goizean goiz joaten, bere Aitarekin isiltasan eta barnekoitasun-uneak bizitzeko. Maisuaren ohitura honen jakin-minaz, ikasleetako batek otoitz egiten irakats diezaiei eskatu dio. Ekina ez da Jesusena: berak ez du ezartzen koderik Jainkoari nola otoitz egin adierazteko, baizik eta pertsona bakoitzaren esku uzten du Aitarekiko harremanak nola egin bilatzea. Galdetu dioten honetan, soil-soilik pista batzuk eskaini dizkie, otoitza garatzen uzteko: otoitz egitea Jainkoari dei egitea da, Aitaren aurpegia duela jakinik, eta aitortzea den-dena –janaria eta bizitzaren zentzua– harengandik espero dugula.

* * *

* Santa Soledad Torres Acosta, *fundatzailea (Mariaren Mirabeak)*
San Joan XXIII.a, 261, *aita santua*

Urteko 27. astea

Begoñako Andre Maria Birjina (Bizkaiaren zaindaria),*

Begoñako Andre Mariaren Meza

Sirak 24, 17-22: Maria, jakinduriaren aulkia. Sal: Lukas 1: Handiesten du nire arimak Jauna. San Paulok Galaziarrei 4, 4-7: Bere Semea bidali zuen Jaungoikoak, emakumeagandik jaioa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 43-51.

Jesusen gurasoak Jerusalemara joaten ziren urtero erromes Pazko-jaietan. Jesusek hamabi urte bete zituenean, Jerusalemara igo ziren jaietara, ohitura zen bezala. Jaiegunak bukaturik gurasoak etxerantz abiatu zirenean, Jesus haurra Jerusalemen gelditu zen, haiek jakin gabe. Erromes-kideen artean zetorrelakoan, egun bateko bidea egin ondoren, haren bila hasi ziren taldeko ahaideen eta ezagunen artean. Eta aurkitzen ez zutelarik, Jerusalemara itzuli ziren haren bila. Hiru egunen buruan, tenpluan aurkitu zuten, irakasleen artean eserita, haiei entzuten eta galdezka. Entzuten zioten guztiak txunditurik zeuden erantzunetan azaltzen zuen argitasunagatik. Gurasoak, ikusi zutenean, harriturik gelditu ziren, eta amak esan zion: «Seme, baina zergatik egin diguzu hori? Horra nolako atsekabez ibili garen aita eta biok zure bila!». Hark erantzun zien: «Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten Nik neure Aitaren etxean egon behar dudala?». Haiek, ordea, ez zuten ulertu zer esan nahi zien. Jesus Nazaretera jaitzi zen haiekin, eta haien menpean bizi zen.

Begoñako Andre Maria

Begoñako Andre Mariaren, Bizkaiko Zaindariaren, egun honetan, liturgia-ospakizunerako aukeratutako ebanjelioak, Jesus Haurraren gertakariaz, «galdu eta tenpluan aurkitua» izan zenaz, hitz egin digu.

* Santa Soledad Torres Acosta, *fundatzailea (Mariaren Mirabeak)*
San Joan XXIII.a, 261, *aita santua*

Urteko 27. astea

Begoñako Andre Maria Birjina (Bizkaiaren zaindaria),*

Lukas ebanjelariak, zera esanez amaitu du ebanjelioko pasarte hau: «Haren amak bere bihotzean gordetzen zituen gauak hauek guztiak». Mariaren bizitzako ezaugarriak sakonenetakoa laburbiltzen duen esaldia da: sinesmena bihotzean bizi; Jainkoaren hitzaz fidatu zen Maria Deikunde edo Iragarpen egunetik beretik; zeruratua izan zenean, hara eraman zezan utzi zion Jainkoari. Mariak jakin zuen Jainkoari entzuten bere bizitzan, eta gure belarriak irekitzen ditu, Jesusen hitza gure barnera ere sar dadin. Andre Maria, otoitz egizu gure alde!



Begoñako Andre Maria

* Santa Soledad Torres Acosta, *fundatzailea (Mariaren Mirabeak)*
San Joan XXIII.a, 261, *aita santua*

Urteko 27. astea

Pilare-ko Andre Maria

San Joan Bezym, *dohatsua, apaiza, jesuita*

1 Kronikak liburutik 15, 3-4.15-16; 16, 1-2: Ekarri zuten Jainkoaren kutxa, eta Davidek harentzat eraikia zuen oihal-etxolaren erdian ipini zuten. **Edo Apostoluen Eginak liburutik 1, 12-14:** Jesusen ama Mariarekin otoitzari emanak bizi ziren. **Sal 26:** Jaunak koroatu nau eta zutabe gainean goratu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 27-28.

Aldi hartan, Jesus gauza hauek jendeari esaten ari zela, emakume batek jendartetik deiadarka esan zuen: «Zorionekoa sabelean eraman zintuen eta bularra eman zizun emakumea!». Baina Jesusesk esan zuen: «Hobeki esan, zorionekoak Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!».

Pasadizo honetan, Jesusen jarrerak hein batean zakarra dela ematen du. Uko egiten ote dio, bada, haragiaren loturari? Maria Jesusi lagun egiten zion jendetzaren artean bazegoen, nola ikusiko zuen bere burua hitz hauek entzutean? Gizadi osoa Erreinuko mahaira gonbidatzera etorri zen Jesus, eta senitarte berri bat ezartzera; honetan ez dira galduko lehen loturak, baina Jesusen mezuari atxikitzeak sortzen dituen lotura berrien mende geldituko dira. Maria ere, ama, beraren Semeari jarraitzen dioten guztien arrebak / ahizpa bihurtuz doa apurka-apurka. Gure egiazko poza, amarena bezala, haziz doa bidean, Jainkoaren hitza entzuten eta bizitzen goazen neurrian.

San Romulo, *gotzaina*. San Fausto, *martiria, laboraria*

Santa Zeledonia, *birjina, beneditarra*

Santa Maria Soledad Torres Acosta, *birjina*

Joelen Profezia liburutik 1, 13-15; 2, 1-2: Jaunaren eguna, ilunpe-eguna eta itzal beltzeko eguna. Sal 9: Justiziaz gobernatzen du Jaunak mundua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 15-26.

Aldi hartan, Jesusek deabru bat bota ondoren, jendarteko batzuek zioten: «Deabruen buruzagi den Beeltzebulen indarrez botatzen ditu honek deabruak». Beste batzuek, azpikeriaz, Jainkoagandiko seinale bat eskatzen zioten. Igarri zizkien Jesusek beren burutazioak eta esan zien: «Bere baitan zatiturik dagoen erreinua erraustu egingo da eta etxea etxearen gain eroriko. Era berean Satanas ere: bere baitan zatiturik badago, nola iraun dezake haren erreinuak? Zuek diozuenek, Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen ditut. Baina Nik deabruak Beeltzebulen indarrez botatzen baditut, noren indarrez botatzen dituzte zuen ikasleek? Horregatik, zeuen ikasleak izango dituzue epaile. Baina Nik deabruak Jainkoaren indarrez botatzen baditut, garbi dago iritsi dela zuengana Jainkoaren erreinua. Gizon indartsu batek, armaturik, bere jauregia zaintzen duen bitartean, seguru dauzka bere ondasunak. Baina indartsuago den batek eraso eta menderatzen badu, segurantzia ematen zioten armak kendu eta banatu egiten ditu hari harrapatutako ondasunak. Nire alde ez dagoena nire aurka ari da, eta nirekin biltzen ez duenak sakabanatu egiten du. Espiritu gaiztoa, norbaitengandik atera ondoren, leku idorretan barrena ibili ohi da atsedean bila; baina aurkitzen ez duelarik, bere buruari esaten dio: “Itzul nadin atera nintzen neure etxera”. Irirstean, etxea garbitua eta apaindua aurkitzen du. Orduan, joan eta beste zazpi espiritu hartzen ditu, bera baino gaiztoagoak, eta gizakiagan sartu eta bertan jartzen da bizitzen. Horrela, pertsona horren azken egoera lehengoa baino okerragoa gertatzen da».

Urteko 27. astea

San Romulo, *gotzaina*. San Fausto, *martiria*, *laboraria*Santa Zeledonia, *birjina*, *beneditarra*Santa Maria Soledad Torres Acosta, *birjina*

«Deabruen» hizkuntza hau aski arrotz gertatzen zaio gaur egun gure sentiberatasunari. Ukatu ezin duguna, halere, gaitzaren presentzia da: janzkera desberdinen pean ezkutaturik ari da, bere bidean sufrimenduaren eta suntsipenaren arrastoak utziz. Gaitzaren aurrean, jarrera desberdinak har daitezke. Jesusen solaskideen artean badira pertsonak buruan hipotesi desberdinak darabiltzatenak. Jesus, bere aldetik, ez da luzatzen gaitzarekin jardunez, ez du ezarri inolako solasaldirik berarekin; gaitza izendatu orduko, bera desegitera jo du. «Jainkoaren hatza» gu bitarteko garelara ari dadin uzten badugu, ez gara mugatu besteak seinalatzerara eta salatzerara, baizik eta geu konprometituko gara errealitatea eraldatzerara.

* * *

Santa Soledad Torres Acosta, birjina

Santa Soledad, 1826-12-02an jaio zen Madrilen. Hogeita bost urte zituela, San Jose parrokiako apaiz baten asmoa entzun zuen: auzune behartsuetako gaixoei laguntzeko emakume-talde bat antolatzea. Helburu horrekin institutua eraturik, 1851-08-15ean hartu zuen abitua. Institutuaren buru egin zuten, baina nahigabe handiak jasan behar izan zituen, bai gaizki-esateengatik, bai taldeko batzuek, bizimodu gogorra iruditurik, utzi egin zutelako. Buru izatetik kendu eta Institutuaren sortze-etxetik bota ere egin zuten Maria Soledad. Institutua galtzear zegoela eta, berriz ere buru egin zuten eta berrogei fundazio egitera iritsi zen. Madrilen hil zen 1887an.

Urteko 27. astea

San Kalisto I.a, 16. aita santua eta martiria

Joelen Profesia liburutik 4, 12-21: Sartu igitaia, uzta heldu da. Sal 96: Poztu zaitezte Jaunarekin, zintzook.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 27-28.

Aldi hartan, Jesus gauza hauek jendeari esaten ari zela, emakume batek jendartetik deiadarka esan zuen: «Zorionekoa sabelean eraman zintuen eta bularra eman zizun emakumea!». Baina Jesusek esan zuen: «Hobeki esan, zorionekoak Jainkoaren hitza entzuten eta betetzen dutenak!».

Lukasek beste zoriontasuna bat, «ez-ofiziala», erregalatu digu. Eta, bi txatal soiletan, lehenetsun batzuk planteatzera gonbidatu ditu bere entzuleak. Zail da imajinatzea haurdun den emakumearen eta beraren sabeleko haurraren artekoa baino giza lotura estuagorik, edota amaren eta bularra ematen dion haurtxoaren artekoa baino estuagorik. Emakume batek berari leporatu dion irudi barnekoi eder honi Jesusek ez dio ukorik egin; soil-soilik bigarren mailan jarri du. Ikastearen zinezko zoriona ez datza Jesusen presentzia «sentitzean», baizik eta beraren hitza entzun eta betetzean. Lehortealdian bihotzean gordetzea komeni den zoriontasuna.

Urteko 28. astea

Santa Teresa Jesusena Avilakoa, *birjina eta eliz irakaslea*

Isaias Profetaren liburutik 25, 6-10a.

Egun hartan, jai-otordua emango die Jaun ahalguztidunak mendi honetan herri guztiei, jaki guri eta edari bikainekin, haragi mamitsu eta ardo zahar finekin. Mendi honetan kenduko du herri guztien gainean hedatua dagoen estalkia, nazio guztiak estaltzen dituen oihala. Betiko hondatuko du heriotza; xukatuko ditu Jainko Jaunak aurpegi guztietako negar-malkoak eta lur osotik aldenduko du bere herriaren lotsabidea, Jaunak hitz egin baitu. Eta egun hartan esango da: «Hara gure Jainkoa! Itxaropen genuen salbatuko gintuela; Jauna da, beragan genuen itxaropena. Poztu gaitezen eta alaitu, salbatu gaituelako. Jaunaren eskua mendi honetan kokatuko da».

Sal 22: Jaunaren etxean naiz biziko luzaroen luzaro.

San Paulok Filipoarrei 4, 12-14. 19-20.

Senideok: Badakit urritasunean nahiz ugaritasunean bizitzen; edozein egoeratako zaildua eta edozertara jarria nago: aserik nahiz goseak egotera, ugari edukitzera nahiz beharrizanera. Dena dezaket indartzen nauen Kristogan. Nolanahi ere, ondo egin zenuten nire atsekabeen zeuen solidaritatea agertzean. Ordainetan, nire Jainkoak oparo beteko du zuen eskasia guztia, bere aberastasunen arabera Kristo Jesusengan. Aintza Jainko gure Aitari menderen mendetan. Amen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22, 1-14.

Aldi hartan, Jesusek, berriz ere parabolatan, esan zien apaiz nagusi eta herriko zaharrei: «Zeruetako erreinua, bere semearen ezteiak ospatzen zituen errege baten antzekoa da. Bidali zituen morroiak ezteietarako deituei hots egitera; baina, hauek ez zuten etorri nahi izan. Berriz ere bidali zituen beste morroi batzuk, esanez: “Esaie zue deituei:

Urteko 28. astea

Santa Teresa Jesusena Avilakoa, *birjina eta eliz irakaslea*

prest dut nire jai-otordua; zekorrak eta haragitarako gizenduak hilak ditut, eta dena prest da; zatozte ezteietara”. Haiek, ordea, ezentzun egin zuten, eta bata bere lurretara joan zen; bestea bere salerosketara; gainerakoek, berriz, morroiei heldu eta gaizki erabili ondoren, hil egin zituzten. Haserretu zen erregea, eta bere gudamutilak bidali zituen, hiltzaile haiek galtzera eta haien herriari su ematera. Gero, honela mintzatu zitzaizen bere morroiei: “Ezteiak prest dira, baina deituek ez zuten merezi. Zoazte, beraz, bidegurutzetara, eta aurkitzen dituzuen guztiei dei egiezue ezteietara”. Atera ziren morroiak bideetara, eta bildu zituzten aurkitutako guztiak, txar eta on. Eta, hala, bete zen bazkaldarrez eztei-lekua. Sartu zen erregea bazkaldarrak ikustera, eta eztei-jantzirik gabeko bat ikusi zuen han, eta esan zion: “Adiskide, nolaz sartu zara hemen, eztei-jantzirik gabe?”. Eta hark hitzik ez. Erregeak, orduan, esan zien bere zerbitzariei: “Esku-oinak loturik, bota ezazue kanpoko ilunpera. Han izango da negarra eta hortz-karraska!”. Asko baitira deituak; baina gutxi aukeratuak».

Eguneroko bizitzatik hartzen ditu Jesussek bere paraboletako irudiak, ardura baitu beraren mezua jendeak ondo uler dezan. Bera ere behin baino gehiagotan izango zen ezteietan, eta ondo jakingo zuen aita batentzat ez zela batere gustagarri izango bere seme baten ezteietara etortzeari gonbidatuek uko egitea. Parabola Jainkoaz mintzo da, beraren maitasun betareen egitasmoa blokeatzen dituzten eragozpenen aurrean amore ematen ez duen Jainkoaz, baizik eta behin eta berriz saiatzen denaz eztei-aretoa nola beteko gonbidatuez. Izan ere, Erreinua, Jesusen arabera, jai handi baten antzekoa da, zeinetara gonbidatua baitago gizadi osoa, eta pertsona bakoitza bakarra izango balitz bezala. Horregatik, bakoitzak bere erantzukizuna du erantzuna ematean: batzuk ez doaz nahi ez dutelako, beste batzuk aitzakia bila dabilta; are gehiago, beste batzuek indarkeriara jo dute gonbitari ez erantzuteko. Bidegurutzetara irten beharra dugu, gonbitetik kanpo gelditu direnei harrera egiteko. Halaz guztiz, merezi gabeko jai hau askatasun osoz hautatu beharrekoa da. Gure «jantziak» ager dezala deituak garela sentitzearen poza.

Urteko 28. astea

Santa Eduvigis, *moja*Santa Margarita Maria Alacoque, *birjina, erlijiosa**bisitarietako*

San Paulok Erromatarrei 1, 1-7: Jesu Kristogandik hartu genuen apostolu izateko dohaina, jentil-herriei sinetsmena eramateko.

Sal 97: Bere garaipena ezagutarazi du Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 29-32.

Aldi hartan, jende asko biltzen ari zelarik, Jesus honela hasi zitzaion: «Gizaldi hau gaiztoa da. Ezaugarri eske ari da, baina ez zaio ezaugarririk emango Jonas profetarena besterik. Izan ere, ninivetarrentzat Jonas ezaugarri izan zen bezala, hala izango da Gizonaren Semea gizaldi honentzat. Auzi-egunean hegoaldeko erreginak gizaldi honetako jendearen aurka jaiki eta kondenatu egingo du, lurraren azken mugetatik etorri baitzen hura Salomonen jakinduriatzko hitzak entzutera, eta hona hemen Salomon baino gehiago dena. Auzi-egunean ninivetarrek ere gizaldi honen aurka jaiki eta kondenatu egingo dute, haiek bihotz-berritu egin baitziren Jonasen predikuaz, eta hona hemen Jonas baino gehiago dena».

Jesusengana hurbiltzen den jendearen artean, nork bere motibazioa izaten du, eta izaten dira gertaera harrigarriak ikusteko gogo hutsez joaten direnak ere. Jesus, ordea, ez da erori soilik seinalaren baten bila etortzen direnen sarean, ondotxo daki-eta seinale hutsak ez duela ezer adierazten: kontrako zentzuan hartu ahal izateaz gain, ez diete agertzen beren esanahi sakona egiaz ikusi nahi ez dutenei. Hegoaldeko erregina eta Niniveko biztanleak, denak atzerritar salbamenaren ertzeko, eman ditu Jesusek epailatzat, miraririk ikusi gabe sinesteko gai izan direlako, hots egiten zaien hitza entzuteari bihotza irekirik.

Urteko 28. astea

San Ignazio Antiokiakoa, *gotzaina eta martiria*

San Paulok Erromatarrei 1, 16-25: Jainkoa ezagutu ondoren, ez diote aintzarik eman, Jainkoari dagokion bezala. Sal 18: Ortziaik Jaunaren ospea du zabaltzen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 37-41.

Aldi hartan, Jesusek hitzaldia bukatu zuenean, fariseu batek bere etxean bazkaltzera gonbidatu zuen. Jesus sartu eta mahaian jarri zen. Fariseua harriturik gelditu zen bazkal aurretik eskuen garbikuntzarik ez zuela egin ikustean. Orduan, Jaunak esan zion: «Zuek, fariseuok, edalontzia eta platera kanpotik garbitzen dituzue, zeuek barrutik lapurretaz eta gaiztakeriaz beterik zaudeten bitartean. Zentzugabeok halakook! Ez ote du kanpoko egin zuenak berak egin barrukoa ere? Hobe zenukete daukazuena limosnatzat emango bazenute! Horrela, gauza guztiak garbi izango lirateke zuentzat».

Jesusek, giza bizitza Legearen gaintik dagoela agertzeko, larunbataren agindua etengabe hausten badu ere, ez da ageri beste agindu txikiak hain sarri hausten dituenik. Gaurko kasu honetan, bazkaltzera gonbidatu duen fariseua harritu egin da Maisuak erritu-akats txiki bat egin duelako. Pasadizo hau dela-eta Jesusek salatu egin du azaleko xehetasunetan (eskuak garbitzean) gordetako garbitasunaren eta norberaren barnean egin eta gordetako bekatuaren (lapurreta eta gaiztakeriak) arteko alde handia. Jesusek etengabe gonbidatzen gaitu nor bere egiari begiratzera, hau jokoan dagoenean: bihotzaren barnean. Barne gune hau zaintzea garrantzizkoa dugu: fariseuek Jesusen denboran zuten bezain garrantzizkoa.

Urteko 28. astea
SAN LUKAS, EBANJELARIA

San Paulok 2 Timoteori 4, 10-17b.

Anaia maitea: Dimasek utzi egin nau; nahiago izan ditu mundu honetako gauzak, eta Tesalonikara joan da; Kreszente, berriz, Galaziara joan da eta Tito Dalmaziara. Lukas beste inor ez dago nirekin. Hartzazu Markos eta ekarri zeurekin, oso ona baitut lanerako. Tikiko Efesora bidali dut. Hona etortzean, ekar ezazu Troaden, Karporen etxean, utzi nuen soingainekoa, baita liburuak ere, batez ere pergaminoak. Alexandro errementariak kalte handia egin dit; Jaunak ordainduko dio bere jokabidearen arabera. Kontu izan zeuk ere horrekin, gogor jarri baitzen gure irakatsien kontra. Nire auziko lehenengo defentsan ez zen inor atera nire alde; bakarrik utzi ninduten denek; Jainkoak ez diezaiela kontuan har. Baina Jauna neurekin izan nuen eta indartu ninduen, nire bidez mezua osorik iragarria izan zedin eta jentil guztiek entzun zezaten.

Sal 144: Zure adiskideek ager bezate, Jauna, zure erregetzaren bikaintasuna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 1-9.

Aldi hartan, Jaunak beste hirurogeita hamabi ikasle izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta leku guztietara. Eta esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoitz uzta-jabeari bidal ditzala langileak bere uztara. Zoazte! Arkumeak otso artera bezala bidaltzen zaituztet. Ez eraman poltsarik, ez zakutorik, ez oinetakorik, eta ez gelditu bidean inori agur egiten. Edozein etxetan sartzen zaretela, esazue lehenbizi: “Bakea etxe honetakoei!” Eta han bakezalerik bada, haren gainean kokatuko da zuen bakea; bestela, berriz, zuen bakerik gabe geldituko dira. Geldi zaitezte etxe berean; eta jan eta edan daukatenetik, zor baitzaio langileari bere saria. Ez ibili etxex etxe. Herriren batean sartu eta ondo

hartzen bazaituztete, jan jartzen dizuetenetik, sendatu bertako gaixoak eta esaiezue: “Hurbil duzue Jainkoaren erreinua”».

Jesusen bitzta historikoan jadanik, hurbiletik jarraitzen dioten eta beraren misioan zuzenean partaide diren ikasleak Hamabien talde txikia baino askoz gehiago dira. Hirurogeita hamabiok bidean den Jainkoaren herri osoa ordezkatzeko dute, bideetatik irteteko deia Jaunagandik etengabe hartzen ari den Eliza sinodal hori, alegia. Jesusek nahi du bidaliak diren hauek espero dien gatazkaren jakinaren gainean bizi daitezela, «bildotsak otso artean bezala» bizi beharko dute eta. Jesusek gomendatu dien mezu hau ez da indarrez ezartzekoa: presentzia eskatzen du, leuntasuna, otzantasuna, konfiantza Jainkoaren arduran. Elkarrekin joan behar dute, binaka gutxienez, Jainkoaren Erreinuak senidetasunaren mahai irekira baitigu dei egiten.

* * *

Utzidazu, Lukas maitea / galdera batzuk
eta eskari bat egiten:

Zergatik, zeure idatzien arabera hain eskolatua eta biziera erosokoa izanik,
maitemindu zinen Jesus pobre eta xumeaz, bera aurrez aurre ezagutu gabe?

Zergatik azpimarratzen duzu horrenbeste Jainkoaren hurbiltasuna baztertuekiko, eta agertzen duzu aldi berean hain gogorra aberats eta harroputzekiko? Zer esan zizuten Jesusez, zuk zeure biziera hain errotik aldatzeko?

Zenbateraino sentitu zinen barkatua hainbeste azpimarratzeko haren barkazioa?

Erregutu, Lukas adiskidea, Jesusen eta gure Aitari: hitz egin diezagutela Jesusez zuri egin zizuten bezala, hitz egin dezagula beraz zuk hitz egin zenuen maitasun beraz,
guk, zuk bezala, maita dezagun eta jarrai diezaigun. (*José M. Valverde*)

Urteko 28. astea

Santuak: Joan de Brébeuf, Isaak Joguez,
apaizak, eta lagunak, *martiriak*, *jesuitak*
 San Pedro Alcantarakoa, *frantziskotarra*, *apaiza*,*

San Paulok Erromatarrei 3, 21-30a: Fedegatik hartzen ditu zintzotzat.

Sal 129: Jaunagan dago errukia, harengan askatasun ugaria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 11, 47-54.

Aldi hartan, Jaunak esan zuen: «Ai zuek, zuen arbasoek hildako profetei hilarriak eraikitzen dizkiezuenok! Horrela, arbasoek egindakoarekin ados zaudetela aitortzen duzue; zeren haiek hil egin baitzituzten profetak, eta zuek hilarriak eraikitzen baitzitziezue. Zerbaitegatik esan zuen Jainkoaren jakinduriak: “Profetak eta apostoluak bidaliko dizkiet eta batzuk hil eta beste batzuk erasoka erabiliko dituzte”. Baina munduaren hasieratik isuri den profeta guztien odolaren kontuak eskatuko dizkio Jainkoak gizaldi honi: hasi Abelen odoletik eta aldaretik santutegira bitartean hil zuten Zakariasen odolerraino. Bai, Nik diotsuet gizaldi honi eskatuko dizkiola kontuak. Ai zuek, lege-maisuok, jakintzaren ateko giltzaren jabe egin zaretenok! Zuek ez zarete sartu, eta sartu nahi zutenei ez diezue utzi». Jesus handik atera zenean, fariseuek eta lege-maisuek gupidarik gabe eraso zioten, galderak egin eta egin, ea erantzun okerren batean harrapatzen zuten.

Lau ebanjelioek argi asko agertzen digute Jesusek bizi izan duen liskarra bere herriko lider erlijiosoekin; hauek, kasik beraren jendaurreko bizitzaren hasieratik garbitu nahi izan dute. Munduaren ikusmoldea partekatzea eragozten dien alde handia dute beren artean: liderrak bizia aginduen kaiolan hesitu nahian tematzen dira; Jesusek, berriz, gizakia hesiturik daukaten presondegiak irekitzeko deia jaso duela sentitzen du eta irteteko lehia ari duen bizia askatzekoa. «Jakite» era berri batean sartzeko deia dagigu Jesusek; metatutako «jakiteekin» zerkusirik ez duen «jakitea» da; aitzitik, maitasunaren jakinduria kreatzailea da. Ez da harritzekoa Legearen maisuek Jesusi ez ulertzea, ezta geuk ere, batzuetan.

* San Paulo Gurutzekoa, *fundatzailea* (pasiotarrak) *apaiza*
 San Grat (Zuberoa VI. mendean), *gotzaina*

Urteko 28. astea
 Santa Aurora, *aitorlea*
 San Kornelio, *ehuntaria*

San Paulok Erromatarrei 4, 1-8: Abrahamek sinetsi zion Jainkoari, eta sinesmen hori aintzat hartu zitzaion zuzentasunerako. **Sal 31:** Jaunak bere salbamera ezagutarazten du.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 1-7.

Aldi hartan, milaka eta milaka lagun bildu zen, elkar zapaldu beharrean. Jesus hizketan hasi zitzaien, lehenik ikasleei zuzenduz: «Ibili kontuz fariseuen legamiarekin, hau da, itxurazalekeriarekin. Ez dago ezer gordeta agertuko ez denik, ezta ezer ezkutuan ere jakingo ez denik. Zeren gau-ilunez esan duzuen egun-argiz entzungo baita, eta etxe-zokoan bellarira esan duzuen etxe gainetik hots egingo. Zuei diotsuet, ene adiskideoi: ez izan beldurrik gorputza hil bai, baina hortik aurrera ezer egiterik ez dutenei. Esango dituzet nori izan beldur: izan beldur hiltzeko eta ondoren infernua botatzeko ahalmena duenari. Bai, izan beldur horri! Ez al dira bost txori bi txanponean saltzen? Hala ere, haietako bat bakarra ere ez dauka Jainkoak ahazturik. Zuen buruko ile guztiak ere zenbatuak dauzka Jainkoak. Ez izan, bada, beldurrik: zuek txori guztiak baino gehiago balio duzue».

Bete-betea bizitzea da ikaslearen bokazioa. Hartarako, bi giltzarri eskaini dizkigu hemen Jesusek berari jarraitu nahi diogunoi. Lehenik eta behin, jatortasuna edo benetakotasuna, eta barne batasuna, bizitza aurpegia agerian dugula egiteko aukera ematen diguna, jakinik ez dela zer ezkataturik. Bigarren, askatasuna, norberaren bizia esku onetan dagoela sentitzeko aukera ematen duena, geure esku ez dagoelako, baizik eta Aita maitagarriak bere ardurapean hartua duelako. Bi jarrera hauek lantzeak bide ematen digu atea sarritan jotzen digun beldurraren tentazioari aurre egiteko. Kanpoko inolako indarrek suntsitu ahalko du egian bizi nahian dabiltzanen bizia, nahiz eta ez den erraza izango beti faltsutasuna eta inkoherentzia gainditzea: «fariseuen legamia» hori, alegia, zeinaz inor ez baikaude libre.

Urteko 28. astea

Santa Ursula eta lagunak, *martiriak*
Diego Luis de San Vitores, *dohatsua, apaiza*,
eta San Pedro Calungsod, *martiriak, jesuitak*

San Paulok Erromatarrei 4, 13. 16-18: Abrahamek sinetsi egin zuen, inolako itxarobiderik ez zegoenean itxaropenari utsiz. **Sal 104:** Gogoan du etengabe Jaunak bere ituna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 8-12.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Jendearen aurrean aitortzen nauena aitortuko du Gizonaren Semeak ere Jainkoaren aingeruen aurrean; baina jendearen aurrean ukatzen nauena ukatu egingo dute Jainkoaren aingeruen aurrean. Gizonaren Semearen aurka zerbait esaten duenari barkatuko dio Jainkoak; baina Espiritu Santuaren aurka birao egiten duenari ez dio barkatuko. Sinagogetara, buruzagien eta agintarien aurrera, eramango zaituztetenean, ez ibili kezkatan nola egin edo zer esan zeuen alde, Espiritu Santuak adieraziko baitzue une hartan bertan zer esan behar duzuen».

Espiritu Santua ongirantz mugitzen gaituen indarra da, Jesus Berpiztuaren presentzia atzemateko ahala ematen digun argia, Ebanjelioa hots egitera bidaltzen gaituen energia. Halaber, geure maisua dugu, Jesusi nola jarraitu irakasten diguna, eta geure babeslea dugu Erreinuaren alde benetan lan egin nahi dugunean aurkitzen ditugun zailtasunen aurrean. Horregatik ematen du hain larria Espiritu Santuaren aurkako bekatuak, Jainkoak gugan eta gu bitarte gaituela egiten ahal duen on guztiari uko egitearen pareko baita. Espirituari egunero egiten dizkiogun itxikeria txikiak gorabehera, ez dezagula galdu geure jarrera nagusia Espiritu beraren egintzaren indar eraldatzailea onartzeko.

Isaias Profetaren liburutik 45, 1. 4-6.

Honela mintzo zaio Jauna Ziro erregeari, berak aukeratu eta sagaratuari: «Eskutik heldu dizut, nazioak zure menpean jartzeko eta erregeei soinetik armak kentzeko; zure aurrean hirietako ateak erabat zabaltzeko. Jakob neure zerbitzariagatik, Israel neure aukeratuagatik, deitu zaitut zeure izenaz eta bete zaitut ohorez, zuk Ni ezagutzen ez nauzun arren. Ni naiz Jauna, eta ez da besterik; ez da jainkorik, Ni baizik. Aginpidez jantzi zaitut, zuk Ni ezagutzen ez nauzun arren, ekialdetik mendebaldera jakin dezaten ez dela inor Ni besterik. Ni naiz Jauna, eta ez da besterik».

Sal 95: Goretsi Jaunaren ospea eta indarra.**San Paulok 1 Tesalonikarrei 1, 1-5b.**

Paulok, Silvanok eta Timoteok, Jainko Aitarekin eta Jesu Kristo Jaunarekin bat eginik dagoen Tesalonikako eliz elkarteari: grazia eta bakea zuei. Eskerrak ematen dizkiogu beti Jainkoari zuek guztiongatik, gure otoitzetan gogoan zaituztegula. Jainko gure Aitaren aurrean gogora dakargu etengabe zuen sinesmen ekintzailea, zuen maitasun saiatiua eta Jesu Kristo gure Jaunagan duzuen itxaropen iraunkorra. Badakigu, senideok, Jainkoaren maiteok, berak aukeratu zaituztela. Izan ere, guk zuei hots egindako Berri Ona ez genizuen hitz hutsez eman, baizik baita Espiritu Santuaren indar beteaz ere.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22, 15-21.

Aldi hartan, fariseuek elkar hartu zuten, galdera bat eginez Jesusi tranpa jartzeko. Horretarako, ikasle batzuk bidali zizkieten, Herodesen alderdikoekin, galdetzeraz: «Maisu, badakigu egiazale zarela eta Jainkoaren bidea behar bezala irakasten duzula, Zuk ez baitiozu begiratzen gizakiaren itxurari. Emaguzu, bada, zeure iritzia:

Urteko 29. astea

San Joan Paulo II.a, *aita santua*Nunilo (Novila) eta Alodia santuak, ahizpak, *birjinak eta martiriak (Iruñeko eta Tuterako elizbarrutietan)*

zilegi da Zesarri zerga ordaintzea ala ez?». Jesusek, haien maltzurkeria igarriz, esan zien: «Zergatik zatozkidate zirika, itxurazaleok? Ea, erakutsi zerga-txanpona». Haiek denario bat aurkeztu zioten. Jesusek galdetu zien: «Norenak dira irudi eta izen hauek?». Haiek erantzun: «Zesarrenak». Jesusek, orduan: «Eman, bada, Zesarrena Zesarri, eta Jainkoarena Jainkoari».

Bai erraza dela lerro gorri bat marraztea Zesarren eta Jainkoaren artean, nor bere aldean utziz, aukera berdinekin. Ez da hori, ordea, Jesusen asmoa: ez du aitortzen Jainkoaren egitasmoa ez den beste ezer, ezta gizakietako bakoitzarentzat bizi betea beste egitasmorik, txikienak eta pobreenak barne. Berak ere jasan du presio fiskala eta badaki noraino iristen den lurreko jaunen tirania. Horregatik atzeman du hain laster Israelgo boteretsuen mandatarien hipokresia, ez baitabilza egiaren bila, baizik eta bera atxilotzeko eta erailtzeko argudio bila. Beren zurikeria pean («Maisu, badakigu egiatia zarela...») «beren borondate gaiztoa» gordetzen dute, arrakastarik gabe: nahi dutena Jesus salatzea da matxinotzat edota izen txarra ezartzea herriaren aurrean. Jesusen erantzuna adierazi dioten arazoa baino askoz harago doa, beraiek ez baitute galdetu Jainkoari zer eman behar zaion. Eta horixe da, hain justu, Jesusi axola zaiona. Izan ere, zintzo bilatzen dugunean Jainkoari eta beronen Erreinuari eman behar dioguna, harriturik jabetzen gara den-dena berarena dela eta gutxiena dutenena.

Urteko 29. astea

San Joan Kapestrano-koa (Italia), *frantziskotarra, apaiza*

San Paulok Erromatarrei 4, 20-25: Liburu Santuak guregatik ere esaten du; gu ere aintzat hartuko gaitu, harengan sinesten badugu.

Sal: Lukas 1: Bedeinkatu Jauna Israelgo Jainkoa, agertu eta bere herria askatu duena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 13-21.

Aldi hartan, jende arteko batek esan zion Jesusi: «Maisu, esaiozu nire anaiari senipartea nirekin erdibanatzeko». Jesusek erantzun zion: «Lagun, nork jarri nau Ni zuen artean epaile edo ondasun-banatzaile?». Eta jendeari esan zion: «Kontuz! Gorde diru-gosetik, ondasunek ez baitiote inori bizia segurtatzen, ugari izanda ere». Gero, parabola hau kontatu zien: «Gizon aberats bati lurrak uzta handia eman zion. Eta honela hasi zen berekiko pentsatzen: “Zer egin, ez baitut uzta non jasorik”. Eta beretzat esan zuen: “Badakit zer egin: mandio zaharrak bota eta handiagoak egingo ditut eta haietan jasoko ditut garia eta gainerakoak. Gero, esango diot neure buruari: “Ea, motel! Baduk hor gordeta urtetarako ondasunik aski; hartu atsedean, jan, edan eta bizi ongi!”. Baina Jainkoak esan zion: “Burugabea halakoa! Gaur gauean bertan hil behar duk. Norentzat izango duk pilatu duana?”». Eta amaitu zuen Jesusek: «Horra zer gertatzen zaion, Jainkoarentzat aberats izan beharrean, ondasunak beretzat pilatzen dituenari».

«Aberastasunak beretzat metatzen dituen»: hor dago, agian, parabolaren giltzarria. Jainkoaren arduraren konfiantza izateaz mintzo da Jesus, txoriek eta landako lirieok izaten duten bezala (cf. Mt 6, 25-34), baina baita kalkuluak egiteaz ere dorre bat eraikitzeari edota gudu bati ekin aurretik (cf. Lk 14, 28-33). Arriskua ez datza erabaki batzuk zentzuz hartzean, baizik eta beraien hondoan ezkutatzen den motibazioa. Aise bildu daiteke diruzalekeria gure eragiketen hondoan, ongiaren itxurapean. Geure buruari galdetzea komeni zaigu zein norabide ematen diogun daukagunari, talentuak izan, ezagutza izan edo ondasun materialak izan. Bizia, batez ere bizi zaurtuaren, zerbitzura jartzen ez dugun guztia, agor geldituko da eta hemen utzirik joango gara.

Urteko 29. astea

San Antonio Maria Claret, *gotzaina eta fundatzailea*
(*Klaretarrak*)

San Paulok Erromatarrei 5, 12. 15b. 17-19. 20b-21: Gizon bakarraren bekatuagatik heriotza nagusitu bazen, zenbatez gehiago ez ote dira salbatuak nagusi izango betiko bizian! **Sal 39:** Hemen nauzu, Jauna, zure nahia egin dezadan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 35-38.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zaudete prest, jantziak loturik eta kriseiluak pizturik; izan zaitetzte nagusia ezteietatik noiz itzuliko zain dauden morroiak bezalakoak, iritsi eta atea jo bezain laster irekitzeko prest dauden morroiak bezalakoak. Zorionekoak morroi horiek, nagusiak, iristean, zain aurkitzen baditu! Egia diotsuet: arropak aldaturik, mahaian eseraraziko ditu eta zerbitzatzen hasiko zaie. Eta gauerdian nahiz goizaldean badator eta horrela aurkitzen baditu, zorionekoak haiek!».

Kristau-bizitza, pertsona maiteminduena bezala, etengabeko abendualdia da. Jauna etorri dator beti, eta «iritsi eta dei egin orduko» berari harrera egiteko itxarotean datza gure poz gutzia. Lukasek, hemen, «beste zoriontasun» bat erregalatu digu, eder-ederra. Zoriontsu gara itxarote-jarrera aktiboa bizi dugunean, kriseilua pizturik eta ordua inportu gabe zerbitzatzen jarraitzeko prest. Zoriontsuak kexatzen ez garenean Ebanjelioko lan gogorreatatik, jakinik zein den Jauna gure bihotzak espero duena. Zorionekoak gara bera irtengo zaigulako bidera bere dirdaiaz gu argitzeko eta bere Erreinuko mahaian guri zerbitzatzeko.

Urteko 29. astea

San Krispin eta San Krispiniano, *anaiak, martiriak*
(Zapatarien Zaindariak)

San Paulok Erromatarrei 6, 12-18: Heriotzatik bizira itzulitako gizaki bezala, jarri zeuen gorputz-atalak Jainkoaren zerbitzura. **Sal 123:** Gure laguntza Jaunaren izena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 39-48.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Hartu gogoan hau: etxeo nagusiak, lapurra zein ordutan etorriko den jakingo balu, ez luke etxea zulatzen utziko. Egon prest zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea». Pedrok galdetu zion: «Jauna, guretzat ala denentzat esan duzu parabola hau?». Jaunak erantzun: «Izan zaitezte ethezain leiala eta zentzuduna bezalakoak, nagusiak, bere orduan behar den janaria banatzeko, morroien buru ipini duena bezalakoak. Zorionekoa morroi hori, nagusiak, iristean, agindua egiten aurkitzen badu! Benetan diotsuet: bere ondasun guztien buru ipiniko du. Baina morroia, nagusiak luzatuko duelakoan, morroi-lagunak eta neskameak jotzen eta jan-edanean eta mozkorkerian hasten bada, gutxien espero duen egunean eta gutxien uste duen orduan etorriko zaio nagusia, gogor zigortuko du eta desleialek merezi dutena emango dio. Nagusiaren nahia zein den jakin arren, gauzak hark nahi bezala eratzen edo egiten ez dituen morroiak zigor gogorra izango du; nagusiaren nahia zein den jakin gabe, zigorra merezi duen zerbait egiten duenak, berriz, biguna. Askok eman zitzaionari, asko eskatuko zaio; eta askoren kargua eman zitzaionari, are kontu handiagoa eskatuko».

Gaur irakurri dugun testu hau atzoko zoriontasunaren jarraipena da. Zorionekoak izango gara zain irauten badugu, gogoan izanik Jauna etorri datorrela beti, batzuetan berandu bada ere. Askok hartu dugu, fedearen altxor neurtezina eman digu; ez digu gehiago eskatuko –ezta gutxiago ere– esperantzari sendo eustea baino, munduko gualdi honetan. Agian, bertan gozo gelditzeko tentazioa indartzen bada, edota gure iguripenei erantzuten ez dien errealitatea mespretxatzekoa, zoriontasun honek biziara egingo gaitu eta pentsaraziko geurea ez dugun graziaren administratzaile garela, Jauna iritsi arte.

Urteko 29. astea

San Evaristo, 5. *aita santua*

San Paulok Erromatarrei 6, 19-23: Bekatuaren menpetik askaturik, Jainkoaren esklabo eginak izan zarete. **Sal 1:** Zorionekoa Jaunagan itzarobidea jartzen duena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 49-53.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Lurrean sua jartzera etorri naiz, eta nahiago nuke dagoeneko sutan balego! Heriotza-uretan murgildu behar dut, eta hau larria hori bete arte! Munduari bakea ekartzera etorri naizela uste al duzue? Bakea ez, banaketa baizik. Zeren hemendik aurrera, etxe bateko bost senideak banaturik egongo baitira: hiru biren kontra eta bi hiruren kontra; aita semearen aurka eta semea aitaren aurka, ama alabaren aurka eta alaba amaren aurka, amaginarreba errainaren aurka eta erraina amaginarrebaren aurka».

Jesusen mezua ezin bateratua da azpijokoekin eta kanposantuko bakearekin. Ebanjelioa su da, mundua suarazten duena senidetasun gogoeekin; baina minez desegiten duena ere bai Jainkoaren ametsa zabaltzea eragozten duen guztia. Ebanjelioa bera egiazko bakearen iturbururik sakonena da, maitasunari darion hura; baina ezin hazi da beti eta gainerako guztiakin ondo egoteko jarrera moldakorraren ondoan. Bizitzako gatazka saihestezinen artean, ez da desegokia izango horiek guztiak nondik datozen analizatzea: Erreinuaren konpromisotik ala beti landu daitezkeen harremanetarako zailtasunetatik.

Urteko 29. astea

Bizente, Sabina eta Kristeta, *anai-arrebak, martiriak*

San Paulok Erromatarrei 7, 18-25a: Nork askatuko nau, heriotzara naraman neure izaera honetatik? **Sal 118:** Irakatsi niri, Jauna, zeure arauak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 12, 54-59.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Sartaldean lainoa ikusi orduko, “euria dator” esaten duzue, eta hala gertatzen da. Hegoak jotzen duenean, berriz, “sargori dago” esaten duzue, eta hala gertatzen da. Itxurazaleok! Badakizue zeru-lurren itxurari antzematen, eta nolaz ez diozue antzematen garai honi? Zergatik ez duzue zeuen kabuz bereizten zuzena zer den? Zeure etsaiarekin auzitegira zoazela, saia zaitetz bidean harekin konponbidea aurkitzen; bestela, epailegana eramango zaitu eta epaileak ertzainaren esku jarriko, eta ertzainak kartzelara botako. Hara Nik esan: ez zara handik aterako, azken xentimoa ordaindu arte».

Jakitearen eta jakinduriaren artean alde handia dago. Ez dute ulertzen pertsona guztiek zer esan nahi duen hodei batek sartaldetik gora egitea; hartarako eguraldiaren berri jakin behar izaten da, eta hori pazientziaz, irakasleen laguntzaz eta aritzearen aritzeaz lortzen da. Halaz guztiz, arazoa «orainaldiko aldia» interpretatzea denean, zenbait ezagutza baino zerbait gehiago behar izaten da; jakinduria behar da: errealitatearen azaletik barnera jo behar izaten da eta giza bihotzean gertatzen dena bereiztea. Espiritu-bizitzan ezinbestekoa den jakinduria hau arduraz landu daiteke, egunero gertatzen zaiguna arretaz bizi badugu. Baina, batez ere, jakinduria eskatu egin behar da, Espirituak dohaintzat eskuzabal erregalaten digu, mundua Jainkoaren begiez ikusi ahal dezagun.

Urteko 29. astea

San Simon eta San Judas, *apostoluak*

San Paulok Efesoarrei 2, 19-22: Apostoluen oinarri gainean eraikiak zaudete. **Sal 18:** Lurbira guztira zabaltzen da haien hotsa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 6, 12-19.

Aldi hartan, Jesus mendira joan zen otoitz egitera, eta Jainkoari otoitzean igaro zuen gaua. Eguna argitu zuenean, ikasleei deitu eta haietako hamabi aukeratu zituen, eta apostolu izena eman zien: Simon –honi Pedro izena ezarri zion– eta honen anaia Andres, Santiago, Joan, Felipe, Bartolome, Mateo, Tomas, Santiago Alfeorena, Simon –Zelote zeritzana–, Judas Santiagorena eta Judas Iskariote, Jesusen saltzaile izan zena. Jesus ikasleekin menditik jaitsi eta zelaingue batean gelditu zen. Ikasle-multzo handia zen harekin; baita herriko jendetza ugaria ere, Judea osotik, Jerusalemdik eta Tiroko eta Sidongo itsasaldetik etorria, hari entzutera eta beren gaitzetatik sendatzera. Espiritu gaiztoek oinazetuak sendatu egiten ziren. Jende guztiak Jesus ukitu nahi zuen, halako indar bat baitzerion, denak sendatzen zituena.

Apostolu hauek, ez hain ezagunak, Simon eta Judas, historian barna Jesusi, medailarik eta ohore-titulurik gabe, jarraitu izan dion jende handi horretara garamatzate. Bi gizonezko hauek, berauen lagunek eta taldeko emakumeek bezala, Jesusen deia jaso dute eta Jesusek aukeratu ditu. Jesusek ezagutzen ditu beraien izena eta historia; maitasun pertsonalez hautatu ditu eta nor bere indarrez hornitu, beraiek ere, beren aldetik, beste pertsona batzuk sendatzeko gai izan daitezten. Nola Simonek hala Judasek bizitza zirraragarria bizi bide dute Jesusen ondoan, beraiez oroitzapen berezi askorik ez dugun arren. Salbamen-historia orobat idazten da ia anonimo diren pertsonaien, bizia emateko gai izan eta arrastorik utzi gabe ezkatutu direnen testigantzari esker.

Irteera liburutik 22, 20-26.

Honela mintzo da Jauna: «Ez gaizki erabili, ez zapaldu etorkina, zuek ere etorkin izan baitzarete Egipton. Ez egin kalterik alargunari eta umezurtzari; zeren, kalte egiten badiezue, haiek nigana laguntza eske deiarar egitean, entzun egingo baitiet, sutuko da nire haserrea eta ezpataz hilko zaituztet; orduan, zuen emazteak bihurtuko dira alargun, eta zuen seme-alabak umezurtz. Zuekin bizi den nire herriko behartsuren bati dirua maileguz ematen badiozu, ez izan zikoitz berarekin, ez ezarri interesik. Zeure lagun hurkoari soingainekoa hartzen badiozu bahituran, itzul iezaiozu eguzkia sartzerako; ez baitu hori beste estalkirik. Zerekin babestuko da, bestela, lo egiteko? Laguntza eske deiarar egitean, entzun egingo diot, errukiorra bainaiz Ni».

Sal 17: Maite zaitut, Jauna, neure indar.

San Paulok 1 Tesalonikarrei 1, 5c-10.

Senideok: Ongi dakizue zuen artean egin genuen guztia zuen onerako izan zela. Eta zuek gu eta Jauna eredutzat hartu gintuzuen, Espiritu Santuaren pozez onartu baitzenuten Jainkoaren mezua, atsekabe askoren artean izanik ere. Horrela, eredu gertatu zarete Mazedoniako eta Akaiako fededun guztientzat. Hain zuzen, zuenetik zabaldu da Mazedoniara eta Akaiara Jaunaren mezua; eta eskualde horietara ez ezik, bazter guztietara ere iritsi da Jainkoagan duzuen sinesmenaren entzutea, guk ezer esan beharrik gabe. Izan ere, haiek kontaktzen dute nolako harrera egin zeniguten zuengana joan ginenean eta nola, sasijainkoak utzirik, Jainko bizi eta egiazkoagana itzuli zineten, bera zerbitzatzeko eta zerutik etorriko den haren Seme Jesusen zain egoteko. Jainkoak hildakoen artetik piztu zuen Jesus, eta honek askatu gaitu etortzekoa den haserre-zigorretik.

Urteko 30. astea

San Nartziso Jerusalemekoa, *gotzaina*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22, 34-40.

Aldi hartan, Jesusek saduzearrak hitzik gabe utzi zituela jakitean, elkarrekin bildu ziren fariseuak, eta haien arteko legegizon batek azpikeriaz galdetu zion Jesusi: «Maisu, zein da legeko agindurik nagusiena?». Jesusek erantzun: «“Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz eta adimen guztiz”. Hau da agindurik nagusiena eta lehena. Eta bigarrena horren parekoa da: “Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala”. Bi agindu hauetan oinarritzen dira Liburu Santu guztiak».

Zenbat bider ihes egin nahi izaten diogun funtzeskoari, hain gauza xumea den horri! Legearen giharra ez zen sekretua inongo judu jainkotiarrentzat, askoz gutxiago lege-jende adituarentzat. Nolatan galdetu, beraz, Jesusi, «bera probatzeko ez bada», bera nahasi nahiz ez bada? Israel herriaren erroetan datoz bi aginduak: Jainkoa maitatzea eta lagun hurkoa maitatzea, berez maitasunaren agindu bakar bihurtzen direnak. Jainkoa maitatzea oso gauza erraza izango litzateke, bzitzairekin zerikusirik ez lukeen kultu izatera mugatu balitz. Alabaina, Profeten Jainkoak uko egiten dio hurko zaurituaren gupida bihurtzen ez den opari orori, berarekin harremanak izateko bide zihurrrak eskaintzeaz gain: ez zapaldu atzerritarra, ez ustiatu emakume alarguna eta umezurtzak, ez baliatu usuraz, ez utzi pobrea bere pobretasunean. Jesus tranpan eroarazi nahi izan zuten fariseu haiek bezala, geuk ere nahi izan genuke geure maitasuna mugatu lotura bertikal eta zuzeneko hutsera. Itzulbirak gogaikarri izaten ditugu eta bizitza korapilatzen digute, denbora galarazten digute entzun nahi ez diogun jendearekin egoteko. Baina, Jesusen ikuspegian, ez da beste biderik.

Urteko 30. astea

San Martzelo, *martiria*Domingo Collins, *dohatsua, jesuita*

San Paulok Erromatarrei 8, 12-17: Seme-alaba egiten zaituzten Espiritua hartu duzue, eta Espirituaren bidez «Abba!», hau da, «Aita!» hots egiten diozue Jainkoari. **Sal 67:** Gure Jainkoa Jainko salbatzailea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13, 10-17.

Aldi hartan, larunbatez sinagoga batean irakasten ari zen Jesus. Bazen han emakume bat, hemezortzi urte haietan espiritu baten menpe gaixo zegoena; erabat konkortua zegoen eta ezin zen inola ere zuzendu. Ikustean, Jesusek deitu eta esan zion: «Emakume, libre zara zeure gaitzetik». Eskuak ezarri zizkion, eta bat-batean zuzendu zen eta Jainkoa goersten hasi. Sinagogako buruzagiak, Jesusek larunbatean sendatu zuelako haserre, esan zion jendeari: «Astean sei egun daude lanerako; etorri egun horietan sendatzera, eta ez larunbatean». Jaunak erantzun zion: «Itxurazaleok! Zuetako nork ez du larunbatez idia nahiz astoa ukuilutik askatzen eta ura edatera eramaten? Eta Abrahamen ondorengo den honi, hemezortzi urtez Satanasek lotua eduki duen honi, ez ote zitzaion larunbatez lokarri hori askatu behar?». Hitz hauekin, lotsa-lotsa eginik geratu ziren Jesusen etsai guztiak; jendetza, ordea, pozik zegoen hark egiten zituen gauza miragarri guztiengatik.

Pertsona konkortuak ez du ikusten zorua beste ezer; horregatik da hain presakoa pertsona hori larunbatean sendatzea; izan ere, gizakiok aske bizitzeko eginak gara, zutik bizitzeko eginak, zerura begiratu eta Jainkoari aintza emateko eginak. Bistakoa denez, ez da inoiz ere falta izaten «sinagogako buruzagi bat», gogorarazten duena zer den zilegi egitea eta zer ez, kontuan izan gabe benetako kultua, zinezko larunbata eta behin betiko tenplua bizia dela, bizi betea. Jesusen mirariek jende asko poztarazten dute eta beste asko lotsarazten, zeren eta, mirari horien zentzua atzemateko, alde zehatz batean kokatu behar izaten baita, zeinetan biziak mila bider gehiago balio baitu buruz ikasitako zenbait aginduk baino. Ikuspegi hori hautatzea da egun bakoitzeko eta eguneroko zeregina.

Urteko 30. astea

San Alonso Rodriguez, *jesuita*

San Paulok Erromatarrei egindako gutunetik 8, 18-25: Izadia bera ere irrikaz dago, zain-zain, Jainkoak noiz agertuko bere seme-alaba izatea zer den. **Sal 125:** Gurekin handikiro jokatu du Jaunak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 13, 18-21.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeren irudiko da Jainkoaren erreinua? Zeren antzekoa dela esango nuke? Gizon batek bere baratzean botatzen duen mostaza-haziaren antzekoa da: hazten da eta zuhaitz egiten, eta txoriek haren adarretan egiten dute habia». Esan zuen gainera: «Zeren antzekoa dela esango nuke Jainkoaren erreinua? Legamiaren antzekoa da: emakume batek hiru lakari-irinetan nahasten du, eta oraldi guztia harrotzen da».

Gauza polita izaten da pentsatzea mostaza-hazi txiker bat bihur daitekeela halako batean txorientzat babesleku, beren habia egiteko. Jainkoaren Erreinuak txikiaren txikiak duen indar berezi horixe du: gauzarik lehorrenak eta zekenduenak eraldatzen ditu pazientziaz arituz. Hazi bat ez da hazten indarka, legamia-eskutada batek ez du harrotzen presaren presaz ibilita. Jainkoaren Erreinuak, gudan hazteko eta mundua irrigatzeko, bere denbora behar izaten du. Hori aintzat hartzea ez da izaten hain gauza erraza: begiak garbi behar izaten ditugu eta harridurarako gai izatea, Jainkoaren egintza atzemateko, ezintasun iraunkorrez gauzatzen baita, ez baitu ematen bere emaitza epe laburrera.





GAZTEEKIN

bide eginez

etorkizun

ITZAROPENTSU

bat

SORTZEKO

The illustration features the words 'GAZTEEKIN', 'ITZAROPENTSU', and 'SORTZEKO' in large, bold, black, hand-drawn capital letters. 'GAZTEEKIN' is at the top, with two small black footprints above it. Below it, 'bide eginez' is written in a cursive script. A dashed-line oval encloses the word 'etorkizun' in a similar cursive script. Below that, 'ITZAROPENTSU' is written in the bold letters, with a dashed arrow pointing from the 'S' to the word 'bat' in cursive. To the right of 'bat' is a small five-pointed star outline and a small circle containing a checkmark. At the bottom, 'SORTZEKO' is written in the largest bold letters.

AZAROA / ZEMENDIA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Aita Santuaren alde: Otoitz egin dezagun Aita Santuaren alde, bere misioaren jardueran gomendatu zaion gizataldeari fedean lagun egiten jarrai dezan, Espiritu Santua lagun duela.



Apokalipsia liburutik 7, 2-4.9-14.

Nik, Joanek, beste aingeru bat ikusi nuen ekialdetik igotzen, Jainko biziaren zigilua zuelarik, eta ozenki egin zien deiadar lurra eta itsasoa hondatzeko ahalmena eman zitzaien lau aingeruei, esanez: «Ez hondatu lurra, ez itsasoa, ezta zuhaitzak ere, harik eta gure Jainkoaren zerbitzariak bekokian zigiluz markatu arte». Zigiluz markatuak zenbat ziren entzun nuen: ehun eta berrogeita lau mila, israeldar leinu guztietatik hartuak. Ondoren gizatalde handi bat ikusi nuen, inork kontaezin ahalekoa; nazio, arraza, herri eta hizkuntza guztietako jendea zegoen, tronuaren eta Bildotsaren aurrean zutik, soineko zuriz jantziak eta palma-adarra eskuetan. Eta ahots handiz egiten zuten deiadar: «Tronuan eseria dagoen gure Jainkoari eta Bildotsari zor diegu salbamen». Tronuaren, zaharren eta lau izaki bizidunen inguruan zutik zeuden aingeru guztiak ahuspeztu egin ziren tronuaren aurrean, eta Jainkoa adoratu zuten, esanez: «Amen. Bedeinkazioa, aintza, jakinduria, esker ona, ohorea, ahalmena eta indarra gure Jainkoari menderen mendetan. Amen». Orduan, zaharretako bat mintzatu zitzaidan, esanez: «Soineko zuriz jantziak dauden horiek, zein dira eta nondik datoz?». Nik erantzun nion: «Ene Jauna, zeuk jakingo duzu». Hark esan zidan: «Hauek larrialdi handitik datozenak dira; beren soinekoak Bildotsaren odolean garbitu dituzte eta zuritu».

Sal 23: Hau da, Jauna, zure aurpegi bila dabiltzanen taldea.

San Joan Apostoluaren 1. gutunetik 3, 1-3.

Seme-alaba maiteok: Begira zenbaterainoko maitasuna agertu digun Aitak, Jainkoaren seme-alaba izena baitaramagu, baita izana ere. Hona zergatik munduak ez gaituen ezagutzen: Aita ere ezagutu ez zuelako. Ene maiteok, orain Jainkoaren seme-alaba gara; gero izango garena oraindik ez da agertu. Badakigu, Kristo agertuko denean, haren antzeko izango garel, den bezalakoa ikusiko baitugu. Harengan

Itxaropen hau duen orok garbitu egiten du bere burua, hura garbia den bezala.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5, 1-12a.

Aldi hartan, jendetza ikusirik, Jesus mendira igo zen. Eseri eta ikasleak inguratu zitzaizkion. Orduan, honela hasi zitzaien irakasten: «Zorionekoak gogoz behartsu direnak, berena baitute Jainkoaren erreinua. Zorionekoak atsekabetuak, beraiek baititu Jainkoak kontsolatuko. Zorionekoak apalak, berek izango baitute agindutako lurra ondare. Zorionekoak zuzentasunaren gose eta egarri direnak, beraiek baititu Jainkoak aseko. Zorionekoak errukitsuak, beraiek baititu Jainkoak erruki izango. Zorionekoak bihotz-garbi direnak, berek ikusiko baitute Jainkoa. Zorionekoak bakegileak, Jainkoaren seme-alaba izango baitira. Zorionekoak zuzentasunagatik erasoa jasaten dutenak, berena baitute Jainkoaren erreinua. Zorionekoak zuek, nigatik madarikatuko zaituztetenean, erasoka eta gezurrez gaizki esaka erabiliko zaituztetenean. Poztu zaitetze eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruetan».

Bizitzak aztarnak uzten ditu: zimurrak kopetan, zauriak harremanetan, nekeak eta etsipenak, hartutako hainbeste ontasunagatik eskertutako oroimena... Sinestedunak ondo daki mingarriak nahiz zoriontsuak diren aztarna horietako bakoitza, barrutik eusten eta laguntzen duela Jainkoaren maitasunaren funtsezko zigu ezabaezinak. Berak sortuak gara, beraren eskuek eginak, eta berak hitzeman digu osotasunera eramango gaituela, historiaren bide bihurrietan barna. «Inork konta ezineko jendetza izugarria gara»; martxan dagoen gizateria gara, guztiontzat oparoa den bizitzaren horizonteak erakarrira dabilen herria. Bidean zehar lagun dugun jende anonimo asko itxaropen posible horren testigu da. Gaur horien guztien jaija da, egunerokotasun arruntean egin duten bizitza Jainkoaren maitasunak

AZAROA / ZEMENDIA Asteazkena / Eguaztena

Urteko 30. astea

SANTU GUZTIEN OROIPENA

Pedro Asuakoa (*Balmaseda 1890–Liendo [Kantabria] 1936*),
dohatsua, apaiza, martiria

1

onartu dituela pozik ospatzeko eguna dugu. «Aldameneko ateko santu» horiek zoriontasunen jakinduriara garamatzate. Ondo gogorarazten digute horiek santutasuna ez datzala perfekzio moral eskuraezin batean, baizik eta Jainko biziarekin egunero harremanetan izatean, baita malkoen eta sufrimenduaren artean ere.

* * *

Sinesten du Jesusengan, Maisua da,
bizirako bide ezaguna du hark.
Sinesten dut haren hitzean, hain xumea,
neure barnearen barneena esnatzen didana,
pertonago eta haurrideago nau egiten.
Sinesten dut hobe dudala eman hartu baino,
hobe dudala barkatu mendekatu baino,
hobe dudala partekatu metatu baino,
hobe dudala gutxirekin bizi,
hobe dudala erein bildu baino,
hobe dudala neure burua erein gorde baino,
hobe dudala bide egin lekuan lekutu baino,
hobe dudala fidatu juzgatu baino.
Sinesten dut zorionekoak direla, batez ere,
Jainkoaren Hitza entzuten eta betetzen dutenak.

(José E. Galarreta)

Joben liburutik 19, 1.23-27a.

Jobek esan zuen: Ai nire hitzak idatziak geldituko balira, liburuan ezarriak! Edota burdinazko eztenaz eta berunaz betiko grabatuak haitzean! Nik badakit nire eskubidearen babeslea bizi dela eta, azkenean, hautsaren gainetik jaikiko dela. Nire larruazal hau hondatu ondoren, gorputzik gabe, Jainkoa ikusiko dut. Nik neuk ikusiko dut, eta ez bestek; neure begiez ikusiko dut. Bihotza sutan dut neure barruan!».

Sal 24: Jauna, zugana jasotzen dut gogo.**San Paulok Filipoarrei 3, 20-21.**

Senideok: Gu zeruko hiritar gara eta handik itxaro dugu Salbatzailea, Jesu Kristo Jauna. Hark antzaldutako du gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren irudiko eginez, gauza guztiak bere menpe jartzeko duen ahalmenari esker.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 15, 33-39; 16, 1-6.

Eguerdian lurralde hura guztia ilunpean gelditu zen, arratsalde erdia arte. Eta arratsalde erdian Jesusek oihu handiz esan zuen: «Eloi, Eloi, lema sabaktani» –hau da: «Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu eskutik?»–. Han zeuden batzuek, hau entzutean, zioten: «Eliasi deika ari da». Eta batek, lasterka joan, belaki bat ozpinetan busti eta, kanabera-muturrean jarrita, edateko eman zion, esanez: «Utziozue; ikus dezagun, ea etortzen zaion Elias, gurutzetik jaistera». Eta Jesusek, deiadar handi bat eginez, azken arnasa eman zuen. Jauretxeko oihala erdibi egin zen goitik beheraino. Haren aurrez aurre zegoen gudari-ehuntariak, berriz, era horretan hil zela ikustean, esan zuen: «Gizon hau, benetan, Jainkoaren Semea zen». Bazeuden han, urrutitik begira, emakume batzuk ere; haien artean, Maria Magdalena, Santiago

Urteko 30. astea

HILDAKO GUZTIEN OROIPENA

gaztearen eta Joserren ama Maria, eta Salome –Jesus Galilean ibili zenean, laguntzaile eta zerbitzari izaten zituenak– eta beste emakume asko, Jesusekin batean Jerusalemara igo zirenak. Ilunabarrean, Prestaera Eguna, larunbat-bezpera, zelako, etorri zen Arimateako Jose –Batzarreko gizon argia, Jainkoaren erreinua itxaro zuena bera ere–, eta ausardiaz Pilatogana joan zen, Jesusen gorpua eskatzera. Harritu zen Pilato, ordurako hila zelako, eta, ehuntariari dei eginez, aspaldi hil al zen galdetu zion. Ehuntariaren erantzuna jakin zuenean, utzi zion gorpua Joseri. Honek, izara bat erosi eta, gurutzetik jaitsirik, izaran bildu zuen; harkaitz bizian zulatutako hilobi batean ipini eta, hilobiko sarreran, harri biribil bat ezarri. Maria Magdalena eta Joserren Maria begira zeuden non jartzen zuten.

Jaiotza eta heriotza izaki bizidun guztien ibilbidea markatzen duten bi esperientzia dira. Jesusek, gure gizateriaren atea zeharkatzean, heriotza nahitaezko igarobide bezala onartu zuen. Berpizkundearen argia bizi duen Jesusen heriotzatik aurrera, gizaki ororen heriotzak esperantzaren horizontea hartzen du. Jesus berpiztuak gure azken helmugan itxaro gaitu, eta,aldi berean, haraino eramaten gaituen bidean bidelagun dugu. Hildakoak oroitzea joan diren pertsonak gogoratzea baino askoz gehiago da; heriotzari begietara begiratzea esan nahi du gainera, haren bidez bizitzaren osotasuna lortuko dugun konfiantzaz.

Urteko 30. astea

San Martin Porres, *domingotarra*Ruperto Mayer, *dohatsua, apaiza, jesuita*

San Paulok Erromatarrei 9, 1-5: Ni neu madarikatua izatea ere onartuko nuke, nire odoleko senideen onerako. Sal 147: Jerusalem, ospa ezazu Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 1-6.

Aldi hartan, larunbat batean, fariseu-buruetako baten etxera joan zen Jesus bazkaltzera, eta fariseuak zelatan zegozkion. Ur-mina zuen gizon bat zegoen han Jesusen aurrean. Jesusek, orduan, lege-maisu eta fariseuei galdetu zien: «Zilegi da larunbatez sendatzea ala ez?». Haiek isilik gelditu ziren. Orduan, Jesusek, gaixoa eskutik hartu, sendatu eta bidali egin zuen. Gero, haiei esan zien: «Zuetako nork, semea nahiz idia putzura erortzen bazaio, ez du berehala ateratzen, larunbata izanagatik?». Ezin izan zioten erantzun.

Hipokrisia da Jesusek okerrenik jasaten duen fariseuen jarrera. Irakasle horiek inkoherenteak dira, egiten ez dituzten gauzak esaten dituzte; interesatzen zaienean, beraiek hausten dituzten aginduak betetzera behartzen dituzte besteak. Funtsean, jokabide hori ez zaigu hain arrotza egiten. Guk ere oso argi dauzkagu printzipio batzuk, eta irmotasunez defendatzeko ere gai izaten gara, nahiz-eta geure ekintzetan ez ditugun beti zehazki betetzen, batez ere bizitza konplikatzen digutenean. Sendagarria izan daiteke Jesusi gure barruan ezkututzen diren fariseismo-guneen berri ematen uztea, koherentzia handiagoz jokatu ahal dezagun. Batzuetan isilik egon behar izaten dugu, egiari hitza hartzen utziz.

Urteko 30. astea

San Karlos Borromeo, *gotzaina*

San Paulok Erromatarrei 11, 1-2a. 11-12. 25-29: Israeldarrak baztertzetik Jainkoarekin baketzea etorri baldin bazaio munduari, zer ote datorke Jainkoak haiek berriro onartzetik? **Sal 93:** Jaunak ez du bere herria zapuztuko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 1.7-11.

Aldi hartan, larunbat batean, fariseu-buruetako baten etxera joan zen Jesus bazkaltzera, eta fariseuak zelatan zegozkion. Ohartu zen Jesus gonbidatuek aurreneko jarlekuak hartzen zituztela eta ohar hauek egin zizkien: «Ezteietara gonbidatzen zaituztenean, ez jarri mahaiburuan, baliteke-eta zu baino gonbidatu ospetsuagoren bat izatea; hala balitz, biok gonbidatu zaituztenak etorri eta esango lizuke: “Utzi tokia honi”. Orduan, azkeneko lekuan eseri beharko zenuke lotsaturik. Alderantziz, gonbidatzen zaituztenean, jarri azkeneko tokian, gonbidatu zaituenak, datorrenean, esan diezazun: “Adiskide, igo gorago!” Horrela, oso toki onean geldituko zara mahaikide guztien aurrean. Zeren eta bere burua goratzen duena beheratu egingo baitu Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

Batzuetan pentsatu ohi dugu apaltasuna nork bere burua beheratzean datzala, geure burua txiki bihurtzean. Baina beheratu..., nondik eta norantz? Eta txiki bihurtu..., norekiko? Agian errazagoa da. Umiltasuna, egiatan kreatura garen neurrian, geure burua ezagutzea izan daiteke, eta unibertsoan gutako bakoitza hauts-izpi bat baino ez dela konturatzea; eta, hala ere, gure izena bihotzean tatuatuta duen Jainkoak biziki maite gaituenaz jabetzea. Gure benetako neurrira bizitzeak lehiaketaren joko absurdutik eta ez dagokigun postu baten edo bestearen bila ibiltzetik ateratzen gaitu. Hori bai lasaitua eta poza, besterik gabe, geure izatearekiko koherentzian bizitzea!

Urteko 31. astea

Jesusen Lagundiko santu eta dohatsu guztiak
Zakarias eta Elisabet santuak, *Joan Bataiatzailearen gurasoak.***Malakias Profetaren liburutik 1, 14b–2, 2b.8-10.**

«Errege handia naiz Ni –dio Jaun ahalguztidunak–, eta begirune diote herriek nire izenari. Orain, apaizok, hona hemen zuentzako oharpena: Entzun nahi ez baduzue eta nire izenari aintza emateko axolarik ez baduzue –dio Jaun ahalguztidunak–, madarikazioa bidaliko dut zuen gainera. Zuek, apaizok, okertu egin zarete bidetik eta asko eta asko erorarazi duzue zeuen irakaspenaz. Hautsi egin duzue Lebrekin nuen ituna –dio Jaun ahalguztidunak–. Horregatik, Nik ere mespretxagarri eta kaxkar egingo zaituztet eta zirtzil herri guztiarentzat, nire bideak jarraitu ez dituzuelako eta erabakiak nor zein den begiratu hartu dituzuelako. Ez al dugu guztiok Aita bat bera? Ez al gaitu guztiok Jainko berak egin? Zertan gabilta, bada, elkar engainatzen, Jainkoak gure gurasoekin egin zuen ituna hautsiz?».

Sal 130: Zaindu ezazu nire bizia bakean zeure baitan, Jauna.**San Paulok Tesalonikarrei 2, 7b-9.13.**

Senideok: Maitasun samurrez jokatu genuen zuekin, bere haurrak maitekiro zaintzen dituen amak bezala. Hain bihotzeko zintuztegunez, prest ginen, Jainkoaren Berri Ona ez ezik, baita geure bizia ere zuei emateko. Hainbestearaino maite zintuztegun. Izan gogoan gure neke eta ahaleginak; gau eta egun egin genuen lan zuetako inorentzat zama ez izategatik, Jainkoaren Berri Ona hots egin genizuenean. Horregatik, eskerrak ematen dizkiogu etengabe Jainkoari; zeren, haren hitza hots egin genizuenean, onartu egin baitzenuten, ez giza hitz huts bezala, Jainkoaren hitz bezala baizik; hala da, izan ere, eta lanean ari da zuengan, sinesten duzenongan.

Urteko 31. astea

Jesusen Lagundiko santu eta dohatsu guztiak

Zakarias eta Elisabet santuak, *Joan Bataiatzailearen gurasoak.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23, 1-12.

Aldi hartan, Jesus honela mintzatu zitzaizen jendetzari eta ikasleei: «Lege-maisuak eta fariseuak Moisesen maisu-aulkian eseriak daude. Egizue, beraz, eta bete haiek esandako guztia; baina ez egin egiten dutena; esan, esaten baitute, baina egin ez. Zama astunak eta ezin eramanak lotzen dituzte, eta besteei leporatzen; baina beraiek atzamar batez ere ez dituzte mugitzen. Egiten duten guztia, jendeak ikusteagatik egiten dute; larrutxa zabalak erabiltzen dituzte bekokian, eta borlatxo deigarriak mantu barrenean. Afarrietan lehenengo jarlekuak, eta sinagogetan aurreneko aulkiak maite dituzte, plazetan jendeak agur egitea eta guztiak “maisua” deitzea. Zuek, ordea, ez utzi inori “maisua” deitzen, bakarra baita zuen maisua, eta zuek guztiok elkarren senide baitzarete. Eta ez deitu lurrean inori “aita”, bakarra baita zuen Aita, zerukoa. Eta ez utzi “gidari” deitzen ere, bakarra baita zuen gidaria, Mesias. Zuetako handiena izan bedi zuen zerbitzari. Bere burua goratzen duena beheratu egingo du Jainkoak, eta bere burua beheratzen duena goratu».

Mateok bere ebanjelioa idatzi duenean, litekeena da kristau-komunitateko liderrak, Jesusek hain gogor kritikatu zuen fariseuen paradigmaren arabera jokatzeko arriskuan egotea. Egia esan, eredu horrek etengabe jazartzen gaitu, zenbait joera suntsitzailerekin bat egiten baitu: nabarmendu, posturik onenak eta kargu atseginenak hartu, ikusi eta aitortu gaitzabela, dominak jarri diezazkigutela... «Bekaturik gabe dagoena...». Oinarri horien gainean eraikitzen den kristau-komunitate batek ezin dio bere funtsezko bokazioari erantzun, hau da, senidetetasunari, seme-alaba eta neba-arreba gisa bizitzeari. Gizatalde orok, baita Elizak ere, autoritatearen bitartekotza beharrezkoa du; baina bitartekotasun hori zerbitzu gisa gauzatzea proposatzen du Jesusek, eta ez botere gisa. Horregatik, ministerioa komunitateari laguntzeko uzten zaienek erantzukizun berezia darabilte. Aita bakar bat besterik ez badugu eta denok neba-arreba bagara, nolatan izan liteke batzuek “aita” eta “kontseilari” deituak

Urteko 31. astea

Jesusen Lagundiko santu eta dohatsu guztiak

Zakarias eta Elisabet santuak, *Joan Bataiatzailearen gurasoak.*

izan daitezten saiatzea, botere-titulu horiek arinkeriaz aitortzen dizkietenen konplizitatez? Utz dezagun Jesusen hitzak interpelatu gaitzan geure garai honetan, zeina gehiegikeriekiko eta berauen ondorio suntsitzaileekiko sentibera baita.

* * *

JESUSEN LAGUNDIKO SANTU ETA DOHATSU GUZTIAK

Deuteronomio liburutik 30, 11-14.

Honela mintzatu zitzaion Moises herriari: «Obedituko diozu Jaunari, zeure Jainkoari, legearen liburu honetan idatzitako beraren aginduak eta legeak betez, eta bihotz-bihotzez eta gogo osoz itzuliko zara Jaunagana, zeure Jainkoagana. Izan ere, gaur nik ematen dizudan agindua ez da zure indarrez gaindikoa, ezta eskuraezina ere. Ez dago zeruan, zuek hau esateko: “Nor igoko zaigu zerura, agindua ekarri eta guri jakinarazteko, bete ahal dezagun?”. Ez dago itsasoaz bestaldean ere, zuek hau esateko: “Nor joango zaigu itsasoaz bestaldera, agindua ekarri eta guri jakinarazteko, bete ahal dezagun?”. Zeren eta esku-eskura baituzu hitza, zeure ahoan eta bihotzean, bete dezazun».

Sal 15: Zu zaitu, Jauna, neure ondarea.

Jesu Kristoren ebanjelioa San Joanen liburutik 12, 23-26.

Aldi hartan, Jesusek erantzun zien ikasleei: «Iritsi da Gizonaren Semearen aintza azalduko den ordua. Bene-benetan diotsuet: Gari-alea, lurrean sartu eta hiltzen ez bada, bera bakarrik gelditzen da; hiltzen bada, ordea, fruitu asko ematen du. Bere bizia maite duenak galdu egingo du; baina mundu honetan bere bizia gutxiesten duenak betiko bizirako gordeko du. Nire zerbitzari izan nahi duenak jarrai

Urteko 31. astea

Jesusen Lagundiko santu eta dohatsu guztiak

Zakarias eta Elisabet santuak, *Joan Bataiatzailearen gurasoak.*

biezat eta, ni nagoen tokian, han izango da nire zerbitzaria ere. Nire zerbitzari dena Aitak ohoratu egingo du.

Ibn Arabik, poeta arabiar sufik, kristauak, esan zuen: «Bere gaixotasuna Jesus duen hura, ezin sendatu da jada». Gaur, Jesusen Lagundiko santuen eta dohatsuen jaia ospatzen dugu, bai ofizialki horrela aitortuena, bai beste santu anonimo askorena ere: Lagundiak dituen kasik bost mendetan, gari-aleak gisa, beren bizia eman duten guztiena —haietako askok bizia eman dute ez metaforikoki bakarrik— gainerakoek bizia izan dezaten. Haiek guztiek jasan zuten Jesus deritzan gaixotasun hori, zeinez ez baitzuten sendatu nahi izan. Emazkiogun eskerrak Jaunari haiengatik guztiengatik. Bidelagun ditugu. Ez daude Jainkoaren eta gure artean —Jainkoaren aurrean adiskide eragile eta erregutzaile soil gisa—. Geure ondoan ditugu. «Lekukoen hodei» hori dira, harmailetatik gure lasterketari begira, animoa eta arnasa ematen digute, berak iritsiak baitira helmugara, begiak Kristogan finko dituztela (Hb 12, 1-2).

San Paulok Erromatarrei 11, 29-36: Jainkoak obeditzen ez dutenen arteko egin gaitu gizon-emakume guztiak, guztioi erruki egiteko.
Sal 68: Hain onbera zarelako, entzun iezadazu, Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 12-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zion bazkaltzera deitu zuen fariseu handiki bati: «Bazkari edo afariren bat ematean, ez gonbidatu zeure adiskideak, ezta senide, ahaide edo auzoko aberatsak ere; zeren beraiek ere gonbidatu egingo baitzintuzkete, eta horrela ordaina hartuko zenuke. Otordu bat ematean, gonbidatu behartsu, elbarri, herren eta itsuak. Zorionekoa zu, orduan, ezin izango baitzute ordaindu! Zintzoak piztuko direnean jasoko duzu ordaina».

Ezkutuko beste zoriontasun bat! Jesusek koloka jartzen du gizarte-harremanetan bizi ohi den elkarrekikotasun logikoa, hau da, geure hurbileko jendearekin gonbita trukatzea: nik zu, zuk ni. Fariseuek ez ezik, gizaki guztiak jokutzen dute horrela. Jesusek proposatzen duen jauziak alaitasun berri batera garamatza; itxuraz gauza bera egin ezin duten pertsonekin partekatzea daukagun gauzarik onena, alaitasunez: «Zorionekoa zu, ordaindu ezin dizutelako». Zoriona ordainduak izango garelakoan datza, baina ez guk dakigun eta egiten dugun bezala, baizik eta oso modu ezberdinean. Logika berri horretan sartzen garenean, ez dugu itxaron beharrik «justuak berpiztu arte», zeren eta, gaur egunean berean, itxuraz munduaren arabera ezer eman ezin duten haiengandik asko jasotzearen poz paradoxikoa sentitzen baitugu.

* Eugenio Mari (Lazkao 1902 – Pedralves [Katalunia] 1936), *anaia beneditarra, dohatsu eta martiria*

Santuak: Pedro Poveda eta Inozentzio de la Inmaculada, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*

Joakin Esnaola (*Idiazabal 1898–Madril 1936*), *apaiza, agustindarra*, Klara Ezkurra (*Arrasateko Ulibarri 1896 – Valencia 1936*), *birjina* eta lagunak, *dohatsuak, martiriak*

San Leon Intxausti Mintegia (*Ajangizen jaio – Granadan erail 1937*), *agustindar errekoletoa*, eta kideak, *dohatsu eta martiri*

Urteko 31. astea

Jesusen Lagundiko Hildako Guztiak.

San Severo, *martiria*,***Jesuiten jaia**

Erromatarrei 14, 7-9: Nahiz bizi nahiz hil, Jaunarenak gara. **Sal 116:** Jaunaren aurrean ibiliko naiz, bizien lurraldean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 6, 37-40.

Aldi hartan esan zien Jesusek: «Aitak niri ematen dizkidan guztiak nigana hurbilduko dira, eta nigana hurbilduko denik ez dut inola ere kanpora botako, ez bainaiz zerutik jaitsi neure nahia egitera, bidali nauenaren nahia egitera baizik. Eta hauxe da bidali nauenaren nahia: berak eman dizkidan guztietatik, ez dezadala inor ere galdu, baizik eta piztu ditzadala azken egunean. Hauxe da nire Aitak nahi duena: Semea ikusi eta harengan sinets dezanak betiko bizia izan dezala, eta neuk piztuko dut azken egunean».

Bizitzan eta heriotzan Jaunarenak gara, diosku San Paulok. Jesu Kristorenak izatea, berme bat da bizitza honetarako eta besterako. Jesuiten ideala, kristau ororena bezala, «Jesusen jende» artekoa izatea da, haren jarraitzaileetako izatea. Gogo Jardunetan, behin eta berriz errepikatzen den eskaria da: eman diezagula Kristorekin osoenik identifikatzea eta aukera gaitzala beraren hurbilenetakoak izateko. Horregatik, seguru gaude lagun izango gaituela zeruko erreinuan ere. Ez da ustekeria, haren Bihotzean konfiantza izatea da.

* Eugenio Mari (Lazkao 1902 – Pedralves [Katalunia] 1936), *anaia beneditarra, dohatsu eta martiria*

Santuak: Pedro Poveda eta Inozentzio de la Inmaculada, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak*

Joakin Esnaola (*Idiazabal 1898–Madril 1936*), *apaiza, agustindarra*, Klara Ezkurra (*Arrasateko Ulibarri 1896 – Valencia 1936*), *birjina* eta lagunak, *dohatsuak, martiriak*

San Leon Intxausti Mintegia (*Ajangizen jaio – Granadan erail 1937*), *agustindar errekoletoa*, eta kideak, *dohatsu eta martiri*

San Paulok Erromatarrei 12, 5-16a: Atal bakoitza beste atalen zerbitzurako da. Sal 130: Gorde, Jauna, nire arima bakean zeure ondoan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 15-24.

Aldi hartan, Jesusekin mahaian zegoen batek esan zion: «Zorionekoa Jainkoaren erreinuko otorduan parte hartuko duena». Orduan, Jesusek esan zion: «Gizon batek afari handi bat eman zuen eta jende asko gonbidatu. Afarirako ordua iritsi zenean, morroia bidali zuen gonbidatuei esatera: “Zatozte, prest dago dena”. Baina bata bestearen ondoren aitzakiak jartzen hasi ziren denak. Lehenengoak esan zion: “Soroa erosi dut, eta ikustera joan behar dut; barkatu, arren”. Beste batek, berriz: “Bost idi-pare erosi ditut, eta probatzera joan behar dut; barkatu, arren”. Eta hurrengoak: “Ezkondu berria naiz eta ez naiteke joan”. Itzuli zen morroia eta guztiaren berri eman zion nagusiari. Etxeko nagusia biziki haserretu zen eta esan zion morroiari: “Hoa bizkor herriko plaza eta kaleetan barrena, eta ekarri behartsu, elbarri, itsu eta herrenak”. Geroago, morroiak esan zion: “Jauna, egin dut agindu duzuna, eta oraindik bada lekurik”. Orduan, nagusiak esan zion: “Hoa bidez bide eta bazterrik bazter eta sarrarazi jendea barrura, etxea bete dakidan. Egia esan, gonbidatu haietako batek ere ez du nire afaria dastatuko”».

Erreinuko otordua ez da gure egungo lorpenetik kanpo legokeen promes eskatologiko bat bakarrik, baizik eta eguneroko errealitate bat da, zeinetara etengabe garen gonbidatuak. Bertan parte hartzeak gure izate osoaz Jesusen proposamenarekin bat egitea esan nahi du, eta berarekin batera Aitak amestutako munduaren eraikuntzan murgiltzea. Benetan zoriontsu izateko esperientzia dugu otordu horretan parte hartzea erabakitzen dugunean; baina, era berean, badakigu zer aitzakia jar ditzakegun ere arreta desbideratzeko eta konpromisoari uko egiteko. Jainkoaren maitasuna hain da sortzailea, ezen gure barneko eremuetan berarekin elkartzeko prest ditugun espazioen bila irteten baita, eta gure desio sakon eta benetako bidetik etengabe eramaten baikaitu.

Urteko 31. astea

San Godofredo Amienskoa, *gotzaina*

San Paulok Erromatarrei 13, 8-10: Maite duenak erabat betetzen du legea. Sal 111: Zorionekoa behartsuei esku betean ematen diena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 14, 25-33.

Aldi hartan, jende-talde handiak zihoazen Jesusekin; honek, haiengana bihurturik, esan zien: «Norbaitek nirekin etorri nahi badu, eta bere aita-amak eta emaztea, seme-alabak eta anai-arrebak, eta bere burua bera baino maiteago ez banau, ez daiteke izan nire ikasle. Bere gurutzea hartu eta nire ondoren ez datorrena ez daiteke izan nire ikasle. Izan ere, zuetako nork, dorrea egin nahi badu, eseri eta ez ditu aurretik gastuen kontuak ateratzen, bukatzeko lain ba ote duen ikusteko? Bestela, zimenduak hartu ondoren ezin bukatuko balu, hori ikustean barre egingo liokete denek, esanez: “Honako hau eraikitzen hasi huen eta ezin izan dik bukatu”. Edota zein erregek, beste baten kontra gerrara joan nahi badu, eseri eta ez du alde zuretik deliberatzen, ea hamar mila gizon aski dituen, hoge milarekin kontra datorkionari aurre egiteko? Eta ezetz ikusten badu, artean bestea urruti dela, mandatariak bidaliko dizkio bakea eskatuz. Era berean, zuetako inor ez daiteke nire ikasle izan, dituen guztiei uko egiten ez badie».

Jesusek sarritan bere jarraitzaileak gehiagorako tentsioaren aurrez aurre jartzen ditu. Dugun guztiari uko egitera gonbidatzen duenean, ez da izaten dena galtzeko, baizik eta dizipuluaren graziazko irekitasun askez prestatzeko. Maitatuen arteko erlazioak bigarren lekuan jartzera deitzen duenean, ez da alferrikakoak edo kaltegarriak direla-eta baztertzeko, baizik eta Ebanjelioaren familiartasunaren zerbitzura bizitzen ikasteko. Badago, ezinbestean, lehentasunari dagokion “gehiago” bat eta segurtasunari, inkontzientziari edo erosotasunari lotutako “gutxiago” bat. Erregeak eta dorrearen eraikitzaileak beren bereizmena gurearen parabola bezala proposatu digute; izan ere, altxorrik preziatuena bihotzaren urratsak doazen hartan aurkitzen dugu.

Urteko 31. astea
 Letrango Eliza Sagaratzea

Ezekiel profetaren liburutik 47, 1-2.8-9.12: Ura ikusi nuen tenplutik irteten; eta ur hori iritsi zitzaien guztiak salbatu egin ziren. **Sal 45:** Ibai baten adarrek alaitzen dute Jainkoaren hiria, Goi-goikoaren bizileku guztiz santua.

San Paulok Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik 3, 9c-11. 16-17.

Senideok: Jainkoak eraikitzen duen etxe zarete zuek. Jainkoak eman didan dohainaren arabera, nik oinarria ipini dut, etxegile trebeari dagokionez; baina beste batek eraikitzen du etxea. Ikus beza bakoitzak nola eraikitzen duen. Inork ez dezake ipinia dagoen oinarria besterik ipini; eta oinarri hori Jesu Kristo da. Ez al dakizue, Jainkoaren tenplu zaretela eta Jainkoaren Espiritua zuengan bizi dela? Jainkoaren tenplua hondatzen duena, hondatu egingo du Jainkoak, Jainkoaren tenplua santua baita; tenplu hori zuek zarete.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 2, 13-22.

Aldi hartan, hurbil zen juduen Pazko-jaija, eta Jesus Jerusalemera igo zen. Tenpluan idi-, ardi- eta uso-saltzaileak aurkitu zituen, eta diru-trukatzaileak han eserita. Jesusek, lokarriz zartailua eginik, bota egin zituen denak tenplutik, baita ardiak eta idiak ere, eta tratularien diruak sakabanatu eta mahaiak irauli zituen. Uso-saltzaileei esan zien: «Ken horiek hortik! Ez bihurtu azoka-etxe nire Aitaren etxea». Ikasleak idatzirik dagoenaz gogoratu ziren: «Zure tenpluaren maiteminak sutu nau». Orduan juduek galdetu zioten: «Zer ezaugarri ematen diguzu hori egiteko?». Jesusek erantzun zien: «Desegin ezazue tenplu hau, eta hiru egunean jasoko dut». Juduek erantzun zioten: «Berrogeita sei urte behar izan ziren tenplu hau eraikitzeko, eta Zuk hiru egunean jasoko duzula?». Hura, ordea, bere gorputzaren tenpluaz ari zen. Hilan artetik berpiztu zenean, gogoratu ziren ikasleak esandako honetaz, eta sinetsi zuten Liburu Santuetan eta Jesusek esandako hitzean.

Urteko 31. astea
Letrango Eliza Sagaratzea

San Joan Letrangoaren basilika, 324an sagaratua, Konstantinoren ediktuaren ondoren Erroman eraiki zen lehena izan zen. Gertaera hori gogoratzean, liturgiak gure fedearen funtsezko errealitate batzuk kontuan hartzea gonbidatzen gaitu. Agian, beraietatik lehenengoa, Jainkoaren benetako tenplua, beraren irudira sortutako gizakia da. Hainbeste baliabide erabiltzen baditugu ondare historiko eta artistikoak zaintzeko, zenbat gehiago inbertitu beharko genuke pertsona ororen duintasuna babesten, batez ere beren oinarrizko eskubideak urraturik dituztenena. Ebanjelioak gogorarazten digu, halaber, Jainkoak nahi duen kultura bateraezina dela bitartekaritza merkantilista ororekin; hots, beti gaur egunekoa den deia egian eta doakotasunean hazteko, Erreinua presente egin dadin.

Urteko 31. astea

San Leon Handia, 45. aita santua eta eliz irakaslea
San Andres Avelino, *erlijioso teatinoa, apaiza*

San Paulok Erromatarrei 15, 14-21: Jesu Kristoren zerbitzari egin nau jentilentzat, Jainkoarentzat opari atsegingarri izan daitezen.
Sal 97: Agertu du Jaunak nazioen aurrean beragandiko garaipena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16, 1-8.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizon aberats batek etxezain bat zuen, eta hau ondasunak alferrik galtzen ari zitzaiola salatu zioten. Deitu eta esan zion: “Zer da zutaz entzun dudan hori? Emadazu etxezaintzaren kontu, kargutik bota egiten zaitut eta”. Etxezainak, orduan, hau zioen bere baitan: “Zer egin behar dut nik orain, nagusiak kargua kentzen didanez gero? Aitzurrerako ez naiz gauza, eta eskerako lotsa naiz. Badakit zer egin, kargutik botatzen nautelarik etxean nork hartu izan dezadan”. Banan-banan bere nagusiaren zordun guztiei deitu eta lehenengoari galdetu zion: “Zenbat zor diozu nire nagusiar?”. Hark erantzun: “Ehun upel olio”. Etxezainak, orduan: “Hona zeure ordain-agiria; agudo, eseri eta idatzi berrogeita hamar”. Gero, hurrengoari galdetu zion: “Zuk zenbat zor diozu?”. Hark erantzun: “Ehun anega gari”. Etxezainak, orduan: “Hona zeure ordain-agiria; idatzi laurogei”. Eta nagusiak txalotu egin zuen etxezain zuzengabe hura, zuhur jokatu zuelako. Izan ere, mundukoak zuhurrago dira beren arteko arazoetan, argitakoak berenetan baino».

Urteko 31. astea

San Leon Handia, 45. aita santua eta eliz irakaslea

San Andres Avelino, *erlijioso teatinoa, apaiza*

Gaur parabola harrigarri eta,aldi berean, gogaikarri baten aurrean gaude. Badirudi Jesusek pertsona ustel bat proposatzen duela eredu: bere lanbidea inolako eskrupulurik gabe erabiltzen duena eta bere helburuak legez kanpoko bitartekoz lortzen dituena. Pertsona honi hobeto erreparatzen badiogu, Jesusek benetan azpimarratzen duena “administratzaile fedegabea” delako honek erabiltzen duen zolitasuna da, bere helburuak lortzeko sormen itzelaren iturri duena. Agian “maltzurkeria ebanjelikoa” falta zaigu Ebanjelioa gaurko jendeak uler ditzakeen keinu eta hitzekin transmititzen ikasteko. Edo agian urri gabiltza Erreinuarekiko grinaz, zeinak eramango gintuzkeen egitura bidegabeak eraldatzera, eta Jaunaren samurtasuna eta alaitasuna zabaltzeko modua atsedenik gabe bilatze sormena zorroztera.

* * *

Leon Handia 390-400 bitartean jaio zen. 440an Erromako apaizek eta herriak apezpiku aukeratu zuten, aita santu izateko. Krisialdi handiak gertatzen ari ziren garaian egokitu zitzaion Elizaren gidari izan beharra. Manikeoen eta pelagiotarren heresien aurka egin behar izan zuen. Afrika iparraldeko eliz elkarteetan apezpikuak aukeratzeko zein baldintza bete erabaki behar izan zuen, bandalo arriotarrak hango eliz elkarteak hondatzen ari baitziren. Kaltzedoniako kontzilioan, 451n, Jesusen Gizakundearen misterioa defenditu zuen monofisitien aurka. «Pedro mintzatu da Leonen ahoz», esan zuten kontzilioko apezpikuek. Misterio hori gogoan zuela, esan zuen San Leonek: «Ohar zaitetz, kristaua, zeure duintasunaz. Oroit zaitetz zein buruko eta zein gorputzeko atal zaren». 452an aurre egin zion Atilari, eta Erroman ez sartzeara lortu zuen. Leonek testu liturgiko ugari idatzi zuen, homiliak eta gutunak, kristau-fedea eta doktrina defendituz eta argituz. Fedea airtortzen sendo agertu zen beti Leon. Bakea ere indar handiz eragin zuen. 461ean hil zen.

Urteko 31. astea

San Martin Tours-ekoa, *gotzaina*
Toribio santua, *monjea*

San Paulok Erromatarrei 16, 3-9. 16. 22-27: Agurtu ezazue elkar musu santuaz. Sal 144: Ene Jainko, ene errege, bedeinkatuko dut zure izena betiere.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 16, 9-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Irabaz itzazue adiskideak bidegabeko diruaz; horrela, dirua amaitzean, betiko bizilekuan hartuko zaituzte Jainkoak. Gauza txikietan fidagarri dena, handietan ere fidagarri da, eta gauza txikietan zuzengabe dena, handietan ere zuzengabe. Bidegabeko dirua erabiltzen fidatzekoak izan ez bazarete, nork utzi zuen esku egiazko ondasuna? Zeuena ez duzen aberastasunarekin fidatzekoak izan ez bazarete, nork eman zuei benetan dagokizuen? Ezin da morroi bat bi nagusiren zerbitzari izan. Izan ere, bata gorroto izango du, eta bestea maite; edota bati leial izango zaio, eta bestea ez du aintzat hartuko. Ezin zarete izan Jainkoaren eta diruaren morroi». Entzun zuten hau guztia fariseu diruzaleek, eta barre egiten zioten Jesusi. Honek esan zien: «Zuek zeuen burua zintzo agertzen duzue jendearen aurrean, baina ezagutzen du Jainkoak zuen barrua; izan ere, gizakiak balioztatzen daukana, Jainkoarentzat mespretxagarri da».

Txatal hauek atzo irakurri genuen ebanjelioaren jarraipen dira. Orain ulertzen dugu administratzaile desleiala ez dela fidatzekoak, ez baitzen izan ezertan ere ohoratua. Beste behin ere, Jesusek diruaz eta aberastasunaren arriskuaz argi eta garbi hitz egin du, baina ez da mintzo deabrutze-ikuspegi batetik, baizik eta irtenbide bat proposatzen du. Bidegabeko diruaz lagunak egiteak esan nahi luke, guretzat bezala Jesusen entzuleentzat, sobera daukaguna (ondasun materialak, talentuak, denbora) gutxiago dutenen zerbitzura jartzea. Batzuetan hainbeste kostatzen zaizkigun aukera txiki hauek gauza guztien gainetik Jainkoa maitatu eta zerbitzatu nahia egiaztatzen dute.

Urteko 32. astea

San Josafat, *gotzaina eta martiria*

San Millan [Emiliano], *Donemiliaga Kukulakoa, apaiza*

Jakinduria liburutik 6, 12-16.

Argitsua da jakinduria, itzalezina haren distira; nekerik gabe ikusten dute maite dutenek, baita aurkitzen ere haren bila dabiltzanek. Irrikatzen dutenei, aurrea hartzen die eta bere burua ezagutzera ematen. Haren bila goiz-goizetik doanak ez du nekerik izango, ate ondoan aurkituko baitu eserita. Hartaz gogoeta egitea da zuhurtziarik handiena; harengatik gaua esna ematen duena laster izango da kezkarik gabe, zeren jakinduria bera ibiltzen baita hara eta hona beraren duin direnen bila; onginahiz agertzen zaie bideetan eta beren gogoeta bakoitzean aurkezten.

Sal 62: Zure egarriz daukak gogoa, Jauna, ene Jainkoa.

San Paulok 1 Tesalonikarrei 4, 13-18.

Senideok: Ez dugu nahi hildakoen zoriaz zuek ezjakinean egoterik, atsekabetu ez zaitezten, itxaropenik ez dutenen antzera. Jesus hil eta piztu zela egiaz sinesten badugu, era berean, Jesusekin bat eginik hil direnak ere Jainkoak berekin hartuko ditu. Hau diotsuegu Jaunaren hitzean oinarrituta: guk, Jauna etortzean bizirik gertatuko garenek, ez diegu hil direnei aurrea hartuko. Zeren, goiaingeruaren oihuz eta Jainkoaren turuta-hotsez seinalea emanik, Jauna bera jaitsiko baita zerutik, eta aurrea, Kristorekin bat eginik hildakoak piztuko dira; gero gu, artean bizirik izango garenek, haiekin batean eramango gaituzte hodeietan, airean, Jaunarekin elkartzera. Eta horrela, beti Jaunarekin egongo gara. Adoretu ezazue, beraz, elkar hitz hauekin.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25, 1-13.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Zeruetako erreinuarekin, beren kriseiluak eskuetan hartu eta senargaiari bidera irten zitzaizkion hamar neskatxekin bezala gertatzen da. Neskatxetako

bost zentzugabeak ziren eta bost zentzudunak. Kriseiluak hartzean, zentzugabeek ez zuten oliorik hartu; zentzudunek, ordea, kriseiluekin batera olioak ere hartu zituzten ontzietan. Senargaiak luzatzen zenez, logaletu egin ziren denak eta loak hartu zituzten. Gauerdian oihu bat entzun zen: “Badator senargaia; irten zakizkiote bidera!” Jaiki ziren neskatza guztiak, eta beren kriseiluak prestatu zituzten. Orduan, zentzugabeek esan zieten zentzudunei: “Emaguzue olio-pixka bat, kriseiluak itzaltzen ari zaizkigu eta”. Zentzudunek erantzun zieten: “Ea ez dugun nahikoa geuretzat eta zuentzat; hobe duzue, badaezpada, dendara joan eta erosi”. Baina, eroatera joanak zirelarik, senargaia iritsi zen, eta prest zirenak ezteietara sartu ziren harekin. Eta atea itxi zuten. Iritsi ziren, azkenik, beste neskatzak ere eta dei egin zuten: “Jauna, Jauna, ireki!” Baina hark erantzun zien: “Benetan diotsuet, ez dakit nor zareten”. Egon, beraz, erne, ez baitakizue, ez eguna, ez ordua».

Urte liturgikoaren amaiera hurbiltzen ari den heinean, kutsu eskatologikoa hartzen hasten da liturgia, eta gu behin betiko destinoaren meditazioan sarrarazten. Gurearen moduko haragia hartuz, gure bideak zeharkatu zituen Jesusek, eta, gure eguneroko egoeretan etorri datorrelarik, erabat irtengo zaigu bila egun batean, heriotzaren une erabakigarrian. Tesalonikarrei bidalitako gutunak gogorarazten digu heriotzaz hausnartzea kontsolatzeko arrazoiak dela, hausnarketa honi esker «Jaunarekin egongo garelako beti». Jesusek ezkontza-oturuntzaren gozamen modura planteatu du azken topaketa, zeinetara gonbidatuta dauden hamar gazte. Deialdiaren lekua, beraz, ez da leku deserosoa, ezta bakartia ere; baizik eta alaitasunak gainezka egiten duen festa-lekua. Hala ere, agindutako mahaian eseri ahal izateko, baldintza batzuk bete behar dira, bizitza espiritualaren funtsa osatzen dutenak: gauaren iluntasuna zeharkatzea, fedearen olio gordetzea, itxaronaldia jasatea, belarriak zabalik edukitzea senarraren ahotsa detektatzeko, iristen eta deitzen duenean; eta bizkor jaikitzea eta harrera egitera irtetea. Gaur egun gure fedearen erantzukizuna onartzeak ekitea esan nahi du jadanik gure itxaronaldi luzearen denbora bizitzeko prestakuntzari.

Urteko 32. astea

San Estanislao Kostka, *jesuita*

San Leandro Sevillakoa, *gotzaina*

Jakinduria liburutik 1, 1-7: Gizakia maite duen espiritu da jakinduria; Jaunaren espirituak lurra betetzen du. **Sal 138:** Gidatu ni, Jauna, betirako bidetik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 1-6.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ezinbestekoa da munduan galbideak gertatzea, baina dohakabea inoren sinesmena galbidean jartzen duena! Hobe luke errotarria lepotik lotu eta itsasora botako balute, txiki hauetakoren bat galbidean jartzea baino. Ibili kontuz! Zure senideak bekatu egiten badu, egiozu haserre, eta, damutzen bada, barkatu. Eta egunean zazpi aldiz zure kontra bekatu egiten badu eta zazpi aldiz etortzen bazaizu “damu dut” esanez, barkatu». Apostoluek esan zioten Jaunari: «Handitu sinesmena gudan». Jaunak erantzun zien: «Sinesmena bazenute, mostaza hazia bezain txikia izanik ere, pikondo honi “atera hortik eta landatu itsasoan” esango zenioke, eta obeditu egingo lizueke».

Eskandalua estropezu eginarazten duen tranpa da, bidea zailtzen duen eta arriskua sortzen duen harria. Jesusek giza natura eta gizarte-bizitza ongi ezagutzen ditu eta badaki gure arteko harremanak oztopo horietaz beterik daudela, batzuetan guk pairatutako oztopoak eta besteetan geuk eragindakoak. Zailtasunei garrantzia kendu eta existituko ez balira bezala bizi orde, horrela bihotza ahultzea ahalbidetuz, Jesusek senitarteko barkamenaren bide zorrotza proposatu du: iraintzea, errieta egitea, damutzea, barkatzea. Lau ekintza hauek guztion eskura dagoen etengabeko ziklo gisa iradokitzen zaizkigu, behin eta berriz hasteko prest bagaude. Horrelako egoeren aurrean, dizipuluekin batera Jesusi «Emaguzu fedea» eskatzeak on egingo digu.

Jakinduria liburutik 2, 23-3, 9: Zoroen begietan hilak zirela ziruditen; haiek, ordea, bakean dira. **Sal 33:** Bedeinka dezadan aldioro Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 7-10.

Aldi hartan, Jaunak esan zuen: «Emazue, zuetako batek morroia duela sorolanean edo artzaintzan. Morroia etxeratzean, “Hator berehala mahaira” esaten ote dio? Ez ote dio beste hau esaten: “Presta iezadak afaria, jantzi amantala eta zerbitza nazak, nik afaldu bitartean; ondoren, afalduko duk heuk?”. Morroiari esker ona zor ote dio, agindua bete duelako? Zuek ere gauza bera: agindutako guztia egin eta gero, esan: “Morroi gizajoak gara; egin behar genuena besterik ez dugu egin”».

Jerusalemeko bidean Jesusi laguntzen diotenek, apostoluak tartean, ez dute morroi-neskamerik. Beraiek dira ohiturik daudenak beste batzuentzat lan egiten, laborari edo artzain gisa; seguruenik, aukeratu ez dituzten esker txarreko lanak eginez. Jesusek irudimena ariketa hau proposatzen dienean («eman ezazue»), oso ondo dakite zertaz ari den, beren haragian sentitu baitezakete nekearen pisua eta nagusiaren axolagabekeria. Ezarritako gizarte-ordena kritikatu gabe, men egitea proposatzen ote die Jesusek? Aitzitik, harremanen ordena berri batean sartzera gonbidatzen ditu, zeinetan ez dagoen «hain liberala eta gizatiarra» den beste jaunik; Honen zerbitzariak ez dute agindutako eginkizuna esker onez bititza besterik.

Urteko 32. astea

San Alberto Handia, *gotzaina eta eliz irakaslea, domingotarra*

Jakinduria liburutik 6, 1-11: Entzun, erregeok, jakintsu izaten ikas dezazuen. **Sal 81:** Jaiki zaitez, oi Jainko, epaitu mundua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 11-19.

Aldi hartan, Jesus Jerusalemera bidean, Samarian eta Galilean barna zihoan. Herrixka batean sartzean, hamar legenardun atera zitzaizkion bidera. Urruti gelditurik, deiadarka esan zioten: «Jesus, Maisu, erruki zakizkigu!». Jesusek, ikustean, esan zien: «Joan eta azaldu apaizengana». Bidean zihoazela, garbi gelditu ziren. Haietako bat, sendatua zegoela oharturik, Jainkoa deiadarka goratuz itzuli eta Jesusen oinetara ahuspez erori zen, eskerrak emanez. Samariarra zen bera. Jesusek esan zuen: «Ez al dira hamarrak garbi gelditu? Non dira beste bederaziak? Ez al da izan atzerritar hau besterik Jainkoa goratzera etortzeko?». Gero, esan zion: «Jaiki eta zoaz; zeure sinesmenak salbatu zaitu».

Agian, taldearen indarrari esker ausartu da hamar legenardunetako bakoitza bere marjinazioaren esparru estutik irtetera, gizarte-bizitzaren mugetara pixka bat hurbiltzeko. Urrutitik,aldi berean, denek batera oihu egin diote Jesusi, beraiez errukitu dadin eskatuz. Hamar gizon horiek batzen dituen, beren jatorri edo sinesmenetik harago, denek pairatzen duten gaixotasuna da. Eta denak batera dira entzunak eta sendatuak. Jesusen errukiak eraginda, bakar batek berreskuratu du bere nortasuna kontakizunean: atzerritarra da eta esker oneko gizona. Haragi osasuntsua atzeman eta beldurretik askatu denean, multzotik bereizteko gai izan da, bere egari erantzuteko: Jainkoa goraiatzeko, eskerrak emateko, makurtzeko. Jesusek bera izatera, nor izatera animatu du, besterik gabe, bere fedeak salbatu duelako: «Jagi eta zoaz».

Santa Gertrudis, *birjina, beneditarra*. Santa Margarita Eskoziakoa, *erregina*. Santuak: Roke Gonzalez, Alonso Rodriguez eta Juan del Castillo, *apaizak, martiriak, jesuitak*

Jakinduria liburutik 7, 22–8, 1: Betiko argiaren distira da jakinduria, Jainkoaren indarraren ispilu gardena. **Sal 118:** Betierekoa da zure hitza, Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 20-25.

Aldi hartan, Jainkoaren erreinua noiz iritsiko zen galdetu zioten fariseuek Jesusi. Honek erantzun zien: «Jainkoaren erreinua ez da nabarmen etorriko. Ezin esango da: “Hona hemen” edota “hara han”; zeren Jainkoaren erreinua zuen artean baitago jadanik». Gero, ikasleei esan zien: «Iritsiko da garaia, Gizonaren Semea etorri osteko egun bat bederen ikusi nahi izango duzuen, eta ezin izango duzue ikusi. Orduan, “hona hemen”, “hara han” esango dizuete. Baina zuek ez joan, ez atera atzetik lasterka. Izan ere, tximistak une batean zuealder batetik besteraino argi egiten duen bezala, hala izango da Gizonaren Semea etorriko den egunean. Baina aurretik asko sufritu behar du, eta gizaldi honek gaitzetsi egingo du».

Jesusek eta fariseuek hizkuntza eta kategoria erlijioso batzuk partekatzen dituzte, baina oso zentzu ezberdina ematen diete. Jesus, Jainkoaren Erreinuaz hitz egiten duenean, ez da ari aurrekoa ordezkatzeko lukeen egitura politiko batez, zapalkuntza berriak ezarriko litzukeenaz; baizik eta pertsona bakoitzaren bihotzean jaiotzen den, eta justiziazko eta senidetasunezko harreman sozialetara egokitzen den sakoneko gizatasun errealitateaz ari da. Horrek ez du zerikusirik ikuskizun arranditsu batekin, ezta mundu honetako liderren distira iragankorrarekin ere. Jesusek etengabe ohartarazten gaitu fariseuek jasan ezin duten zerbaitez: Jainkoaren seme-alaben eremuan berarekin egoteko, ezinbestekoa da neke-kostu bat onartzea.

Urteko 32. astea

Santa Elisabet Hungariakoa, *alarguna*

Jakinduria liburutik 13, 1-9: Munduaren barne-egitura ezagutzeko bezain jakintsu izan badira, nolatan ez dute munduaren Jauna lehenago aurkitu? **Sal 18:** Zeruek Jainkoaren aintza dute kontatzen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 17, 26-37.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Noeren garaian bezala gertatuko da Gizonaren Semearen garaian ere: jan-edanean zebilen jendea eta ezkondu egiten ziren gizon-emakumeak, Noe ontzian sartu zen eguna arte; baina etorri zen uholdea eta denak galdu zituen. Gauza bera gertatu zen Loten garaian ere: jan eta edan, erosi eta saldu, landatu eta eraiki egiten zuen jendeak; baina, Lot Sodomatik atera zen egunean, su eta sufrezko euria egin zuen zerutik eta denak galdu zituen. Hala gertatuko da Gizonaren Semea agertuko den egunean ere. Egun hartan, etxe gainean egon eta bere gauzak etxean dituenaz ez bedi hartzera jaitsi; eta, era berean, soroan dena ez bedi atzera itzuli. Oroitu Loten emazteaz. Bere bizia beretzat gorde nahi duenak galdu egingo du; galtzen duenak, berriz, onik aterako du. Nik diotsuet: gau hartan bi lagun egongo dira ohe berean: bata hartuko dute eta bestea utziko; bi emakume ariko dira batera ehotzen: bata hartuko dute eta bestea utziko». Ikasleek galdetu zioten: «Non izango da hori, Jauna?». Jesusek erantzun zien: «Sarraskia non, han bilduko dira putreak».

Urte liturgikoaren azken txanpan agertzen diren testuek tonu apokaliptikoa dute; honek irakurlea seriotasunez hausnartzera darama “gizonaren semea iristean” etorriko zaionaz. Une horretan, ohiko jardueren denbora agortua izango da, ez da atzera bueltarik izango. Une hori heriotza izan daiteke, Jainkoarekin behin betiko elkartzea, zeinak gure nahien eta aukeren egarik sakonena argitara aterako duen. Baina Gizonaren Semea egunero etorri dator, eta hemen eta orain bizi dugun “jan, edan, erosi, erein, eraiki” inertzia hilgarria apurtzera deitzen gaitu, gauza guztiak eraldatzen eta berritzen dituen Ebanjelioaren argiak inguratu gaitzan uzteko.

Jakinduria liburutik 18, 14-16; 19, 6-9: Ibiltzeko moduko bidea agertu zen Itsaso Gorrian, eta bildotsak bezala saltoka igaro ziren.
Sal 104: Ekarri gogora Jaunak egindako mirariak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18, 1-8.

Aldi hartan, etengabe egin behar zutela otoitz eta ez zutela etsi behar adierazteko, Jesusek parabola hau esan zien: «Bazen hiri batean epaile bat, ez Jainkoari beldurrik, ez gizakiari begirunerik ez ziona. Bazen hiri berean emakume alargun bat ere. Hau epaile harengana joaten zen, eskatzera: “Egidazu justizia aurkariarekiko auzian”. Luzaroan epaileak ez zion kasurik egin nahi izan, baina azkenean bere baitan esan zuen: “Ez diot Jainkoari beldurrik, ez gizakiari begirunerik; baina, alargun hau gogaikarri zaidanez, egingo diot justizia, behingoz bakean utz nazan”». Eta honela bukatu zuen Jaunak: «Begira zer dioen epaile zuzengabeak. Eta Jainkoak, ez ote die justizia egingo, gau eta egun deiadarka ari zaizkion bere aukeratuei? Zain edukiko ote ditu luzaroan? Justizia berehala egingo diela diotsuet. Baina Gizonaren Semeak, datorrenean, aurkituko ote du sinesmenik munduan?».

Epaile zitalarena” deitu ohi dugun parabola honi, “alargun temosoarena” deitu beharko genioke. Izan ere, istorioaren benetako protagonista “egidazu justizia nire arerioaren aurrean” esatera joan ohi den emakumea da. Epaile bidegabe horren antipodetan dago Jainkoa, epaile horri bere erosotasunak baizik ez baitio eragiten. Alargunaren bitartez, Jainkoa “guardiako epaile” gisa ageri da, beti aktibo; bihotza erne duela, deitzen diotenen oihuak entzuteko, egunez zein gauez. Jainkoa ez dabil luzamendutan.... Izango ote dugu behar besteko federik, alargunak bezain temati oihu egiteko?

* M^a Anjeles Odriozola (Azpeitia), M^a Engrazia Lekuona (Oiarzun), M^a Zezilia (Azpeitia), M^a Ines (Etxarri) eta lagunak, *dohatsu, birjina eta martiri* (1936), *Andre Mariaren Bisitakoak*

Urteko 33. astea
San Abdias, *profeta*

Esuera Zaharrak liburutik 31, 10-13. 19-20. 30-31.

Nork aurkituko etxeoandre arduratsua? Harribitxiak baino askoz baliotsuagoa da. Konfiantza osoa du senarrak harengan, eta ez da sekula beharrean aurkituko. Zoriona ekartzen dio, ez zoritxarra, bizitzako egun guztietan. Artilea eta lihoa eskuratzen ditu, gogotsu egiten dute lan haren eskuek. Eskuaz goruari heltzen dio eta atzamarrez ardatzari eragiten. Dohakabeari eskua zabaltzen dio eta behartsuari laguntza ematen. Gezurrezkoa da xarma, hutsala edertasuna; goresgarria, ordea, Jaunari begirune dion emakumea. Emazkiozue eskerrak bere eskuen lanagatik, goretsi herri osoaren aurrean berak eginagatik.

Sal 127: Zorionekoa Jaunari begirune diona.

San Paulok 1 Tesalonikarrei 5, 1-6.

Senideok: Jaunaren etorrera noiz eta nola izango den ez duzue nik idatzi beharrik; zeuek dakizue aski ongi Jaunaren eguna lapurra gauze bezala etorriko dela. «Bakea eta lasaitasuna» esaten ari direnean, orduan ustekabea etorriko zaie hondamendia gainera, haurdun dagoenari erdiminak bezala, eta ez dute ihes egiterik izango. Zuek, ordea, senideok, ez zarete ilunpean bizi, egun horrek lapurrak bezala harrapatzeko zorian; guztiok argiaren eta egunaren seme-alaba zarete. Ez gara gauarenak, ez ilunarenak. Beraz, ez dezagun lorik egin besteek bezala; gauden erne, eta izan gaitezen neurritsu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25, 14-30.

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien ikasleei: «Gizon batek, urrutira joaterakoan, bere morroiei dei egin eta bere ondasunak utzi zizkien. Bati bost talentu eman zizkion, beste bati bi, beste bati bakarra; bakoitzari bere trebetasunaren arabera. Eta gero joan egin zen. Bost talentu hartu zituena haiekin lanean hasi zen berehala, eta

Urteko 33. astea
San Abdias, *profeta*

beste bost irabazi zituen. Bi hartu zituenak ere gauza bera egin zuen, eta beste bi irabazi zituen. Bat hartu zuenak, orde, lurrean zuloa egin eta han gorde zuen bere nagusiaren dirua. Handik luzarora, etorri zen morroi haien nagusia, eta kontuak garbitzen hasi zitzaien. Hurbildu zen bost talentu hartu zituena, eta beste bost eraman zizkion, esanez: “Jauna, bost talentu utzi zenizkidan; begira, beste bost irabazi ditut”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi zintzoa eta leiala! Gauza txikian leial izan zarelako, askoren buruzagi egingo zaitut; sartu zeure nagusiaren festa ospatzera”. Hurbildu zen bi talentu hartu zituena, eta esan zion: “Jauna, bi talentu utzi zenizkidan; begira, beste bi irabazi ditut”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi zintzoa eta leiala! Gauza txikian leial izan zarelako, askoren buruzagi egingo zaitut; sartu zeure nagusiaren festa ospatzera”. Azkenean, hurbildu zen talentu bat hartu zuena, eta esan zion: “Jauna, banekien gizon zorrotza zarela; erein ez duzun tokian igitatzen, eta zabaldu ez duzun tokian biltzen duzuna. Beraz, beldurrez joan nintzen, eta lurpean gorde nuen zure talentua. Hemen duzu zeurea!”. Nagusiak erantzun zion: “Morroi gaizto eta alfer hori! Bahekien, beraz, erein ez dudan tokian igitatzen dudala nik, eta zabaldu ez dudan tokian biltzen. Horregatik, nire dirua diru-trukatzaileei utzi behar hien, nik, etortzean, irabazi eta guzti jaso nezan. Ken iezaiozue, bada, talentu hori, eta eman hamar dituenari. Duenari eman egingo baitzaio, eta gainezka izango du; ez duenari, berriz, duen hura ere kendu egingo zaio. Eta morroi alfer huts hori bota kanpoko ilunpera. Han izango da negarra eta hortz-karraska!”».

Urte liturgikoa betetzera goaz, eta ebanjelioak talentuen parabola proposatu digu, urteko balantzea egiten hasteko lagungarri izan dakigukeena. Kontakizunaren amaierak pentsa daitekeen emaitzarik negatiboena eta bortitzena atera du: hirugarren morroia ilunpera kanporatua izateaz gain, «gauzaetzat» eman du nagusiak. Deiki honek narrazioaren zentzua dramatikoki azaleratu du. Bidaian joan

Urteko 33. astea
San Abdias, *profeta*

zen ugazaba hark bere ondasunak bere morroien esku uztea erabaki zuen; berak jar zitzakeen bankuan, baina nahiago izan zuen bere langileei utzi haien ardura, zeren pentsatu baitzuen bazekitela ondasun haiek kudeatzen. Ez zien baldintzarik jarri eta ez zien eperik ezarri; askatasuna eta sormena utzi zizkien, bakoitzak bere erara negoziatzeko talentuekin. Hala ere, morroi haietako batek kontu handiz gorde zuen bere talentua; ez zuen lapurtu ez gastatu; besterik gabe, kudeatzea galarazten zion leku batean utzi zuen ezkutaturik. Arduragabea eta alferra izan ote zen ala bere buruarekiko mesfidati? Honetan datza tragedia: jabeak, itzultzean, gauzaeztat jo du morroia; bere ondarea handitzeko bitartekoak eman zizkion arren, ez egitea erabaki zuelako. Eta guk? Zer egin dugu aurten jasotako talentuekin?

* * *

Dirua ez da den guztia

«Erosten ahal duzu ohe bat, baina loa ez.
Erosten ahal duzu ordulari bat, baina denbora ez.
Erosten ahal duzu liburu bat, baina adimena ez.
Erosten ahal duzu postu bat, baina begirunea ez.
Erosten ahal duzu botika bat, baina osasuna ez.
Erosten ahal duzu materiala den guztia, baina maitasuna inoiz ez.

(Eguneroko gogoetak)

Urteko 33. astea

San Edmundo, *martira*

Makabearrak lehenengo liburutik 1, 10-15. 41-43. 54-57. 62-64:

Ikaragarria izan zen Israelek jasan behar izan zuen probaldia.

Sal 118: Gorde nazazu bizirik, Jauna, eta beteko ditut zure legeak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 18, 35-43.

Aldi hartan, Jesus Jerikora hurbildu zelarik, itsu bat zegoen eskean bide-ertzean eseria. Jendea igarotzen sumaturik, zer zen hura galdetu zuen. Jesus Nazaretarra igarotzen zela jakinarazi zioten. Orduan, deiadarka hasi zen: «Jesus, Daviden Seme, erruki zakizkit!». Aurrean zihoazenek gogor egiten zioten isilarazteko; baina hark oihu handiagoz: «Daviden Seme, erruki zakizkit!». Jesusek, gelditurik, beregana ekartzeko agindu zien. Hurreratu zenean, galdetu zion: «Zer nahi duzu Nik zuri egitea?». Itsuak erantzun: «Ikus dezadala, Jauna!». Jesusek esan zion: «Ikusi, bada; zeure sinesmenak sendatu zaitu». Berehala ikusmena berreskuratu zuen eta Jesusen ondoren zihoan, Jainkoa goretsiz. Eta herri osoak, gertatua ikusirik, Jainkoa goratu zuen.

Jesus pasatzen denean, gauza asko gertatzen dira. Jerikoko itsua ez zegoen prest ikusmena berreskuratzeko aukerari, beharbada geratzen zitzaion bakarrari, ihes egiten uzteko. Horregatik, gero eta ozenago oihu egiten du, eta ez zaio axola jendeak errieta egitea. Hori ere gertatzen da: «Aurrean doazenak» kezkatu egin dira, eta gogaitu ere bai, baina pertsona “pobre” batek badaki zer nahi duen eta indarrez eskatzen du. Baina gizon hau hain desira biziz hornituta dago, non oztopo guztiak desagertu baitira beragan. Jesusek haren desira sumatu duen arren, behar adina denbora hartu du arazoa egiaztatzeko: «Zer nahi duzu egitea zure alde?». Ikusmena berreskuratzeko aukera eman dio itsuari salbamen-elkarrizketa honek, beraren begirada Jesusen begiradarekin lotuz, ez dio kendu inolako itzalik, ez, baina itsuaren ametsak indartu ditu eta esperantza itzuli dio.

Urteko 33. astea

Andre Maria [haurra] Tenpluan Aurkeztua
San Gelasio 1.a, *aita santua*

Makabearrak bigarren liburutik 6, 18-31: Jarraibide bikaina utziko diet gazteei, gure legeagatik kementsu eman dezaten bizia. **Sal 3:** Jaunak dit eusten.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19, 1-10.

Aldi hartan, Jesus Jerikon sartu eta herrian barna zihoan. Bazen han Zakeo izeneko gizon bat, zergalari-buru zena, oso aberatsa. Jesus zein zen ikusi nahirik zebilen Zakeo, baina ezin zuen jendetzagatik, txikia baitzen. Lasterka aurrera joan eta pikondo batera igo zen Jesus ikusteko, handik igaro behar baitzuen. Jesusek, toki hartara iristean, gora begiratu eta esan zion: «Zakeo, jaitsi berehala, gaur zure etxean gelditu behar dut eta». Berehala jaitsi zen eta pozik hartu zuen etxean. Hori ikusirik, denak marmarka hasi ziren: «Bekatari baten etxera joan duk ostatuz». Zakeok, ordea, zutik jarrita, esan zion Jaunari: «Jauna, neure ondasunen erdiak behartsuei emango dizkiet eta, inori ezer ostu badiot, lau halako bihurtuko diot». Jesusek esan zion: «Gaur iritsi da salbamena etxe honetara, hau ere Abrahamen ondorengoa baita. Izan ere, Gizonaren Semea galdua zegoena bilatzera eta salbatzera etorri da».

Zakeoren kasuan, funtsezko tentsioa dago bere posizio sozialaren (nagusia eta aberatsa) eta bere posizio pertsonalaren (garaiera baxua) artean. Prestigioan igotzen jarraitzen eta bere ondasunak biderkatzen jarraitzen badu ere, ezin izango du inoiz ere zentimetro bakar bat irabazi altueran. Gehien axola zaiona ez dago beraren ahaleginen esku. Eta hori da, hain zuzen, beraren txikitasuna, Jesus ikusteko proiektua zailtzen duena. Baina Zakeok hain indar handiz sentitzen du desira hori, kapaz baita barregarri gelditzeko ere hori lortzeko: noiztik igotzen dira zuhaitz batera gizon dotoreak? Jesusek bere nortasunera jaisteko egiten dio dei, bere benetako neurriarekin adiskidetzeko; eta orduan konpontzen da Zakeoren tentsioa, egiatik bizitzeko bere itxuratik jaistea berberak deliberatzen duelako.

Urteko 33. astea

Santa Zezilia, *birjina eta martiria*

Makabearrak bigarren liburutik 7, 1. 20-31: Munduaren Egileak itzuliko dizue arnasa eta bizia. **Sal 16:** Esnatzean zure presentziaz naiz aseko, Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19, 11-28.

Aldi hartan, Jesusek parabola bat kontatu zion jendeari, Jerusalemetik hurbil baitzen eta jendeak Jainkoaren erreinua une batetik bestera azalduko zela uste baitzuen: «Handiki bat urrutiko lurralde batera joan zen, errege-izendapena hartzera, gero itzultzeko. Bere zerbitzarietako hamarri dei egin eta ontzako urre bana eman zien, esanez: “Saiatu etekina ateratzen, ni itzuli bitartean”. Baina herritarrek gorroto zuten eta mandatariak bidali zituzten ondotik, esatera: “Ez dugu hori errege nahi”. Errege-izendapena harturik itzuli zenean, deiarazi zituen dirua banatu zien morroiak, bakoitzak zer irabazi zuen jakiteko. Aurkeztu zen lehenengoa eta esan zuen: “Jauna, zure ontzakoak hamar halako eman du”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi ona! Gauza gutxian leial izan zarenez gero, hartzazu hamar hiriren agintea”. Joan zen gero bigarrena eta esan zuen: “Jauna, zure ontzakoak bost halako eman du”. Honi ere nagusiak esan zion: “Hartzazu bost hiriren agintea”. Joan zen beste bat eta esan zion: “Jauna, hemen duzu zeure ontzakoak; zapian bildua eduki dut. Beldur nizun, gizon gogorra zarelako, eman gabea eskatzen eta erein gabea biltzen duzuna”. Nagusiak, orduan: “Heure esanetik kondenatzen haut, morroi gaizto hori! Bahekien gizon gogorra naizela, eman gabea eskatzen eta erein gabea biltzen dudana. Nolatan ez duk, bada, nire dirua bankuan jarri? Horrela, itzultzean, bere interesekin jasoko nian”. Eta han zeudenei esan zien: “Ken iezaiozue ontzakoak, eta eman hamar dituenari”. Haiek erantzun zioten: “Jauna, lehen ere baditu hamar ontzako”. Eta nagusiak: “Hara nik esan: Duenari eman egingo zaio; ez duenari, berriz, daukan apurra ere kenduko. Eta errege nahi ez ninduten etsai horiek, ekarri hona eta hil itzazue nire aurrean”». Hitz

Urteko 33. astea

Santa Zezilia, *birjina eta martiria*

hauek esan ondoren, Jesusek Jerusalemgo bidean gora jarraitu zuen denen aurretik.

Atzetik datorkion jendeak Jainkoaren Erreinuaz dituen itzaropen faltsuak saihestu ditzan nahi du Jesusek. Jainkoaren Erreinuak gure artean egoteko birtualtasuna du, nahiz ez den nabarmentzen berehalakoan: nola interpretatu horrelako paradoxa bat? Berauekin negoziatzeko zenbait ontza urre jasotzen duten administratzaileek esku artean dute jada Erreinuako altxorra, nahiz-eta modu mugatuan izan, eta gehitzeko eta ekoizteko lan egiteko mandatuarekin. Abentura honetan bizitza inbertitzea arriskatu eta Erreinua behin betiko betetzearen zain egotearen zama jasaten duenari, neurririk gabeko dohaina oparituko dio Jainkoak. Aldi berean –eta hor datza gure itzaropena ere–, gure nagikeriazko eta zikoizkeriazko eremu guztiak, hau da, gure barnean Berri Onari aurka egiten dioten eta antzutasunean kikilduta irauten duten txoko guztiak garbitu egin beharko dira, Erreinua bete-betean sor dadin.

Makabearrak lehenengo liburutik 2, 15-29: Jainkoak gure arbasoekin egindako itunari eutsiko diogu. **Sal 49:** Zuzen dabilenari diot Jainkoaren salbamena erakusten.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19, 41-44.

Aldi hartan, Jesus, Jerusalemera hurbildu eta hiria ikustean, negarrez hasi zen berarengatik, eta esan zuen: «Ai Jerusalem, ulertuko bazenu zuk ere gaur bakerako bidea! Baina ez zara gauza hori ikusteko. Etorriko zaizu, bai, zeure etsaiek lubakiz inguratu, setiatu eta alde guztietatik erasoko dizuten garaia; txikitu egingo zaituztete zu eta zure bizilagunak; eta ez dizute harririk harri gainean utziko, Jainkoak eskaini dizun salbamen-aukera aintzat hartu ez duzulako».

Jerusalemgo hiri santuagatik negar egiten duen Jesusek zenbat aldiz egin lezake negar gugatik ere, ez baitugu onartzen beraren etorreraren unea... Zer gertatzen da bakera garamatzana ulertzea ez lortzeko? Zergatik dago gugandik ezkutuan Ebanjelioak eskaintzen digun zorionaren misterioa? Agian ez gara zehazki lubakiz inguratuta sentituko, ezta kanpoko etsaiek setiatuta ere, baina gure “barne-gaztelua” agian dardarka dago Jaunaren presentzia diskretua gure eguneroko bizitzako zirrikituetan aztertzeke gai ez garenean. Urte liturgikoaren amaierak aitortzera bultzatzen gaitu ezen gure txoko guztietan bizi nahi duela Jainkoak eta bizi daitekeela, baita ilunenetan eta hain aurkezgarriak ez direnetan ere.

Urteko 33. astea

San Andres Dung-Lac, *apaiza*, eta lagunak, *martiriak*

Makabearrak lehenengo liburutik 4, 36-37. 52-59: Aldare berriaren sagaratzea ospatu zuten, eta erre-opariak eskaini zituzten poz handiz. **Sal: 1 Kro 29, 10bc. 11. 12 (R/. 13b):** Zure izen ospetsua goresten dugu, Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 19, 45-48.

Aldi hartan, Jesus, tenpluan sarturik, bertan salerosketan ari zirenak kanpora botatzen hasi zen, esanez: «Liburu Santuak dio: “Nire etxea otoitz-etxe izango da”. Zuek, ordea, “lapur-zulo” bihurtu duzue». Egunero tenpluan irakasten ari ohi zen. Apaizburuak, lege-maisuak eta herriko handikiak Jesus hil nahian zebiltzan; baina ez zuten asmatzen zer egin, herri guztia aho zabalik baitzegoen hari entzuten.

Jesusen eta beraren garaiko erakundeen arteko gatazka gogortzera doa beraren bizitzaren amaieran. Merkataria kanporatzeak zuzenki kritikatzeko du buruzagiek sustatutako kultu hutsala, egunero justiziarik eta errukirik gabeko sakrifizioak eskaintzen dituzten pertsona ugariak sostengatua. Jesusek, eskura dituen bitarteko guztiak erabiliz, proposatu izan du Jainkoarekiko benetako harremanetan errotzen den koherentzia sakona; bere existentziaren beraren dohaina eginez adierazten du hori eta doakotasunez gauzatzen, baita tentazio merkantilistak zirikatzen duenean ere. Proposamen horretan eskakizun ia jasanezinak eta erakarpen liluragarriak ageri dira bateraturik aldi berean.

Urteko 33. astea

Santa Katalina Alexandriakoa, *martira*

Makabearrak lehenengo liburutik 6, 1-13: Jerusalemen egin nituen okerrenгатik, atsekabearen atsekabez hilko naiz. **Sal 9:** Alaituko naiz, Jauna, zure salbamenaz.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 20, 27-40.

Aldi hartan, saduzear batzuk hurbildu zitzaizkion Jesusi (saduzearrek ez dute onartzen hildakoak pizten direla), eta galdetu zioten: «Maisu, Moisesek idatzi zigun: “Norbaiti anaia ezkondu seme-alabarik gabe hiltzen bazaio, ezkon bedi alargunarekin, anaiari ondorengoa emateko”. Baziren, bada, zazpi anaia. Zaharrena ezkondu eta seme-alabarik gabe hil zen. Bigarrena eta hirugarrena alargunarekin ezkondu ziren, eta zazpiak berdin. Eta denak seme-alabarik gabe hil ziren. Azkenik, hil zen emakumea ere. Piztuerakoan, zeinen emazte izango da, zazpiek izan baitzuten emazte?». Jesusek erantzun zien: «Mundu honetan gizon-emakumeak ezkondu egiten dira; baina datorren munduan eta hildakoen piztueran parte hartzeko Jainkoak gai aurkituko dituenak, gizaseme nahiz emakume, ez dira ezkonduko; izan ere, ez daitezke hil, aingeruak bezalakoak baitira eta Jainkoaren seme-alaba, piztueran parte dutenez gero. Gainera, hildakoak pizten direla Moisesek berak adierazten du, sutan zegoen sasiaren pasartean, Jaunari “Abrahamen Jainko, Isaaken Jainko eta Jakoben Jainko” deitzen dionean. Ez da hildakoen Jainko, biziena baizik, denak bizirik baitaude harentzat». Orduan, lege-maisu batzuek esan zuten: «Maisu, ederki esan duzu». Eta ez ziren ausartzen beste galderarik egitera.

Berpizkundera sinestea berandu finkatu zen Israel herriaren kontzientzian, eta ez da harritzekoa Jesusen garaiko zenbait erlijio-korrontek zalantzan jartzea. Egia esan, berpizkundera sinestea ariketa zaila da beti, eskura ditugun kategoria guztiak gaintzen dituelako.

Urteko 33. astea

Santa Katalina Alexandriakoa, *martiria*

Ez du ezertarako balio betiereko bizitza hemen ezagutzen dugunaren arabera irudikatzeak; horretan datza saduzearren arazoa; ezagutzen ez dutena hemen dakitenetik abiatuta azaldu nahi dute. BERPIZKUNDEN SINESTEAK beste era batera esan nahi duena da: Jainkoa «bizidunen Jainkoa» delakoaren eta «berarentzat denak bizirik» daudelakoaren konfiantza izatea. Hemen eta orain guregan eragiten hasia den eternitatea harridura fidatuaren bide misterioetsuetatik igaroko da bete-betean.

* * *

Apaiza eta eukaristia-bizitza

Eukaristiaren mistika. Ezin izan dugu ogi zatituaren mahaia elikatzen duen mistika baizik: elkartera gonbidatuak, Jaunaren behertzearekin goratuak, azkeneraino maite izan gintuen haren odolaz anai-arreba bilakatuak, janari honen indarrez mundu guztira bidaliak janari hori bera izan dadin pobreenen eta ahaztuenen janari, eta jakinik, bera piztu dela eta zain-zain dugula bere aintzaren betearen betearen gu geure guretzeetatik eta gatazketatik liberatzeko. Ezin izan gara apaiz eukaristiaren mistikarik gabe; apaizak eukaristia-bizitza dira. Apaizgoak, espiritu hau gabe, letraz eta errituz bakarrik, erail egiten du. (*José Moreno Losada, Religión Digital 2021-08-28, puskatxo bat*)

Ezekielen Profezia liburutik 34, 11-12. 15-17.

Hau dio Jainko Jaunak: «Ni Neu egingo naiz artaldearen kargu, Neu arduratuko hartaz. Artzaina, artaldea sakabanatu zaionean, ardiez arduratzen den bezala, halaxe arduratuko naiz Ni neure ardiez; egun lainotsu eta ilunean sakabanaturiko toki guztietatik aterako ditut. Nik Neuk larratuko ditut ardiak eta Neuk harraraziko diet atsedean –dio Jainko Jaunak–. Ardi galduaren bila joango naiz, desbideratua artaldera bilduko dut, hanka hautsia lotuko, gaixoa indartuko; gizenak eta indartsuak zainduko ditut. Behar bezala larratuko ditut ardiak». Zuei, ene ardioi, hau diotsuet Nik, Jainko Jaunak: «Nik erabakiko dut auzia ardi batzuen eta besteen artean, aharien eta akerren artean».

Sal 22: Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean.

San Paulok 1 Korintoarrei 15, 20-26. 28.

Senideok: Piztu da Kristo hilen artetik, heriotzatik piztuko direnetan lehen-fruitu. Izan ere, heriotza gizon baten bidez etorri zen bezala, gizon baten bidez etorri da hildakoen piztuera ere. Eta Adamekin duten elkartasunagatik gizaki guztiak hiltzen diren bezala, Kristorekin duten elkartasunagatik guztiak itzuliko dira bizira. Baina bakoitza bere garaian: lehenengo Kristo, lehen-fruitua denez; gero, Kristorenak, hau berriro etortzean. Gero, azkena izango da, Kristok, Jainkoaren kontrako nagusitza, aginte eta indar guztiak ezereztu ondoren, Jainko Aitari erreinua emango dionean. Kristok errege izan behar baitu, Jainkoak etsai guztiak haren oinazpian ipini arte. Azkena ezereztuko den etsaia heriotza izango da. Jainkoak gauza guztiak menpean jarriko dizkionean, Semea bera menpean jarriko zaio gauza guztiak menpean jarri zizkionari, eta Jainkoak denetan dena izango da.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25, 31-46.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Gizonaren Semea –eta aingeru guztiak harekin– aintzaz beterik etortzean, bere erregeaulki ospetsuan eseriko da, eta herri guztiak haren aurrean bilduko dituzte. Hark batzuk besteengandik bereiziko ditu, artzainak ardiak ahuntzetatik bereizten dituen bezala: ardiak bere eskuinaldean ipiniko ditu, eta ahuntzak ezkerrealdean. Orduan, erregeak esango die eskuinekoei: “Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok; hartazue munduaren sortzetik zuentzat prestaturik dagoen erreinua. Gose bainintzen, eta jaten eman zenidaten; egarri, eta edaten eman; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoen, eta jantzi egin ninduzuen; gaixorik, eta bisitatu; espetxean, eta ikustera etorri zineten”. Orduan, zintzoek erantzungo diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goserik, eta eman genizun jaten, edota egarri, eta edaten eman? Noiz ikusi zintugun arrotz, eta etxean hartu, edota biluzik, eta jantzi? Noiz ikusi zintugun gaixorik edota espetxean, eta ikustera joan?”. Eta erregeak erantzungo die: “Benetan diotsuet: nire seniderik txikien hauetako bati egin zeniotena neuri egin zenidaten”. Gero, esango die ezkerrekoei: “Alde nigandik, madarikatuok, deabruarentzat eta haren lagunentzat prestaturik dagoen betiko sura. Gose bainintzen, eta ez zenidaten jaten eman; egarri, eta ez zenidaten edaten eman; arrotz, eta ez ninduzuen etxean hartu; biluzik, eta ez ninduzuen jantzi; gaixorik eta espetxean nengoen, eta ez zineten ni ikustera etorri”. Haiek erantzungo diote: “Jauna, noiz ikusi zintugun goserik edota egarri, arrotz edota biluzik, gaixorik edota espetxean, eta guk lagundu ez?”. Hark erantzungo die: “Benetan diotsuet: txikien hauetako bati egin ez zeniotena, neuri ez zenidaten egin”. Eta hauek betiko zigorrera joango dira; zintzoak, berriz, betiko bizira».

Unibertsoko errege den Kristoren kontenplazioaz solemneki amaitzen da liturgi urtea. Egunez egun, kristau-misterioa aletuz joan dira irakurgaiak, eta Jesusen beraren xehetasun ugari eskaini dizkiote fededunon begiradari. Orain funtsezkoenerako baino ez dago astirik, aurrez aurre ikusteko nor den «unibertsoari bere hitz ahaltzuaz eusten diona» (Hb 1, 3) eta zein den beraren behin betiko promesa gizateriarentzat. Harriduraz, baita esker onez ere, gaur badakigu Jaunak ez duela munduko boteretsuen inolako antzik: Berak ez du menpekorik eta ez da inoren kontura bizi, baizik eta pertsonalki konprometitu da fidatuak izan zaizkion pertsonen duintasuna berrezartzera. Larratzen, atsedena eta jaten ematen, eta sendatzen duen artzaina bezalakoa da. Beraren jarduera pertsona bakoitzaren beharrekiko eta zauriekiko benetako errukian oinarritzen den irudimenezko errege bat bezalakoa da, ezagutzen ditugun erregeek ez baitute horrela jokutzen. Justizia egiten ahalegintzen den epailea bezalakoa da, baina bete ezinezko koderik ezartzen ez duena, baizik eta gauza txikietan jarritako maitasunaren nagusitasuna aitortzen duena. Besarkatzen gaituen Errege honek bere Erreinua eraikitzen garamatza.

Urteko 34. astea

Andre Mariaren medaila mirarizkoa
San Jakobo Pertiakoa, *martiria*

Danielen Profezia liburuaren hasiera 1-6. 8-20: Ez zuen aurkitu Daniel, Hananias, Mixael eta Azarias adinakorik. **Sal: Dn 3, 52. 53. 54. 55. 56 (R/. 52b):** Bedeinkatua Zu, Jauna, gure arbasoen Jainkoa: Aintza eta gorespen zuri gizaldietan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 1-4.

Aldi hartan, begira zegoela, aberats batzuk ikusi zituen Jesussek tenpluko diru-kutxara limosna botatzen. Ikusi zuen emakume alargun behartsu bat ere bi txanpon botatzen. Eta esan zuen: «Benetan diotsuet: alargun behartsu honek beste guztiek baino gehiago bota du. Izan ere, beste guztiek sobera dutenetik egin dute limosna; honek, ordea, bere eskasian, bizitzeko zeukan guztia eman du».

Jesusen begirada zorrotzak eskaintza bakoitzaren benetako balioa aurkitzen du, beraren itxurazko balioaz harago. Jesusen arabera, emandako kopuruak gutxiago balio du emateko ekintzan jarritako asmoak baino. Urte liturgiko honetan zehar gure bizitzan igaro den ongia apaltasunez eskertzen lagundu diezaguke eszena honek. Ziur aski ez dugu gauza handirik egin; gainera gure otoitza ere pobrea eta eskasa iruditu ahal izan zaigu une askotan... Hala ere, gure maitasunkeinu txikietako bakar bat ere, ezta ahaztuta ditugunak ere, ez zaizkio axolagabe igaro Jainkoari, Hark badaki errealitatea erraien sakonetik ikusten.

Danielen Profezia liburutik 2, 31-45: Inoiz hondatuko ez den erreinua eraikiko du Jainkoak, eta beste erreinuak suntsituko ditu.
Sal: Dn 3, 57. 58. 59. 60. 61 (R/. 59b): Jaunaren sorkari guztiok, bedeinka ezazue Jauna: Goretsi eta ospatu gizaldietan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 5-11.

Aldi hartan, tenpluari buruz ari ziren batzuk, harri ederrez eta emaitzez apaindua zegoela aipatuz. Orduan, Jesusek esan zien: «Etorriko da, hor ikusten dituzuen horietatik guztietatik harririk harri gainean geldituko ez den garaia: dena suntsituko dute». Ikasleek galdetu zioten: «Maisu, noiz gertatuko da hori? Eta zertan antzemango diogu gertatzera doala?». Jesusek erantzun zien: «Kontuz, ez zaitzatela inork engaina! Asko etorriko dira nire izenean, “ni naiz Mesias” edo “gainean da garaia” esanez. Ez joan horrelakoen atzetik. Gerra- eta iraultza-hotsak entzutean, ez ikaratu, lehenbizi gertatu beharrekoa baita hori guztia; baina ez dator berehala azkena». Esan zien, gainera: «Nazioa nazioaren aurka eta erreinua erreinuaren aurka altxatuko dira; lurrikara handiak izango dira, eta izurriteak eta goseteak han eta hemen. Gauza ikaragarriak gertatuko dira, eta seinale handiak agertuko zeruan».

Badirudi Jesusek erne jartzen gaituela hain garaikidea dugun fenomeno honen aurrean, fakes news delakoen aurrean. Zurrumurruak, eta hondamendi zurrumurruak ez dira inoiz falta izan historian zehar. Gainera, zenbait “igarlek” ezbeharrak asmatzea ere lortu izan du, iragartzearen iragartzeaz; azkenean, batzuk gertatu ere gertatzen direla ikusten dute. Jesusek zuhurtasunera eta bereizketa egitera gonbidatzen gaitu: «Kontuz inork engaina ez zaitzaten». Itxaropena lapurtzen diguten albisteak elikatzen denbora eta energia galtzea baino, hobe dirudi Erreinua irits dadin indar guztiez lan egiten ahalegintzea, Jainkoak bakarrik oparitu diezagukeen osotasunaren zain konfiantzaz itxaroten gauden bitartean.

Danielen Profezia liburutik 5, 1-6. 13-14. 16-17. 23-28: Giza esku bat agertu zen eta hatzez idazten hasi. **Sal: Dn 3, 62. 63. 64. 65. 66. 67 (R/. 59b):** Eguzki eta ilargi, bedeinka ezazue Jauna: Goretsi eta ospatu gizaldietan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 12-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Eskua erantsiko dizuete eta erasoko, sinagogetara eta kartzeletara eramango zaituztete, eta erregeen eta agintarien aurrera zuzenduko nigatik. Aitormen egiteko aukera emango dizue horrek guztiak. Hartu gogoan ez duzuela zeuen burua nola defendatuko kezkatan ibili beharrik; Nik adieraziko dizuet zer eta nola esan, eta zuen etsaietako inork ez du zuei aurre egiterik edo erantzuterik izango. Zeuen gurasoek eta senideek berek, ahaideek eta adiskideek berek salduko zaituztete, eta zuetako zenbait hilko; guztiak gorroto izango dizuete nigatik; baina ez duzue buruko ile bat ere galduko. Iraupenaren iraupenez lortuko duzue bizia».

Jesusek nahi du bere dizipuluek aldeaz aurretik onartzea bera dela eta jazarriak izateko duten posibilitatea. Horrelako eszenatoki batek arriskua dakar, norberaren bizitza jokoan jartzen duelako. Samina eta nahasmendua ere eragiten ditu, erasoa ustekabeko lekuetatik etor daitekeelako; pertsona maiteenetatik, esaterako. Laster, pasioaren ordu erabakigarrietan mutur-muturreko zailtasunak agertuko direnean, atzera ez egitea oso zaila dela egiaztatzeke aukera izango dute Jesusen lagunek. Beraien testigantzak esperientzia hau bizitzera gonbidatzen gaitu: zutik mantentzen gaituena ez dela gure indarra, baizik eta, bizitzako ekaitzak gorabehera, esku onetan gaudela jakitearen konfiantza.

San Paulok Erromatarrei 10, 9-18.

Zeure ahoz aitortzen baduzu Jesus Jauna dela, eta zeure bihotzean sinesten baduzu Jainkoak hilen artetik piztu zuela, salbatuko zara. Zeren bihotzez sinesten duena zuzentzat hartzen baitu Jainkoak, eta ahoz aitortzen duena salbatu egiten da. Liburu Santuak dio: «Harengan sinesten duena ez da lotsagarri gertatuko». Judu izan ala ez, ez dago bereizketarik, bat bera baita guztien Jauna, dei egiten dioten guztientzat eskuzabala. Izan ere, «Jaunaren izenari dei egiten diona salbatuko da». Nola, ordea, dei egin, harengan sinesten ez badute? Nola sinetsi, haren entzuterik ez badute? Nola entzun, nork hots eginik ez bada? Nola hots egin, hartarako bidalirik ez bada? Liburu Santuak dioen bezala: «Bai ederrak berri onak ekartzen dituztenen oinak!». Ez diote, ordea, denek harrera ona egin Berri Onari. Isaiasek dio: «Jauna, nork sinetsi du gure mezua?». Beraz, mezutik dator sinestea, eta Kristoren berri ematea da mezua. Eta nik galdetzen dut: «Ez al dute entzun?». Bai, noski: «Lurbira guztira zabaldu da haien hotsa, munduaren bazterreraino haien mezua».

Sal 18: Lurbira guztira zabaltzen da haien hotsa.**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 4, 18-22.**

Aldi hartan, Jesusek, Galileako itsasbaterrean barna zebilela, bi anaia ikusi zituen, Simon, Pedro deitua, eta haren anaia Andres, sareak itsasoan botatzen, arrantzaleak baitziren. Jesusek esan zien: «Zatozte nirekin, eta giza arrantzale egingo zaituztet». Haiek, berehala, sareak utzi eta jarraitu egin zioten. Aurreraxeago, beste bi anaia ikusi zituen, Santiago eta haren anaia Joan, Zebedeoren semeak, aitarekin ontzian sareak konpontzen; eta dei egin zien. Haiek, berehala, ontzia eta aita utzirik, jarraitu egin zioten.

Urteko 34. astea

San Andres, apostolua

Etengabe harritzen gaitu Jesusen hitzak duen erakartzeko gaitasunak. Erakarpen honek liluraturik, dizipulu bakoitza bere mundu ezagunetik irten da, Ebanjelioaren abentura zalantzarrian murgiltzeko. Lehen lau apostolu horiei -hauen artean Andres, zeinen jaia gaur ospatzen dugun-, Jesusek proposatzen dituen gako berrien arabera “anai-arrebak” izaten ikasteko deia egiten zaie, gainera. Odoloturak ez dira ezabatzen, baizik eta familiartasun esparru infinituki handiagoan integratzen dira, munduko bazterretan abandonatuta daudenak sartzten diren esparruan.

* * *

Foucauld-eko Karlos

(Karlosen jaia bihar, abenduaren 1ean)

Nazareten zela, klaratar ahizpen mandatarari gisa, bere gogoeta-idazkietan foucauldar espiritualitatean testu giltzarri den hau dakar: «Gure bizitza guztiak, mutuena delarik ere, Nazareteko bizitzak, basamortuko bizitzak, jendaurreko bizitzak bezala, etsenpluz emandako Ebanjelioaren prediku izan behar du; gure existentzia guztiak, gure izate guztiak, Ebanjelioa hots egin behar du teilatu gainean; gure Gu guztiak Jesus arnastu behar du, gure ekintza guztiak, gure bizitza guztiak, gu Jesusenak garela oihukatu behar dute, Ebanjelioaren araberako bizitzaren irudia azaldu behar dute; gure izate guztiak prediku bizi izan behar du, Jesusen isla, Jesusen lurrin eta usain gozo, Jesus oihukatzen duen zer bait, Jesus ikusarazten duen zer bait, Jesusen irudi batek bezala distira egiten duen zer bait» (Ebanjelio santuez Gogoetak, Nazaret, 1897). (*José L. Vázquez Borau, Nazaret, palabra clave en la canonización de C. de Foucauld, in Religion Digital 2022-05-09*)





Guztion
ETXEAREN
ZAINTZAN
partaide

ABENDUA / GABONILA

AITA SANTUAREN OTOITZ ASMOA

Pertsona minusbaliatuen alde: Otoitz egin dezagun pertsona minusbaliatuak gizartearen arreta-buru izan daitezen, eta erakundeek halako jendearen esku-hartze aktiboa eragingo duten barneratze-programak bultzatu ditzen.



Urteko 34. astea

San Leontzio, *gotzaina*.Santuak: Edmundo Campion, Roberto Southwell, *apaizak*, eta lagunak, *martiriak, jesuitak*,*

Danielen Profezia liburutik 7, 2-14: Gizaseme antzeko bat ikusi nuen, zuretako hodeietan etortzen. **Sal: Dn 3, 75. 76. 77. 78. 79. 80. 81 (R/. 59b):** Mendi eta muino, bedeinka ezazue Jauna: Goretsi eta ospatu gizaldietan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 29-33.

Aldi hartan, Jesusek adibide bat jarri zien ikasleei: «Begira pikondoari edota beste edozein zuhaitzi: kimu-berritzen hasi direla ikusi eta, besterik gabe, badakizue hurbil dela uda. Era berean, beste gauza horiek gertatzen ikustean, jakizue hurbil dela Jainkoaren erregetza. Benetan diotsuet: gizaldi honetakoak hil baino lehen gertatuko dira gauza guztiok. Zeru-lurra igaroko dira, baina nire hitzak ez dira bete gabe igaroko».

Zaharkitze programatuaren munduan bizitzea dagokigu, non badakigun zenbat iraungo duen gauzen bizitza baliagarriek; eta, batzuetan, baita harremanek ere. Agian, beste garai batzuetan baino gehiago behar ditugu Jesusen hitza bezalako erreferentzia indartsuak eta,aldi berean, leunak: «Zerua eta lurra pasatuko dira, baina nire hitzak ez dira pasatuko». Baieztapen hori indartsua da, sendotasuna eta heldulekua eskaintzen dizkigulako, bizitzan konfiantzaz ibiltzeko zailtasunen eta ziurgabetasunen artean. Aldi berean, baieztapen leuna da, itxaropenaren bidea irekitzen duena eta udaren zain egoten dakiena, urtaroen aurrerapena behartu gabe. Errealitateak eskaintzen dizkigun zeinuei erreparatzen ikasiko bagenu (pikondoei edo gure lorategietan bizi diren beste zuhaitzei), agian errazago atzemango genuke Jainkoaren Erreina gertu dagoela.

* San Karlos de Foucauld (1858-1916-12-01ean frantsesen kontrako talde batek hila)

Urteko 34. astea A urtea

Santa Bibiana, *birjina eta martiria*San Viktorino, *martiria*

Danielen Profezia liburutik 7, 15-27: Goi-goikoaren herri santuari emango zaio erregetza, agintea eta handitasuna. **Sal:** Dn 3, 82. 83. 84. 85. 86. 87 (R/. 59b): Gizakiok, bedeinka ezazue Jauna: Goretsi eta ospatu gizaldietan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 21, 34-36.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ibil zaitzte kontuz! Ez bedi moteldu zuen bihotza hordikeriaz, mozkorkeriaz eta bitizta honetako kezka, egun hura ustekabeen gainera etor ez dakizuen, sarea bezala etorriko baita lurrean bizi diren guztien gainera. Beraz, egon erne eta egin otoitz une oro, etorri behar duten horiei guztiei ihes egin ahal diezaiezuen eta zutik egon ahal zaitzeten Gizonaren Semearen aurrean».

Urte liturgikoaren azken egun hauetan, indarrez entzuten da adi egotearen deia, are indar handiagoa hartzen duelarik Abendualdian. Kristau-bizitza, funtsean, ez al datza esna egotean Jainkoaren urrats diskretua aurkitzeko, hutsa besterik ez dagoela dirudien hartan bertan? Bizitzaren estutasunek eta mota guztietako konpentsazioek (baita gailu digitaletara konektatzeak sortzen duen dopaminak ere) arreta galarazi eta bihotza arduragabe bihurtzen digute. Baina Espiritua, ustekabeko hatsa eta bizi-arnasa, gure ahulezia indartzera dator; horrela, zutik egon ahal gaitezen (apaltasunez, baina zutik) Gizonaren Semearen aurrean, eta esku hartze samur eta arduratsuaren zain jarraitzen duten egoera guztien aurrean.

Abendualdiko 1. astea B urtea

San Frantzisko Xabierkoa (*Nafarroako Xabierren 1508 – Txinako atarian 1552*), apaiza, jesuita.

Isaias Profetaren liburutik 63, 16b-17. 19b; 64, 2b-7.

Zu zara, Jauna, gure aita, «gure Erosle» duzu izena betidanik. Zergatik utzi diguzu, Jauna, zeure bideetatik alde egiten, zure begirunerik ez izateraino geure bihotza gogortzen? Itzul zakizkigu, zeure zerbitzariengatik, zeure ondare aukeratu dituzun leinuengatik. Ai, zeruak urratu eta jaitsiko bazina! Zure aurrean mendiak urtuko lirateke. Jaitsi zinen, eta mendiak urtu egin ziren zure aurrean. Inoiz ez du, ez belarrik aditu, ez begik ikusi, Zu beste Jainkorik beragan itxaro dutenen alde horrela jokutzen duenik. Zeu ateratzen zara, pozik eta zuzen dabiltzanen eta zure bideak gogoan dituztenen bila. Haserre zeunden, bai, bekatu egin genuelako, aspaldidanik bekatari garelako, baina salbatuko gara. Guztiok kutsatuak geunden, gure egintza onak ere zapi zikinen antzeko ziren; orbelaren antzera ihartzen ginen guztiok, eta gure bekatuek haizeak bezala eramaten gintuzten. Ez zion inork zure izenari dei egiten, ez zen ahalegintzen inor zurekin bat egiten, zeure aurpegia gorde egin baitzenuen gugandik, eta geure erruetan murgilduak utzi gintuzun. Hala ere, Jauna, Zu zara gure aita; gu buztina, eta Zu gure buztinlaria: zure eskuetako lana gara guztiok.

Sal 79: Jainko, berpiztu gaitzazu; salba gaitezen, zeure begia leun ager ezazu.

San Paulok 1 Korintoarrei 1, 3-9.

Senideok: Grazia zuei eta bakea gure Aita Jainkoagandik eta Jesu Kristo Jaunagandik. Jainkoari eskerrak ematen ari natzaio beti zuengatik, zuei Jesu Kristogan Jainkoak eman dizuen graziagatik. Izan ere, Kristogan aberastu zaituzte dohain guztietan: bai hitzean eta bai jakintzan, Kristoz egiten dugun aitormena zuengan sendotu denez gero. Horrela, ez duzue dohainik batere falta Jesu Kristo gure Jaunaren agerraldiaren zain zaudetenok. Hark indartuko zaituzte azkena arte, inork zuen aurka zeresanik izan ez dezan Jesu Kristo gure Jaunaren

Abendualdiko 1. astea B urtea

San Frantzisko Xabierkoa (*Nafarroako Xabierren 1508 –
Txinako atarian 1552*), apaiza, jesuita

etorrera-egunean. Zintzoa da bere Seme Jesu Kristo gure Jaunarekin elkarturik bizitzera deitu zaituzten Jainkoa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 13, 33-37.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Begira, zaudete erne, ez dakizue-eta garaia noiz den. Gizon bat urrutira joatean bezala da: etxea uztean, morroiei ematen die agintea, bakoitzari bere eginkizuna jarriz, eta atezainari erne egoteko agintzen dio. Zaudete, beraz, erne; ez baitakizue etxeko nagusia noiz etorriko den: ilunabarrean, gauerdian, oilarrak jotzean edota egusentian. Ez zaitzatela lo aurki, ustekabean etorrita. Zuei esaten dizuedan hau denei esaten diet: Zaudete erne!».

Aabendualdiak Betleemgo Jesusen jaiotzaren ospakizuna prestatzera gonbidatzen gaitu, beraren jaiotza berriro gogoratzeko; halere, liturgi garai honek askoz harago joatera bultzatzen gaitu berez: bizitzea dagokigun une hau Jaunaren aztarnak aurkitzeko deia da, konfiantza izanik, bera ari dela kreazioa eta historia bere betera eramaten. Ez dakigu noiz etorriko den Jauna, baina badakigu etorri datorrela, eta ziurtasun hori nahikoa dugu abian jarri gaitzean eta berari bidea presta diezaiogun. Abendualdiko lehen igande honek gogo biziz bidaltzen gaitu gure mundu honen errealitate konplexuan murgiltzera, benetan sinetsirik inolako dohainik ez dugula falta eta Jaunak berak emango digula indarra, tinko eta erne irauteko. Etorkizunaren promesa bakean bizitzea bada, etorkizun hori prestatzen duen orainak determinazioa eta konbentzimendua behar ditu. Jesusek ohartarazten digu kontuz ibiltzea eta esna egotea direla beharrezkoak, bera gu konturatu gabe hel daitekeelako. Ez dagokigu unea noiz izango den jakitea, baizik eta berau prestatzea, bakoitzari eman zaigun misioarekiko leialtasun apalez.

* * *

Abendualdiko 1. astea B urtea

San Frantzisko Xabierkoa (*Nafarroako Xabierren 1508 –
Txinako atarian 1552*), apaiza, jesuita


Xabierko Frantziskoren Meza

San Paulok 1 Korintoarrei 9, 16-19. 22-23.

Senideok: Berri Ona hots egiten dudala eta, ezin naiz harrotu; ezinbestean dagokidan eginbeharra baitut hori, eta errukarria ni, Berri Ona hots egingo ez banu!

Berri Ona neure gogoz hots egingo banu, mereziko nuke saria; baina nik nahi izan gabe ezarri didaten eginkizuna betetzen ari banaiz, zein sari zor zait orduan? Hauxe besterik ez: Berri Ona dohainik hots egitea, Berri Onaren zerbitzutik datozkidan eskubideez baliatu gabe.

Gutziz libre naizen arren, guztien esklabo egin naiz, ahalik eta jende gehien Kristorentzat irabazteko. Ahul direnekin ahul egin naiz, ahulak irabazteko. Guztiengana ahalik eta gehien egokitzen saiatu naiz, nolabait batzuen batzuk salbatzeko. Eta dena Berri Onagatik egiten dut, Berri On horretan nik ere parte izan dezadan.



Xabierko San Frantzisko,
apaiza, jesuita (*Misiolarien Zaindaria*)

Abendualdiko 1. astea B urtea
 San Frantzisko Xabierkoa (*Nafarroako Xabierren 1508 –
 Txinako atarian 1552*), apaiza, jesuita

Sal 95: Zabaldu Jaunaren mirariak herri guztietan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 16, 15-20.

Aldi hartan, Jesus Hamaikei agertu eta esan zien: «Zoazte mundu guztira eta hots egin Berri Ona izaki guztiei. Sinetsi eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, kondenatuko. Sinesten dutenek seinale hauek izango dituzte lagun: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berrietan mintzatuko dira, sugeak eskuetan hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanda ere, ez die kalterik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete, eta sendatu egingo dira». Horrela mintzatu ondoren, Jesus Jauna zerura jasoan izan zen eta Jainkoaren eskuinaldean eseri zen. Haiek, berriz, alde guztietara joan ziren Berri Ona hots egitera. Eta Jauna bera ari zen haiekin, egiten zituzten mirarien bidez hitza baiesten zuela.

Xabierrek, bere lan ebanjelizatzailearen 10 urte trinkoetan, ehun mila kilometro baino gehiago egin zuen. Ez lehorrez bakarrik – India, Zeilan, Malaka, Moluka uharteak, Japonia eta Txina bezalako lurraldetan–, baita itsasoz ere, batzuetan etsigarri izateraino bare, beste batzuetan mehatxagarri eta zakar. Beraren biografoek kalkulatu bezala, bere misiolari-bizitzan bere egunen hirutik bat itsasoan egin zuen Xabierrek –«arrainen jaurerri» horretan, berak deitzen zuenez–. Apostolotar ibilbidearen kilometroei egindako aipamen soil horrek erdi bistarazten digu gure Xabierren ebanjelizazio-lanaren neke larria; berari, ordea, bere gutunetan –gaur berean bihotz-berogarri diren horietan– adierazten duenez, kontsolamendu espirituala ematen zion eta mundu honetan berdinek ez duen atsegina.

Abendualdiko 1. astea B urtea

San Joan Damaskokoa, *apaiza eta eliz irakaslea*Santa Barbara, *birjina eta martiria*,*

Isaias Profetaren liburutik 2, 1-5: Jaunak herri guztiak bildu ditu Jainkoaren erreinuan, betiko bakea goza dezaten. **Sal 121**: Goazen pozik Jaunaren etxera.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 8, 5-11.

Aldi hartan, Jesus Kafarnaum herrian sartu zelarik, erromatar ehuntari bat etorri zitzaion, arrenka esanez: «Jauna, elbarri eta oinazetan dago nire morroia etxean». Jesusek esan zion: «Joan eta sendatuko dut». Baina ehuntariak erantzun zion: «Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko; baina esazu hitz bat eta sendatuko da nire morroia. Nik ere, neu besteren mendean egon arren, soldaduak ditut neure mendean, eta bati joateko agintzen badiot, joan egiten da; beste bati etortzeko agindu, eta etorri; eta nire morroiari zerbait egiteko esan, eta hala egiten du». Hori entzunik, harritu egin zen Jesus eta ondoren teozkionei esan zien: «Egia esan, Israelen ez dut inorengan aurkitu horrenbesteko sinemenik. Eta hau diotsuet: Asko etorriko dira sortaldetik eta sartaldetik, eta zeruetako erreinuko mahaian eseriko dira, Abraham, Isaak eta Jakobekin».

«**B**anoa hura sendatzera». Ez al da abendualdia aldi egokia, Jainkoak gizadiaren zauriak sendatzea erabaki izanagatik esker oneko kontzientzia pizteko? Maitasunak ez daki asmo onetara mugatzen, baizik eta erabaki bihurtzen du, abian jartzen da eta muga guztien gaineratik egiten du jauzi. Aro liturgiko berri honen hasieran, gure fedearen esentzia eta itxaropena gogoraraztera datorkiguna pertsonaia marjinala da: atzerritarra eta okupatzailea; Jesus bere bizitzan hartzen duen ehuntari erromatar honek gure etxeko atea konfiantzaz irekitzen erakusten digu, gure duintasunik ezari buelta askorik eman gabe. Ezagutzen gaituen Jauna hutsik egin gabe dator.

* Pio Heredia (1875 Larrea [Araba] – 1936 Santander) eta lagunak, Cobrezesko zistertarrak, dohatsu eta martiria

Isaias Profetaren liburutik 11, 1-10: Haren gainean Jaunaren Espiritua kokatuko da. Sal 71: Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari beti.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 10, 21-24.

Aldi hartan, Jesusek, Espiritu Santuaren pozez beterik, esan zuen: «Bedeinkatua zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. Bai, Aita, hala izan duzu gogoko. Nire Aitak dena eman dit, eta ez du inork ezagutzen Semea nor den, Aitak baizik; ezta Aita nor den ere, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak baizik». Eta ikasleengana itzulirik, esan zien beraiei bakarrik: «Zorionekoak, zuek ikusten duzuen ikusten duten begiak. Hara Nik esan: Profeta eta errege askok ikusi nahi izan zuen zuek ikusten duzuen, baina ez zuten ikusi, eta entzun zuek entzuten duzuen, baina ez zuten entzun».

Abendualdiaren alaitasunak ikusminaren tonu berezia hartzen du. Etengabe berpizten ari den bizitza berriaren aurrean, gure begiak harriduraz eta mirespenez betetzen dira; ezin lortu du ezerk zementua zeharkatzen pazientzia handiz saiatzen den hazi baten indarra geldiaraztea. Jesusek ere espermentatu du Espiritutik sortzen den poz paregabe hau; izan ere, Argia den Espirituak argitzen duen begiradak bakarrik lortzen du jakituria berri hau usaintzea. Jakintsu eta aditu direla uste dutenak beren dogmetan eroso mantentzen diren bitartean, jende xumea Jesusek bere buruaz, Aitaz eta Erreinuaz erakusten duen misterioari atxikitzen zaio. Abendualdia zoriontasunaren aldia da: «Zorionekoak zuek ikusten duzuen ikusten duten begiak!».

Abendualdiko 1. astea B urtea
San Nikolas, *gotzaina*

Isaias Profetaren liburutik 25, 6-10a. Jai-otordua emango die Jaunak herri guztiei eta xukatuko ditu aurpegi guztietako negar-malkoak.
Sal 22: Jaunaren etxean naiz biziko luzaroen luzaro.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 15, 29-37.

Aldi hartan, Galileako itsasbazterrera joan zen Jesus; mendira igo eta han eseri zen. Jende asko hurbildu zitzaion, herren, itsu, besamotz, mutu eta bestelako gaixo asko eramanez; oinetan jartzen zizkioten, eta hark sendatu egiten zituen. Jendea harriria gelditu zen ikusten zuenaz: mutuak hizketan, besamotzak sendatuak, herrenak ibiltzen eta itsuak ikusten. Eta Israelen Jainkoa gorestan hasi ziren. Jesusek ikasleei dei egin eta esan zien: «Erruki dut jende hau; badarama hiru egun nirekin eta ez du jatekorik. Ez ditut baraurik bidali nahi, bidean akitu ez daitezten». Ikasleek esan zioten: «Nondik atera guk basamortu honetan horrenbeste jende asetzeko lain ogi?». Jesusek esan zien: «Zenbat ogi duzue?». Haiek erantzun: «Zazpi, eta arraintxo bakar batzuk». Lurrean esertzeko agindu zion jendeari; gero, hartu zituen zazpi ogiak eta arrainak eta, esker-otoitza egin ondoren, zatitu eta ikasleei eman zizkien, eta ikasleek jendeari. Denek jan zuten ase arte, eta gelditutako hondarrekin zazpi saski bete bildu zituzten.

Salbamena ez da kontzeptu intelektuala, giza esperientzia sakona baizik, gure premia sakonenak asetzera datorrena. Egoera hauetan iristen zaigu salbazioa: gure tristurak eta etsipenak itxaropen-izpi bat sumatzen dutenean, besarkada batek asetzen duenean maitasun gosez dagoena, berau animatuz eta kontsolatuz, norbaitek baztertutako pertsona bakoitzari bere izenaz deitzen dionean, anaitasunaren festan eskubide osoz parte hartzera gonbidatzeko. Abendualdiak gogoratzen digu Jainkoa bera bihurtzen dela salbazioa guretzat, baina ez gu gabe: dauzkagun ogien eta arrainen eskutada gizadiaren gosea asetzeko aski izango ez litzatekeen arren, Jainkoak gure txikitasunarekin kontaktzen du bere egintza infinituraino biderkatzeko.

Abendualdiko 1. astea

San Anbrosio Milangoa, *gotzaina eta eliz irakaslea*

Isaias Profetaren liburutik 26, 1-6: Sar bedi herri zintzoa eta leiala.
Sal 117: Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7, 21.24-27.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Ez da aski niri “Jauna, Jauna” esatea zeruetako erreinuan sartzeko; hau da beharrezkoa: zeruan dagoen nire Aitaren nahia egitea. Beraz, nire hitz hauek entzuten eta betetzen dituen bere etxea harkaitz gainean eraiki zuen gizon zentzudunaren antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; baina ez zen erori, harkaitz gainean oinarritua baitzegoen. Nire hitz hauek entzun, bai, baina betetzen ez dituen, bere etxea hondar gainean eraiki zuen gizon burugabearen antzekoa da. Egin zuen euria, etorri ziren uholdeak, jo zuen haizeak eta eraso zioten etxe hari; eta erori egin zen eta erabat hondatua gelditu».

Batzuetan, geu konturatu gabe, atsedean hartzen hasten da gure bizitza segurtasun faltsuen gainean, zeintzuk unerik ustekabekoenean hondoratzen baitira. Abendualdia aldi egokia da gure konfiantzaren sustraiak berrikusteko eta geure buruari galdetzeko, Isaiasek dioen bezala, ea gure gogoia sendo dagoen eta bakan mantentzen den, Jaunaz fio delako ala, aitzitik, koraza batzuk (prestigioa, inbertsioak, harremanak...) eraiki ditugulako, beraien atzean trebetasunez babesten dugularik geure burua... Funtsean, egiaztapen-irizpidea ez dago hain erraz asmatzen ditugun diskurtsoetan («Jauna, Jauna»), baizik eta nor bere probetxu propiotik irteteko ahalmenean, besteen beharrianak adi-adi entzuteko. Badirudi horretan datzala Aitaren borondatea eta gure barneko eraikinaren sendotasuna.

Abendualdiko 1. astea
 ANDRE MARIA SORTZEZ GARBIA

Hasiera liburutik 3, 9-15.20.

Adamek zuhaitzetik jan ondoren, Jainko Jaunak dei egin eta esan zion: «Non zara?». Hark erantzun: «Zure oin-hotsa baratzean entzun dudanean, beldurtu eta gorde egin naiz, larrugorri nengoelako». Jainkoak esan zion: «Eta zeinek jakinarazi dizu larrugorri zeundela? Galarazi nizun zuhaitzeko fruitua jan al duzu?». Gizonak erantzun: «Laguntzat eman didazun emakumeak eskaini dit fruitua, eta jan egin dut». Orduan, Jainko Jaunak esan zion emakumeari: «Zer egin duzu?». Emakumeak erantzun: «Sugeak engainatu nau eta jan egin dut». Orduan, Jainko Jaunak esan zion sugeari: «Hori egin dualako, madarikatua izango haiz abere guztien eta basapiztia guztien artean; sabel gainean ibiliko haiz arrastaka eta hautsa jango duk heure bizitzako egun guztietan. Elkarren etsai egingo zaituztet hi heu eta emakumea, hire eta haren ondorengoa; honek burua zapalduko dik, eta hik orpotik helduko diok». Gizonak bere emazteari «Eva» ezarri zion izena, bizidun guztiok ama delako.

Sal 97: Kanta Jaunari kantu berri, egin baititu hainbat harrigarri.

San Paulok Efesoarrei 1, 3-6.11-12.

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita, zeruan, Kristoren bitartez, Espirituaren era guztietako ondasunez bedeinkatu gaituena! Kristogan aukeratu gintuen, mundua sortu baino lehen, santu eta errugabe izan gaitzen beraren aurrean, maitasunez. Bere onginahiak eraginda aurrez zuen erabakia, Jesu Kristoren bitartez gu seme-alabatzat hartzea, bere Seme maiteagan eskuzabal eman digun dohain zoragarria gorespen-kantu bihur dadin berarentzat. Kristoren bitartez gara oinordeko gu ere, israeldarrok, lehendik Mesiasengan itxaro genuenok, gauza guztiak berak nahi bezala egiten dituen Jainkoak aurrez aukeratu baikaitu bere asmoaren arabera, beraren aintzaren gorespen-kantu izan gaitzen.

Abendualdiko 1. astea
ANDRE MARIA SORTZETZ GARBIA

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitz emana zegoen. Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zaitez, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura. Aingeruak esan zion: «Ez beldur izan, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta “Jesus” ipiniko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakoben herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango». Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi». Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zugandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrean, eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik». Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekik zuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

Maria Sortzet Garbiaren ospakizunak bere zentzu osoa hartzen du abendualdiaren esparruan. Haren irudiak geure begirada Jainkoaren jatorrizko proiektura itzularazten digu, Kreatzailearen fokutik kanpo kokatzen den giza askatasunak hautsi zuen hartara. Mariagan proiektu horren behin betiko berriztapenaren promesa eskaini digu Jainkoak, bere egintza bete-betara eraman nahi eta ahal duelako gudan. Salbazioaren historia osoak kontaktzen ditu Jainkoa egiten ari den ahalegin amaigabeak, galdutako askatasun hori berreskuratzeko, beraren egitasmoa indarkeriarik gabe gauzatu izan

Abendualdiko 1. astea
ANDRE MARIA SORTZEZ GARBIA

dadin, beraren sorkarien baiespenez. Deikundearen kontakizunak zuhurtziaz berreskuratzen du funtsezko haustura haren zorigaitzoko oroitzapena. Lukasen eszenatokia oso urrun dago Eden paradisuko lorategitik; Nazaretek, Inperioaren periferian galdutako herri horrek, behin betiko aldiari emango dio hasiera. Mariaren baiespən askeak ez du konnotazio gizagainekorik, ezta heroikorik ere. Harridura agertzeko astia hartu du; gainera, ulertzen ez duena adierazteko aukera eman dio bere buruari. Bilaketa zintzo horretatik sortu da “bai” aske eta osoa. Maria Sortzez Garbia babesleku guztiz gizatiarra da, non gure gizateriaren edertasuna erro-errotik birgaiturik ageri baita.

* * *

Andre Maria Sortzetik Garbia

Aspalditik ospatu ohi zen Elizan jai hau. Halere, ez da pentsatu behar sineste hori Elizan betidanikoa izan dela. Bekaturik gabeko sortze hori idatziz defenditu zuen lehenengoa Canterburyko monje bat izan zen, 11. mendean. San Bernardo, 1129an, berritasun horren kontra atera zen. Aquinoko Tomasek ez zuen ematen fedezko egiaztat. Halere, uste hori bide eginez joan zen kristau-herrian. Eta Pio IX.a aita santuak 1854ko abenduaren 8an dogma deklaratu zuen jai horretan aitortzen zena: Andre Maria sortzetik beretik bekaturik gabe bizi izan zela.

Mariaren salbazioa eta garaipena ospatzean, guztiona ospatzen dugu. Ederra da San Antselmoren otoitz hau: «Oi Birjina bedeinkatua, gauza guztien gainetik bedeinkatua, zure bedeinkazioa dela medio izaki guztiak dira bedeinkatuak, ez bakarrik Kreatzaileak kreazioa bedeinkatu duelako, baita kreazioak Kreatzailea bedeinkatu duelako ere».

Abendualdiko 1. astea

Santa Leokadia Toledokoa, *martiria*. San Joan Diego Cuauhtlatoatzin (*Mexikon, Guadalupeko Amaren ikuslea*)

Isaias Profetaren liburutik 30, 19-21. 23-26. Errukituko zaizu Jauna zeure deiaren hotsera. **Sal 146:** Zorionekoak Jaunagan itxaro dutenak.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9, 35—10, 1.6.8.

Aldi hartan, herriz herri eta auzorik auzo zebilen Jesus, hango sinagogetan irakasten, erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzen. Jendetza ikustean, erruki izan zuen, nekatua eta lur joa baitzegoen jende hura, artzainik gabeko ardiak bezala. Orduan, ikasleei esan zien: «Uzta ugaria da, baina langileak gutxi. Erregutu, bada, uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztera». Eta hamabi ikasleei dei egin eta ahalmena eman zien espiritu gaiztoak botatzeko eta gaitz eta eritasun guztiak sendatzeko. Hamabi horiek bidali zituen Jesusek, ohar hauek eginez: «Zoazte galduak dabiltzan Israel herriko ardietara. Eta bidean zoaztela, hots egin hurbil dela zerueta erreinua. Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu lepradunak, bota deabruak; hutsean hartu duzue, eman hutsean».

Arretaz begiraten badiogu, gure mundua ez da Jesusen mundutik oso ezberdina: gure kaleak ere «akiturik eta abandonaturik dabiltzan pertsonen beteta daude, artzainik gabeko ardiak bezala». Agian gu ere horrela sentitzen gara, nekatuta eta abailduta bizitzak zamaturik, begirada nora goratzeko horizonterik gabe. Jesusek gugatik errukia sentitzen duela esperimentatzea, are gehiago, berak “gurekin sufritzen” duela sentitzea, lehen urratsetako bat da, geure bizitzan salbazioa zabaltzen joan dadin uzteko. Erraietan bizitako erruki horretatik, doan jaso duguna doan emateko nahia azaleratuko da ziur. Misioa ez da betebehartetik sortzen, esker onetik baizik.

Abendualdiko 2. astea

Santa Eulalia Meridakoa, *birjina eta martiria*

Isaias Profetaren liburutik 40, 1-5. 9-11.

«Kontsola ezazue, kontsolatu nire herria, dio Jainkoak. Mintza bihotzera Jerusalem, egiozue oihu: betea duela bere morroialdia, ordaindua bere erruen zorra, Jaunaren eskutik hartua baitu bere bekatu guztien ordain betea». Mintzo bat ari da oihuka: «Prestatu basamortuan bidea Jaunari; zelaitu eremuan galtzada gure Jainkoari. Bete daitezela haranak, beheratu mendi eta muinoak; berdindu daitezela malkarrak, zelaitu lur-maldak. Orduan Jaunaren aintza agertuko da, eta gizaki guztiek batera ikusiko dute –Jaunak berak esan du–». Igo mendi-gailurrera, Siongo mezularia; egin deiadar handi, Jerusalemgo mezularia; egin deiadar, ez beldur izan. Esan Judako hiriei: «Hona hemen zuen Jainkoa. Hara, indarrez jantzia dator Jainko Jauna, eta haren besoa nagusi da. Hara, berekin dakar garaipen-agiria eta bere aurretik berak askaturiko herria. Artzainak bezala zaintzen du artaldea; arkumeak besoa hartu eta altzoan eramaten ditu, ardi-ama berriak arduraz gidatzen».

Sal 84: Jauna, zeure onginahia erakutsiezaguzu, zeure salbamena emaguzu.

San Pedro Apostoluaren bigarren gutunetik 3, 8-14.

Ene maiteok: Ez zaizue hau ahaztu behar: Jaunarentzat egun bat mila urte bezala dela, eta mila urte egun bat bezala. Jauna ez da berankorra agintzaria betetzen, batzuek hala uste badute ere; baizik eta pazientzia du zuekin, ez baitu inor galtzerik nahi, guztiok bihotz-berritzea baizik. Jaunaren eguna, ordea, lapurra bezala ustekabeen etorriko da. Orduan, burrunba handiz desagertuko dira zeruak, luraren osagaiak kiskalirik ezereztuko dira, eta lurra eta bertako gauza guztiak agerian geldituko. Gauza hauek guztiak honela ezereztu beharrekoak direnez gero, begira zein santu eta jainkozale izan behar duen zuen bizitzak! Bizi zaitezte, beraz, Jainkoa etorriko den egunaren zain

Abendualdiko 2. astea

Santa Eulalia Meridakoa, *birjina eta martiria*

eta egin lan, lehenbailehen hel dadin. Egun hartan, suan desegingo dira zeruak, eta lurraren osagaiak kiskalirik ezereztuko. Guk, ordea, Jaunak agindu bezala, zuzentasunaren bizileku diren zeru berriak eta lur berria itxaro ditugu. Beraz, maite-maiteok, hauek itxaro dituzuela, ahalegin zaitzte Jainkoarekin bakean bizitzen, garbi eta errurik gabe haren aurrean.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik 1, 1-8.

Mesias eta Jainkoaren Seme den Jesusen Berri Onaren hasiera. Isaias profetaren liburuan honela dago idatzia: «Begira, neure mezularia bidaltzen dut zure aurretik, zuri bidea prestatzera. Mintzo bat oihuka ari da basamortuan: “Prestatu bidea Jaunari, zuzendu bidexkak hari”». Hala agertu zen Joan basamortuan, bataiatzen eta bihotz-berritzeko bataioa hots egiten, bekaturen barkamenerako. Judea osotik eta Jerusalemdik harengana joaten zen jende guztia, eta, beren bekatuak aitorturik, Joanez bataiatu egiten zituen Jordan ibaian. Joan gamelu-larruz jantzia zebilen, eta gerrian larruzko uhalak; matxinsaltoak eta basa ezta zituen janari. Eta honela hots egiten zuen: «Nire ondoren dator ni baino ahaltzuagoa dena, eta ni ez naiz inor makurtu eta haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere. Nik urez bataiatu zaituztet; hark, ordea, Espiritu Santuaz bataiatuko zaituzte».

Aabendualdiko bigarren eta hirugarren igandek Joan Bataiatzailea dute foku. Jainkoaren hitzak basamortuan harrapatu du, hazi eta hezi den toki berean. Jesus ez bezala, honen eskola Nazareteko bizitza arrunta izan baita, Bataiatzailearen nortasuna bakardadean eta penitentzian eratu da. Baina heldutasunera iritsi denean, jendetzarekin topo egitera bultzatzen duen misioa hartu du, konbertsioaren mezua presaka eskualdatzeko. Ez dirudi basamortua azken helmuga duenik, abiapuntua baizik. Joanez eta Jesusez bezala, basamortutik igaro behar dugu geuk ere, han entzun baitezakegu gure esku jarritako

Abendualdiko 2. astea

Santa Eulalia Meridakoa, *birjina eta martiria*

misioa interferentzia gutxiagoz. Eta gero, Jainkoarekiko topaketaren esperientziak adoreturik, berri ona hots egitera izango gara bidaliak. Konbertsioak atzerapenik gabe sarrarazten gaitu eguneroko eraldaketa-dinamikan; honetan, alegia: senidetasun-bideak prestatzen, harreman zailak leuntzen, mespretxaturik sentitzen direnei estimua igotzen, geure «ego»ari haizea jaisten, Jainkoarengandik urruntzen gaituzten ohiturak zuzentzen, etab. Hau guztia, zeregin bat baino gehiago, funtsezkoa garamatzen berri ona da.

* * *

«Esperantza, zerbait gerta dadin opa izatea da.
Fedea, zerbait hori gertatuko dela uste izatea da.
Adorea, zerbait hori gertatu dadin saiatzea da».

Abendualdiko 2. astea

San Damaso, 37. *aita santua*

Isaias Profetaren liburutik 35, 1-10: Jainkoa bera dator zuek salbatzera.

Sal 84: Horra gure Jainkoa; bera dator gu salbatzera.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 5, 17-26.

Aldi hartan, Jesus irakasten ari zen. Han zeuden eseriak Galileako eta Judeako auzo guztietatik eta Jerusalemetik etorritako fariseu eta lege-maisu batzuk. Eta Jaunaren indarrak gaixoak sendatzera eragiten zion. Hartan, etorri ziren gizon batzuk elbarri bat ohatilan zekartela eta barrura sartu nahi zuten, Jesusen aurrean ipintzeko. Baina jendetzagatik ez baitzuten aurkitzen nondik sartu, etxe gainera igo eta, teilak kendurik, ohatila eta guzti eraitsi zuten erdira, Jesusen aurrera. Haien sinetsmena ikusirik, Jesusek esan zuen: «Gizona, barkatuak dituzu bekatuak!». Lege-maisu eta fariseuek zioten beren baitan: «Nor dugu biraoka ari den hau? Nork barka ditzake bekatuak, Jainkoak baizik?». Baina Jesusek, haien burutapenei antzemanik, esan zien: «Zer burutapen darabilzue zeuen baitan? Zer da errazago esaten: “Barkatuak dituzu bekatuak” ala “Jaiki eta zabilta?”». Hara, bada, orain ikusiko duzue Gizonaren Semeak baduela lurrean bekatuak barkatzeko ahalmena. Eta esan zion elbarriari: “Zuri diotsut: Jaiki zaitez, hartu ohatila eta zoaz etxera”. Jaiki zen hura berehala denen aurrean, hartu zuen etzanik zegoen ohatila eta etxera joan zen, Jainkoa goretsiz. Guztiak harriturik gelditu ziren eta Jainkoa goresten zuten. Eta, beldurrez beterik, honela zioten: «Harritzekoak ikusi ditugu gaur».

Batzuetan Salbazioaren irrika gure existentziaren edozein dimentsiotan atrofiaturik edo mugitu ezinik sentitzearen esperientziatik sortzen da, hau da, harreman kristalduak, garatzea lortzen ez dugun gaitasuna, otoitz-bizitzaren geldialdia, depresioa, lan-gatazkak, etab. izatetik. Oso egoera mingarrietan, makaldurik eta egoera aldatzeko mugimendurik txikiena egiteko gaitasunik gabe ere ikusten dugu geure burua. Gaurko ebanjelioaren kontakizuna gure itxaropena berritatzera

Abendualdiko 2. astea

San Damaso, 37. aita santua

datorki: Jesuentzat paralisi bakar bat ere ez da sendaezina, eta inongo eskenatokik, nahiz eta oso korapilatsua izan, lortzen du Jainkoaren ekintza eragozte. Jarduteko gai ez garelako sentitzen dugunean, badirudi soluzio-bide bat, besterik gabe, gidatzen eta sendatzen uztearen desira aktibatzea dela, erresistentziarik jarri gabe. Ziur aski, gure funtsezko egitekoa oztopoak murriztean bakarrik datza eta graziari gure bizitza eraldatzen uztean.

* * *

BIZITZAREN AZKENEAN

Bizitzaren azkenean,
maitasunaren galdea,
bete al dudan legea,
zaindu al dudan pobrea.

Ogia gosetuari,
ura egarrituari,
eman al diodan babes,
etxerik ez duenari.

Alaitasuna tristeari,
eskua minez denari,
eman al diodan musu
bakarrik zegoenari.

Presoei irtenbidea,
etorkinei aterpea,
bete al dudan arretaz,
maitasunaren legea.

Gozatu al dudan gaixoa
elbarriaren pausoa,
xukatu al dudan gupidaz,
umezurtzaren malkoa.

Zu zinen, Jauna, egarri,
Zu etorkinengan larri,
zu, Jauna, zerorri zinen
pobreengan errukarri.

*(Musika: Zesareo Gabarain;
hitzak: Iñaki Beristain)*

Isaias Profetaren liburutik 40, 1-11: Jainkoak bere herria kontsolatu.

Sal 95: Hara, indarrez jantzia etorriko da gure Jainkoa.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 18, 12-14.

Aldi hartan, Jesusek esan zien ikasleei: «Zer deritzozue? Gizon batek ehun ardi baldin baditu eta bat galtzen bazaio, ez al da laurogeita hemeretziak mendian utzi eta galdutakoaren bila joango? Eta aurkitzen badu, benetan diotsuet, poz handiagoa izango du bakar harengatik, galdu ez diren laurogeita hemeretziengatik baino. Era berean, zeruko zuen Aitak ez du nahi txiki hauetako bat ere galtzerik».

Segur aski, Jesusek batzuetan lagun egin izan die artzainei eta badaki nola erreakzionatzen duten ardi bat galtzen zaienean. Ez du hitz egiten entzundako hutsez; izan ere, ekartzera datorren salbazioak gainazaletik harago hartu behar du gizakia, hau da, bere esperientziaren erraietaraino. Hortxe, Jainkoak bakarrik ezagutzen duen hondo ezkutu horretan, aurkitzen dugu noizbehinka geure burua guztiz galdurik, eta sentitzen dugu ausarkeriaz edo arreta faltaz desbideratu garenaren errua. Abendualdiaren itxaropenak gogorarazten digu Aitak ez duela nahi bere seme-alabetako bat bera ere galtzerik, gu barne garelarik gure txikikeriekin; eta prest dagoela behar diren harat-honat guztiak egiteko, gu aurkitu eta bere bihotzaren etxera itzularazi arte.

Abendualdiko 2. asteaSanta Luzia, *birjina eta martiria*San Eugenio, *martiria*

Isaias Profetaren liburutik 40, 25-31: Jainko ahalguztidunak ematen dio nekatuari adore. **Sal 102:** Ene arima gorets ezazu Jauna.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 28-30.

Aldi hartan, Jesusek esan zuen: «Zatozte nigana nekatu eta zamatu guztiok, eta Nik arinduko zaituztet. Hartzazue nire uztarrria eta ikasi nigandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz, eta aurkituko duzue zeuen arimentzako atsedean. Nire uztarrria leuna baita, eta nire zama arina».

Bizitzan nekatuz joan ohi gara. Ideal edo asmo handien aldiak ez du beti irauten, eta apurka-apurka utopiaren higadurak gure bizitzari aurre egiteko modua ahuldu egiten duela sentitzen dugu. Jesusek giza sentimenduak sakoneraino ezagutzen ditu, eta badaki nekeak eta estutasunak oso eragin kaltegarria izaten dutela eta adorerik eza sortzen; higatu egiten gaituztela segimenduan, eta sotilki nork bere burua zilbor-hestetzat hartzera bultzatzen. Errezeta magikorik agindu beharrean, askoz ere lasaigarri apal eta leunago bat eskaintzen du Jesusek, bizitzaren zamak berarekin partekatzea eta elkarrekin eramatea. Gertatzen dena aldatzea gehienetan gure esku ez badago ere, askotan alda dezakegu geure bizimodua.

Abendualdiko 2. astea

Gurutzeko San Joan, *apaiza eta eliz irakaslea, karmeldarra*

Isaias profetaren liburutik 41, 13-20: Ni Neu nauzu lagun, Israelgo Santua. **Sal 144:** Errukiorra eta bihozbera da Jauna, haserregaitza eta onginahiz betea.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 11-15.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Egiaz diotsuet: Ez da sortu amaren semerik Joan Bataiatzailea baino handiagorik. Hala ere, zeruetako erreinuan txikiena, hura baino handiago da. Joan Bataiatzailea agertu zen egunetatik gaurdaino, zeruetako erreinua indarrez hartzen da, eta indar egiten dutenek eskuratzen dute. Profeta guztien eta Moisesen agintzarien garaia Joan Bataiatzailearekin bukatu da. Joan hau da etortzekoa zen Elias, nahi baduzue onartu. Belarrik duenak entzun beza».

Joan Bataiatzailea antzinakoaren eta berriaren arteko giltzarri-irudia da Liburu Santuetan. “Aitzindaria” da, munduaren zoria bere betera eramango duenaren bidea prestatzen duelako. “Bataiatzailea” da, existentzia ulertzeko eta honi aurre egiteko moduan, konbertsioaren bidean Jesusengan erabat murgiltzea ezinbestekoa dela adierazten duelako. Joanen bi alderdi horiek nahitaez egiten dute talka beraren garaiko eta gure garaiko itxaropenekin. Beti izaten da errazagoa sarritan ibilitako bidean ibiltzea, berrietan ausartzea baino; eta erosoagoa izaten da paisaia ezagunetan begirada finko mantentzea, ustekabeko zerumugak kontenplatzeko erabakia hartzea baino. Sumintzen duen, baina etorkizuna duen berritasunaren ezten gisa jokutzen du Abendualdiak.

Abendualdiko 2. astea

Santa Silvia, *aitorlea*

San Valeriano, *gotzaina*

Isaias profetaren liburutik 48, 17-19: Nire aginduak aintzakotzat hartuko bazenitu. **Sal 1:** Zuri jarraitzen dizunak, Jauna, izango du bizirako argia.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 11, 16-19.

Aldi hartan, Jesusek esan zion jendeari: «Zeinen antzekoa dela esango nuke gizaldi hau? Plazan eserita dauden haurren antzekoa da; honela oihu egiten baitiete batzuek besteei: “Soinua jo dizuegu, eta zuek dantzarik ez; hiletak jo, eta zuek aienerik ez”. Izan ere, etorri da Joan Bataiatzailea, ez jan ez edan egiten ez duela, eta deabruak harturik dagoela diote. Etorri da Gizonaren Semea, jaten eta edaten duela, eta honela diote: “A zer tripazaina eta mozkorra, zergalari eta bekatarien adiskidea”. Baina egiteek Jainkoaren jakinduriari eman diote arrazoa».

Jesusen arabera, «Jainkoaren jakinduria»ri arrazoa ematen diotenak ez dira ongi antolatutako diskurtsoak, gertaerak baizik. Haren belaunaldian, gurean bezala, ez ziren falta errealitatea ondo zehaztutako eta onartutako kodeen arabera interpretatzen zuten adituak. Hala ere, bizitzaren ikuspegi horrek ez du hunkitzen, ez dinamizatzen, ez du eragiten erradikaltasun handiagora, ez maitasun benetakoagora. Maisuak baino gehiago, lekukoak behar ditu munduak, beren txikitasunaz jabetzen diren eta beren koherentzia-nahia Jesusekiko harreman pertsonalean oinarritzen duten gizon-emakumeak. Egitateak dira, eta ez nekatzen gaituen hitzontzikeria merkea, Ebanjelioarekin dugin konpromisoa egunero egiaztatzen dutenak.

Abendualdiko 2. astea

San Agrikola, *martiria*Santa Adelaida, *enperadorea*

Siraken liburutik 48, 1-4. 9-11: Berriz etorriko da Elias. Sal 79: Jainko, berpiztu gaitzazu; salba gaitezen, zeure begia leun ager ezazu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 17, 10-13.

Menditik jaistean, galdetu zioten ikasleek Jesusi: «Nolatan diote lege-maisuek, lehenbizi Eliasek etorri behar duela?». Jesusek erantzun zien: «Bai, Eliasek etorri behar zuen eta gauza guztiak eraberritu. Baina hara zer diotsuedan: Elias etorria da, eta ez dute aintzat hartu, baizik eta nahi izan duten guztia egin diote. Era berean, Gizonaren Semeak ere oinazeak jasango ditu horiengandik». Orduan konturatu ziren Joan Bataiatzaileaz ari zitzaiela.

Ez Eliasek ez Joan Bataiatzaileak, ezta Jesus berak ere, egin diote ihes profeta handien zori tragikoari. Beraien egiazko hitza, jendetzaren bihotza pizteko gai izan dena, gogaikarri eta kondenaren arrazoi bihurtu da. Zein mekanismok lausotzen du gizakiaren begirada, gogaitarazten gaituzten jarrera profetikoen bitartez Jainkoaren urratsa ezagutzea eta gozamenaz onartzea ez lortzeko punturaino? Abendualdiak, hain zuzen ere, geure burua “gogaitarazten” uztea eskatzen digu, Jesusen hitza gure bihotzean sartzen onartzea; maitasunaren irizpideen arabera, garbitu eta zuzendu behar dugun guztia agerian jartzeko moduan.

Abendualdiko 3. astea

Azarias, Ananias, Misael (Itun Zaharrekoak), *martiriak*. San Juan de Mata, *apaiza, fundatzailea San Felix de Valoisekin batean (trinitarioak)*. San Jose Manyanet, *apaiz eta fundatzaile*

Isaias Profetaren liburutik 61, 1-2a. 10-11.

Jainko Jaunaren espiritua nire gainean dago, Jaunak gantzutu bainau. Hark bidali nau behartsuei berri ona ematera, bihotz-urratuak sendatzera, gatibuei amnistia hots egitera eta giltzapetuei askatasuna; Jaunaren onginahi-urtea hots egitera. Pozaren pozez nago Jaunarekin, neure arima Jainkoarekin alai daukat, salbamenaz jantzi bainau, garaipen-soinekoz estali, koroa janzten duen senargaia bezala, edergailuz apaintzen den andregia bezala. Lurrak landarea ematen eta baratzeak hazia ernearazten duen bezala, hala ernearaziko du Jaunak justizia eta gorespina nazio guztien aurrean.

Sal: Lukas 1: Neure arima Jainkoarekin alai daukat.**San Paulok 1 Tesalonikarrei 5, 16-24.**

Senideok: Zaudete beti pozik. Egin otoitz aspertu gabe; eman eskerrak beti, horixe nahi baitu zuentzat Jainkoak Kristo Jesusengan. Ez itzali Espiritua, ez gutxietsi profeta-dohainik. Aztertu guztia eta hartu on dena. Zaindu zeuen burua nolanhiko gaiztakeriatik. Bakea ematen duen Jainkoak berak egin zaitzatelesa oso-osorik santu, eta zuen izate osoak –espiritu, arima eta gorputz– errugabe iraun dezala, Jesu Kristo gure Jaunaren etorrera arte. Leiala da dei egin dizuen, eta beteko du emandako hitza.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 6-8. 19-28.

Agertu zen gizon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen, argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiek sinets zezaten. Hura ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik. Hau da Joan Bataiatzaileak egin zuen aitormena, juduek Jerusalemdik apaizak eta lebitarrak bera nor zen galdetzera bidali zizkiotenean. Joanez argi eta garbi aitortu zuen: «Ni ez naiz Mesias».

Azarias, Ananias, Misael (Itun Zaharrekoak), *martiriak*. San Juan de Mata, *apaiza, fundatzailea San Felix de Valoisekin batean (trinitarioak)*. San Jose Manyanet, *apaiz eta fundatzaile*

Haiek galdetu zioten: «Nor zara, bada? Elias al zara?». Joanek erantzun: «Ez». Haiek, orduan: «Etortzekoa den profeta al zara?». Eta hark: «Ez». Berriro galdetu zioten: «Nor zara, bada? Bidali gaituztenei erantzuna eman behar diegu. Zer diozu zeure buruaz?». Joanek, orduan: «Ni, basamortuan oihuka ari denaren mintzoa naiz: “Zuzendu bidea Jaunarentzat”, Isaias profetak esan zuen bezala». Bidalitako haietan batzuk fariseuak ziren, eta galdetu zioten: «Zergatik bataiatzen duzu, bada, ez bazara Mesias, ez Elias, ez etortzekoa den profeta?». Joanek erantzun zien: «Nik urez bataiatzen dut. Zeuen artean baduzue, ordea, ezagutzen ez duzuen bat, nire ondoren datorrena; eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere». Hau guztia Betanian gertatu zen, Jordan ibaiaz bestaldean, han ari baitzen Joan bataiatzen.

Tradizioz, “gaudete” (alaitu zaitzte!) esan izan zaio hirugarren igande honi; Jainkoaren Hitzak behin eta berriz gonbidatzen gaitu poztira eta gure alaitasunaren iturria non dagoen hausnartzera. Joan Bataiatzailea berriro itzuli da eszenara, guri gogorarazteko poz hori ez dela erraza, baizik eta funtsezkoa den konbertsio-mugimendutik datorrela. «Metanoia» horren edukia ez da Isaias profetak proposatu zuena besterik, Jesus baino mende batzuk lehenago: bihotz urratuak bendatu, espetxe bidegabeak ireki, gure mundu abailduari kontsolamendu apur bat eskaini... Gure benetako neurria egiaztatzen, eta dagoeneko garenaren baitan emango zaigun betetasunaren promesa barruntatzen sortzen da alaitasuna. Joanen bataioak dimentsio berria hartuko du: Jesusek Espiritu Santua eta sua gehituko dizkio urari. Hau da, garen horretan eta modu xumean mundu hobe bat eraikitze aldera egiten dihardugun horretan, Jesus geure burua irekitzera eta nekez egin dezakeguna baino askoz gehiago egitera dator. Hauxe da Berri Ona, alaitasunean murgiltzeko eta beldurrik ez izateko aukera ematen diguna: «Deitu dizuena leiala da eta beteko ditu bere promesak».

Abendualdiko 3. astea

Itxaropenaren Andre Maria

San Modesto, *patriarka, Jerusalemen berritzailea*

Jeremias profetaren liburutik 23, 5-8: Legezko muskila sortuko diot Davidi. **Sal 71:** Zuzentasuna garatuko da haren egunetan, eta bakea ugari betieran.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 1, 18-24.

Jesu Kristoren sortzea honela gertatu zen: Maria, Jesusen ama, Joserekin ezkontzeko hitzemanan zegoen eta, elkarrekin bizi izan baino lehen, haurdun gertatu zen Espiritu Santuaren egitez. Josek, Mariaren senarrak, gizon zintzoa baitzen eta ez baitzuen bere emaztea salatu nahi, hura isilean uztea erabaki zuen. Baina asmo hori gogoan zerabilela, Jaunaren aingerua azaldu zitzaion ametsetan eta esan zion: «Jose, Daviden ondorengo hori, ez beldur izan zeure emazte Maria etxean hartzeko, honengan sortua Espiritu Santuagandik baitator. Semea izango du, eta zuk “Jesus” ipiniko diozu izena, hark salbatuko baitu bere herria bekatuetatik». Hau guztia Jaunak profetaren ahoz esandakoa bete zedin gertatu zen: «Begira, birjinak sabelean sortu eta semea izango du, eta Emanuel ipiniko diote izena (izen honek “Jainkoa gurekin” esan nahi du)». Josek, lotatik esnatu zenean, Jaunaren aingeruak agindu bezala egin zuen, eta bere etxean hartu zuen emaztea.

Gaur hasiko ditugu “abendualdiko aste-egun pribilegiatuak”; egun bereziki mamitsu hauetan liturgiak Jesusen berehalako jaiotzaren ospakizuna prestatzen lagunduko digu. Aurreko asteetan Joan Bataiatzailearen irudiak protagonismo handia hartu badu, hemendik aurrera begirada Gizakundearen misterioan kontzentratzen da erabat, hainbat angelutatik begiraturik. Dena argi ageri ez den tokian, Jose gai izan da barneko begiradaz entzuteko eta obedientzia deliberatuz erantzuteko, «Jaunaren aingeruak agindutakoa» apalki eginez. Joseri egindako iragarpenak salbamenaren historia, ametsen eta ziurgabetasunen artean, poliki-poliki korapilatzen ari denaren kontzientzia hartzera garamatza.

Epaileak liburutik 13, 2-7.24-25a: Aingeruak Samsonen jaiotza iragarri.

Sal 70: Zure gorespenaz betea nuen ahoa zure ospea kantatzeko.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 5-25.

Judeako errege Herodesen egunetan, bazen Zakarias izeneko apaiz bat, Abiaren apaiz-sailekoa; haren emaztea Aaronen ondorengoa zen eta Elisabet zuen izena. Biak zintzoak ziren Jainkoaren aurrean, eta Jaunaren agindu eta lege guztiak huts egin gabe betez bizi ziren. Ez zuten haurrik, agorra baitzen Elisabet eta biak urteetan aurreratua. Behin batean, Zakarias bere sailekoekin Jainkoaren aurrean apaiz-zerbitzua egiten ari zelarik, Jaunaren santutegian sartzea egokitu zitzaion, apaizen ohituren arabera, intsentsua eskaintzera. Intsentsua eskaintzen ari zen bitartean, herri osoa otoitzean ari zen atarian. Hartan, Jaunaren aingerua agertu zitzaion Zakarias, intsentsu-aldarearen eskuinaldean zutik. Hura ikustean, izutu zen Zakarias eta beldurrak hartu zuen. Aingeruak, ordea, esan zion: «Ez beldur izan, Zakarias, entzun baitu Jainkoak zure eskaria. Zure emazte Elisabetek semea emango dizu, eta zuk “Joan” ipiniko diozu izena. Poz handia izango da zuretzat, eta haren jaiotzak jende asko poztuko du, handia izango baita Jaunaren aurrean. Ez du edango ardorik, ez edari bixigarrik. Espiritu Santuaz beteko da amaren sabelean bertan. Israeldar asko bihurtuko du Jaunagana, bere Jainkoagana; Jaunaren aurretik etorriko da, Eliasen espirituaz eta indarrez, gurasoak seme-alabekin adiskidetzeko, bihurriei zintzoen sena emateko eta Jaunarentzat herri egokia prestatzeko». Zakariasek esan zion aingeruari: «Nola jakin dezaket hori gertatuko dela? Ni zaharra bainaiz, eta nire emaztea ere urteetan aurreratua». Aingeruak erantzun zion: «Ni Gabriel naiz, Jainkoaren aurrean zerbitzari nagoena; hark bidali nau zuri hitz egitera, berri on hau emateko. Baina begira, mutu geldituko zara, hitz egin ezinik, hauek gertatu artean, ez baitituzu sinetsi nire hitzak, bere garaian beteko diren hitzak». Bitartean, herria Zakariasen zain zegoen,

harriturik, santutegian hainbeste luzatzen zuelako. Atera zenean, ezin zien hitz egin, eta ohartu ziren ikuskariren bat izan zuela santutegian. Bera keinuka ari zitzaien, mutu jarraitzen baitzuen. Tenpluko bere zerbitzu-egunak bukatuta, etxera joan zen. Egun batzuen buruan, haren emazte Elisabet haurdun gelditu zen; bost hilabetez etxetik atera gabe egon zen, eta bere baitarako zioen: «Hara zer egin duen Jaunak nire alde, jendearen aurrean nuen lotsa kendu nahi izan duenean».

Lukasen ebanjelioan, Joan Bataiatzailearen jaiotza eta Jesusena diptiko baten bi taula bezala irudikatzen dira, batak bestea argituz. Joanez pozez bete du antzutasunak markatutako bikotea: seme honen etorrerak bedeinkapen-zantzu argia dakar, adin handiko biengan jadanik horrelakorik espero ez zenean. Jainkoarentzat ez dago ezer ezinezkorik. Iragarpen hau tenpluaren eremu sakratuan gertatu da, otoitz eta intsentsu artean. Mezuaren hartzailea gizonezko bat izan da, bizitza erabat ezegonkor bilakatu zaion adin handiko gizonezko bat. Sinesteko agertu duen zailtasunak ez du eragotzi jainkotiar plana betetzea, baina galgatu egin dio bere hitza. Bederatzi hilabeteko isilunea bizi beharko Zakariasek Jainkoaren poza bere-bere egin arte; Jainkoak bide ezezagunak ditu bere egitasmoa gauzatzeko.

Isaias 7, 10-14: Begira, birjina haurdun dago, eta semea izango du.

Sal 23: Badator Jauna: Bera da Errege ospetsua.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret deritzan Galileako herri batera, birjina batengana; Daviden etxeke Joserekin ezkontzeko hitzemana zegoen birjina, eta Maria zuen izena. Aingeruak, haren etxean sarturik, esan zion; «Poztu zaitez, graziaz bete hori: Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria, hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura. Aingeruak, orduan: «Ez izan beldurrik, Maria; Jainkoaren ederra aurkitu duzu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu; eta “Jesus” ezarriko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak haren aita Daviden errege aulkia emango dio; Jakoben etxean errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango». Mariak orduan aingeruari: «Nola izan daiteke hori? Nik ez baitut ezagutzen gizonik». Eta aingeruak: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana, eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zugandik jaioko den Santuari, Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, zure ahaide Elisabet ere, bere zaharrean, haurdun dago; eta agorra omen zena seigarren hilabeteko dago; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik». Mariak orduan: «Hona hemen ni, Jaunaren mirabea; gerta bekit, zuk diozun bezala». Orduan aingeruak utzi egin zuen.

Lukasen ebanjelioak atzo ikusi genuen diptikoaren bigarren taula eskaintzen digu gaur: Jesusen iragarpenak Joan Bataiatzailearena osatu eta argitzen du. Gabriel aingerua, oraingoan, ez da bidalia tenpluko espazio sakratura, baizik eta jentilen Galileako leku hutsal batera, zeinetatik ez baitute ezer onik espero judu jainkozaleek.

Abendualdiko 3. astea

Domingo santua, Silos-koa, *abadea*

Jainkoa sakratutasunaren eta profanotasunaren arteko muga hausten hasi da Jesus bere Semearentzat Nazaret herrixka aukeratu duenean. Iragarpenaren hartzailea emakume gazte bat da, birjina oraindik; zalantzarik ez duen ezjakina eta mesfidantzarik gabe galdetzen duena. Jainkoarentzat ez dago ezer ezinezkorik. Mariaren «baiezko» biribilak historia eraldatu du, bizi izandako hauskortasunetik jainkozko berritasunera erabat ireki delarik. Beraren bizitza, Zakariasena bezala, guztiz irauli da, baina alaitasunak topaketa eta kantua eragin ditu beraren erraietan.

* * *

Mesianismoa

Mesianismoak hainbat etapa izan ditu Biblian. «Mesias» hebrear hitza da, «gantzutua, igurtzia» esan nahi du; grekoz «xristós» esaten da. Jakina, hau zen norbait gantzutze edo igurztearen garrantzia: egintza horrekin pertsona bati, joa, mandatu bat ematen zitzaiola, delako pertsona hori ahalmenez horniturik bidaltzen zela, misio edo eginkizun bat gomendatzen zitzaiola. Horregatik, Mesias eta Xristós hitzak, Bidalia esan nahi baitute, Israel herriak espero zuen pertsonaia hari zegozkion, lider karismatiko bati, lurrean «zuzenbidea eta zuzentasuna» behin betiko ezarriko zituen Daviden ondorengoari. Jesu Kristo da kristauontzat egiazko Mesias.

Abendualdiko 3. astea

San Pedro Kanisio, *apaiza eta eliz irakaslea, jesuita*

Kantarik Ederrena liburutik 2, 8-14: Hara non datorren, mendiz mendi lasterka, nire maitea. **Sal 32:** Egin poz-oihu, zintzook, Jaunari, kanta iezaiozue kantu berria.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 39-45.

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batera, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion. Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion Elisabeti haurrak sabelean. Elisabet Espiritu Santuaz bete zen, eta esan zuen oihu handiz: «Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna betekoa dela sinetsi duzulako!».

Mariaren bisita bisita soil bat baino askoz gehiago izan da; bi emakumeren arteko harreman harrigarria sortu duen topaketa da, euren erraietan gordetako bizitzaren misterioa elkarri aitortzen diotenen topaketa. Mariak bideari ekin dio; Elisabet zain-zain dago, mendeetan barna Mesiasen zain egon den Israel herri osoaren ikusmina bere baitan pilatuaz. Mariaren agurrak pozez jauzika jarri du Joan txikia, amaren sabeletik jadanik historiaren ezkutuenean Jainkoaren presentzia eraldatzailearen aitzindari dena. Elisabetek zorionetako lehen zoriona oparitu dio Mariari: «Zorionekoa zu, sinetsi egin duzu eta». Jainkoak betetzen du bere hitza; ziurtasun honek gure poza sostengatzen eta gure itxaropena suspertzen du, eta munduaren erraietan Jesusen presentzia barruntatzen laguntzen digu.

Abendualdiko 3. astea

San Honorato Tolosakoa (Okzitania), *gotzaina*

Santa Frantziska Javier Cabrini, *fundatzailea*

(*Jesusen Bihotzaren misiolariak*)

Samuel lehenengo liburutik 1, 24-28: Anak eskerrak eman, bere seme Samueleen jaiotzagatik. **Sal: 1 Sm 2:** Jaunagan da nire bihotza pozten, nire salbatzaileagan.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 46-56.

Aldi hartan, Mariak esan zuen: «Handiesten du nire arimak Jauna, pozaren pozez daukat neure barrua, Jainkoa baita nire salbamea, ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna. Horregatik, dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, handiak egin baitizkit Ahalguztidunak; santua da haren izena, eta haren errukia gizaldiz gizaldi begirune diotenengana. Bere besoaren indarra erabili du, buru-harroak suntsitu ditu; bota ditu beren aulkietatik ahaltsuak, eta gora jaso ditu ezerezak; ondasunez bete ditu gose zeudenak eta esku-hutsik bidali aberatsak. Lagun etorri zaio bere morroi Israeli, bere errukiaz oroiturik; hala zien gure gurasoei hitzemana, Abrahami eta ondorengoei betiko esana». Mariak hiru hilabete inguru egin zuen Elisabetekin; gero, etxera itzuli zen.

Mariak, Hitzaz erditu baino lehenago, Ebanjelioa abestu du, jende xumearen poz gardenaz, beren itxaropenaren iturburuak bere jatorria beraien baino harago duela dakien jendearenaz, alegia. “Magnificat” kantua handitasunaz, balentriez eta oroimen errukiorraz mintzo da, norberaren hauskortasunaren kontzientzia argitik abiatutik. Geure burua benetako kreatura modura hartzen dugunean bakarrik, geure mugak lasaitasunez onartzen ditugunean eta jainko izatera jolasteari uzten diogunean bakarrik, poztu gaitzke egiaz Jainkoa Jainko izateaz: handia, santua, ahaltsua, maitasun betierekoaz gure txikitasunari eta miseriarri emana; beti prest dena guri laguntzeko eta berak erotzeraino maite duen bizitzaren hutsaltasunean egintza handiak egiteko.

Abendualdiko 3. astea

San Joan Kety-koa, *apaiza*

Malakias profetaren liburutik 3, 1-4.23-24: Elias profeta bidaliko dizuet, Jaunaren eguna etorri baino lehen. **Sal 24:** Izan bihotz eta jaso burua, hurbiltzen ari baita zuen askapena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 57-66.

Haurra izateko denbora bete zitzaionean, Elisabetek semea izan zuten. Jakin zuten auzokoek eta ahaideek zein erruki handia agertu zion Jaunak, eta zorionak ematen zizkioten. Jaio eta zortzigarren egunera, haurra erdaintzera eraman zuten, eta aitaren izena jarri nahi zioten, Zakarias. Amak, ordea, esan zuten: «Ez! Joan izango du izena». Esan zioten: «Ez duzue senitartean inor izen hori duenik». Orduan, aitari keinuka galdetu zioten zein izen eman nahi zion haurrari. Eta hark oholtxo bat eskatu eta idatzi zuten: «Joan du izena». Denak harriturik gelditu ziren. Bat-batean mihia askatu zitzaion Zakarias, eta hitz egiten hasi zen eta Jainkoa goستن. Beldurak hartu zituen auzoko guztiak, eta Judeako mendialde guztian zabaldu zen gertatuaren berri. Entzuten zuten guztiak beren baitarako esaten zuten: «Zer izango ote da ume hau?». Zeren Jainkoaren eskua harekin baitzegoen.

Haur bat jaiotzen denean, sarritan galdetzen diogu geure buruari zer izango ote den, zer etorkizun izango ote duen, zer pertsona-mota bilakatuko ote den. Elisabeten eta Zacariasen auzokoek ere gauza bera planteatzen zuten Joani buruz, batez ere beraren jaiotza miresgarria kontuan izanik. Haur honek Zakarias izan behar zuten izena, aitarena bera, baina espero gabeko izena izango du, jadanik beraren misioaren ernamuina adierazten duena. Bere kontzientziari leial zaion gizona izango da Joan, egia defendatzeagatik martirioraino iristeko gai dena. Orobat, Jesusengan beragan Jainkoaren errukia eta barkamena behin betiko etorri dela iragarriko duen ahotsa izango da. Agian, baduke gure izen propioak ere gure bokazioaren eta misioaren ñabarduren bat, bizi garen unean nabarmenduko dena.

Abendualdiko 4. astea

Eguberri-bezpera

Jesusen arbasoak: Adam, Abraham, Jakob, David...

Samuel bigarren liburutik 7, 1-5. 8b-12. 14a. 16.

David erregea bere etxean bizitzen jarri eta Jaunak inguruko etsai guztiekiko bakea eman zionean, esan zion erregeak Natan profetari: «Begira, ni zedrozko etxean bizi naiz; Jainkoaren kutxa, berriz, oihaltxolan dago». Natanek erantzun zion erregeari: «Zoaz eta bete zeure asmoa, Jauna zurekin baita». Baina gau hartan bertan Jaunaren hitza etorri zitzaion Natani: «Zoaz eta esaiozu nire morroi Davidi: “Hau dio Jaunak: Zuk eraiki behar al didazu etxea, nire bizileku izan dadin? Nik atera zintudan larreetatik, artaldean atzetik, nire herri Israelen buruzagi izan zintezan. Zeurekin izan nauzu, ibili zaren alde guztietan. Nik suntsitu dizkizut aurrean jarri zaizkizun etsai guztiak eta Nik emango dizut lurreko handikiena bezalako izen handia. Leku bat emango diot neure herri Israeli: han landatuko dut, bertan biziko da eta ez du aurrerantzean estualdirik izango. Gaizkileek ez dute zapalduko antzina bezala, neure herriaren gain buruzagiak ipini nituenean bezala. Bakea emango dizut etsai guztiekiko. Jaunak jakinarazten dizu zure jatorritik sortuko diren erregeak emango dizkizula. Zeure egunak bete eta zeure gurasoekin atsedean hartuko duzunean, ondorengoa emango dizut, zure erraietatik ateratakoa, eta sendotuko dut haren erregetza. Aita izango nau hark Ni, eta seme izango dut Nik hura. Zure etxeak eta zure erregetzak betiko iraungo dute nire aurrean, eta zure erregeulkiak sendo iraungo du beti”».

Sal 88: Jauna, zure maitasuna abestuko dut betiere beti.**San Paulok Erromatarrei 16, 25-27.**

Senideok: Aintza Jainkoari, nik hots egiten dudan Berri Onaren eta Jesu Kristori buruzko nire predikuaren arabera fedean sendo zaitzaketen Jainkoari. Prediku honen bidez, betidanik ezkutuan zeukan misterioa agertu du Jainkoak. Misterio hori orain azaldu da, profeten idazkiek esan bezala, eta, betiereko Jainkoaren erabakiaren

arabera, herri guztiei adierazi zaie, Jainkoari fedezko erantzuna eman diezaioten. Jainko horri, jakintsu bakarrari, aintza Jesu Kristoren bitartez, gizaldi eta gizaldietan. Amen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 1, 26-38.

Aldi hartan, Gabriel aingerua bidali zuen Jainkoak, Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria zuen izena eta Jose zeritzan Daviden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzmana zegoen. Aingeruak, Mariaren etxean sartu eta esan zion: «Poztu zaitez, graziaz bete hori! Jauna zurekin». Ikaratu zen Maria hitz haiek entzutean, eta pentsatzen jarri zen, zer izan ote zitekeen halako agur hura. Aingeruak esan zion: «Ez beldur izan, Maria; Jainkoak gogoko zaitu. Begira, sabelean sortu eta semea izango duzu, eta “Jesus” ipiniko diozu izena. Handia izango da; Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta Jainko Jaunak bere aita Daviden errege-aulkia emango dio; Jakoboen herriaren errege izango da beti, eta haren erregetzak ez du azkenik izango». Mariak esan zion aingeruari: «Nola gerta daiteke hori, ez bainaiz inongo gizonekin bizi». Aingeruak erantzun zion: «Espiritu Santua jaitsiko da zugana eta Goi-goikoaren indarrak bere itzalpean hartuko zaitu; horregatik, zugandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Hara, Elisabet zure ahaidea ere haurdun dago bere zaharrean, eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinik». Mariak, orduan: «Hona hemen Jaunaren mirabea; gerta bekik zuk diozun bezala». Eta aingeruak utzi egin zuen.

Aabendualdiko laugarren igandea eguberri egunaren bezperan izango da aurtan. Kointzidentzia horri esker, oso gertutik ikusi ahal izango ditugu Hitzaren Gizakundea eta Jaiotza, misterio bati berari estuki lotutako bi dimentsioak. Aldien betearen betea iritsirik, historia

Abendualdiko 4. astea
Eguberri-bezpera

Jesusen arbasoak: Adam, Abraham, Jakob, David...

asaldatu zuen «egin dezagun berrerospena» esaerak Hirutasunaren bihotzean durundi egin duenean, Aitak bere Semearentzat bizitzeko etxe bat aukeratu du. Jadanik ez da David erregeak, bere zedrozko etxean inspiraturik, proiektatu zuen tenplua, baizik eta giza izaerarena, prest dagoena Espirituaren ekintzarako Mariaren bitartez. Jainkoa ez da hainbeste bazter ilun ezkututzen duen gizatasun konkretu honetan galduko den beldur. Bere maitasun amaigabea, Jainkoak bere gain hartu du salbatzera datorren haragi horren zentimetro bakoitza, eta leunki eta samurkiro egin du, emakume baten baiespen askea otzantasunez konkistatuz. Mariaren sabelean, gizatasun berriaren errai garbietan, hasi da «truke miresgarri» hura, jainkotasunerantz garamatzana, jainkotasuna gure haragian txertatzearekin batera. Misterio hau kontenplatzea adorazio isil eta eskertuan murgiltzean datza, etengabeko «egin bedi» batek lurra ernaltzen jarrai dezan.

* * *

Zure hitza, Jauna

Zure hitza, Jauna, mintza bekit,
betorkit ni neuri zeuk esanik.
Zure hitza, Jauna, nahi dut nik,
Jainkoz nadin gerta txertaturik.

Zure hitza, Jauna, bizitza da,
idazu hitz horren ahoskada.
Zure hitza, Jauna, txinparta da,
zakizkit zeure su ta lamada.

*(Musika: Pello Zabala;
hitzak: Bitoriano Gandiaga)*

Jaunaren Jaiotza (Eguberri)
Gauerdiko Meza (*ikus segidan Eguneko Meza*)
Betleemeko Andre Maria

Isaias Profetaren liburutik 9, 1-6.

Ilunpean zebilen herriak argi handia ikusi zuen; herio-itzalean bizi zirenei distira egin zien argiak. Gehitu zenuen poza eta handitu atsegina; pozik dabilta zure aurrean, uzta biltzean izaten den pozez, harrapakinak banatzean izaten den atseginez. Apurtu baituzu lepoan zeramaten uztarri astuna, zapaltzailearen aginte-makila, Madiango gudarostea apurtu zenuen bezalaxe. Suak erreko ditu eta erraustuko lurra danbadaka zapaltzen zuten gudari-botak eta odolez zikinduriko jantziak. Haurra jaio zaigu, semea eman zaigu; hari eman zaio aginpidea, eta haren izena Kontseilari harrigarri, Jainko indartsu, Aita betiko, Errege bake-emaile. Handia izango da haren aginpidea, amairik gabeko bakea Daviden tronuan eta haren erreinuan; sendo egingo da eta zuzenbidean eta justizian oinarrituko, gaurdanik eta betidaino. Jaun ahalguztidunaren maiteminak egingo du hau.

Sal 95: Salbatzailea jaio zaigu gaur: Mesias, Jauna.

San Paulok Titori gutunetik 2, 11-14.

Anaia maitea: Agertu da Jainkoaren onginahia, gizon-emakume guztien salbamenerako. Salbamen honek Jainkorik gabeko bizitzari eta munduko grina txarrei uko egiten irakasten digu, eta neurriz, zuzentasunez eta jainkozaletasunez mundu honetan bizitzen, gure itxaropen zorientzua noiz beteko zain, Jesu Kristo Jainko handia eta gure salbatzailea aintzaz beterik noiz agertuko zain. Hark bere burua eman zuen gugatik, gu gaiztakeria guztietatik askatu eta garbi egiteko, haren herri berezi izan gaitezen, on egin zale.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 1-14.

Egun haietan, mundu guztiaren errolda egiteko agindua atera zuen Augusto enperadoreak. Lehenengo errolda hau Siriako gobernadore

Jaunaren Jaiotza (Eguberri)
Gauerdiko Meza
Betleemeko Andre Maria

Kirino zela egin zen. Beraz, erroldatzera joan ziren denak, nor bere herrira. Jose ere, Daviden etxekoa eta jatorrikoa izanik, Galileako Nazaret herritik Judeara igo zen, Betleem deritzan Daviden herrira, bere emazte Mariarekin erroldatzera. Maria haurdun zegoen. Betleemen zeudela, haurra izateko egunak bete zitzaizkion, eta bere lehen-semea izan zuen. Oihaletan bildu eta askan etzan zuen, ez baitzen ostatuan haientzako lekurik. Baziren inguru hartan artzain batzuk, gauez beren artaldea txandaka zaintzen. Honetan Jaunaren aingerua agertu zitzaion, eta Jaunaren aintzak argiz inguratu zituen; haiek, beldurrak jota gelditu ziren. Aingeruak, ordea, esan zien: «Ez beldur izan! Begira, poz handia sortuko duen berri ona iragartzen dizuet, herri guztiarentzat izango dena: Salbatzailea, hau da, Mesias Jauna jaio zaizue gaur Daviden herrian. Eta hau izango duzue seinale: haur bat aurkituko duzue, oihaletan bildua eta askan etzana». Eta bat-batean zerutar talde handia bildu zitzaion aingeruari, Jainkoa goresten zuela, esanez: «Aintza zeruetan Jainkoari, eta bakea lurrean haren gogoko gizon-emakumeei».

«**E**z dezagun gau santua lo bihurtu», diotso intuizioak antzinatik kristau-herriari. Izan ere, Betleemen, gizateriaren historia goitik behera aldatu duen gau horretan, ia inork ez du lo egiten. Itzarrik dago Jose, azkenean begiak zabal-zabalik jarrita, ametsetan Jainkoaren Semea zaintzeko mandatua jaso ondoren. Itzarrik dago Maria, bizitzaren misterioa dastatzen, emakumearen erraietatik sortua, borborka eskaintzen dituen zentzia eta betikotasuna. Itzarrik dago izarra, Jainkoaren Semea pixoihaletan janzen uzten duela atsedetik gabe adieraztera bidalia. Itzarrik daude aingeruak pozez kantatzen Jainkoaren aintza, osoki ageri dena beste guztien antzeko giza izaki batengan. Itzarrik daude artzainak, harrিতuta jakitean Salbatzailea jaio zaiela, beraiei hain zuzen ere, eskuarki inorentzat inor ez direnei. Itzarrik daude magoak, eta beraien bihotzak urrundik sumatzen du promesak bete direla jadanik gizon-emakume guztientzat. Itzarrik dago Eliza, munduari behin betiko Berri Ona iragartzearen pozak gainezka

Jaunaren Jaiotza (Eguberri)
Gauerdiko Meza
Betleemeko Andre Maria

eginik. Betleemen ia denak daude itzarrik gau santu honetan. Jesu bakarrik dago lo, konfiantza amaigabeaz, Aitaren besoetan betidanik eraginda.

* * *

EGUBERRI EGUNEKO MEZA

Isaias Profetaren liburutik 52, 7-10.

Bai ederrak direla mendi gainetan albistariaren oinak! Bakea iragartzen du, zorionaren berri ona ematen eta salbamena iragartzen! Sioni diotso: «Zure Jainkoa errege da!». Entzun zeure zaintzaileen oihua! Oihuka ari dira, poz-irrintzika, guztiak batera, beren begiz ikusten baitute Jauna Sionera itzultzen. Ekin poz-oihuka guztiok batera, Jerusalemgo horma eroriok, Jaunak bere herria kontsolatu baitu eta askatu du Jerusalem. Herri guztien aurrean erakutsi du Jaunak bere beso santuaren indarra, eta munduko bazter guztiak ikusiko dute gure Jainkoaren salbamena.

Sal 97: Ikusi dute lur-muga denek gure Jainkoagandiko garaipena.

Hebrearrei gutunetik 1, 1-6.

Askotan eta era askotara hitz egin zien antzina Jainkoak profeten bidez gure arbasoei; azkenak diren egun hauetan, berriz, bere Semearen bidez hitz egin digu. Seme hau egin zuen gauza guztien oinordeko, egin ere honen bidez egin baitzuen mundua. Seme hau da Jainkoaren aintzaren distira eta Jainkoaren izatearen irudia. Honek eusten die gauza guztiei bere hitz indartsuaz. Eta, bekatuen garbikuntza egin ondoren, Jainko handiaren eskuinaldean eseri zen zeru-goienetan, aingeruak baino gorago jarria, ondareztat jaso zuen izena ere haiena baino goragokoa denez gero.

Jaunaren Jaiotza (Eguberri)
Gauerdiko Meza
Betleemeko Andre Maria

Izan ere, zein aingeruri esan dio inoiz: «Nire Seme zara Zu; Nik zaitut gaur sortu?». Eta beste behin: «Aita izango nau hark Ni eta Seme izango dut Nik hura?». Eta berriro, Lehen-semea munduan sarraraztean, hau dio: «Gurtu bezate hura Jainkoaren aingeru guztiek».

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 1, 1-18.

Hasieran bazen Hitza, eta Hitza Jainkoarekin zen, eta Jainko zen Hitza. Hitza hasieran Jainkoarekin zen. Gauza guztiak haren bidez eginak dira, eta egindakorik ezer ez da hura gabe egin. Hitzagan zen bizia, eta bizia gizakien argia zen; argiak ilunpean argi egiten du, baina ilunpeak ez zuen onartu. Agertu zen gizon bat, Jainkoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen, argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiek sinets zezaten. Hura ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik. Hitza zen egiazko argia, mundura etorritz gizaki guztiak argitzen dituen. Munduan zegoen eta, mundua haren bidez egina den arren, munduak ez zuen ezagutu. Bereengana etorri zen, eta bereek ez zuten onartu. Onartu zuten guztiei, berriz, haren izenean sinesten dutenei, alegia, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien. Hauek ez dira giza odoletik sortu, ezta giza nahieratik ere, Jainkoagandik baizik. Eta Hitza haragi egin zen, eta gure artean jarri zuen bizilekua, eta ikusi dugu haren aintza, Aitagandik graziaz eta egiaz betea datorren Seme bakarrari dagokion aintza. Joanek hartaz egin zuen aitormen, oihuka esanez: «Hau zen nik esan nuen hura: “Nire ondoren datorrena nire aurretik jarri da, ni baino lehenagokoa baitzen”». Eta haren betearen betetik guztiok hartu dugu, grazia graziaren gain hartu ere. Legea Moisesen bidez emana zen; grazia eta egia, berriz, Jesu Kristoren bidez etorri dira. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren altzoan dagoen eta Jainko den Seme bakarrak ezagutarazi digu.

Jaunaren Jaiotza (Eguberri)
Gauerdiko Meza
Betleemeko Andre Maria

Eguberri-egunean Hitzak isildu egin da, mundua bere oihartzun isilaz besarkatzeko. Zarata gehiegi dago jadanik gure azoka eta etorbideetan, argi gehiegi erakusleihoetan; bideo eta zoriontze larregi gurutzatzen dira ziztu bizian gure mugikorretan. Aldia sortu zuen Hitzak bere gain hartu ditu gaur erritmo geldoak, hutsaltasuna, errutina. Benetako argia zen Hitzak bide diskretua egin du, beretzat distirarik egin gabe, inor itsutu gabe. Hasieratik existitzen zen Hitzak, Jainkoaren ondoan zegoenak eta Jainkoa zenak, aldiaren lokarriei lotu dezaten utzi die; beso batzuetatik besteetara eramana eta ekarria izatea utzi du, erabat menpeko bihurtuz. Unibertso osoari eusten dion Hitz boteretsuak Haurtxo baten haragi hauskorrean pausatzea aukeratu du. Harrigarriro aukerakoa den leku horretatik, Hitz honek eskuak luzatu dizkio aurreiritzirik eta eskakizunik gabe onartu nahi duenari; Hitz hau gure arrazoiketa pobreak ezarri nahi dituen mugak baino harago partekatu nahi duenari. Hitz hau bidera irten zaie isiltasun guztiei, konplizitateak mozorrogabetzen ditu, trikimailuak desegiten, senidetasunaren mahaia prestatzen, urrutikoari dei egiten dio eta pozik ospatzen du salbazioa antsiaz bilatzen dutenen itxaropena.

GABON ZORIONTSUAK



Gure Erriaren erdian
gaitzela, bake orenen
gorde gaitzala fedean
alai eta maitasunean

bakegille izan
iturri den Jaunak
sendo,ixaropenean
eginkor.

Apostoluen Eginak liburutik 6, 8-10; 7, 54-60.

Egun haietan, Estebanek, graziaz eta indarrez beterik, mirari eta ezaugarri handiak egiten zituen herrian. Hartan, zirenean eta alexandriarrez osatua zegoen eta «Askatuena» zeritzan sinagogako batzuk, ziliziar eta asiar batzuekin batera, eztabaidan hasi ziren Estebanekin. Baina ezin izan zioten aurre egin Espirituak mintzatzeko ematen zion jakinduriari. Estebanen hitzak entzutean, barrua lehertzen jarri zitzaien amorrus eta hortzak karraska haren kontra. Baina hark, Espiritu Santuaz beterik, zerura begiratu eta Jainkoaren aintza ikusi zuen, eta Jesus zutik Jainkoaren eskuinaldean. Eta esan zuen: «Horra, zerua zabalik ikusten dut eta Gizonaren Semea zutik Jainkoaren eskuinaldean». Orduan, haiek, garrasika, belarriak itxi zituzten eta denak batean gainera oldartu zitzaizkion; hiritik atera zuten eta harrika hasi zitzaizkion. Saulo zeritzan gazte baten oinetan utzi zituzten testiguen beren jantziak. Harrika ari zitzaizkion bitartean, Estebanek honela egiten zuen otoitz: «Jesus Jauna, hartazu nire bizia». Gero, belauniko jarrita, ahots handiz esan zuen: «Jauna, ez leporatu horiei bekatu hau». Eta, hau esanik, hil egin zen.

Sal 30: Zure eskuetan uzten dut, Jauna, neure bizia.**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10, 17-22.**

Aldi hartan, Jesusek esan zien apostoluei: «Kontuz jendearekin! Auzitegietara eramango zaituztete eta sinagogetan zigorkatuko; agintarien eta erregeen aurrera eramango zaituztete nigatik, aitormen egin dezazuen haien eta jentilen aurrean. Eramaten zaituztetenean, ez egon zer eta nola esango duzuen kezkatu: une hartan bertan adieraziko dizue Jainkoak zer esan; ez zarete zuek mintzatu, zuen Aitaren Espiritua mintzatu da zuen bidez. Anaiak anaia emango du heriotzara, eta aitak semea; seme-alabak gurasoen aurka altxatuko dira

eta hil egingo dituzte. Mundu guztiak gorroto izango dizue nigatik; baina azkeneraino irauten duena, horixe izango da salbatua».

Eguberri biharamunean harrigarria gerta daiteke lehen martiria izan zen San Estebanen jai hau. Baina honela, Gabonetako mezu teologikoa kerygmarekin guztiz bat datorrela adierazi nahi du liturgiak: Jesusen bizitza amaieratik hasierarantz irakurriz, Berpiztua Gurutziltzatu dutena bera dela aitor dezakegu, eta Gurutziltzatu Batleemgo Haur hau bera dela. Jaioberri bat, pixoihal batzuk, ganbela bat, artzain batzuen testigantza, mago atzerritar batzuen omenaldia, Jesusen heriotza, martirioa... hori guztia eskandalutzat edo erokeriatzat hartuko dute fedearen dohaina jaso ez dutenek. Munduaren logikak proposatzen duenaz bestelako jakinduria batera geure burua irekitzera gonbidatzen gaitu Eguberriak.

* * *

San Esteban, lehen kristau-martiria

San Esteban, lehenengo kristau-martiria, elkarteak aurkeztu eta Apostoluek, eskuak ezarriz, diakono (zerbitzari) izendatu zituzten zazpi haietakoa da (ik. Eg 6, 2-3). Estebanez Liburu Santuak dio «fedez eta Espiritu Santuaz betea zegoela» (Eg 6, 5). Kristauek elkarri laguntzeko eman ohi zituzten janariak banatzeko eginkizuna eman zieten Apostoluek diakonoei. Baina janari-banaketa ez ezik, Jesusen hitzaren testigantza ere kementsu egin zuten, bai judu-herriaren aurrean, bai agintarien aurrean. Estebanek, bereziki, kemen handiz egin zuen Sanedrinaren aurrean Jesusen testigantza, aitortuz, salbamenaren historia guztiak Jesus izan zuela xede eta profeten esanak Jesusekin bete zirela. Harrika ari zitzaizkiola, «Zerua zabalik dakusat –zioen Estebanek– eta Gizonaren Semea zutik Jainkoaren eskuinaldean» (ik. Eg 7, 2-56). Eta otoitz hau egin zuen: «Jesus Jauna, har ezazu nire bizia»; «Jauna, ez leporatu horiei bekatu hau».

San Joan, *apostolua eta ebanjelaria*

San Joan Apostoluaren lehenengo gutunaren hasiera 1, 1-4: Ikusi eta entzun duguna iragartzen dizuegu. Sal 96: Poztu zaitezte Jaunarekin, zintzook.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 20, 2-8.

Asteko lehen-egunean, Maria Magdalena Simon Pedrogana eta Jesusek maite zuen beste ikasleagana itzuli zen lasterka, eta esan zien: «Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non jarri duten». Atera ziren, orduan, Pedro eta beste ikaslea, eta hilobirantz abiatu ziren. Biak batera zihoazen lasterka, baina beste ikaslea Pedro baino arinago zihoan, eta lehenago iritsi zen hilobira. Barrura begiratzeko makurturik, oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baina ez zen sartu. Iritsi zen haren atzetik Simon Pedro ere eta hilobian sartu zen. Oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baita Jesusen burua biltzen egoniko zapia ere; hau, ordea, ez zegoen oihal-zerrendekin batera jarria, beste toki batean bildua baizik. Orduan, sartu zen beste ikaslea ere, hilobira lehenengo iritsi zena. Ikusi eta sinetsi egin zuen.

Jesusen bizitzako leku askotan badirudi «jainkotasuna ezkutatu egiten dela»: hilobi hutsean, nekaldiaren orduetan, Nazaretan garrantzirik gabeko bizitzan, sehaskan, Mariaren sabelean. Geure bizitza pertsonal eta sozialeko leku askotan ere kostatu egiten zaigu Jaunaren arrastoak aurkitzea: krisialdietan, harreman istilutsuetan, porrotetan, injustizia eta txirotasun-egoeretan. Hainbeste Mariaren ahotsak entzuten ikasi beharra dugu, laguntzen digutenenak sentitzen dugun hutsuneari izena jartzen; zeren batzuetan ez dugu jakiten “Jauna eramán” dutela besterik, “non jarri duten” ez dakigularik. Zelan kostatzen den korrika egiten ikastea eta, aldi berean, Jauna bere orduan eta bere erara agertuko zaigula itxarotea!

Haurtxo Errugabe Santuak, *martiriak*

San Joan Apostoluaren 1 gutunetik 1, 5–2, 2.

Senide maiteok: Hona hemen Jesu Kristogandik entzuna dugun mezua eta zuei iragartzen dizueguna: Jainkoa argia da eta harengan ez da inolako ilunik. Harekin elkartasunean bizi garela esan eta ilunpean baldin bagabiltza, gezurra diogu eta ez gara egiaren arabera ari. Baina argian bagabiltza, elkartasuna dugu batak bestearekin eta haren Seme Jesusen odolak bekatu guztitik garbitzen gaitu. Bekaturik ez dugula esaten badugu, geure burua engainatzen dugu eta egia ez dago gure baitan. Geure bekatuak aitortzen baditugu, ordea, leiala eta zuzena den Jainkoak barkatuko dizkigu bekatuak eta gaiztakeria guztitik garbituko gaitu. Bekaturik ez dugula egin esaten badugu, gezurti egiten dugu bera, eta haren mezua ez dago gudan. Ene seme-alabok, bekatuak egin ez dezazuen idazten dizuet hau. Hala ere, norbaitek bekatu egiten badu, badugu laguntzailea Aitarean aurrean: zuzena den Jesu Kristo. Hark bere burua eskaini zuen gure bekatuen barkamenerako; eta gureen barkamenerako ez ezik, baita mundu guztikoen barkamenerako ere.

Sal 123: Txoria ehiztarien saretik bezala gara libratu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 2, 13-18.

Magoek alde egitean, Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan Joseri eta esan zion: «Jaiki, hartu haurra eta ama, eta zoaz ihesi Egiptora, eta egon han nik esan arte, Herodes erregea haurra hil nahian ibiliko baita». Jaiki zen, beraz, Jose, hartu zituen haurra eta ama gauez eta Egiptora joan zen. Han egon zen Herodes hil arte. Horrela bete zen Jaunak profetaren bidez esandakoa: «Egiptotik etortzeko dei egin nion neure semeari». Orduan, Herodes erregea, Magoek engainatu egin zutela oharturik, biziki haserretu zen, eta Betleemen eta inguruetan bi urtez azpiko haur guztiak hiltzeko agindu zuen, Magoek adierazitako denbora kontuan harturik. Honela bete zen Jeremias profetak esana:

Haurtxo Errugabe Santuak, *martiriak*

«Oihua entzun da Raman, negar eta aiene ugari: Rakel ari da, bere haurrengatik negarrez; ez du kontsolatu nahi, ez baitira bizi».

Mateo ebanjelariak adierazten digu ezen Jesus, jaiotzatatik beratik, Liburu Santuek diotena betetzera etorri dela. Hasiera liburuan Josek, bere anaiek zapuztu zutenean, Egipton babesa aurkitu zuen bezala, beste Jose bat orain Egiptora doa bizia salbatzera, oraingoan ez berea, baizik eta Israelen Salbatzailearena. Aldi bat geroago, Jesusek, Moises berriak, deia jaso du Egipton Nazaretera itzultzeko, horrela profeten orakulua betez. Era misteriotsuan, Salbazioaren historia indarkeria artean gauzatu da, bidean biktima errugabe asko utzirik. Eguberrietako alaitasunak ez liguke begien bistatik baztertzen utzi behar gure munduaren errealitate odoltsua, Jainkoaren samurtasunaren egarri biziz jarraitzen duena.

* * *

Haur errugabeak erail

Herodes erregeak Betleemen hilarazi omen zituen haurrak dira –«Haur Erailak» deitzen diete Ekialdean, «Haur Errugabeak» Mendebaldean–. «Kristogatik hil zirela» eta «Bildots errugabeari jarraitzen diotela» kantatuz hasten da egun honetako eukaristi ospakizuna. «Gizartetik berrerosiak, Jainkoarentzat eta Bildotsarentzat lehen-fruitu» dira, eta «Kristo jaioberriaren graziaz zeruko koroa» eman zien Jainkoak.

Gaurko ebanjelioak adierazi nahi digu, batetik, Jesus, jaiotzatik beretik, pertsegitua izan dela; bestetik, Jainkoa presente dagoela etengabe Jesusengan. Jainko hori bere mezulariaz baliatzen da Joseri ametsetan hitz egiteko. Zenbait zertzeladak Moisesen bizitzaren hasiera gogoratzen du: Moisesen haurtzaroan faraoiak haurrekin egin zuen bezala (Ir 1, 15-16), haur errugabeak hilarazi ditu Herodes tiranoak Jesusen haurtzaroan.

Eguberri ondoko 5. eguna

San Tomas Becket, *gotzaina eta martiria*San David, *erregea*

San Joan Apostoluaren lehenengo gutunetik 2, 3-11: Senidea maite duena argian dago. Sal 95: Poztu bedi zerua, alaitu lurra.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 22-35.

Moisesen legearen arabera, amari garbikuntza egiteko unea iritsi zitzaionean, gurasoek Jerusalemara eraman zuten Jesus, Jaunari aurkezteko. Izan ere, honela dago agindua Jaunaren legean: «Lehen- seme guztiak Jaunari sagaratuko dizkiozue». Jaunaren legean ezarritako oparia ere eskaini behar zuten: «Bi usapal edota bi usakume». Bazen Jerusalemen Simeon izeneko gizon bat, gizon zintzo eta jainkozalea, Jainkoak Israel noiz kontsolatuko zain zegoena. Espiritu Santua berekin zuen, eta aditzera emana zion ez zela hilko Jaunaren Mesias ikusi arte. Eta Espiritu Santuak eraginda tenplura joan zen. Legeak agintzen zuena betetzeko gurasoek Jesus haurra tenplura eraman zutenean, Simeonek haurra besoetan hartu eta Jainkoa bedeinkatu zuen, esanez: «Orain utz dezakezu, Jauna, zeure morroi hau bakean hiltzen, Zeuk hitzeman bezala. Ikusi dute nire begiok zuegandiko salbamena, herri guztien aurrean Zuk aurkeztua: nazioak argitzeko argia eta zure herri Israelen ospea». Haurraren aita-amak harriturik zeuden haurraz esaten zirenekin. Eta Simeonek bedeinkatu egin zituen, eta haurraren ama Mariari esan zion: «Begira, israeldar asko erortzeko eta beste asko altxatzeko ipinia dago hau; eztabaida sortzen duen ezaugarri izango da, horrela bihotz askotako asmoak agerian gelditu daitezten. Eta zuri ezpata batek alde zuri zulatuko dizu arima».

Simeonen profeziak lausotu egin du nolabait Jesusen jaiotzaren alaitasun gardena. Kontakizun biblikoak Gizakundearen gozamen sakona gustarazten badigu ere, aldi berean eragotzi egiten digu Jainkoak aukeraturako bideez kanpoko gogo-berotasunean atsedean hartzea.

Eguberri ondoko 5. eguna

San Tomas Becket, *gotzaina eta martiria*

San David, *erregea*

Oraindik hitzak zizelkatu besterik egiten ez duen Haur honengan ezagutu ditzakegu, hazitan bezala, Zerbitzariaren mesianismoaren zeinu batzuk, gizadiaren atetik sartu eta bere berezko askatasun mugagabea gizadi beronen legetara mugatu baitu. Jaioberriaren samurtasunak ez du ezkutatu «pertsona eztabaidatua» izatera deitua izan den gizon honen patua, Herodesek ondo dakien bezala. Tenpluan aurkeztu duten Haurraren esanekotasunak gozoki irudikatu du alde zuzenetik Berpiztuaren otzantasuna, esku zaurituak eta bihotz irekia eskaini dituenarena.

Eguberri ondoko 6. eguna
San Felix 1.a, 26. aita santua

San Joan Apostoluaren 1 gutunetik 2, 12-17: Jainkoaren nahia egiten duenak betiko irauten du. Sal 95: Poztu bedi zerua, alaitu lurra.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 36-40.

Aldi hartan, bazen profetesa bat Ana zeritzana, Fanuelen alaba, Aserren jatorrikoa. Urteetan oso aurreratua zen; gaztetan ezkondu eta zazpi urtez senarrarekin bizi ondoren, alargun gelditu zen, eta bazituen laurogeita lau urte. Gau eta egun tenpluan egoten zen, barau eta otoitz, Jainkoa zerbitzaten. Ordu hartan han gertatu zen, eta Jainkoa goresten eta haurraz mintzaten hasi zitzairen Jerusalem askatasunaren zain zeuden guztiei. Jesusen gurasoak, dena Jaunaren legeak agintzen duen bezala bete ondoren, Galileara itzuli ziren, beren herri Nazaretera. Haurra hazten eta indartzen zihoan, jakinduriaz betetzen ari zen eta Jainkoaren grazia berekin zuen.

Ana profetesak bizitza osoa egin du Jainkoaren presentziaren bila. Gau eta egun, eskura dituen baliabide guztiez, emakume hau poliki-poliki joan da hezten bere begirada, tenpluko mugimendu zaratsuetan hautematen dituen seinaleen esanahia argitu ahal izateko. Eguneroko entrenamendu honi esker, gai izan da Israelen askatzaileari antzemateko jaioberri bat bezalako leku xume batean. 2023. urte honen amaiera eskerrak emateko garaia dugu Jainkoak egunez egun oparitu dizkigun Ebanjelioaren zeinu ugariengatik, jende artean eta eguneroko zereginetan. Une egokia da, baita ere, grazia eskatzeko aurrera begira jarraitu ahal izateko, Espirituaren jakinduriaren begirada zorrotzaz.

FAMILIA SANTUA

San Silvestre I.a, *aita santua*Santa Columba, *birjina eta martiria*

Sirak 3, 3-7. 14-16. 17b (gr.2-6.12-14).

Jaunak seme-alaben gainetik ohoratzen du aita, eta amaren aginpidea ezartzen bere umeen gain. Aita ohoratzen duenak bere bekatuak ezabatzen ditu, eta ama gorensten duenak ondasunak pilatzen. Aita ohoratzen duenak poza izango du bere seme-alabengan, eta otoitz-egunean entzun egingo dio Jaunak. Aita ohoratzen duena luzaro biziko da, eta Jaunari obeditzen dionak atsegin ematen dio amari. Ene seme, zaindu aita zahartzaroan eta ez eman nahigaberik bizi den artean; burua galtzen hasten bada ere, izan barkabera eta ez gutxietsi bizi den bitartean; aitari emandako laguntza ez da ahaztuko, bekatuen ordain izango duzu. Atsekabealdian gogoan izango zaitu Jaunak.

Sal 127: Zorionekoa Jaunari begirune diona, eta haren bideetan dabilena.

San Paulok Kolosarrei 3, 12-21.

Senideok: Jantzi zaitezte bihotz errukitsuz, onberatasunez, apaltasunez, otzantasunez, eroapenez, Jainkoaren herri aukeratua, santua eta maitea zaretenez gero. Eramazue ondo elkar eta barkatu bata besteari, inork inoren aurka ezer balu. Jaunak barkatu zizuen bezala, barkatu zuek ere elkarri. Eta horien guztien gainetik, izan maitasuna, hori baita elkartasun betearen lokarria. Kristoren bakeak agindu beza zuen bihotzean, bake horretara deituak zaretenez gero gorputz batean, eta izan esker oneko. Bizi bedi oparo zuengan Kristoren hitza; irakatsi eta aholkatu jakinduria osoz; kantatu Jainkoari bihotzez eta esker onez salmoak, gorazarreak eta kantu inspiratuak. Edozer esaten nahiz egiten duzuela, egizue dena Jesu Kristo Jaunaren izenean, haren bidez Jainko Aitari eskerrak emanez. Emazteok, zaudete zeuen senarren mende, Jaunaren jarraitzaileei dagokien bezala. Senarrok, maita itzazue zeuen emazteak, eta ez izan gogor haiekin. Seme-alabok, egin zeuen

FAMILIA SANTUA

San Silvestre I.a, *aita santua*
Santa Columba, *birjina eta martiria*

gurasoen esana gauza guztietan, hori nahi baitu Jaunak. Gurasook, ez sumindu zeuen seme-alabak, gogogabetu ez daitezten.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 2, 22-40.

Moisesen legearen arabera, amari garbikuntza egiteko unea iritsi zitzaionean, gurasoek Jerusalemara eraman zuten Jesus, Jaunari aurkezteko. Izan ere, honela dago agindua Jaunaren legean: «Lehen-seme guztiak Jaunari sagaratuko dizkiozue». Jaunaren legean ezarritako oparia ere eskaini behar zuten: «Bi usapal edota bi usakume». Bazen Jerusalemen Simeon izeneko gizon bat, gizon zintzo eta jainkozalea, Jainkoak Israel noiz kontsolatuko zain zegoena. Espiritu Santua berekin zuen, eta aditzera emana zion ez zela hilko Jaunaren Mesias ikusi arte. Eta Espiritu Santuak eraginda tenplura joan zen. Legeak agintzen zuena betetzeko gurasoek Jesus haurra tenplura eraman zutenean, Simeonek haurra besoetan hartu eta Jainkoa bedeinkatu zuen, esanez: «Orain utz dezakezu, Jauna, zeure morroi hau bakean hiltzen, Zeuk hitzeman bezala. Ikusi dute nire begiok zuegandiko salbamena, herri guztien aurrean Zuk aurkeztua: nazioak argitzeko argia eta zure herri Israelen ospea». Haurraren aita-amak harriturik zeuden haurraz esaten zirenekin. Eta Simeonek bedeinkatu zituen, eta haurraren ama Mariari esan zion: «Begira, israeldar asko erortzeko eta beste asko altxatzeko ipinia dago hau; eztabaida sortzen duen ezaugarri izango da, horrela bihotz askotako asmoak agerian gelditu daitezten. Eta zuri ezpata batek alde zuzeneko zulatuko dizu arima». Bazen profetesia bat ere, Ana zeritzana, Fanuelen alaba, Aserren jatorrikoa. Urteetan oso aurreratua zen; gaztetan ezkondu eta zazpi urtez senarrarekin bizi ondoren, alargun gelditu zen, eta bazituen laurogeita lau urte. Gau eta egun tenpluan egoten zen, barau eta otoitz, Jainkoa zerbitzatzen. Ordu hartan han gertatu zen, eta Jainkoa goresten eta haurraz mintzatzen hasi zitzaian Jerusalem askatasunaren zain zeuden guztiei. Jesusen gurasoak, dena Jaunaren legeak agintzen duen bezala bete ondoren,

FAMILIA SANTUA


San Silvestre I.a, *aita santua*Santa Columba, *birjina eta martiria*

Galileara itzuli ziren, beren herri Nazaretera. Haurra hazten eta indartzen zihuan, jakinduriaz betetzen ari zen eta Jainkoaren grazia berekin zuen.

Jesusen familia sakratua izan zela imajinatzeko tentazioa izaten dugu batzuetan, haietako kide bakoitza estasi iraunkor moduko batean bizi omen zelako; baina errealitatea oso bestelakoa izango zen. Lukasek dio, Familia Santua, legeak agindutako guztia bete ondoren, Nazaretera itzuli zela. Haragitzean, Jainkoak ez dio gizatasunari itzulinguru bat eman, baizik eta bizitza, haztea eta helduz joatea aukeratu du, pertsona orok egiten duen bezala: poliki-poliki, herrixka baten esparru estuan, bere ohiturak, hizkuntza, kultura... dituen batean. Nazaretera itzultzeak Jerusalemgo espazio sakratua uztea esan nahi du, eguneroko bizitzan errealismo osoz murgiltzeko, eta hori, hogeita hamar urtez gau eta egun. Gurearen antzeko errutina batean murgildurik, Jainkoaren Semeak giza harremanen benetako esperientzia bizi izan du, non poza eta zentzua aurkitzen baititugu, baina baita erronkak eta zailtasunak ere. Nazareteko familia ez da, beraz, sakratua arazorik izan ez duelako, baizik eta Jesusek, Mariak eta Josek beren harremanak maitasunez bizi izan dituztelako, egunero berriz hasteko prest eta norberaren probetxutik irteteko gai direlarik, bestearen bila joate aldera.



**OTOITZAK
ETA DEBOZIOAK**



Otoitzak eta Debozioak

EGUNERO

GURUTZE SANTUAREN

† Gurutze santuaren seinaleagatik,
gure etsaiengandik
zaindu gaitzazu, Jauna, gure Jainkoa.
Aitaren, eta Semearen
eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

GURE AITA

Gure Aita, zeruetan zarena:
santu izan bedi zure izena,
etor bedi zure erreinua,
egin bedi zure nahia,
zeruan bezala lurrean ere.
Emaguzu gaur
egun honetako ogia;
barkatu gure zorrak,
guk ere geure zordunei
barkatzen diegunez gero;
ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen,
baina atera gaitzazu gaitzetik.

AGUR MARIA

Agur, Maria, graziaz betea:
Jauna da zurekin:
bedeinkatua zara zu
andre guztien artean,
eta bedeinkatua da
zure sabeleko fruitua Jesus.
Santa Maria,

Jaungoikoaren ama,
erregutu ezazu
gu bekatarion alde
orain eta
gure heriotzako orduan. Amen.

AINTZA AITARI

–Aintza Aitari eta Semeari eta Espiritu Santuari.
–Hasieran zen bezala, orain eta beti,
gizaldi eta gizaldietan. Amen.

ANGELUS (goizean, eguerdian eta arratsean)

- Jaunaren aingeruak Mariari adierazi zion.
- Eta Espiritu Santuaren egitez sortu zuen.
Agur, Maria, graziaz betea...

- Hona hemen ni, Jaunaren mirabea.
- Gerta bekit zuk diozun bezala.
Agur, Maria, graziaz betea...

- Eta Jainkoren Semea gizon egin zen.
- Eta gure artean bizi izan zen.
Agur, Maria, graziaz betea...

- Otoitz egizu gure alde, Jainkoaren Ama santu horrek.
- Jesu Kristo gure Jaunaren aginduak irabaz ditzagun.

Egin dezagun otoitz: Isur ezazu, Jauna, gure bihotzean zeure grazia, eta, aingeruak esanik, zure Seme Jesu Kristo gizon egin dela jakin dugunok, egizu, haren nekaldi eta gurutzearen bidez eta Andre Mariaren otoitzari esker, irits gaitezela piztueraren ospera. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

REGINA COELI (Zeruko erregina) (Pazkoaldian)

- Zeruko erregina, poztu zaitez, aleluia.
 - Sabelean ekarri zenuena, aleluia.
 - Piztu baita berak esan bezala, aleluia.
 - Otoitz Jainkoari gure alde, aleluia.
-
- Egizu pozaz gainez, Andre Maria, aleluia.
 - Jauna egiaz piztu baita, aleluia.

Egin dezagun otoitz: Jesu Kristo gure Jauna, zeure Semea, piztuz, mundua pozez bete duzun Jainkoa; egizu, arren, Andre Maria haren eta gure Amaren otoitzari esker, irits gaitzela betiko pozak goatzera. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

ARRATSEAN

ESKERRAK EGUNA BUKATZEAN

Eskerrak, Jauna, / eguna bukatzean / zuri eskertzeko aukera dugulako, / zure heriotzaren merezimenduak / eta Eukaristiako ogia / alaitasun betean / eta zurekiko elkartasunean bizi izan ditugulako; / fedea, maitasuna, esperantza / eta gure loa, / gorespen apal bihurtzeko, / zure graziaren ontasun hau / bizi izan dugulako.

ESPIRITU SANTUARI

VENI SANCTE SPIRITUS

(Mendekosteko sekuentzia)
(Orixe, ukitu bakan batzuekin)

Zatoz, bai, Gogo Guren eta bidal zerutik zure argi izpia.
Zatoz, gaixoen Aita; zatoz, dohain emaila; zatoz, bihotzen argi.
Poz-emaila bikain, etxelagun atsegin, sargorian haize fin.

Lan artean atsedean, nekean aringarri, malkoetan pozgarri.
Zure laguntza gabe ez du pertsonak ezer, ez du ezer on denik.
Garbi, zikin dagoena; busti, lehor dagoena; zauriak oro senda.
Zurrun dena bigundu; makur dena zuzendu, hotz dagoena berotu.
Zugan usteon duten zintzoei isuri zazpi dohain zerutik.
Zintzo saria eman, osasun hil artean, poza betieran.
Amen.

VENI CREATOR SPIRITUS

Zatoz Zintzoen Barnera
(Orixe, ukitu bakan batzuekin)

Zatoz zintzoen barnera,
Gogo Guren sortarazle;
bete graziaz bihotz hauek, zu baitzaituzte egile.
Poz-emaile deritzozu,
Goiko Jaunaren dohain, ur bizi, su, maitasun, eta gantzu zerukoia.
Zazpi dohainen isurle,
Aitaren eskuin hatza, apostoluei hitzemana, haien ahoetan hitza.
Argi iezaguzu zentzua, suaz sutu bihotza,
indar horretaz sendatu argal daukagun gorputza.
Haiza gugandik etsaia, eman berehala bakea,
zu aurretik zaitugula, urrun iezaguzu kaltea.
Erakuts iezaguzu Aita, harekin Semea ere;
bien Arnasa duguna sinets dezagun beti ere.
Aitari, eta hilengandik berpiztu zen Semeari eta Gogo Gurenari
edertasun orain eta beti. Amen.

MENDEKOSTE

Espirituaz bizitza aukera!
(<https://youtu.be/VwW5YZqSUwU>)

Espiritu santua
maitasun sorrera,
hamaika koloredun
gizarte bat bera,
baztertua senide,
arrotza etxera,
otoitzaren indarraz
bizitza aukera.

Zabal espiritua
bete zure hitza:
gure bihotz barruak
garbitzeko giltza,
txikiaren babesa,
haizete bortitza,
Zugaz gura genduke
aukera bizitza.

Zure jakituria
eta pentsaera
Elizaren bideak
eroan hobera,
josi esku bihotzak
guztiok batera
abestuz guk dagigun
bizitza aukera.

(Bideo egilea eta kantaria:
Ana Berrizbeitia.
Hitzak: Jose Mari Kortazar)

EUKARISTIA

BEDEINKATUA JAINKOA

(Eukaristia adoratzean)

Bedeinkatua Jainkoa.

Bedeinkatua haren izen santua.

Bedeinkatua Jesu Kristo, egiazko Jainkoa eta egiazko gizona.

Bedeinkatua Jesusen izena.

Bedeinkatua haren bihotz txit santua.

Bedeinkatua haren odol txit baliotsua.

Bedeinkatua Jesus aldareko sakramentu santuan.

Bedeinkatua Espiritu Santu kontsolatzailea.

Bedeinkatua Jainkoaren Ama, Maria txit santua.

Bedeinkatua Mariaren sortze santu eta garbia.

Bedeinkatua haren zeruratze aintzatsua.

Bedeinkatua Maria birjina eta amaren izena.

Bedeinkatua San Jose, haren senar txit garbia.

Bedeinkatua Jainkoa bere aingeru eta santuengan.

Egin dezagun otoitz.

Jesu Kristo gure Jauna,

sakramentu miresgarri honetan

zeure nekaldiaren oroitzapena utzi diguzu;

arren erregutzen dizugu:

beneratu ditzagula zure gorputz-odolen misterio santuak,

zure salbamenaren fruituak geuregan etengabe sentitzeko moduan.

Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan. Amen.

GURUTZE BIDEA

HASIERA

V/. - Adoratzen zaitugu, Kristo, eta bedeinkatzen.

R/. - Zeure gurutze santuan mundua salbatu zenuelako.

V/. - **Egin dezagun otoitz.**

Jesu Kristo gure Jauna!

Gurutzea hartzera gonbidatu gaituzu,
eta gure aurretik zoaz etsenplu emanaz;
emazkiguzu zeure argia eta grazia:

Gurutze-bide honetan zure urratsak gogoan hausnartzean,
izan gaitzela gai eta izan dezagula gogo bizia zuri jarraitzeko.

Nazareteko Andre Maria,

Doloretako Ama izan zinen;

inspiratu guri,

Jainko den zeure Semeari bide honetan atsekabez jarraitzean
zeuk izan zenituen maitasun-sentimenduak.

R/. - Amen.

GELDIALDIAK

1. Lehen geldialdia: Jesus hiltzera kondenatua.

(geldialdi bakoitzaren ondoren

segidako hau errepikatzen da)

V/. - Adoratzen zaitugu, Kristo, eta bedeinkatzen.

R/. - Zeure gurutze santuan mundua salbatu zenuelako.

2. Bigarren geldialdia: Jesus gurutzea daramala.
3. Hirugarren geldialdia: Jesus erori lehen aldiz.
4. Laugarren geldialdia: Jesusek Amarekin topo.
5. Bosgarren geldialdia: Zirenarrak Jesusi lagundu.
6. Seigarren geldialdia: Veronikak Jesusi aurpegia xukatu.
7. Zazpigarren geldialdia: Jesus erori bigarren aldiz.
8. Zortzigarren geldialdia: Jesus eta Jerusalemgo emakumeak.

9. Bederatzigarren geldialdia: Jesus erori hirugarren aldiz.
10. Hamargarren geldialdia: Jesus erantzi eta biluztu.
11. Hamaikagarren geldialdia: Jesus gurutzean josi.
12. Hamabigarren geldialdia: Jesus gurutzean hil.
13. Hamahirugarren geldialdia: Jesus gurutzetik jaitsi.
14. Hamalagarren geldialdia: Jesus hilobian.
15. Hamabosgarren geldialdia: Jesus berpiztu.

V/. - Egin dezagun otoitz.

Begiratu, Aita, begi onez zeure seme-alaba hauei;
Jesu Kristo gure Jaunak ez zuen dudarik izan,
gu guztiongatik gurutzeko heriotzara joateko;
egizu:

haren nekaldiaz eta gurutzeaz gogoeta egin ondoren,
parte har dezagula harekin batean haren Piztueraren aintzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez eskatzen dizugu,
Errege bizi baita zurekin gizaldiz gizaldi.
R/. - Amen.

ANDRE MARIARI

SALVEA

Agur, erregina, ama errukiorra, gure bizi, gozo eta itxaropena, agur!
Zuri deiez gaude Evaren ume erbestetuok; zuri aiezka, antsiatz eta
negarrez negar-herri honetan.

Ea, bada, itzul itzazu gugana zeure begi errukitsu horiek, eta erbeste
honen ondoren erakuts iezaguzu Jesus, zure sabeleko Seme bedeinkatu
hori.

O bihozbera! O errukiorra!

O Maria Birjina gozoa!

- Otoitz egizu gure alde, Jainkoaren Ama santua.
- Jesu Kristo gure Jaunaren promesak iristeko gai izan gaitezen.

ZURE BABESERA GATOZ

(Sub tuum praesidium)

Zure babesera gatoz ihesi, Jainkoaren Ama;
gure otoitzei ez eman esker txarrik behar ordu estuan;
arrisku guztietatik onez atera gaitzazu,
Birjina eder eta bedeinkatua.

ARROSARIO SANTUA

POZEZKO MISTERIOAK

(astelehena eta larunbata)

1. Jainkoaren Semea gizon egina.
2. Andre Mariak bisita Elisabet lehengusinari.
3. Jainkoaren Semea jaio.
4. Jesus Haurra Tenpluan aurkeztu.
5. Jesus Haurra galdu eta Tenpluan aurkitu.

DOLORETAKO MISTERIOAK

(asteartea eta ostirala)

1. Jesusen otoitza Getsemaniko baratzean.
2. Jesus zigortua.
3. Jesusen arantzazko koroia.
4. Jesus gurutzea lepoan duela.
5. Jauna gurutzean hil.

AINTZAZKO MISTERIOAK

(asteazkena eta igandea)

1. Jesus Jauna piztu.
2. Jesus Jauna zerura igo.
3. Espiritu Santua jaitsi.
4. Andre Maria zeruratu.
5. Andre Maria koroatu.

MISTERIO ARGITSUAK

(osteguna)

1. Jesus bataiatua Jordan ibaian.
2. Jesus agertu Kanako ezteietan.
3. Erreinua hots egin, bihotz-berritzeko deia eginez.
4. Jesus antzaldatu.
5. Jesusek Eukaristia eratu.

OTOITZA (misterio bakoitzaren ondoren)

Andre Maria, graziazko Ama, errukizko Ama onbera, zaindu gu geure etsaietatik,
eta babestu orain eta geure heriotzako orduan. Amen.

ANDRE MARIAREN LETANIAK

Erruki, Jauna. Erruki, Jauna.
Kristo, erruki. Kristo, erruki.
Erruki, Jauna. Erruki, Jauna.
Kristo, entzun guri. Kristo, entzun guri.
Kristo, aditu guri. Kristo, aditu guri.
Zeruko Aita Jainkoa. Erruki gutaz.
Jainko Semea, munduaren Salbatzailea. Erruki gutaz.
Jainko Espiritu Santua. Erruki gutaz.
Hirutasun Santua, Jainko bakarra. Erruki gutaz.
Andre Maria Santua. Otoitz gure alde.
Jainkoaren Ama Santua. Otoitz gure alde.
Kristoren Ama. Otoitz gure alde.
Elizaren Ama. Otoitz gure alde.
Ama txit garbia. Otoitz gure alde.
Salbatzailearen Ama. Otoitz gure alde.
Ama txit garbia. Otoitz gure alde.

Elkartasun Berriaren Kutxa. Otoitz gure alde.
Ama Jainkoari eskaintzearen eredua. Otoitz gure alde.
Zerura jasotako erregina. Otoitz gure alde.
Arrosario Santuaren erregina. Otoitz gure alde.
Jesusen Lagundiaren erregina. Otoitz gure alde.
Maria, fededun handia. Otoitz gure alde.
Maria, Hitzaren entzule fededuna. Otoitz gure alde.
Maria, Jaunaren Hitzaren gordetzailea. Otoitz gure alde.
Maria, Hitzaren hausnartzaile handia. Otoitz gure alde.
Maria, Jesusen jarraitzaile leial eta iraunkorra. Otoitz gure alde.
Jesusen mezuarekin bat egin duzun Maria. Otoitz gure alde.
Maria, Jainkoaren herriko lagun alai. Otoitz gure alde.
Maria, gizadi berriaren eredua. Otoitz gure alde.
Maria, ama doloretakoa. Otoitz gure alde.
Maria, esker onekoa. Otoitz gure alde.
Maria, bisitari fina. Otoitz gure alde.
Maria, eztei-lagun aztia. Otoitz gure alde.

Jainkoaren Bildotsa

- Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua. Barkatu, Jauna.
- Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua. Entzun, Jauna.
- Jainkoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua. Erruki, Jauna.
- Otoitz egizu gure alde Jainkoaren Ama santu horrek.
- Jesu Kristo gure Jaunaren promesak eskuratu ditzagun.

Egin dezagun otoitz.

Jainko Jauna, pozez bete zenuen mundua
Jesu Kristo zeure Seme eta gure Jauna piztean;
mesedez, haren eta gure Ama Maria Birjinaren otoitzari esker,

libra gaitzazu mundu honetako tristuratik
eta emaguzu zeruko poza.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

IGNAZIOTAR ESPIRITUALITATEA

INAZIO,

gure patro handia, / Jesusen konpainia / fundatu eta dezu armatu, / ez
da ez etsairik / jarriko zaizunik inolaz aurrean / gaurko egunean,
nahiz betor / Luzifer deabrua / utzirik infernua.

Zure soldaduak / dirade aingeruak, zure gidaria / da Jesus handia.

Garaitu ditu / zure konpainiak / etsaiak.

Ez dauka fedea, / ez kristau nireak, ez dauka beldurrik / inongo aldetik.
Inazio hor dago, / beti ernai dago, armetan jarria / dauka konpainia,
txispaz armaturik / bandera zabalik, gau ta egun / guk guztiok / bakea
dezagun, beti gau eta egun.

Loiolako Ignazioren Otoitza

Hartu, Jauna, eta onartu
nire askatasun guztia, nire oroimena,
nire adimena eta nire gogo osoa,
dudan eta daukadan guztia.

Zeuk eman zenidan,
zeuri, Jauna, itzultzen dizut, Jauna.
Zurea da dena.

Egin erabat nahi duzuna.
Emadazu zeure maitasuna eta onginahia,
aski dut hori. (Gogo Jardunak 234)

BANDERA BIEN SOLASA

(Gogo Jardunak 147)

(Nik neuk Kristoren arima izateko eskari-otoitza)

Eskatu nahi diot Andre Mariari
irits diezadala grazia bere Seme eta Jaunagandik
bere banderapean har nazan.
Lehenik eta behin, pobretasun espiritual handiengan
eta, jainkozko bere Maiestateari hala baderitzo
eta hautatu eta onartu nahi banau,
baita txikiagoa datekeen pobretasun errealean ere;
bigarren, laidoak eta irainak jasaten,
haietan bera gehiago imitatzeke,
baina jasan ahal ditzadala inoren bekaturik gabe
eta beraren jainkozko Maiestatea atsekabetu gabe.
Eta, horrenbestez, Agur Maria bat.

Eskatu nahi diot beste horrenbeste Semeari,
irits diezadan Aitagandik;
eta, horrenbestez, Kristoren Arima.

Eskatu nahi diot beste horrenbeste Aitari,
berak eman diezadan.
Eta errezatu Gure Aita.

GAUZA GUZTIEN BETIKO JAUNA

(Gogo Jardunak 98)

*(Neure buru eskaintza egin nahi dut;
horretarako, laguntza eskatzen diot
Jainko Jaunari)*

Gauza guztien betiko Jauna,
neure eskaintza noa egitera,
zure mesede eta laguntzarekin,
mugagabeko zure onberatasunaren
eta zeruko gorteko
santu guztien aurrean,
nahi dudala eta opa
eta nire erabaki deliberatua dela
–soilik izan dadila zure zerbitzu eta gorespenik handiena–
zu imitatzea, jasanez
bai irain eta laido oro,
bai pobretasun oro nola erreal ala espiritual.
Nahi izango ahal du zure Maiestate guztiz santuak
ni hautatzea eta onartzea
biziera eta izaera horretan.

EGUNEROKO AZTERKETA

(Gogo Jardunetan [43] inspiratua)

1. Argia eskatu nahi diot Jaunari, bizi dudan eguneko gorabeherak ikusteko, haren begiez eta ez neureez.
2. Eskerrak eman nahi dizkiot Jainkoari, gaur gertatu zaidan guztiagatik.
3. Begiratu bat eman nahi diot bizi izan dudan egun honi; saiatu nahi dut ikusten nola egin zaidan Jainkoa presente eta nola erantzun diedan nik haren deiei.
4. Barkazioa eskatu nahi diot Jaunari, eta damutzen naiz halako maitasunari eman diodan erantzun eskasaz.
5. Eskuzabalago izateko erabakia hartzen dut, hark eskatzen didana emateko orduan.

PRESTATZEKO OTOITZA

(Gogo Jardunak 46)

*(Neure bizitzan barne begiak
garbi gorde ahal izateko,
neure burua engainatu nahi gabe gordetzeko,
laguntza eske)*

Laguntza eskatu Jainko geure Jaunari,
nire asmo, egintza
eta eragiketa guztiak
garbi norabidetuak izan daitezen
jainkozko bere Maiestatearen
zerbitzu eta aintzara.
Emadazu, Jauna,
benetako askatasuna;
ez nazala aparta zugandik, ez ezerk, ez inork,
eta gauza orotan eta pertsona guztietan
maita eta zerbitza zaitzadala zu.

ZER EGIN DUT KRISTOGATIK

(Gogo Jardunak 53)

*(Jesusek lurreko bizitzan egin duena begi aurrean dudala,
zer egin dut nik berari erantzuteko?)*

Kristo gure Jauna
aurrean eta gurutzean josita iruditurik,
hizketatxo bat egin:
nola etorri den Egile izatetik gizon izatera,
eta betiko bizitzatik aldiko bizitzara,
eta horrela ene bekatuengatik hiltzera.
Beste horrenbeste neroni begira:
zer egin dudan Kristogatik,

zer egiten dudan Kristogatik,
zer egin behar dudan Kristogatik;
eta horrela, gurutzean esekita ikusiz,
pentsatu buruak ematen duen guztia.

LOIOLAKO SEMEA GURE ZAINDARIA

Loiolako semea gure zaindaria,
entzun, arren, gure eskaria.
Jainkoaren aurrean izan zaitez
gure lagun,
zerua irabazi dezagun.

1. Iruñean zauriturik,
Loiolan santutu,
Andre Mariaren bitartez
zinen bihotz-berritu,
santu handia,
zerutik iguzu lagun,
gure bihotzak berri ditzagun.-R/.
2. Zure gazte bizitza
bekataria zen,
ta gero santutasunaren
mendirra igo zinen.
Gure bihotzak
zurekin jaso ditzagun,
Jaunaren aintza bila dezagun.-R/.

KRISTOREN ARIMA

(Ignazioren deboziokoa)
(*anonimoa, XVI. mendea*)

Kristoren arima, santu egin nazazu.
Kristoren gorputza, senda nazazu.
Kristoren odola, birbiztu nazazu.
Kristoren saihetseko ura, garbi nazazu.
Kristoren nekaldia, indartu nazazu.
Oi Jesus ona, entzun nazazu.
Zeure zaurietan gorde nazazu.
Zugandik alde egiten ez utzi niri.
Infernuko etsaiengandik libra nazazu.
Heriotzako orduan deitu nazazu,
eta joanarazi nazazu zugana,
zure santuekin batean
mendez mende gorets zaitzadan. Amen.

GOGOETARAKO

NOIZ ARTE JAUNA?

Balendiñe Albizu (1945) (interneten)

Noiz arte Jauna erbestetuta
sakabanaturik ludian?
Noiz bakean denok batuta
ikusiko gera gure aberrian?

Noiz Jauna gizonak utzi
zurkaitz ta berekoi izaten?
zergatik ez onbidez jantzi
herriak zoriok izan daitezen?

Noiz gizonaren begiak
noiz ote dira zabalduko?
ta adimen garbiz, alde guziak,
argi ote ditu ikusiko?

Ilunpe onetan ero antzera,
gizonak zer egiten duan ez daki,
beste gudaren beldur gera,
Jauna, erruki zaitez, erruki!

O Jauna! gizonen bihotzetan
ez dago esker Jainkorik;
elkar maiteko bagenu benetan
ez litzake izango zoritxarrik.

FATIMAKO ANDRE MARIARI OTOITZA

Frantzisko aita santua (2017-05-12)

Aita Santuak

Agur Erregina, Fatimako Andre zorionsua, Bihotz Garbiko Andrea,
babes eta bide Jainkoagana joateko.

Zure eskutik datorren Argiaren erromes, eskerrak demazkiot Jainko
Aitari, parte hartzen duelako, beti eta nonahi, gizakiaren historian;

zuk leku honetan iragartzen duzun Bakearen erromes, goratzen dut
Kristo, geure bakea, eta adiskidetasuna nahi diot eskatu munduarentzat,
herri guztien artean;

Espirituak arnasten duen Esperantzaren erromes, profeta nator eta
mezulari, guztiei oinak garbitzeko, guztiok batzen gaituen mahai bat
beraren inguruan.

Errepika batzarrak abestua:

Ave o clemens, ave o pia! Salve Regina Rosariae Fatimae. Ave o clemens, ave o pia! Ave o dulcis Virgo Maria.

(Agur oi bihozbera, agur oi errukior! Agur Fatimako Arrosarioaren Erregina. Agur oi bihozbera, agur oi errukior! Agur oi Ama Maria gozoa!)

Aita Santuak

Agur, bizia eta gozotasuna; agur, esperantza gurea, Oi Andre Maria Erromesa, oi Erregina unibertsala!

Zeure hondoaren hondoenetik, zure Bihotz Garbitik, errepara zuk gizakiaren gozotasunei Zeruko Aberrira erromes doanean;

erreparatu giza familiaren nekeei, malko-ibar honetan antsiaz eta negarrez.

Zeure hondoaren barnenetik, zeure Bihotz Garbitik, apaindu gu zeure koroaren harribitxien dirdiraz eta egin gu erromes zu izan zinen bezalako erromes.

Zeure amatasun-irribarrez, handitu Kristoren Elizaren poza.

Zeure begiratu gozoaz, sendotu Jainkoaren seme-alaben esperantza.

Jaunagana jasotzen dituzun otoitz-eskuez, batu gu guztiok giza familia bakar batean.

Errepika...

Aita Santuak

Oi bihozbera, oi errukior, oi Ama gozoa,

Fatimako Arrosarioaren Erregina!

Egizu, jarrai dezagula Frantzisko eta Ihazinta dohatsuen etsenplua, eta Ebanjelioa hots egiteari emanak diren guztiena.

Egingo ditugu, horrela, bide guztiak; izango gara bide guztietan erromes, botako ditugu murre guztiak eta gaindituko muga guztiak, hiri-aldiri guztietara joanez, haietan agertzeko Jainkoaren zuzentasuna eta bakea.

Izango gara, Ebanjelioaren pozez, Eliza zuriz jantzia, Bildotsaren odolean zuritutako xalotasunez, gaur ere isuria den odolean, gerla guztietan, bizi dugun mundua deseginez.

Eta izango gara, horrela, zu zeu bezala, munduko bideak argitzen dituen su-adarraren irudi, agertuz guztiei Jainkoa badela, Jainkoa hemen dagoela, Jainkoa bere herri honetan bizi dela, atzo, gaur eta betiere.

Errepika...

Aita Santuak fededun guztiekin

Agur, Jaunaren Ama, Maria Birjina, / Fatimako Arrosarioaren Erregina!
Bedeinkatua zu andre guztien artean, / pazko-argiz jantzia den Elizaren irudi zara,
gure herri honen harrotasun zara, / gaitzaren erasoen kontrako garaipen zara.

Aitaren Maitasun errukitsuaren Profezia,
Semearen Berri Onaren Iragarpenaren Irakasle,
Espiritu Santuaren Su dirdaitsuaren Seinale,
irakatsi guri, poz- eta neke-ibar honetan,
Aitak jende xumeari agertzen dizkion betiko egiak.

Azaldu guri zure mantu babeslearen indarra.
Zeure Bihotz Garbian, izan zaitez bekatarien babesleku
eta Aitaganako bide.

Neure anai-arrebekin, / Fedean, Esperantzan eta Maitasunean, bat eginik, / zuri natzaizu eskaintzen.

Neure anai-arrebekin bat eginik, / zugatik, Jainkoari natzaio sagaritzen, oi Fatimako Arrosarioaren Andre Maria.

Eta, azkenean, / zure eskuetatik datorren Argiak inguratuko nauenean, aintza emango diot Jaunari menderen mendetan.- Amen.

ZURE ASKATASUNAGATIK

J. A. Artze (1973)

Zure askatasunagatik
borrokatzen banaiz
kantatzen badut,
ez dut, urrikia dizudalako
kantatzen

ez eta zure malkoak
xukatzeagatik bakarrik

lurrak ura
eta sua
zuhaitzek haizea
harkaitzak uhinak bezala
neuk zu zoriontsu
libre behar zaitudalako baizik

zure askatasunean
zure zorionean ez ezik
ez baitut neurea
beste inun ikusten

